

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

***EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOEN LANKETA
-EGOD egitasmoa-***

-Eranskinak-

2015-06-24

AURKIBIDEA

1. Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa. EGOD egitasmoa (2014.04.02).....	2
2. Foroaren 1. saiorako aurkezpena (2014.06.03).....	44
3. Foroaren emaitza gordinak: 1. saioko taldeetan jasotako emaitzak (2014.06.03).....	65
4. Foroaren 2. saiorako aurkezpena (2014.06.26).....	124
5. Foroaren emaitza gordinak: 2. saioko taldeetan jasotako emaitzak (2014.06.26).....	154
6. Foroaren 2. saioaren emaitzen bilketa antolatua (2014.07.16).....	188
7. Delphi 1. saioko edukien bilduma-txostena (2014.09.02).....	205
8. Ikerketa Kualitatiboaren txostena (2014.12.05).....	250
9. Emaitzen bilduma bateratua: Gizarte Foroan, Delphi teknikan eta Eztabaida Taldeetan jasotako emaitzak (2015.02.26).....	335
10. Inkesta ereduak: euskaraz eta gaztelaniaz (2014.12.17).....	379
11. Inkesta kuantitatiboaren emaitzak: jarrerak eta iritziak (2015eko ekaina).....	388
12. Inkesta kuantitatiboaren emaitzak: aldagai anitzeko analisisa (2015.01.22).....	456
13. 1. faseko EGODEko partaideen zerrenda.....	469
14. Euskararen Aholku Batzordeko <i>Euskara 21</i> Batzorde-Atal Bereziko kideen zerrenda.....	472

Euskararen
Gaineko
Oinarrizko
Diskurtsoen
lanketa

Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa

-EGOD egitasmoa-
2014.04.02

Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa

-EGOD egitasmoa-

2014ko apirilaren 2an

Edukia

1. Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketaren zergatia	5
2. Hasi-masiak: erabileraren datuak	6
3. Oinarriko zenbait axioma elkarbizitza linguistikorako	7
4. Hazkunderako mugak: jarrerak, gaitasuna eta erabilera.....	8
5. Aurrekariak: euskararen gaineko diskurtso egituratuak eta diskurtsoei buruzko ikerketen egoera	9
5.1. Euskararen gaineko diskurtso egituratuak.....	9
5.1.1. Euskara sustatzeko kontsentsu instituzionalaren enbor-katea (1979-2012)	9
5.1.2. Diskurtso kritikoa, gutxiegia egiten delako.....	10
5.1.3. Diskurtso kritikoa, gehiegia egiten delako	10
5.1.4. Kataluniako edo gainerako autonomia erkidegoetako hizkuntza politikez	11
5.1.5. Bestelako ekarpenak.....	11
5.2. Euskararen gaineko diskurtsoei buruzko ikerketen egoera	11
6. Lanaren erronka, hipotesia, helburua eta eskaini nahi den produktu finala	12
6.1. Erronka	12
6.2. Hipotesia.....	12
6.3. Helburua.....	12
6.4. Produktu finala	12
7. Metodologia eta Kronograma.....	12
7.1. Metodologia.....	12
7.1.1. Analisi eta hausnarketarako gizarte foroa	13
7.1.2. Metodologia kualitatiboko bi teknika.....	13
7.1.3. Metodologia kuantitatiboa, inkestaren bidez.....	14
7.2. Kronograma.....	15
8. Bibliografia.....	16
9. Eranskina: Euskararen sustapenari buruzko bibliografiaren hustuketa (diskurtso egituratuak): hurbilketa bat (Xabier Erize. 2014.03.14).....	20

1. Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketaren zergatia

Euskararen Aholku Batzordeak 2013ko ekainaren 28ko osoko bilkuran bi eginkizun nagusi eman zituen ontzat, 2013/2014 aldirako. Gogora dezagun bigarrena zein den: “Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea” (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, 2. or.). Ataza hori burutzeko izendatutakoa Euskara 21 Batzorde-atala da.

Azken hamarkadetan mundua zeharo aldatu duten dinamika demografikoez, bilakaera teknologikoez, gorabehera ekonomikoez, aldaketa kulturetz, migrazioez eta abarrek baldintza berriak ezarri dizkiote gure hizkuntza-egoerari.

Garai batean egoera ulertzeko eta interpretatzeko egokia izan zitekeena, gaur egun ez da orduan bezain egokia, ezta urrik eman ere. Aldaketa horien artean bada bat bereziki kontuan hartu beharrekoa: mundu osoan hedapen handia lortu duen aniztasunaren balioa; alegia, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna.

Horregatik guztiagatik, euskararen egoera eta, oro har, bertako hizkuntza-egoera, paradigma gero eta zabalagoetatik irakurri eta ulertu behar ditugu. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, orain arteko planteamenduak baztertu behar direnik, beste batzuekin ordezkatzeko. Baizik eta, ohiko ikuspuntuak haize berrietara egokitu eta munduan zabaldu diren beste planteamendu berri batzuekin kontrastean osatzeko ahaleginak egin behar direla.

Izan ere, euskararen egoera bere baitan biltzen duen errealitatea hainbeste aldatu izanak joko-zelai gaurkotua eskatzen du ESEPEk ezartzen duen helburu nagusirantz gero eta gehiago hurbildu ahal izateko, alegia...

...hizkuntza politikako neurriak erabaki eta aplikatuz euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta botere publikoek babestu beharreko herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezzen eguneroko jardunearan.
(Euskararen Aholku Batzordea, 2012, 20. or.)

Orain arte nagusi izan diren hizkuntza-diskurtso, *framing* edo paradigmak, ez dira gauza izan euskal biztanleria oso-osorik modu aktiboan euskarara biltzeko. Hori horrela, euskararen gaineko ikuskera eta interpretazioa gizarte baldintza berrietara egokituz bilatuko da euskararekiko interesa eta atxikimendua euskal gizatalde gehienetara hedatzea. Euskarari buruzko balio-sorta erakargarria osatu behar dugu, motibazio identitarioez zein pragmatikoez osatua, edota aniztasunaren aldeko balio filosofikoez ere. Era horretan baino ez dugu lortuko bertakoak zein guregana iritsi berriak euskarara biltzea.

Esan gabe doa, ulertze-molde berri horiek harrera zabala –ahalik eta zabalena– erdietsiko badute, lanketa horretan gizartearen ahots ezberdinak adi-adi entzun eta aintzat hartzea dela ezinbesteko baldintza. Hori da, hain zuzen ere, Euskara 21 Batzorde-atalak bigarren eginkizun hau bete ahal izateko bere egiten duen estrategia. Azken batean, den-denok gara beharrezkoak euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea helburu duen prozesu atzeraezin honetan.

Izan ere, *Euskara 21 – Itun berritu baterantz* dokumentuak argi eta garbi zehazten zuen eginkizunaren abiapuntua:

Ez baitago “euskararen auzia”, euskal herritarren hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baizik. Ez dezala inork, beraz, langintza horretatik bere burua baztertu. Gizarte eleaniztun baten barnean euskara biziberritzea gizarte osoaren helburu kolektiboa da, eta, beraz, herritar guztiona, zeinahi delarik ere norberaren ideologia edo jarrera politikoa. Hortaz, ikuspegi honetatik, helburu nazionala da. (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, 57-58. or.)

Euskara 21ek irekitako adostasun eta berrikuntza bideak ildo horretan sakontzen jarraitzea eskatzen du, eta horretara behartzen gaitu. Hori ere izango da, beraz, Euskara 21 Batzorde-atalaren zereginetako bat, 2014ko bukaerara bitarteko lanaldirako.

2. Hasi-masiak: erabileraren datuak

Ikerlan soziolinguistikoak gurean sistematikoki errepikatzen hasi zirenetik pasa den denbora-tartea bada oinarri nahikoa hizkuntza baten egoera zein bilakaeraren inguruko balantzea egin ahal izateko.

Asmo horrekin, hona hemen 2011ko V. *Inkesta Soziolinguistikoa* (ISL) eta VI. *Kale Neurketa* ikerlanetatik eratorritako ondorioak azpimarragarriak:

Bilakaera-datuak erakusten duten aldaketa-joera esanguratsuena euskararen erabilerak eremu formaletan egin duen aurrerakada dugu. Horrela, ISLko datuen arabera, igo egin da lankideekiko elkarrizketan euskarak duen tokia: %11,2koa zen 1991n eta %17,6koa 2011n (...). Eta igo egin da, halaber, bestelako eremu formaletan ere: udaletxean, banketxean eta osasun zerbitzutan, adibidez, %9,9tik %15,6ra igo da (...).

Bestalde, datuek diotenez, euskararen erabilera, apalago bada ere, igo egin da lagun artean ere: %12,8koa zen 1991. urtean eta %16,2koa 2011n (...). Eta berdin gertatu da kalean ere: 1989. urtean %10,6koa zen eta 2011n %12,4koa (...).


Azkenik, bilakaera positiborik izan ez duten bi eremuak ditugu. ISLko datuen arabera, euskararen erabilera ez da igo Euskal Herriko etxeetan: %13,9koa zen 1991. urtean eta %13,5koa 20 urte geroago (...). Hedabideen kontsumoari dagokionez, ez dugu errealitate hori sakon aztertzeko betarik izan, baina ditugun datu partzialei jaramon eginda, pentsa daiteke euskararen erabilera ziurrenik jaitsi egin dela hedabideen kontsumoa bere osoan hartuta. (Iurrebaso, 2012: 105-107. or.)

Datu horien gainean irakurketa oso ezberdinak egin daitezke, norberak euskararekiko dituen ikuspegi eta interes moten arabera: erabileraren aurrerakada itzeletik, batzuentzat, frustrazio gisakoa den atzerakadaraino, beste batzuentzat, bi muturren artean *ez arre, ez ixo* moduko balorazioak ere lekua izanik.

Ikerketen emaria ez da horretan agortzen, ordea, eta bilakaeran bi aldi edo garai ezberdin ere hauteman omen daitezke: a) orokorra, 1991etik 2011raino; b) azken garaikoa, 2006tik 2011raino:

...esan behar da datuek erakusten dituzten bilakaera-joera horiek ez direla linealak izan aztertutako epealdi osoan, eta orokorrean, joera positiboagoetatik joera ez hain positiboetara (eta batzuetan baita negatiboetara ere) pasatu garela. Hots, labur esanda, gehiago aurreratzen zela duela 20 urte, azken urteotan baino. (...) ...askotan aipatu izan diren “moteltzearen” edo gelditzearen ideiak baieztatuko lituzke aztertu ditugun datuek. (Iurrebaso, 2012: 107. or.)

Euskararen erabileraren bilakaera, 1991-2011



Jarrai genezake datuen irakurketa zehatzago eginez, eta ikusiko genuke Gipuzkoa dela hazkunderen heldulekurik irmoena. Lurralde horretako bilakaera positiboak pisu handia du euskararen errealitate orokorrean eta, hortaz, beste lurraldeetako balorazioak askoz apalagoak edota, zenbaitetan, ezkorragoak lirateke, zer esanik ez Iparraldean edo Nafarroan, baina baita Bizkaian eta Araban ere.

3. Oinarriko zenbait axioma elkarbizitza linguistikorako

Egoera eta bilakaera soziolinguistikoen gaineko irakurketa ezberdinak egin daitezkeen arren, gutxieneko adostasunetik abiatzea bada posible. Izan ere, nork jar lezake zalantzan euskara normalizatu gabeko hizkuntza dela? Esan genezake hizkuntza baten izateko arrazoia erabilia izatea dela; erabiltzen ez den hizkuntza hilik dagoela. Edo, baita ere, txanpon beraren ifrentzua dena: **hizkuntza bizia eta kementsua asko (eta ongi) erabiltzen dena da**. Axiomatizat jo dezakegu ideia hori.

Estimu handikoa edo txikikoa izan, lehentasun handiko edo gutxiko auzia izan, argi dago hizkuntza bat ez dagoela normalizatuta gizartean duen erabilerarik ugariena ehuneko 20 izatera iristen ez denean. Hori izan liteke erraz adostu litzatekeen abiapuntu xumea. Bestela esanda, gure lehenengo axioma: **euskara ez da hizkuntza normalizatu bat**.


Hori horrela, zer nahi dugu euskararentzat? Zertarako nahi dugu euskara? Hauek lirateke abian jarri nahi dugun prozesuaren bukaeran erantzun zehatza aurkitu beharko luketen galderak. Ikusteke da erantzun hori bakarra izan daitekeen edo, ezinbestean, aukera ezberdinetan banatuta letorkeen. Areago, azken kasu honetan argitu nahiko genuke ere ikuspegi ezberdinak hurbiltzeko modurik ote legokeen. Bada, ordea, denontzat onargarri gerta litekeen beste ideia bat gehiago ere: euskara hemengo hizkuntza (edo hizkuntzetako bat) da, beste inon ez dagoena, hemengo espezie endemikoa. Ildo honetatik beste urrats bat eginez, axioma berri hau ondoriozta genezake: **euskara salbatuko bada, hemen, ez beste inon, izan beharko du horretarako aukera**.

Bistan da, planteamendu pragmatiko eta posibilista egin nahi dugula, horrela jokatzek irtenbidea aurkitzen lagunduko duelakoan. Izan ere, teorikoki zein ideologikoki ikuspegi guztiak dira zilegi, bakoitzaren aburuz batzuk gustukoagoak eta besteak arbuiagarriagoak izanda ere.

Elkarrekiko errespetutik abiatuz eta ezberdinen arteko bizikidetzaren izenean maila filosofikoko ikuspegi guztiak onargarriak izanagatik, egunerokoan ezin dugu aurrera egin planteamendu ezberdinekin eta askotan kontrajarrieekin ari bagara. Alegia, batzuek gutxiegi kotzat jotzen dituzten euskara normaltzeko neurriak beste batzuek gehiegikeriatzat hartzen badituzte, egoera gatazkatsuan erortzera irits gitezke. Irtenbide komun bat bilatu beharko da arrisku hori ekiditeko eta, hortaz, sentsibilitate ideologiko edo filosofiko guztiek tokia duten hizkuntza-politika adostu bat ontzat ematea da gakoa. Halakoren bila abiatu nahi du gogoeta honek, **elkarbizitza eroso eta aberasgarri izango badugu, euskararen normalkuntzaren gaia zoru komun baten gainean landu behar delakoan**. Hori da, hain zuzen ere, gure azken axioma.

4. Hazkunderako mugak: jarrerak, gaitasuna eta erabilera

Arazoi potolo asko aurki genezake euskararen egoera azaltzeko; zientifikoak zein ideologikoak. Zientziaren babespean bide eginez ere, soziolinguistikaren bide-zidor ugaritan galtzeraino irits gitezke. Ez da hori lerro hauetako asmoa, baizik eta funtsa xume bezain sendoa eskaintzea ondoren etorriko den gogoeta eta eztabaida mamitsurako.



Xabier Erizeren ustetan, jarrerak sabai funtzioa egiten dute gaitasuna eta horren menpe dagoen erabilera haz daitezen. Baliteke beste testuinguru historikoetan bestelakoa izatea, baina euskararen egungo egoera planteamendu hori balekoa delakoan gaude. Alegia, interes edo aldeko jarrerik ezean ikasteko (edo hobeto ikasteko) ahaleginik egitea zaila baino zailagoa da. Horrek badu berez datorren segida logikoa: **gaitasunik ezean erabilerarik ez**.

Erizeren grafikoak erakusten du euskara suspertzeko neurriak hartzeari buruzko jarrerak biztanleriaren erdiaren babesa dutela. Lehenago erabileraz esan bezala, jarreraren bilakaeran bi aldi edo garai bereizi daitezke: 1991tik 2006raino hazkundearena, eta 2006tik 2011raino egonkortze edo ahultzearena. Orain ere, datu horien gainean irakurketa ezberdinak egin daitezke, norberaren ikuspegi eta interesak tarteko. Hala ere, euskarak aurrera egin dezan, ezinbesteko pausoa da gizartearen aldeketasuna areagotzea.

Zalantzak sor litezke aukera horrezaz. Zergatik saiatu gizartearen borondatea aldarazten, galde lezake batek baino gehiagok. Ez dugu aurreikusten adoktrinamendu-kanpaina bezalakorik, ezta gutxiago ere. Izan ere, bakoitzak alde banatara eginez, gizarteari mezu kontrajarriak helarazteak jendea euskaratik urruntzeko baino ez luke ekarriko.

Baliteke, adibidez, aukera zintzoa izatea euskararen inguruko ohiko komunikazioa zaintzea, horretarako gutxieneko adostasun batetik abiatuz. Horrela eginez, hizkuntzaren inguruko ika-mika saihestu eta, nolabait esatearren, erabilerara sektario interesatuetatik salbu jarriko litzateke gaia, bide batez mezuetan aldeketasun puntu bat goxo-goxo iradokiz.

5. Aurrekariak: euskararen gaineko diskurtso egituratuak eta diskurtsoei buruzko ikerketen egoera

Zorionez badira gu gabiltzan bidetik tarte handia egina dutenak, herri-erakundeetan zein alor intelektualean, edota konpromiso politikotik zein sozialetik. Era berean, maila juridikoa jorratua da eta oinarri juridiko bat urteetan finkatuz joan da, bai gure ingurune hurbilean, baita Estatuan zein Europan ere. Halako aurrekariak bi multzotan landu ditugu:

- Euskararen gaineko diskurtso egituratuak.
- Euskararen gaineko diskurtsoei buruzko ikerketen egoera.

5.1. Euskararen gaineko diskurtso egituratuak

Euskararen gaineko diskurtso egituratuak lantzeko jarraitu den eskema ondoko lerroetan azalduko da¹. Euskararen sustapenari buruzko diskurtso egituratuaren bibliografia (Hegoaldekoa landu da, ez Iparraldekoa) aztertu eta gero, lau multzo nagusi bereizi daitezke. Bosgarren bat gehiago ere osatu da, aurrekoetan leku garbirik ez zeukan materialarekin:

- 5.1.1 Euskara sustatzeko kontsentsu instituzionalaren enbor-katea (1979-2012).
- 5.1.2 Diskurtso kritikoa, gutxiegi egiten delako.
- 5.1.3 Diskurtso kritikoa, gehiegi egiten delako.
- 5.1.4 Kataluniako edo gainerako autonomia erkidegoetako hizkuntza politikari buruzkoak.
- 5.1.5 Bestelako ekarpenak.

Edozein kasutan, aipatzen diren diskurtsoak tipo petoak edo *garbiak* dira, baina maiz nahasita agertzen dira (puskaka, framing desberdinetako zatiak hartuz, etab.: ikus Martínez de Luna, 2013), bai euskararen sustapenaren aldekoen artean bai kritikoen artean, eta baita ildo batekoen eta bestekoen arteko eztabaidetan ere.

5.1.1. Euskara sustatzeko kontsentsu instituzionalaren enbor-katea (1979-2012)

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan ematen du euskararen sustapenaren inguruan kontsentsuzko enbor-kate handi bat garatu dela denboran zehar, 1979ko *Estatututik* (Euskal Herriko Autonomia,

¹ Material horien aukeraketa bat *Eranskinen* eskaintzen da laburbilduta, hausnarketarako abiapuntu baliotsuak direlakoan: *Euskararen sustapenari buruzko bibliografia (diskurtso egituratuak): hurbilketa bat* (Erize, X., 2014.03.14).

1980) hasi eta 2012ko *Euskara sustatzeko ekintza planeraino* (Euskararen Aholku Batzordea, 2012), 1982ko *Euskararen Legea* (Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, 1982) eta 2009ko *XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak* (Euskararen Aholku Batzordea, 2009) barne dituena. Oinarrizko agiri horien alde agertu dira EAJk eta PSEk gidatutako Eusko Jaurlaritzak eta haien Lehendakariak, baita Euskararen Aholku Batzordeak ere.

- Nafarroan, formalki EAEn antzeko bidea egin da: 1982ko “Amejoramentua”ren legea (13/1982 Lege Organikoa) eta 1986ko Euskararen legea (18/1986 Foru Legea), baina, bai legeen edukian bai haien interpretazioan bestelako kontsentsua nagusitu da euskarari buruz, UPN eta PSNren artekoan oinarrituta. Nafarroako indar politiko edo sozial euskaltzaleak kontsentsu horretatik kanpo sentitu dira gehienbat, eta sentipen hori areagotu egin zen legea garatzen zuten 2001eko (203/2001 Foru dekretua) eta 2003ko (29/2003 Foru dekretua) Foru Dekretuak eman zirenetik, dekretu horiek legearen interpretazio murriztailea egiten zutelakoan.
- “Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen Europako ituna” (Consejo de Europa, 1992, Consejo de Europa, d. g., Instrumento de ratificación, 2001, *La protección de las lenguas minoritarias*, 2011) ere kontsentsu instituzionalaren adierazle nagusien artean kokatzen da.
 - Zentzu berean kokatzen da Europako Parlamentuaren ebazpena (Parlamento Europeo, 2013).
- Ardura instituzionalak izan dituzten edo dituzten Patxi López (2012a eta 2012b), Patxi Baztarrika (2009) edo Blanca Urgell (2012) pertsonen testuak (instituzionalak zein pertsonalak) ere multzo honetan sailka daitezke.

5.1.2. Diskurtso kritikoa, gutxiegi egiten delako

- Euskararen erabilera normalizatzeko hizkuntza-politika errotik berritzea eta osorik euskalduntzea aldarrikatzen dutenak, nahiz eta azkeneko 40-50 urteetako bilakaeraren alde onak onartu (Mendiguren, 2009, Isasi, 2014, Kontseilua, 2012, edo 2014, esate baterako).
 - Gutxienez, Estatutua egin zen garaitik (1979. urtea) dator. Batzuetan diskurtso egituratu moduan agertzen da, beste batzuetan marko edo framing moduan (ikus Martínez de Luna, 2013a: framing aldarrikatzailea) agertzen da, eta beste batzuetan, diskurtso egituratua eta framing inplizitua batera agertzen dira (Isasi, 2014, adibidez).

5.1.3. Diskurtso kritikoa, gehiegi egiten delako

- Hizkuntza politika euskara gehiegi sustatzeagatik kritikatu dutenak (esate baterako: López Basaguren, 2007, Ruiz Soroa, 2009 eta 2010, Ruiz Soroa et al. 2009; edo, Nafarroari buruz, Erize, 2001, edo I.M.M., 2013). Baina diskurtso egituratuak egin dituzten ahots hauek ez dira asko nabarmendu azken aldian EAEn, haien agerpen nagusiak 2010era bitartekoak izan baitira.
 - Kontsentsurako proposamenak egin zituzten 2007-2009 aldian. Hemendik hartu: López Basaguren 2007 eta 2009; Ruiz Soroa, 2009; Salbidegoitia, 2009.
 - Euskara gehiegi sustatzea kritikatzeko dutenak, eta isla handia dutenak inkestetan (%45 inguru ez daude euskara sustatzearen alde Euskal Herri osoan; %38 Euskal Autonomia Erkidegoan), diskurtso edo marko edo *framing* sozial bezala agertzen dira batez ere gaur egun (ikus Martínez de Luna, 2013a: framing uzkurra), ez testu egituratu moduan.
 - Jon Juaristirenak bezalako adierazpenak (Jon Juaristi: “El futuro del euskera...”, 2011), euskararekiko jarrera axolagabea adierazten dutenak, multzo honetan koka litezke.
 - Nafarroan, euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtso bat garatu zen 1997tik eraginkortasun handiarekin (Erize, 2001) eta gaur egun arte iraun du (ikus, adibidez, I.M.M., 2013), modu formalizatuan batzuetan eta framing sozial moduan beste batzuetan.

5.1.4. Kataluniako edo gainerako autonomia erkidegoetako hizkuntza politikez

- Kataluniako hizkuntza politikari buruzko eztabaidak daude, bestalde. Ikusi, adibidez, Astudillo, 2006, Convivencia cívica catalana, d. g., Plataforma per la llengua, 2011, Strubell eta Querol, 2012 eta 2013. Baina argi eduki behar da horiek Kataluniako hainbat gairi buruzkoak direla, ez hemengoen gainekoak. Testu horietan, zenbaitetan batera aipatu dira euskara eta katalana, baina gehienetan ez. Beraz, eztabaida horiek testuinguru edo abisu bezala funtziona dezakete, “begira zer gertatuko zaizuen katalanek bezala jokatzeko baduzue!”, baina, euskara ez badute aipatzen, ezin dira zuzenean euskarari buruzko politiken eztabaida bezala hartu. Adibidez, murgiltze sistemaren aurkako eztabaida Kataluniakoa da, ez hemengoa; besteak beste, gurasoek ereduak hautatzeko askatasuna dutelako EAEn eta Nafarroako eremu euskaldun eta mistoetan, Kataluniako murgiltze sistemari derrigorrezkoa izatea leporatzen zaion bitartean.

5.1.5. Bestelako ekarpenak

- Hemen kokatuko lirateke euskararen egoera hobetzeko, egokitzeko edota garatzeko egiten diren hainbat ekarpen edo proposamen, aurreko multzoetan nekez sailka daitezkeenak. Adibidez, Irizar (2014) edo Sarasua (2013).

5.2. Euskararen gaineko diskurtsoei buruzko ikerketen egoera

Erreferentziako lan nagusia, eta alde guztietako diskurtsoen ikuspegi orokorra biltzen duena, Iñaki Martínez de Lunaren “Euskarak duen *Framing* Berri baten premia asetzeko proposamena” (2013a) lana da, geroztik ezaguna egin den framing aldarrikatzailea eta framing uzkurra sailkapena egin zuena, eta herritarren oinarritzko adostasuna biltzeko gai izan litekeen framing berri baten osagaiak proposatu zituen. Halaber, esanguratsua da nola eztabaidatu zuten ondoko lau autoreek framing berriaren proposamena: Azurmendi (2013), Baztarrika (2013), Bilbao (2013) eta Erize (2013).

Ikuspegi juridiko-ideologikotik oso argigarria da Miguel Izu-ren *El régimen lingüístico en la Comunidad Foral de Navarra* liburua (2013). Bertan, hizkuntzen, eta euskararen, instituzionalizazio prozesu guztian egon diren arazoibide eta eztabaida juridiko-ideologikoen aurkezpen dokumentatua eta azterketa egiten da: zuzenbideko literatura orokorrean (37-84. or.), Europan (85-111. or.), Espainiako erkidegoetan eta EAEn (113-268. or.) eta Nafarroan (269-614. or.).

Erdaldunen ikuspegiak Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña (2009) landu zituzten. Patxi Baztarrikaren *Babeli gorazarre* (2009) liburua alde bateko zein besteko autoreekin elkarrizketa zein eztabaida bezala uler daiteke. Nafarroan, euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa Erizek (2001) landu zuen.

Bestalde, inkestak ditugu, jarrearen edo hainbat iritziren berri ematen dutenak: Inkesta Soziolinguistikoa 1991-2011 bitarteko bost inkestak (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Kultur Erakundeak, 1997; Eusko Jaurlaritzak, 2003, 2008 eta 2013); edo Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (2011) kaleratutako *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* izenburuko inkesta, eta inkesta horren gainean Iñaki Martínez de Lunak (2013b) egindako *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia* lana.

Hala ere, esan daiteke gaia, oro har, ez dela agortu aipatutako lanekin eta, edozein kasutan, diskurtso egituratuaren zein ez-egituratuaren gaur egungo egoera aztertzen duen lan orokor baten beharrean gaudela.

6. Lanaren erronka, hipotesia, helburua eta eskaini nahi den produktu finala

6.1. Erronka

Dugun erronka, hauxe da: aurreko ataleetan landu diren hiru edukietatik abiatuz, aurrera nola egin aurkitzea. Gogora ditzagun hiru osagai horiek zein diren:

1. Egoera eta bilakaera soziolinguistikoen inguruko emaitzak.
2. Kotsentsu instituzionalaren enbor-katea.
3. Diskutso ezberdinak.

6.2. Hipotesia

Hortaz, abiapuntuko hiru elementu horien irakurketak ahalbideratuko du talde eztabaida eta lanketaren garapena, hipotesi hau kontrastatzera iritsi arte:

Azken urteetan euskararen inguruan lortutako adostasuna (Euskara 21 eta ESEP, besteak beste) kontuan hartuta diskurtso berri, partekatu eta gizartean sustraituriko bat osatzeko aukera dago.

6.3. Helburua

Hori horrela izanik, EGOD egitasmoari ezartzen diogun azken helburua hau da:

Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertzea eta kontrastatzea; eta, horrekin batera, proposamenak egitea, euskararen gaineko ikuskera gizarte baldintza berrietara egokitzeko eta euskararekiko atxikimendua euskal gizatalde gehienetara hedatzeko asmoz.

Hausnarketa edo eztabaida hori hiru dimentsiotan nahiko genuke burutu:

- Gizartean erreferentzialtasun eta erantzukizun handiak dituzten gune, erakunde edo sektoreetako ordezkariekin.
- Euskara 21 Batzorde-ataleko kideekin.
- Gizartearen beraren lagin zuzena osatuko luketen herritarrekin.

Modu horretan, egungo egoera soziolinguistikoa era formal eta egituratu batean hausnarketa-gai jarritz, etorkizuneko eszenarioan kokatuko gara *Zer da euskararentzat lortu nahi duguna 10-20 urte barru?* galdera planteatuz.

6.4. Produktu finala

Lanketarako oinarria hau izanik, hauek dira planteatzen ditugun azken bi produktu edo emaitzak:

1. *Maila diskurtsiboan dagoen adostasuna maila aplikatiboan lortzeko oinarriak eskaintzea, ahalegin horretan adostasun puntuak, zailtasunak, hausnarketak eta balorazioak identifikatuz.*
2. *Identifikatutako puntu horien arabera, aplikaziorako gomendioak ere eskaintzea.*

7. Metodologia eta Kronograma


7.1. Metodologia

Planteamendu horietatik abiatuz, euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzeko lanei ekingo zaie, Euskara 21 Batzorde-atal honetatik. Horretarako, hurbilpen metodologiko eta lanketa mota ezberdinak uztartuko dira. Zehatzago, egitasmoaren denbora-tarterako aurreikusten direnak, honakoak dira:

1. Analisi eta hausnarketarako gizarte foroa.
2. Delphi teknika eta eztabaida-taldea, metodologia kualitatiboaren baitan.
3. Inkesta, ohiko teknika kuantitatibo ezaguna.

Horiek guztiak zehatz-mehatz azalduko dira hurrengo lerroetan.

2. irudia: Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa



7.1.1. Analisi eta hausnarketarako gizarte foroa

Oinarrizko testu batzuen irakurketatik abiatuta, hausnarketarako bilguneak sortzea izango da lehenengo pausoa. Bertan, Batzorde-atal honetako kideek hartuko dute parte. Horiek ez ezik, euskal gizartearen izaera, sentsibilitate eta interes desberdinak -ahal den gehienak- ordezkatuak izatea ere bilatuko da. Horretarako, gonbidatuko dira eremu sozioekonomikoaren aniztasuna islatuko duten pertsonak ere: enpresarioak zein sindikalistak, kazetariak eta unibertsitateko irakasle edota ikerlariak, euskaldunak zein erdaldunak, eta abar. Partaideak hainbat taldetan banatuko dira.

Taldeko saio bana, hiruzpalau ordukoa izango da, dinamika egituratuak eta gidatuak, era horretan eztabaidaren eta gogoeten ekarpenak ahalik eta zehaztasunik handienarekin bildu ahal izateko.

Lanketa horrek giro baketsu eta neutrala eskatzen du, kokapen eta ikuspegi ezberdinetakoak izanagatik, partaideak elkarrenganako konfiantzatik abia daitezten. Alegia, ikuspuntu ezberdinak edota kontrajarriak askatasun osoz adierazteko eta defendatzeko moduko giroa da lortu beharrekoa.

7.1.2. Metodologia kualitatiboko bi teknika.

Foroan bildutako edukiak aztertu eta gero egoki irizten bazaio, ekarpenak osatzeko metodologia kualitatiboko bi teknikak erabiliko dira diskurtsoen gaineko ikuspuntuetan sakondu ahal izateko:

- Delphi teknika: erreferente diren zenbait pertsonari galdera ireki eta zehatz batzuk egin eta diskurtsoen edukiak zabaltzeko, sakondu eta zehaztu ditzaten eskatuko litzaieke.
- Eztabaida-taldeak: soslai anitzeko herritarrekin osatuko taldeak egingo lirateke, gizartearen dauden euskararen diskurtso eta -alderdi zein aurkako- motibazioen gainean gogoeta egin dezaten.

7.1.3. Metodologia kuantitatiboa, inkestaren bidez

Horren guztiaren ondoren, metodologia kuantitatibori ekiteko unea litzateke:

- EAEko biztanleriaren lagin adierazgarri bati inkesta egingo litzaioke, telefono bidez, datuak biztanleria osora orokortzeko asmoz. Horrekin, diskurtso eta motibazio mota ezberdinen hedapen eta pisu soziala ezagutzea bilatuko litzateke.

8. Bibliografia

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa. *Boletín Oficial de Navarra/Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 106. Hemendik eskuratua:
http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LO131982-00.htm?NRMODE=Published
- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa. (1986, abenduaren 17a). *Boletín Oficial de Navarra/Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 154. Hemendik eskuratua:
http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LF181986-04.htm
- 203/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostuetarako jakin behar den euskara agertzen duena. (2001, irailaren 10a). *Boletín Oficial de Navarra/Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 110. Hemendik eskuratua:
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2001/110/Anuncio-0/
- 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena. (2003, otsailaren 12a). *Boletín Oficial de Navarra/Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 19. Hemendik eskuratua:
http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Vascuence/DF292003-04.htm
- Aizpurua, X. (1995). *Euskararen Jarraipena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuratua:
http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikerketa_soziolinguistikoak.html#ikerketak
- Astudillo, E. (2006). Lenguaje, evolución y nacionalismo. A propósito del libro ‘Lenguas en Guerra’. *Astrolabio. Revista internacional de filosofía*, 2, 7-19.
- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzekoa. (1982). *EHA/BOPV*, 160, 3.138-3.146. or. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-14414/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administracion_08.html
- Azurmendi, M.-J. (2013). Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena Txostenari buruz hausnarketak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 111-137.
- Baztarrika, P. (2009). *Babeli Gorazarre*. Irun: Alberdania.
- Baztarrika, P. (2013). “Geuk nahi dugun arte”. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 85-96.
- Bilbao, P. Euskarak duen *framing* berri baten premia asetzeko proposamena artikuluz. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 139-146.
- Consejo de Europa. (1992). *Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias* (European Treaty Series, No. 148). Hemendik eskuratua:
http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/textcharter/default_en.asp

- Consejo de Europa. (d. g.). *Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias. Informe explicativo*. Hemendik eskuratua:
http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/textcharter/default_en.asp
- Convivencia cívica catalana. (d. g.). *Las 10 mentiras de la inversión*. Bartzelona: autorea. Hemendik eskuratua: <http://convivenciavicacatalana.blogspot.com.es/>
- Erize, X. (2001). El discurso contrario a la “normalización” de la lengua vasca en Navarra (1997-2002). *RIEV*, 46-2, 661-682.
- Erize, X. (2013). “Zergatik erosi beharko nuke euskara?”. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 99-109.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2009). *XXI. Mende Hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak: itun berritu baterantz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuratua:
http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/eab_gomendioak_berria.html
- Euskararen Aholku Batzordea. (2012). *Euskara sustatzeko ekintza plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/eab_gomendioak_berria.html
- Eusko Herriko Autonomia, Estatutoaren 3/1979 abenduak 18, Lege Organikoa. (1980, urtarrilaren 12a). *Boletín Oficial del Consejo General del País Vasco/Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala*, 32. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-14414/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administracion_07.html
- Eusko Jaurlaritza. (2003). *Euskal Herriko soziolinguistikazko inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III*. Vitoria-Gasteiz: egilea.
- Eusko Jaurlaritza. (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006*. Vitoria-Gasteiz: egilea. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/IV_incuesta.pdf
- Eusko Jaurlaritza. (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011*. Vitoria-Gasteiz: egilea. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html#ikerketak
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea. (1997). *Euskal Herriko soziolinguistikazko inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II*. L.g.: autorea. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/encuestas_sociolinguisticas.html
- Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2011). *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak*. L. g.: egilea. Hemen eskuratua: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contestu/eu/contenidos/informacion/v2_otros_estudios/eu_otros/otros_estudios.html
- I.M.M. (2013, azaroaren 15a). Guardia Civil alerta de que Batasuna trata de controlar la educación. *Diario de Navarra*. Hemendik eskuratua:
http://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/mas_navarra/2013/11/15/guardia_civil_alerta_interior_izquierda_abertzale_intenta_controlar_educacion_136962_2061.html
- Instrumento de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992. (2001, irailaren 15a). *BOE*, 222, 34733-34749. or.
- Irizar, M. (2014, apirilaren 2a). Euskararen ametsa: zoruak eta sabaiak. *Berria*, 4. or.

- Isasi, X. (2014a, martxoaren 4a). Euskararen erabilera normalizatzeko. *Berria*, 6. or.
- Isasi, X. (2014b, martxoaren 22a). Hizkuntza politika berria. *Berria*, 6. or.
- Iurrebaso, I. (2012). Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 103-120.
- Izu, M. J. (2013). *El régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra*. Donostia-San Sebastián: Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia-Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertze Fundazioa.
- Jon Juaristi: "El futuro del euskera me es muy indiferente". (2011, urtarrilaren 28a). *Deia*. Hemendik eskuratua: <http://www.deia.com/2011/01/28/ocio-y-cultura/el-futuro-del-euskera-me-es-muy-indiferente>
- Kontseilua. (2012, uztaila). *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2013-2023. Kontseiluaren ekarpena*. L. g.: autorea. Hemendik eskuratua: http://www.kontseilua.org/index.php?id_saila=44&id_edukia=12&lang=eu
- Kontseilua. (2014). Ardatzak. Hizkuntza-politika indartu eta garatzeko 10 proposamen. Kontseiluaren webgunetik eskuratua (2014/03/05): http://www.kontseilua.org/index.php?id_saila=34&lang=eu
- La protección de las lenguas minoritarias en Europa: hacia una nueva década*. (2011). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [Oharra: "Carta"-ren bilakaerari buruzko jardunaldiak, Europako Kontseiluak 2009an Bilbon egindakoak].
- López, P. (2012a). Aurkezpena. In Eusko Jaurlaritza, *Euskararen Legeak 30 urte. 30 años de la Ley del Euskera* (7-8. or.). Vitoria-Gasteiz: autorea. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/eab_gomendioak_berria.html
- López, P. (2012b). Euskara sustatzeko plan berriaren aurkezpena. In Euskararen Aholku Batzordea, *Euskara sustatzeko ekintza plana* (7-8. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/eab_gomendioak_berria.html
- López Basaguren, A. (2007). Las lenguas oficiales entre Constitución y Comunidades Autónomas: ¿desarrollo o transformación del modelo constitucional? *Revista Española de derecho Constitucional*, 79, 83-112.
- López Basaguren, A. (2009). El lugar del euskera. In Ruiz Soroa et al., *La política lingüística a debate*, (8. kap.). Vitoria-Gasteiz: Ciudadanía y Libertad. Hemendik eskuratua: http://www.argumentoslibertad.org/ling_vasca/educacion.htm
- Martínez de Luna, I. (2013a). Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13-83.
- Martínez de Luna, I. (2013b). *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Mendiguren, X. (2009). [Ekarpena]. In *XXI. Mende Hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak: itun berritu baterantz. Eranskina*, (15-34. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/eab_gomendioak_berria.html

- Parlamento Europeo. (2013, irailaren 11a). *Resolución del Parlamento Europeo, de 11 de septiembre de 2013, sobre las lenguas europeas amenazadas de desaparición y la diversidad lingüística en la Unión Europea* (2013/2007(INI)). Hemendik eskuratua:
<http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2013-0350+0+DOC+XML+V0//ES>
- Plataforma per la llengua eta Somescola.cat. (2011). *Argumentari en suport del català com a única llengua vehicular a l'escola catalana*. L. g.: autorea. Hemendik eskuratua:
<https://www.plataforma-llengua.cat/publicacions>
- Ruiz Soroa, J. M. (2009). Política lingüística y democracia constitucional. In Ruíz Soroa et al., *La política lingüística a debate*, (5-41. or.). Vitoria-Gasteiz: Ciudadanía y Libertad. Hemendik eskuratua: http://www.argumentoslibertad.org/ling_vasca/educacion.htm
- Ruiz Soroa, J. M. (2010, uztaila). El milagro cambiado. Hemendik eskuratua:
<http://paralalibertad.org/el-milagro-cambiado/>
- Ruiz Soroa, J. M., Arteta, A., Azurmendi, M., Salbidegoitia, J. M., Gay-Pobes, P. M., Larruzea, G., Iturriaga, R., López Basaguren, A., Arregi, J., López, P., Basagoiti, A., Maneiro, G., eta Unzalu, A., (2009). *La política lingüística vasca a debate*. Vitoria-Gasteiz: Ciudadanía y Libertad. Hemendik eskuratua: http://www.argumentoslibertad.org/ling_vasca/educacion.htm
- Salbidegoitia, J. M. (2009). [Aurkezpen hitzaldia] (1-7. or.), in *Presentación del libro: “La política lingüística a debate”*. L. g.: Ciudadanía y Libertad. Hemendik eskuratua:
<http://www.argumentoslibertad.org/>
- Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.
- Strubell, M. eta Querol, E. (2012, abuztua). *Language conflict in a globalised Barcelona*. Sociolinguistics Symposium 19 simposiumean aurkeztutako txostena, Freie Universität Berlin-en antolatuta, Berlin.
- Strubell, M. eta Querol, E. (2013, abenduaren 11a). *La dissecció d'argumentaris ideològics sobre la política lingüística de Catalunya*. II Jornades “La recerca sociolingüística en l'ambient de la llengua catalana” jardunaldietan aurkeztutako txostena, Xarxa Cruscet-ek antolatuta, Bartzelona.
- Urgell, B. (2012). Datozen hamar urteetarako plan eragingarri bat. In Euskararen Aholku Batzordea, *Euskara sustatzeko ekintza plana* (9-11. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

9. Eranskina: Euskararen sustapenari buruzko bibliografiaren hustuketa (diskurtso egituratuak): hurbilketa bat (Xabier Erize. 2014.03.14)

Eskema:

- Hustuketaren fitxak.
- Ikerketan zehar erabil litezkeen “pildoren” adibideak.

Hustuketaren fitxak

(Oharra: testu esanguratsu batzuk landu dira, baina ez guztiak; eta betiere haien edukia modu objektiboan laburbiltzen saiatuta)

A. Euskara sustatzeko kontsentsu instituzionalaren enbor-katea (1979-2012)

<i>Egilea</i>
<i>Izenburua</i>
Euskal Herriko Autonomia Estatutua
<i>Erreferentzia bibliografikoa</i>
Eusko Herriko Autonomia, Estatutoaren 3/1979 abenduak 18, Lege Organikoa. (1980, urtarrilaren 12a). <i>Boletín Oficial del Consejo General del País Vasco/Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofiziala</i> , 32.
<i>Idea nagusia (laburpena + hitzez hitzezko testua)</i>
Euskara hizkuntza propioa. Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak. Guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea: “El Euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas”. (6.1 artikulua).
<i>Beste ideia batzuk (laburpena + hitzez hitzezko testuak)</i>
Erakundeek bi hizkuntzen ofizialtasuna erregulatuko dute, haien erabilpena bermatuko dute eta haien ezagutza segurtatzeko neurriak hartuko dituzte, egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontuan hartuz: “Las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento”. (6.2 artikulua). “Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua”. (6.3 artikulua).
<i>Oharrak:</i>
Abiapuntu legala: Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua, haren garapena eginez (Izu, 2013, 141 eta 146. or.):

“1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.

2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.

3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección”.

Hizkuntza propioaz:

- Ohikoa da gaur egun “hizkuntza propioa” terminoa: “Dado el carácter polivalente y ambiguo de la expresión lengua nacional ... hoy se tiende a sustituir por la más específica de lengua propia, que tampoco está exenta de polémica. ... parece que lengua propia es la que se reconoce como hablada tradicionalmente en un determinado territorio o por una determinada comunidad que se identifica con ella” (Izu, 2013, 75-75. or.).
- Baina, López Basaguren-en ustez, “hizkuntza propioa”ren terminoa lehentasunezko ofizialtasuna emateko erabiltzen omen da batzuetan:
 - “En ocasiones se utiliza, como señala López Basaguren, para fundamentar ‘la pretensión de establecer un sistema de doble oficialidad lingüística de carácter «asimétrico», con preferencia a la lengua oficial distintiva de la Comunidad Autónoma’, lo cual en su opinión supone una extralimitación anticonstitucional” (Izu, 2013, 77-78. or.).
- Hala ere, “hizkuntza propioa” terminoaren erabilera neutroa: Sentencia Tribunal Constitucional 87/1997, apirilaren 24koa: “La Constitución en su art. 3.2 remite a los Estatutos de Autonomía de la Comunidades con lengua propia distinta del castellano la decisión sobre la declaración de la oficialidad de esa lengua” (aipatua in: Izu, 2013, 146. or., 185. oin-oharra).
- Aurrekaria: Katalunia (“Estatuto de Régimen Interior de Cataluña aprobado por el Parlamento de Cataluña el 25 de mayo de 1933” (Izu, 2013, 75. or.).

Pildorarik?

“Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”. (Estatutua, 6.1 artikulua).

Egilea

Izenburua

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzen duena (=“Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera”)

Erreferentzia bibliografikoa

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa. (1982).
EHA/BOPV, 160, 3.138-3.146. or. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/r59-14414/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administracion_08.html

Idea nagusia (laburpena + hitzez hitzezko testua)

“Incorporarse a nuestro Ordenamiento jurídico los derechos de los ciudadanos vascos en materia lingüística, particularmente el derecho a expresarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales y la garantía de la defensa de nuestra lengua como parte esencial de un patrimonio cultural del que el Pueblo Vasco es depositario” (Sarrera).

“La lengua propia del País Vasco es el euskera” (2. art.).

“Las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano” (3. art.).

“... que nadie sea discriminado por razón de lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco” (4. art.).

Beste ideia batzuk (laburpena + hitzez hitzeko testuak)

“Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean

5. artikulua

1. Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2. Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.

c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3. Herri-aginteek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen”.

Laburpena (Euskadi.net-etik hartua): Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arautzekoak, Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan xedatutakoa garatzen du.

Konstituzio Auzitegiak, ekainaren 26ko 82/1986 Epaiaren bidez, baliorik gabe utzi zituen 10/1982 Legearen hiru xedapen: 6.2 artikuluko azken esaldia, 8.3 artikulua eta 12.1 artikulua.

10/1982 Legearen helburua euskara eta gaztelaniaren erabilera autonomia erkidegoan arautzea da. Lege honetan berresten da euskara dela Euskal Herriko berezko hizkuntza (2. artikulua), eta gaztelaniarekin batera ofiziala dela Erkidegoko lurraldean (3. artikulua). Botere publikoek neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela eta inor baztertuta izan ez dadin (4. artikulua).

5. artikulua arabera herritarrek bi hizkuntzak jakin eta erabiltzeko eskubidea dute, ahoz eta idatziz.

Link: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-](http://www.euskara.euskadi.net/r59-14414/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administrazioan_08.html)

14414/eu/contenidos/informacion/euskera_en_administracion/eu_6151/eu_euskara_administrazioan_08.html

Oharrak:

Patxi López (2012) (ikus Patxi López 2012 testuari buruzko fitxa): “Una ley que hoy sigue siendo una de las piedras angulares, si no la principal, de un acuerdo de base en materia de euskera”.

Pildorarik?

“Incorporarse a nuestro Ordenamiento jurídico los derechos de los ciudadanos vascos en materia lingüística, particularmente el derecho a expresarse en cualquiera de las dos lenguas oficiales y la garantía de la defensa de nuestra lengua como parte esencial de un patrimonio cultural del que el Pueblo Vasco es depositario” (Ley del Euskera, 1982, Sarrera).

“La lengua propia del País Vasco es el euskera” (Ley del Euskera, 1982, 2. art.).

“Las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano” (Ley del Euskera, 1982, 3. art.).

“... que nadie sea discriminado por razón de lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco” (Ley del Euskera, 1982, 4. art.).

Egilea

Europako Kontseilua [Council of Europe, Conseil de l'Europe]

Izenburua

Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias

Erreferentzia bibliografikoa

Consejo de Europa. (1992). *Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias* (European Treaty Series, No. 148). Hemendik eskuratua:

http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/textcharter/default_en.asp

Idea nagusia (laburpena + hitzez hitzezko testua)

Eskualdeetako hizkuntzak sustatu behar dira haien biziraupena bermatzeko: “Necesidad de una acción resuelta de fomento de las lenguas regionales o minoritarias, con el fin de salvaguardarlas” (*Carta europea*, 1992, 7.1.a artikulua).

Beste ideia batzuk (laburpena + hitzez hitzezko testuak)

Hizkuntzen babesa eta sustapena, Europaren eraikuntzarentzako ekarpena, demokraziaren eta kultur aniztasunaren printzipioetan oinarrituta: “La protección y el fomento de las lenguas regionales o minoritarias en los distintos países y regiones de Europa representan una contribución importante a la construcción de una Europa basada en los principios de la democracia y de la diversidad cultural” (*Carta europea*, Preámbulo).

Hizkuntzak erabiltzeko eskubidea, maila pribatuan zein publikoan: “El derecho a utilizar una lengua regional o minoritaria en la vida privada y pública constituye un derecho imprescriptible” (*Carta europea*, Preámbulo). Berdin: 7.1.d artikulua: “La facilitación y/o el fomento del empleo oral y escrito de las lenguas regionales o minoritarias en la vida pública y en la vida privada”.

4. La opinión pública navarra y el euskera. Aunque no se ha llegado a medir su peso real con estudios sociológicos recientes (salvo error de este firmante), el discurso contrario a la normalización de la lengua vasca ha alcanzado un innegable eco en la opinión pública de la Comunidad Foral. No obstante, y pese a ello, desde el mundo del euskera se ha venido sosteniendo que la mayoría de la población navarra se muestra, en líneas generales, partidaria de la promoción del vascuence. Sin embargo, pienso que se podría matizar esta afirmación. Por una parte, considero conveniente distinguir entre comunidades lingüísticas, tal y como ya he efectuado en estudios anteriores (Erize, 1997 y 1999): así como es claro que la comunidad lingüística vasca de Navarra apoya mayoritariamente la lengua vasca, no está tan clara esa actitud en la comunidad lingüística castellana. Por otra, sobre este particular hay antecedentes en el tiempo, cercanos y lejanos, que inducen a la reflexión. Por ejemplo, la mencionada encuesta (CIES, 1990, pág. 262) ... ya advertía de una clara división en la opinión pública: mientras el 48,2 % aparecía como favorable o muy favorable al euskera, el 51,8 % no lo hacía (29,6 % contrarios y 22,2 % indiferentes). En similar sentido, un antecedente lejano de la misma problemática nos lo proporciona Arturo Campión (1912, pág. LXVI), cuando señalaba que las protestas contra la presencia de las Diputaciones de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa en la exposición agrícola de las fiestas de San Fermín de 1867 interpretaban la opinión dominante del momento, hace un siglo y medio. En suma, en todo lo referente a la sociedad navarra y el euskera, más que hechos coyunturales, subyacen fenómenos de larga duración.

5. ¿Qué puntos, a mi juicio, se deberían tener especialmente en cuenta por las personas favorables a la promoción del euskera? En casos, como el que nos ocupa, de debate ideológico, es de gran importancia analizar el eco que encuentran los argumentos de cada parte, el modo en que los otros los

entienden, la respuesta que éstos les dan y, en suma, valorar la idoneidad o no de los razonamientos empleados. Se ha de tener en cuenta que, en definitiva, a través de esos argumentos, el grupo emisor está expresando cuál es el futuro que propone como deseable para toda la comunidad. Las propuestas que se hagan deberían cumplir el criterio de la simetría, es decir, que lo que se presenta para los demás sea igualmente aceptable aplicado al grupo propio. En mi opinión, del presente estudio se derivan los siguientes puntos de reflexión para el mundo partidario del euskera:

- Cómo ganar credibilidad para las propuestas de separación de lo lingüístico- cultural y lo político, y, claramente, para la separación de la lengua vasca respecto a la violencia de ETA.
- Formulación de una propuesta creíble de puntos de acuerdo social para la promoción de la lengua vasca, con el compromiso de ambas partes de respetar de forma estable lo acordado; es decir, sin concebirlo como el primer eslabón de una cadena de reivindicaciones, o de restricciones, en su caso, que no se detuviera hasta alcanzar el hipotético “programa máximo” de cada parte.
- Criterios de valoración del euskera en puestos de trabajo. Se ha señalado en este artículo que se trata de un tema muy discutido y sobre el que hay muchos recelos, como ocurre también en el caso de la lengua galesa mencionado en la introducción de este estudio. En todo caso, deberían precisarse con rigor los puestos para los cuales el conocimiento del vascuence constituye un requisito específico y aquellos otros en que el mismo es considerado mérito cualificado, de modo que los ciudadanos navarros que así lo deseen puedan ser atendidos en vascuence por las Administraciones Públicas de Navarra.
- Oficialidad del euskera en toda Navarra. ¿Qué significa en la práctica esa propuesta, más allá de una declaración simbólica?
- Trabajar en la aceptación mutua de las dos comunidades lingüísticas de Navarra, la vasca y la castellana. Ello tiene consecuencias con respecto al objetivo –expreso unas veces y latente otras– de conseguir una Navarra bilingüe o euskaldún. Así como los partidarios del euskera critican la actual situación como de imposición en la práctica de un cuasi monolingüismo español, desde la comunidad castellanohablante muchos ven de modo semejante las propuestas de euskaldunización o de bilingüismo para toda Navarra. ... Estimo más adecuado reconocer que Navarra tiene en su seno dos comunidades lingüísticas, ambas con igual grado de legitimidad, y partir de ello para plantear que la euskaldunización se ha de basar en estrictos criterios de libre voluntariedad, amparada por un marco que haga posible el desarrollo completo de los ciudadanos y el funcionamiento social en cualquiera de las dos lenguas, tanto en funciones informales como formales.
- *Lingua navarrorum*. En mi opinión, dicha expresión, pese a su apariencia de fuerte aval para las tesis favorables al euskera en Navarra, es un argumento débil y muy discutible, como yo mismo (Erize, 1997 y 1999) había expuesto ya antes de que surgiera la actual polémica, y que puede acabar volviéndose en contra del prestigio de la lengua vasca y de sus defensores.
- No conviene hacer cuestión de principios de la terminología. Las palabras se desgastan con el tiempo. “Normalización”, por ejemplo, no es un término universal en la literatura sociolingüística, y, bajo su aparente claridad, puede llevar a equívocos. Por ejemplo, el reconocido autor francés Louis-Jean Calvet (1993, pág. 120, nota nº 1) no se muestra partidario de su utilización: “Los lingüistas catalanes utilizan la noción de normalización, que yo, por mi parte, no empleo, pues ha conocido una deriva desde la teoría (los trabajos de Lluís Aracil) a la ideología y corre, así mismo, el riesgo de connotar un cierto dogmatismo. La idea de normalización presupone que se sabe qué es lo normal...”.

Oharrak:

Gaur egun ere (2014) indar handia gordetzen du azterketa honek Nafarroarako. Eta EAerako ere,

zenbait gaitan abisu, analogia edo iradokizun bezala funtziona lezake...

Pildorarik?

“Que ningún ingenuo se engañe. Hablemos con claridad. El problema sobre todo es político. La cuestión del vascuence en Navarra está íntimamente ligada al conflicto Navarra-Euzkadi” (Ollarra eta Del Burgo, in Erize, 2001, 668. or.).

“El vascuence, ¿idioma nacional o caballo de Troya” (Del Burgo, in Erize, 2001, 668. or.).

“La política nacionalista basada en el concepto de minorización busca fomentar una pesada conciencia de culpa general y pregona la obligación moral y política de recuperar la que fue lengua de nuestros antepasados” (Arteta, in Erize, 2001, 669. or.).

“Carezco de trauma alguno por mi desconocimiento del euskera ... y mi conciencia no me dicta deber alguno que me obligue o siquiera me invite a recuperarla” (Arteta, in Erize, 2001, 669. or.).

“Discriminación laboral: “Gracias a la presión abertzale, en muchas plazas de la Administración foral el euskera tiene una valoración muy alta, lo que ha permitido hacer una campaña basada en lo que los nacionalistas llaman ‘discriminación positiva’” (Del Burgo, in Erize, 2001, 672. or.).

“La pluralidad de lenguas en una misma comunidad multiplica los gastos, entorpece los procesos de comunicación y, en general, consume una cantidad de energía en comunicación que puede llegar a colapsar la actividad. ... la pluralidad no es riqueza sino empobrecimiento económico, ideológico y social; esa frase, tan repetida, de la fuente de riqueza que representa la diversidad lingüística, no es admisible” (Aranaz, in Erize, 2001, 673. or.).

D. Kataluniako edo gainerako autonomia erkidegoetako hizkuntza politikari buruzkoak

Egilea:

Astudillo, Ester

Izenburua

Lenguaje, evolución y nacionalismo. A propósito del libro ‘Lenguas en guerra’

Erreferentzia bibliografikoa

Astudillo, E. (2006). Lenguaje, evolución y nacionalismo. A propósito del libro ‘Lenguas en Guerra’. *Astrolabio. Revista internacional de filosofía*, 2, 7-19. or.

Idea nagusia (laburpena + hitzez hitzezko testua)

Nazioa, cultura eta hizkuntza lotzen dituzten diskurtsoen kritika: “El análisis de Lozano es muy eficaz por desmontar los discursos de construcción nacional, haciendo énfasis en la visión parcial de la historia en que se amparan, en la naturalización interesada del binomio lengua-cultura y en la creación y la instauración políticamente correcta de un léxico que legitima y sanciona las preocupaciones y la ideología nacionalista” (18. or).

Beste ideia batzuk (laburpena + hitzez hitzezko testuak)

Hizkuntza minoritarioei duintasuna emateko saiakera neurritz kanpo eraman da Espainian: “Lozano denuncia que en España, la honorable misión de dignificar las lenguas minoritarias que se emprendió con la transición ha acabado por extralimitarse de sus objetivos originarios (recuperar el estatus perdido para las lenguas regionales) y ha desembocado en una mixtificación de la cosa propia y del

concepto de nación, construido alrededor de la noción de lengua propia de un territorio, un invento de esta casa que data de los años setenta. Los conceptos de nación y lengua propia se definen haciendo referencia el uno al otro, son mutuamente interdependientes y generan un bucle que se retroalimenta constantemente porque constituyen una ecuación tautológica: la singularidad de la nación catalana se legitima en virtud de la existencia de la lengua propia, y viceversa” (16. or.).

Hizkuntza propioaren kontzeptuaren kritika: “El concepto de *lengua propia* es una invención eufemística e interesada que sólo persigue objetivos políticos. ... La exquisitez del mecanismo excluyente del concepto de lengua propia consisten el hecho de que, por implicación lógica, convierte a todas las otras lenguas que convivan con ella, independientemente del número de hablantes que tengan, en lenguas foráneas, les sustrae su carta de naturaleza y las hace moralmente inferiores”. (17. or.).

Oharrak:

Liburu honen erreseina: Lozano, Irene. (2005). *Lenguas en guerra*. Bartzelona: Espasa-Calpe. (Premio Espasa de Ensayo).

Kontuz: Katalunian sortu da eztabaida hau, Katalunian egiten dituzten planteamenduengatik, ez Euskal Herrian. Neurritz kanpotzat jotzen dituzten planteamenduak Kataluniakoak dira, ez hemengoak, eta ez dugu uste behar eztabaida horiek hemengoak direnik, nahiz eta batzuetan erreferentzialak direla iruditu.

Pildorarik?

“El concepto de *lengua propia* es una invención eufemística e interesada que sólo persigue objetivos políticos. ... La exquisitez del mecanismo excluyente del concepto de lengua propia consisten el hecho de que, por implicación lógica, convierte a todas las otras lenguas que convivan con ella, independientemente del número de hablantes que tengan, en lenguas foráneas, les sustrae su carta de naturaleza y las hace moralmente inferiores” (Astudillo, 2006, 17. or.).

Egilea:

Agian, Kataluniako beste testu esanguratsu batzuk ere komeniko litzateke laburbiltzea...

Izenburua

Erreferentzia bibliografikoa

Idea nagusia (laburpena + hitzez hitzezko testua)

Beste ideia batzuk (laburpena + hitzez hitzezko testuak)

Oharrak:

Pildorarik?

E. Bestelako ekarpenak

Egilea:
Sarasua, Jon
Izenburua
<i>Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak</i>
Erreferentzia bibliografikoa
Sarasua, J. (2013). <i>Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak</i> . Iruñea: Pamiela.
Idea nagusia (laburpena + hitzez hitzezko testua)
“Nola goaz? Ez dago oraintxe erraza galdera honi erantzuten. Diagnostiko agonikoak, balorazio positiboak, behialako uste handien erresakak, egindakoaren legitimazioak, aurrerako pozak eta frustrazioen oldarrak nahasiegi datoz ur uharretan. Nora goaz? Desioetatik erantzutea edo susmoetatik erantzutea, alde handiko ariketak dira. Norabide lausoak marraztera gonbidatzen du mendeak. Eta norabide lauso horietan amets zatiak doitzera, estrategia-kateak jostera” (Sarasua, 2013, kontra-azala).
Beste ideia batzuk (laburpena + hitzez hitzezko testuak)
Oharrak:
Laburbildu beharko litzateke liburu hau, oso esanguratsua baita, baina oraingoan ezinezkoa izan da bibliografiaren hustuketa garaiz bukatzeko.
Pildorarik?
Seguru baietz: zati asko. Adibidez: “Nola goaz? Ez dago oraintxe erraza galdera honi erantzuten. Diagnostiko agonikoak, balorazio positiboak, behialako uste handien erresakak, egindakoaren legitimazioak, aurrerako pozak eta frustrazioen oldarrak nahasiegi datoz ur uharretan” (Sarasua, 2013, kontra-azala). “Nora goaz? Desioetatik erantzutea edo susmoetatik erantzutea, alde handiko ariketak dira. Norabide lausoak marraztera gonbidatzen du mendeak. Eta norabide lauso horietan amets zatiak doitzera, estrategia-kateak jostera” (Sarasua, 2013, kontra-azala).

Pildoren adibideak:

Fitxetan jasotako pildoren adibide guztiak erabilgarriak dira alde kualitatiboan parte hartzen dutenekin eztabaidagai bezala hartzeko pildora moduak.

ESEP

Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak emandako eginkizuna:

«Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea»

2014ko ekainaren 3a



Euskararen Aholku Batzordea
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Euskararen gaineko diskurtsoak bateratze bidean jartzea

Helburua:

- Euskararen ulertze-molde berriek harrera zabala izan dezaten erdiestea.

Abiapuntua:

- Euskararen eta, mundu mailan, hizkuntzen inguruan gertatutako aldaketak eta sortutako egoera berriak.

Eginkizuna:

- Ohiko ikuspuntuak haize berrietara egokitu eta beste planteamendu berri batzuekin kontrastean osatzeko ahaleginak egitea.

Estrategia:

- Gizartearen ahots ezberdinak entzun eta aintzat hartzea, ezinbesteko baldintza.

Euskararen gaineko diskurtsoak bateratze bidean jartzea

PRESTATZE-LANAK:

Hizkuntza gutxituen inguruko nazioarteko planteamenduak.

- UNESCOren irizpideak.
- Espainiak berretsitako Europako Gutuna.

Euskararen gaineko diskurtso egituratuen bilketa.

- Euskara sustatzeko kontsentsu instituzionalaren enbor-katea (1979-2013).
- Hausnarketa-dokumentuen bilketa.

Euskararen gaineko diskurtsoak.

- Ohiko gizarte diskurtsoak eta proposamen berriak.

Euskararen gaineko diskurtsoak bateratze bidean jartzea

AURREIKUSITAKO INFORMAZIO BILKETAK:

Gizarte Foroa eta Delphi teknika:

- Analisi eta hausnarketa eragiteko, gizarteko ordezkari estrategikoekin.

Focus Group:

- Gizartearen lagin batekin, metodologia kualitatiboaren parametroetan.

Inkesta:

- Gizartearen lagin batekin, metodologia kuantitatiboaren parametroetan.

Euskararen gaineko diskurtsoak bateratze bidean jartzea

	DENBORA-LERROA						
ATAZAK	2014/ 05	2014/ 06	2014/ 07	2014/ 09	2014/ 10	2014/ 11	2014/ 12
Gizarte Foroa eta Delphi	X	X	X				
Focus Group		X	X	X			
Inkesta					X		
Analisia		X	X	X	X	X	
Azken Txostena							X

Hizkuntza gutxituen babeserako nazioarteko planteamenduak (I)

Hizkuntza-aniztasuna balio bezala: “Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna” (UNESCOk berdintsu dio):

- Nabarmenak: teknika juridiko-administratibo zorrotza eta hizkeraren doinua.
- Espainiak berretsia du (*BOE*, 222, 2001eko irailaren 15ekoa).
- EAEko araudi linguistikoaren inspirazio iturri nagusietako bat da.
- “La protección y el fomento de las lenguas regionales o minoritarias ... representa una contribución importante a la construcción de una Europa basada en los principios de la democracia y de la diversidad cultural”.
- “Por la expresión «lenguas regionales o minoritarias», se entenderán las lenguas: i) habladas tradicionalmente en un territorio de un Estado por nacionales de ese Estado que constituyen un grupo numéricamente inferior al resto de la población del Estado, y ii) diferentes de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado; no incluye los dialectos de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado ni las lenguas de los inmigrantes”.
- (...)

Hizkuntza gutxituen babeserako nazioarteko planteamenduak (II)

(...)

- “Medidas para el fomento del empleo de las lenguas regionales o minoritarias en la vida pública, de aplicación en diversos ámbitos: Enseñanza; Justicia; Autoridades administrativas y servicios públicos; Medios de comunicación; Actividades y servicios culturales; Vida económica y social; Intercambios transfronterizos”.
- “La adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias ... no se considerará un acto de discriminación con los hablantes de las lenguas más extendidas”.
- “Nada en la presente Carta podrá ser interpretado en el sentido de que lleve consigo el derecho de emprender cualquier actividad o de realizar cualquier acción que contradigan los fines de la Carta de las Naciones Unidas u otras obligaciones del Derecho internacional, incluido el principio de soberanía y de integridad territorial de los Estados”.

Euskararen gaineko diskurtsoak (I)

- Euskararen sustapenari buruzko diskurtso egituratuen bibliografia (EAEkoa eta Nafarroakoa landu dira, ez Iparraldekoa) aztertu eta gero, bost ikuspegi nagusi nabarmendu daitezke:
 - i. Euskara sustatzeko kontsentsu instituzionalaren enbor-katea (1979-2012).
 - ii. Diskurtso kritikoa, gutxiegi egiten delako.
 - iii. Diskurtso kritikoa, gehiegi egiten delako.
 - iv. Kataluniako edo gainerako autonomia erkidegoetako hizkuntza politikari buruzkoak.
 - v. Bestelako ekarpenak.
- Ikuspegi horiek islatzen dituzten adierazpen esanguratsuak jaso eta lau gairen inguruan azaltzen ditugu (hitzak jasoaz, baina egileak aipatu gabe):
 - Legezko estatusaz.
 - Hizkuntza-politikaz.
 - Hizkuntza propioaz.
 - Bestelako adierazpenak.

Euskararen gaineko diskurtsoak (II): legezko estatusaz

- Legeak: “Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”.
- “Las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano”.
- “Que nadie sea discriminado por razón de lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco”.
- Autore batek: “La ley ha seguido alimentando durante estos treinta años el acuerdo básico que subyace a las reflexiones sobre el euskera, y esa es una de las virtudes innegables de aquel texto breve pero profundo”.
- Beste batek: “[Euskara] berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa”.

Euskararen gaineko diskurtsoak (III): hizkuntza-politikaz

- Batzuek: “Adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarritutako hizkuntza politikaren premia”.
- “Kontsentsua lortze aldera, bi ezinbesteko baldintza: Malgutasuna; eta Euskararekiko aldeketasuna”.
- Beste batzuek: “Hizkuntza politika erro-errotik berritu beharra dago”.
- “Administrazioa euskaldundu. Alor sozioekonomikoa euskaldundu. Helduak euskaldundu. Hedabideetan euskara-kuotak ezarri”.
- “Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar ditu. Aukeratzeko askatasunaren izenean, euskararen normalizazioaren kontrako indarrak ezkutatu dira euskara ez ikasteko. Normalizazio-prozesua erabat baldintzatzen dute, erdal elebakarren eraginaren bidez”.

(...)



Euskararen gaineko diskurtsoak (IV): hizkuntza-politikaz

(...)

- Beste batzuek: “Los esfuerzos sociales que ha generado la política lingüística de recuperación del euskera pueden entenderse, si este entendimiento se efectúa desde la libertad personal, como algo positivo y apreciable. La libertad personal no rechaza una tarea común de recuperación lingüística. El plantearla desde la libertad es la única posibilidad de que sea fructífera a largo plazo”.
- “El principio de libertad de opción lingüística debe mantenerse como la base de todo el sistema. Sobre ello fue posible el consenso de 1982 y sin ello no es posible consenso alguno. Libertad de lengua, básicamente, también en la escuela”.
- Beste batek: “Nora goaz? Desioetatik erantzutea edo susmoetatik erantzutea, alde handiko ariketak dira. Norabide lausoak marraztera gonbidatzen du mendeak. Eta norabide lauso horietan amets zatiak doitzera, estrategia-kateak jostera”.



Euskararen gaineko diskurtsoak (V): hizkuntza propioaz

- “La lengua propia del País Vasco es el euskera”.
- “Algunas de las disposiciones incorporadas, de forma muy relevante en el Estatuto de Cataluña, ponen de manifiesto una tendencia creciente a la imposición de la lengua propia como lengua preferente, tratando de establecer un sistema asimétrico de lenguas oficiales”.
- “Akabo elebakartasuna, eta akabo elebakartasunerako tentazioa, bai hizkuntza hegemonikoaren aldetik, baita indarberritu nahi den hizkuntza gutxiagotuaren partetik ere”.
- “Elebakartasunaren txiparen adierazle ohikoenetakoa da esaldi hau: «Gurea, euskara da», horrekin esan nahi denean «gurea, euskara *baizik ez da*», «bestea *ez da* gurea». ... gaztelaniarekiko oposizioan eta gaztelaniari kontrajarrita «gurea, euskara da» oraindik ere diskurtso politikoan sarri askotan entzuten den klixer moduko esaldia da”.

Euskararen gaineko diskurtsoak (VI): bestelako adierazpenak

- “Beharrizana aintzat hartuta, urria da hizkuntza politiketarako dirua”.
- “Eskandaluzkoa iruditzen zait euskararen alde horrenbeste diru bideratzea”.
- “Que ningún ingenuo se engañe. Hablemos con claridad. El problema sobre todo es político. La cuestión del vascuence en Navarra está íntimamente ligada al conflicto Navarra-Euzkadi”.
- “El futuro del euskera me es muy indiferente”.

Euskararen gaineko diskurtsoak: Nagusi diren hizkuntza-planteamenduak



- Abertzaletasunak sortua.
- Bertako hizkuntza euskara da, alegia euskal izaeraren euskarria, eta gaztelera hizkuntza arrotz eta inposatua.
- Helburua, gizarte osoa euskalduntzea.
- Interbentzio eraginkorra eta neurri babesgarriak exijitzen ditu.
- Abertzaletasun, euskarazko kultura eta euskalgintzan jaun eta jabe.

- Gehienbat, erdaldun eta espainiar sentimendunengan nagusi.
- Gaztelaniarekin nahikoa du eta euskara bigarren mailako kontua da.
- Euskara, abertzaletasuna hedatzeko armatzat hartzen du.
- Euskararen interes kulturala onartuz, baina liberalismotik eta aldeko neurriekin mesfidati.
- Batzuetan, euskararen aurkako joera eta axolagabekeria ezkututzen ditu.

Egokiak dira diskurtso horiek euskarak aurrera egin dezan?

→ *Bi framing horiek hizkuntza-nazionalismoan oinarrituta daude eta, berez, elkarren aurkakoak eta baztertzaileak dira:*
“Estatu bat / Nazio Bat / Hizkuntza bat”.

Zalantzak:


→ *Nola kudeatu, aldi berean, bi Framing horiek?*

→ *Aurrera egin dezake euskarak joko-zelai gatazkatsu horren baitan?*

→ *Areago, posible ote da hizkuntza-gatazka baten arriskua ekiditea?*

Egokiak dira diskurtso horiek euskarak aurrera egin dezan?


Euskararen erabileraren bilakaera, 1991-2011



Egokiak dira diskurtso horiek euskarak gora egin dezan?

Jarrera - Gaitasuna - Erabilera (1991-2011) (EH osoa)

(Grafikoaren elaborazioa: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013a eta b)



Hizkuntza-planteamendu berri baterako proposamen irekia



- *Hizkuntzen Ekologia / Aniztasuna / Iraunkortasuna zutabe.*
- *Framing Aldarrikatzaile eta Framing Uzkur egokituak ere aintzat hartuta.*
- *Gizarteak eskatzen dituen gaurkotzeko egokitzapenak tartean.*

FOROaren helburua, zehatz-mehatz



Hipotesia:

Azken urteetan euskararen inguruan lortutako adostasuna kontuan hartuta, aukera dago diskurtso berri, partekatu eta gizartean sustraiturikoa osatzeko.



***Euskarak badu
oinarrizko zoru partekatua***

FOROaren helburua, zehatz-mehatz

Helburua, zehatz-mehatz:

Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertzea eta kontrastatzea; eta, horrekin batera, proposamenak egitea, euskararen gaineko ikuskera gizarte baldintza berrietara egokitzeko eta euskararekiko atxikimendua euskal gizatalde gehienetara hedatzeko asmoz.



***Euskararen geroa,
elkarbizitzarako zutabe
sendoen gainean eraikitzea***

FOROaren azken produktua

Produktu finala:

1. Maila diskurtsiboan dagoen adostasuna, maila aplikatiboan lortzeko oinarriak eskaintzea, ahalegin horretan adostasun puntuak, zailtasunak, hausnarketak eta balorazioak identifikatuz.
2. Identifikatutako puntu horien arabera, aplikaziorako gomendioak ere eskaintzea.

Eskerrik asko!



Euskararen
Gaineko
Oinarrizko
Diskurtsoen
lanketa

Foroaren Emaidza Gordinak.
1. Saioko taldeetan jasotako
emaitzak
2014.06.03

Aurkibidea

Eztabaidarako erabili den gidoia.....	67
Hustuketarako erabili diren irizpideak.....	67
Hustuketa: 1. Taldea.....	68
Hustuketa: 2. Taldea.....	84
Hustuketa: 3. Taldea.....	90
Hustuketa: 4. Taldea.....	97
Hustuketa: 5. Taldea.....	103
Hustuketa: 6. Taldea.....	109

Eztabaidarako erabili den gidoia

FASEAK	GARAPENA / GALDEKETA AUKERA	DENBORA
Sarrera	<p>HASIERAN OHAR GISA GRABAKETA DELA ETA: "Isilpean gordeko den informazioa da. Alegia, informazioa beti modu anonimoan baliatuko dela".</p> <p>Sarrera fasea beroketa-hurbilketa gisa erabiliko dugu aipatutako eginkizuna eta estrategia gogoratuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eginkizuna: Ohiko ikuspuntuak haize berrietara egokitu eta beste planteamendu berri batzuekin kontrastean osatzeko ahaleginak egitea. - Estrategia: Sektore desberdinetako ahots kualifikatuak bildu, entzun eta aintzat hartzea, ezinbesteko baldintza. <p>Hau aipatuta mahaiari bilduta dauden pertsonen, jatorria (sektorea) bizibilizatu.</p> <p>Konfidantza eta giro egokia piztu.</p>	15mn
Planteamenduarekiko kokapena Kokapen pertsonala bilatuko dugu.	<p>Oinarritzko diskurtsoak aztertuz eta kontrastatuz, euskararen geroa elkarbizitzarako zutabe sendoen gainean eraikitzea da planteatzen den helburua. Abiapuntua izanik planteatzen den hipotesia: azken urteetan euskararen inguruan lortutako adostasuna kontuan hartuta, aukera dago diskurtso berri, partekatuta eta gizartean sustraituriko bat osatzeko. Euskarak baduela oinarritzko zoru partekatua hain zuzen ere.</p> <p>Hau ikustarazteko, hausnarketarako zenbait elementu eskaini dizkugute:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko planteamenduak. - Euskararen gaineko diskurtso egituratu biltza - Euskararen gaineko diskurtso nagusiak. - Egoera eta bilakaera soziolinguistikoen inguruko emaitzak eta jarrerak betetzen duten sabai funtzioa. <p>Galdetu berriz irakurtzea edota entzutea nahi duten. Zerbaiten inguruan ekarpenak luzatzea nahi dituzten (ekarpen irekiei tartea utzi)</p> <p>EZTABAIDA PIZTEKO GALDEKETA AUKERA : (Orokorrean edota atalka planteatu daiteke)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nola kokatzen zarete (pertsonalki) planteamendu hauen aurrean? - Zer piztu dizue eskainitakoak? Zerbait gehituko zenukete? Zalantzarik baduzue? 	20mn
Bakoitzaren sektorean, testuinguru hurbilean kokatuz Testuinguruaren norbanakoaren irakurketa	<p>Nola ikusten duzue zuen ingurua? Zer nolako diskurtsoak antzematen dira? Nolakoa da euskara eta zuen inguruaren arteko harremana? Zoru partekatua antzematen duzue? Badaude adostasun puntuak? Zailtasunak, oztopoak daude? Gatazka antzematen da?</p> <p>Atsedenaldira joan aurretik hurrengo orduan landuko dena aurreratu</p>	20mn
Problematikaren planteamendua Diskurtso berria behar dugu? Posible da eraikitzea?	<p>Aurkezpenean lñakik galdera hauek bota ditu: Nola kudeatu, aldi berean, Framing desberdinak? Aurrera egin dezake euskarak joko-zelai gatazkatsu horren baitan? Posible da hizkuntza-gatazka baten arriskua ekiditea?</p> <p>Diskurtso berria behar dugu? Hausnarketa gizartean zabaltzeko premiarik ikusten duzue? Eta aukerarik? Posiblea da eraikitzea? Maila diskurtsiboan dagoen oinarritzko adostasuna, maila aplikatiboan lortzeko: adostasun puntuak, zailtasunak, ostopoak zeintzuk...?</p>	30mn
Proposamenak	<p>Identifikatutako zailtasunak, oztopoak gainditzeko eta aukerak indartzeko. Aplikaziorako gomendioak planteatzea, jasotzea.</p>	30mn

Hustuketarako erabili diren irizpideak

1. Taldearen kontsentsua (esplizitua zein inplizitua) islatzen duten ideiak
2. Bakarrik baten edo batzuen ideiak izan direnak, baina taldearen kontsentsua (esplizitua zein inplizitua) lortu ez dutenak

1. TALDEA

Moderatzailea: Amaia ELIZAGARATE

1. TALDEA

Hustuketa: Amaia ELIZAGARATE

(Oharra: negritaz ipini dudana ideia nagusia izan da, ondoren ideia hori adierazten duten transkribatutako elkarrizketa puskak erantsi ditut. Marratxoa jarri dut esaldi hasieran hizlaria aldatzen denean)

1. Taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) islatzen duten ideiak

→ Iraganean diskurtso ezberdinak egon dira, talka egin dutenak gehienetan, orain da momentu diskurtso berri bat eraikitzeko:

- Ados, azken hamarkadetan euskararen gainean bi bloke egon direnaren ideiarekin, gainontzeko arlo guztietan bezala. Eta hori gainditzen ari dela modu biologiko natural baten bitartez. Eta guk egin dezakeguna da hori pixka bat arindu edo horri lagundu.
- Euskalgintzan lanean egonda, eta Nafarroan bizi entzuten ditut diskurtso oso desberdinak. Eta bai iruditzen zait oso interesgarria dela diskurtso berri bat aurkitzearena, aurretik inoiz ez badut pentsatu ere hori beharrezkoa izan zitekeenik, eta ohitua nengoen aurreko ohiturekin.
- Horrelako egoera kontrajarrietan, sentitzen zara batzuetan deseroso edo ez dakizula nondik jo, eta alde horretatik izan daiteke interesgarria zerbait berria egitea edo beste zirrikituetatik horrelako tokietara, edo egoera beste modu batez ikustea.
- Nik badut kezka euskararen inguruan zabaldu den diskurtsoarekin, eta etorkizun batean zabaldu daitekeen diskurtsoarekin. Esparru horretan ari naiz eta beraz interesatzen zait jantzita egotea eta argudio ezberdinak eskaini ahal izatea sortzen diren egoera diferente horiei erantzun egoki bat eskaini ahal izateko.
- Ez dakit diskurtso berriak posible diren. Seguruenik diskurtso egokitze bat bai. Gizarte honetan zirkunstantziak asko aldatu dira. Eta gutxienez onartu dezagun diskurtso horiek elkarrekin inkomunikatuak egon direla eta elkarren berri jakin gabe, eta seguruenik elkarren berri galdetu ere egin gabe bizi izan direla. Eta horiei buruz galdezka hastea niri guztiz positiboa iruditzen zait. Eta nire ekarpena egin badezaket hemen nago hori egiteko.
- Bilatu beharrean gaude agian beste diskurtso bat, gaur egun egin beharko genituzkeen zenbait gauza direlako lehen egin ez ditugunak, besteak beste elkarbizitzari buruzkoak? Ba segur asko egia da. Euskara erabili dugu ideologikoki, batek eta besteak alderdikeriagatik... ze hori datu objektiboa da. Erabili egin dugu. Zirkunstantzia haietan agian ezinbestekoa zelako. Zirkunstantzi hauetan agian ezinbestekoa delako agian guraso batzuk gaztelania erabiltzea edo ikasleek gaztelania erabiltzea. Zirkunstantziak hauek direlako, direnak. Ez guk nahiko genituzkeenak.
- Argi dago, EAEn orain, euskararekiko politikak euskaren gaineko diskurtsoan liderazgo bat ireki daiteke. Eta gure Komunitate Autonomoko perspektiba horretatik egin dezakegu diskurtso bat, eta diskurtso horrek izan behar du hizkuntz komunitate guztiari begira eta horren garabide osoari begira beste modu batetako marko zabalago bat eman behar digula. Nahi dugunak aurrera egin garela hain zuzen ere euskaldun eleanizdunak, eta beraz emozionalki inteligenteenak guk izan behar dugula. Geurea garatzeko eta aldi berean besteen jarrera ere irabazteko.
- Baina diskurtsoaren bateratzea interesgarria izan daiteke, bestela nik ikusten dudana da jendea ingelesa eta euskararen artean berdin zaiola zein.

Behar da diskurtso bat euskara pizten duena, edo pizturik mantenduko duena. Eta Mitxelenak zioen bezala eta zergatik iraun duen, orain ere bai, hurrengo belaunaldiek euskaraz egiten badute izan behar da, euskara piztua dagoelako eta erabilgarria delako eta edozein gauzetarako. Ez dakit bakarrik funtzio batzuk, nik uste dut denak bete beharko lituzkeela edo gehienak, bestela oso jostailu garestia izango da.

→ Diskurtsoak egokitua izan behar du egoera eta leku ezberdinetara:

- Eta horrek exijitzen duela euskararen aldetik diskurtso bat egitea aproposa. Hain zuzen ere ez delako berdin, Portugaleten egin behar dugun diskurtsoa, edo Atanuen egin behar duguna. Beraz, alde horretatik gabezia hori badago.

- Argi dago Iparraldean daukagun egoera, Nafarroan daukagun egoera eta EAEn daukaguna ez dela bera. Ez dakit leku berdinetik gentozen, baina momentu honetan ez gaudela leku berdinean datu objektibo bat da. Eta nik uste dut aztertu behar dugula zein faktorek eragin duten EAEn egoera batetan egoteko, Nafarroan beste batetan eta Iparraldean beste batetan. Baina argi dago ere gaur egun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan gai garela, eta aukera badugula, kondizio batzuk sortu direlako, gaur bezalako diskurtsoak egiten jarraitzeko. Baina nekez egin daiteke diskurtso bera Iparraldean edo Nafarroan, beste faktore batzuk eragiten dutelako. Eta gurutzatzen dituzunean zenbait aldagai, sumatzen duzu segituan beste faktore batzuk badaudela. Eta tartean estatusarena dago, jarrera politikoak, jarrera herritarrek, denetarik dago. Guk diskurtso bat egin behar badugu, XXI mendekoa gaudenetik abiatuta, argi dago diskurtso bera ezin dezakegula egin. Hori bistakoa da. Ezin baitugu gauza bera egin toki batean zein bestean egoerak diferenteak direlako. Problema da momentu honetan diskurtso horren atzean ze helburu, zein xede daukagun. Nora goaz? Euskal Herrian lurralde guztietan bizi garen guztion artean izan dezakegu hizkuntzari begira xede bera euskarari dagokionez?
- Ni ikusten ari naiz, eta konparazioa eginez Nafarroa eta Euskadiren artean. Hemen erabaki da, eta kontsentsua izan da, nolabait gizartea, eta beste kontu bat da zein abiaduran, baina denak elebidunak izateko gogoia eta nahia badago, eta horretan ari dira. Nafarroan berriz ez. Nafarroan berez minoria bat da bi hizkuntzetan ari daitekeena edo eskubide hori aitortua duena, eta gero dago Iruñaldea non ez dakigun benetan zein egoeratan gauden. Baina egia da minoria bat badagoela euskaraz eta aitortua duena eskubidea baina gainerako guztietan ez dago. Eta orduan ezinezkoa da pentsatzea egongo garela inoiz gizarte elebidun batean. Orduan Iruñerrian edo giro ez erabat euskaldun batetan zein diskurtsorekin erakartzen duzun pertsona bat askatasunetik euskarara, jakinda zailagoa dela.... Esate baterako Nafarroan gertatzen ari da Ingelesa sartu dela hezkuntzan modu ikusgarrian, orain jendeak aukeratu dezake, lehen ez bezala, edo euskaraz eta gaztelaniaz egitea edo ingelesez eta gaztelaniaz egitea, eta eredu hori gorantz doa modu nabarmenean.

→ **Euskararen garapenerako gizarte akordio eta kontsentsuak beharrezkoak izango dira:**

- Ni ere euskararen garapeneraren aldekoa naiz. Pentsatzen dut garapen horretarako, normalizazio horretarako gizarte akordioak eta kontsentsuak ezinbestekoak direla. Eta hori ez badago euskara garatuko duen kristo jaiotzeko dagoela. Euskarak atzera egingo lukeela akordio horiek gabe eta adostasun horiek gabe.
- Oso inportantea da zuk diskurtso hori ezin dezakezula isolatuta egin. Beste batzuekin elkarrekin bizitzen ari zarenez gero haiekin ere beste lotura bat egin behar duzu, eta akaso gurean, minoritarioak garelako, gutxiago garelako, gehiago garatu behar dugulako, gehiago izan nahi dugulako, xede hori daukagulako, derrigorrez gure estrategiaren barruan sartzen da elkarbizitzarena. Agian aurreko iraganean asmatu ez dugun portaeratan. Orduan alde horretatik elebitasun pasiboa direnekin, edo bestelako jarrera bat izan dezaketenekin, ... Gaur eman dituen datuak benetan gogorak dira, alegia, euskararen aurkako jarrera daukatenean aldetik kopuru horiek ikaragarri gogorak egiten dira, baina errealak dira. Beraz alde horretatik, guk nahi dugunez gure hizkuntza, eta nahi dugunez besteak baino hobeto prestatuta egotea, besteak baino komunikatzaile hobeagoa izatea etab. Ba guk inizatiba hartu beharko dugu eta guk ireki beharko dugu beste esparru batzuk elkarbizitza bat planteatzeko, eta horrek suposatuko dut agian jartzen dugun terrenoa ez dela guk nahiko genukeen guztia, eta beste mota batetako terreno batetan mugitu beharrean gaudela, eta diskurtso horiek ezberdinak direla lurraldeen arabera.
- Egiten zen bi framingen arteko zera horretan. Nik uste dut benetan lortu behar dela diskurtso bat integratzen duena euskara gure gizarte bizikidetzan, eta egiten duena elementu normal eta beharrezko. Zergatik? Bakar bakarrik hainbat herritarrek hautu hori egin dutelako, eta gainera babes osoa daukalako, legez dago arautua. Tuterako Nafar bat ez dago babestua, ezin du eskatu ezta pediatria ere euskaraz. Hemen legez eskatu daiteke. Orduan, nik uste dut, errealitate hori asumituta, lortu behar dela batetik segur asko diskurtsoa eta motibazio elementuak izan behar dutela aniztunak eta errespetatu behar dela bakoitzaren hautua erabat. Nolabait lortu behar dena eta diskurtso horretan integratu behar dena da alde batean egon litekeena pentsatuz, posizio politiko batetik abiatuta, euskara hemengo hizkuntza da beraz lehentasunezko elementu bat da, beraz jar daiteke hemen, han eta han kosta ala kosta. Eta horrek krak egingo du lehenago edo beranduago. Eta integratu behar da ere beste batzuen posizioa, alegia, urrun daudenak, egiten den hori ikusten dute gehiegi egiten ari dela bezala, etab. Nik uste dut aitortu behar dugula segur asko mutur batekoek asumitu beharra daukatela behar bada gauzak ez direla joango berak uste bezain azkar, bezain ondo, edo bezain orokor. Baina besteak ere asumitu beharra daukatela deserosotasun puntu bat ere izan dezaketela hemen elebakar bizi nahi duenak. Eskubidea izanda baina segur asko

batzuetan deserosotasun puntu batzuk izan ditzakeela. Eta segur asko aukera batzuk galtzen ariko dela horregatik

2. Bakarrik baten edo batzuen ideiak izan direnak, baina taldearen kontsentsua (esplizitua zein inplizitua) lortu ez dutenak

→ Egiten den planteamendua, eleanitza izan behar du ez elebakarra:

- Euskararen gainean ikastoletatik egin den diskurtsoan bilakaera bat dago. Hizkuntzarekin lotuta badagoela kompetentzia komunikatibo bat, landu egin behar dena. Beraz, obligazio natural bat daukagu, kultur transmisio horretan eta hezkuntza planteamendu horretan, gure ikasle guztiek (izan haurrak, izan gazteak, izan unibertsitarioak) kompetentzia komunikatibo hori erabat garatua izan behar dute. Eta hor sartzan da Euskara, baina euskararekin batera beste hizkuntzak ere. Gehiago da, beraz, eleaniztasun planteamendu bat planteamendu elebakar bat baino.
- Iruditzen zait ere bi hizkuntza ditugula hemen eta biak ditugula beharrezko. Ez dut sinesten elebakartasunaren diskurtsoan. Iruditzen zait arrakasta izango balu izango lukeela gaztelaniaren alde eta euskararen kaltean, beraz, nahiago dut ez sinetsi horretan. Iruditzen zait euskarari etorkizun oparoa deseatzan diogunok asmatu beharra daukagula bi hizkuntzen gutxienez, edo gehiagoren, arteko elkarbizitza eroso bat eraikitzen gure artean. Bestela iruditzen zait hizkuntza txikien kontra arituko garela. Beraz nahi nuke etorkizunean euskararen aldeko diren diskurtsoetan ikuspegi hori barneratua izatea. Bestela iruditzen baitzait jai daukagula.

→ Berdintasunean oinarritutako planteamendua, beraz txikia denaren aldekoa izan behar duena:

- Nik uste dut elebakartasunaren mugetako bat horixe dela hain zuzen ere. Nik uste dut elebiduna edo eleaniztuna emanagoa dela gauza horiekin kuriositatea izateko. Nik uste dut berezko gauza bat ere badela. Eduki beharko genuke argi gizartearen proiektuan berdintasunaren alde ari bagara, eta berdintasuna ez jarriz hizkuntza bat bestearen gainetik, ezta alderantziz, eta ez hitzun bat bestearen gainetik, baina jakina berdintasunaren alde baldin bagaude politiko proaktiboa egin behar dugula deskonpentsazio hori orekatzeko, baten aldeko politika behar dela eta hori justifikatzen duen diskurtsoa eraiki behar dugu. Ez inposizioarekin lotuz, baizik eta berdintasunetik, beraz berdintasunera iristeko ... neurri batean, distantziak distantzia genero berdintasunarekin egin den moduan. Eta generoarena ulertu da, egon dira diskusioak baina nik uste dut erraz ulertu dela. Nik uste dut inteligentzia politikoa, diskurtsiboa eta emozionala eta abar behar ditugula horiek permeabilizatu ahal izateko gizartearen. Batzuk egongo dira, ni ez naiz horretan sartuko, ez du adinik, eta ikasiko ditut kaixo, egunon eta agur, baina handik aurrera eta autobuseko txoferra baldin banaiz esango diot “ya lo siento...”, baina behintzat esango diot “ya lo siento...”, ez dut beste jarrera bat izango, eta hori ere eskertzen da. Lortu behar da dagoen erreakzioa izatea adeitsua, ez barkamen eskea baina enfin ulertzen dut egoera eta ez da ezer gertatzen. Horrekin konbibtzen jakin beharra daukagu
- Eta diskurtsoan hori nolabait, bi hizkuntzek dutela eskubidea, bi hizkuntzetako HIZTUNEK dute eskubidea. Hizkuntza propioaren diskurtso horrekin badirudi beste bat badagoela propioa ez dena edo atepetik sartu zaiguna (etsaia dena), ez dakit noiz, eta berdina da, atzo sartu bazen ere gure komunitateko jende askok hizkuntza hori badaki eta eskubidedun jendeak dira horiek eta horiekin konpondu beharra dago.

→ Euskararen ardaztutako eleaniztasuna:

- Aldi berean ere, eleaniztasun planteamendu horretan egiten duguna da, batu egin behar gaituen zerbait, kultur ikuspegi batetik eta hizkuntza komunitate ikuspegi batetik, euskara bera da. Beraz **euskararen ardaztutako eleaniztasuna** planteatzen da.

→ Diskurtso berri horretan liderrek eta agente ezberdinen jarrerak duten garrantzia azpimarratzen da:

- Baina aldi berean, planteatzen dugu kompetentzia komunikatiboa garatzeko garaian **oso inportantea** dela eskola batetan, ikastolan kasu honetan, familiek eta ume horren jira-bueltan dauden **agente desberdinek, dituzten hizkuntzarekiko jarrerak**, erabileratik hasi eta pasibotasun, baina nolabait ere aldeotasun bat dutenetatik, eta horrek irekitzen duela espektro bat irakaskuntzarekin zerikusirik ez daukana, baina irakaskuntza erreforzatu dezakeena ikaragarri.

- Herrian jende euskaldun natural asko dago. Baina **niri gertatzen zait, sartzen naizela leku batetara eta ikusten naute eta nik ezer esan gabe aldatzen dute hizkuntza ni sartu naizelako**. Pasatzen dira euskarara nik errieta egingo banu bezala, edo jefea baletor bezala. Amorrazio handia ematen dit.
- Ez dugu hitz egin, baina bakarrik apuntea, lidergoaren inguruan ez dugu hitz egin. Diskurtsoa eraikitzearen gainean bai, baina historia honetan badaude aktore pila bat, administrazioak, euskaltzaleak, enpresak, euskararen inguruan dabilzan entitateak, unibertsitateak, eliza, ... diskurtso honetan ikusi behar da hori nola egituratzen den, eta bakoitzak zer esan behar duen diskurtso hori elikatzeke. Akaso lidergo partekatu bat edo egon beharko litzateke.

→ **Auzia pertsonengan edo kolektiboan eta espazioetan zentratu behar ote den (ez dago adostasunik):**

a) kolektiboaren edo espazioen garrantzia:

- Baina aldi berean, hizkuntza ez formalaren aldetik, hizkuntzaren garabidea ez dagoela apenas landuta terreno horretan. Beti ikusi izan dugu ikastola eta eskola euskaldunen garabidea, zenbat ikasle dauden eskolarizatzen A, B, D ereduetan, eta horretarako diskurtso historiko bat egin da. Baina aldi berean badago, horrek baino ordu gehiago hartzen dituen beste mota batetako esparrua, **hezkuntza ez formalarena**. Eta hezkuntza ez formalak hartzen du umearen, bere familiaren eta bere inguruko askoren denbora, interesa eta beste era batetako motibazioak. Beraz, guretzako klabeetako bat da konpetentzia komunikatibo hori, ikasleekin egiten dugun bezala, hori baino **komunitate zabalago batekin** egin behar dugu.
- Nik ez dut euskara gehiago erabiltzen espaziorik ez daukadalako, dendara joaten naizenean ez daukadalako aukera hori. Aurrean daukadan pertsona horrek ez daukalako gaitasunik nirekin euskaraz egiteko.
- Nik uste dut hor badagoela gakoetako bat. Nik uste dut historikoki pertsonengan jarri da fokua eta ez espazioetan, eta pertsonak euskalduntzea bezain garrantzitsua da espazioak euskalduntzea. Historikoki hezkuntza sistemari eman zaio izugarriko protagonismoa eta erantzukizuna. Uste historiko bat izan delako irakaskuntzari esker belaunaldi berriak euskaldunduko direla eta arazoak jada konponduta egongo dela. Eta nire seme-alabak ikastolara bidaltzen ditut eta horrekin jada Euskal Herri osoa euskalduna izango da. Zorionez uste dut uste hori baztertzen ari dela, ikusten ari garela ez dela egia. Noski hezkuntza sistemak betetzen ditu bere funtzioak, baina gero unibertsitatea bukatzen denean horiek salto egiten dute lan mundura eta lan munduan ez dago euskararik, edo zinea ez dago euskaraz, edo beste hainbat esparru edo espazio ez dago euskaraz. Interneten pixka bat euskara sartzen ari da, baina bideo-jokoak ez daude euskaraz,... Dena dago beste hizkuntza batzuetan eta euskaraz ez. Beraz fokua pertsonengan jarri da, eta segur asko pertsonengan jarri behar zen baina pertsonak euskalduntzea bezain garrantzitsua da espazioei ere bere garrantzia ematea. Eta iruditzen zait oraindik ere hori ez dela kontuan hartzen.

b) Garrantzitsuena pertsonak dira:

- Eta nik uste dut asmatu behar dugula konfiantza izaten jendearekin eta konfiantza hori elikatzen batez ere pertsona ardatzean jarrita, eta ez horrenbeste erakundea, erabilera sinbolikoa,... baizik eta pertsona eta pertsonen hizkuntzekiko leialtasuna elikatzen.
- Nik ez dut sinesten gizarte elebidun bat denik gizarteko pertsona bakoitzak, norbanako bakoitzak, bi hizkuntzak jakitea. Eta hori uste dut garbi utzi behar dela. Eta orduan, galdetu behar dugula iruditzen zait, zure Nafar horiek eta hemengo beste batzuk, zergatik eta zertarako? Problema da diskurtsoa norbanakoan oinarritzen dugu edo bestela... nik uste dut ez daukala zentzurik pediatarrengana doan umeari euskaraz egin behar diola pediatriak Euskal Herrian dagoelako, ez nire iritziz. Egin behar dio umeari Euskara duelako bere hizkuntza, baina ez Euskal Herrian dagoelako. Eta iruditzen zait zoritxarrez jende gehienaren diskurtsoa hori dela. Jendeak egin behar duela euskaraz Euskal Herrian dagoelako, baina umea erdalduna baldin bada eta katarroa baldin badauka eta belarriko mina baldin badauka! Uste dut kolektiboa egiten dugula hizkuntza subjektua eta nire ustez norbanakoa gara. Eta kolektiboak norbanakoen bizikidetzara horretarako, hitzun ezberdinen bizikidetzarako artikulatu behar duela gizartea. Eta guztien eskubideak bermatu. Baina ideia bezala jartzea gizarte elebidun bat da...

→ **Euskarak baditu garatu ahal izateko mugak eta zailtasunak:**

a) Elebidunen deserosotasuna elebakarren aurrean:

- Nire egoera izan daiteke, horrelako egoera deseroso edo desatseginetan aurkitu egiten naizela, eta bai hor nago eta horrelako foro batean ere banago, baina agian nahi gabe, ze berez saiatzen naiz alde egiten hortik, **egoera deserosoak sortzen direlako** alde horretatik.

- Hala ere niri **kosta egiten zait euskaraz hastea**, parean dudana euskalduna dela ez badakit. Eta bortxatu behar dut nire burua gehiegi.

b) Ikasi ondoren ez delako erabiltzen **(ez dago adostasunik honetan:)**

- Umeekin **egiten da sekulako esfortzua baina gero ikusten duzu hurrei Iruña batean kosta egiten zaiela euskaraz egitea**, eremu ez formaletan, horrek sortzen du horrelako sentsazio gazi-gozoa, ba zertan ari garen, nola animatzen duzun. Horrelako giro euskaltzale batetan, Iruñean, **euskaraz zerbait egitea edo elebiz egitea ia ezinezkoa** da edo oso zaila.

- Jendeak euskaraz ikasten du, baina gero **jendeak ez du hitz egiten. Eta hori errealitate bat da**. Zer egiten dugu errealitate horren aurrean? Begiak ireki edo **beste alde batetara begiratu**. Nik uste dut zoritxarrez bigarren aukera dela euskararen auzi honetan egiten dena. Beti daude ideiak, zea kreatiboak, baina nik ikusten dut oso-oso euskara gutxi egiten dela. Euskaraz hasten dira, baina *a la primera de cambio* gaztelerara, haserretzen da eta gazteleraz hitz egiten hasten da, urduri jartzen da eta gaztelerara, haurrak ez badaude aurrean edo diskurtsoa ez bada oso sinplea gaztelerara, informea iristen zaigu irakurtzeko eta konplikatua bada gaztelerara, ... Hori horrela da!

Beste batzuk diote berriz inoiz baino gehiago erabiltzen dela:

- **Gutxi egiten dela ere...** Ni Donostian bizi izan naiz gaztaro osoa eta haurtzaroan ere bai, eta orduan bai egiten zela gutxi. Niri gertatu izan zait, kalean joan ahizparekin euskaraz hitz egiten, 6-8 urte genituela, eta jendeak zerbait esan alde! Hola-hola jarraitu! Eta guk ez genuen ulertzen. Baina egiten zitzaion oso arraroa euskaraz entzutea. Orain ez diote inori esango, Eutsi-eutsi!

- Euskaraz inoiz baino gaituago gara, inoiz baino trebatuago gara, inoiz baino gehiago dakigu eta inoiz baino gutxiago hitz egiten dugu. Konklusio gezurtia da seguruena. Eta euskararen gaitasuna eta erabilera obligazioa arteko harremana edo proportzioa errekontziliatu beharra daukagula, edo **jendearen kontzientziak lasaitu behar ditugula**. Nik idazle Katalan bat gazteleraz irakurri dezaket, ni euskalduna izanik, eta estatistikoki ez dakit zer den, katalanaren kontrako jarduera, euskararen kontrakoa edo genero humanoaren kontrakoa, nire kontrakoa ez da behintzat. Baina estatistikoki ez da aldeko datu bat, eta iruditzen zait aldeko datu bat bezala interpretatzen jakin beharko genukeela, eta hori ez dugula behar bezala neurtzen.

c) Izugarritzko aurrerapausoak eman dira azken urteetan euskararen mesedetan:

- Nik ikasketa guztiak gazteleraz egin ditut. Eta orain bizi dugun egoera ez zegoen ezta nire ametsik zoroenetan. Gaur daukaguna izango genuenik niretzat ezinezkoa zen.

- Ni naiz botila erdi betea ikusten dutenetakoa. Iruditzen zait 25-30 urte hauetan hemen ikaragarri egin dela euskararen alde eta emaitzak ere horrelakoak izan dituela. Alegia, iruditzen zait gaurko egoera eta duela 30 urtekoa oso diferenteak direla zorionez.

- Nik ere uste dut hobetu dugula zalantzarik gabe. Ni Iruñean sortu naiz eta ikastolara joan nintzen, eta Iruñean ez zen euskara batere entzuten duela 20 urte. Orduan alde egin nuen Iruñetik eta bueltatzen naizenean orain gutxienez entzuten dut, eta errotulazioetan ere badago, ... Orduan uste dut orokorrean hobetu dugula.

- Ni hiritar bezala harritzen nauena da euskarak nola iraun duen milaka urte, baliabiderik gabe. Eta hau bidegurutze bat izan da, mundu guztia pasatu da hemendik, hizkuntza errazagoekin, etab... eta nola mantendu den. Eta gure ardura da mantendu den hori hobetzea, et a bideratzea. Baina benetan harrigarria dena da nola komunitate txiki honetan mantendu egin den.

d) Sentsibilitate falta:

- Gurasoekin ere bai, askok **matrikulatzen dituzte haurrak ikastola batean baina gero ez duzu ikusten inolako sentsibilitaterik** euskararekiko.

e) Euskara zaila da, eta horrek ahalmen komunikatiboa kentzen dio, ingelesaren mesedetan: **(ez dago adostasunik honetan)**

- Nik uste dut ez dugula kontutan hartzen gai bat, tabu handia da, eta da: **euskarak beste hizkuntzak duten gaitasun komunikatiboa dauka?** Bai ala ez. Agian ez dauka. Agian errazagoa da ingelesez hitz egitea. Konparatu euskal aditz sistema eta konparatu ingelesaren aditz sistema.

Ingeles aditz sistema folio honetan bildu dezakezu eta soberan daukazu, euskal aditz sistema pasa dezakezu bizitza guztia ikasten eta oraindik ez duzu ikasi. Ingelesez hitzak monosilaboak dira, sartzan duzu sekulako informazio pila zera txiki batetan. Euskaraz hitzak luzeak dira, eta orain euskararen aberastasuna eta rollo guzti horrekin, oraindik luzeagoak, ez da *gauz* da *gauza*, eta ez da *txorakeri* da *txorakeria*, eta ez da *postrea* da *azken-burukoa*, eta ez da *media* da *batez bestekoa*... Ari gara hitzak luzatzen... jakina diskurtso txiki bat esateko horrek berdin dio, baina **diskurtso handi bat esateko hori problema bat da**, problema handi bat. Hitzunarentzat eta entzulearentzat.

- Itzulpen batzuk, Ingalaterran ingelesez 12 urteko umeek irakurtzen dituztenak, hori hemen heldua eta filologian lizentziatua izan behar duzu! - Hor badago ideia bat, zenbat eta korapilatsuago orduan eta aberatsagoa dela, hori da sinesmen bat idazleengan izugarri zabaldua, eta ez da egia.

Ingelesez esaten dizute *I can give you*, "Nik eman ahal zu", kitto! Eta euskaraz diezazuket... eta hori da euskara aberatsa! Hori da euskara heriotzara kondenatzea eta kitto! Eta hori ez du inork erabiliko gure eguneroko bizitzan, eta honetaz oso errealistak izan behar dugu. Eta beste horrenbeste sintaxiarekin eta abar eta abar...

- Gaitasun komunikatiboa hizkuntza guztiak daukate, guztiak. Gertatzen da hizkuntza guztiak gehiago daukatela beste batzuek baino. II. Mundu gerra ondoren egon zen Europan mugimendu bat, eta hizkuntzalari batzuk esaten zuten, "Estoniera errazago eta komunikatiboagoa egiten dugu edo bestela errusierak jango gaitu", eta antzeko mugimenduak egon ziren ere Turkian. Mugimendu oso interesgarriak izan ziren. Behintzat hori kontutan hartu behar da, modu oso positibo batetan, hau ez da Unamunok egiten zituen kritikak, ez du zerikusirik. Horretaz kontziente ez bagara gure aurka ari gara. Euskarak bere mugak ditu. Hizkuntzak eboluzionatu egin behar dute modu komunikatibo batetan, ez gehiago konplikatzen, pentsatuz hori hobea izango dela hizkuntzarako, ze hain justu kontrakoa da. Hizkuntza zaila bada eta ez bada komunikatiboa jendeak ez du ikasiko edo erabiliko.

- Historia da, zuk bi hizkuntza baldin badituzu, aukeratuko duzu, sentimenduak alde batetara utzita, errazen egiten zaizuna, edo hizkuntza eboluzionatuena dagoena, edo teknologikoki eboluzionatuena dagoenak.

- Ni ados nago zurekin. Ingelesa sartzan ari da ikaragarri. Eta nik uste dut orain arte euskaraz frantsesa eta ingelesa izan badu etsai edo arerio edo... Nik uste dut orain ingelesarekin aurkituko dela.

Beste batzuentzat aldiz euskarak badu ahalmen komunikatiboa eta ez da beste hizkuntzak baino zailagoa:

- Zeinentzat da problema? Niretzat ez da problema. Diskurtso horrekin batera ari gara marko batzuk eraikitzen : euskara zaila da, ingelesa errazagoa da, euskara ikasten da baina ez da erabiltzen... Era bateko markoak ari gara eraikitzen eta diskurtsiboki hori ari da zabaltzen gizartean.

- Nik uste dut zaila dela zuk diozun hori mantentzea. Ze dirudienez, **munduko haur guztiak ikasten dute hitz egiten momentu berean**, bi urteren bueltan hasten dira hitz bakarrak ez, esaldiak osatzen. Hori mundu guztian. **Euskara zailagoa balitz pentsatu beharko genuke gure haurrak, edo guk, daukagula gaitasun berezi bat gainerakoek ez daukatena**. Ingelesak ditu erraztasun batzuk, eta euskarak izango ditu beste batzuk.

- Ahalmen komunikatiboari dagokionez, uste dut batzuetan euskararen ikuspegi sinboliko bat izateak kaltea ekarri digula, garbizaletasunean, hainbat erabaketan, ... Alegia, erabileran, errealitatean erabiltzen den euskara euskara dela aitortu beharra daukagula konplexurik gabe. Zerbaitengatik hautatzen du jendeak basoa eta ez edalontzia, ... Baina iruditzen zait baita ere hor parte bat badagoela hitzun komunitatearen tamainarekin eta masa kritikoarekin. Ingelesak dituen erabiltzaile kopuruak, eta kokatuta dauden tokietan egoteak eta daukan produkzioak, etab. Iruditzen zait ingelesak ikaragarrizko ejertzittoa daukala bere alde. Ez da bakarrik bere ezaugarri intrintseko onak, baizik eta baduela ejertzitoa ikaragarria bere alde. Eta orduan hizkuntza txikiaren alde egin nahi dugunez, uste dut erabileraren faktore pertsonaletan daukagula eragin beharra, alegia, lortu behar dugu jendea gustura egotea euskararekin, eta gustura aritzea, eta zale izatea, etab. Bestela eboluzio hutsean utziko bagenu gauza bistan delako gailenduko gaituztela. Gaztelaniak berehala eta laster ingelesak eta dena dela.

- Nik esango nuke, nire esperientziaren arabera, ahalmen komunikatiboa euskarak baduela, 100%. Beste gauza bat da zailagoa izan daitekeela beste hizkuntza batzuk baino, baina gaitasun komunikatiboa potentzialki erabatekoa duela iruditzen zait. Eta nik ikusten dut, guztia idatzi daiteke euskaraz eta ez da informaziorik galtzen. Orduan nik gaitasun komunikatiboa aitortu egiten diot. Bereziki gaur egun landu egin delako. Beste gauza bat da, silaba gehiago behar izatea. Baina baita ere egokitu zait alemana ikastea, eta alemana ere konplikatu da, baina alemanak duen gaitasun komunikatiboa ere erabatekoa da. Konplikatuagoa dela aitortu beharra dago, horrela delako. Uste dut euskararen potentzialitatea erabatekoa dela eta asmatu behar dugula nola gauzatu. Potentziala arlo zientifikoa badauka, eta bizitza normalean, familia bizitzan ere bai. Egin behar dena da gauzatu, eta agian hor dago koska, eta hori da pentsatu beharko duguna. Baina hasieratik aitortzen ez badiogu ahalmen komunikatiboa daukala orduan arazoa beste arazo bat da. Beraz, agian lehen adostasuna horren inguruan lortu beharko genuke. Eta gero jada egingo dugu bidea.

- Euskara ez da zaila. Hori da zuk mahai gainean jarri duzun marko bat. Zergatik da zaila? Nik 14 urterekin ikasi nuen, eta alemana ez dut ikasi eta ingelesa ere ez behar bezala.

Objetiboki katalana baino zailagoa da.

Ez, urrutiago dago gazteleratik, ez zailagoa delako.

Nik ez dut uste horrek markatzen duenik. Faktore bat izan daiteke, baina nik ez dut uste horrek markatzen duenik pertsona batek gehiago egitea euskara edo gaztelania.

f) bi hizkuntzak erabili beharrak itzulpenaren beharra areagotzen du, eta hauek ez dira beti behar bezalako kalitatekoak:

- Bi hizkuntzak aintzat hartu behar izanak normalean berez gazteleraz dagoena euskaratu beharra, horrela izaten da administrazioan kasu askotan. Bitara egin behar hori, eta nahi eta nahi ez bitara, ... Itzulpenak, gehienetan itzulpenak dira ortopedia hutsa. Gainerakoan hizkuntza idatziari nik ikusten diodan ajea da, zenbat eta korapilatsuago orduan eta aberatsagoa dela. Askok uste dute horrela.

(erantzuna) Mundu guztian hori. Ez bakarrik euskararekin.

→ Diskurtso berria ez da kontu isolatu bat, atzetik estrategia bat behar du eta politika jakin bat:

- Niri iruditzen zait **diskurtsoa berritzea ez dela kontu isolatu bat**. Diskurtso berri bat adostea ez dakit zer eragin izango duen euskararen normalizazioan, edo horrekin jada konponduko ditugun euskararen inguruan dauden arazo guztiak. Iruditzen zait kokatu egin behar dugula. Apuntatu ditut aurkezpenean agertzen diren hitz batzuk: kontsentsua, atxikimendua, adostasun zabala, bizikidetzatza, irekia, parte hartzailea, diskurtsoak berritu behar dira, positiboan, ... Horrekin **jada ari zara diskurtso bat transmititzen**. Horrekin jada esaten ari zara orain arte ez dela kontsentsurik egon, atxikimendurik ez dela egon, adostasunik ere ez, bizikidetzarik... Diskurtso horiekin ere, positiboa izan nahi duen diskurtso horrekin ere, jada asko transmititzen ari zara. Diskurtsoa berritu behar bada izango da estrategia zehatz bati erantzuteko.

Adostuta daukagu guztion artean euskararen inguruan garatu behar den estrategia? Badakigu nola erantzungo dion estrategia horrek euskararen normalizazioari? Estrategia horren barruan badakigu zein diskurtso zabaldu behar dugun xede talde bakoitzari zuzentzeko? Edo **diskurtso bat, bakar eta unibertsala adostu behar dugu** euskararen auzia konpontzeko? Iruditzen zait prebio batzuk ere behar direla. Eta euskararen bilakaera horretan segur asko estrategiarekin batera bestelako aldagaiak ere aztertu behar direla: maila diskurtsiboan, maila politikoan, gizartearen alorrean, ... iruditzen zait beste aldagai horiek ere kontuan izan beharko genituzkeela

- Diskurtsoak bai, beharrezkoak dira, diskurtso anitzak marko bat elikatzeke. Baina horrekin batera hori bezain inportantea da politika egokiak eta beharrezkoa da gizartearen aldetiko babesa. Berdintasunarena aipatu duzue... tabakoaren gaiarekin beste horrenbeste gertatu da, diskurtso egokiekin bakarrik ez da lortzen gizartea sentibilizatzea tabakoa uzteko. Behar dira neurri politiko batzuk, behar da gizartearen aldetik ere aldeko babesa, behar da gizartea bera izatea horren bozgorailua, eta. Hori dena behar beharrezkoa da. Kasu horretan egon da hiru elementu horien konjuntzioa: mezua maila diskurtsiboan lanketa potente bat egon da, lege aldetik ere lege batzuk garatu dira horri laguntzeko eta gizartearen aldetik ere.

→ Hizkuntza bakoitzak funtzio bat betetzen du, ezberdina izan daitekeena, baita belaunaldi ezberdinetan ere:

- Nire semeak ikasketa guztiak euskaraz egin ditu, baina bere lagunak deitzen dutenean etxera, hartzen dut telefonoa nik eta nirekin euskaraz egiten dute eta mutila jartzen da eta erdaraz hasten dira. Nirekin beti euskaraz egiten du, eta nik ez diot esaten nirekin euskaraz. Baina bere lagunak etxera datoz eta nirekin euskaraz egiten dute, baina gero sartzen dira mutilaren gela eta dena gazteleraz. Eta herri euskaldun batetan bizi gara.
- Ni bat nator, euskarak badituela bere mugak gaitasun komunikatiboan zenbait alorretan besteekin konparatuta. Euskarak eta gaztelaniak funtzio bat betetzen dute hegoaldean eta ingelesak ere betetzen du. Beraz, ikuspegi pragmatiko batetik gure umeek eta gure gazteek eta hurrengo belaunaldiek, eta hobe hala balitz, ezinbestez izan behar dute gaitasun komunikatibo bat ingelesez. Eta horrek funtzio bat beteko du bere komunikazio beharretan. Jokatu duen bezala euskarak eta jokatu duen bezala gaztelaniak. Segun zein funtzio eman nahi dion pertsona bakoitzak, hiztun bakoitzak hizkuntza bakoitzari, horren arabera egingo du garabide bat hizkuntza horretan ahozotasunean, idatzizkoan zein bestelakoetan.
- Baina hizkuntzen leiari dagokionez. Esaten da eskolak euskalduntzen duela ume bat. Eta ezagutzen ditugu ikasketa guztiak euskaraz egin batere arazorik gabe, ahalmen komunikatibo guztia garatuz baina gero beren aukera libreko bizimodua egiten hasten direnean, abandonatu egiten dute euskara. Seguruena gehienek adin jakin batetara etortzen direnean hizkuntza kontzientzia aldatu egiten da eta berriro errekeratzen dutela Gaur egungo munduan, nik erabilerarekin hor daukat problema. Bideo joko bat edo gauza horiek, 14-15 urtetako batek edo zure semeak koadrilarekin... Hemendik 10 urtetara koadrila guztiak euskaraz egingo du, eta nazka emango die besteei, "egin euskaraz" etab. esaten. Baina da hizkuntza bakoitzak, gizarte bakoitzean, kolektibo bakoitzean esparru funtzional batzuk baditu, afektiboak, ludikoak, akademikoak, laboralak, eta guztietakoak, eta nik uste dut elebitasuna dela horietako bakoitzean kokatzen joatea hizkuntza. Eta hizkuntza bakoitzari ematea karrotik tiratzeko aukera. Bestela gaurko munduan esatea, batxilergoa bukatzean koadrilarekin ez dute euskara egiten, baina 16 urterekin beti egiten da gurasoek esaten dutenaren kontrakoa.

Eta euskara eskola hizkuntza denean, horri kontra egitea da hori ez erabiltzea.

Eta kaleko giroak jan zaitu, musikan, zinean, denbora pasa guztietan, kirolean, eta hor euskal pretentsiorik izatea, ni k ez dut gehiegi entenditzen. Eta ez dut jarrera negatibo bezala ikusten. Eta seguru 10etik 8k adin batetara etortzen direnean, berriro bueltatuko dira. Seguruena! Diskurtso egoki bat eraikita baldin badaukagu eta partekatzen badugu gutxieneko batean, bueltatuko direla, iruditzen zait.

- Hori nola egiten da? Onean edo txarrean orain dela 30 urte genituen euskal kantariak, genituenak, nik uste dut belaunaldi oso bat eraman zutela atzetik, eta hoberik ez zegoela. Baina gaur hori behar bada ez daukagu. Ditugu musika talde onak, eta kantari onak baina daude beste batzuk horiek bezain onak edo hobeak, euskaldunak ez direnak edo gaztelaniaz ari direnak edo beste hizkuntza batzuetan. Horrekin konbibitu beharra daukagu, eta asimetriak egongo direla. Nik uste dut inportantea dela funtzioena. Nik uste dut pentsatu beharra daukagula, nire gurasoen belaunaldikoek oso natural bizi ziren euskaraz, baina bizimodu jakin bat zeukaten, esparru jakin bat zeukaten etab. gaur hori erabat aldatu da. Ohitu beharko dugu pertsonak berak hainbat hautu egitera eta jende asko egongo dela etxean modu batean egiten duena, lanean beste batean, lagun batzuekin batean eta besteekin bestean. Eta ez da ezer pasatzen horregatik. Horretara ohitu beharra daukagu. Hori eboluzio normala izango delako gaur egungo gizartean. Errealitate berriak dira, asmatu dezagun errealitate diferente horietan nola elikatu euskararenganako atxikimendua, baina pretenditu gabe...
- Gaztelerazko erdaldun solaskideak komunitate autonomoan minoria izatera iritsiko balira ere erdaldun elebakarrak komunitate linguistiko jiggantesko bat dira eta horrek ematen dien babesak, eta garapenerako aukerak... hori dute nahikoa defentsa! Kostatuko zaie entenditzea horrelako neurriko tresna bat izanda tresna txiki batengatik ni baztertu behar nauzue? Seguruena daudela euskaldunen funtzio batzuk egin beharrak txikitasunaren nolabaiteko goraipe bat eta euskaldunen eskubidea izateko euskaldun izatea komunitate honetan, bestela lehia imposible bat da. Inoiz irabaziko ez dugun lehia bat da. Hemen desagertuko balira ere Mirandan izango dira. Inguratuta biziko ginateke. Orduan ez dakit lehia horrek zentzurik duen. Gehiago da marko guztiz eleaniztun baten komunitate txiki bat gurea bezalakoa euskaraz garatzen dituela zenbait eginkizun. Eta batzuetan gainera inbidia emateko moduan erdaldunei, erakargarriago egiten du, adibidez literatura esparruan hori beti izan da. Erdaldun idazleekin hemen. Orduan hor komunitate bat badago literaturan adibidez, txikia edo handia baina autoabastezitzen dena. Agian horrelako markoak inbentatu beharko genituzke.

→ Diskurtso berri bat egotekotan askatasun pertsonalean oinarritu behar da, ikasteko edo ez eta erabiltzeko edo ez:

- Bestalde aitortu beharra daukat nik fedea galdu xamarra daukadala asunto honetan. Ez dakit zenbat euskaldun edo euskaldun natural edo euskara landu dugunak izango garen **gure buruari bakean uztea eskatzen dugunak**. Nekatuta nago. Nire praxia guztiz euskalduna da gogoia ematen didanean, ematen ez didanean ez da euskerofonoa, baina euskaldun izaten jarraitzen dut, eta ni masa horretakoa naiz. Gure etxean euskaraz egiten da, bakarrik ia-ia. Niri diskurtso guzti hauean, aspaldidanik, **deigarriena egiten zaidana da erabileraren enfasi hori, erabileraren behar hori**.
- Lortu behar dugu integratzea era guztietako motibazioak. Eta batez ere oinarrituta pertsonarekiko errespetuan eta pertsonaren eskubidean. Euskararen legea asmatu zutenak, duela 30 urte, uste dut asmatu zutela pertsonari eskubideak aitortuz eta obligazioak administrazioari. Uste dut hori oso ongi egin zela. Eta uste dut izan dugun ibilbidearen arrakastaren parte handi bat zor diogula horri. Eta euskararen alde egin ditugunak oro har herritarren eta gizartearen aldeotasuna izan dutela. Ez dugu kontrako jarrerarik sortu, nabarmenik behintzat, antolaturik eta abar. Nik uste dut hori oso ondo egin dela hemen zorionez. Iruditzen zaidalako beste errealtate batzuen aurrean, Katalunia eta beste batzuk agian, haien aldean guk zer galdu gehiago daukagula, horrelakorik sortu izan balitz gure artean.

Ez diogu izan behar beldurrik uste dugun edo nahi genukeen adinakoa ez den erabilera baten aurrean. Hori pasa beharreko txarranpina dela iruditzen zait. Alegia, hazten ari gara, euskal hiztunak ez dira orain duela 30 urte bezalakoak, oso era askotako hiztunak daude. Tartean norberaren gaitasuna dago, erabiltzeko aukerak daude. Baina hori dena uste dut dela errealtate bat ikusi behar duguna, asmatuko badugu hor eragiten. Eta ez dugu beldurrik izan behar, hortik pasa beharra daukagu. Alegia, gaur euskaldun-berri asko daukagu gure inguruan. Eta jakina, lehenago euskaldunok, jaiotzez, umetan, etxetik izan garenon artean erabilera naturalagoa, errazagoa izan dugu gure artean, baina mugatuago geunden. Nik orain jende gehiago daukat euskaraz egiteko. Nahiz eta lehenago, nuen ingurunean, euskaldunen tipologia naturalagoa zen. Nik uste dut hortik pasa beharra daukagula, zorionez pasatzen ari garela eta hori ona dela.

→ Diskurtsoan faktore subjektiboetan zentratzeko garaia da:

- Beste kontu bat, diskurtso berritzean eta, azken aldian badabilen kontu bat baina iruditzen zaidana nahikoa uzkur edo itxita jokatu dugula kontu honekin, eta da euskararen alde eraikitzen saiatu garen diskurtso gehienetan garrantzia eman diogula beti erakundeari, gizarteari, kolektiboari, era bateko edo besteko erakunde, kolektibo, talde edo multzori, garrantzia handia jarri da bitarteko estrukturaletan (alegia, aukera izan behar dugu euskaraz aritzeko medikuarengana joaten garenean, udalera joaten garenean, eskolan), horiek denak oso ondo daude, baina iruditzen zait garaia daukagula baita ere, faktore subjektiboetan eragiten hasteko indar gehiagorekin. Uste dut oso garrantzitsua dela euskararekiko leialtasuna, atxikimendua sendotzeko pertsonetara helduz. Alegia, uste dut fokua gero eta gehiago jarri behar dugula pertsonetan. Baloratu dezakegu euskara asko egiten den, gutxi egiten den... denok ditugu horrelako adibide eta kasuak eta abar, harrizten gaituztenak “hau nola ari da gaztelaniaz honekin”, harritu egingo gara... Baina, gertatzen da. Eta alderantzizkoak ere bai; “begira nik honekin gaztetan erdaraz egiten nuen, ikasi du eta orain euskaraz egiten dut”. Eta horrelako adibideak denok ditugu inguruan.
- Eta hori nik uste dut, nik azpimarratuko nuke, berriz ere, eragin genezake gauza estrukturaletan, erakundeetan, etab. eta nik uste dut faktore subjektiboetan eragin behar dela baita ere. Asmatu behar dugu pertsonetara iristen. Azken batean norberak egunero egiten dugun hautuaren arabera jokatu da neurri handi batean baita ere euskararen etorkizuna.

→ Gaurko errealtatea ezberdina da eta diskurtsoa horretara egokitu behar da:

- Nik uste dut errealtate aldagarria bizi dugula, gaurko errealtatea ez dela orain dela 30 urteetakoa, gaurko errealtatea oso anitza dela. Pertsonen motibazioetan ere era askotako motibazioak direla. Eta uste dut lortu behar dugula barneratzen denak alde izateko. Alegia, desbinkulatu behar dugula euskara motibazio bakar bat izatearekin, motibazio politikoa edo ekonomikoa edo ez dakit zein. Bakarrarekin bada ez dugu seguruena sendotuko, ez da lotura osasuntsua.
- Ikusten dut ere belaunaldi berriak, egoera berriak, gizarte berria daukagula, ...
- Ihes egiten diogu askotan, baina nik uste dut, noski ikuspegi erradikal politiko batekin identifikatu denean euskararena, eta ez bakarrik atal edo alderdi politiko jakin batekin, baizik eta jarrera politiko erradikal batzuekin euskara identifikatu denean, horrek dudarik gabe sortu du... eta egingo bagenu

delako mapa horren barruan kontrako jarrera edo *ni fu ni fa* esaten duen jende horren inguruan, argazki polit bat aterako genuke non dauden errealtate horiek. Ikusi dugunean nola joan den bilakaera politikoa eta hizkuntza bilakaera, hezkuntzaren bilakaera eta abar, bai ematen digula sintesi bat momentu batetan hainbatetan defentsa posizio batetik egonda desagertzeko beldur horretatik, pasatu garenean orain beste egoera batetara hainbat lurraldeetan, esan beharra daukagu ere sekulako kostea izan duela horrek ere, euskara identifikatzen denean momentu batetan beste ikuspegi batekin, dudarik gabe bere aurre-jarrera hori beste zer baitetan bihurtzen da. Hain gogor izan gabe ere ikastola batetan, zenbat aldiz erdaldun gurasoak izan eta haiekiko izan den jarrera izan da: "hemen euskaraz", eta hori aldeko jendearekin, beren haurrak ikastolara eraman dituztenak etab. Posizio asaldatu horiek izan ditugu eta horren arabera jaso ditugu ere uzta jakin batzuk.

Ba autokritika horren barruan ere beti dago modua gauzak beste modu batetara planteatzeko, baldin eta orain ulertzen badugu beste balore batzuk ere inkorporatu behar ditugula, eta euskara horrekin lotu behar dugula.

- Bestetik, diskurtsoaren gaiarekin nire ustez ezin dugu planteatu diskurtso bakarra gizarteratzea. Hemen badago graduazio bat. Ni Gasteizen bizi naiz, eta batzuetan 20 urtekoek euskaraz egiten dute baina ez beti, eta badago jende asko euskara existitzen dela ere ez dakiena. Eta jende asko bizi daiteke oso ondo bere bizitza osoan euskara erabili behar izan gabe, eta ez da ezer gertatzen. Orduan diskurtsoak ezberdinak izan behar dira horientzat edo euskaltzale euskaldun batentzat. Hor graduazio bat ere badago.

→ Euskara ikasteko motibazioak oso ezberdinak dira:

- Datu bat: euskaltegietan badago uste bat pentsatzen duela gaur egun euskara ikasteko dagoen motibaziorik handiena dela lanpostu bat lortzea, administraziorako behar den perfila, etab. Bistan da hori badagoela, baina jendeari galdetzen zaionean zergatik ikasten duen etab. Era askotako erantzunak daude, motibazioak dira mila, ikusten duguna da ere gerturatzen den jende askoren motibazioa ez dela lana, adibidez badago jende asko joaten dena euskaltegira erretiroa hartu berritan, osasuntsu dago, gauzak egiteko eta ikasteko gogoia dauka, eta euskaltegira joaten da; batzuk bilobengatik, beste batzuk hori ere ez... Are gehiago, euskaltegietan azken urteetan egon da ikasle kopuruan jaitsiera bat, baina jaitsiera hori ia izan da kointzidentea administratibotik datozen ikasleen kopuruaren beherakadarekin. Beraz, bere kasa euskaltegietara joan direnen kopuruak ez dira horrenbeste aldatu. Horrek niri transmititzen dit jendeak baduela motibazio propioa eta intrintsekoa, euskararen alde, euskara ikasteko etab.

→ Aurkako diskurtsoa neutralizatu edo gainditu beharraz:

- Diskurtsora bueltatuz, lñakik aipatu du kontrako kopuru hori, handia edo txikia, eta horri buruz galdera egin beharra, eta nik hori ezinbestekotzat ematen dut. Eta ez da hau hautsak harrotzeagatik, baina diskurtsoari buruzko eztabaidan pertinentea iruditzen zait, aurreko urteei erreferentzia egin denean, ni euskalduna izan naiz betidanik, halaxe jaio nintzelako, eta lantzea tokatu zait, lantzea afizioz egin dut, eta gustura ibili naiz euskararen munduetan, eta euskaltzalea izan naiz beti, ni eta nire familia eta inguru guztia. Eta nik hala ere euskara entzunda beldurra sentitu dut. Eta ez dakit pertzepzio hori noraino konpartitu daitekeen jendearekin. Baina niretzat inseguritate fisikoaren faktore bat izatera iritsita dago, euskara entzutea nire atzean. Eta pertzepzio horrekin zer esaten diot jendeari euskaraz? Zer esaten diot ez dakienari edo erdizka dakienari? Edo familia erdaldunekoa denari?
- Eta faktore ideologiko aparte... Nik uste dut hizkuntza bat inguruan izatea dabilena eta darabiltena eta ez ezagutzea limitazio bezala oso frustrantea izan behar duela batentzat, eta frustrazio hori batzuetan superazio gogoia egingo dela eta beste batzuetan amorru bihur daitekeela besterik gabe, edo diskriminazio sentsazio. Ni sentsazio guztiak ulertzeko prest nago, irrazionalenak diruditenak ere. Baina uste dut kontutan hartu beharreko faktoreak direla.
- Batez ere azken 30 urte hauetan uste dut gauza asko egin direla ondo, gauza gehienak egin direla ondo, eta esfortzu horri esker gaudela hor. Baina badagoela kritika latz eta lazgarri bat egin beharra ere. Eta hemen diskurtso kritikoa aipatzerakoan gehiegi eta gutxiegi egiten dio aipua, baina ondo edo gaizkiri ez dio egiten eta uste dut badela garaia, eta esaten dute orain askatasunez hitz egin daitekeela honetaz, inork zeirik gabe, .. eta uste dut gaizki egin direnak, eta ondo ere bai noski, ebaluatu egin behar direla eta hori ez dela oraindik egin, eta oraindik gizaratean estigmatizantea dela. Norbaitek esango balu "diru gehiegi gastatzen du Gipuzkoako diputazioak" ez genuke ulertuko igual.
- Nik uste dut ulertu behar dela ere prozesu naturala dela. Alegia, orain dela 40 urte galdetu izan bagenio jendeari, zu euskararen alde edo kontra zaude? Kontrako bat aurkitzea kosta egingo

litzai guke. Segur asko bere errealitate pertsonal eta ingurunearen errealitate elebkarretik ez zuen eragozpen, deserosotasun, edo enbarazurik sumatuko. Gaur zer gertatzen da? Gero eta gehiagotan ikusten da, eta nik ulertzen dut hainbat elebkarrentzat batzuetan deseroso izatea euskararen presentzia eta erabilera. Zergatik? Ziurrenik izango dutelako sentipen hori “zerbait galtzen ari naiz”, “ezin dut hori segitu”, “Gazte hauekin trenean noa ordu erdi batez eta ez dakit zertaz aritu diren ere” ... Eta nik uste dut hori ulertu behar dela pasa beharreko zerbait bezala. Kezkagarria izan daiteke neurri batetik gorako kontrako jarrerarik sortzen den edo ez den... Neurri hori zein den ez dakit, baina hori zaindu beharreko zerbait da. Uste dut inoiz pertzibitzen hasten bada jende andana handi bat euskararena inposizio modura edo behartzen duten zerbait bezala ikusten dutenak, ba ziur asko gerra galtzen hasiko gara. Orduan nik uste dut hori zaindu beharrekoa dela. Ez baitugu irabazten horrekin, beti irabaziko digu besteak.

- Aukera bakarra erakargarri egitea da. Erakargarria ez den bitartean, behartzeak ez du ezertarako balio. Epe luzera ez du balio.

- Nik esango nuke, Nafarroaren kasuan pasa behar garela euskararen aurkako gorrototik, zeren eta Nafarroan gorrotoa izan da, neutraltasunera. Eta gero neutraltasunetik aldekotasunera posible baldin bada. Ni baikorra naiz, eta esango nuke gizartea, historia,.. guzti hori alde daukagula, eta horrek jartzen gaitu norabide batetan eta norabide hori ikusita zer gertatzen zen orain dela 30, 20 edo 10 urte, eta oraingo egoerarekin alderatzen badugu, guk nahi dugun norabidean doa. Gauza da horrek behar duela denbora bat. Eta kontua da guk ahal dugun arindu eta bideratu, eta erraztu. Eta horretarako hoberena da hausnarketa. Eta horretarako uste dut gaudela toki egokian. Nik uste dut Nafarroan lortu dela gorrototik neutraltasunera pasatzea, baina nik gorrotoa bizi izan dut. Nik Nafarroan zerbait euskaraz esan eta banekien Nafarroan sortuko zuela horrelako ezinegona, igartzen zen. Eta horian neutraltasun puntu horretan gaude, asko aldatu dira gauzak. Nik lehen Iruñean ezin nuen arnasarik hartu, eta orain bai, eta gustura. Baina horrek behar du bere denbora, bere erritmoak behar ditu, eta gu saiatu behar gara ea hor pizgarriren bat edo aurkitzen dugun, baina historia eta bilakaera alde daukagu. Nik horretan ez daukat inolako zalantzarik.

→ **Diru gehiegi gastatzen da, gutxiegi, agian hobe gastatzen den dirua ongi gastatzen denari buruz hitz egitea:**

- diru gehiegi edo gutxiegi gastatzen den horretan, agian gastatzen den bezala gastatzeko gehiegi gastatzen da, baina gastatu beharko litzatekeen bezala gastatzeko gutxiegi.

→ **Nola egin euskara erakargarriago? Arrazoi identitario politikoekin? Ez dirudi bidea denik:**

- Afektiboki, Nafarroako edo Iruñeko pertsona askorentzat, euskarak ez dio deus esaten, eta beharbada bere aitona-amonak euskaldunak ziren baina puskatuta dago katea edo zuzenean ez dute deus ikusi nahi. Baina nola erakartzen dituzu? Zein da diskurtsoa benetan emozionalki inteligentea? Benetan inportantea da. Erakarri nahi baduzu. Baina bai euskalduna zaren aldetik gustuko zenuke jende gehiagok egitea, partekatzea zure kultura, hitz egiteko modua, ... Baina zaila da, objektiboki zaila da ez badugu asmatzen zerbait. Eta bestela gelditzen zaizuna, eta igual hori batzuentzat interesgarria da baina niretzat pertsonalki ez, geratzen dena da identitarioa izatea, politikarekin lotua eta behar bada hori da bakarrik funtzionatzen duena. Hori kezkagarria izan daiteke baina.

→ **Estatuak ere ez du laguntzen horretan (ez dago adostasunik honetan):**

- Estatuak ere ez du laguntzen horretan. Printzeak bost edo sei hizkuntza omen dakizki, baina ez daki ez katalanez, ez euskaraz...Baina ez da Printzea bakarrik, gure politikoez, estatu mailako politikoez, ez dago politikorik hizkuntza guztiak hitz egingo dituenik, ez zaie beharrekoa iruditzen. Zerk emango dio ospea? Edo zerk egingo du hizkuntza erakargarri? Bihotzeko atxikimendurik ez daukanari, goitik ez zaio etorriko.

Beste batzuk ez dute uste hori garrantzitsua denik:

- Printzeak ez dio emanen (ospea). Baina bai komunitate bat edo zerbait egotea erakargarri. Berez, diskurtso horretan sortu beharko litzatekeena.

→ **Diskurtso partekatu batek ere denborak aipatu beharko lituzke, zein epetan egingo den:**

- Diskurtso konpartitu batek seguruena aipatu beharko lituzke baita ere epeak edo denborak, denboren negoziazioa. Gizarte aldetetarako, bakoitzak daukagu bere denborak. Lehen esaten genuen, oraingo egoera imajinatu ere ez genuela egiten orain dela 40 urte. Eta orain hemen gaude eta badago ia atzera egin duela esaten duenik ere. Baina nire ustez pazientzia hartu behar da eta denbora luzeak

eman behar dira. Erritmoak neurtu behar dira eta ez eskubidea daukat eta Ya! Temple gehiago behar da.

- Ikusten ari gara diskurtsoarekin batera, politika egokiak, epeak behar direla. Urte hauetan epeak jarri izan dira gauza batzuetan iritsi da epe horretara eta ez da bete adostutakoa eta ez da ezer gertatzen. Bueno epeak jarri behar dira eta agian malguak izan behar dira. Horretan ados, progresiboak eta nahi den guztia, baina epe batzuk jarri.

→ **Euskaltzaleekin kontatzea oraindik ere ezinbestekoa da:**

- Nik uste dut oraindik ere euskaltzaleak behar beharrezkoak direla. Ez da nahikoa erakundeekin, politika zuzenekin, oraindik ere euskaltzaleak behar ditugu, baldin eta aurrera egingo badugu. Gure egoera ez da azaltzen euskaltzalerik gabe. Hemendik kanpo zuk esplikatzen duzunean edo beraiek dakitenean zein bilakaera izan duen euskarak urte hauetan normalean aztertzerakoan ahazten zaie elementu hori eta euskaltzaleak oraindik beharrezkoak dira.
- Komunitate txikia izanda beti beharko da. Beti plus horiek beharko dira. Bestela inertziak eta eboluzio naturalak galtzera eramango gintuzke. Nik uste dut behar dela. Kontua da jokamoldeetan eta jarretan eta asmatzea gaurko gizartearen behar eta nahi horien arabera.
- Kontua da kontzientzia hartu beharko dugula hizkuntzek aukera gutxiena duten gizartean hizkuntza aukera egin beharra daukagula. Gero eta materialki aukera inposibleagoa izango da hizkuntza batera, berak esan duen bezala ingelesaren indar hartze horrekin hizkuntza aukeraketa gutxiago egongo direla, eta aukera horietan gurearen alde borrokatu beharko garela eta borroka desproporzionatua dela. Eta galtzaileen borroka dela. Baina iraun egin behar dugula.

1. TALDEA

Hustuketa: Ane CRESPO

EUSKARAREN DISKURTSOA

- Argudiok eskaintzea beharrezkoa izanda ere, zalantza bat planteatu daiteke: diskurtsoa berritzeak zein eragin izango du euskararen normalizazioan? Horrekin konponduko ditugu euskararen inguruan dauden arazo guztiak?

Gaiaren aurkezpenean esandakoek ere transmititzen dute diskurtso bat: lehenago ez da kontsentsurik egon, ezta adostasunik, atxikimendurik edo bizikidetzarik ere...

Diskurtsoa eraiki behar bada estrategia zehatz bati erantzuteko izango da: strategiaren arabera diskurtsoa egokitu behar da. Hortaz, oinarrizko diskurtsoa landu behar bada, strategiara jo beharko dugu. Adostuta dugu euskararen inguruan garatu beharreko estrategia? Badakigu nola erantzungo dion estrategia horrek euskararen normalizazioari? Badakigu zein diskurtso zabaldu behar dugun estrategia horren baitan xedetalde bakoitzari zuzentzeko? Edo diskurtso bakar bat eta unibertsala adostu behar dugu euskararen auziak eta konpontzeko?

Prebio batzuk behar dira. Estrategiarekin batera beste aldagai batzuk aztertu behar dira, maila diskurtsiboan, maila politikoan, gizartearen alorrean...

- Historikoki pertsonengan jarri da fokoa, eta ez espazioetan; eta pertsonak euskalduntzea bezain garrantzitsua da espazioak ere euskalduntzea.

Ezin dugu diskurtso bakarra gizarteratzea planteatu. Graduazio bat egon behar da.

- Diskurtsoekin batera, politika egokiak ere behar dira, bai eta epeak ere (malguak izanda ere). Diskurtso anitzak behar ditugu, marko bat elikatzeko. Baina hori bezain inportantea da politika egokiak bideratzea, eta gizartearen babesa. Diskurtsoarekin bakarrik ez da lortzen gizartean eragitea: neurri politikoak eta gizartearen babesa behar dira.

- Lidergoaz ez dugu hitz egin. Diskurtsoei dagokienez aktore asko daude.

- EAEn kontsentsua izan da, eta denok elebidunak izateko nahia dago. Nafarroan, berriz, ez dago

halakorik: minoria batek badu euskaraz bizitzeko eskubide aitortua, baina gainontzekoek ez. Ingelesa modu nabarmenean sartu da hezkuntzan, eta askok aukeratzen duten euren seme-alabek gaztelaniaz eta ingelesez ikastea. Afektiboki, Iruñerriko askori euskarak ez die ezer esaten. Nola erakarri jende hori? Zein da emozionalki inteligenteena den diskurtsoa?

- Euskara pizten duen diskurtsoa behar da, edo pizturik mantenduko duena. Hizkuntza erabilgarria, funtzio guztietan.

- Lurraldeetan egoera desberdinak ditugu. Hori horrela, horren arabera diskurtso desberdinak eraiki beharko ditugu. Une honetan problema da diskurtsoaren atzean zein helburu, zein xede daukagun. Euskal Herrian bizi garen guztiok eduki dezakegu hizkuntzari begirako xede bera?

- Euskara jarrera politiko erradikal batekin identifikatu izanak jarrera bat sortu du. Posizio asalatuak izan ditugu, eta horrek jarrera batzuk eragin ditu. Orain beste egoera batean gaude.

Gaur egun EHN elebakarrak eta elebidun/eleaniztunak gaude, egoera soziolinguistiko eta jarrera desberdinak. Bigarren multzokoak gara aurrera jarraitu nahi dugunak, eta emozionalki inteligenteenak izan behar dugu geurea garatzeko eta aldi berean besteen jarrera ere irabazteko.

- Diskurtsoa eraikitzen denean, beste batzuekin elkarbizitzen ari zarenez, haiekin ere loturak egin behar dituzu. Gure estrategiaren barruan sartu beharko litzateke elkarbizitzarena, beharbada aurrekoetan asmatu ez dugulako,

- Euskararekiko ikuspegiak direla eta, azken hamarkadetan bi bloke egon dira, oso fokalizatuta, bizitzako gainontzeko esparruetan bezala. Kontu hori gainditzen ari da gizartea, modu biologiko natural baten bitartez. Hori arindu beharko genuke, edo horri lagundu beharko genioke.

- Gorrototik neutraltasunera pasa behar gara, eta bide onetik goaz. Lehenbizikoa hausnarketa da, eta horretan ari gara. Historia eta bilakaera alde dauzkagu. Neutraltasunera heltzeko pizgarriak ba ote dauden ikusi behar dugu.

- Gaurko egoera eta orain 30 urtekoa oso desberdinak dira. Hemen bi hizkuntza ditugu, biak hemengoak. Asmatu behar dugu bi hizkuntza edo gehiagoren arteko elkarbizitza eroso eraikitzen, bestela hizkuntza txikien kontra arituko baikara. Beraz, etorkizunean euskararen alde izango diren diskurtsoen ikuspegia barneratua izan beharko genuke. Euskararen alde eraikitzen saiatu garen diskurtsoetan, garrantzi gehiegi eman diegu erakundeari, gizarteari... erabateko edo besteko talde edo multzoari. Garrantzi handia jarri da bitarteko estruktura horretan. Garaia dugu faktore subjektiboetan eragiten hasteko indar gehiagorekin. Fokoa gero eta gehiago jarri behar dugu pertsonengan.

Horrez gain, euskara desbinkulatu egin behar dugu motibazio jakin bati lotuta egotetik. Era guztietako motibazioak integratzen saiatu behar gara, euskararen alde, pertsonarekiko errespetuan eta pertsonaren eskubidean oinarrituta batez ere.

Orain dela 30 urte euskararen legedia sortu zenean, oso ondo asmatu zuten pertsonari eskubideak aitortuz eta administrazioari betebeharrak ezarriz.

Eta izan dugun arrakastaren zati handi bat adostasunari zor diogu, herritarren aldekotasunari.

- Kontrako jarrera nabarmenik ez da egon, antolatutik behintzat.

- Kontrako jarrerena zaindu beharreko kontua da. Jende multzo handi bat hasten bada sentitzen euskara inposizio gisa, orduan galduta daukagu.

- Gure gizarte-bizikidetzan euskara integratzen duen diskurtso bat lortu behar da benetan. Diskurtsoek, motibazio-elementuek, aniztunak izan behar dute eta bakoitzaren hautua errespetatu behar da. Baina integratu egin behar da. Mutur batekoek asumitu beharko dute seguru asko prozesua ez dela joan behar / nahi bezain azkar, eta beste muturrekoek, elebakarrek, asumitu beharko dute elebakar izanda deserosotasun puntu bat izan dezaketela, euren eskubidea izanda ere. Horretarako errealitatean eragin behar da.

Funtzioena ere kontuan hartu beharrekoa da. Ohitu beharko dugu pertsona bakoitzak hainbat hautu egitera,

espazioaren arabera.

Errealitate desberdinak dira, eta asmatu behar da errealitate horietan nola elikatu euskararekiko atxikimendua.

- Berdintasunaren alde ari bagara, politika proaktiboa egin behar da deskonpentsazioa orekatzeko. Hori justifikatzen duen diskurtsoa eraiki behar dugu.

Inteligentzia politiko, diskurtsibo, emozionala...behar ditugu horiek permeabilizatuazteko.

- Inportantea da kontuan hartzea hizkuntzen bilakaeraren errealitatea oso konplexua dela, eta hor ez dagoela soluzio magikorik. Asmatu behar da errealitate berrira, gaurko belaunaldietako ezaugarrietara, egokituko den diskurtsoa, politika...eraikitzen.

Faktore estrukturaletan eraginenezake, baina faktore subjektiboetan ere eragin behar da. Pertsonetara iristen asmatu behar dugu. Azken batean, norberak egunero egiten duen hautuaren arabera jokatu da.

- Hizkuntza garatu egin behar da, eta garapen horretarako ezinbestekoa da adostasuna. Orduan, beharbada ez dira diskurtso berriak behar izango, baina seguruenik bai diskurtso-egokitze bat. Gizarte honetako gorabeherak asko aldatu dira eta gutxienez onartu behar dugu orain arte egon diren diskurtsoak elkarren artean inkomunikatuak egon direla, elkarren berri jakin gabe.

- Inseguridade fisikoaren faktore izatera iritsi da euskara (adibidea: euskaldun eta euskaltzale izanda, kalean euskara entzun eta beldurra sentitzea).

Oso garrantzitsua da jakitea jendeak zer esaten dion euskarak, euskararekiko pertzepzioa zein den (ez dakienari, erdizka dakienari...). Hori guztia faktore ideologikoez aparte. Izan ere, kontuan hartu beharrekoa da.

Azken urteotan egindako lana ondo egin bada ere, kritika egin behar da ebaluazioari dagokionez. Ez dugu oraindik gauzatu gaizki egindakoen ebaluazioa.

- Garbi utzi behar da gizarte elebiduna ez dela gizarteko norbanako bakoitzak bi hizkuntza jakitea. Ez dauka zentzurik esateak pediatra batek umeari euskaraz hitz egin behar diola Euskal Herrian bizi garelako; euskaraz hitz egin behar dio umea euskalduna delako. Hizkuntzaren diskurtso kolektiboa egiten dugu, eta norbanakoa da. Hitzun ezberdinen bizikidetzarako artikulatu egin behar du gizarteak, eta horretarako eskubideak bermatu.

- Diskurtso ezberdinen bizikidetzeta da planteatzen dena. Nola gerturatu diskurtso desberdin horiek?

- Erdaldun elebakarrak EAEn minoria izatera helduko balira ere, komunitate linguistiko erraldoi bateko kide dira, eta horrek ematen dien babesa eta garapenerako aukera nahiko defentsa dira haientzat. Seguruenik kostatuko zaie entenditzea horrelako neurriko tresna bat edukita, tresna txiki bategatik baztertea.

Orduan, txikitasunaren nolabaiteko goraipe bat egin behar da, komunitate horretan euskalduna izateko eskubidea dagoela esateko. Bestela, inoiz irabaziko ez dugun lehia izango da.

Marko guztiz eleaniztun batean, gurea bezalako komunitate txiki batek euskaraz bideratu behar ditu eginkizun batzuk, batzuetan gainera erdaldunei inbidia emateko moduan (adib. Literatura).

- Diskurtso konpartitu batek epeak aipatu behar lituzke, denboren negoziazioa. Gizarte aldaketarako, bakoitzak geure denborak ditugu. Paizentzia gehiago behar dugu, erritmoetan tenple gehiago.

Bi hizkuntzek dute eskubidea, komunitate honetako bi hizkuntzetako hitzunek dute eskubidea.

- Euskara erabilgarria izan behar da funtzio guztietan, baina sozialki espazio batzuk indartsuagoak izango dira, eta espazio horiek aprobetxatu behar dira.

- Diskurtso berria eraikitzeko aukera bakarra erakargarri egitea da. Behartzeak ez du ezertarako balio.

- Oraindik ere euskaltzaleak beharrezkoak dira. Ez da nahikoa erakundeekin, politika zuzenekin...baldin eta aurrera egingo badugu. Gure egoerak ez dauka azalpenik euskaltzalerik gabe.

- Orain arte gaztelaniaren indarra hartu da kontuan, baina orain eta hemendik aurrera ingelesa hartzen ari den eta hartuko duen indarra oso kontuan hartzekoa da.

GAITASUN KOMUNIKATIBOA

- Zabaltzen ari diren diskurtso batzuekin kontuz ibili behar da: “euskara zaila da”, “euskara ikasten da baina ez da erabiltzen”... Ez baitira egiak.

- Fokoa euskararen ezaugarrietan jartzea ez da egokia.

Euskara ez da hizkuntza zaila. Gehiago erabiltzen ez bada, espaziorik ez dagoelako da.

- Gaitasun komunikatiboa landu beharra dago. Ikasleek erabat garatuta izan behar dute gaitasun hori. Horrela, ikastoletan euskararen ardaztutako eleaniztasun bat planteatzen da.

Gaitasun komunikatiboa garatzeko garaian oso inportanteak dira ikaslearen inguruan dauden agente desberdinek hizkuntzarekiko dituzten jarrerak. Horrek espektro bat irekitzen du, irakaskuntza ikaragarri errefortzatu dezakeena. Baina hizkuntzaren garabidea ez dago landuta hezkuntza ez-formalaren terrenoan. Alde horretatik, diskurtso bat eraiki beharra dago. Gabezia hori badago.

- Ahaztu egiten zaigu nondik gatozen. Egoera desberdinak ditugu lurraldeetan. Kontuan hartu behar dugun zer faktorek eragin duten EAEn egoera batean egoteko, beste batean Nafarroan, eta beste batean Iparraldean. Alde batera utzita hizkuntzaren gaitasun komunikatiboa.

Argi dagoena da EAEn aukerak dauzkagula, kondizio batzuk sortu direlako, eta gai garela hau bezalako diskurtsoak egiten jarraitzeko. Nafarroan eta Iparraldean nekez eraikiko dugu diskurtso bera, beste faktore batzuek eragiten dutelako. Tartean dago estatusa, jarrera politikoa, herritarren jarrerak...

Euskarak baditu bere mugak gaitasun komunikatiboan, zenbait alorretan, eta besteekin konparatuta.

Hurrengo urteetan ingelesak funtzio bat jokatu du, beraz, ikuspegi pragmatiko batetik gure umeei ezinbestez eduki behar dute gaitasun komunikatiboen barruan, besteak beste, gaitasun linguistiko bat ingelesez. Eta horrek funtzio bat beteko du bere komunikazio beharretan, euskarak eta gaztelaniak beteko duten bezala. Segun zein funtzio eman nahi dion hiztun bakoitzak hizkuntza bakoitzari, horren arabera egingo du garabide bat ahozkotasunean, idatzizkoan, zein bestelakoetan. Estrategia hori desberdina izan daiteke toki batetik bestera.

- Ahalmen komunikatiboa euskarak badu, % 100. Beste gauza bat da beste zailtasun batzuk egotea, beste hizkuntza batzuekin konparatuz.

- Batzuetan, euskarari buruzko ikuspegi sinbolikoa izateak kaltea ekarri digu. Errealitatean erabiltzen dugun euskara, euskara dela aitortu beharra daukagu. Masa kritikorekin zerikusia du. Ingelesak, adibidez, ejerzito ikaragarria du bere alde, ez dira bakarrik ezaugarri intrinsekoak. Hizkuntza txikietan, erabileraren eta motibazioaren faktoreetan eragin behar dugu, hau da, lortu behar dugu jendea gustura egotea euskararekin. Eboluzio hutsaren esku utziko bagenu, gaztelaniak gainditu egingo gintuzke.

- Egia da euskarak hitz luzeak dituela. Ez gara euskararen kontra ari horrelakoak adieraztegitik.

- Erraztasun faltaren diskurtsoa zaila da mantentzen. Munduko ume guztiak hasten dira esaldiak osatzen bi urteren bueltan. Euskara zailagoa balitz, pentsatu beharko genuke guk gaitasun berezi bat daukagula.

- Gure gaitasun komunikatiboaz hitz egoterakoan ez da hizkuntza bakarrik kontuan hartu behar. Beharbada euskaldunok ez dugu komunikatzeko gaitasun handia (ahoz). Ez da hori sustatzen. Beste kultura batzuetan gehiago sustatzen da. Nabarmenki, irakaskuntza sistemak ez du ahozko hizkuntza behar adina sustatzen.

Beste hizkuntza batzuei dagokienez, frantsesa asko erraztu da azken urteetan (badaude subjuntibo forma batzuk literaturan ere erabiltzen ez direnak). Ingelesa, aldiz, zaildu egin da (phrasal verbs).

Guk ez dugu nahikoa bereizten ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia. Idazleen artean badago joera bat,

txokokeria bat, indartzen ari dena: auzo edo zonalde jakin batean erabiltzen dena orokorrera zabaltzearena.

- Euskarak beste hizkuntza europarren gaitasun komunikatiboa dauka?

Euskara gutxitan erabiltzen dugu, eta gehienetan berehala pasatzen gara euskañolera edo gaztelarrera (urduri jartzen garenean, haserretzen garenean, zailtasunen bat dugunean...).

Horrez gain, euskarak oso hitz luzeak ditu. Aditz-sistema ere ez da erraza...

- Hizkuntza batzuk, zorionez edo zoritxarrez, errazago sartzen dira.
- Gaitasun komunikatiboa hizkuntza guztiek daukate, baina hizkuntza batzuk beste batzuk baino gehiago. I. eta II. Mundu gerraren artean mugimendu bat egon zen Europako ekialdean horren inguruan. Horretan konziente izan behar gara modu positibo batean. Euskarak bere mugak ditu. Eta ingelesak daukan pagotxarrik handiena ere aipatu dezakegu: ez dauka akademiarik.
- Bi hizkuntza baldin badakizkizu, errazago egiten zaizuna erabiliko duzu, edo eboluzionatuena, alde batera utzita alde afektiboa.
- Donostia batean, euskara erabil dezakezu normaltasunez. Gertatzen dena da elkarrizketa konplikatzen denean jendea gaztelarrera pasatzen dela.

EGOERA DESEROSOAK

- Aldiro, egoera deseroso edo desatseginetan aurkitzen gara, sentsazio kontrajarriek eraginda. Erabilera ez-formaletan zailtasuna dago euskara erabiltzeko, eta hori kontrajarria dago eskoletan-eta edota gurasoek egiten duten ahaleginarekin.
- Batzuetan gutxieneko maila ere ez dago jorratuta komertzioetan (Donostian). Jende gaztea egoten da, baina salerosketarako gutxieneko mailara ere ez dira iristen askotan. Horrek nekatu egiten du. Harrigarria da euskarak nola iraun duen milaka urte, baliabiderik gabe, lurralde hau bidegurutze bat izanda. Gure ardura da mantendu den hori hobetzea eta bideratzea.
- Kosta egiten zaigu elkarrizketa bat euskaraz hastea, ez badakigu aurrean duguna euskalduna dela. Gure burua gehiegi bortxatu behar dugu horretarako. Normalean euren artean gaztelaniaz hitz egiten duten euskaldunak euskarara pasatzen dira gu inguruan ikustean edo sumatzean.

ERABILERA

- Orain, euskal hiztunak ez dira orain 30 urte bezalakoak. Era askotako hiztunak daude. Tartean norberaren gaitasuna dago, erabiltzeko aukerak daude... Ikusi behar dugun errealitate bat da, asmatuko baldin badugu hor eragiten.
- Gaur egun euskaldunberri asko daukagu inguruan, eta euskaldunak etxetik izan garenon artean euskararen erabilera errazagoa, naturalagoa, izan dugu gure artean, baina mugatuago geunden. Orain aukera gehiago dugu inguruan euskaraz egiteko, nahiz eta lehen euskaldunen tipologia naturalagoa zen.
- Deigarria da aspaldi honetan erabilerari egiten zaion enfasia, erabileraren beharra. Silogismoa bat ikusten da esaten dugunean “euskaraz inoiz baino gaituago gara, eta inoiz baino gutxiago egiten dugu”. Hori ez da egia. Euskararen gaitasuna eta erabileraren obligazioaren arteko harremana rekon sideratu beharra daukagu. Jendearen kontzientziak lasaitu behar dira. Kale-erabilerak, etxeko erabilerak...noraino dute euskarri zientifikoa?
- Hizkuntzak lehian dabilta. Gazteak eskolan euskalduntzen dira, eta gero euskara baztertu egiten

dute. Segurenik, adin jakin batera etortzen direnean hizkuntza kontzientzia aldatu egiten da eta berriro errekuperatzen dute.

Hizkuntza bakoitzak, gizarte eta kolektibo bakoitzean estatu funtzional batzuk ditu (afektiboak, ludikoak, akademikoak, laboralak...). Elebitasuna da horietako bakoitzean hizkuntza kokatzen joatea, eta hizkuntza bakoitzari ematea karrotik tiratzeko aukera.

2. TALDEA

Moderatzailea: Ane CRESPO

2. TALDEA

Hustuketa: Ane CRESPO

EUSKARA SUSTATZEAREN ALDEKO/KONTRAKO JARRERAK

- Euskararen kontrakotasuna: Jarrerari buruz emandako datuak , Nafarroan, % 14. Galdera bera , zalantzan jartzen da ... Euskararen kontra egotea? kuantitatiboko zein kualitatiboa ere adierazgarria da. Eskubide baten alde edo kontra dagoen galdetzea ere...? Iritzi hori politika jakin batekin lotzen da: eskuin politikarekin. politikoez politizatzen dute euskararen diskurtsoa. Horrelako jarrerak Nafarroan ugari izan dira, politikarien aldetik.
- Inportantea litzateke zer galdera nagusi planteatzen ditugun diskurtsoa osatzeko. Egin beharreko lehenengo galdera honako hau litzateke: hizkuntza gutxitu bat sustatzeak merezi du? Iruditzen zait erdaldunekin landu beharreko galdera dela eta baita euskaldunekin ere.
- Jarrera horiek daude hizkuntza politikak ez dauden tokietan, Iparraldean eta Nafarroan, ez? Euskaldunen artean ere badira, erdaraz bizi direnak, inkoherentzia batean bizi direnak. Euskara sustatzeak zer esan nahi du? zer da hizkuntz aniztasunaren jasangarritasuna? subsidiaritate printzipioa euskaraz nola bermatuko dugu gaur egungo Euskal Herrian? Abiapuntua ez da ona eta hau iruditzen zait larriena: ezin dugu eraikitzen hasi denak eraikitzeke gogoz ez bagaude.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK / GIZA ESKUBIDEAK

- Aipatzen da Unesco, Europako karta... baina bada islatzen ez den errealitatea: Espainar konstituziotik Autonomi Estatura ofizialkidetasunean gaztelerari gordetzen zaion pribilegioa, eta euskararen hiztunei ez. Frankismotik erregimen berrira euskararentzat aldaketa gutxi: ez errespetu, ez berdintasun printzipiorik, legeen interpretazioa dela eta komunitate batek pribilegioak atxikitzen ditu beretzat, indarrez, eta besteei ukatuz. Legeak ez daude berdintasun printzipioan oinarrituta, edo legearen interpretazioa ez da berdintasun printzipioetatik egiten. Asimetria horrek eraikitzen du errealitate sozial asimetrikoa.
- Giza eskubideen deklarazioa ez da garatu hizkuntza eremuan. 1996an Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazioa Unibertsala onartu zen. Unescoren esku utzi zen eta ez da ezer egin, ez du balio juridikorik. Nazioarte mailan ez dago pertsonen hizkuntz eskubideak babesten duen tresnarik. Interesgarria litzateke Unescoren dokumentua jasotzea bertan jasotzen direlako. Hizkuntza eskubideek bi dimentsio dituzte: pertsonala eta kolektiboa.
- Tableroa abiapuntutik tranpeatuta dago. Berdinen arteko zerbait balitz bezala hitz egiten dugu eta hori ez da horrela. Izenburutik daude gauzak gaizki planteatuta. Framing aldarrikatzailea eta framing uzurtua behintzat biak euskararen aldeko jarrera batetik abiatzen dira. euskara 2. mailako gisa, axolagabekeria, oso ezkor... baina onartzen zaio gutxieneko izate bat. Baina planteatzen diren datuekineuskara izan dezakeen zoru partekatua...badirudi Nafarroan % 34ak ez duela parte hartu nahi euskararen zoru partekatuan. Hor zer diskurtso eraiki behar den? Oinarrizkoetara jotzen dugu: gisa eskubideak. Hori aldarrikatu behar da XXI. mendean?

- Legeak aldatzea lortzen dugun bitartean zerbait asmatu beharra daukagu, bestela erdaldunak beti babestuko dira legearen pean. Espainola jakin behar dugu eta euskara erabiltzeko eskubidea... lege horiei aurre egiten behar diegu. Babes legalik ez dugu.
- Hizkuntza hautua askatasunean egingo bada orduan legean dauden derrigortasunak kendu egin beharko lirатеke hau da, gazteleraren derrigortasuna; gaztelera derrigortu behar bada orduan lekuan lekuko hizkuntzak ere derrigortu beharko lirатеke. Berdintasuna da erreklamatu behar dena. Arazoa ez da Konstituzioa, gero Estatueta egiten den interpretazioa da arazoa,
- Legeak aldatu bitartean badaude gauza zehatzagoak aldatu beharko lirатеkeenak. Pedagogia falta dago oro har alde egon daitekeenari begira, ezjakintasun handia baitago hizkuntzen inguruan. Dela eskubideak, dela zenbat hizkuntzak dauden euskara bezalakoa... Garbi dago hemengo hizkuntza politikak onespina bilatzen duela eta kontrako jarrerak ez areagotzea; baina horrek ez du esan nahi "lasai, ez zaitut molestaturiko",... esfortzu bat da eta ahalegin bat eskatuko digu, denoi. Zuk ez duzu euskara ikasiko zure eskubidea delako, baina onartu behar ditugu eremu batzuk, (katalanen TELPak)... horrelako jarrerak onspen mailan onartzen dira.
- Hizkuntza eskubideen kontuan bakarrik kexak kontuan hartzen dira, baina nekagarria da beti kexak ipintzen ibiltzea. Hala ere kexen bidez aurrerapenak lortzen dira ere gauzak.

BIZIKIDETZAREN DISKURTSOA

- Bizikidetzarekin konparatzen da. Bizikidetzak konpontzeko hiru pausu planteatzen dira: Egia, memoriak, relato pluralak eta berradiskidetzea. Zein da euskararen egia? ebidentziak? gertatu dena nola bizi dugun? baina egia, ebidentea dena. Horri gehitu behar diogu euskaldun denen bizipenak. Ulertze-molde edo egia hori ezagutzen dugu? nola eraikiko dugu? zein izango da eraikiko den egia? bakoitzak berea dauka.
- Konbibilitatearen diskurtsoa sortu behar da, bizikidetzarena, zentzu zabalean.
- Elkarbizitza euskaraz partekatzeke prest gaude? ikusten dugu hemendik 20 urtera etorkizuna euskaraz izango dela? zein da norabidea? nola izango da etorkizuna euskaraz/gaztelera %50/%50?
- Hemen hizkuntza sustatzeko aldeko jarrera bada. Hori elikatu behar da. Eta nola lortu daiteke hizkuntza biziberritzea? Etorkizuneko belaunaldietan ezagutza unibertsala bermatzea da oinarritzeko baldintza. Hori bizikidetzarekin ere erabat lotuta dago. Nik ez daukat hizkuntza askatasunik hemen erdaldun bat baldin badago.

HEZKUNTZA SISTEMAREN eta UNIBERTSITATEA

- Umearen potentzial linguistikoa ez dago babestuta Estatuarengandik. Dagoena da gurasoen nahikari politikoen babesa. Pedagogia handia egin behar da. Oraindik hemen dagoena da diskurtso oso kolonizatzaile bat. Eta honek ez du argitzen laguntzen zer dagoen. Oraindik gure Hezkuntza sailburua ereduak defendatzen ari da. Badira beste bide batzuk, Katalunian adibidez. Umearen gaitasun linguistikoa da babestu, sustatu, garatu eta elikatu behar dena. Hori da inbertsioa egitea etorkizunari begira.
- Formazio soziolinguistikoan hutsune nagusia: hiztunak ateratzen dira desarmatuta, baliabiderik gabe. Ikastetxetik ateratzen den ikaslea eta bere bizipen linguistikoa analizatu eta modu sano batean bizitzeko tresnarik gabe ateratzen da. Eremua politizatu egiten da eta ez dago despartidizatzeko tresnarik, edo hizkuntza politikaren hari nagusiak hobeto ezagutzeko eta horren kudeaketa egin ahal izateko bere bizitzan, askatasuna baliatu ahal izan dezan, libreki hautatu ahal izan dezan, kontuan izanik hori bai bere eskua luzatzeko eskubidea bestearen sudur puntan bukatzen dela.
- Pedagogia egin behar da aurrera begirako belaunaldiei begira. Gazteek orain arte hartu dute bi hizkuntzen arteko talka, gatazka, eta sentsazio horrekin ateratzen dira eskoletatik. Gazte asko bai bizi da sentsazio horrekin. Hor daude azterketak, kontrako jarrerak,...
- Sistemak ez du benetan euskalduntzen, ez behintzat eredu batean. Eredu hori eskaintzen jarraitu behar dugu?

- Zein da hemen Unibertsitatearen papera? Katalunian ikusi da benetan lana egin duela. Soziolinguistika ikasketak non daude? Koadro akademikoak nora begira daude? ez daude tresnak, babesak... Oraindik soziolinguistika ikasketak, ikerketa lerroak... ez izatea lotsagarria da.
- Eskola ez da nahikoa, eskolaz kanpoko mundua, lan munduan.... adostasun maila batzuk lortu behar dira. Zergatik diruz lagundu behar dugu kirol talde bat erdaraz entrenamendua egiten eta gero euskara maila apaleko umeei eskolaz kanpoko errefortzuak ordaindu?

ELEBAKARRAK

- Asertibitate ariketa egin behar da. Elebakarra ulertarazi behar zaio zerbait galdu egingo duela eta hori asumitu behar duela.
- AEKk ateratako bideoak oso mezu egokia ematen du: berandu ikasi duten gurasoei eskerrak emanez, balioa eman behar zaio euskarari.
- Elebakarrek egin behar dute ahalegina. Hemen beti euskaldunak sentitu behar gara deseroso, ... bada garaia elebakarrei ere esfortzua eskatzeko. Batez ere gazteei . Horretarako gaude ordaintzen hezkuntza sistema, horretarako legeak daude... Ikasleak elebidun atera behar dira teorian...
- Erdaldunei galdetu behar zaie, noraino prest daude amore emateko. Eta euskaldunok zer asumituko genuke “mal menor” bezala... ?lorpen txikiekin konformatu behar gara?
- Ikastolan gurasoen batzarrak euskaraz egitea erabaki da, interpretazioa erabiliz. Erdaldunei balio izan zaie mila diskurtso baino askoz gehiago: ikusi dute hutsunea beraiengan zela, eta hori konpontzeko zein den egin beharreko esfortzua.

GIDARITZA/LIDERGOA

- Bi irakasle euskaldun beraien artean gazteleraz ari direnean, zer egin behar da? Eta ez bakarrik irakasleen edo ikastetxeen munduan, euskalgintzan ere, euskara bizibide duten askoren bizitza eremu pribatuan ez da inondik ere eredugarri. Hor badaukagu zer irabazi asko eta ze diskurtso dago horretarako?
- Eredua izatea ere bada helburu. Aitzindariari jende bat behar dugu: euskararen munduan bizi dena lan hori (aitzindaritasunarena) sumitzen ez badu.. nor egingo du? egoera larria da, eta ez da anekdotikoa, orokortzen den kontua da.
- Diskurtsoa lotzen da hizkuntza politikarekin. Zein da diskurtsoaren arduraduna? Nork zabaldu behar du diskurtsoa? Jaurlaritza bada eredu izan beha du lehenbizi. Koherentea izan behar du diskurtsoarekin. Prozesu honen gidaritza badu, Jaurlaritzako arduradunak koherente izan behar dira. bestela egoera paradójikoa. Atzean euskal komunitatea egongo da, baina erantzukizuna Gobernuarena da. *Euskara 21* arabera erantzukizuna euskaldunok dugu eta horrekin ez nago ados.
- Politikariei eta euskal komunitateari, hiztun komunitateari, euskalgintza ere bere hausnarketa egin behar du. Badirudi oso atzera goaz denak. Jaurlaritzak lidergo hori hartu behar du berari dagokion partean behintzat. V. Plangintzaldian zer egiten duen ikusiko dugu...ESEP eta aurreko plan guztietan beti gelditu dira politikariak eta alderdiak kanpoan eta hori eztabaidatu da. hori ere gaur egun adierazle bat da .Politikoez ez dute hartu gaia serion: batzuk arro dira euskara ez dakitelako. Beste batzuk paso, batzuk folklore moduan hartu dute. Maila politikoan nola eta non daude adostasunak? Agendetan ze tokia betetzen du euskarak?
- Hedabideetan euskarazko politikariak gazteleraz baino ez dira entzuten. Katalunian eta Galizian ez da hori gertatzen. Eredua eman behar dute. Ez daude adostasunak eraikita. Alderdietatik atera behar da eta adostasunak lortu eta blindatu behar dira. Euskararen aldeko festetan ahoa bete egiten zaigu, (zaie) baina eguneroko praktika zein da, euskarari balioa kentzen dio praktika bat, euskaraz esaten dena gazteleraz errepikatu egiten da medioen aurrean.

ARNASGUNEAK

- Arnasgunearen kontzeptua mahaigainean jarri behar. Elebitasun orekatuaren aurrean behar dira egoera ezberdinetarako diskurtso diferenteak. Diskriminazio positiboaren ideia azpimarratzen da. Euskara egoera kaskarrago batean dagoenez behar du nagusi izango den gune bat. Guk eta hurrengoek ere oso nekez ikusiko dugu Bilbo eta beste toki asko ere gaztelania nagusi ez dela. ... Euskara nagusi izango diren guneak ezinbesteko ditugu, eta hori da gure adostasunaren , paktuen parte bat. Hori errekuperatu behar da.
- Hori da hain zuzen Euskararen Legean Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuena. Konstituzionalak ondo zekien zer egiten zuen.... Gaur egun euskara lehenesten duen edozein erabaki Estatuak (Urkijok) gelditu edo bota egiten du. Inposizioaren diskurtsoa da. Euskaldunok barneratu dugu naturalizatu dugu txikiago eta eskubide eskasago izatearen ideia hori. Alde horretatik pedagogia egin behar da.
- Esaten da hizkuntzak ez direla berreskuratzen inposatuz, kontrakoa esatea politikoki ez da zuzena, ... ez dugu nahi horrela izatea baina posible litzateke? Alderantziz gertatu zaigu... Horrela jarraitzen badugu bukatuko dugu honako hau esaten: hizkuntza gatazka botere gatazka. (ja,ja,ja)
- Gutxiengo egoeran ez da posible: edo konbentzitu egiten duzu edo ez duzu lortuko. Arnasgunearen kontua adibidez ez dugu bakarrik besteekin adostu behar, arnasgunetako biztanleekin ere adostu behar da. Jadanik herri txikietan familietan gaztelaniaz egiten hasiak dira, gurasoek nahi dutelako umeez erdaraz ere ikastea. Eskola txikietatik mezu hori ere jasotzen ari da. Eleaniztasunaren ideia dago horren azpian. Zelan eraikitzen ditugun elebidunak? Nola aurre egin egoera horri euskarari kalte egin gabe?
- Kontratazioaetan hizkuntza irizpideak txertatzea Udalerri euskaldunetako enpresetan izan duen eragina neurtu da? Horrelako neurriak eta bestelakoak (ziurtagiria adibidez) eragin positiboa izaten dute. Horiek balioan jarri behar dira.

ADMINISTRAZIOAK

- Boterea erabili behar da, administrazioak asko egin dezake. Kontratatzaren diren enpresetan hizkuntza irizpideak ezartzeak ikaragarriko eragina izan lezake.
- Badira diskurtsoak baino askoz gehiago balio duten egoerak. Adibidez Funtzio Publikoan lan egiteko euskara jakin beharra egun ere zalantzan jartzea... edo pediatrak euskaldunak ezin topatzea... euskararen lurraldean badira guneak non baldintzak ematen diren harantzago joateko. Nafarroako Gobernuak argi dio euskaraz aritzeko dutenen eskubidea parekatu behar duela euskara ez dakitenez Funtzio Publikoan sartzeko daukaten eskubidearekin.
- Administrazio Plangintzan ere oraindik "gomendio" mailan gelditzen dira hainbat alorretan. Gezur soziala elikatzen ari gara euskararen inguruan. Hemen beti beldur izan da euskara kontuetan derrigortzera (zigorrak, izunak...). Baina bada garaia horri ere aurre egiteko. Beste esparruetan egiten dena honetara eraman behar da.
- Hizkuntzaren kostuaz hitz egiten denean euskararen kostuaz hitz egiten da, baina ez da inoiz planteatzen euskara ez jakitearen kostua zein den ... Adibidez politiko batek euskara ez jakitea duen kostea (txostenak itzuli behar, interpretea...). Orain berriro Ertzainak kontratuko dira euskara jakin gabe. Horiek gero euskaltegi bidaliko dira eta horien bajak estali beharko dira. Kontzeptu horiek euskararen gastura joango dira, baina benetan euskara ez jakitearen kostua izango da. Eta zein da gaztelaniaren kostua?

DISKURTSO BERRIA

- Diskurtso berria beharrezkoa da, koherentea izango dena eta ordenatua.
- Diskurtso desberdinak daude eta non dago elkar parteka dezakegun eremu hori? Klabe batzuk badaude. Zure eskua luzatzeko eskubidea nire sudur puntan amaitzen da eta nirea luzatzeko zurean. Horrek esan nahi du denak kabitua behar garela. Denak.

- Diskurtso batek ez ahal du beste zerbait eskatzen aurretik edo atzetik? Diskurtso bateratu bat nora heltzeko? ze estrategia barne? ze onartzeko? Normalizazioaz denok gauza bera ulertzen dugu?
- Minoriaren kontzientzia izan behar dugu. Minoria gara eta hortik abiatu behar gara. Horrek pedagogia lan handia eskatzen du, tinkotasuna, eta malgutasuna aldi
- Gizarteari, jendeari orokorrean ez zaio euskararen gaia axola. Euskara ez da ikasten interesa edota beharra ez dagoelako. Euskaldunok behar hori sortu behar dugu. Erakarri behar ditugu erdaldunak bestela ez dira berez etorriko. berean, argi izan behar da norabidea.
- Hizkuntzaren eztabaida maila politikoan dago, eta egongo da. Baina beste plano batzuetan ere egon behar da, pedagogikoa adibidez. Eskolan ez da ezer erakusten hizkuntza eskubideen alorrean adibidez. Motibazioaren gaia lotzen da horrekin. Nola planteatu erronka gisa, jendeak pausuak eman ditzan, jarrera aldatu dadin.

2. TALDEA

Hustuketa: Belen URANGA

(Oharra: 1. Taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) islatzen duten ideiak eta 2. Bakarrik baten edo batzuen ideiak izan direnak, baina taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) lortu ez dutenak. Proposatutako bereizketa hori egitea ezinezkoa zait, ez genuelako horrela planteatu (nik behintzat) bileran. Hemen, atera ziren ideiak bildu ditut. Kasu honetan, bertan izan ez nintzenez, zailagoa izango da asmatzea, baina Anek seguru hobeto osatuko duela.)

- Harridura agertu da populazioaren ehuneko hain altua dagoela euskararen kontrako jarrerarekin Nafarroan. Deigarria da bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere.
- Kontrako jarrerak sarri posizionamendu politiko zehatzeko bat eginda etortzen dira: "hizkuntza ez ikusteko, ez jakiteko, ez erabiltzeko eskubidea".
- **Nazioartekoari erreferentzia** kontuan hartuta ere, errealitatea da Espainiako konstituziotik abiatuta EAeko Autonomia Estatutuak berak gaztelaniari pribilegioak dituela euskararen aldean, diskriminazioa sortzen da, errealitate asimetrikoa, legez desberdintasunak daude eta hori ahaztu ezin den errealitatea da. Hemen espainola jakin behar duzu eta erabiltzeko eskubidea duzu, eta euskara eskubidea bakarri duzu.
- Euskararen inguruan izan dezakegun zoru partekatua abiapuntua euskara sustatzearen alde egotea edo ez egotea, XXI mendean mendebaldeko Europan, hizkuntza gutxitua sustatzea justifikatu beharra oso gogorra da.
- **Merezi al du hizkuntza gutxitu bat sustatzea?** Euskaldunak ez direnekin landu beharra eta baita euskaldunekin ere, ziur asko mezu desberdinekin baina.
- Zehaztu behar da zer den euskara sustatzea, eta ideia nagusien edukia: hizkuntza-aniztasunaren jasangarritasuna, subsidiaritate printzipioa, diskriminazio positiboa...
- **Arnasguneekin lotuta:** nagusi izango diren lekuak behar ditu euskarak. Kontrastea legearen temati jartzearekin: inposizio gaia aitzakia hartuta euskara lehenesten den edozer ekimen salatzen du gobernuak.
- Zergatik ez onartu arnasguneetan bizi direnek euskara-maila kaskarragoa egingo dutela? Zonalde erdaldunetako euskara-maila kaskarra onartzen ari gara ba...
- **Ez dugu inposizioa erabili nahi,** nahiz eta egin, egin daitekeen beste batzuk erakutsi duten bezala. Azken finean hizkuntza-aferra botere-aferra da.
- **Gatazkak konpontzea** bizikidetzaren oinarri. Gatazka konpontzeko ideia nagusiak: egia, memoria, errelato plurala eta berradiskidetzea. Zein dira horiek euskararen kasuan? Bizipenak ere gehitu behar dira.

- **Giza eskubideen** inguruko diskurtsoa garatu beharko litzateke hizkuntza eskubidea aldarrikatzeko, Bartelonako aldarrikapenaren bidetik (oraingoz balio juridikorik ez duena).. Gaur egun zeharka heltzen gara hizkuntza eskubideetara, ez dago propio garaturik ez maila pertsonalean ezta maila sozialean edo kolektiboan ere.
- **Eskolaren gaia:** Lan pedagogikoa egin behar da erakusteko zer-nolako potentzialitate handia duten haurrek: haurrek babesa behar dute hizkuntzak ikasteko aukera bermatu behar zaie gurasoen askatasunaren gainetik, eta hori pedagogikoki erakutsi behar da. Bestalde, ez da ezer erakusten eskoletan hizkuntza eskubideen inguruan, hizkuntza estatus ezberdinen inguruan, eta zentzu pedagogikoan soziolinguistika oinarriak erakutsi behar dira. Formazio soziolinguistikoaren beharra. dira beren bizipen linguistikoa lizeritzeko baliabiderik gabe. Eta hor heziketa inportantea litzateke. Hizkuntzen arteko gatazkaren kontzientziarik gabe ateratzen dira gazteak eskolatik.
- **Gaitasunarekin lotuta** demostratuta dago eskolarekin bakarrik ez dela nahikoa, eta ezinbestekoa dela eskolaz kanpoko jarduerak ere euskaraz izatea, bestela kontraesanetan erortzen gara baina kostuaren aldetik ere: ahalegin handia euskalduntzeko eskolan eta eskolatik kanpo erdalduntzen!
- **Askatasunari buruz** hitz egiterakoan, kontuz! Noren askatasunaz? Hizkuntza hautua askatasunaren arabera egingo bada, orduan legean dauden derrigortasunak kendu egin beharko liriateke. Lekuan lekuko hizkuntza ez bada derrigortu behar gaztelania ere ez dadila derrigortu, et alderantziz, gaztelania derrigortzen bada euskara ere derrigortua izan dadila.
- **Pedagogia** egin behar da: ez bakarrik eskolarekin lotuta, ezjakintasuna handia dago hizkuntzaren inguruan, dela eskubideak, dela zenbat hizkuntza dauden euskararen egoeran, ze jendeak uste du guk bakarrik dugula arazo hori, eta horrekin lotuta baloratzea zentzu handian
- **Pedagogia:** Nola planteatu erronka gisa Bilbo handian adibidez jendeak pausu batzuk eman ditzan.
- **Pedagogia:** D ereduko eskoletako irakasleek gaztelaniaz hitz egiten elkarrekin. Nola kudeatu? Euren erroren kontzientzia zabaldu. Are gehiago zer egin maila formalean irakasle batek gaztelania ematen baditu klaseak euskara maila nahikorik ez duelako.
- **Pedagogia:** Euskara lanbide (euskalgintza edo irakaskuntza) duen jende askok eta askok gero bizitza pribatuan edo lagunartekoan ez du euskaraz egiten, gaztelania hutsean doa! Eta horietan, zer diskurtso?
- **Pedagogia:** Eskertza haurrek gurasoei euskara erakutsi izanagatik, bai euskaldunen kasuan, zein ez.
- **Pedagogia:** irakaskuntzak eta euskalgintzak aitzindari (lidergo-errola) izan behar du.
- Kontuan hartzeko ideiak: **hizkuntza aniztasuna** natura bezain naturala da. Hemendik **eleaniztasunera** joaten gara, eta? Errealitatea hori da. Etorkizuneko kontua ez da gaztelania eta euskararena bakarrik baizik eta eleaniztun hori nola irudikatzen eta egiten dugun. Gakoa da nola egin hizkuntzak jakitea eta behar diren errefortzua egitea euskarari kalterik egin gabe. Eta horretarako euskarak zer balio duen kontzientzia hartu behar da.
- Hizkuntza politikak **onespena, erakarpena, kontrako jarrerak leuntzea bilatzen du.** Baina horrek ez du esan nahi agian molestaturik ez duela. Ikasten ez bada ere ahalegin bat eskatzen du eta hainbat neurri onartu beharko dira baita maila pertsonalean ere.
- Galdera gakoa: **Ikusten dugu elkarbizitza euskaraz izan daitekeela?** Diskurtsoa lantzeko zein proiektio egiten dugu?, esate baterako, nolako, zenbat, non, ze funtzioekin euskara 30 urte barru? Nahiz eta jakin dena ezingo dela euskaraz egin, behintzat norabide horretan adostasun batera hel gaitzeko? Maila sozialean edo politikoa? Klabeak hor daudela dirudi ezta? Proiektioa egin behar da eta adostasun minimoetara heldu. Nola izango da gaztelania eta euskara erdia eta erdia?
- **Gutxiengoa izatearen gaia** ere balidatu egin behar da, tinkotasunez baina malgutasunez.

- **Unibertsitatearen errola** hizkuntza komunitatearen beharrei erantzuteko, gaur egun ez dagoena, behar diren tresna akademikoak lantzeko, politikarien formazio edo ezagutza soziolinguistikoa hutsen hurrengoa...
- Zein dira euskara bezalako hizkuntza bat bizi dadin gutxieneko baldintzak? **gaitasunaren unibertsaltasuna** ezinbestekoa da. **Bizikidetzarekin ere erabat lotuta dago**, guztion **hizkuntza askatasuna** bermatzeko. Gainera, erronka handia dago **immigrazioarekin**: askoz erraztasun handiagoak ematen zaizkie gaztelania ikasteko euskara ikasteko baino.
- Euskara sustatzearen **kostuaren** gaia aipatzen da, baina **ez ezagutzearen kostua** ere oso-oso altua da.
- **Boterea ere erabili behar da**, esate baterako, kontrataziotan, publikoetan edota pribatuetan hizkuntza eskakizunak eskatuz asko egin daiteke. Eta hainbeste urte pasata gero oraindik horrela egotea harrigarria ere bada, tinkotasun handiagoa beharko genuke, gai honetan behintzat.
- Gizarteak euskara egin beharrekina lotzen ez badu ez dago zer eginik. Beraz beharra neurri batean behintzat sortu behar da.

3. TALDEA

Moderatzailea: Belen URANGA

3. TALDEA

Hustuketa: Belen URANGA

(Oharra: 1. Taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) islatzen duten ideiak eta 2. Bakarrik baten edo batzuen ideiak izan direnak, baina taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) lortu ez dutenak. Proposatutako bereizketa hori egitea ezinezkoa zait, ez genuelako horrela planteatu (nik behintzat) bileran. Hemen, atera ziren ideiak bildu ditut. Kasu honetan, bertan izan ez nintzenez, zailagoa izango da asmatzea, baina Anek seguru hobeto osatuko duela.)

- Hitz gako bat **oreka** izan daiteke: euskara bultzatu baina oreka bat lortuz, **kontsentsua**, malgutasuna: ondo ikusi da planteamendua. Diskurtso berri bat lantzeko aukera izatea sentsibilitate desberdinekin inportantea da: egunero dago gutxiegi edo gehiegi egiten delako eztabaida administrazioan bertan.

ZER

- Egon daitezke diskurtso enbor edo tronkalak eta enbor horretatik ateratzen diren azpi-diskurtsoak talde desberdinetarako, edota ingurune soziolinguistikoko desberdinetarako.
- Zaila da diskurtsoaz hitz egitea produktua, hau da, zein hizkuntza politika egin nahi den definitu gabe. Edozein, edonon defenditzeko moduko hizkuntza politika egiteko modukoa? Hori oso zaila eta konplexua da.
- Nola lortu euskarri diskurtsibo bat justifikatzeko babes neurriak eta interbentzioak horiek eraginkorrak izan daitezten. Nola adierazi euskarak behar dituela neurri horiek inor erasotua sentitu gabe? edo behartua edo ez dezan ikusi horrek berekin zer ikusirik ez duela. Edo, ez dezala pentsa horrek hondatzen duela, lanpostuetan hori edo hura eskatzen dutelako.
- Nahi dugu erakarri, jarrera positiboak sustatu, eta horrela ahal den neurrian ikasi eta erabili dadin. Leku desberdinetan politika desberdina izan beharko dugu baina denok nahi dugu jarreretan eragitea.

XEDE TALDEA

- Diskurtso kontsentsuatu bat nahi bada kontuan hartu behar da ez bakarrik zer egin behar dugun, baizik eta zer esan. "Epelak" deitzen ditugun horiek (ez alde ez kontra daudenak) edo Atxagak aipatzen dituenetik (patetikoak, sinpatikoak eta antipatikoak) lehentasunezko xede-taldetzat hartzen ditugu. Badirudi

“antipatiko”ekin nekez lortu daitekeela zerbait epe motz edo ertainean, eta horregatik *sinpatikoei* hitz egin behar diegula gehiago, edo batez ere.

- Euskararen aldeko “sinpatiko” gehiago izatea da erronka. Eta sinpatiko horiek “antipatikotik” etor daitezke baita ere. Izan ere, hainbat lekutan euskararekiko aldeko jarrerak baita Alderdi Popularreko jendearen artean ere ikus daitezke.
- Diskurtsoa antipatikoentzat? Sinpatikoentzat? ala euskaldunentzat? ala erabiltzen ez dutenentzat? ala ... Pentsatu behar da zein den helburua, adosteko gero diskurtsoa.
- Euskara bermatua ikusten dute askok, hau da, adibidez, gaur egungo gazte askok eta askok euskararen galtzeko arrisku hori ez dute ikusten. Natural hitz egiten dute gaztelaniaz, hori badakitelako eta gero beste batekin euskaraz egingo dutela hori ere badakitelako.
- Beste gazte batzuk ez dira sartzen egin dugun sailkapen horretan (patetikoak, sinpatikoak, antipatikoak). Horiek ez daude horretan pentsatzen, beste modu batean daude. Hizkuntza arloan ez dugu asmatzen nola engantxatu hizkuntzaz pentsatzen ez duen jendea. Gaur egun gazteek hizkuntzak modu pentsatu gabean erabiltzen dituzte: batzuk euskaraz, beste batzuk ingelesez hainbat momentutan, eta besteak gaztelaniaz. Eta hor eragiteko diskurtsoa oso-oso konplikatu dela.
- Beste kasu batzuetan badira mega-euskaltzaleak, euskararekiko atxikimendu handia dutenak, sinbolikoki, baina ez dutenak erabiltzen, beraientzat euskara ez delako gozagarria, lexiko teknikoak bai baina sentimenduak garatzeko arazoak dituztelako.
- Badira euskaraz ikasi dutenak eta esaten dutenak ni ez naiz euskalduna. Horiek nola S
- “sinpatikoei” bakarrik ez mezuak, “patetikoei” ere makina bat gauza esan behar zaie. Mezua ere horrela dibertsifikatu beharko da.

INGURUNE SOZIOINGUISTIKOAREN GARRANTZIA

- Ingurune soziolinguistikoaren araberrako xede-talde desberdinak: adibidez, Barakaldoko edo Orioko bati esan behar zaiona euskararen inguruan oso desberdina da. Barakaldo bezalako ingurune soziolinguistikoetan behintzat sentsibilitate berri bat hartzen ez badu euskarak nekez egingo du aurrera, onarpen-maila handiagoa behar du euskarak.
- Nafarroatik begiratuta han egiten dena administratibotik beti da gutxiegi, beraz... interesgarria da aztertzea guk jarreraren aldetik “epelak” deitzen ditugunak, ez alde eta ez kontra daudenak. Hor portzentaje oso handia dago eta lan handia dago egiteko hor. Jarreraren datuak asko hobetu beharko lukete bai Nafarroan eta baita Iparraldena ere.

DISKURTSOAREN ELEMENTUAK

- Elebitasunaren diskurtsoak herri oso euskaldunetan gaztelaniari autopistak irekitzen dizkio, inoiz eduki ez dituen lekuan eta aldiz, Barakaldon euskarari ateak zabalduko dizkio. Beraz, kontuz.
- Gaur egun erronka berriak daude: aniztasuna, etorkinak eta nazioarteko mugitzeko beharra, eta erronka horiei erantzuteko ezin dugu orain dela 30 urteko diskurtsoarekin jardun. Ideia batzuk errekuperatu daitezke diskurtsoarako, baina begiratu behar dugu beste zerbait.
- Bizikidetzaren kontzeptuan gako bat egon daiteke, bai pertsonen artean eta baita hizkuntzen artean ere. Bizikidetzaren ardatz eta helburu izan daiteke, jende eleanitzeko gizartean. Jendeak onartu behar du besteak beste hizkuntza bat nahiago izatea. Edo hizkuntza bat edo bestea funtzio batzuetarako edo bestetarako erabiltzea. Harremanak izateko modua ez da berdina hizkuntza batean edo bestean.
- Baina nik bizitzeko biek bizirik egon behar dute. Eta hizkuntza bat bizirik egongo da bizitzeko balio duen heinean. Ez du hainbeste inporta dena hizkuntza horretan egotea baizik eta bizitzeko balio duenak ondo funtzionatzea (bizitzeko zein funtzio?). Bizitzaren helburu nagusia erreproduktzioa da, eta horretarako gauza plazerteroa asmatu ditu, eta hizkuntzarekin gauza bera, hizkuntzaren erreproduktzioa plazerteroa izan behar du, ez kostatzen dena, proselitismoa eskatuko duena, militantzia eskatuko duena eta abar.

- Hezkuntza munduan ingelesa eta euskararen arteko kontuetan. Adibidez, gurasoek gero eta gehiago nahi dute ingelesa baina euskararen aldeko apustua ere egin dute. Eta hor euskara saltzeko, batez ere erabilera suspertzeko, pentsatu beharko genuke euskarak zer balio gehigarri duen hezkuntzan, udaletxean, edo kontsumoan edo lan munduan... erronka berriei balio erantsi hori topatzea inportantea da. Gurasoek ingelesa eskatzen dute nazioartean mugitzeko (besteak beste) balio erantsi bat ematen dietelako.

DISKURTSO DIKOTOMIKOAZ

- Hemen planteaturiko bi diskurtso dikotomikoak biak daude desfasatuak. Jende gehiena tartean kokatzen da. Beraz, banaka-banaka deseraiki behar dira horiek eta gero eraikitzen joan, nahiz eta proselitismoaren arriskua badagoen ekologiaren bidean.
- Klabea izan daiteke euskara ez jartzea dikotomia batean, hau da euskara vs ingelesa, euskara-abertzalea edo ez. Normalean kontrajarriak aurkezten diren hainbat kontzeptu bateratzea, diskurtso aldarrikatzaile eta uzkuraren arteko dikotomia horiek ezabatzen saiatzea, inportantea izan daiteke. Gero komunikatzen asmatzea nahiko erronka potoloa izango da, hala ere.
- Kontua ez da framing hau (aldarrikatzailea) edo bestea (uzkurra)... baizik eta beste gauza bat egitea. Izan ere, euskara abertzaletasuna baino askoz zaharragoa da, oinarritzkoagoa. Izan ere antipatikoek politikaren lotura ere erabili dute kontra egiteko. Eta erdaldunek jabetu beharra dute euskara berea ere badela.

HIZKUNTZA IRUDIAK

- *ingelese* hitza aipatu bezain laster lotzen da honelako hitzekin: aurrerapena, nazioartekotzea, negozioa, aukerak, hobetzea, arrakasta.... Euskara, aldiz, honakoekin: identitatea, kultura, hezkuntza, bertakoa, abertzaletasuna. Eta horrela zaila. Euskara hezkuntza eta kulturarekin lotua baino nahiago industriarekin, lan munduarekin edo osasun sailarekin lotuta balego..
- Zer da marka? Hitz bat esan eta burmuinean zabaltzen diren karpetak. Normalean oso elementu gutxi izaten dira. Hemen aipatutako hitzak adibidez ingelesarena marka irudia egiten dute. Ados gaude ez garela izan behar hain lotuak identitateari, abertzaletasunari, kulturari edo hezkuntzari, baina euskara oraindik arriskuan edo gutxitua behintzat badago. Eta errealitate horri ere ezin zaio muzin egin, eta hor aipatutako balio horiek oso garrantzizkoak dira.
- Orain arte askotan lotura politikoa egin da euskararekin, eta horrela zaila da euskalduntze prozesuak aurrera ateratzea. Euskal kulturarekin antzeko kontua gertatzen da.
- Zer mezu euskara erakargarria izan dadin? Mezuak sutiltasunez eman behar dira. Inork ez du esan ingelesa guaia dela, eta horrela hautematen da. Euskararen aldeko mezuak eman behar dira baino modu sutilean. Hau da, batzuetan bat definitzen da zerbaiten alde, edo kontrara... Adibidez, imajinatu dezakegu mundu bat gobernu batekin, erlijio batekin, hizkuntza batekin, presidente batekin, moneta batekin, arraza batekin... batekin ba ez dut batere gogoko, pentsamendu bakarra, beraz horren kontrara eraiki dezaket hizkuntza aniztasunaren alde. Kolore asko bakarra baino nahiago. Aniztasunaren diskurtsoa sendoa da ondo azaltzen bada. Aniztasuna esan baino erakustea komeniko da. Balore oso potentea da. Baina hitza erabili beharrean akaso komeniko da egoerak erakustea. Eleaniztasuna abiapuntu hartuta izan daiteke euskararen aldeko diskurtsoa garatzeko eta indartzeko? Nabarmen.
- Aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoaren arriskuak ere badira. Izan ere, hortik abiatuta pentsa dezakegu hizkuntza horiek egoera berdinean daudela, eta beraz, hautua libre dela. Eta hori ez da horrela. Eta gerta daiteke aniztasunaren izenean, funtzio banaketak ondo ez egitea. Esate baterako eskolan, hiru hizkuntza hartzen badira kontuan eta eskolan proiektua martxan jartzen bada hizkuntza bakoitzari denbora bera emanez, ez da kontuan hartuko egoera soziolinguistikoa eta horren araberrako ondorioak.

ARRISKUAK

- Bi diskurtso horien artean (aldarrikatzailea eta uzkurra) tartekoa dela nagusi ematen du. Eta hor aipatzen da aniztasuna, iraunkortasuna.... Agian izan dezake kutsu negatiboa, ahultasunarekin lotua

dagoena. Ekologiarekin lotutako diskurtsoak aldeko jarrerak piztu ditzake baina ahultasunarekin lotzeak bere arriskuak ere baditu: inor ez da sartzen ondortzen ari den barku batean. Amazonasen karpeta zabaltzen da ekologia diskurtsoa zabalduta, eta horrek du bere arriskua: proselitismoan erortzearen arriskua. Akaso, diskurtso mota hori ez litzateke enbor nagusian egon behar, nahiz eta aurkezpen honetan zentralitatea eman zaion.

- Bai arriskuak badaude. Izan ere hautua ez da librea, euskaldunok aukera mugatuagoa dugulako nabarmen. Hau, dudarik gabe hizkuntza gutxitua da eta beraz ez dira hautuak beti libreak izaten.
- Hemen lortu da modu batean edo bestean, euskarara jende asko erakartzea eskolaren bitartez: batzuk euskaradunak izatea lortu dugu baina euskaldunak sentitzea ez, beste batzuk euskaldunak bihurtu ditugu... Kontua da nola gauzatu belaunaldi berrietan, aniztasunaren bidetik edo beste bidetik, nola egin euskara erabiltzeko hurbildu eta ikasi dutenak.

EUSKARAREN GAITASUNAZ

- Euskararekiko gozamina zerekin esperimentatzen den adibidez: euskaldun petoek ondo bereizi ditzake gai intimoenak: kontu erlijiosoetan, salmoak, edo kantak edo euskaldunekin hitz egiten euskaraz duen oihartzuna desberdina da. Baina, kontua da eskolan ez direla euskaldun petoak sortzen, ez dela lortu euskara gozagarri bat ematea, eskola, telebista edo beste komunikabideen bitartez, edo dena delakoarekin; sortzen ditugula jarioetasun nahikorik gabeko hiztunak. Eta eskolak bakarrik ezin egin baldin badu ba zerbait pentsatu beharko da baina hori lortu gabe zaila dago euskaradunak euskaldun bihurtzea.
- Nire amamak amak baino hobeto hitz egiten zuen, amak nik baino hobeto eta nire semeak nahiz eta saiatuko naizen daukadan guztia erakusten seguru asko nik baino okerrago hitz egingo du euskaraz. (eztabaida sutua). Anekdotak anekdota kontua da dagoela jende mordo handi-handi bat euskaraz hitz egiten dakiena, aldeko jarrera duena baina euskaraz egiten ez duena eta kontua ez da diskurtso hobeagoa edo txarragoa eman behar zaiolako eta horiek dute gozagarritasun arazo bat. Gainera beste arrazoi batzuk ere badaude, esate baterako gaztelaniaz hobeto moldatzen direla edota naturalagoa dela gaztelaniaz hitz egitea.
- Beraz, euskaldun tipologia aldatu da erabat eta hori onartu beharra daukagu. Eta alde horretatik gauzak oso ondo doaz ezagutza aldetik, baina ez da gauza bera erabiltzen bada gelan bakarrik, nahiz eta gero EGA atera edo. Eta hor gurpil zoroan sar gaitezke. Zenbat eta gutxiago erabili orduan eta gaitasun kamutsagoa izango da eta orduan eta ahalegin handiagoa edo militantzia handiagoa eskatuko du.
- Ahozkotasunean jarri behar dugu indar berezi bat horrek ematen diolako hizkuntza bati bizi-sena. Baina idatzia ere izan behar du lanerako ezinbesteko delako eta hori ere derrigorrez zaindu behar delako. Eta industrian eta kontsumoan eta gainerako esparruetan ere bizi behar du hizkuntzak.
- Ez da benetako egia gure ama/amamak baino euskara txarragoa dugunik, diferentea bai, baina ez halabeharrez okerragoa. Iruditzen zaigu euskaldunok daukagula obsesio puntu bat ere bai kalitatearen inguruan, beste hizkuntzatan ere gertatzen ari den fenomeno bat ere egon badagoenean, hau da, gaztelania ere gero eta okerrago egiten delako ideia oso zabalduta dago. Hizkuntzaren kalitatearen gaia da bat eta bestea erabiltzeko erraztasuna.

BALIO ERANTSIA

- Euskalduna ez da euskara duena baizik eta euskarak hartu duena. Nolabait maiteminduta egon behar du hitz hori erabili nahi ez bada ere.
- Hizkuntza gutxitua publizitatean eraginkorragoa da hizkuntza normalizatu bat baino egoera gutxituetan, euskaraz beste hurbiltasun bat lortzen du, konplizitatea, afinitatea. Baina horrek eskatzen du bestea euskalduna izatea. esaten duenak eta hartzen duenak afektibotasun horretan identifikatuta sentitu behar dutena. Hemen garbi dago alderdi emozionalak garrantzi handia duela.
- Enborra behar da, adibidez esparru publikoan eta abar, beraz, enborra egon behar du baina xede talde bakoitzari egokitutakoak gartu behar dira. Akaso gehiegi egon da dramatismoa, eta egia da beharra dugula optimismo bat beste arintasun.

- Zabaltzeko edo zabaltzeke dauden ideia batzuk: hizkuntza baten balioa. Komunikatzen oso zaila da hori. Eta horretarako metafora eta irudi egokiak erabili behar dira horretarako, erraza ez dagoen arren. Bigarren ideia: diskriminazio positiboa, hain da oinarritzkoa, beste alorretan onartu diren kontuak hizkuntzara ekartzea oso inportantea da. Badaude oinarritzko kontzeptu batzuk ondo komunikatu gabe daudenak.
- Euskaldun izatea gaur egun exotismoa ere badute. Akaso beste enfoke bat behar dute

MOTIBAZIOAZ

- Gertatzen ari da (edo horrela aitortu du batek) motibazio pragmatikoengatik euskara ikasi duten askok ez dutela euskarari maitasuna transmititzen asmatzen. Eta hori drama bat bezala bizitzen dute batek baino gehiagok. Nola da posible pertsona bat euskara bere egin duena eta naturaltasun osoz egiten duena, prozesu exitosoan izan duena, euskaraz egitea gozagarri egiten zaiona, nola esan dezake batek euskaraz hitz egiten erakutsi arren, ez ziela euskararen maitasuna transmititu seme-alabei, eta horiek jada euskaldun zaharrak dira... baina kezka sortzen da, Barakaldo batean horrela izanda 15-16 urterekin sekulan santan ez dutelako euskaraz egiten. Ez ote da abertzaletasunarekin lotu behar?
- Irakasleak dira euskara saltzaile onenak, baina kalifikatzaile hori ez zaie batere gustatzen. Izan daitezke euskararen aldeko brigadista seduzitzaileak. Hori asko gustatu zitzaion. Saltzailea baino brigadista izatea hobeto baloratuta dagoelako nonbait.
- Euskaldun berriek nola sentitzen dira? Zer alderdi emozional funtzionatzen du? Adibidez interesgarria izan daiteke euskarak dituen beste alderdi batzuk positibizatzea. Esate baterako lan munduan euskara aipatzen denean beti alderdi negatibotik aipatzen da: euskara behar da, euskara eskatzen da.... Agian badaude modu batzuk horri buelta emateko eta esateko, adibidez, enpresa honetan euskara erabiltzen dugu gure artean... modu positibo batean, bezeroek ere eskatzen dute eta horregatik nahiago dugu euskara dakiena..
- Beste mezu positiboa izan daiteke elebiduna izanda beste hizkuntzak ikasteko erraztasuna handiagoa duzula. Eta hori ere baliatu daiteke edo azken neurketek esaten dutela hemen behintzat elebidunek hobeto egiten dutela ingelesez ere. Eta horrekin saltzen da, bada ikuspegi positiboago batekin lotzea, ezta? Gainera, aleanitza izanda hizkuntzei buruz gehiago jakingo duzu, eta euskaraz jakiteak onurak ekartzen ditu. Beno alderdi emozionalak landu daitezke baina inportantea da gurasoei argi erakustea euskara ikasteak ekar ditzakeen onurak, ez bakarrik jarrera positiboak izateko, baizik eta baita ere, argudio pragmatikoak bilatzen ere asmatu behar da.

AHALEGIN EKONOMIKOAREN BEHARRA INDARGABETU

- Euskaraz jabetzeko egin behar den ahalegin ekonomikoa ere oso kontuan hartzekoa da. Pentsatzen dugun baino jende gehiago dago kanpoan kostu ekonomikoa eraginda. Adibidez, argudio emozional eta pragmatiko oso ona litzateke esatea: metodologia eta irakasle oso onak ditugu, ez dizu kosturik eragingo eta ikastea beraz, zure esku dago. Horrela, doan jarriz gero, ez zara ateak zabaltzen bakarrik ari, ez. Esaten ari zara euskara ikastearekin bakarrik euskaldun sentitzen zaitugula, eta ez atea zabalik bakarrik baizik eta NAHI ZAITUGU esaten ari zara; nahi zaitugu gurekin, hau da, mezua askoz sakonagoa da.
- Baina euskaldunon portaera ere errebisatzeko modukoa ere bada. Atzerritarrek esate baterako euskara ikasten badu onartzen dugu oso ondo, nahiz eta euskara oso ondo ez egin. Eta gaur egun badaude atzerritar asko ikasten. Erdaldun batentzat ere mundu bat irekitzea izango daiteke, eta mugak dituzte erdaldunek.
- Erradikalak izan gara jendea ez delako ausartzen euskaraz hitz egiten halako titulua izan arte. Eta hor gauzak aldatu beharko lirakeke. Eta horiek askotan, berriro erdaldun bihurtzen dira; ez ditugu aprobetxatzen euskararako. Eta guk ere ikasi behar dugu horrelako egoerak kudeatzen. Askotan guk egin dugu dena ala ezer ez. Eta horretan malguagoak izaten ikasi beharko genuke Euskaldun pasiboen gaia askoz hobeto aprobetxatu beharko genuke. Zer egiten dugu gaizki, euskara dakien hori, nahiz eta asko ez jakin, ez dugun animatzen dakien hori erabiltzeko. Euskaldunok guk geuk askotan lagundu ei diogulakoan gaztelaniara pasatzen gara erraztuko diogulakoan, eta horrek bestea etsitzeko bidean jarri dezake

MEZUAK ZABALTZEKO ZAILTASUNAK

- Zailtasunak ditugu pentsamendu hauek sozializatzeko. Sortu dugu instituzioetan, teknikarietan... euskaltegiak, euskara planak eta gainerako euskara teknikariak osatu dute komunitate bat, eta iruditzen zaie hainbeste landutako gaiak desfasatuta daudela, baina egiatan, ez dute lortu gai horiek sozializatzea, gizarte osora zabaltzea.

MEZUA NORK

- Mezuak nork botatzen dituen ere arrakasta baldintzatzen du. Ez da berdina mezua irakasleak, administraziokoak, politikariak, kultur eragileek edo bestelakoek zabaltzea.

3. TALDEA

Hustuketa: Jon AIZPURUA

- Oreka nahi dugu euskararen trataeran, bultzatu baina oreka lortuz (kontsentsua, malgutasuna). Nola bultzatu euskara, zer egin: aro berri batean gaude, kontsentsua, oreka, malgutasuna. Muturreko gauzarik ez.
- Su euskalduna baretzeko gogoia ikusten du, bidea jorratzeko unea heldu zaigu. Sentsibilitate berririk gabe, nekez egingo du euskarak aurrera. Onarpen handiago onartu beharra dago. Aro berri bat datorkigu, eta beste begi batzuekin ikusi behar dugu aro berri hori. Ikusi ezean, berdin-berdin jarraituko dugu.
- Errealitatea oso desberdin ikusten da, begiratzen den ikuspuntuaren arabera. Sentsibilitate ezberdinak batu behar dira. Eragile desberdinekin beste diskurtso berri bat landu, egoera eta sentsibilitate guztiak kontuan hartuz. Ilusioz.
- Epelak (ez alde ez kontra daudenak) erakartzea, irabaztea, "engainatzea" zailagoa da muturrekoen arteko kontsentsua lortzea baino.
- Diskurtso bateratua lortu nahi dugu, zer esan behar dugun (diskurtsoa). Nori hitz egin behar diogu batez ere: sinpatikoei. Diskurtso tronkaletik ateratzen diren azpi diskurtsoak talde desberdinetarako. Elebitasuna bai, baina matizatuta: nola. Edozein edonon defendatzeko moduko diskurtsoa oso zaila da. Enbor bat ados bai. Produktua NOLA esan (plangintza, korpusa...) eta diskurtsoa ZER esan bereizi beharko liriateke. Euskara jakin bai, baina erabili ez, euskara ez delako gozagarria hitzunen beharretarako (ligatu, adarra jo, haserretu).
- Erronka berriak (aniztasuna, etorkinak) daude, eta horiei ezin zaie erantzun orain 30 urteko diskurtsoarekin. Beste zerbait gehitu behar dugu. Euskara (batez ere erabilera) saltzeko, zer balio gehigarri dagoen pentsatu beharko litzateke. Nola mugitu euskaraz ikasi dutenak, gai direnak, baina erabiltzen ez dutenak.
- Behar berriak ditugu. Gazte jendea beste leku batean dago (Atxagaren hiru taldeak). Ez daude horretan (hizkuntzan) pentsatzen. Hizkuntza-arloan ez dugu asmatzen nola engantzatu hizkuntzaz pentsatzerik ez daukan jende hori. Gazte jendeak ez du euskara arriskuan ikusten, bermatua ikusten dute. Ez dira hizkuntzaz kezkatzen. Ez da arazoa. Gazteak euskaraz hauek egiten ditu, gaztelaniaz beste horiek eta ingelesez beste haiek.
- Ingelesa = aurrerapena, arrakasta, negoziua
- Euskara = identitatea, kultura, abertzaletasuna, hezkuntza, bertakotasuna
- Hizkuntza-politika nahiago industriarekin lotuta, hezkuntzarekin edo kulturarekin baino.
- Markaren irudiak eta produktuak koherenteak izan behar dute. Errealitateari ezin zaio muzin egin.

- Tarteko diskurtsoa (aniztasuna, hizkuntza-ekologia, iraunkortasuna) ahultasunarekin lotu daiteke. Proselitismoa bultzatu dezake (ai zer pena, euskara hondoratzeaz dago). *Gainerako kideak ez daude ados.*
- Erronka berria: sinpatiko gehiago lortzea. Sinpatiko horiek antipatikoetatik ere etor daitezke (Barakaldoko PPren jarrera ona euskararekiko). Sinpatikoak berdina dira Orion eta Barakaldon. Diskurtso bat egin behar da sinpatikoak erakartzeko.
- Diskurtso modelatu baten bidez lortu zen Azpeitiko ikastetxe batean euskaradunak euskaldun bihurtzea. Euskara lotura politikoa du.
- Euskarari kontrajartzen zizkion gauzak haustea: euskara vs ingelesa, euskara vs ez abertzalea, euskara = abertzaletasuna, euskara vs espainolista. Banan-banan desmontatu lotura horiek.
- Bizikidetzaren ideia da garatu beharrekoa, ardatza da. Aukera egitea, bestea onartzea: jendeak onartu behar du besteak beste hizkuntza bat nahiago izatea. Planteatu behar dugu erabiltzen ditugun hizkuntzak (2, 3...) erabili behar diren funtzio bertsuetarako edo hizkuntza bakoitzak bere funtzioak dituen.
- Jendeak ez du bizikidetzaren arazorik.
- Euskaraz bizitzea plazenteroa izan behar du.
- Zer esan behar den erabaki behar da, baina modu sutilean esan behar da esan beharreko hori. Euskararen aldeko mezuak baino gehiago, euskarazko gauzak behar ditugu.
- Aniztasuna sendoa, aberasgarria da. Eleaniztasuna abiapuntua izan daiteke euskararen diskurtsoa abiatzeko.
- Eleaniztunaren eta bizikidetzaren arriskua izan daiteke pentsatzea bi edo hiru hizkuntza horiek egoera berean daudela, eta hori ez da horrela. Aukera, hautua ez da beti librea.
- Diskurtsoa ezin da errealitateetik urrundu. Errealitatea egoskorra da.
- Gizarte gero eta anitzago batean euskara nola sustatu da gakoa.
- Euskaldun berri askok, euskara arrazoi instrumentalengatik ikasi dugunok, arazoak ditugu gure seme-alabei euskararekiko maitasuna transmititzeko.
- Jende asko dago euskaraz dakiena, euskararen alde dagoena, baina erabiltzen ez duena, euskaraz gozatzen ez duelako.
- Zenbat eta erraztasun txikiagoa izan, orduan eta militantzia eta esfortzu handiagoa eskatzen da.
- Metafora: euskara zabaldu den neurrian sakontasuna galdu du. Ahozkotasunean dago hizkuntzaren bizi-indarra.
- Ahozkotasuna galdu da (adierazpideak), baina idazkeran irabazi.
- Oraingo euskara ez da lehengoa baino eskasagoa, desberdina baizik. Gaurko euskalduna lehengoa bezain efizientea izan daiteke eguneroko beharretan.
- Arazoa ez da kalitatea, erraztasuna baino.
- Hizkuntza gutxitua publizitatean eraginkorragoa da hizkuntza normalizatua baino.
- Diskurtsoa ezin du produktutik, errealitateetik, urrundu.
- Diskurtsoa: nola adierazi euskarak neurri babesleak behar dituela, inor erasotua sentitu gabe, edo kontua berarekin ez doala sentitu gabe.

- Alderdi emozionala oso garrantzitsua da, baina sinpatikoak erakartzeko beste modu batzuk ere behar dira. Zer sal daiteke? Elebidunek erraztasun handiagoa dute hizkuntzak ikasteko, elebidunek hobeto egiten dute ingelesez, euskaraz jakinda gehiago jakingo duzu hizkuntzei buruz (euskara oso aberatsa da eta oso polita sintaxiaren aldetik). Argudio pragmatikoak.
- Argudio pragmatikoa: produktua (euskara ikastea) gratis da, zure esku dago = gurekin nahi zaitugu.
- Askotan muturretara joan gara. Dena edo ezerez. Euskaldun hartzaileak. Euskara maila nahikoa ulertzeko eta euskaraz hitz egin nahi duenari euskaraz erabiltzea ez eragozteko.
- Ez dago euskara txarrrik, bakoitzak egin dezala nahi duen euskara.
- Animatu egin behar zaio apurra dakienari erabil dezan.
- Hizkuntza baten balioa komunikatzen oso zaila da. Metafora, irudi egokiak behar dira hori lortzeko. Diskriminazio positiboa zer den oso ondo azaldu behar da.
- Euskararen balioa komunikazioan azpimarratu beharra dago. Kontuz, zaharkituak daudelakoan, bazterten diren balioekin. Agian, balio horiek beste enfoke bat baino ez dute behar.
- Mezua nork botatzen duen garrantzitsua da. Zaindu egin behar da, ondo aukeratu behar da.

4. TALDEA

Moderatzailea: Jon AIZPURUA

4. TALDEA

Hustuketa: Jon AIZPURUA

- Diskurtso bi hauek muturrekoak izanda, ni askotan sentitu izan naiz, hurbilago eta batez ere, diskurtso aldarrikatzailetik hurbilago, baina era berean ere errealismo handiarekin. Nik uste dut euskarak egin duen ibilbidea ikaragarria dela. Gehiago egin ez badu, ez da izan borondate baten faltagatik. Agian, gauzak hobeto egin zitezkeela? Bai. 80ko hamarkada errebisatu beharko da egunen batean. Egon ziren horrelako aurkaritza ikaragarriak HABE/AEK, EKB/Eusko Jaurlaritza. Aurkaritza, gainera, deprimenteak euskal munduan.
- Hortik aparte esango nuke euskarak dituen mugak, muga sozialak direla. Askotan beharbada ikusten dugu gure gizarte propiotik. Nik esate baterako gogoratuko dut horren haritik, Lizundiak atera zuen liburua "Ven y cuéntalo pero dentro de Euskadi". Esaten zuen ondo legokeela herri euskaldunetatik jendea Tuterara eraman edo Barakaldokoak herri euskaldunetara ikusteko gure barne aniztasuna, eta barne aniztasun horrek zituen mugak.
- Nik uste dut egia dela pentsatzen dugula Estatu bat/Nazio bat/Hizkuntza bat Euskal Herrian askok, eta logikoa da horrela pentsatzea eta nik ere horrela pentsatzen dut.
- Zoragarria izan behar du abertzalea ez izatea estatu baten baitan, hori da sekula biziko ez dugun errealitate bat eta beti nostalgia izango dugu. Horren barruan uste dut euskarak mugak dituela errealitate urbanoarekin topo egiten duelako. Nik omenaldia egingo nieke gure gurasoei euskara transmititu digutelako eta euskaldun berriei. Hortik abiatuta hurbilago sentitzen naiz diskurtso aldarrikatzailetik, eta horrelako adiskideez josita nago. Liberal kultural askorekin bizi izan gara. Orduan pentsatzen dut ez dela posible euskara diskurtso liberal batetik sortzea, beti komunitarismotik defenditu behar da. Eurek gutaz esaten dutena da xenofoboak garela, baina haiek ez dute inoiz bizi izan guk bizi izan dugun egoera.
- Uste dut eman diren datuak onak direla eta datu horietatik abiatuta, ona dela diskurtsoa adostea. Euskararen hurrengo pausoa zein da?

- Nafarroatik nator eta hemen euskarak ez du errealitate sozial eta politiko bakarra. Oso arraroa egiten zait entzutea euskarak ez duela muga politikorik, begi bistakoak ditu. Nafarroako egoera badakigu zein den, muga politikoak gainditu egin behar dira...
- Ez dut euskarari buruz hitz egingo, euskaldunoi buruz baizik. Euskararen alde dagoen guztia ongi etorria berdin da ikuspegi komunitariotik, liberaletik, bi poloetatik... baina nik euskaldun moduan hitz egin dezaket, euskaldun bizi nahi duen pertsona moduan. Uste dut heldu garela fase batera gure gizarteak behar duela hitzun komunitateak beste jauzi bat behar du diskurtsoan eta baita ere ekimen desberdinetan. Zeintzuk diren? Horiek adostu behar dira. Adostu behar dugu behar dugula beste zer bait.
- Azken urteotako kontsentsu politikoari ematen zaio behar baino garrantzia handiagoa, gainera, kontsentsu politiko horrek ahuldu egiten ditu adibidez euskarazko hedabideak.
- Jauzi horretan inportantea da gizarte eragileen eta instituzioen arteko elkarlana. Oso gutxitan gertatu dena gaur egunera arte. Gaur egun baditugu horretarako baldintzak. EAren jarduna eteteak lagun dezake, gaur egun askoz posibleagoa da.
- Hizkuntza nazionala egitearen proiektua eta euskara hizkuntza nazionala egitearen proiektua. Hizkuntza bat Estatu bat paradigma desegiten ari da. Naziogintzak behartzen gaitu zubiak egitera, gizarteko sektore guztiak kontuan hartzea, eta ez bakarrik abertzaleak.
- Batzuk diote euskara bai, baina bere lekuan, hitz egiten den lekuetan bai, baina ez da hedatu behar. Nafarroa euskalduneko hainbat politikariren diskurtsoa da. Horiek ere aprobetxatu egin beharko genituzke. Bakoitza bere Euskal Herrian bizi da, komunikabideak probintzialak dira. Bizitza gehiena eskualde mailan edo probintzia mailan egiten da. Leku bakoitzean euskarak funtzio desberdinak betetzen ditu, zer da euskara gasteiztar batentzat, ataundar batentzat... Biak dira urbanoak, ez da baserritar/kaletar diskurtsoa. Besteentzat euskara zer den jakin behar genuke, ez diskurtso egituratu batean baizik eta maila bibentzialean, nola bizi duten euskara. Horiek denak uztartu behar dira minimo edo zoru batean eta hori egin daiteke. Saiatzen naiz besteen lekuan jartzen, erdaldunak, beste ikuspegi politiko bat dutenak...eta hortik zer bait ikasi.
- Nik uste dut euskararen normalkuntza ez litzatekeela planteatu behar ez nazio bat eraikitzeke eta ez estatu bat eraikitzeke. Euskararen normalkuntza lotu beharko litzateke elkarbitza eta elkar ulertzeke Euskal Herrian.
- Hortik abiatuta, errealitate politiko administratibo desberdinak ditugu EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. Datuak esanguratsuak dira. Jarrerak baldintzatzen du ezagutza eta erabilera.
- Nafarroan eta Iparraldean badago oraindik zer bait egiteko: eskubideen onartze bat. Hor oraindik ezintasunak daude: hezkuntza arloan, administrazioarekiko harremanetan.
- EAeri buruz hitz egingo dut: euskararen inguruko diskurtsoa egokitu eta normalizatu behar da. Kaltegarria izan daiteke jarraitzea diskurtso aldarrikatzaile erreibindikatioaren bidetik.
- EAEn botere publikoek oraindik badute zer egina, baina urrats handiak eman dira, lege aldetik, legea bete behar da, exigitu egin behar da. Hor oraindik badago egin beharra. Baina hortik haratago, euskarari buruz horrenbeste hitz egin beharrean, garrantzitsuagoa euskara erabiltzea. Administrazioari dagokio, ikasi nahi dutenei bitartekoak ezartzea.
- Hortik aurrera, euskararen etorkizuna ez da inoiz egon orain dagoen bezala gizartearen eskuetan. Badago pertzepzio bat euskara administrazioiko hizkuntza dela, aldeko jarrera dutenen aldetik ere. Utzikeria dago aldeko jarrera dutenen aldetik ere gizartean. Pertzepzioa tranpak egiten ari ote garen.
- Administrazioak egin du ia egin dezakeen guztia euskararen alde. Zer gehiago egin dezake?
- Diskurtsoan egon daiteke sobreaktuazio bat Administrazioaren aldetik.

- Enpresa batean euskara planetan lanean. Framin aldarrikatzaileaz eta uzkurraz gain, badaude beste batzuk. Bada beste bat funtzionala deituko nuke, enpresetan ikusten dira bi framinak, baina gehiena instrumental edo funtzionala ikusten da eta hori gizartera ere alda daiteke.
- Uzkurra eta aldarrikatzailea bi framin kontrajarri bezala planteatzen dira, baina ez dakit horrela den. Aldarrikatzailean euskaldunak eta elebakar batzuk egon daitezke, baina uzkurrean bakarrik elebakarrak. Zubiak eraiki aipatzen dira baina ez dira bi norantzakoak. Erakartzeaz eta hitz egiten denean, enbortorio bat jartzeaz ari gara. Tranpa izan daiteke. Administrazioan oraindik egiteko asko dago, EAEn gaur egun ezin da %100ean bizi.
- Framing aldarrikatzaileak funtzio traktorea egin du zenbait arlotan. Ez dagoenean emaitza desberdinak lortzen dira. Framin aldarrikatzaileak tiratzen du, uzkurak beste aldera egiten du eta erdian dagoena euskarara erakarri behar bada.
- Diskurtsoak beste fase batean sartu dira euskaraz bizi nahia izatea eta ez bizi beharrean egotea bada pauso bat. Ibilbidea egin da.
- Euskararen erabilera dinamizatzea tokatzen zaio lanagatik. Euskaraz bizitzeko behar da, agian ez hain diskurtso aldarrikatzailea eta bai gehiago elkarbizitzaren ikuspegitik.
- Katalunian hizkuntzaren egoera desberdina da, erabilera boterea zutenen artean zegoelako eta EHn ez da izan horrela. Botere ekonomikorik ez badago, estatuaren aldetik egon behar da boterea indartzeko hizkuntza, ahaztu barik bakoitza bere errealitatean bizi dela.
- Diskurtsoak aldarrikatzailea izan gabe, behar du bultzada erakundeen aldetik edo gizartearen aldetik, denen aldetik.
- Bizikidetzaren alde egin behar da.
- B eredukoa eta euskaldun berria. Gauzak erabat aldatu dira urte batzuetan. Jende asko atzera botatzen du titulua lortu beharrak. Jendeak ikasten du, baina titulua lortzen duenean, utzi egiten du. Euskara egiten du bere lanerako beharrezkoa delako.
- Bere ustez, bi diskurtso horiek muturrekoak dira eta jende gehiena ez dago ez batean ez bestean. Honen harira, egoera sozialaren ondorioz, jende askok euskara ulertu du arma modura, beste batzuk ere horrela erabili dutelako. Horrek ere eragin du lotsa sentitzea. Berak lotsa sentitu du euskaldun berria izateagatik, akatsak egiteko beldurragatik.
- Beharrezkoa da elkarbizitza sustatzeko. Horretarako tresna onena da euskara. Nafarroan eta Iparraldean ere erabili behar da kutsu politikoa kenduz, jende gehienak onar dezan. Hurbiltzeko erabili behar da. Pertsonalki kezkatzen du seme-alabek zer duten euskaraz. Garrantzitsua da zer ekoizten den gero kontsumitzeko. Nerabeak ere ahaztu egin dira.
- Harremanak eta komunikatzeko erak aldatu dira erabat, eta horietara hurbilduz jendeak gehiago erabiliko du. Garrantzitsua da komunikazio aldetik eraginkorra izatea ez zuzena izatea.

-
- Euskara despolitizatu behar da, bai, baina komunitate politiko bat aldarrikatzen du, nazionala edo ez, baina komunitate bat bai. Hori ez da politikoa bere ustez.
 - Diskurtso funtzionala edo integratzailea, jendeari kalte egingo ez diona. Adibidez, gaztetxoek harreman desberdina dute euskararekin, diskurtso horretatik hurbilago egongo dira. Euskaraz bizitzeko eskubidea zaila da txertatzea, baina komunitate horretan sartu beharko dira.
 - Garai honetan diskurtso bakar batez hitz egiteak ez du zentzurik.
 - Eusko Jaurlaritzako hainbat arlotan ez da bermatzen harremanak euskaraz izatea. Euskaraz egiteko eskubidea ez dago bermatuta.

- Gaia ez da aldarrikatzea eta erreibindikatzea baizik eta erabiltzea.
- Euskaraz ez dakitenek EAEn zergatik ez dute ikasi? Ez dutelako nahi bere ustez.
- Erabiltzen ez dutenek zergatik ez dute erabiltzen? Hor Administrazioak gutxi egin dezake, gizarteak eta norbanakoaren esku dago.
- Herriak politika batzuk nahi baditu euskara normalizatu arte, bitartekoak jarri behar dira lortu arte. Zerbait ez da garrantzitsua legeak esaten duelako, nahi delako baizik.
- Administrazioak sekulako lana du esparru guztietako lanak bultzatzeko eta gizarte eragileekin batera.
- Esatea ez dela egiten ez delako nahi, horrekin ez dago ados. Gauzak ez dira gertatzen horrela delako. Gaur egun euskaraz egitea leku askotan korrontearen kontra joatea da. Enpresa batean ere horrela da, inbertsio bat egin behar da euskaraz funtzionatzeko.
- Txillardegiren eredu matematikoa erabilera azaltzeko.
- Euskarak ez ditu hainbat funtzio berez, ezin du merkatu legean konpetitu, lege babesa behar du, borondatearen mende dago.
- Diskurtsoak egokitu egin beharko dira, baina ez berdindu, diskurtso aldarrikatzaileak egon behar du, funtzionala, tartekoa... baina ez uzkurra, horrek kalte egiten dio euskarari.
- Politikoki zuzena izatea da euskararen alde egotea, baina hori aukera moduan ikusten du, nahiz eta ez izan konsekuentea.
- Jendeak erosotasunean bizi nahi du, euskaltegia joatea 2 orduz egunero lan egin eta gero, eta gero zailtasunak izatea komunikatzeko, gogorra da. Hori ulertu behar da.
- Postureoa: udalak framin aldarrikatzailea izan, baina bitartekoak ez jarri batzorde guztiak euskaraz izateko, adibidez.
- Gaur egun ere euskara erabilia izaten da politikarien aldetik.
- Garrantzitsua da diskurtso berrian sartzea gure eskuetan dagoela euskararen normalkuntza eta Administrazioak egin behar duena dela bitartekoak jarri. Gure eginkizuna da, herritarrona, hori ezin da delegatu.
- Postureoa: hainbat adibide.
- Nora iritsi nahi dugu eta nola? Euskal Herrian guztiek euskara ezagutu eta erabili ahal izatea.
- Terreno itzela dago ezagutzari eta erabilerari dagokionez, muga sozialera iritsi arte.
- Gaur egun transmisioa gehiago dago hezkuntzan, komunikabideetan, sare sozialetan etxean baino.
- Gizarte mugak eta muga instituzionalak: Administrazioak indar korrelazioa gainditu egin du, gizartearen aurretik dago.
- Gizartea aldatzen ari da eta aurrera begira zer apustu egin behar den, zer lehenetsi erabaki behar da, lehenago egin zen bezala, ETBrekin edo hezkuntzarekin. Hori da diskurtso bat zerbait lortzeko.
- Zenbat eta diskurtso kontsentsuatuago hobeto, baina ez ahaztu hiztun komunitate desberdinak eta gizartea dagoela. Nagusiki hizkuntza batean bizi gara.
- Zertarako nahi dugu? Euskarak terreno gehiago izateko.

- Zer irabaziko dugu? Zer galduko dugu? Eta hori lortzeko zer egingo dugu? Zein muga dira gaindiezinak? Zer ez diogu uko egingo inolaz ere? Zer egingo dugu desberdina?
- Noraino? Ahal den guztiraino. Denok irabazteko izan behar du eta ez galtzeko.
- Ze euskara? Euskara zuzena? euskara komunikatzeko da eta eraginkorra bada, ba, balio du.
- Zuzentasun/malgutasun diskurtsoa.
- Euskaldun zaharra/berria diskurtso berrian gaintitu beharrekoa, agian.
- Diskurtso bate barruan lekua izan dezake portaera sikolinguistikoak: euskaldun berrien bizipenak, euskaldun pasiboak... malgutasunaren diskurtsoan sartzen da hori normaltasunez hartzea.
- Inori mesede egiten ez dion diskurtsoa nola baliogabetu: euskara zaila da, inposatu egiten da eta horrelakoak.
- Hizkuntza politikan arauak jarri dira eta kontsentsuz egin da. Indar politikoez hori bereganatu egin dute. Administrazioa ez da sartzen zenbait esparrutan / Baina sartzen da.
- Eskubideak lege batean sartzeak ausardia eman dezake normaltasunez bizitzeko. Beste batzuk ez daude ados.
- Elebitasun pasiboa: alderdi uzkurra gaintitze aldera lagungarria izan daiteke. Eskatuko dizut euskara ulertzeko, eta besteari utziko diozu euskaraz egiten. Horrek euskararen ahalduntzea eskatzen du. Ulertzen badu, uzurretik alde egin du...
- Aldaketa egiteko “nahi” behar da. Ados egon behar du.

4. TALDEA

Hustuketa: Beatriz AKIZU

Taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) islatzen duten ideiak

- Euskarak dituen mugak, muga sozialak dira. Barne aniztasunak dituen mugak. Posible da euskararen gaineko diskurtso berri bat sortzea. Komunitarismotik sortu behar da. Eman diren datuak onak dira. Datu berdinak baditugu. Ondo legoke diskurtso (ak) berri(ak) sortzea, eraikitzea. Komunitate politiko bat osatu behar dugu (nazionala edo ez nazionala). Bere araudiarekin, kulturarekin, sostenguekin eta hor euskarak leku bat izan behar du. Eta leku hori integratzailea izan behar da, denon artean eraikitzen duguna. Eta horretarako diskurtso bat eraiki behar dugu elkarbizitzan oinarrituta.
- Nafarroan muga sozialak eta politikoak daude. Beste framing bat badago: euskara bai baina bere lekuan, naturala den lekuetan, beraz zertarako hedatu, zabaldu (Nafarroaren kasua)
- Gure gizarteak behar du (euskaraz bizi duen euskal hiztun komunitateak) beste jauzi bat aurrera egiteko, bai diskurtsoan, baita diskurtso horri dagokion ekimenetan ere. Beste zerbait behar dugu adostea, eta ez bakarrik kontsentsu politikoen gainean (akaso behar duen baino garrantzi handiago ematen zaio, ukatu gabe oso garrantzitsua izan zenik). Jauzi horretan funtsezkoa izango da euskara munduko gizarte eragileen arteko eta instituzioen arteko elkarlana. Beraz, aurretik instituzioen arteko adostasuna eman behar da, zer nolako jauzi eman daitekeen adosteko. Gaur egun baditugu horretarako klabeak.
- Hizkuntza bat nazio bat paralelismo hori berrikusi beharra dugu. Euskararen normalkuntza ez litzateke planteatu behar ez nazioaren eraikuntzarako ez estatu bat eraikitzeko ere. Zubiak eraikitzea eskatzen digu. Euskararen normalkuntza lotu behar da elkarbizitzara eta elkar ulertzearekin.
- Behar dugu elkar ulertu. Bestearentzat euskara zer den jakin beharko genuke. Ez bakarrik diskurtso mailan, baita bizipen mailan ere. Eta honek denak uztartu zoru batean eta zoru horretarako badaukagu

oinarri bat: Euskararen atxikimendutik abiatuta ulertzen eta jartzen besteen lekuan (erdaldunak, beste ikuspegi politikoak dutenak....) eta hortik ere zerbait ikasi.

- Atxikimendua aprobetxatu behar dugu.
- Bakoitzak Euskal Herri diferentean bizi da (Nafarroa, Iparralde, Barakaldo...) Desartikulazio arazoa daukagu, ez euskaldunen mailan bakarrik, maila juridikoa, gizarte moduan ere. Euskarak funtzio desberdinak betetzen ditu bakoitzarentzat.
- Errealitate politiko-administratibo desberdinak ditugu. Nafarroan eta Iparralden ahulezi juridikoa dago. EAEn administrazioari dagokio erabiltzeko bitartekariak jartzea eta legeak betetzea (euskara erabiltzeko eskubidea bermatzea). Baina etorkizuna herritarren eskuetan dago. Erantzukizun falta dago (aldarrikatzaileen artean ere). Muga sozialak gaingitu behar dira.
- Framing aldarrikatzaile eta uzurraren artean badaude beste batzuk, eta zenbait arlotan nagusitzen ari direnak gainera. *Framing instrumentala edo funtzionala*. Enpresetara joaten garenean euskara planekin diskurtso uzurrarekin egiten dugu topo, erresistentziekin, aldarrikatzailekin ere, baina instrumentala-funtzionala zerbitzuari begira, enpresa hobetzeari begira azaltzen da ere. Hori da gizarteari trasladatu behar zaiona.
- Zubiak eta elkarbizitzaz ari garenean, zubiak bi aldeetatik eraiki behar direla ohartu behar gara. Aldarrikatzaileak traktore badira, uzurrak -gehiengoak elebakarrak dira- eta oztopo bihurtzen dira. Elkarbizitza sortzeko balio berri bat eskaini behar da.
- Diskurtsoak osagarriak izan daitezke (aldarrikatzailea-funtzionala) Zer egin erresistentziekin? Eta kontuan izatekoa ere, aldeko agertzen direnak gero ez dira errealitatean gauzatzen. Inkestetan politikoki zuzenak gara, baina errealitatea beste bat da (euskal prentsaren aldekoak, baina ez da euskal prentsa erosten). Diskurtsoak alde batetik eta errealitatea bestetik.
- Elkarbizitzako ildo eusteko behar dugu zerbait euskararen alde egin dezan. Diskurtsoak mantenduko dira, baina elkarkidetzaren klabea egin behar da lan balio berriak atxikiz euskarari. (Enpresa esportatzaile baten testuingurutik hitz egiten du) gure nortasunak balio erantsia ematen dio enpresari, berezitasuna, marka, kanpoan saltzeko balio bezala hartu beharko genuke. Hau horrela ikustarazteko administrazioak badauka zeregina. Kataluniaren kasuan botere ekonomikoa hizkuntza erabiltzailea izan da, Euskal Herrian ez da horrela izan.. Gobernuak lagundu beharko luke hau indartzen. (Framing funtzionala indartzearen ideiarekin lotzen da).
- Elkarbizitza sustatzeko tresna euskara da. Erabilpen politikoak ez dio lagundu.
- Framing funtzionala indartuz beste ideia bat: Zer ekoizten den euskaraz (sormena eta kontsumoa) telebista, interneteko aplikazioak, sare sozialak... Harremanak eta komunitatea erabat aldatu dira.
- Diskurtso integratzailea, funtzionala, funtzionatzen duena. Jendea kaltetzen ez duena eraiki behar da. Gazteek ez dute gure belaunaldien parametroetan funtzionatzen. Harreman diferentea dute hizkuntzarekin (berdin euskaldunak edo ez). Instrumentaletik gertuago dago.
- Maila guztietan politika egiten den bezala, euskararekin ere. Hizkuntza garapena normalizatzeko politikak aplikatu behar dira. Adostu behar den lehenengo gauza da zer da lortu nahi duguna? Muga sozialak non daude? Gerturatu daitezke? Norainok jarri behar dugu erronka? Zeon diskurtso adostu muga sozial horren inguruan?
- Hedabideen funtzioa aipatzen da askotan. Kontsumitzen den horretan indarra jarri. Indarra jartze honetan administrazioak badu zer esanik.
- Euskara ikastea nahi izanik ere zailtasunak daude maila hartzeko. Beharrezkoa da lanerako, baina ez bizitza aurrera eramateko. Framingak muturrekoak dira, jendea ez dago ez baten ez bestean. Euskaldun berria izateagatik eta akatsak egiteko beldurrak ez erabiltzera bultzatzen du.
- Erosotasunean bizi gara. Enpresa pribatuan 8 edo 9 ordu sartu ondoren, nahiz eta diru laguntza jaso, zaila suertatzen da. Tresnak inportanteak dira (*zuzen, aldibereko itzultzaileak* aipatzen dira).
- Framing aldarrikatzailetik kanpo daudenak euskaraz publikoki hitz egiteak asko lagunduko luke.
- Gizartea, familia ulertzeko modua aldatu egin da. Transmisio, komunikazio ereduak aldatu egin dira. Egungo apustuak zeintzuk diren adostu egin behar da.
- Ikuspegiak partekatzea, helburuak gizartean konpartitzea. Euskaldunok eta erdaldunak.

- Hizkuntza batean bizi gara. Komunikabideak erdaraz kontsumitzen dira, administrazioa erdalduna da ere, etxean elebidun bizi gara.. Eragin egin behar da
- Portaera psikosozialak-soziolinguistikoak gainditu egin behar dira, zailtasunak dituenari laguntzeko eta elebitasun pasiboa indartzeko. Elebitasun pasiboa lagungarria diskurtso uzkurak biguntzeko gehi euskaldunak ahalduntzeko.
- Norbanakoaren esku ezin da utzi, norbanakoaren hautua bultzada sozialak mugitzen du. Bultzada sortzeko komunikazioan, sormenean indarra jarri (horretan administrazioak badu zeregina).

Bakarrik baten edo batzuen ideiak izan direnak, baina taldearen kontsentsua (esplizitua zein inplizitua) lortu ez dutenak

- Tentazioa ekologiarra joateko. Gizartea eta hizkuntzak ez dira nazio bat, eskola bat... basoak ez dira harizti, pagadi, pinudi... ez dira guztiz horrela (edo bai). (Ekologiaren diskurtsoa ez da jarraitzen)
- Edozein aldaketa prozesu batean irabaziak eta galerak egoten dira. Galdera hauek ere egin behar ditugu, zer irabazi eta zer galduko dugu? (Kontzeptu hau ez da ondo ulertzen eta ez du jarraipenik, edo galera hitza ezin dela erabili esaten da. Berriz hau azaltzen ahalegintzen da parte-hartzailea) Aldaketa prozesu batean galera kontzeptua zabalagoa da. Konfort eremu batetik atera zenbait kasutan... Batzuei beste batzuei baino gehiago eskatuko zaie, esfortzu gehiago. Baliabideak jarri beharko zaie, inbertitu.

5. TALDEA

Moderatzailea: Beatriz AKIZU

5. TALDEA

Hustuketa: Beatriz AKIZU

LABURPEN GISA: ZENBAIT IDEIA GAKO

- Politikoki zuzenak direnekin jokatzeko dugu, baina egunerokoan ez dugu hori adierazten. Inkestetan eta publikoki adierazterakoan balio instituzionalak, zuzenak ulertzen direnekin ados agertzen gara, baina eguneroko jarrerak kontrako adierazten dute.
- Sustapen neurriak hartzen direnean, administrazioak zenbait planteamendu egiterakoan, ñabarduretan sartzen garenean arazoa sortzen da, eztabaida publikoa sortzen da, tentsioak ikustarazten dira, botere harremanak azaleratzen dira eta aldekatasuna azalekoa dela antzematen da.
- Aldekatasuna ahula dela da pixua hartzen duen irudia.
- Bakoitzak bere diskurtsoa izango du, baina hezituz eta sortuz posiblea da egoera berri bat eraiki.
- Fokoa gazteengan jartzen da eta gazteek duten euskara gutxi erabiltzeko joera. Zer egin motibatuzko? Gazteak kontutan hartu behar ditugu. Beraiei galdetu behar zaie. Dinamika honetan kontuan izan beharrekoak ere. Foro honetan gazteak egon behar lirateke.
- Erronkarik inportanteenak ez daude maila juridikoan. Hizkuntza bizikidetzako tresna da, egon daitezke zenbait osagai diskurtso baten bueltan lan egiteko. Legea aldatzeko parlamentuan adostasuna egon behar da, adostasun hori lortzeko, kalean adostasuna egon behar da. Beste modu batean eragin behar da. Jarrerak aldatuz, legeak aldatu. Dena lotuta dago.
- Hizkuntza biziberritzeko. Arautzea, motibatzea... azken hau agian gaur egun zailagoa "pensamiento líquido / postmodernismoagatik"... Ekolinguismoaren diskurtsoa eraiki daiteke.

Interesgarriztat hartzen den ekimen bat aipatzen da (tokiko telebista digitala dekretua sortzeko adibidea). Aurrera ez zuen jo, baina interesgarriztat hartzen da gauzatutako arketa: zenbatekoa zen leku bakoitzaren % soziolinguistikoa baino zertxobait gehiagora egokitzen zen araua.

- Pedagogia soziala funtsezkotzat hartzen da. Oztopo handiena atxikimendu falta da. Atxikimenduan jarri behar da lehentasuna, atxikimendua areagotu behar da.

- Horretarako atraktibo bihurtu behar da. Unibertso sinbolikoa areagotu, sormen industria indartu, atxikimendu afektiboa sortuz.
- Gazteen funtzionatzeko modua oso instrumentala da, beharra sortuko zaio erakargarri den heinean. Gazteak ez du pentsatzen zein hizkuntza erabiliko duen. Produktu erakargarria kontsumituko du. "Tropela" apustu jokoa adibide jartzen da, euskara hutsean da eta ez du parte-hartzea mugatzen erakargarria delako.
- Jarriko ditugu mekanismo konpentsatorioak.
- Ideologizazio berri bat behar da. Gizarte berri batekin lotuta, gizarte balio berriekekin lotuta. Aipatzen den Europa anitz horretan, zein da topatzen dugun errealitatea? Sozialki hegemonikoak diren balioak ez dira euskarari tokia bermatuko dioten balioak.
- Balio bat aurrera begira modernitatea. Irudi bezala eta kontzeptu bezala. Esku artean duten tresna erabilgarri eta modernoa dutela euskara sentitu behar dute. Erosiko dugun zerbait. Kontzeptu, balio hau ez da bakarrik gazteei begira aipatzen, edozein testuinguruan egite berriekekin ere.

PLANTEAMENDUAREKIKO KOKAPENA: Plantatzen den hipotesiarekiko (eta hipotesiaren euskarri gisa jarri diren zenbait elementuen gainean) zalantzak edo adostasunak:

Aldearen kontsentsua (esplizitua zein inplizitua) islatzen duten ideiak

- Paralelismoa eginez emakumearen egoerarekin: Bada diskurtso ofiziala bat. Badaude balore batzuk zaindu beharrekoak, gizarte aurreratu batek horiek onartzen dituenak, emakumearen eskubideak, berdintasuna..., baina teoriaz diskurtso aurreratu horiek ez dute bat egiten eguneroko errealitatearekin. Euskararekin berdin.
- Fragmentazioaren ideia: Egoeraren desberdintasuna EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren artean: Legala, soziolinguistikoa, kulturala. Hizkuntza bat izanik, zazpi administrazio ditugu. Diskurtso desberdinak ditugu tokiaren arabera. Errealitate desberdinak.
- Euskararen inguruko adostasuna zalantzan. Adostasun instituzionala egon badago, baina gizartean dagoen adostasuna ez da maila berekoa. Jarrerekin lotutako datu soziolinguistikoak aipatzen dira, azpimarratuz, ez alde ez aurka dagoen %26a.

%26 hau misterio bat da. Honen interpretazioa egiteko Komunikazioaren Teoriaren baitan dagoen *isiltasunaren espiralaren* teoria hartzen da argudio oinarri: %26 horren baitan gehiago dira aurka daudenak alde daudenak baino. Norbanakoak ez du publikoki adierazten bere aurkakotasuna, gizarte mailan ondo integratuta dago, baina pertsonalki ez dago alde (isiltasunaren espirala).

Beraz, adostasun hitza ezin da aplikatu (aurreko argudioarekin fragmentazioaren ideia lotzen da lurraldeen artekoa eta lurralde batean baita ere). Honek zuzenean eragiten dio foro honen helburuari: diskurtsoak bateratzeari, eraikitzeari. Adostasun mailak oso diferenteak diren neurrian hasierako hipotesia zalantzan.

- Adostasun instituzionala bai, baina gizarte mailan ezin daiteke esan
- Isiltasunaren espirala indartuz. Testuingurua banketxe bat izanik: %65a elebiduna, % 3-4k bakarrik ezezkua adierazten dute inkestetan, baina errealitatean zailtasun eta oztopo gehiago daude.
- Euro-kartan jarritakoak asko mugatzen du ("lengua regional, lengua minoritaria-minorizada") ez du adostasunerako oinarria finkatzen. Gaztelaniari eta euskarari estatus berbera ezartzen zaie, ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea... Baina 30 urte baino lehenagokoak dira, testuinguru globalizatu batena gaude orain eta beste pausu bat emateko garaia da.
- Aldekotasunaren faktorea sozialki onartua dagoen diskurtsoa da. Baina horretan arakatzen hasita ikusi beharko genuke benetan aldekotasun horren atzean zer dagoen. Hizkuntzen gainean egiten diren politketan urrats bat haratago ematen denean sortzen diren tentsioak ikustarazten dute aldekotasuna nahiko ahula edo azalekoa dela. Sustapen neurriak hartzen direnean eztabaida publikoa sortzen da eta horrek ikustarazten du aldekotasun horrek erpin asko dituela.
- Badago ados egoteko oinarria. Euskara onura bezala ikusten da, etorkizunari begira euskara onura bezala ikusten da: gizartean hobeto integratzeko, lana bilatzeko... Ñabarduretan dago arazoa, administrazioan zenbait planteamendu egiterakoan: kontratazio publikorako hizkuntza irizpideak, Osakidetza, erabilera planetan, gobernuko administrazioan, enpresa (publiko-pribatueta) euskararen presentzia nolako den, izan behar duen...

PLANTEAMENDUAREKIKO KOKAPENAK, ALDEKOTASUNA, ADOSTASUNA... eztabaidagaiak NOLA ERAGIN galderari erantzutera eramaten du taldeari. ADOSTASUN INSTITUZIONALETIK APLIKATIBORA ERAMATEKO DAUDEN KONTRAESANAK-ZAILTASUNAK ISLATZEN DUTE.

- Joera eleanitz batera era progresiboan aurrerapausuak emanez baldintzen arabera eta muturreko framing-ak sortzen duten pintza gaindituz. Proposamen gisa:
 - GFAk aplikatu dituen politiken ildoan: kontratazio publikotan hizkuntza eskakizunak, komunikazioa hizkuntza euskara izatea...
 - arnaguneak bermatuz.
 - diskurtso berri bat landuz ekolinguismoaren inguruan.
 - elebitasun pasiboa / ulermen pasiboa erabiliz: hainbat politika martxan jartzeko aukerak irekitzen ditu
- Gazteengan eragin behar da. Nola? Gure adin tarte belaunaldietan militantismoak eragin du, gazteek ez dute militantzia bizi. Gazteen erabilera areagotzeko, arautzeak ez du funtzionatzen. Beste era batera ikusi beharra daukagu, beste molde berri batzuk hartu behar ditugu, beste modu batean ikusi, zooma ireki.
Gazteak egon beharko lirateke foro honetan.
- Egoerak, testuinguruak esaten digu zein hizkuntza erabili, baina gehiengoetan norbanakoaren erabakia da. Ezin da arautu, arautzea ez da egokia. Gazteak animatu, maitemintzea lortu behar da ez presionatu. Teknologi berriak erabiltzerakoan gaztelania edo ingelesa erabiliko dute
- Hautu kontzienteak behar ditugu. Hel du leku diskurtsiboak. Horretarako lan pedagogikoa egin behar da: Botere harreman bat dago hizkuntza eta hiztunen artean eta hori esplizitatu egin behar da. Tentsio hori gizartean dago eta hiztunok egunero jasaten dugu
- Lan pedagogikoa diskurtsoak sozializatzeko, azaldu zergatik egiten ditugun politika batzuk eta ez beste batzuk, zergatik hartzen ditugun irizpide batzuk eta ez beste batzuk, euskara eta gaztelera ez dira berdinak eta hartu beharreko neurriak ezin dira berdinak izan.
- Emozioetatik jo beharra dago, baina hautu pertsonala, plano indibidualera ezin dugu mugatu. Botere harremanez ari gara. Hori ez badugu argi diskurtsoa faltsutzen ari gara. Boluntarismo hutsarekin minimoetara ez gara helduko, ikuspegi agoniakoarekin ere ez, batez ere gaur egungo gazteekin, ez du funtzionatzen.
- Ideologizazio edo arautzea? Ados pedagogizazioa egin behar dela, ados gradualtasun bat egon behar dela. Gazteek erabilera instrumentala egiten badute, orduan, ahalik eta espazio gehien irabazi egunerokoan euskara izan dadila beharrezko hizkuntza.
- Gaur egun ideologizazioak ez du funtzionatzen, gazteekin are gutxiago. Ahalik eta egoera gehienetan euskara beharrezko egiteko arautzetik dator. Modu kontsetsuatu, atsegin batean.

Taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) islatzen duten ideiak

Arautu, pedagogia, motibaziorako bide berriak bilatu, erabilera instrumentalaz baliatu? Taldean (banakoan ere antzeman daiteke) ez da bide bakar bat ikusten, edo garbirik gailentzen. Guztiak baliagarriak izan daitezkeela antzematen da taldearen eztabaidaren arabera.

Adostasun puntuak hau izan daiteke: Tentsioa ekiditu egin behar da. Pedagogia soziala funtsezkoa da. Gaur egun euskara aurrera egiteko lehentasuna atxikimenduan jarri behar da.

Bakarrik baten edo batzuen ideiak izan direnak, baina taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) lortu ez dutenak.

- Babes juridiko barik hizkuntzak desagertzen dira.

TESTUINGURUA IRAKURTZEN, TESTUINGURUAN KOKATUZ: Zoru partekatua antzematen da? Badaude adostasun puntuak? Zailtasunak, oztopoak daude? Gatazka antzematen da?

Taldearen kontsentsua (esplizitua zein implizitua) islatzen duten ideiak

- Erronkarik inportanteenak ez daude maila juridikoan. Hizkuntza bizikidetzako tresna da, egon daitezke zenbait osagai diskurtso baten bueltan lan egiteko.

Legea aldatzeko parlamentuan adostasuna egon behar da, adostasun hori lortzeko, kalean adostasuna egon behar da. Beste modu batean eragin behar da. Jarrerak aldatuz, legeak aldatu. Dena lotuta dago.

- Hizkuntza biziberritzeko. Arautzea, motibatzea... azken hau agian gaur egun zailagoa “pensamiento líquido / postmodernismoagatik”... Ekolinguismoaren diskurtsoa eraiki daiteke.
- Interesgarritzat hartzen den ekimen bat aipatzen da (tokiko telebista digitala dekretua sortzeko adibidea). Aurrera ez zuen jo, baina interesgarritzat hartzen da gauzatutako arketa: zenbatekoa zen leku bakoitzaren % soziolinguistikoa baino zertxobait gehiagora egokitzen zen araua.
- Pedagogia soziala funtsezkotzat hartzen da. Oztopo handiena atxikimendu falta da. Atxikimenduan jarri behar da lehentasuna, atxikimendua areagotu behar da.
- Horretarako atraktibo bihurtu behar da. Unibertso sinbolikoa areagotu, sormen industria indartu, atxikimendu afektiboa sortuz.
- Gazteen funtzionatzeko modua oso instrumentala da, beharra sortuko zaio erakargarri den heinean. Gazteak ez du pentsatzen zein hizkuntza erabiliko duen. Produktu erakargarria kontsumituko du. “Tropela” apustu jokia adibide jartzen da, euskara hutsean da eta ez du parte-hartzea mugatzen erakargarria delako.
- Jarriko ditugu mekanismo konpentsatorioak.
- Ideologizazio berri bat behar da. Gizarte berri batekin lotuta, gizarte balio berrieekin lotuta. Aipatzen den Europa anitz horretan, zein da topatzen dugun errealitatea? Sozialki hegemonikoak diren balioak ez dira euskarari tokia bermatuko dioten balioak.
- Balio bat aurrera begira modernitatea. Irudi bezala eta kontzeptu bezala. Esku artean duten tresna erabilgarri eta modernoak dutela euskara sentitu behar dute. Erosiko dugun zerbait. Kontzeptu, balio hau ez da bakarrik gazteei begira aipatzen, edozein testuinguruan egite berrieekin ere.
- Lanean agertzen diren oztopoak. Pedagogia egiten denean sortzen diren harreman borrokak. Ez da posible dena euskaraz egitea. Zuek ere ez zarete aklatzen. Idatzitakoa askotan zuek ere ez duzue ulertzen. Galdera horiei erantzuna bilatu behar zaie.
- Oztopoa: Euskara zailtasunarekin lotzen da. Balio positiboekin lotu. Eguneroko baliabideak zure hizkuntzan beste parean egotea ere.
- Aukera: Hezkuntza sisteman euskara integrazio tresna da.
- Aukera: Soziolinguistikari heziketa maila desberdinetan: eskolan, unibertsitatean.
- Gizarte konplexu batera etorri da euskara, baina asko aurreratu da.
- Teoria eta praktika lotuta joan behar dira. “Posiktibitik” azpian badauka diskurtso bat, balio batzuk. Elkar elikatuz.
- Eleaniztasun pasiboa tresna bezala aldarrikatzea. Horretan sakontzea.

5. TALDEA

Hustuketa: Josune ETXANIZ

TALDEAREN KONTSENTSUA (ESPLIZITUA ZEIN INPLIZITUA) ISLATZEN DUTEN IDEIAK

Problematikaren planteamentua

- **Diskurtso berri baten beharra.-**
 - . Diskurtsoa ez dator bat XXI mendearekin
 - . Posible da diskurtso berri bat eraikitzea.
 - . Lehengo diskurtsoak desorekatu behar ditugu.

- **Atxikimendua**, hortik dator diskurtso berria eraikitze beharra. Lege babes garrantzitsua da baino horren gainetik jarriko nuke atxikimendua lortzea.
- Oztopo nagusia atxikimendu falta da.
- Gizarte balioak badoaz gure kontra pixka bat. Badugu komunitate bezala, badaude **tresnak esploratu gabekoak** ikasi nahi duen horri heltzeko. Sustapena, kanpainak egin.

BAKARRIK BATEN EDO BATZUEN IDEIAK IZAN DIRENAK, BAINA TALDEAREN KONTSENTSUA (ESPLIZITUA ZEIN INPLIZITUA) LORTU EZ DUTENAK

Plantemanduarekiko kokapena

▪ **Babes legala**

- . Hizkuntzak ez dutenean babes legalik desagertzeri doaz. Babes legala ez da nahikoa. Euskararen egoera legala bestelakoa da EAEn, Iparralden eta Nafarroan.
- . Legeak hobetu daitezke baina EAEn ez dut uste lege mugarik dagoenik euskara areagotzeko. Baditugu beste zenbait esparru lan egiteko.
- . Nafarroan lehen mekanismoa, eta falta dena, legala da. Iparralden egoera latza da.

Testuinguruaren hurbilketa

- . Zalantza hasierako abiapuntuarekin. Adostasun instituzionala badago, baino gizarte mailan adostasun berdina ez dago. %26 hori misterioa ez ote den gehiago aurka dagoena alde dagoena baino. Adostasun hori gizarte mailan zein den zalantzan jartzen du. Adostasun ofiziala eta instituzionala baino gizarte mailan ez.
- . Isiltasunaren mamua.

Problematikaren planteamentua

▪ **Diskurtso berri baten beharra.-**

- . Diskurtsoak tokiz-toki desberdinak. Errealitate desberdinak ikusten dira.
- . Nik ikusten ditut diskurtso berri baterako osagaiak.
- . Aniztasunaren diskurtsoa hor dago baino errealitatea zein da?
- . Balio hegemonikoak ez digute diskurtso berriak eraikitzen uzten.

▪ **Oztopoak.-**

- . Fragmentazioa. Euskararekin hitzegiten dudanean etortzen zaidan lehenengo ideia.
- . Arazo larria. Administrazioa.
- . Oraingo arazo berria da: euskara dakigu baino ez dugu erabiltzen.
- . Lotu euskara-zailtasuna. Traba bat da. Erabiltzeko zailtasunak ditut ez dakidalako euskara dakizun edo ez. Irakurtzeko kostatzen zait. Hitzegiteko orduan ere, gazteleraz egiten baduzu ez du 'inporta'.
- . Zure hizkuntza ez badago bestearen parean, orduan zerbait falta zaiolaren sentsazioarekin geratzen zara.

▪ **Nola kudeatu.-**

- . Diskurtso aplikatiboa lortzea norbanakoa da. Inork ezin du derrigortu beste bat edo begiak beste alde batera jarri. Egin behar den zerbait da, ereiten eta ereiten jendearen begiak hartara bideratzen dira. Konbentzitu, hezi, egin behar da jendea.
- . Sortu ere bai.
- . Diskurtsoa egon behar da politikaren oinarrian eta hori hor dago, baino hori eskeini eta aplikatu behar da Euskararen alde.
- . Hizkuntza erabilia izan da bi muturretatik, orokorrean, nik uste dut askosaz abiadura handiagoa hartuko genukeela euskararekin bi mutur horiekin amaitzea lortzen badugu.

. Momentu batzuetan egoerak esaten digu euskara erabiltzea, baino beste momento askotan guk erabakitzen dugu egin edo ez egin. Hori arautzea gatzaz izateaz aparte ez da egokia.

. Plano indibidualera mugatuz ez daukagu zer eginik. Botere harremanez ari gara, hori ez badugu argi errealitatea faltsutzen ari gara.

. Ahalik eta leku gehienetan euskara egin/behartu... modu kontsentsuatu batean, modu atsegin batean.

. Kontra etortzen zaigunari oztupoak jarri behar dizkiogu.

▪ **Elebitasunaren gakoa.-**

. Estutu jendea izutu gabe. Jo behar da eskema batera eleanitz baino euskara ardatz duena, maila progresiboan izan behar du. EAEn bertan kontestuak desberdinak dira. Modu progresiboan nola egin: gaue egun arnasmuneak bermatu eta izan daitezela motor bat eta baldintzak daudenean ba harago joan... Gauzak eztabaidatuko dira baino nire ustetan GFAk egin dituen gauza batzuk euskarari lehentasuna eman komunikazio hizkuntza modura edo administrazio publikoetan euskara hizkuntza eskakizunetan edo... horrelako gauzak kontsentsu handiarekin lantzen. Hori nola egin bi framing horiek gaindituz? Ekolinguismoa.... Zurea bada bultzatuko den hizkuntza, baino ez bestearen kontra... Pausuak eman hizkuntza 'vehicular'-a euskara izateko.

. Elebitasun pasiboa bultzada bat emateko. Kriston aurrera pausua eta aldarrikatzea, sozialki tokia egitea. Euskaldunak eta ulertzen duten horiek, ez dakit zein klabetan baino... aurrerapausua izan daiteke, eta diskurtsoak ere lagundu dezake horretan... inplikatu, pedagogikoak izan gizarte azkar batean.

. Elebitasun pasiboak garrantzi handikoak dira, nahi baduzu ez erabili, baino horrek bermatzen du nik euskaraz egitea eta zuk ulertzea eta nahi baduzu gazteleraz egin.

. Egoera hobetu egin da baino beste arazo batzuk ditugu. Nire ustetan hobeto gaude. Euskalduna da elebiduna.

▪ **Lan pedagogikoa.-**

. Aldekotasuna nahiko ahula, neurri edo ekintzak sustatzen direnean berehala eztabaida publikoa sustatzen da... Aldekotasunak nahiko azaleko diskurtso bat du. Lan pedagogiko handia egin beharra dago jendeak uler dezan zer den Euskararen alde egotea. Garrantzitsua hartzen diren neurriak zergatik hartzen diren eta ze logikaren barruan hartzen diren azaltzea, jendeak uler dezan.

Diskurtsoak sozializatu behar ditugu, azaldu politiken zergatia... jendeari ulertarazi Euskararen eta gaztelaniaren egoera ez direla berdinak. Euskararentzat beharrezkoak diren neurri batzuk gaztelerarentzat ez dira beharrezkoak. Tentsioa kudeatu, ze gizarte tentsio hori existituko du eta ongi kudeatu.

. Eskoletan eta unibertsitatetan soziolinguistika ez ikasi izana. Soziolinguistika gutxieneko bat guztiok jakitea.

. Gure artean ditugun diskurtsoak erantzuten jakin behar dugu.

. Norberak asumitu baino, erreztu egin behar da.

▪ **Gazteak.-**

. Gaur egungo gazteek ez dute euskara bizi gu bizi dugun bezala eta bizi izan dugun bezala. Nik uste ez dugula estutu behar. Nola erakarri gazte edo adineko horiek euskarara? Hor badugu zer egina. Aurrera begiratzeko gakoa. Hor presioa egitea ez dut uste erabiltzeko onuragarri izango den. Aktuatzeko beste forma batzuk aurkitu behar ditugu ze bestela ez ditugu erakarriko.

. Gazteek euskara eremu formalarekin lotzen dute, Hor badago egin behar bat.

. Gazteei balio diezaien, erabilerarako euskara izan dadila beharrezko hizkuntza bat.

. Gazteek ulertzeko zer nahi dugun, nora goaz. Gazteak gureganatzeko diskurtso berria beste era batera pentsatu behar da.

▪ **Posible de eraikitzea.-**

. Oroar gizartean euskara onura bezala baino modu desberdinetara ikusten du jendeak. Oinarrian abiapuntua hortik joan behar dugu.

. Kulturari asko inbertitu. Inkoszienteki buruan sartzen da. Estrategikoa.

. Eskeintza egokitu behar da euskararen aldera.

- . Balio bat aurrera begira izan daiteke modernitatea. Gazteek dute euskara gauza eta jendea helduaren baitan.
- . Modernoa eta erraza.
- . Euskara da integrazio tresna bat, aurrera egiteko balio diguna.
- . Teoria (diskurtsoa) eta praktika lotuta joan behar dira

6. TALDEA

Moderatzailea: Josune ETXANIZ

6. TALDEA

Hustuketa: Josune ETXANIZ

(Oharra: Nire ustetan talde honetan kontsentsu handia egon zen, jarrera gaia izan zen agian ikuspuntu desberdinak eman zituen gaia. Nahiz eta kontsentsua egon, batzuk baikorrakoak, beste batzuk ezkorragoak eta azken bat errealistagoa.)

HUSTUKETA REN LABURPENEA

Taldearen ideiak

- . Diskurtso berri baten beharra
- . Diskurtso berri mordo egituratu bat/batzuk.
- . Euskarak zerbait eskeini behar digu eta horretara iritsi behar dugu.
- . Xede taldeak... Orain arte joera izan da mezu bat guztientzat eta azkenean gelditzen da pixkat lauso ez delako iristen
- . Bilatzeagatik erdia dagoen zerbait ekarriko digula ez iristea, galdu egiten dela.
- . Askatasunaren kontzeptua adierazgarria
- . Gehio aldatzen du jendearen jarrerak, praxiak, diskurtsoak baino, eta hori da landu behar dena, benetako estrategia hortik joan behar du.
- . Kontuan hartu behar da hartzailearen ikuspuntutik, jendeak nola hartu eta baloratzen dituen
- . Autodefentsa puntu bat dute, ikusi dutelako euskarak egin duela. Aurrera, eta hasi direla neurri batean inseguru sentitzen
- . Uste dut asko eragiten duela inguruneak nola bizi dan.
- . Oso nekeza eta estresantea da euskaraz hitzegitea batzutan.
- . Askatasunez nahi dugu hizkuntza berba egitea, hori izan behar da zoru partekatu hori.
- . Diskurtsoa landu behar da euskaldunei begira, baino bait ere erdaldunei begira. Batez ere esplikatzeko: zuek segi dezakezue lasai erderaz hutsean, baina gauza batzuetara ez zarete iritsiko.
- . Ez baduzu ulertzen ezin zara sentitu erasotua
- . Agian momentu hau ona da euskara munduan gabiltzan aktoreak kontsentsu minimo batzuetara ailegatzeko,

Batzuen ideiak

- . Lurzoru hori adostea oso zaila iruditzen zait
- . Iruditu zait oso ikuspegi simplista eta ez dela oso eraginkorra diskurtsoari buruzko gogoeta egiteko. Erreduktionismo honetan sartzea ez dela oso eraginkorra izango iruditzen zait.
- . Pentsatzeak jarrera hobetzetik etorriko da eraginkortasuna, eta nik uste dut ezetz, oker gabiltzala.... Aldeko jarrera ere lortzen dela zeharka, ez bakarrik diskurtsoarekin.

- . Niri bai iruditzen zait jarrera aldaketa inportantea dela... jarrera eta pentsamendu aldaketak behar ditugula.
- . Diskurtso uzkur hori dutenek pixkanaka jarrera aldatu behar dute edo guk lagundu behar dugu jarrera aldatzen diskurtso berri horrekin
- . Gizartean inkoherentzia: ni euskararen alde nago baino horrek ez dit eskatzen portaera esanguratsu bat eta inkoherentzia horrekin ongi bizi naiteke.
- . Jarrera inportantea da baino beste estrategia asko daude. Bat izan daiteke gaitasunean gora egitea.
- . Landu beharko litzatekeen diskurtsoa ixilpeko hori izan beharko litzateke.
- . Batzutan nekeza izan euskalduna izan
- . Uste dut pertsonaren bizkar gainean jartzen dugula erantzunkizun hori, baino eske, aukerak ere nola dauzkagu?
- . Ez jakiteak ez da eskubide bat, ez. Jakitea da eskubidea. Baina nola esango diogu hori?

OSOTASUNEAN

FRAMING KONTRAJARRIEN AURREAN

- . Orokorrean uste dut esaten diren gauzak... honetan ibiltzen garenontzat gauzak nahiko arruntak edo... **Bi multzotan hain berezitan banatzea... zaila egiten zait.** Egia da ideiak mutur batean eta bestean koka daitezkeenak, baina ez zait iruditzen hain nabarmena denik. Ideologiak bai, kokatua batean edo bestean izan daitezkenak... baino iruditzen zait multzo asko dagoela eta ideia asko ez direnak aldekoak, inkluso gureak egin ditugunak erabileraren ondorioz eta nahi gabe ere indartzen direnak. Orduan, **hori baino konplikatua da gaia.** Ez dut uste hain banaketa garbia dela, oso nahasia dagoen zerbait dela. Abiapuntu bat izan daiteke, baino hori baino konplikatua da. **Framigna ulertzen det ideia marko bezala, eta ideia marko hori iristen zaizu hitz bakar bat esanez. Badaude ideia batzuk oso barneratuak ditugunak, erabileraren poderioz gureganatu ditugunak.**
- . Mutur bakoitzeko iritziak jarri dira nabarmen... **Kalean entzuten duzun gehiena ez da alde batean edo bestean jartzen...** Jende gehiengoak alde dago egiten denarekin... Egia de **diskurtso berri bat egiteko agian kontuan hartu behar direla bi mutur horiek.**
- . Berria egiten zait gauza bat, eta pozgarria, ze hemen ez da planteatzen dialektikaren aplikazio hutsa, tesia eta halako sintesi bat eratu beharra. Planteatzen dena da sintesira ailegatuta ere bi poloak existitzen jarraituko dutela... **Berrikuntza iruditzen zait, bi mutur horiek existitzen jarraituko dutela kontuan hartzea** eta sintesi edo dena delako politika horretan erabili dela mutur bat maiz aitzaki gisa gauza batzuk egiteko edo ez egiteko. **Hemen ez da komuninabideetan, eztabaidagunetan atera ez den gairik. Ez da gauza berriak.**
- . **Iruditu zait oso ikuspegi simplista eta ez dela oso eraginkorra diskurtsoari buruzko gogoeta egiteko ...** Nire ikuspegia ez da lineala, marra bat 0 eta 10, baizik eta **oso eremu eta espazio ezberdinak daude gizartean,** bai ikuspegi geografikotik bai pertsona multzo **euskararekiko edo hizkuntzarekiko duen harremana...** eta horren arabera sortzen dira diskurtso eta ikuspegi desberdinak eta uste dut kontuan hartu behar direla. Hor badago multzo elebidun bat... eta multzo bakoitzarekiko duen diskurtsoa oso diferentea da. Gero daude multzo mistoak, euskara beranduago 'jasotakoak eta multzo ezberdinak bakoitzaren barruan ere bai, hori adinaren arabera gertatzen da. Horregatik **erredukzionismo honetan sartzea ez dela oso eraginkorra izango iruditzen zait.**
- Euskaldunen kasuan esperientzia ezberdina da etxetik txikitatik eta giro euskaldun batean hazitakoak edo nere kasuan bezala frankismoaren bukaeran berreskurapena eta uste duzunean mundo guztiak ikasiko duela euskara eta gero konturatzen zara hori ez dela horrela. **Esperientzi eta bizipen hori diferentea da eta hizkuntzara iritsi gara modu desberdinetan.**
- . **Niri zaila egiten zait framing bakar batez bakarrik hitzegitea.** Euskarak zerbait eskeini behar digu eta horretara iritsi behar dugu. Mezua desberdina izan beharko da, "sortu" beharko ditugu baldintza objetibo batzuk, eta hori erakusten asmatu behar dugu.
- Benetan zer ari gara bilatzen? Euskararen alde egingo duen diskurtsoa? Lurzoru hori jarri behar da nunbaiten eta bi muturrak egon behar dira, baino **lurzoru hori adostea oso zaila iruditzen zait.**

. Framing aldarrikatzailean aldaketak ikusten ari naiz, eta beste kontzeptu batzuk sartzen ez hain erasokorra.

. Eta igual beste muturrean hori ez da ikusten, beste muturrean indartu egin da. Hor zegoen baino lotsa galdu dute.

Diskurtso berri baten beharra

. Iruditzen zait momento honetan **diskurtso berri batetaz hitzegiteko beharra badago**ela, baina **kezka dut ez ote garen zentratzen, esan behar dugun horretan, modu isolatuan**. Iruditzen zait EJ-k estrategia orokor bat beharko lukeela honetarako eta horri erantzungo lioke eta diskurtsoa osatu beharko litzateke. Agian badago eta nik ez dut ezagutzen. Iruditzen zait **diskurtsoarekin bakarrik** egin ditzazkegula milaka kanpaina, baina horrekin bakarrik **ez dugula lortuko eman behar ditugun urrats horiek emango**. ... Zerbait zabalago izan behar duela iruditzen zait, **zerbait estrategikoki nola egin beharko litzateken eta hori hor kokatu diskurtsoaren lanketak**. Zalantzarik gabe hontaz hitzegin behar da, diskurtso berri bat behar dela ez daukat zalantzarik.

. Diskurtso berri mordo egituratu bat/batzuk. [...] Erriberan erabiltzen den diskurtsoa zein dena da gero Goierrin edo Lea-Artibain diskurtso erabat kontrajarria erabili.

. Badago aldeko diskurtso esplizitu bat, esaten den diskurtso bat, baino gero ere badago aldeko edo kontrako diskurtso ixilpeko bat... Eta hemen beti gaude esaten den, adierazten den diskurtsoaz, baino inportanteena agian ez da hori. Inportantea da ixilpeko hori. **Landu beharko litzatekeen diskurtsoa ixilpeko hori izan beharko litzateke**.

. Lortu ditugu gauza asko urte hauetan baino oraindik lortzeko badago.... beraz jendeari zuzentzeko era aldatu behar ditugu, estrategiak, eta horrekin ere diskurtsoak.

XEDE TALDEAK

. **Gaur egun ari garen moduan ez gara iristen leku guztietara**, alde batetik hori, beharko luke zerbait orokor horren parte izan eta gero diskurtso desberdinetaz hitzegiten da baino ez da hitzegiten adibidez **xede taldeetat**, eta hitzeginda ere ikusi beharko genuke nola hitzegin... Orain arte joera izan da **mezu bat guztientzat eta azkenean gelditzen da pixkat lauso ez delako iristen**, igual hori ere kontuan hartu beharko da.

. Xedearena nik inportantea ikusten dut. Nik inportantea ikusten dut euskararen aldeko diskurtso bat baino gehiago, egokia xedea... Lurralde, adin talde bakoitzari mezu diferenteak eman behar zaizkio, etab....Ezin daitekera egin da beharbada puntualki eta pertsonarekin ia-ia kontrako ardugioa euskaraz eta erderaz. **Orokorrean diskurtsoan ezin daiteke kontrasan handia egon, nolabait ere bat etorri behar dute**.

. Koherentzia beharko lukeela. Adin desberdineko jendeari argudio diferenteak eman behar dira.

. Nik uste dut klabea dela hori, talde xedeen kontu hori. **Bilatzeagatik erdia dagoen zerbait ekarriko digula ez iristea**, galdu egiten dela.

ASKATASUNA

. **Askatasunaren kontzeptua** adierazgarria dela baina **modu batean erabili edo beste batean oso ezberdina**; bate askatasuna bakarrik balio badu eta besteak ez baldin badaukagu askatasunik, hori euskararen aldeko diskurtso batean onuragarria da? Bai? Ez?

. Askatasunaren niri inportantea iruditzen zait zeren Nafarroan adibidez guk zonalde batzutan erabiltzen ditugun diskurtsoak askatasunaren da, zeren ez baidigute askatasunik ematen. Eta **askatasunaren izenean askatasuna ukatzen digute**. Askatasunaren diskurtsoa nire ustez inportantea dela, gure aldeko diskurtso bat ere izan daitekela toki batzuetan.

JARRERA

. Nik uste azkenean dela helburu bat jarrira, iruditzen zait **bilatzen dugula dela jarrera aldaketa bat jendearengan**, bakoitza dagoen posizio horretatik aurrerago joatea eta orduan ibilbide horretan da nola kontatzen diogun. Seguraski izango da kontakizun berdina baino desberdin kontatua. Abiapuntu desberdinetan kokatzen gara eta nahi dugu hurrengo urratsera joan... Nola eragin jende horrengan jarrera aldaketa? Uste dut posiblea dela horrelako zerbait.

. Niri atentzioa deitu dit plantetutako tesi bat: jarrera ez badugu gainetik hartzen, ezin da beste karga horrekin ere. Planteamentu horrek du arrisku bat, **pentsatzeak jarrera hobetzetik etorriko da eraginkortasuna, eta nik uste dut ezetz, oker gabiltzala**. Erabileran edo gaitasunean ez da aurrerapausua

ematen, bere eremu horietan **ez badira benetako estrategia eraginkorrek planteatzen**, eta hori sektorialki planteatu behar da, hezkuntzan edo etxeko eremuan. Ona da mantentzeko aldekotasun jarrera hori, baina nik uste horren aldeko **jarrera ere lortzen dela zeharka, ez bakarrik diskurtsoarekin**. ... Hori planteamentu soziologiko bat da... baino errealitatean ez da horrela planteatzen.

. Niri bai iruditzen zait jarrera aldaketa inportantea dela. Momentu honetan guk **nahiko genuke gizarteak euskaraz bizitzea, iristea eta jende gehiena euskalduntzea. Uste dut horretarako jarrera eta pentsamendu aldaketak behar ditugula.**

. Nire ustez gauzak desberdinak dira, gauza bat da euskararekiko jarrera eta bestea ikasi edo hurbildu, ezagutu, erabili.

. Jarrera aldaketa baduzu, besteak pixkanaka etorriko dira.

. Pentsamendu aldaketa batekin jarrera aldaketa eragiten duzu. Horretarako behar duzu diskurtsoa, hizkuntza, hitzak kontrolatu... eta horren baitan lortuko duzu pertsona batek pentsatzeak euskara bizi nahi duela.

. Edo gutxienez hurbildu. Nik uste **diskurtso uzkur hori dutenek pixkanaka jarrera aldatu behar dute edo guk lagundu behar dugu jarrera aldatzen diskurtso berri horrekin**. Igal ez dira euskaraz biziko baino beste ikuspuntu batetik ikusiko dute. Jende hori, elebarkarreak, liluratu behar dugu eta gutxienez eta zeozer piztu euskarara hurbiltzeko eta horrela behin hurbilduta ikusi zer dagoen... Diskurtso on bategaz alde edo mutur horietatik mugitzeko, gutxienez erdirantz edo.

. Inkoherentzia bat dago. Ni euskararen alde nago baino horrek ez dit eskatzen portaera esanguratsu bat eta inkoherentzia horrekin ongi bizi naiteke.

. Horregatik behar duzu pentsamendu aldatzea.

. Jarrera portzentai hau aldatzea, hau da inkesta batean %70tik %80a igotzea ez zait hain zaia iruditzen. Zaila iruditzen zait %70 honek jarreratik portaerara salto egitea, eta ez dut esaten egunero euskara egitea, edo euskara ikastea. **Jarrera inportantea da baino beste estrategia asko daude. Bat izan daiteke gaitasunean gora egitea.**

. Baino behar duzu pentsamendua.

. Eraginkorragoa da Pepe Guradiolak katalenez egiteak, generalitateak egin dezakeen edozein diskurtsoa baino. Preskriptore horiekin egiten duzu hizkuntza politika.

. **Gehio aldatzen du jendearen jarrerak, praxiak, diskurtsoak baino, eta hori da landu behar dena, benetako estrategia hortik joan behar du.**

GIZARTEA/HARTZAILEA

. Nik uste dut neurtu behar direla gauzak benetako oihartzunaren arabera... **Kontuan hartu behar da hartzaillearen ikuspuntutik, jendeak nola hartu eta baloratzen dituen**, ze sinesgarritasuna daukaten, errealitatearekin ze zerikusia duten... baino **nik uste dut desekilibrio bat badagoela diskurtsoaren lehia horretan.**

. **Enpresa mundua** han framinga bestelakoa da, ez uzkurra ezta aldarrikatzailea, **gehiago da lan emaitzarekin lotutakoa**. Baino hor nik uste dut indargune bat duguna da mundo anglofonotik ikerketa asko etortzen ari dira enpresak zenbat diru ari den galtzen, ez irabazten, erabiltzen hizkuntza ez dutelako hitzegiten.

. **Komunikabideetan sentsazioa da ze nekeza den euskalduna izatea**. Azken finean lan bikoitza egiten delako askotan, eta gutxietsia izatea, bigarren mailakoa sentitzea... Baino hor badago beste errealitate bat.

. Gure atzetik etorri den generazioa naturaltasunez hartu du hizkuntza, azken batean hartu dute ia gehienek hezkuntza mundutik eta hortan ez dira militanteak... eta ez dira ohartzen zelako altxorra daukie, eta **militantismo falta hori antzematen da.**

. Jendeari ez diogu militante izan behar.

. **Gazteen artean izan beharko litzateke gauza naturalagoa.**

. Nafarroan jende arrunta artean euskararen kontrako diskurtsoa ahuldu dela esango nuke. Eta euskara aldarrikatzaile horretan ere aldatu da.

. Gazteen munduan diagnosis egitea baino ez hizkuntzaren ikuspegitik, gazteek errez aldatzen dute. Eta hizkuntzarekin lanean gaudenak horren araberrako diskurtsoak.

FRAMING UZKURRA

- . Kirola/Futbola.... Espainol izate horrekin arro daudela adierazteko, eta hizkuntzaren horrekin lotuta dago.
- . Uzurrentzat hezkuntza eta hizkuntza izan da aitzakia, azken batean barruan dutena azaltzeko.
- . Autodefentsa puntu bat dute, ikusi dutelako euskarak egin duela. Aurrera, eta hasi direla neurri batean inseguru sentitzen,
- . Reaktibazioa baldin badago espazio politikoaren galerarekin zerikusia duelako da.
- . Politika hutsa da, ez da soziala?
- . Ez
- . Edo gutxienez bai lotuta dago.

FRAMING ALDARRIKATZAILEA

- . Euskaldunak gero eta gehiago garela ikusten da eta jendeak determinazio handiagoa du euskaraz bizitzeko horretan. Aurrera egiten du, jarrera aktibo bat badago, nahiz eta **batzutan nekeza izan euskalduna izan. Uste dut asko eragiten duela inguruneak nola bizi dan.**
- . Framing aldarrikatzaile nik entzuten ditut... **ematen du framing horretan gaudenok egunerokoan egunero eta alderdi guztietan euskera erabiliko dugula, baina hori ez da horrela.** Badago aktibazio horretan oraindik lan handia. Framing horretan egoteak ez du esan nahi euskara ikasi eta hitzegin behar duzunik, badago jendea bere mezua eta diskurtsoa oso potentea dena baina gero eguneroko praktketan ez da hori hain argi ikusten.
- . Baina **uste dut pertsonaren bizkar gainean jartzen dugula erantzunkizun hori, baina eske, aukerak ere nola dauzkagu?** Bai da pertsonen erabakia, baina aukerak ere behar dituzu horretarako.
- . **Oso nekeza eta estresantea da euskaraz hitzegitea batzutan.**

ZABALDU NAHI DEN MEZUA (ADOSTASUNA TALDEAN)

- . Gauza bat da harreman pertsonala, beste gauza bat gizartera jauzi egiten dugunean.
- . Zer mezu partekatzen duzu? Errespetuarena? Errespetuak ere arriskuak ditu batzutan.
- . **Askatasunez nahi dugu hizkuntza berba egitea, hori izan behar da zoru partekatu hori.**
- . Segitu nahi dugu euskaraz. Hortan gara urduritzen.
- . Azken finean hain daukagu barneratuta edukazio txarrekoa dela eta esaten det, nik neronek badakidanez guk aldatu behar hori (euskaratik-gaztelerara), hain daukagu barneratuta, holakoetan zaila dela zurearekin jarraitzea.
- . Esplikatu beharko zaio komunitate erdaldunari ezin daitekela, ez duela eskubiderik, euskara ez jakiteko.
- . Nik ez nuke hori erabiliko, baina bai bere gain hartu behar duela galera bat. Gauza batzutan galtzaile suertatuko dela, eta hori diskurtsoaren barrenean izan beharko litzateke.
- . Ez jakiteak ez da eskubide bat, ez. Jakitea da eskubidea. Baina nola esango diogu hori?
- . **Diskurtsoa landu behar da euskaldunei begira, baina bait ere erdaldunei begira.** Batez ere esplikatze: zuek segi dezakezue lasai erderaz hutsean, baina gauza batzuetara ez zarete iritsiko.
- . Diskurtsoaren mailan aberastasunarena oso egokia iruditzen zait, baina **zoru partekatu horretan ikusten dut aberastasuna baina zerbait gehiago behar dela**, zentzu horretan. Argi izatea marra gorri batzu jarri behar direla eta... dute : “Hemendik ezin duzu pasa euskara ez baduzu ikasten”.
- . Eta argi dago marra gorri horiek ezin direla toki guztietan berdin erabili.

BIZIKIDETZA

- . **Ez baduzu ulertzen ezin zara sentitu erasotua**, halako arau batzuk ere gizarrean beharko ditugu. Azken finean bi hizkuntzak jakiteak emango dizun bizikidetza normal baterako aukera hori.
- . Katalunian hobeto asmatu dute hizkuntza bera biziketzarako tresna moduan aurkezten, eta seguruna ez da egin nahita, hizkuntza normalizazioaren bidetik baina. Etorkinak, aniztasuna... gai horietatik asko bultzatu dute kultura eta hizkuntza katalana dela elkartzen gaituen hizkuntza eta inor baztertzan ez duen

hizkuntza. Hemen zailagoa iruditzen zait, ezedugulako ezagutza maila oso baxua delako, ezin dugu esan euskara dela denok biltzen gaituen gunea.

. Alde positiboa bilatzen, ezezkoa baino. Eta unibertso Itzel bat galtzen duzula eta unibertso hori ezagutu nahi baduzu, bide bat duzula.

. Diskurtsoarekin **batera beharko litzateke benetan jendeak sentitzea, erdaldunak sentitzea benetan galtzen ari direla**, eta hori bakarrik gertatuko da bai instituzioen aldetik eta euskaldunen aktibazioa ere.

. Jendea kontziente izan behar du zer galtzen duen, eta ez du ezagutzen. Baino badago kultura bat, elebitasuna, dena bikoizten dena.

. **Euskaldun aktibatuak behar ditugu.** Kultura kontsumitzen duten euskaldunak.

. Diskurtsoak **erreferente batzuk eduki behar ditu.**

. Diskurtsoak sujetoari lotuta egon behar dute.

. Euskara gozamenarekin lotu. Gazteak...

. Adineko pertsonak nahiko egingo dute traba ez egiten, oztoporik ez jartzearekin.

. **Diskurtsoa zabaltzeko ardura guk dugu, erdaldunak lasai asko daude.**

. **Agian momentu hau ona da euskara munduan gabiltzan aktoreak kontsentsu minimo batzuetara ailegatzeko**, eta bakoitzak ongi ulertuta zein den bere papera, konplizitate pixka batekin, eta elkarri trabarik ez egin. Ulertuta bakoitzaren esparrua, lan eremua, nora ailegatu nahi duen.... Kontzeptu-konplizitate minimo batzuk bateragarri.

. **Bakoitzari dagokion horretan norabide berean denak.**

. Hortaz klabea da, ez bakarrik diskurtsoa, praxia ere.

. Amankomunean diskurtso minimoa. Puntu zehatz batera heldu behar gara.

. Funtzioen onarpen bat.

. **Espazio diskurtsibo komun bat eraikitzea posiblea da, hurbilketa batzuk egin daitezke, etab... eta diskurtso multiplea ez da kaltegarria izango.**

Diskurtso multiplea egotea, aktore bat baino gehiago txarra ez den bezala, hori ona da. Baino **konplizitate** puntua inportantea da gauza horretarako eta askotarako.

. Gizartearen **atxikimendua**.

5. TALDEA

Hustuketa: Amaia ELIZAGARATE

(Oharra: Talde osoan adostasun handi sumatu dut, baina bertan egon ez naizenez ez dakit ziur zein ideia kokatu taldearen kontsentsuan. Idatzitakoa ez da nire taldean bezain literala.)

1. TALDEAREN KONTSENTSUA (ESPLIZITUA ZEIN INPLIZITUA) ISLATZEN DUTEN IDEIAK

Diskurtso berria beharrezko ikusten da

- Ez daukat dudarik diskurtso berri bat behar denik, gaur ari garen moduan ez gara iristen leku guztietara.
- Diskurtso berri baten beharraz, ni orokorrean ados nago.

Azaldutakoa baino konplexuagoa da, bi muturren artean mila diskurtso ezberdin topatu ditzakegu:

- Bi *Framing* aipatu dira, baina banaketa ikusten dena baino konplikatuagoa da, ez da bi multzo horietara mugatzen. Nahiz eta ideologikoki askotan horrela ikusi. Ez da horren garbia, oso nahasia da.
- Jarri dituenak dira mutur bakoitzeko iritziak, horretaz hitz egin ahal izateko. Baina kaleko jende gehiena ez dago ez alde batetan eta ez bestean, jende gehiena alde dago egiten denarekin eta ez da jartzen ez mutur baten eta ez bestean.

- Grisak daude noski. Azkenean bakoitza hemen Otik 10era non gaude, 7an 8an?
- Proposatutako redukzionismo hori bi muturretan, oso ikuspegi sinplista iruditu zait. Eta bilatzen dugunerako ez dela oso eraginkorra, eskema sinplista horretatik emaitza eskasak aterako direla. Nire ikuspegia ez da lineala, non mutur batean egongo diren 0 eta 10 oso eremu ezberdinak daude gure gizartean, bai ikuspegi geografikotik, bai pertsonen euskarekiko duten harremanaren ikuspuntutik. Oso multzo ezberdinak daude eta horren arabera sortzen dira diskurtso eta ikuspegi oso ezberdinak.

Kolektibo eta talde oso ezberdinei zuzendutako diskurtsoa da eta hauei egokitu behar gara, diskurtso ezberdinak behar dira hortaz:

- Pertsonalki, esperientzia oso ezberdina da etxetik eta txikitatik euskaldun jaiotako pertsona bat eta arrazoi batzuegatik edo besteengatik ondoren euskaldundu direnak, esperientzia hori eta bizipen hori ezberdina da: ni batzuetan ez naiz ondo moldatzen pentsamendu aldetik euskaraz txikitatik izan duenak bezala, eta horiek izan duten gutxiespen sententzioa (frankismo garaian adibidez) nik ez dut izan, baina nik beste gutxiespen sententzioak dauzkatzat, eta oso konplexua da mundu hori.
- Ez da hitz egiten xede taldeez, nori hitz egin ere horren baitan ikusi behar dugu nola hitz egin. Helburu batzuk izanda ere bati edo besteari modu batez kontatu beharko diogu. Agian orain arte joera izan da mezu bat mundu guztientzat, eta azkenean hori ez da iristen.
- Ados, izan beharko dugula ideia abaniko edo sorta bat pertsona mota bakoitzarentzat. Batentzat framing aldarrikatzailea egokia izango da, beste batentzat ez, edo berdina hizkuntzen ekologiarena, ... Euskarak zer edo zer eskaini behar digu gutako bakoitzari. Eta bakoitzari zerbait ezberdina eskaintzen digun heinean mezua ezberdina izan beharko da.
- Hartzaile bakoitzak mezu ezberdin bat behar du.
- Agian, behar dira diskurtso mordo bat, edo diskurtso berri mordo egituratu bat edo batzuk.
- Kontua da helburu bat jarrita, bilatzen duguna da jarrera aldaketa bat jendearengan, bakoitza dagoen posiziotik pixka bat aurrerago joatea, eta orduan da nola kontatzen diegun. Ziurrenik izango da kontakizun berdina, baina ezberdin kontatzen dieguna. Eta orduan ez du zertan kontrajarria izan.
- Zerbait koherentea izan behar du. Batez ere, nik uste dut koherentzia beharko lukeela. Baina adin ezberdinetan argudioak diferenteak izan beharko dira.
- Argudioak desberdin, argumentarioa, bitartekoak ere desberdin.
- Klabea da xede taldeen kontua. Ezin dugu homogeneizatu. Ze azkenean bilatzeagatik erdian egongo den zerbait, orokorra izango den zerbait, ekarriko digu ez iristea jendearengana.

Mutur bat, euskaltzalea mugitzen ari da jada, uzkurra ez bezala.

- Azken urteetan, bost edo, framing aldarrikatzailean ere aldaketak ikusten ari naiz. Beste kontzeptu batzuk sartzen ari direla, ez dela hain erasokorra, asertibidarearen gaia geroz eta gehiago sartzen ari dela. Orduan nik uste dut lñakik esaten duen framing egokituaren bidea egiten ari dela.
- Agian beste muturretan ez, beste muturra ez da hainbeste mugitu. Agian kontrakoa, indartu egin da. Eta geroz eta lotsa gutxiago daukate esateko ere.
- Nik uste dut, hor bazenutela isilpean edo gordeta zegoen sektore bat eta nik uste dut azken urteetan piztu egin dena edo lotsa galdu duena. Eta orduan agian entzuten ez zenituzten gauza batzuk entzuten hasi zaretela, baina egon bazegoen.
- Baina baina agian lehen ez ziren ausartzen, baina gero eta nabariagoa da.
- EAEn nabaria da. Baina estrategia ezberdinak egon dira. Nafarroako gobernuak jokatu du inolako lotsarik gabe, Frantziako gobernuak jokatzeko du frantziar erara, alegia ezer ez esan eta atzetik. Eta orduan EAEn bazen, badaezpada ez dut esango baina lotsa hori galdu egin dute, PPko batzuen aldetik bereziki azken urteetan.
- Egia da batzuk diskurtsoan egiten dutela *politikamente korrektoa*, eta gero beste batzuk daude lotsa galdu dutenak, eta aurpegira esaten dizute haiek nahi duten guzti-guztia. Eta azken bolada horretan hori gogortu egin dela ikusi dut.
- Bestalde, ados gaur egun euskalgintzan diskurtsoak moldatzen ari direla. Lortu da asko baina gehiago dago lortzeko eta estrategia aldatu behar da eta horrekin batera diskurtsoa ere.

- Inguruan, ni Iruñean bizi naiz eta hor dagoena da erdararen aldeko eta euskararen kontrako diskurtso potente bat administrazioaren aldetik, normalean isilpekoa baina eguneroko praktikan gauzatzen dena. Jende mailan, administrazioetik aparte, uste dut euskararen kontrako diskurtsoa ahuldu dela Nafarroan azken urteetan. Hemen sorpresa izan duzue, bazegoelako eta bat-bat batean agertu da, han betidanik ezagutu dugu. Baina orain uste dut jende normalaren parte batetan hori ahuldu dela eta aldeko diskurtsoa handiago dela.
- Eta egia da diskurtso aldarrikatzailea aldatu egin dela, Nafarroan. Bazegoen diskurtsoa “hizkuntza bakarra euskara da”. Eta populazioaren %10 batetan hori aldarrikatzea benetan zaila da, baina gertatu izan da. eta hor badago aldaketa bat eta oso nabarmena. Eta behar bada aldaketa politikoa gertatzen bada diskurtso hori eraman beharko delako instituzioetara eta ikaragarri moldatu beharko da diskurtsoa hain zuzen ere euskara izan ez dadin gero gobernua galtzeko aitzakia.
- Baina ez da diskurtso kontua bakarrik, batzuk ondo antolatu dute D ereduaren aurkako kanpaina. Noski ez da esaten dena, da egiten dena azpian.
- Lotsa galdu dute agian diskurtso uzkurra dutenak. Nik uste dut doala orokorrean. Eta agian futbolak min handia egin digu horretan. La rojarekin. Gero eta gehiago adierazten dute Espainol izatearekin arro daudela. Eta hizkuntzarena horrekin lotuta dago.
- Hezkuntza eta hizkuntza haientzat aitzakia izan dira barruan dutena ateratzeko. Baina nik esango nuke diskurtso uzkurra dutenak eta harrotasun hori erakusten dutenen kopurua ez dela oso handia. Baina badute indarra euren entzuna izateko. Kanalak dituzte horretarako.

Uzkurraren areagotzea zerbait defentsiboa izan daiteke. Adostasunik ez espazio politiko edo sozialaren aldetik den hori.

- Baina nik uste dut badagoela autodefentsa puntu bat haiek sumatzen dutelako euskarak aurrera egin duela eta neurri batetan hasi dira intseguro sentitzen, euskarak lurra jan izan balie bezala. Adibidez orain Nafarroan diskurtso ofiziala askoz ere gogorragoa da euskararen kontra orain duela 12 urtekoa baino. Eta espainoltasunaren zerakin zerikusia izan dezake, baina baita UPNri ohartarazi egin zirela zer gertatzen ari zen euskararen inguruan. Kontrako legeria bat izanagatik ere eta faktore pila bat kontra izanagatik ere aurkitu ziren zirrikitu batzuk administrazioan sartzeko eta aurrera egiteko. Eta orduan administrazioaren jarrera ez zen oso kontrakoa. Eta bat batean alarmak piztu ziren. Matrikulazioa iritsi zen %34 batera edo, euskaltegiak beteak ziren eta batez ere administrazioan euskara baloratua zen. Eta bat batean atzera egin zen, gainera oso modu nabarmenean. Hor bai egon zen zerbait defentsiboa.
- Eta Komunitate autonomoan nik ere sumatzen dut badela zerbait horrelakorik. Espazio politikoaren galerarekin, botere galerarekin,
- eta baita espazio sozialaren galerarekin ere. Ez?
- Ez nik esango nuke ezetz!
- Nik uste dut bai dagoela lotuta. Ni Lapurdin bizi naiz eta ikusten ari gara berdin. Ikastolarekin ez da problemarik egon izan direnean ez dakit zenbat ikasle, baina gaur egun ikusten denean hor zerbait egon daitekeela estatua aktibatu egin da.
- Fenomeno marjinal bat den neurrian, orduan huskeria bat da, baina indarra hartzen hasten bada...
- Baina bai iruditzen zait lotuta dagoela espazio politikoarekin erabat. Abertzaletasunaren indartzearekin eta bestearen galtzearekin. Ba Nafarroan hori gertatu zen abertzaletasun politikoak behea joa zuenean. Momenturik baxuenean. Hain zuzen ere nik uste dut abertzaletasun politikoa goraka hasi dela UPNek gogortu duenetik bere euskararen kontrako politika guztia. Ez da arrazoi bakarra izanen baina ia ia bat egiten du. Eta hori bai izanen litzatekeela adierazgarria.
- Nik uste dut orain areagotzen ari dela beldurra benetakoa sentitzen ari direlako, espazioen galerarekin etab. Egon dira beste garai batzuk ere erabili dena hizkuntza kontrako norabidean ere, botere eremuak eskuratzeko.

Jarrera proaktiboagoa behar da euskaldunen aldetik, nekeza eta estresantea dena askotan.

- Guk ikusten dugu euskaldunak geroz eta gehiago garela, eta geroz eta determinazio handiagoa dugula euskaraz egiteko, eta horretan aurrera egiten duela. Jarrera aktibo bat badagoela horretan. Nahiz eta batzuetan nekeza izan euskalduna izatea. Orain dela 15 urte hizkuntza eskubideez hitz egitea zerbait arraroa zen baina gaur egun jendeak horren kontzientzia handiagoa badu. Eta jarrera aktiboagoa

badago horretan. Gero asko eragiten du ingurunean berak. Nik lanean ikusten dut gauza bat, baina nik lan egiten dut Andoainen, Martin Ugalden, Euskalgintzarekin. Eta Lapurdin bizi naiz, eta han jarrera kontraktorik ez, folklorearekin lotzen dute, baina ez diegu molestatzen, beraz...

- Diskurtso aldarrikatzailean bai kokatzen da jendea inguruan, baina ni entzuten ari naizen mezua bada aktibazioa igual bai baina ... Eredugarritasunaren inguruan ... Hau da ematen du framing honetan gaudenok, hau da abertzaleak, sinesten dugunok bertako hizkuntza euskara dela, gizarte osoa euskaldundu nahi dugunok, egunero eta ahalik eta guztietan euskara erabiliko dugula, baina hori nik uste dut ez dela egia. Aktibazio horretan badago oraindik lan handia egiteko. Hau da, framing honetan egoteak ez du esan nahi euskara ikasi behar duzunik, ez erabili behar duzunik. Oraindik asko dago egiteko. Katalunian framing honetan dagoenak katalana erabiltzen du.
- Askotan pertsonaren bizkar jartzen dugu erantzukizun hori baina aukerak era nola dauzkazu. Goizetik gauera pentsatzen jartzen zara zenbat aldiz ibili zaren euskaraz egin eta ez dizutela egiten, eskatu eta ez dago, eta kexa jarri... Bai da pertsonaren erabakia, eta kontzientzia hori egitea baina eremuak behar dituzu horretarako.
- Sartzen gara toki batean eskaneatzen dugu eta batzuetan aurpegiengatik ikusi nahi dugu parekoa euskalduna den edo ez, ze oso nekeza da, estresantea da euskaraz egitea. Ze batzuetan “no te entiendo” eta horretan ere badaude gris guztiak, eta ez da gauza bera. Eta zu ez zara liskar bila sartzen. Gauza bat nahi duzu eta horretara zoaz, eta ez diozu zure buruari problema gehigarri bat ezarri nahi. Eta hori oso gogorra izaten da. Eta toki batzuetan badakizu arrakasta izateko aukerak handiagoak izaten direla, baina besteetan ez dakit, ni Iruñean normalean ez naiz horrela sartzen. Hori bai Zarautzen elebakar aritzen naiz, eta batzuetan elebakar agresiboa ere bai.
- Hori bai, gu bostak gaudenean eta seigarren bat etortzen bada euskaraz ez dakiena erdaraz egiten dugu, orduan gure zoru partekatua! Eta gainera ni ziur nago psikologikoki denak urduritzen garela.

Hori gure errua da.

Estresa berriro ere.

Azkenean hain daukagu barneratuta edukazio txarrekoa dela. Eta hori guk aldatu behar dugu, hain dugu barneratuta. Eta arazoak berak du, hizkuntza bakarra duelako.

Diskurtsoak elebakarrei zuzendutakoa izan behar du. Euskara ez dezaten eraso moduan ulertu.

- Nik partekatu ahal dut zoru bat euskararen inguruan, euskararen aldeko jende horrekin. Baina zer partekatzen dut, gehienbat orain urte batzuk daramatzagu elkarrekin lan egiten eta batzuk jada ez dira moskeatzen euskaraz aritzen garelako gure artean. Hasiara batetan ziur nago baten batzuei iruditzen zitzaizela euskaraz aritzen ginela gure artean bera izorratzeko. Eta hori jada ulertu du, 8 - 10 urte daramatzagula elkarren ondoan, ez dela berarekin dugun kontu bat. Ze zoru partekatzen duzu horrekin? Parteka liteke beharbada. Baina hori izango litzateke errespetuarena. Eta klaro errespetuak ere bere arriskuak ditu batzuetan.

- Baina bai ulertzea berak zuk askatasun osoa daukazula zure lankidearekin euskaraz berba egitea eta berak ondo ulertzea. Eta ez sentitzea marginaturik edo horrelakoren bat. Azken batean hori da askatasunez nahi dugun hizkuntzan hitz egitea. Eta hori izan behar da zoru partekatu hori.

Nik uste dut sozialki planteatu beharko dugula, Nafarroan baina baita EAEn ere, nolabait esplikatu beharko zaio komunitate erdaldunari... ez nintzateke zentratuko euskalgintzakoa den diskurtsoan, hau da, ez duela eskubiderik euskara ez jakiteko, baina bai bere gain hartu behar duela galera bat.

Berak galtzen duela mundu bat.

Ez hori oso abstraktua da. Galtzen duela horrelako egoeretan ez duelako ulertuko eta ezingo duelako hitz egin. Eta hori nik uste dut diskurtsoaren barrenean sartu beharko litzatekeela.

- Gaur egun krisian gaudela, aberastasunaren fraiminga izan daiteke guretzat baliagarria. Hizkuntza bat gehiago jakitea aberatsagoa izatea da. Arrazoi duzu diozunean ez jakitea ez da eskubide bat jakitea da eskubidea, baina nola esango diogu hori? Ba esan daiteke modu horretan, hori erabiliz.
- Baina baita gauza praktikoetara ailegatuta, “ez diozu ulertuko auzokoari, edo lankideari.... “ behar bada ez zaio batere interesatuko.

Baina hori bere erabakia da.

Eta lanpostu batzuk ez ditu eskuratuko. Ezin dituzulako eskuratu. Imajina ezina delako herri honetako bi hizkuntzak ez dakizkienak lanpostu horiek eskuratzea. Eta baita kargu batzuetara edo... Orduan lortu behar dugun diskurtsoa euskaldun batzuei begira bai, baina batez ere erdaldunei begira. Batez ere erdaldunei esplikatzeko, zuek segi dezakezue lasai erdara hutsean, baina gauza batzuetara ez zarete iritsiko. Eta gure artean, modu gordinean esanda, ez pretenditu ailegatzerik gizarte honek eskaintzen dituen toki guztietara, ezinezkoa delako.

- Hori konplikatua da. Batez ere gure kasuan, kazetarien kasuan, kazetaria izan daiteke bi hizkuntzak jakin gabe?

Eske hori gaur egun Komunitate Autonomoan hori izan beharko litzateke aluzinantea.

Ba bada eta gainera oldartzen ari dira. Ikusten dutelako galduko dutela dutena, baina izan dituzte urte asko ikasteko. Eta ez dut egin.

Askatasunari marra gorriak jarri behar zaizkio

- Diskurtso aldetik aberastasunarena oso egokia iruditzen zait. Baina zoru partekatu horretan uste dut zerbait gehiago behar dela aberastasunarena baino, adibidez argi dago marra gorri batzuk badaudela eta dira aipatu dituzunak. Aberastasuna izateaz gain zuk euskara jakitea hemendik ezingo zara pasa euskara ez baduzu ikasten. Nik uste dut jarri behar direla marra gorri batzuk.
- Eta garbi dago ezin daitezkeela marra gorri horiek toki guztietan berdin erabili. Eta behar bada lege orokor bat, zentzu metaforikoan, ezin daitezkeela ezarri. Baina bai inportantea dela

Elkarbizitzako arauak

- Elkarbizitzarako arau batzuetaz ere hitz egiten ari gara, hizkuntzarenak arau batzuk ere badira, eta horiek adostu beharko dira. Hau da, ez banauzu ulertzen ezin zara sentitu erasotua,... horrelako arau batzuk ere gizarteratu beharko ditugula. Euskaldun batek euskaraz hitz egiten dizunean ez da eraso bat.
- Azkenean euskara ezagutzeak, bi hizkuntzak ezagutzeak emango dizu bizikidetzara normal batetarako aukera hori.
- Eta nik uste dut Katalunian bide horretatik askoz hobeto asmatu dutela. Hizkuntza bera bizikidetzarako tresna bezala aurkeztea. Eta hori ez da egin, nahita seguruenan, hizkuntzaren normalizazioaren bidetik baizik eta etorkinak, aniztasuna eta gai horien bideetatik. Askok bultzatu dute kultura eta hizkuntza katalana dela elkartzen gaituena, hezkuntza eta inor bazterten ez duen hizkuntza, eta horrelako gauzak. Hemen zailagoa iruditzen zait hori ezagutza maila ere oso baxua delako, eta ez da euskara bera denak biltzen gaituen gunea. Oraindik ere gutxi batzuk batzen gaituen gunea da. Baina kontzeptualki behar bada bide hori hartzea izan daiteke.

Diskurtsoa modu positiboan planteatu behar da, euskara saldu behar da.

- Baina nik beti egingo nuke alde positibo bat bilatzea ezezkoa baino. Horiek esan dutena unibertso oso bat galtzen duzula eta unibertso hori ezagutu nahi baldin baduzu bide bat duzula horra joateko. Baina beti modu positiboan.
- Diskurtsoa aldatu behar dugun honetan ere hortik etorriko dela, ez? Beti autoflajelatzen ibili baino, baditugula gauza positiboak eta indartu behar ditugula.
- Beharko litzatekeena da benetan erdaldunak sentitzea benetan galtzen ari dela, eta hori bakarrik gertatuko da bai instituzioen aldetik, eta bai euskaldunon aldetik, euskaldun arruntaren aktibazioa ere (nahiz eta oso nekeza izan eta denak ezin dira militanteak izan), baina aktibatzea kezka hori benetan erakutsi behar diegula modu praktikoan benetan galtzaile gertatzen ari direla.
- Azken batean bi baldin badauzkagu zergatik bat bakarrik erabili, azken batean hor zer edo zer galtzen dute. Eta hori positiboan formulatu behar da.
- Jendea kontziente izan behar du zer galtzen duen, eta ez du ezagutzen ordun ez da kontziente.
- Baina badago kultura bat, elebitasunean oinarritzen dena, dena bikoizten dela.
- Kulturarekin lotuta hori da, zer nahi dugu euskaraz sortzea gazteleraz dagoen berdina, edo euskaraz zerbait berezia sortzea. Kontua da zer sortzen dugun euskaraz beste komunitateei inbidia emateko. Liburu bat irakurtzea, edo Ruper ulertzea, ... da eskaini dezakegun zerbait beste komunitateari.

Horretan aberatsak baldin bagara? Baina horretarako sorkuntzarako estrategia bat eduki beharko dugu.

Euskaldunok aktibatu behar gara

- Eta beste alde batetik, eta nik uste dut kezagarria dela, euskaldunon kontsumoa zein den. Ze telebista, ze literatura, ze kontzertu... Ze gero ez gara gu ere gai beste komunitateari esateko ze ona den gure kultura ze ez dugu ezagutzen duk ere.
- Galdera aldatu egin beharko litzateke ze galdu orde, zer irabazten duzun. Eta horretarako guk ezagutu beharko dugun, zer galtzen duen azaltzeko.
- Zentzu horretan esaten nuen nik euskaldunok aktibatu behar garela. Ze horrek bai higitzen gaituela, eguneroko higadura bat da. Ze erdaldunen aurrean arrotzaren agertzeko aukera galtzen dugulako. Edo euskaldun pila batek, erdaldunekin harremana dutenak, eta ez dira gauza esateko a ze liburu ona irakurri dudan, edo a ze cd ona entzun dudan... Aukera hori egunero galtzen dugu. Horretan bai behar dugula diskurtso bat.
- Diskurtso berri bat zabaltzeko ardura guk dugu. Erdaldunak azken batean oso lasai daude. Igual momentu hau egokia da euskararen inguruan dabilzan aktore ezberdinen arteko kontsentsu minimo batzuetara ailegatzeko. Bakoitzak ongi ulertuta zein den bere papera, kontseiluarena, Bizkaiko Diputazioarena, etab. bakoitza bere esparruan. Baina konplizitate pixka batekin. Gutxienez gure arteko minimo batzuk, behintzat elkarri trabarik ez egiteko. Eta elkarri, azken urteetan ibili garen bezala, mokoka ez ibiltzeko. Igual ulertuta bakoitzaren esparrua zein den, zein da bakoitzaren lan eremua, norengana iritsi nahi duten etab. etab. Bateragarri izan dadin bakoitzak egiten duen lana.

Bakoitzak dagokion horretan baina denak norabide berean.

horretarako klabea da ez bakarrik diskurtsoa baizik eta praxia ere.

Eske diskurtsoa praxis batekin joan behar da.

Erreferenteak behar dira horretarako

- Nork esaten duen ere garrantzitsua da.
- Kontu horretan uste dut ere garrantzitsua dela errespetuaren kontua. Zeinek esaten duen ere oso inportantea da. Baita sinesgarritasunaren aldetik.
- Azken batean erreferente batzuk izan behar dira. Esate baterako futbola jolasen dutenak edo. Hori inportantea da haietzako. Azkenean antzemateko euskarak edozein gauzatarako balio duela. Azken batean uste dudalako nerabeek eta gazteek lotu dutela euskara irakaskuntza edo hezkuntzarekin, eta orduan zer egiten dute euskara erabiltzen dute klasean dauden bitartean, gero plazara doazenean naiz eta talde berdina izan erregistroa aldatzen dute. Eta orduan nik uste dut hor erreferente batzuk behar dituztela, haiek atzemateko edozein momentutan eta ez eskolan bakarrik euskara berba egin ahal dutela. Azken batean hor ere badago motibazio puntu bat, gozamenarekin, hizkuntzarekin gozatu ahal dute, ze azken batean batzuk uste dute zama bat dela. Eskolarekin lotuta, eta orduan zama bat da. Ekuazio hori aldatu behar dugu, eta euskara gozamenarekin lotu.
- Gure adineko pertsonak, erdaldunak direnak nahikoa egingo lukete behintzat traba ez izaten.
- Bueno hori ezberdina izan daiteke segun eta zein gunetan. Herri euskaldun bateko udaletxean ari bazara lanean inoiz ez da berandu. Ze hor berak ez nahi arren traba handia da. Orduan hor diskurtsoa eta eskaera maila oso ezberdina da.
- Ez da horrenbeste spot bat egitea euskararen alde, orain futbolariak egin duten bezala, bere jarduna eta jarrerarik izan behar dute eredu garri Guardiola bezala. Ez du aldarrikatzailea izan beharrik, beren jardunarekin egitea hobe da. Eta klubak atzetik babesa ematen euskaraz ari direnei, medioen babesa,...

Euskararen alde lan egiten ari diren agenteek elkar hartuta lan egin beharko lukete.

- orduan ezin duzu esan ados gaude hizkuntza gutxituen aldeko neurriak behar direla, UNESCOk esaten duen bezala etab. eta gero diru-laguntzen politikan ibiltzen gara merke, ukatuz, gogortuz etab. Eta orduan ez dago bakerik. Orduan praxi bat izatea adostasun puntu horrek ematen duenarekin.
- Nafarroan oso zaila litzateke, baina Gobernuak aldatzen bada, uste dut balizko gobernu horrek alde horretatik egin beharko luke itun bat Nafarroako herritarrekin horren gainean. Eta behar bada hortik

ateratzen denak ez du zerikusirik izango euskaltzaleen errebindikazio historikoekin. Baina bai gutxienerako lur bat, edo terreno bat edo zerbait kontsentsuzkoa. Orain ez dago kontsentsurik inposizioa da.

- Nik uste dut beste arlo batzuetan gutxienerako diskurtso minimo bat baldin badaukagu, honekin gauza bera egin beharko genuke. Esate baterako emakumeen erasoan kontrako diskurtso bateratu bat daukagu. Edo berdintasunaren aldekoa, orain barbaridadeak ez ditugu esaten. Hemen ere puntu horretara iritsi beharko genuke.
- Diskurtsoaz aparte beharko luke ere funtzioen onarpen bat, nire lana hau da eta hau zurea da, beraz hemen zuri atea zabaltzen dizut. Eta onartzea arlo batzuk, diru-laguntzak edo, bestela apurtuko da adostasuna. Erraza izan liteke dokumentu bat sinatzea diskurtso batekin, baina agian hain erraza ez da izango. Baina uste dut lortu daitekeela eta horretatik haratago joan beharko genuke, bakoitzari gune hegemonikoak onartuz, negoziazio mota bat egon behar du. Adibidez Katalunian gobernuak egiten du salaketa formala eta hango elkarteak egiten du protesta soziala, baina elkarren berri dute eta komunean lan egiten dute.
- Nik esango nuke beharrezkoa dena espazio komun bat dela, ez horrenbeste diskurtso komun bat. Espazio diskurtsibo komun bat nik uste dut posiblea dela. Hurbilketa batzuk egin daitezke.
- Nik uste dut diskurtso multiplea egotea eta aktore anitz egotea ez dela txarra, berez ona dela. Hobe da maiz zenbat eta ahots gehiago izan, aberasgarriagoa eta eraginkorragoa. Horri ere ez diogu beldurra izan behar, baina azpian konplizitate puntu horrekin.

2. BAKARRIK BATEN EDO BATZUEN IDEIAK IZAN DIRENAK, BAINA TALDEAREN KONTSENTSUA (ESPLIZITUA ZEIN INPLIZITUA) LORTU EZ DUTENAK

Idea interesgarria diskurtso bateratu horretan bi poloak errespetatzearen ideia

- Idea interesgarria (pozgarria) iruditzen zaie planteatu dena ez izatea dialektikaren aplikazio hutsa, eta sintesiara iritsi beharra. Plantatzen dena da sintesi batetara iritsita ere kontutan hartu beharko litzatekeela bi poloak, bi polo horiek jarraituko dutelako existitzen.

Jaurlaritzak sortu zenetik bere burua kokatu du sintesi posizio batetan, norainoko sintesia den eztabaidagarri izango balitzateke ere, baina maiz erabili izan dira mutur bat gauza batzuk egiteko edo ez egiteko. Orain gutxienez hartu ditzagun kontuan bi muturrak gauza batzuk egiteko edo ez egiteko.

Diskurtsoan pentsatu bai baina estrategia edo xede batekin atzetik:

- Beharrezkoa da diskurtsoaz hitz egitea, baina kezka daukat ez ote garen horretan zentratzen modu isolatuan. Eusko Jaurlaritzak estrategia bat beharko luke horretarako eta horri erantzungo liokeen diskurtsoa osatu beharko litzatekeela. Diskurtsoarekin bakarrik ez dugu lortuko eman behar ditugun urratsak ematea. Beraz, iruditzen zait zerbait zabalagoa edo orokorragoa egin beharko litzatekeela, estrategia baten barruan, eta diskurtsoarena horren parte izan.

Zoru partekatua definitzearen beharraz:

- Zalantza sortu zait, esan dutenean euskararen aldeko diskurtso bat, benetan zer ari gara bilatzen euskararen ALDEKO diskurtso bat? Niretzako Framing uzkurra ez da euskararen aldeko diskurtsoa. Uste dut lurzorua jarri behar direla nonbait, eta bi muturrak egon behar direla sintesi horretan baina lurzoru hori adostea oso inportantea iruditzen zait.
- Xede dena inportantea da. Eta uste dut euskararen aldeko diskurtso bat baino gehiago, euskararen aldeko diskurtso bat baino gehiago egotea litzatekeela. Xede hor den kontutan hartuta. Kontua da nahiz eta diskurtso mota ezberdinak erabili, ezin daitekeena da kontraesan handia egotea batzuk eta besteen artean. Nolabait ere bat etorri behar dute. Iruzurra berehala geratuko litzateke begi-bistan.

Askatasunaren kontzeptuaz: . (ez dago adostasunik)

- Askatasunaren kontzeptua, lñakik esan du oso baliagarria dela, baina askatasunaren kontzeptua modu batean erabili edo beste batean oso ezberdina da. Batzuen askatasunak bakarrik balio badu eta besteok ez badaukagu askatasunik hizkuntza, euskara erabiltzeko esaterako, hori euskararen aldeko diskurtso batetan onargarria da?

- Askatasunarena niri inportantea iruditzen zait. Zeren Nafarroan adibidez, guk euskararen alde, behintzat zonalde batzuetan, erabiltzen ahal dugun diskurtsoa askatasunarena da. Ze momentu honetan ez baitigute ematen askatasunik ere euskara hautatzeko. Eta askatasunaren izenean askatasuna ukatzen digute. Orduan askatasunaren diskurtsoa ere nik uste dut inportantea dela, eta gure aldeko diskurtso bat izan daitekeela toki batzuetan bederen. Agian horretan izan behar da apur bat zinikoa ere, eta Nafarroako zonalde ez erdaldunean komeni zaigu diskurtso hori. Hori bai, Erriberan diskurtso mota hori erabiltzen baduzu ezin daitekeena da Goierrin edo Lea Artibain diskurtso erabat kontrajarria erabili.

Jarrerak hobetzeak ez du eraginkortasuna ekarriko hizkuntzaren aldetik. (ez dago adostasunik)

- (Grafikoaren azalpenaren kontura) planteamendu horrek dauka arrisku bat pentsatzea jarrerak hobetetik etorriko dela eraginkortasuna eta nik uste dut ezetz, oker dabilzala. Erabileran edo gaitasunean ez dira aurrerapausoak ematen bere eremu horretan ez badira benetako estrategia eraginkorrak planteatzen, eta hori sektorialki planteatu behar da. Ona da mantentzea aldekotasun jarrera hori goitik ondo etab. Baina nik uste dut batzuetan horren aldeko jarrera lortzen dela zeharka ere bai diskurtsoaren bidez.
- Niri bai iruditzen zait jarrera aldaketa inportantea dela. Momentu honetan guk nahi dugu gizartea aldatu. Nahiko genuke euskaraz bizitzera iristea ahalik eta jende gehiena. Uste dut horretarako jarrera eta pentsamendu aldaketak behar ditugula. Gaur egun jende multzo handi batek pentsatzen du, bera gaztelaniaz edo frantsesez bizi da eta ez du inolako problemarik. Guk nahiko genuke jende horrek pentsatze a euskaraz bizi behar duela edo euskaraz bizi daitekeela. Horretarako pertsona batek jarrera aldatu behar du. Pentsamendu aldaketa bat bilatzen duzu eta horrekin jarrera aldaketa lortu dezakezu. Horretarako behar duzu diskurtsoa, behar dituzu hitzak kontrolatu, eta horren baitan lortuko duzu pertsona batek pentsatzea euskaraz bizi nahi duela.
- Gauza diferenteak dira nire ustez, gauza bat aldeko jarrera eta beste gauza bat ikasi, ezagutu, erabili...
- Ni ados nago, zuk aldekotasun jarrera bat baldin baduzu, besteak pixkanaka etorriko dira. Gutxienez hurbiltzea. Diskurtso uzkurra duten pertsonak pixkanaka jarrera aldatu behar dute edo guk lagundu egin behar dugu horretan diskurtso berri horrekin. Iguar ez dira euskaraz biziko, baina beste ikuspuntutik ikusiko dute. Jende hori liluratu behar dugu, gaztelera eta frantsesarekin nahikoa dutela uste dutenak. Gutxienez zer edo zer piztu euskarara hurbiltzeko. Mutur horretatik mugitzeko gutxienez erdirantz.
- Baina lñakik esan duenez %70 bat edo hizkuntzaren alde agertu da, baina gaur egun hizkuntza ez dagoenez gure bizitzaren zentroan nik ondo bizi dezaket inkoherentzia hori; euskaren alde egon eta horrek ez dit eskatzen portaera aldaketa esanguratsu bat.
- Horregatik behar duzu pentsamendua aldatzea, pertsona hori ez dadin eroso sentitu horrela.
- Pentsamendu hori aldatzea ez duzu lortzen diskurtso batekin, behar da estrategia oso bat. Jarrera aldaketa lortzea %70etik %80ra igotzea ez zait horren zaila iruditzen, zaila iruditzen zaidana da jarreratik portaerara salto egitea. Orduan niretzako jarrera aldaketak lortzea oso inportantea da baina horretarako estrategia asko daude. Bat izan daiteke gaitasunean gora egitea eta horrek bakarrik ez duenez eramaten erabileran gora egitea , horretarako behar duzu pentsamendua. Baina pentsamenduan eragiteko behar duzu ere gaitasunean eragitea. Estrategia oso bat da beharrezkoa, ez da nahikoa jarreretan eragitea.

Isilpeko diskurtsoan eragin behar da.

- Euskararen aldeko jarrerarekin ari garela, nik uste dut badagoela aldeko jarrera esplizitu bat, baina horrelakoetan badago ere aldeko edo kontrako diskurtso esan-gabeko bat, isilpeko bat. Eta nik uste dut, hemen euskararen gaineko diskurtsoaz ari garenean ari galera benetan esaten den diskurtsoaz. Baina inportanteena behar bada ez da hori, isilpean gordetzen dena baizik. Adibidez, Espainiako administrazioak badu euskararen aurkako diskurtsorik? Agerian ez, baina ezkutukoa bai. Eta igual formatan ere bai, egiten duenean eta egiten ez duenean. Eta hori hiztunak badaki. Eta hemen batzuetan kontrakoa gertatzen da, agerian badago diskurtso bat baina benetan dagoena ez da esaten den hori, baizik eta esaten ez dena. Landu beharko litzatekeen diskurtsoa isilpeko hori izan beharko litzateke. Adibidez administrazioak duen jokatzeko manierak diskurtso bat sortzen du. Eta kontrako diskurtsoak sortzen dituen gauzak egiteak eta ez egiteak.

- Jarduerarekin sortzen da diskurtsoa. Eraginkorragoa da Pep Guardiolak Katalana egitea, Generalitateak ez dakit zein diskurtso botatzea baino. Eredu izanez egiten duzu azkenean hizkuntza politika. Diskurtsorik hoberena agian da Pep Guardia katalanez ikustea.
- Hemen erabaki bat hartzen da, udal batetan dena euskaraz izatearena adibidez eta Gobernadore Zibilak salaketa jartzen du. Katalunian adibidez ez zen erabakirik hartu baina egin egin zuten, eta Gobernadore Zibilak ezin izan zuen ezer egin erabakirik ez zegoelako, idatzizko konstantziarik ez zegoelako, egin egin zuten.
- Hori da, nik uste dut gehiago aldatzen duela jendearen jarrera, praxia horrek diskurtsoak baino. Orduan hori da jarrera, benetako jarrera horrek izan behar du.

Diskurtso guztiek ez dute indar eta oihartzun bera

- Diskurtso guztiak ez dira berdinak, uste dut neurtu behar direla gauzak duten benetako oihartzunaren arabera. Hau da, diskurtso batzuk nahiz eta aldarrikatzaile eta gogorrak izan iristen dira iristen diren tokiraino. Eta beste batzuk, eta batez ere beste aldekoak kristoren potentzialitate eta irismen handia daukate. Gainera erdara nagusian egiten direlako, mundu guztiarentzat, komunikabide potenteekin etab. Hori kontutan hartu behar da hartzailearen ikuspuntutik. Baina nik uste dut desekilibrio bat badagoela diskurtsoaren lehia horretan. Eta administrazioetik egiten den diskurtsoa egiten da potenteagoa beste batzuk baino eta egiten da kanpainekin, elkarrizketekin, etab. eta beste oihartzun mota bat dauka.

Enpresa munduko diskurtsoak

- Enpresa munduan framinga beste bat da, ez aldarrikatzailea eta ez uzkurra. Beste diskurtso batzuk lantzea tokatzen zaigu lan munduan. Eta gehiago da emaitzekin lotutakoa, etab.
- Uste dut indargune bat badugula. Ingeles mundutik ikerketa asko etortzen ari direla esaten enpresek zenbat diru ari diren ez irabazten erabiltzaileon hizkuntza ez direlako erabiltzen ari. Ikusi dutelako webguneetan ez zutela saltzen ingelesez bakarrik zituztelako. Eta dator agindu bat esanez, egizu ahalik eta hizkuntza gehienetan, eta berdin da hizkuntza hori nolakoa den, baina hartzaileen hizkuntzan egin. Eta hor guretzako badago argumentu sorta potente bat, oraindik enpresariak ez dutena sinesten oro har, baina badator diskurtso berri bat.

Hedabideak

- Hor sentsazioa da zein nekeza den euskalduna izatea. Lan bikoitza suposatzen duelako askotan, eta gutxietsia izatea. Bigarren mailako sentitzea.

Musikariak eta idazleak

- Gaur egungo taldeek dute beste jarrera bat eta ez dute baloratzen euskaraz kantatzeak zein garrantzia izan dezakeen. Eta ingelesez kantatzen dute. Horri buelta emateko zer egin behar da? Naturaltasunez hurbildu dira beste hizkuntzetara eta nahiz eta euskaldunak izan ez dute sentitzen, testuinguruagatik edo musika horrelakoa delako, ... Eta Ruperrek zioen baina ingelesez egiten duzu eta hor ez duzu ezer aportatzen, kulturalki, musika aldetik etab. igual bizimodua aterako duzu baina ez duzu ezer aportatzen. Eta aportatzeko modu bakarra da zure nortasuna hizkuntzaren bidez transmititzea.
- Ba esan behar zaie gaztetxoei, badakizue “berri txarrak” taldea, txikia eta euskaraz kantatzen dutenak mundu mailako gira bat egin dutela. Eta seguruenik ingelesez kantatuko balute, zertarako entzun behar zituzten Detroiten espainol batzuk.
- Kontrako kasuak era badaude, “De lorean” esaterako, arrakasta dute ingelesez kantatzen dutelako.
- Baina kasu bereziak izaten dira. Nik ere erdaraz idatziko banu izango nintzateke Iruñeko beste erdal idazle batzuk bezala Iruñean ere saltzen ez dutenak. Hori igual esplikatatu beharko litzazieke, baina beharbada ez dute nork esplikatua. Eta hori bada problema, horixe ere falta zaigu.

Administrazioan

- Diskurtso gehiena aldekoa da, uzkurra egonda ere gutxi dira. Baina uzkurra den hori ageriago geratzen da, lotsa galdu dutela.

Hizkuntzarekin harreman ezberdina belaunaldi gazteen aldetik.

- Gure atzetik etorri den belaunaldiak beste naturaltasun batez hartu dute hizkuntza. Ia gehienak hartu dute hezkuntzaren mundutik eta orduan ez dira militanteak. Eta naturaltasunez hartzen dute bai euskara eta bai ingelesa. Ez dira ohartzen zelako altxorra daukaten. Badakite baina ez zaie batere kostatu hizkuntza hori berreskuratzea, uste dute berez etorri dela. Eta militantismo falta hori ere antzematen da.
- Baina nik uste dut jendeari ez diogula eskatu behar militante izatea. Ze egia da ze nekeza den euskaldun izatea, ematen du karga bat dugula bizkar gainean eta besteek baino 20 gradu makurrago ibili behar dugula.
- Baina ez da nire kasua, nik ez dut sentimendu hori.
- Nik batzuetan bai. Pentsatzen dut zenbat aspertuko nintzatekeen euskalduna ez banintz, zenbat denbora geldituko litzaidakeen ez dakit zer egiteko. Baina gazteen kasuan izan beharko litzateke gauza naturalagoa.
- Gazteen artean niri interesagarria iruditzen zait diagnostia egitea baina ez hizkuntzaren ikuspegitik baizik eta orokorra. Ze uste dut aldaketa ematen ari dela identitate likidoaren gaia etab. Hau da gazteek erraz aldatzen dut, berdin du hizkuntza edo... Hori ere ulertu behar dugu euskararen gaiarekin lanean ari garenek, eta horren arabera diskurtsoa egin, ze euren dako hori oso naturala da. Jada ez da ni klase honetakoa naiz, hizkuntza honetakoa naiz, herri honetakoa naiz,... generazio aldaketa handia dago horretan.
- Diskurtso aldaketa horri begira egin beharko genuke. Guk beharbada errealitate hori oso modu zurrunean bizi dugu. Eta gainera ez dute inolako traumarik, honekin honela, harekin hala ...

ESEP

Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak
emandako eginkizuna:

*«Euskararen gaineko oinarrizko
diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu
eta bateratze bidean jartzea»*

2014ko ekainaren 26a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Euskararen Aholku Batzordea
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Eskema

- **Saioaren helburua: zuek esandakoetatik abiatuta, sintesian aurreratzea.**
- **Datuen grafikoak: EH, EAE, Nafarroa, Iparralde.**
- **Zuek esandakoak, inbentario bat. Iturriak:**
 - **Ekainaren 3ko saioko taldeetan esandakoak.**
 - **Galdetegi idatziak.**
- **Gaurko lanaren azalpena**


Grafikoak: diskurtso egokiak ditugu euskararen kurbak grafikoetan gora egin dezan?



Jarrera – Gaitasuna - Erabilera

Jarrera - Gaitasuna - Erabilera (1991-2011) (EH osoa)


(Grafikoaren elaborazioa: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013a eta b)



Jarrerak, EH osoa, EAE, Iparralde eta Nafarroa

Jarrerak: alde + oso alde. EH osoa, EAE, Iparralde eta Nafarroa (1991-2011)


(Elaborazioa: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013)



Jarrerak: EAE

Jarrerak: EAE (1991-2011)


(Elaborazioa: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013)



Jarrerak: Nafarroa

Jarrerak: Nafarroa (1991-2011)


(Elaborazioa: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013)



Jarrerak: Iparralde

Jarrerak: Iparralde (1991-2011)

(Elaborazioa: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013)



Azterketa (I): ekainaren 3ko saioko taldeak



Ekainaren 3ko saio osotik, mezu bat

“Diskurtso berri bat eraiki dezakegu bizikidetzan oinarritua, integratzailea, bai pertsonen artean eta baita hizkuntzen artean ere. Komunitate politiko bat osatzen ari gara eta hor euskarak toki egokia eduki behar du”.

- **Baina ñabardurak ere agertu dira taldeetan:**
 - **“Kaleko jendea ez dago hain polarizatua mutur linguistikoen artean”.**
 - **“Jendea politikoki zuzena agertzen da euskara sustatzearen alde dagoela esaten duenean, baina funtsean ez du hainbeste sinesten horretan”.**
 - **“Espainiako Konstituzioak gaztelania derrigortzen du, eta horren aurrean ahula litzateke diskurtsoen alorrean aritzea”.**

Ekainaren 3ko saioa: Talde bakoitzeko adostasun orokorra (I)

- **“Bizikidetzaren ardatz eta helburu izan daiteke, jende eleanitzeko gizaratean. Aukera egitea, bestea onartzea. Jendeak onartu behar du besteak beste hizkuntza bat nahiago izatea; edo hizkuntza bat edo bestea funtzio batzuetarako edo besteetarako erabiltzea”.**
- **“Diskurtso bat eraiki behar dugu elkarbizitzan oinarritua. Komunitate politiko bat osatu behar dugu (nazionala edo ez nazionala), bere araudiarekin, kulturarekin, eta hor euskarak leku bat izan behar du. Leku hori integratzailea izan behar da, denon artean eraikitzen duguna”.**
- **“Mutur bakoitzeko iritziak jarri dira nabarmen... Kanean entzuten duzun gehiena ez da alde batean edo bestean jartzen... Jende gehiena alde dago egiten denarekin...”.**



Ekainaren 3ko saioa: Talde bakoitzeko adostasun orokorra (II)

- **“Iraganean diskurtso ezberdinak egon dira, elkarrekin inkomunikatuak eta elkarren berri galdetu ere egin gabe bizi izan direnak. Eta horiei buruz galdezka hastea positiboa iruditzen zait”.**
- **“Euskara sustatzeko adostasunean paralelismoa egin daiteke emakumeen eskubideekin: berez bai, gauza politikoki zuzenak esaten ditugu, baina gero bazoaz begiratzera, gazteen artean, erabilera... eta errealitatean ezintasunak askoz ere handiagoak dira. Aldekotasuna bai, baina nahiko azalean geratzen da”.**
- **“Espainiar Konstituziotik, gaztelerari gordetzen zaio legearen pribilegioa. Frankismotik erregimen berrira euskararentzat aldaketa gutxi. Komunitate batek pribilegioak atxikitzen ditu beretzat, indarrez, eta besteei ukatuz”.**



Ekainaren 3ko saioa: adostasuna jaso duten gai gehiago (I)

“Gazteak, zer?”:

- **“Gazteei galdetu behar zaie, horrelako taldeak egin gazteekin”.**
- **“Gaur egungo gazteek badakite euskaraz, baina ‘ez ezazu lata eman!’ esaten dizute. Aukera dute, eta batzuetan euskaraz, beste batzuetan erdaraz, beste batzuetan ingelesez... Intziditzea, ez da mesedegarria”.**
- **“Gazteei eman modernoa dena, erakargarria, euskaraz, eta kontsumituko dute”.**

Ekainaren 3ko saioa: adostasuna jaso duten gai gehiago (II)

“Enpresen alorreko ikuspegia gizarteari trasladatu”:

- **“Enpresen arloan beste diskurtso bat nagusitzen ari da: bezeroen hizkuntzan egitea, zerbitzuari begira, enpresa hobetzeari begira, ez uzkurra ez aldarrikatzailea. Gehiena funtzionala. Hor guretzat badago argumentu sorta potente bat. Eta hori gizarteari trasladatu behar zaio”.**



Ekainaren 3ko saioa: eztabaidatuak suertatu ziren gaiak (I)

Beharrezkoa da diskurtso berri bat? Diskurtsoak lagunduko du errealitatean?:

- **“Orain da momentua diskurtso berri bat eraikitzeko, euskara pizten duena edo pizturik mantenduko duena”.**
- **“Zalantza bat: diskurtso berri batekin konponduko ditugu euskararen arazo guztiak? Pentsatzea jarrera hobetzetik etorriko dela eraginkortasuna..., nik uste dut oker gabiltzala, ez badira benetako estrategia eraginkorrak planteatzen”.**
- **“Niri bai, iruditzen zait jarrera aldaketa inportantea dela, jarrera eta pentsamendu aldaketak behar ditugula”.**

Ekainaren 3ko saioa: eztabaidatuak suertatu ziren gaiak (II)

“Arautzea, euskara beharrezkoa egitea...”:

- **“Askotan egoerak esango digu euskara erabili, edo ez erabili, edo dena delakoa. Beste hainbat egoeratan gutariko bakoitzak erabakitzen du nola komunikatu. Eta hori arautzea, gaitza izateaz aparte, ez dut uste egokia denik”.**
- **“Arautzea, beharrezkoa egitea... Hortik jo behar da. Botere harremanez ari gara. Erakargarritasuna, desideologizazioa, boluntarismoa, horiek ez dute funtzionatzen. Katalunia. Arautzeak funtzionatuko luke”.**
- **“Baina, egia esanda, legea Parlamentuak egiten du, eta Parlamentuan gizartearen isla dago... Nola aldatu gizartea? Jarrerekin, orduan aldatuko da Parlamentua”.**



Ekainaren 3ko saioa: eztabaidatuak suertatu ziren gaiak (III)

Konstituzioa, legea, babes juridikoa...:

- **“Komunitate batek pribilegioak atxikitzen ditu beretzat, indarrez, eta besteei ukatuz”.**
- **“Hemen babes juridikorik falta zaigu? Nik ez nuke esango «edo Konstituzioa aldatzen da edo hilko gara»”.**


Ekainaren 3ko saioa: eztabaidatuak suertatu ziren gaiak (IV)

Euskararen irudia zerekin lotu? Modernotasunarekin? Identitatearekin?:

- **“Euskara, gaur egun honako hitzekin lotzen da: identitatea, kultura, hezkuntza, abertzaletasuna... Eta horrela, zaila. Nahiago nuke industriarekin, lan munduarekin edo osasun sailarekin lotuta balego”.**
- **“Markaren irudia eta produktua koherenteak izan behar dira. Ados gaude ez garela izan behar hain lotuak identitateari, abertzaletasunari edo kulturari, baina euskara oraindik gutxitua behintzat badago. Eta errealitate horri ere ezin zaio muzin egin”.**
- **“Euskara modernotasunarekin lotu, moderno, erraza, erabilgarria”.**



Azterketa (II): galdetegi idatziak



Galdetegi idatziak (I)

Lege ikuspegia (I):

- Hizkuntza gutxitu bat ofizialtzat hartzeak hiztunentzako dakartzan eskubideek, gatazkak sor ditzakete eta ez dira bidera errazak.
- Baina, lege-bermea ezinbestekoa da euskarak gizarte eleanitzean zer paper jokatu duen finkatzeko.
- Hortaz, zailtasun eta oztoporik handienak lege-bermearen esparrutik etorriko dira: hizkuntza-politika malguak eta, aldi berean, irmoak finkatzetik.

Galdetegi idatziak (II)

Lege ikuspegia (II):

- Estatutoaren erredakzio irekiagoak, gauzak erraztuko lituzke.
 - *“La lengua propia del país vasco es el euskera”...*
 - ...esatearen orde:
 - *“El euskera y el castellano tienen carácter de lenguas oficiales en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas”.*
 - *“El euskera, por su carácter de lengua exclusiva y minoritaria, gozará de especial protección.”.*
- Alegia, pauso egokia litzateke gaztelania hizkuntza kanpotar bezala eta gaztelaniadunak arazo bezala hartzen uztea.



Galdetegi idatziak (III)

Komunitate ikuspegia

- Kotsentsu baten abiapuntua, azken helburuan edo jomugan bilatu behar da:
 - Zer da euskara gure kulturaren. Nolako balioak ditu,
 - Bere hizkuntza eta kultura galtzeak zer esanahi du herri batentzat...
- Diskurtso berria eraiki behar da, euskara gizarte elementu integratzaile bihurtuz:
 - Sentsibilitate desberdinen artean adostasunak bilatuz.
 - Inoren eskubideak urratu gabe.
 - Gogoeta hori gizartera zabalduz, hartutako neurriak jendeak bere egin ditzan.
 - Kotsentsua maila gorenean bilatuz, abiapuntuko diskurtsoa giza eskubideen aterkipean jarritz.

Galdetegi idatziak (IV)

Eleaniztasuna vs. elebakartasuna

- Elebakartasunaren borroka erabat gaindituta dago, mundu-ikuskerara askoz zabalago bat nagusitu zaigulako: immigrazio berriak, globalizazioa...
- Hizkuntzaren nagusitasunaz baino, indarren orekaz eztabaidatu behar dugu, euskal jendeak bere eguneroko bizitzan hizkuntza-aniztasunarekin dituen harremana aztertuz.
- Eleaniztasunaren diskurtso berriaren baitan euskarak jokatu beharreko zeregina diseinatu, ofizialkidetasuna abiaburu jarrita.

Galdetegi idatziak (V)

Batura vs. urritasuna

- Elkarren kontrajarriak dauden diskurtsoak «*urritasun*» paradigmaren gainean eraikiak dira.
- «*Urritasun*» paradigmatik «*Batura*» paradigmara mugitu behar da diskurtso berrian:
 - Hizkuntza-komunitateak elkarrekin bizi izan dira, eta biziko dira.
 - Elkar osatu eta aberastu egin dezakete, eta denak irabazle irten.

Galdetegi idatziak (VI)

Ekologiaren analogia

- Ekologia eta ingurumen zuzenbidetik, irizpide interesgarriak jaso ditzakegu analogiaz, hizkuntzen kudeaketarako.
- Adostasun puntuak:
 - Eleaniztasun eta aberastasunaren balorea.
 - Hizkuntza bat galtzean, gizaki osoak berea duen ondarea galtzen du.
 - Hizkuntza guztien babesak, izaera ez homogeneoak eta egiteko modu ezberdinak sustatzen ditu.
 - Pertsona bakoitzak, hautatzen duen hizkuntzan bizi izateko eskubidea du eta hori bermatu behar zaio.
 - Hizkuntza guztiak berdinak dira, gizarte erabilerak ezberdintzen ditu.
 - Hizkuntzen sustapena, ezberdina da gizarteak egiten duen erabilera.



Galdetegi idatziak (VII)

Errespetua vs. inposizioa

- Inposizio eta diskriminazioaren diskurtsoari, errespetuaren diskurtsotik erantzun behar zaio.
- Euskaldun eleanizdunok hizkuntza batean zein bestean hitz egitea ahalbidetzen dugu, baina euskara ez dakienak ez.
- Argumentu batzuk eskubideak baino maila pertsonalago batera iristen dira; alegia, elkarbizitzari estuki lotuta dauden errespetua eta erantzukizuna.
- Euskaldunok praktikaren bidez irabazi behar dugu besteen errespetua, lehendabizi. Agian noizbait etorriko da emulazioa.

Galdetegi idatziak (VIII)

Konbenientzia vs. konbentzimendua

- Euskara zabaltzearen aldeko planteamenduak beldurra eragiten du erdaldun askorengan. Beldur hori efikaziaz baliatzen dute batzuk, sektore handixko bat aurkako predisposizioan jartzeko. Horregatik, diskurtso maximalista doitu beharra dago.
- Konbentzimendua eta konbenientzia bereizi behar da, egiten denak nori eta zeri mesede edo kalte egiten dion kontuan izanda.
- (Ustez euskararen aldeko diren) diskurtso kaltegarriak ixilerazi behar dira, aurkako klitxeak ez elikatzeke.



Galdetegi idatziak (IX)

Irrotasuna vs. ahuldadea

- Ezagutza bultzatzeko ahalegin eraginkorragoa eta ausartagoa egin beharra dago (gaur egun hizkuntza-politika herren dago).
- Instituzioek diskurtso aldarrikatzailea bereganatu egin behar dute; hori egin ezean, ahuldade handia erakusten da, eta euskararen alde ez dagoena horren zain dago, bere kontrako diskurtsoan sakontzeko.
- Euskara hizkuntza nazionalekin lerrokatu behar da; alegia, “Europako nazioen hizkuntza ofizialaren estatusa” edukitzea buruan eta ez “babestu beharreko hizkuntza”.

Galdetegi idatziak (X)

Komunikazioa eta motibazioa:

- Baldintza egokietan, hizkuntza aukeratzea hautu pertsonala da, apetentzien arabera. Euskararen erabilerarantz bultzatzea edo limurtzea landu beharko litzateke, inposatzea baztertuz.
- Euskararen presentzia gehitu behar da, erdaldunei nabararazteko zerbait galtzen ari direla. Ikus dezaten euskara zerbait praktiko, beharrezko eta aberatsa dela; ondare kulturala, beste era batera komunikatzeko baliagarria.
- Elebitasuna elkarrekin aberasteko eta mestizaje kulturala balio bezala ulertzeak euskara desiragarriago egiten du hizkuntza hori ez dakitenen begietara.

Gaurko lanaren azalpena

TALDEKA:

- Aurkeztu den inbentariotik abiatuta, batez ere, lau ideia (ekintza, proposamen, estrategia....) identifikatzea izango da taldearen helburua.
- Lau ideia gehienez identifikatu behar dira, beraz, adostasunak bilatzeko ariketa bat burutu behar dugu (adostasunetara hurbiltzeko lehenengo ariketa esperimentalak).
- Zeregin horretan, talde dinamizatzaileen laguntzarekin, eta edukiak fitxa baten bitartez idatziz gauzatuz.

BUKATZEKO:

- Taldeetako ondorioak elkarrekin partekatzea (denok batera).

Euskararen
Gaineko
Oinarrizko
Diskurtsoen
lanketa

Foroaren Emaidza Gordinak.
2. Saioko taldeetan jasotako
emaitzak
2014.06.26

Aurkibidea

Eztabaidarako erabili den gidoia.....	156
Hustuketarako erabili diren irizpideak.....	156
Hustuketa: 1. Taldea.....	157
Hustuketa: 2. Taldea.....	163
Hustuketa: 3. Taldea.....	167
Hustuketa: 4. Taldea.....	169
Hustuketa: 5. Taldea.....	174
Hustuketa: 6. Taldea.....	177

Eztabaidarako erabili den gidoia

Talde dinamika	Adostasunak bilatzen (hurbilketa ariketa bat) HELBURUA: Aurkeztu den inbentariotik abiatuta, lau ideia (ekintza, proposamen, estrategia....) identifikatzea izango da taldearen helburua. Lau ideia gehienez identifikatu behar dira, beraz, adostasunak bilatzeko ariketa bat burutu behar dugu (adostasunetara hurbiltzeko lehenengo ariketa esperimental). Gaurko saioaren helburua EMANKORTASUNA da, ideiak IDENTIFIKATZEAM ZEHAZTEA eta ADOSTEA. PAUSUAK: <ol style="list-style-type: none">1. Ongietorria eta aurkezpenak. Grabatuko dela adierazi. Erdal hitzunen kasuan (berezitasuna).2. Helburua azaldu: Aurkeztu den inbentariotik abiatuta, lau ideia (ekintza, proposamen, estrategia....) identifikatzea izango da taldearen helburua. Lau ideia gehienez identifikatu behar dira, beraz, adostasunak bilatzeko ariketa bat burutu behar dugu (adostasunetara hurbiltzeko lehenengo ariketa esperimental). Gaurko saioaren helburua EMANKORTASUNA da, ideiak IDENTIFIKATZEA, ZEHAZTEA eta ADOSTEA.3. Taldearen adostasuna: lau ideien edo neurrien identifikazioa elkarrekin aurrera egiteko jarraitu beharrekoak:<ol style="list-style-type: none">a) banakoari bi ideia/neurri gehinez txarteltxoan idazteko eskatu (txartel bat ideia bakoitzeko)b) taldearekin konpartitu eta elikatzea: banakako kartulinetan jasotakoa aurkeztu, bildu, eztabaidatu eta adostasunak bilatu. Taldeko erabakiak hartu (adostutakoak / adostasuna lortu ezin dituztenak/duenak ere jaso daitezke).4. Eskura jarriko diren fitxetan emaitzak idatzi eta irakurri taldearen azken oniritzia jasotzeko.
-----------------------	---

Hustuketarako erabili diren irizpideak

ADOSTUTAKO IDEIAK

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOAK / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

--

1. TALDEA

Moderatzailea: Beatriz AKIZU

1. TALDEA

Hustuketa: Beatriz AKIZU

ADOSTUTAKO 2 IDEIA

BIZIKIDETZA: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatuz. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizaziotik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude.

Hau aurrera eramateko:

- diskurtso implizituak hobetsi.
- hizkuntza politika eraginkorrak
- gizartean eta inguru politikoan eragin.

GAZTEAK eta EUSKARARI BALIO BERRIAK ATXIKI: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz:

- Zoriontsuak izateko bidea.
- Plazerra ematen duena.
- Modernitate kontzeptuari lotuz.
- Gizarte eredu progresista bati atxikiz.
- Funtzionalitatearekin lotuz.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

HUSTUKETA

(...) es difícil, yo lo entiendo, pero yo suelo decir que han pasado ya muchos años y que, evidentemente, alguien con inteligencia se plantea hacer nuevos discursos de consenso básico sobre el euskera, aunque a veces no parece que (...) hay tendencias e inercias que siguen arrastrando a la gente a posiciones muy defensivas y muy encasilladas, cuando la realidad ha cambiado radicalmente, a veces los discursos oficiales y las políticas prácticas no tienen que ver nada con la realidad y, claro, cuando chocan nos encontramos que no sabemos qué sucede.

Los que nuestra lengua materna es el castellano y que nunca hemos tenido ningún problema con el euskera, más bien todo lo contrario, siempre nos ha fascinado (...) hemos intentado aprenderla cuando te daban créditos y (...) mi primer "barnategi" lo hice de 30 días de vacaciones, 15 (...) en Lazkao (...) yo creo que mucha gente lo ha intentado, lo ha hecho, porque los argumentos de hace 40 años eran el aprecio, la diversidad, el intentar comunicarse con el que había tenido que renunciar, en los ámbitos públicos (...) públicos de administración, porque yo creo que (...) conozco muchos *euskaldunes* que en general no tenían tantas dificultades en el ámbito familiar, pero bueno que quiere que su lengua esté en todos los ámbitos y con la democracia esto se puso en marcha.

Pero ha pasado tiempo y ha servido para muchas cosas, mis hijos son hoy perfectamente bilingües, no, trilingües, han estado en la ikastola y han renunciado a hacer el ... este en castellano, yo creo que les ha enriquecido y era el esfuerzo que teníamos que hacer.

Pero ahora sucede que entre el conocimiento y el uso hay un abismo y a los *euskaltzales* les preocupa, pero a veces no, (...) creo que yo he puesto (idatzi duen txartelari erreferentzia) algo de paciencia (...) a veces, de verdad, no aciertan con el método, la tentación es tan grande de decir somos vascos, esta es nuestra lengua, pues a tomar por saco. Como si alguien fuese a Alemania y esto es

alemán, pues intégrate. Supongo que en esta mesa no habrá estas posiciones extremas, si no, pues lo discutimos.

Sobre esta situación en la que se ha avanzado más de lo que cualquiera pudiera soñar (...) mi primer texto en euskera era un cuadernillo de *fanta*, con un típico rollo de cura en un barrio obrero como es el mío, cada uno tenemos unas referencias, yo soy de Otxarkoaga, es un barrio obrero, en el que los chavales cantábamos *bat, bi eta hiru* y que no sabíamos que eso era euskera (...) creéoslo, hay muchos mundos en Euskadi, el problema es que a veces sólo se gestionan desde unas ópticas.

Ahora un montón de chavales jóvenes saben, mi hijo va a ir a la universidad y va a hacerlo en euskera sin ningún problema. ¿Cuáles tienen que ser los discursos cuando ya ha habido una regeneración social y demográfica? Yo quisiera saber, porque siendo vasco y, hoy por hoy viviendo aquí, quisiera saber cuál va a ser la manera de entendernos, supongo que ese es el reto

Discursos únicos casi nunca hay, hay variedad de discursos. Hay que tener en cuenta ciertas edades (...) se ven mucho los dramas de los *eusklatzales*, pero a veces yo creo que se desconocen los dramas en las administraciones de gente que se ha quedado arrinconada porque no han podido acceder por muchas razones (...) edades, zonas geográficas, hay muchos factores, un discurso homogéneo va a ser imposible, aparte de las perspectivas ideológico políticas que tenemos cada uno.

Yo veo muy difícil ponernos de acuerdo. Para empezar, una de las primeras cuestiones que ponía sobre la mesa, el euskera y el castellano son lenguas propias (beste txartelari erreferentzia) una es mi lengua materna y la otra es aprendida. Y las dos son lenguas de los vascos yo sé que para mucha gente (...) me gustaría ponerme de acuerdo en esto si no (...) no podríamos llegar a muchos acuerdos, viviríamos cada uno en su mundo y submundos, pero (...) hay que empezar por alguna cosa que en su día se aceptó y ahora creo que (...) no pasaría nada y creo que las políticas serían las mismas.

Convivencia, reconocimiento de los esfuerzos de ambas partes, de las renunciaciones que han tenido que hacer todas las comunidades. Es muy importante eso. También algo de paciencia y a veces más inteligencia (...) hay que buscar las fórmulas para llegar al objetivo que es incrementar el uso.

Relación del euskera con el empleo. Muchas opciones de *euskaldunización* de muchas de las familias ha tenido que ver con las perspectivas de empleo, que no se nos olvide que en los últimos treinta años el mayor generador de empleo ha sido la empresa pública y eso facilitaba (...) una parte de los que hemos mandado a nuestros hijos a la ikastola tenía que ver con la posibilidad de acceso al mercado de trabajo. El mercado de trabajo está muy jodido, la empresa pública ya no va a generar empleo, con lo cual, ese gran argumento que ha animado, ese, en estos momentos está perdiendo fuerza a marchas forzadas. A mí me preocuparía mucho cómo trabajar ese campo de la *euskaldunización* en la administración, de los requisitos en el empleo, en la universidad (...) habría que repensar cómo lo hemos hecho, qué cosas se han hecho mal, qué cosas se han hecho bien, qué hay que hacer en el futuro cuando el empleo va a escasear (...) ha generado mucha controversia, y mucha frustración y mucho rechazo (...) la gente ha aprendido, todos hemos visto en la administración y en otros ámbitos, saco el perfil tres y ya está, me has pedido un perfil y yo tengo un perfil. Un poco de flexibilidad en las políticas.

Bizikidetza helburu izanik hizkuntzen arteko edo hizkuntza komunitateen arteko bizikidetza sustatu, indartu eta bermatu beharra dago.

Egiten dena elkarrekin egin beharra dago. Muturreko bi diskurtso egote hori, edo gaur egun hain muturrekoak ez diren diskurtsoak egon arren, ñaburdura askorekin dagozan diskurtsoak baditugu. (...) gizarte batu baten apustua egin beharra dago (...) Onartu beharko dugu batzuen eta besteen errealitatea, batzuek eta besteak bakoitzaren eskubideak aldarrikatzen dituenean negoziatu egin beharko dugu zein puntutaraino heldu beharra dagoen eta zein den gutxieneko bat guztiok errekonizituta sentidu gaitezen. Onartu beharko ditugu hizkuntza biak erabiliko ditugula gero eta gehiago guztiok, eta hautuak beti ez direla objektiboak izango (...) bizitzako esparru batzuk euskaraz, beste batzuk gazteleraz eta igual ohitu behar gara (...) gaitasuna izan bi hizkuntzak erabiltzeko, ba igual trebatuagoak gazteleraz gagozala, batean edo bestean, edo gogokoa dugula (...) hautua egiten dugula.

Aitortza zeri? Pausua eman dabenari, emoten ari direnei, euskarara hurbiltzeko eta gutxieneko maila bat lortuz ba aurrean dagoen euskara erabili nahi duenari oztoporik ez jartzeko hizkuntza erabilerakoan.

Pazientzia norekin? Ba ikasten ari danarekin, erabiltzeko pausua egiten ari danarekin, jarreretan aurrera pausua egin dabanarekin.

Inkomunikazioa egon da sarritan eta gaur egun ere badago. Guztiok sentitu izan dugula alboratua edo ez onartua edo dana dalakoa hori izatea, zentzu batean edo bestean, eta hori apurtu beharra eta multzo bakarra eraiki beharra dagoela (...) nola lortu uztardura horiek?

Gazteen artean dago elebidun gehien, beraiek dira etorkizuneko gizartea eraikitzen dabenak edo eraikiko dabenak eta beraiekin ezin bestean kontatu beharra daukagu.

Adinari dagokionez badago oso ikuspegi aldaketa (...) -hizkuntzen arteko hautua egiterakoan aipatuz- oso naturala egiten dabez, eta aldiz gu, larregi arrazionalizatzen ditugu, gure esperientziatik edo gure ikuspegitik, euren ez dauke arazorik. (...) Nahi dugun gizartea edo nahi ditugun erabilerak eta posible diranak edo hurrengo gizarteak nahi dituenak ez dira berdinak.

Saiatu gara gutxieneko baten ideia bat guztioi orokortzen, eta gazteak ez dagoz klabe horretan, militantismo hori, guk garai batean eduki doguna, eurak ez dake.

Nolakoa da euskaldun tipoa gaur egun? gaztea, hiritarra eta hirueleduna gehienetan. Ados jarri behar badugu diskurtso batean, lehendabizi pentsatu behar dugu nori zuzentzen gatzazkion nagusiki. Nik hori aukeratuko nuke, gazte tipologia hori, urbanoa, hirueleduna, unibertsitatera joan dena.

Gazteek berez dakarte euskara prestigiatuta, beren hizkuntza akademikoa baita, ez da prestigioaren arazoa, gehiago da erabileraren hautua eta erabilera hautu horretan inportantea da beraiek ahalik eta karga historiko gutxien izatea, hautu desdramatizatuak izatea; adibidez, gazte batek jakitea elebitasuna dela munduko gizaki gehieneko egoera naturala, gizaki gehieneko elebidunak dira (...) argudio fisiologikoa erabiliaz (ikerketa bat ekartzen du gogora) hizkuntza bik erabiltzeak bizitza osoan zehar, plastizitatea ematen diola garunari eta alzheimerri atzeratzen dela. Karga historiko bat ez daukan hautua egitea, azken finean, hizkuntzaren hautua beti da identitarioa, eta beti daka karga politikoa, baina hizkuntzari mesede egin beharko badiogu hobea da euren egin dezaten hautua naturalagoa bat. Zergatik euskaraz? erdaraz bezain ondo egiten dugulako, plazerra ematen digulako, komunitate batean atxikipen naturalago ematen digulako, baina ez lotu beharrezkotasanari, oso hautu politizatuari (...) hortik ahalik eta gehien urrundu beharko genuke eta modu naturalago batean, zientifikoago batean hurbildu beharko genuke diskurtso hori egitera.

Gaur egungo gazteek ez daramate guk daramagun motxila eta hori aprobeztatu beharko genuke.

Gazteen artean hautu naturala eragitea inportantea iruditzen zait, baina inportantea iruditzen zait ere erdaldunei ere nolabaiteko eredu bat ematea.

Oso funtsezkoa iruditzen zait hemen aipatu den zerbait, eta da euskara modernotasunarekin lotzea (...) mundua edo gu, edo gu munduan (Andu Lertxundiren hitzak aipatzen ditu). Eta euskararen inguruko diskurtsoan badagoela oraindik mundua edo gu, nolabait ere kanpoko gauza guztietatik urrundu edo nahi gintuzkeen korrante bat eta kanpo joera guztietatik eta aldameneko erdaldunarengandik ere urrundu gaituen (...) eta hasteko ez da posible, eta horren kontra jartzea ez da bakarrik arriskutsua, baizik eta alferrikakoa dela. Orduan egiten den edozein diskurtsoa izan behar da euskara modernotasunarekin, geroarekin lotzen duena (...) iraganekin baino gehiago. Euskarak dakar berez diskurtso identitario bat (...) Euskara gure kaskarkeria da nahi baldin baduzu, euskara dago guk euskaldun izaten segitu nahi dugulako, hori neurri batean hala da, baina pixka bat gehiago beharko dute gure seme-alabek edo gure ondotik etorriko diren belaunaldiek, atxikimendu identitario hori ez da aski, segur aski beharko dute zorientsuago egiten dituen zerbait, eta munduan kokatuko dituen zerbait.

Maiz egiten da diskurtso esplizitu bat euskararen alde, hau da, egizue euskaraz, edo erdaldunei ari gatzazkiolarik *aprended euskera* edo halako zerbait, eta nik uste dut diskurtso esplizitu horiek (...) gehiago erabil beharko genituzke edo erabili beharko lirake diskurtso inplizituak, isilpekoak, hau da, euskara ederra da ez dugu esan behar, euskara eder egin behar dugu, euskerak balio du ez dakit non sartzeko, ez dakit zer izateko, ez, ez, behar bada, horretan daudenak, politikariek eta ez bakarrik politikariek euskaraz egin behar dute; hori da benetan aldeko diskurtso bat. Hemen batzuk aipatu dute Katalunian eta Katalunian katalanaren aldeko diskurtso esplizitu bat dago, baina nik uste dut gizarte katalanean batez ere dagoena dela isilpeko diskurtso bat, eta isilpeko diskurtso bat demostratzen dena gauzak katalanez eginda. Gehiago joko nuke ildo horretatik.

Diskurtso inplizitua izan dadila euskara bera, izan dadila ahal izan ezker diskurtsoa, euskararen erabilera praktikoa, erakargarria, bai jarrera eta erabilera sustatzeko. (jarreran eragin behar dela azpimarratzen du aurkeztu diren grafikoak aipatuz)

Euskara izatea diskurtsoan aberasten duen hizkuntza, lana ere ematen duena, hori ere inportantea da, ez bakarrik enpresa publikoan edo administrazioan, plazerra ematen duen hizkuntza, praktikoa hain zuen ere gazteak erakartzeko. Oso hitz politikak dira eta beharko lirateke jarri halako indikadoreak.

Hautua. Hautua ere batzuetan oso garesti ateratzen da, zergatik bi, hiru hizkuntzekin bizi azkenean batekin nahiko baduzu? Batzuetan ez dut ikusten lotura hori(...) asko estimatzen dena ekologia eta hizkuntzarena askotan ez dut ikusten hain estua.Praktikan diskurtso inplizituarena, esplizituarena, batez ere gazteekin, ez du funtzionatzen eta zerbait praktiko egitearena.

Hizkuntzen bizikidetzatza izan beharko litzateke abiapuntua. Gure gizartea eleanitza da, ez bakarrik euskara eta gaztelera edo euskara eta frantsesa. Euskaldun hiritarra baldin bada, ba (...) gure tamaina ertaineko, tamaina handiko edozein hiritan ziur hogeitik gorako hizkuntza bizi direla elkarrekin, orduan, errealitate horretatik hasita ba bizikidetzatza, errespetua edo (...) izan beharko litzateke abiapuntua.

Eta modernotasunarena. Hau da, euskera komunikaziorako tresna modernoa izan behar da, funtzionala, erabiltzeko desioa sortzen duena eta uste dot hori izan behar dala bere balioa edo bere urrea edo bitxia, horrek erakarri behar gaitu erabiltzera.

Se me ha hecho difícilísimo porque aparte por mi edad, yo ya soy mayor, y en mis tiempos el euskera estaba prohibido, por tanto en el colegio no hemos vivido ni hemos estudiado el euskera, por mi formación de ingeniero y por mi trayectoria profesional que siempre ha estado en la industria jamás he tenido ningún problema con el euskera. Nadie me ha pedido, ni ha surgido ningún elemento (...) por lo tanto reflexionar sobre esto y sobre discursos me ha resultado extraño. Y bueno, la traducción no es lo mismo que pensar en el idioma, y aunque traduzcan muy bien no es lo mismo, pero prácticamente coincido con lo que habéis dicho. El euskera tiene que ser algo que nos ayude a integrarnos, a convivir (...) todo lo que habéis dicho de paciencia (...) absolutamente de acuerdo. Y la segunda, es que mis hijos hablan euskera, castellano, inglés, francés, alemán, italiano... porque una ha vivido en EEUU, en Alemania, la otra está viviendo en Bruselas... no se cuestionan en qué idioma tienen que hablar, hablan en el que les toque el día y con quien esté. Para la juventud ese dilema no existe.

Nunca he tenido la necesidad, se me hace duro, es un idioma complicado sobre todo a ciertas edades.

No sé si el discurso hay que segmentar, para quién es el discurso, para los que ya somos mayores, para los intermedios, para los jóvenes yo creo que no necesitan ninguno, pero bueno.

Tenemos que tender hacia una sociedad trilingüe y el euskera, y el castellano, debería ser un apoyo para esa sociedad trilingüe. Si queremos ser una sociedad competitiva en el mundo y ser alguien tenemos que hablar tres idiomas como poco. (...) Hay que internacionalizar la sociedad. Yo he escrito camino hacia el trilingüismo.

Hay jóvenes y jóvenes, jóvenes con carrera y con estudios universitarios y tal, y otros jóvenes que viven otros mundos o submundos. Pero no tengo claro para quién es el discurso.

Yo no soy tan optimista. Yo si tuviese que definir y diseñar políticas (...) tendría en cuenta que la sociedad es muy líquida, muchos efectos y muy fragmentada, y podríamos hacer ahora mismo como diez perfiles de jóvenes que hablan euskera que es su lengua materna, jóvenes que hablan euskera que la han aprendido y (...) podríamos hacer muchos perfiles con lo cual (...) aunque desde las políticas hay que simplificar, pero no simplificar tanto que pensemos que ahora mismo no va a haber problemas, porque sí lo hay, porque vivimos en un mundo que cambia tan aceleradamente que lo que vale hoy no vale mañana y eso también vale para el desarrollo del uso de la lengua. Porque mi hijo lo puede haber aprendido con un esfuerzo para él, y con un esfuerzo para nosotros, pero igual mañana no tiene ningún interés en mantener esa riqueza lingüística, que yo creo que ha sido la motivación de sus padres y de muchos.

Yo no soy nacionalista, hablemos claro, que ha sido una de las grandes motivaciones (...) ese perfil está más claro, si sólo hiciésemos políticas para ese perfil sería muy sencillo, ahora, también sería un caos y

todos sabemos que eso es conflicto. Cuando hablo deo aparte Iparralde y Navarra, entiendo que es otra situación (...) se acentúan mucho más algunas cosas que en la CAV es diferente.

La distancia que hay entre el conocimiento y el uso, una de las preocupaciones desde lo social también, si lo hemos aprendido vamos a crear espacios para que sea natural. Pero eso hay que favorecerlo, no creo que vaya a surgir de forma natural.

La lengua puede ser un elemento de integración o de lo contrario. Hay que afinar mucho. Después del esfuerzo que hemos hecho todos, que a mí se me permita estar en una reunión que pueda entender (...) vamos a crear ese clima. No soy tan optimista, habría que buscar nuevas formulaciones en muchos ámbitos y con muchas variables.

Galdera bat nafarrei. Han obserbatu dudana da, ez da adskripzio abertzalea duenak ematen duela umea ikastolara, igual optimistaegia nazi, baina han, iruditzen zait, guraso gazte askok Iruñerrian bizi den batek, bidaltzen duela umea ikastolara prestigio kontu bat dela eta, eta gainera jende progresista dela. Soziologikoki eredu bat finkatzen ari zaretela iruditzen zait, beste modu batera esanda, Nafarroako bezalako gizarte itogarri edo itxi batean horrelako berri on bat ikastola (...) ez dakit, badago hor zerbait. Galdera da.

Hori garbi dago hala dela. Ezkerreko ez oso modu garbian ere ez (...) Iruñerriko ikastolen merezimendua ere bada. Kontu ideologikoak bazter batera usten jakin dute. Eredu hori izan beharko litzatekeela esportagarria.

Batzuetan ikaragarri konplikatua izaten da, faktore ideologikoak ere hor daudelako, eta gurasoen espektatibak diferenteak izaten direlako, gizarte honetan bizi garenon espektatibak ere beti izaten dira diferenteak (...) bateratasun batera eramatea ez delako beti erresa izaten, batzuetan gatazkak sortzen dira, baina emaitza orokorrean nik uste dut positiboa dela, positiboa dela batez ere euskaltzaletasuna edo euskararen aldeko apustua eraman ahal izan dugulako “geto” ideologiko batetik kanpora.

Edozein hizkuntza ideologikoki ikurra eramaten duenean sekulako kalte egiten diogu hizkuntzari eta gizarteari. Ni abertzalea naiz eta euskararik gabe ez naiz ezer, baina gaztelaririk gabe ere ez, eta ez dut nahi nire burua aukeraketa horretan jarri nahi.

(...) *Lenguas propias*, nire interpretazioa izan da gurea dena eta beste batzuen ez dena, oso geografikoki lotua dagoen esparru bat, baina nire hizkuntza berezkoak, nire hizkuntza propioak euskara eta gaztelera dira, ni ingelesa eta italiara berezitu egiten ditut (...) Nik gaur egun ezin dut nire mundua gaztelaririk gabe eraiki, euskararik gabe ere ez, baina gaztelaririk gabe ere ez.

Hizkuntzekiko harremana ikaragarri pertsonala da. Euskera eta gaztelania eztabaidatzen hasi ezker bakoitzaren kasua, portzentajetan edo, sartu beharko genukeela. Zenbateraino den nirea den bat, zenbateraino den bestea, zer da nireago (...) ez nuke erabiliko gureago, baizik eta nireago, zenbateraino den nereago bat edo bestea. Elebidunok bakarrik botako genuke hori.

Jakina gaztelania ere gurea dela, amarekin gaztelaniaz bazik ez naiz mintzatzen, nola ez gaztelania ez da nirea, baina gero badira graduazioak edo bakoitzak sentitzeko moduak edo eguneroko esperientziak ematen duen zerbait. Dena dela, inportanteena litzatekeena (...) politika bat egotea edo gizarte bat egotea non bakoitzak erabiltzen ahal duen, nahi duen hizkuntza, aukera guzietan. Helmuga horixe izan beharko litzatekeela gizarte honetan batek nahi duen hizkuntza erabili ahal izatea egoera guztietan eta horretara jo beharko genukeela, eta horretara jo ahal izateko etorkizuneko edo noizbaiteko Euskal Herrian denok izan beharko genukeela ga,i gutxienez, gaztelaniaz eta euskeraz mintzatzeko, hori etorkizuneko Euskal Herrian, hain zuzen ere posible izateko denok nahi dugun guztietan bakoitzak gure hizkuntza erabili ahal izateko.

Horretara jotzeko aukerak sortu behar dira, aukera ez badago ez dago hizkuntza erabiltzerik eta nik ez daukat batere argi guztiok elebidun izan behar dugunik. Uste dut guztiok behar dugula maila bat, nik euskeraz hitz egiteko ez dut behar aurrekoak euskeraz hitz egitea, ulertzea behar dut, eta puntu horretaraino heltzea (...) kontuan hartu gizarte hau dela dena, eta daukala daukan jatorria. Eta ideia bi horrek nik uste dut gehien errepikatu direnak badirela zuk aipatu dituzuzen bi horiek bata bizikidetzarena edo, eta gero balioak gaztetasunari lotutakoak, orduan, bi horietara mugatuko nintzateke.

Y lo que no hemos tocado es el mundo de la empresa. En el mundo de la empresa no se habla en euskera.

Pues yo discrepo. Funtzionalitatea da klabea, orain arte gizartearen ezaugarriak (...) zuk segur aski lehen ezagutu dituzu enpresak (...) lanbide heziketa gazteleraz egiten zan, unibertsitate hezkuntza gazteleraz egiten zan (...) eta gero ohiturak (...) hizkuntzaren prestigioa, (...) zer egiten zuen lan munduan gazteleraz garatzeko egoera (...) ez zegoen besterik. Gaur egun zer gertatzen da, lan mundura murgiltzen direnek D eredutik datoz, bai eskolatik, bai lanbide heziketatik, bai unibertsitatetik eta gaitasuna badakete. Baita gertatzen da enpresak hainbat herritan kokatuta egon daitezke eta herri horiek nahiko euskaldunak izan daitezke, orduan, enpresak gaur egun ere gizartearen isla dira, bai gertatzen da enpresa barruan euskara gaitasunik ez dutenak baldin badaude ba horrek mugatzen du euskeraz egin ahal izatea, baina enpresa gizartearen isla da, orduan, gizartea euskalduntzen doan heinean enpresa ere euskalduntzen joango da. Bai da egia, nik ezagutzen dut enpresa bat industrialia, bezeroa ehuneko ehuna internazionala zela, orduan euskaraz lan egiteko aukera mugatua zen, bezeroarekin ezin duzu euskaraz egin baina gazteleraz ere ez, ingelesez, alemanez eta frantsesez egiten zen bezeroarekin, baina bazegoen aukera langileen artean euskeraz egiteko, ez zen ehuneko ehunaren gaitasuna baina bazegoen.

Idea honekin bat nator. Funtzionalitatea, bizikidetzeta eta gazteena, baina hori helburu bezala. Eta, igual Nafarroatik natorrelako, inguru politikoan eragin behar dela. EAEn bizikidetzeta edo akordioa lortu zen gizarte elebidun baterantz joateko, baina Nafarroan ez. Nafarroan ezin da euskaraz ikasi Mendialdean ez bazaude edo Iruñerrian ez bazaude, eta horrek sortzen du bizikidetzarako sekulako ezintasuna. (...) Beraz, funtzionalitatea, bizikidetzeta, gazteak eta gero ere eragin soziala, politikoa ere lortu egin behar dela gurean behintzat.

Ez direla bi komunitate kontrajarri, modu natural batean, normala dela hizkuntzen arteko bizikidetzeta adierazi behar zaiola gazteari. Hautua ez da txapela aldatzea, hori modu natural batean, gainera burmuinarentzako ona da. Orain kostua, munduko biztanle izan nahi baduzu, tokatuko zaizu derrigor bigarren hizkuntza bat hitz egitea ingelesa ez bazara. Ba euskera berdin, egoera normala dela jakin behar dugu guztiok. Horrek desideologizazio bidetik egiten duela, erraza dela esaten.

Que en cualquier lugar en cualquier momento puedas hablar en las dos lenguas, eso choca con la realidad.

Bueno, yo te estoy hablando del futuro, no te estoy hablando de ahora. Tú mismo has dicho paciencia, nosotros tenemos mucha paciencia.

Poniendo como ejemplo osakidetzeta, pienso que es impensable que ahora me atiendan en euskera. ¿En un futuro? Eso sería lo ideal y lo natural.

2. TALDEA

Moderatzailea: Ane CRESPO

2. TALDEA

Hustuketa: Ane CRESPO

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

. Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera eta lekuetan.

. Hizkuntza politika konplexurik gabe.

. Hizkuntza hobetsiaren errespetua eta garapena, elebidun hartzaileak sortzen diren neurrian.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

. Berdintasunaren printzipioa: legeak aldatu beharra (edo ez)

. Bizikidetzeta. Bai baina nola?

HUSTUKETA

Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute horrela egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera eta lekuetan.

Argudio berriak behar ditugu. Euskarara etorri diren pertsona berrien argudioak entzun behar ditugu, beraien partaidetza ezinbestekoa dugu. Duela urte batzuk hurbildu zirenak arrazoi batzuk izan zituzten (adibidez lana topatzeko). Gaur egun berriz horien seme-alabei ze esan behar zaie euskaraz egiteko? Gazte horien iritzia eta ikuspuntua ezagutzea ere interesgarria litzateke.

Gazteei eman modernoa dena, erakargarria, euskaraz, eta kontsumituko dute. Balioa baldin badauka kontsumituko dute, bestela ez.

Berdintasuna, askatasuna eta bizikidetzeta: Gizarte gero eta elebidunago bat sortzea da helburua. Diskurtsoetan kontuan izan behar den ideia, askataunaren eta berdintasunaren puntu komuna dagoela edo egongo dela bi hizkuntzen ulermenean gutxienez. "Nik ez dakit eta ez dut ikasiko" esaten duenak alde baten askatasuna ukatzen du, ez du berdintasunetik planteatzen. Konbibentzia ikuspegi batetik da askatasunaren bi maila diferente erabiltzea.

Lege bermea oinarritzko kontua da. Hemen ez da diskurtso bakarra landu behar. Diskurtso diferente behar ditugu, hartzaileei egokituta. Agian lehengo guztia ez da kendu behar, planteamendu guztiz berria ez da beharrezkoa. Kontua da zeri erantzuten dion diskurtso bakoitzak eta zer ematen du diskurtsoak. Beti ere euskararen aldeotasunetik, nik ez dut hemen framing uzkurra ikusten. ez dago diskurtso uniforme bat, bariedadea behar da, gazteentzat bat, gure edadekoentzat beste bat...

Ekologiaren ikuspuntutik hartutako ideiak: Hizkuntza hobetsiaren errespetua edo garapena.. Horrek duen baldintza, ulermen unibertsalizazioa da. Ulermena unibertsalizatzen den neurrian horrek aukera emango du hizkuntza hobetsia errespetua bermatzeko. horretarako baliabideak jarri behar dira.

Lege berdintasuna hizkuntzentzat eta hiztunentzat eskubideak eta betebeharrak. Legeak berdintasuna ez badu transmititzen, proiektatzen ari gara asimetria bat, desberdintasuna legetik beretik.

Botere harremanaren ideia: hiztunen arteko botere harremana esplizitateaz ari gara. Ulermenaren unibertsalizazioa izan daiteke tresna bat, baina ba daude ere, alde batetik, eremuak eta funtzioak banatzea eta ordenatzea, eta bestalde badagoela ere praktika soziala, praktika sozial horretan nola kudeatzen dugun botere harreman horiek.

Diskurtso garrantzitsua da baina praktika da inportanteena. Esaten dena eta egiten dena oso urrun badaude egiten dena da balio dena, praktika.

Indarra jarri behar da erabilieran. Ezagutza gero eta gehiago dago baina erabilera gazteen artean ez da handitzen. Ze argudio ditugu seme alabei esateko "euskaraz hitzegin". Euskara erabiltzeak arlo asko ditu, baina orokorrean ideia edo diskurtso hori falta zaigu

Toki jakinetan erabiltzen dute gazteek. Interesatzen zaienean edo komeni zaienean erabiltzen du

Esparru batzuk arautu behar dira. Eta ez dakit noraino derrigortu ere egin behar da. Ez dakit noraino, askatasun puntua ere hor dago...orain arte hezkuntza izan da, beste batzuk ere behar dira. Euskararen Agendan aipatzen da aisialdia, eta administrazioa bera ere hor dago.

Oharrak: nik idatziz egin nituen oharrak baina ez dira kontuan hartu. Hiru hizkuntza dira: euskara, espanyola eta frantsesa eta bi egoera: euskarak duena eta besteek daukatena. Diskurtso berrietara joateko ni oinarrietara itzuliko nintzateke: euskaraz ez badugu guk egiten gure hizkuntza desagertuko da. Badirudi konplexuarekin ari garela. Bi hizkuntza inposatzen zaizkigu eta gu gara gure hizkuntza inposatu nahi diogunak besteei.

Diskriminazio positiboaren ideia garatu behar dugu, euskararen aldekoa. Gazteei euskaraz gauza modernoak ematea ondo legoke, baina nola???

Ulermenaren unibersalizazioa lortuko bagenu oso ona izango litzateke euskaldunontzat, aukera izango genukelako beti euskeraz egiteko. Euskaraz hitzegiten ausartzen ez direnak ere jarrera hobea izan ditzakete. Elebitasun hartzailearen ideia- Ikerketa asko dago European : kasu batzutan modu naturalean gertatzen da, hizkuntzak hurbil daudelako (Danesa eta Suediaren artean adibidez). Beste aukera bat eskolan ikasi delako. Ez da hurbil daudelako, baina bai ikasten egon direlako... ikasleek 16 urtez euskara ikasi dute, baina ez diegu aukera ematen euskara ulertzeko. Hau da euskaraz hitzegitea batek eta besteak gazteleraz erantzutea. Bide hori jorratu beharko genuke. Ulertzen duenari euskaraz egin nahiz eta berak erderaz erantzun.

Erabiltzen ez bada jarrera negatiboak ugaltzen dira. Hamasei urtez ikasi eta ez du EGArrik lortzen, adibidez. Ulertzeko gaitasuna daukanari hori aitortu behar zaio, baina nola?

Urteetan hemen izan dugun akatsa: euskara zekiena EGA zeukana zela, edo ondoren funtzionarioak hasi zirela bestelako egiaztapenak ateratzen. Titulua zeukanak baino ez zekien euskaraz. Ulermenean gutxieneko maila lortuta lagungarria litzateke; hala ere, ulermen mailari eustea oso zaila da. Maila bat lortu duenak ez badu bere inguruan euskara normaltasunez jasotzen, ulermen maila behera doa berriro. Eta berriro beldurak sortzen zaizkio. EGA lortu duenak ere erabiltzen ez badu horrek ere galdu egiten du. Gazteekin ere ez dugu asmatzen. Euskararen presentzia normaltasunez hedatu behar da esparru guztietara.

Bigarren beldur bat: euskaldun ez den horrek ze beldur dion euskara zabaltzeari. Umeek naturaltasunez hartzen dute euskara ez daukate beldurrik. Helduek aldiz, beldur asko dute: hanka sartuko dut, lotsagarri geldituko naiz, ezingo dut inoiz ikasi, eta gainera inposatzen didate (lanerako adibidez...). Euskara ez badut kanporatuko naute.... nola eman buelta guzti horiei.

Nik grafikoa nago euskararen alde edo oso alde. Hala ere nik ez dut nahi beti euskaraz egitea. Nik bi hizkuntza jabe naiz eta biak erabili nahi ditut.

Diskurtso berri baten premia sentitzen dut. Diskurtso zaharrak gastatuta daude, oso erabiliak, retorika huts bihurtu direlako.

Bizikidetzaren baldintza berriak behar baldin baditugu, hizkuntzari indarra eman behar diogu. Bizikidetzaren horretan faktore bat izan behar da, bizikidetzaren areagotzeko,... baina "balioa" zein den erabaki beharko genuke.

Hizkuntzen aukera: Autonomiaren hasieran baldintza batzuk ziren, orain baino mila aldiz okerragoak zirenak, baina gutxiengo batek gehiengo diskurtso jakin batera erakartzeko gai izan zen. Azken urteotan gizartearen beste diskurtso bat zabaldu da: defizitarena, ezinarena, borondaterik ezarena... bi aldeetako diskurtsoak joan dira muturretara eta mutur horiek dakarte bestearen ukazioa. Euskaltzaleak erdalduna ukatzen du erderaren mundutik, politikaren mundutik jende askok euskalduna ukatzen du, eta euskaltasuna. Ukazio horiek ebitatzera jo behar dugu, eta hori egiten da bestea aitortuz, diferentzia aitortuz, eta diferentziaren legitimitatea onartuz. Eta diferentea guztiz nire antagonista eta guztiz nire kontrakoa izan daitekeela, eta ni borrokatzen nauena izan daitekeela onartuz. Hizkuntza aukera egitea, jendeak onartu behar du besteek beste hizkuntza bat nahiago izatea, eta hizkuntzen funtzioa ere inportantea da. Hizkuntza bat funtzio baterako edo besterako erabiltzea. Definitu behar da euskara non

izango den nagusiedo dominantea, ez oro, oraingoz dena euskalduntzea ezinezkoa da. Euskararako gune sozial faborableak sortu behar dira. Espazioa eta ghettoa ez dira berdina, kontrakoa baizik.

Azken 30 urte hauetan lortu dira espero ez ziren gauza asko. Orain abian jarri behar dira praktika berriak non euskark izango duen balio bat. Adibidez elkarrizketa elebidunak. Horiek errazago izaten dira, entzun bakarrik egin behar denean eta ez elkarren arteko elkarrekintza eskatzen denean. Ezagun batekin adibidez, bata euskaraz eta besteak gazteleraz, aldiro eta luzera zailagoa da.

Euskaldunok gutxiengoa garen bitartean, besteari eskatzen diogunean trukean ere zerbait eman behar diogu. Ez klaseak bakarrik, ez EGA bakarrik...

Badago jendeak ikasi duena, kriston ahalegin egin ondoren eta gero ez du erabili. Horietako askok "behartuta" ikasi dute lanerako behar zutelako edo...

Herri txiki eta euskaldunetan eman da garai batean normaltasunez elkarrizketa elebidunak. Adibidez poteadoren koadrilan, kanpotarren bat heltzen zenean normaltasunez egiten zen euskaraz eta kanpotarrak erdaraz...Pertsona horrentzat dudarik gabe balioa zeukan euskara, bizikidetzaren ikuspuntutik ezinbestekoa zeukan.

Zergatik gaur egun euskararen kontra jendeak inoiz baino lotsagabeago hitz egiten duela edo sentitzen dugu. Ze motibo daude orain euskararen kontra duela 15 urte baino lasaiago hitz egiteko... Euskaldunok zerikusirik badugu diskurtsoaren erradikalizazio horretan?

Grafikoen arabera Iparraldean eta Nafarrean aldeko jarrera ez da handitu.

Maila kualitatiboan badago sentsazio hori. Adibidez ikasleen artean, euskal adarretan ikasi eta unibertsitatera heltzen direnean euskara eskolako kontua zela esaten dute. Euskara oso ondo ulertzen dute baina ez dute inoin hitz egin(go). Hezkuntzan gauza on asko egin da baina horretan ez da asmatu. Diskurtso negatiboa sortzen da euskaraz ikasi duten ikasleen artean.

Gizartearen aldaketak horretan zerikusia dauka (hedabideak, familia harremanak...). Normala da familia eta inguru erdaldun batean bizi diren gazteak lagunen artean gazteleraz egitea.

Ezin dugu utzi eskolaren eskuetan bakarrik hizkuntzaren normalizazioa. Zer egin du lan munduak? zer egin dute eredia eman behar zuten liderrek? Garaia heldu da horietan ere sakontzeko.

Botere harremanak hizkuntz kontuetan esplizitatu beharra dago. Nik ez dut espero jende guztia euskaraz bizitzeko hautua egitea. hala ere nik euskaraz egitea erabakitzen dudanean besteak ere hori errespetatzea, ongi ikustea, positiboa izatea...hori izango litzateke kriston aurrerapausua . Diskurtso eta praktika hori ez dugu inoiz ETBn ikusi, eta hori posible da.

Papera hartzen baduzue, Estatutuaren aipamena egiten da diskurtsoan baina ez da modu zuzenean hartu. Estatutuak ez dio hori. Gure jarrera ere zaindu behar da, rigor gehiago behar da. Diskurtsoan kontzeptu batzuk barneratu ditugu (gure hizkuntza, hizkuntza propioa,...), sustraitu dira gure artean eta ulertzeko ahalegin minimoa, ahalegin intelektuala ez dugu egiten. Dena ontzat ematen dugu, dogma erlijiosoa balitz bezala...

Diskurtso berriak behar du aurreiritzi guztiak zalantzan jartzea. Orain arteko diskurtsoak errebisatu behar direnik ez nuke esango, ematen delako errudun bila gabiltzala. Beste diskurtso klase bat behar dugu. Denon artean egin behar dugu diskurtso berria. Guztien artean egiten ez baldin badugu diskurtso berri guztiek jai daukate!

Diskurtso berri egiterakoan kontuan izan behar da ere euskara ikasi ez duten edo bidean gelditu den jendea. Erdaldunen iritzia ezinbestekoa da.

Konplizitateak eta adostasunak bilatzea ezinbestekoa da.

Euskadin biztanle elebidunak ofizialki zehaztea: ciudadano vasco= ciudadano bilingue.

LAU IDEIAK ADOSTEKO PROPOSAMENA

1.- Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera edo lekuetan.

Honetan, adostasuna erabatekoa da. Hala ere "balioa" definitzerakoan ikuspegi eta iritzi desberdin egongo liriteke.

2.- Legearen kontuak

Lege babesa duen oinarririk gabe bestelako pausuak motz geldituko litzateke. Legeak berdintasuna bermatzen ez badu... diskurtsoarekin bakarrik ez dugu ezer egiten.

Legeek motibazioa izaten dute atzean, diskurtsoa behar dute. Lege berdinekin diskurtso batzuk legitimatuta daude. Lege berdinekin oso politika desberdina egin ditzakegu. Puntu bat gehiago da.

Diskurtso berri baterako legearen aldaketa beharrezkoa izango balitz nik ez nuke eragozpenik jarriko. hala ere esan diren gauzetatik ez dakit egungo legeditik kanpo zer geldituko liratekeen, oinarrizko printzipioetatik kanpo... gure legedian badago tokia esandakoak hartzeko.

Berdintasun printzipioa ez da bermatzen. Hizkuntza baterako gordetzen da "el deber de conocerlo y el derecho a utilizarlo" eta ez besteetarako... arazoa ez da Konstituzioa, Estatutuan baizik. Katalanen kasuan argi ikusi da.

Zaila da hain errealitate diferenteak egonda (Iparraldea, Nafarroa, EAE) legearen kontuetan adostasuna bilatzea.

Eraiki den diskurtsoan legean berdintasuna aitortzen dela esaten da, baina hori gezurra da. Koofizialak izatea ez da berdina izatea gure kasuan.

Berdintasuna Legean jasotzeak ere ez du bermatzen praktikan horrela izango dela. Gauza bat da legedian aitortza bilatzea, formala, legetimitatearen aldarrikapena, ... baina eraginkortasunaren aldetik oso fede gutxi dut. Gaur egun legearen garapen handia dugu: hezkuntzan, administrazioan, ...

Legean badago asignatura pendiente bat. Ofizialtasunaren diskurtsoa faltsua da.

Berdintasun printzipioa aldarrikatu beharra dago: Hizkuntza guztiak berdinak direla eta berdintasun horrek suposatu dezakeela batzuen pribilegioak galtzea. Horrek eskatzen du berdintasun printzipio eramatera benetan dagokion eremura, legea barne, eta hori lantzea diskurtsoan ere. Hau da, legean berdintasun printzipioa jasotzea eta horren lanketa egitea.

Berdintasun printzipioaz hitzegiten dugunean zer ari gara bi hizkuntza ofizialei buruz edo hizkuntza guztiei buruz? Hor daude ere etorkinen hizkuntzak, inglesa,....

Euskaldunok berdintasun printzipioa behar dugu bentajekin. Berdintasuna ez dago bentajarik ematen ez bazaigu....hala ere ez dut ikusten legean horrela islatzeko modua.

Hemen elkartzen gara 200 soldata publiko, euskaratik bizi garenok, eta erabakitzen dugu hizkuntza pertsegituak garela...nola esango diogu igeltsero erdaldunari berak diskrimintatzen gaituela?

3. Ulermenaren Unibertsalizazioa

Hizkuntza hobetsiaren errespetua eta garapena ulermena unibertsalizatzen den neurrian. Norberak hautatzen duen hizkuntzari errespetua. Horrek eskatzen du ulermenaren unibertsalizazioa, neurri eta politika eraginkorrak.

Ulermenaren unibertsalizazioa, elebidun hartzailearen ideiarekin lotuta badago, ados nago, baina derrigortasunarekin lotzen bada ez.

Administrazioek modu progresibo batean bermatu behar dute ulermenaren unibertsalizazioa.

Helburu bat izan daiteke ulermena; progresiboki zelan erakarri euskarara pertsona batzuk? lehenengo pausua ulermena da. Proposamena izan daiteke pausuak ematea ulermenaren unibertsalizazioa lortzeko bidean.

Proposatu behar dugu lorgarria den zerbait, ez utopia. Eta gazteekin gaur egun hori planteatzea posible da; beste gauza da helduekin...

Jarrera ere aldatzen da horrelako ekimenekin. Jendaurrean dauden langileen kasuan, finantza entitate batean adibidez, helburua ulermena bada, horrek lortzen du langilea lasaitzea eta presiotik at ulermen ikastaroetan parte hartzea. Presio horretatik libratu eta jarrera aldatzen du langileak. Eta aukera dago gero beste pausu batzuk emateko.

Euskara eta gaztelania, epe erdira unibertsalizaziorik, ez badago ez dago berdintasunik.

Negatiboan formulatzeak ez du ezertarako balio. Elebidun pasiboaren kontzeptutik abiatu behar du diskurtsoak. Elebitasun pasiboa baino "hartzailea" erabiltzea hobeto.

Hizkuntza hobetsiaren errespetua

4. **HIZKUNTZA POLITIKA KONPLEXURIK GABE egitea.** Konplexu askorekin egin da orain arte hizkuntza politika. Euskararentzat zer den on pentsatu eta konplexurik gabe hori egin.

Azken oharra:

Frustrante xamar suertatu zait dokumentuan bildutako ideiak. Gizartean dauden iritzi eta perzezio asko falta da.

Ez dago diskurtso mailako gauza asko. Pixka pobrea da. Taldearen osaketan dago gakoa.

Kapaza gara formultzeko BIZIKIDETZAN Euskararen diskurtsoaren egokitzapena ezinbestekoa dela? Bizikidetzan faktore asko planteatzen dira, eta horien artean hizkuntzak ere sartu beharra. Ekarpenean egiten duten faktore bezala kontsideratu beharko genituzke hizkuntzak, eta ildo hori landu ere.

Nik diskurtso hori oso arriskutsuan ikusten dut. Bizikidetzan niretzat faktore ekonomikoak garrantzi gehiago izango du...

Balio bat izan daiteke, erdaldunak perzibitzea euskarara hurbiltzen den neurrian ari dela nolabaiteko gizarte kohesio saioa egiten, eta guk ere talantea...

Ez nago ados. Oso erraza da desbideratzea printzipio hori eta oso arriskutsua.

Hori nabarmentzeak mahai gainean jartzen du oso minoritario den kontu bat. Krispazio gehiago dakar. Ez da gizartean dagoen diskurtso bat, bizikidetzarena. Bai behar bada entzuten dena, baina ez da diskurtso nagusi bat.

Askotan gizartean dagoen gatazka hori, zenbait jende murriztu- murriztu eta hizkuntzara ekartzen du. Eta hizkuntzak planteatzen ditu faktore irrekonziliable bezala. Eta horren izenean justifikatu litezkela astakeri guztiak.

Maila indibidualean ere askotan hizkuntza jartzen da aitzaki bezala...

Baieztapena egokia da. Arazoa da horrek izan dezakeen irakurketa.

3. TALDEA

Moderatzailea: Jon AIZPURUA

3. TALDEA

Hustuketa: Jon AIZPURUA

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Euskararen ezagutza orokortzen lagundu behar du diskurtsoak.

Euskararen aldeko diskurtsoek, estrategiek eta neurriek uztartuta joan behar dute, ezagutza eta erabilera areagotzeko.

Euskararen baloreak eta euskal komunitatea balioan jarri behar dira, "zentralitatea" lortu, erdigunean jarri.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Errespetua...

HUSTUKETA

Helburua edo lehentasuna ezagutza orokortzea, unibersalizatzea, derrigortzea bada, botere politiko nahikorik gabe eta estrategia komunik gabe, diskurtso-mailan epe motz/erdira ezagutza derrigortu ahal izateko bideak landu beharko genituzke.

Hizkuntzen arteko gatazkaren markoan ez ezik, eleaniztasunaren markoan euskarak diskurtso eta praktika propioak garatu behar ditu, adibidez, 3. eta 4. hizkuntza ezagutze aldera. Gure abantailetako bat da hizkuntzekiko beste jarrera bat dugula. Uste dugu euskal komunitateak indar handia jarri beharko lukeela 3. eta 4. hizkuntzak ezagutzen. Hizkuntzen arteko gatazkak ez du horretarako biderik ematen. Suediarrek, suitzarrek... egiten dutenari begiratu beharko genioke.

Estrategietan eta helburuetan adostasunik ez badago, ez dakit zertan ari garen. Zaila da diskurtso bat eraikitzea, jakin gabe zein den helburua eta zein den jarraitu behar dugun estrategia. Diskurtso bat baino gehiago egongo dira.

Euskararen kontra dagoen jendearekin diskurtso bat adostea ezinezkoa da. Ez da izango gainera diskurtso konpartitua. Ez da izango euskarak behar duen diskurtsoa. Diskurtso desberdinak garatu beharko dira.

Baina, guk gure artean diskurtso bat adostu genezake, diskurtsorik eraginkorrena garatu, jende horren jarrera neutralizatzeke.

Guk gure artean desberdintasun handiak ditugu, baina eraiki dezakegu diskurtso bat euskararen alde gaudenon artean.

Erabilera ez oztopatzeko jarrerak eta mekanismoak lortu beharko lirateke. Ezagutza minimo batekin asko hobetuko litzateke, eta euskararekiko kontrako jarrerak ezabatzea. Hizkuntza aniztasunaren eta bereziki euskararen aldeko pedagogia egin behar da eta arduraz jokatzeko mezua zabaldu. Eredu onak eta eraginkorrak, oso ikuspegi zabaletik planteatuta.

Diskurtsoaren bidez jarreretan eragin nahi dugu. Lan Pedagogikoa egin behar da. Bestelako elementuak ere beharrezkoak dira: marko egokia; pertsonen borondatea, atxikimendua; lidergoa, prestigioa, ereduak... Horrekin batera beste elementu batzuk behar dira. Diskurtsoarekin bakarrik ez dugu jendea erakarriko. Diskurtsoarekin batera jendearen atxikimendua behar da, marko egokia, legeak...

Beste ikuspegi batetik, diskurtsotik alde egin eta helburuari heldu. Bi alderdi:

1. Euskararen etorkizuna nahi badugu indartu, erabileran intziditu behar da: Euskararen etorkizuna epe ertain-luzera gaur egungo gazteek erabakiko dute, gehienek egun badakite, edo jakingo dute 20 urteren buruan. Erabileran datza erronka, gazte horiek eremu formaletik at euskararen erabilera areagotzea. Estrategiak eta ekintzak bideratu erabilera indartzeko. Aipatu da euskararen unibertsalizazioa eta horretan denok ados, nahiz eta estrategietan eta ekintzetan ados egon ez.
2. Zer egin behar dugu euskara erakargarriagoa egiteko? Erakargarria da euskararen mundura hitzuna erakartzeko? Hobeto esanda gaztelera edo ingelesa baino erakargarriagoa da euskara? Gure belaunaldiak euskara abertzaletasuna, askatasuna eta identitatearekin lotzen zuen. Errebeldia euskararekin lotzen zen, gaur egungo gazteek ez dute horrela ikusten.

Diskurtsoa ez da berez eraginkorra lortu nahi denerako. Azkenean, estrategia eraginkorrik ez badago tartean, diskurtsoak ez du aldatuko gazteen joera. Diskurtso berri baterako elementu gutxi aurkitzen dut. Ezer berririk edo interesgarrikerik ez. Alderdirik interesgarriena euskara aberastasun bezala ulertzea. Baina hori diskurtsoarekin lantzea zaila. Estrategia edo praktika desberdinen bidez helarazi.

Erdaldunek euskara deskubritu behar dute, eta asko falta da horretarako. Estereotipoak daude, baina desezagutza dago.

Estrategia berriak probatu behar dira, bakearen inguruan egin diren ahaleginekin bezala. Ikuspegiak integralak ez badira, ahulak dira: diskurtsoa, estrategia eta praktika uztartu behar dira.

Ezagutza orokortu, denok ados, baina gogoan izan oraindik badagoela jende asko ezagutza bermatuta ez daukana. Egia da, ezagutza giltzarria dela, baina oraindik jende asko dago euskara ezagutzen ez duena eta kontrako jarrera edo jarrera epela duena. Ezagutza orokortzeko EHko biztanle orok bermatua izan behar du euskara ezagutzeko eskubidea. Hori ez badago, erdaldun askok erasota ikusten du bere nortasun kulturala, inposaketa bezala ikusten dute.

Gizartean sartu behar da euskara ez dela B plana gure artean komunikatzeko, bigarren aukera. Horretarako ekintzak egin beharko lirateke euskararen prestigioa eta presentzia bultzatzeko. Euskara beste hizkuntzen parean dago komunikatzeko. Euskara jakitea plus bat dela jakinarazi. Funtsezkoa gunen erdaldunenetan.

Diskurtsoan bi ideia: batetik, ezagutza unibertsalizatzea, hori bermatu, lege babesaren bidez eta derrigortasuna aplikatu. Hori nola saldu gizarteari. Hori komunikatzen asmatu beharra. Bestea, euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea azaldu erdaldunei errespetatzeko eskatuz. Diskurtso hori landu.

Euskararen baloreak finkatu eta adostu behar dira. Hizkuntzaren beraren “marka berritua”. Lege mailan eta kanpaina mailan horiek zabaldu.

Hizkuntza-politika desberdinak egin dira EAEn eta Nafarroan, eta aldeak ez dira hain handiak emaitzetan. Orain arteko diskurtsoek funtzionatu egin dute egoeraren arabera moldatu direlako. Zentzu horretan dira baliogarriak. Oso funtzionalak dira helburu batzuetarako. Derrigortasuna ere zentzu horretan planteatu behar da. Begiratu beharko litzateke zein tokitan derrigortasunak erabili diren modu proaktiboan eta zeinetan ez. Elebakartasunaren diskurtsoa neutralizatu behar da.

Erabileraren kasuan erantzukizuna euskaldunaren gain jartzen dugu. Eta hori ez da egia. Euskaldunok ahal dugun guztietan euskaraz egiten dugu. Euskaldunon atxikimendua euskararekiko handia da. Generazio berrietan agian jaisten ari da.

Euskaldunon komunitatea beti albo batean uzten da, eta zentralitatean jarri behar da. Iruditzen zait oso komunitate desberdinetan bizi garela: euskaldunon komunitatea eta erdaldunon komunitatea. Bi komunitateak hurbiltzeko lan handiagoa egin behar da estamentu guztietatik.

Denok gaude ados derrigortasuna ezarri beharko dela, eta horretarako diskurtsoa pentsatu behar dugu bi komunitateentzat: euskara maite dutenentzat eta kontrakoentzat. Arazoak egongo dira hori lortzeko. Boterea daukatenak kontra jarriko dira. Ezagutza orokortzea bai, baina “derrigortzea” ez, gogorregia da.

4. TALDEA

Moderatzailea: Josune ETXANIZ

4. TALDEA

Hustuketa: Josune ETXANIZ

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

. Berdintasunaren aldeko diskurtsoa.

. Euskal diasistemaren hitzunen oinarrizko diskurtsoen lanketa.

. Ezagutzaren aldeko diskurtsoa.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

. Euskara sinplifikatu behar da euskararen erabilpena bermatzeko.

HUSTUKETA

▪ Atera diren ideiak (txarteletan idatzitakoak)

. **Gazteen artean** diskurtso positiboa baino **ezagutza ziurtatu** behar da ezagutzen ez badute ez dute positiboki baloratuko.

. **Modernotasuna** gaur egun globalizazioarekin eta internetekin dago lotuta. Zelaia zaila dudarik gabe, baina **internet** da jokua zela funtzeskoa.

. **Berdintasun printzipioa** (aukera). Derrigortasuna vrs. Sedukzioa dikotamia apurtu.

. **Balio erantsia**: gertutasuna, konfiantza, berrikuntza, identitatea...

- . **Euskararen aurkako jarrerak desagerrarazteko neurriak hartu beha dira.** Alde funtzionala desagerraraztea zaila izango bada ere, jarrera diskurtsiboak %0ko izan behar du.
- . **Euskal diasistemaren hitzunen oinarritzko diskurtsoen lanketa.** Kaixo, wap@s, nahi, kedatu, dut / koiu, det, zitroin, harrapazank / hartu, gura, dot / viciatu, limoi, kolpe egin, “taketa lez”
- . Diskurtsoa ahal den erakargarriena izan behar du: **Integratzailea. Irekia**
- . Diskurtsoak baino gehiago **erabilerak kezkatu behar gaitu.**
- . Gakoa jarreran dago.
- . Arazoa ez dago arlo legalean.
- . Euskal herritarren eskuetan dago batez ere normaltasunaren apustua gainditzea.
- . Nola lortu gutxienerako gizarte adostasuna bakoitzaren hautua errespetatuaz euskararen etorkizuna bermatzeko hizkuntzak politikak garatzeko: euskara lehenesteko, ahula indartzeko, arnaguneak bermatzeko...
- . Gazteen munduan oinarri berriak finkatu (adostu) behar ditugu: eskolarekin, eskolaz kanpoko munduarekin... lotuak.
- . Gazteak. Euskara erakargarri bihurtu behar dugu: ludikotasunarekin lotu, sorkuntzarekin, jolasarekin... Eskolaz **kanpoko** mundua. **GAITASUNA gutxienerakoa.** **ESKOLA ez da** nahikoa.
- . Euskararen sinplifikazio bat proposatzen dut: morfologia, aditzak erraztu. Sintaxi logiko eta erraz bat bultzatu. Hau funtzeskoa da.
- . Alde batera utzi euskararen zuzentasuna, aberastasuna, garbizaletasuna, e.a. Horren ordez euskara erraz eta funtzionala bultzatu. Mentalitate aldaketa.
- . Gure gizartean, nortasun nazional desberdinak desagertuko ez diren bezala, hizkuntza bietatik bat ere ez da desagertuko, historian aurreikus dezakegun tartean behintzat. Komunitate bat osatu behar dugu, ondorioz, ez nortasun bakankoa ez hizkuntza bakankoa. Komunitate hori (edo horiek), komunitate politiko gisa funtzionatu behar dute, bere(n) kultura eta arauekin. Euskarak lekua izan behar du komunitate horretan, gizarteak emango diona.
- . Gazteek erakusten digute zer nolako gizartea sortzen ari den. Hizkuntza-komunitatea (besteetan bezala) euskal komunitatea nolakoa izango den itxuratzen dute: beren kode eta balioekin; urritasuna eta modukotasuna beren era(ta)ra uztartuz; giro ele(bi)anitzea; bizi giroa; testuinguru ekonomiko jakinean (lanik eza, migrazioa...) (Hizkuntza-aldaketa belaunaldien aldaketa da) (Diskurtsoa garrantzitsua da).

▪ Azalpenak

-
- . **Gazteen artean** diskurtso positiboa baino **ezagutza ziurtatu** behar da ezagutzen ez badute ez dute positiboki baloratuko.
 - . **Modernotasuna** gaur egun globalizazioarekin eta internetekin dago lotuta. Zelai zaila da, ingelesaren konpentziagatik dudarik gabe, baina **internet** da jokuaren zelai funtzeskoa.
 - . **Berdintasun printzipioa.** Hizkuntzaren arteko berdintasuna aukeretan egon behar. Txostenean behin da berriz agertzen den dikotomia modua, [derrigortasuna versus sedukzioa eta oso arriskutsua da](#), hau da sedukzioa egoteko derrigortasuna egon behar da. Ni seduzitzeko adibidez epaitegira joateko, aurretik epaitegian dagoen hori derrigortua egon behar du euskaraz egiteko. Beraz tranpa iruditzen zait derrigortasuna vrs. sedukzioa horrela planteatzea, bat edo bestea beharrezkoak izan behar dira eta [aurkera horretarako berdintasunaren printzipioa beharrezkoa dela iruditzen zait](#).
 - . **Balio erantsiaren kontzeptua** interesgarria iruditzen zait. Hau da, hizkuntza eta kasu honetan euskarak zerbait eskeini behar dio gazteei zein besteei: gertutasuna, berrikuntza, identitatea, jolasa... eta horretan asmatu behar dugu.
 - . **Euskararen aurkako jarrerak desagerrarazteko neurriak hartu behar dira.** Alde funtzionala desagerraraztea zaila izango bada ere, jarrera diskurtsiboak %0koa izan behar du; edo ideia litzateke azken batean aurkako jarrerarik ez egotea. Inor diskurtsiboki aurkakotasun hori adieraztea beste maila bateko kontuak direla iruditzen zait. Kontu batzutan gauza batzuk ebidentzeak izan behar dira, ez kontra edo alde gauden.
 - . Eta bestalde, niri diskurtsoa ez zait iruditzen zentroa izan behar denik. Eta horregatik bigarren honetan jartzen dut, **Euskal diasistemaren hitzunen oinarritzko diskurtsoen lanketa.** Batetik iruditzen zait entelekia

bati buruz hitzegiten dugula ez badugu hau argi. Euskararen pluradidatea inportantea da, diasistema bat da, ez da eredu bakar bat. Hauteskundeak egingo bagenu zein euskara eredu den sustatu behar dena, gaur egun gehiengoak hitzegiten duen euskara ez da gaurko aurkezpenean agertu dena. Seguru nago beste eredu bat dela, batzuek bajuago dela esango dute. [Hizkuntzen eskubideak oso zailak iruditzen zaizkit ulertzeko](#); azkenean hurbiltzen gara giza eskubideetara baina hiztuna bera edo pertsona bera horretara jo behar du.

. **Diskurtsoa ahal den erakargarriena izan behar du.** Aurkako jarrerak aldatzea nahi baditugu, ez da erraza, zeren ikusten da edozein diskurtsoaren atzean arazoa badagoela. [Normalkuntzaren apustu horretan behintzat saiatu behar gara.](#) Aurka dauden horretatik, ez dezatela ulertu aurka dagoen zerbait denik, helburua beste zerbait dela ulertu dezatela. Bizikidetzaren bidetik elkar ulertzeko modu bat izan behar duela.

. Diskurtsoa baino gehiago **erabilerak kezkatu behar gaitu.** Diskurtsoa lagundu dezake, baina azkenean apustua [erabileran]. Nahiz eta errealitateak desberdinak izan EAEn, Nafarroan, Iparralden, arazoa ez daukagu hainbat arlo legalean; nire iritzian, eta hori ere diskurtsoan aldatu daiteke, euskararen normalkuntzaren etorkizuna euskal herritarren eta euskal gizartearen eskuetan dagoen zerbait da.

. Uste dut azken 20 urteetako joera, igoeraren gakoa, jarreran dagoela. Gaitasuna dutenak, erabil ezagatik, problema ez dago ez gaitasunean ez ezagutzan.

. Nire ustetan oinarrizko gakoa dago **nola lortu gizarte mailan oinarrizko adostasun bat gutxieneko diskurtso/politika batzuk garatzeko?** Nik uste gutxieneko politika horiek soziolinguistikaren, edo zientziaren ikuspuntutik atera daitezkeela: hizkuntza hura lehenestea, arnasmuneak sortzea eta babestea. Gaur egun nahiko onartua dago euskara lehenesteko gutxieneko politika batzuk adostea, baino praktikan etengabeko arazoak ditugu horrela izateko. Beraz, gutxieneko adostasun bat ez badugu lortzen etorkizun beltza dugu.

. Beste puntua erabilera eta jarrera, hauek ditugu inportanteak. Baino gazteen munduan ez gara iristen gutxieneko gaitasun maila batera, ez dugu asmatzen. Hori osatzeko beste adostasun batzuk behar ditugu: kirol mundua, aisia... mundu hori irabazteko eta euskaraz pentsatzeko adostasun batzuk behar ditugu. Eta bereziki gazteen mundu hori ez bakarrik eskolarekin, baizik eta ludikotasunarekin, eta hizkuntza jolasarekin lortzeko.

. Euskararen sinplifikazio bat proposatzen dut: morfologia, sintaxia, aditzak... erraztu. Sintaxi logiko eta erraz bat bultzatu. Hau funtzeskoa da, urrutiegi joan garelako arauekin, garbitasunarekin, euskaltzaindiarekin, arauekin... Kate ikaragarri honek euskarari egin dion kaltea itzela izan da, beste edozer baino kalte gehiago. **Euskara sinplifikatzean dago gakoa.** Badaude formak eskema erreteko. Oso oker gaude eta norbaitek hartu behar du serio gai hori.

. **Mentalitate aldaketa bat behar dugu,** honek ekarriko du printzipio batzuk beste batzuen aurreran jartzea. Aldaketa horrekin hemendik 10 urteetara euskararen erabilera handitu egingo da, baino euskararen garbitasuna, aberastasuna... kontzeptu horiekin jarraitzen badugu euskara atzera egingo du. Hizkuntza komunikatzeko sistema bat da eta komunikazioa izan behar du erraza, XXI. Mendean gaude eta ikusten da informatika eta zenbait arlotan, joera erretea dela.

. Aurreko saioaren ideia bati helduko dio lehendabizi: **Komunitatearen ideia.** Gure gizartean nortasun nazioanlak desagertuko ez diren bezala aurreikusi dezakegu, gazte batean bereziki, hizkuntza desberdinak ez direla desagertuko. Asumitu dezagun nortasun eta hizkuntza anitz bateko gizarte batean biziko gara tarte luze batean, eta beraz pentsatu dezagun hor kokatzea; eta horren gainean eraiki behar dugu osatzen dugun komunitatea edo komunitateak. EAEn komunitate bat sortzeko aukera dugu, ez dakit Nafarroan sortzen ari den eginaren-eginez. Euskarak gure komunitate honetan bere lekua izan behar du eta gizarteak ematen dion lekua izango du.

. Bigarren ideia: **hizkuntzen arloko aldaketa belaunaldien arloko aldaketa bat da.** Ez hizkuntza bat beste bat ordezkatzeko, ez hori bakarrik, hizkuntzaren alorreko aldaketa, erabilera aldaketa... belaunaldi aldaketak dira, modu zabalean. Ildo horretatik iruditzen zait gaur egungo gazte jendeaitxuratzen ari da euskarak izango duen lekua gizarte honetan; gu fase baten amaieran gaude eta beste gizarte bateko erreferentziarekin ari gara: sortu, jardun, lan egin.... Erreparatu behar diogu ez horrenbeste gazteei zer esan, zer egiten duten, zer ari diren egiten hizkuntzan... ze iruditzen zait funtzionatzen dutela beraien kodeekin, kode linguistikoekin ere. Ziuraski hemendik 30 urteetara euskara ez da dugun hau izango, dagokion gizartera egokituagoa izango da, ez da izango gurea. Bere balioekin. Nortasuna bere modura egokituko dute, modu desberdinetara. Nola funtzionatzen duten, aztertu, deskribatu dezagun, eta hortik begiratu dezagun euskararen funtzionamendua (erabilera, adkiszioa...) egiten ari den bilakaera. Ildo horretan diskurtsoak garrantzia badu. Diskurtsoak lantzea garrantzitsua da, funtzionamenduan eragingo duelako.

▪ ADOSTUTAKO 4 IDEIA

. Berdintasunaren aldeko diskurtsoa.

Idea honen gainean esandakoak:

. Zalantza dut berdintasuna eta balio erantsia adostasun berriak baino, zaharrak ez ote diren. Adostasun berria izan daiteke nola eraman hori esparru berrietara, aurka daudenei nola ulerarazi, aukera berdintasun bateaz ari garela.

. Nik berdintasuna lotuko nuke aukeran, lehentasunarekin. Berdintasuna bultzatu nahi dugula, ahula indartzea.

. Printzipio bezala ez zait gaizki iruditzen, zailtasuna printzipio horren aplikazioan dago. Eta diskurtsoak batzutan hori, noiz, non, zein baldintzekin aplikatu...

. Ahularen diskurtsoa, gaur egun euskararen pertzeptzioa??? ez da ahularen ikuspegia.

. Adierazten jarraitzen dugu gaixorik gaudela, maila batean gure ezintasunak hor daude. Beharrezkoa da pausu bat ematea, ez gara hain elbarriak.

. Berdintasunaren diskurtsoa zuzendua dago, jarrera ezkorra duten diskurtsoetara.

. Euskal diasistemaren hitzunen oinarritzko diskurtsoen lanketa.

[AZALPENEA] Batetik iruditzen zait entelekia bati buruz hitzegiten dugula ez badugu hau argi. Euskararen pluradidatea inportantea da, diasistema bat da, ez da eredu bakar bat. Hauteskundeak egingo bagenu zein euskara eredu den sustatu behar dena, gaur egun gehiengoak hitzegiten duen euskara ez da gaurko aurkezpenean agertu dena. Seguru nago beste eredu bat dela, batzuek bajuago dela esango dute.

[Hizkuntzen eskubideak oso zailak iruditzen zaizkit ulertzeko](#); azkenean hurbiltzen gara giza eskubideetara baina hitzuna bera edo pertsona bera horretara jo behar du.

. Ezagutzaren aldeko diskurtsoa.

. Erdaldunek ez dute hizkuntzaz aldatzeko askatasunik.

▪ Eztabaida tartean atera diren ideia batzuk (agian ideien taulan sartu daitezkeneak baino eztabaidan zehar atera dira).

. Komunitate elebidun honetan ama-hizkuntzak ibaia osatzen duten afluenteak dira. Ezagutza igo da %70a, eta erabilera lotura handia duela hizkuntzaren gaitasunarekin esaten dute. Kontua da hainbat belaunaldi berrien barruan euskara bigarren hizkuntza duten belaunaldi berriaz ari garela. **Bernakulazioa**, lehen hizkuntza gisa zein hizkuntza transmititzen den garrantzi berebizikoa du zere ekologia, horren egonkortasunera. Eta familia transmisioa esaten denean horren atzean dago arazo bat: hizkuntza bat gizarte modu sostengarrian ezin daiteke bigarren hizkuntza lehen hizkuntza gisa berreskuratu behar badu. Bernakularizazio prozesu horri, bigarren hizkuntza hori etxekoa bihurtzea, ... lortu beharko da.

. Sinpatiko ezin zara izan. Edo ziurtatzen duzu ikasten dutela edo lanerako exigitzen duzunean, antipatiko bihurtzen zara. **Kontsentsu soziala lortu behar da**, ez diskurtsoa. Kontsentsu honetara heltzeko momentu batzutan batzuk etsi egin behar dute.

. A eredua duten eskola batzuk aurka daudenen gotorleku bihurtzen ari dira.

. Niri hori residuala iruditzen zait.

. Kezkagarriena, beste ereduarekin lortzen ditugun emaitzak dira. Pentsatzen dut, **eskolak bakarrik ezin du**, %10a suposatzen du eskolak. Euskara eskolan bakarrik duena, hortik elebidun bat sortzea zaila da. Eskolaz kanpoko munduarekin lortu behar dugu kontsentsu bat. Bergaran, eskolan orduz kanpoko errefortzuko eskolak eskeintzen ditugu, gero gertatzen da ume hori beste jarduera batera joango dela eta erdaraz jasoko du, eta aldi berean, udalak finantzatu du jarduera hori.

. Hezkuntzak betetzen du berari dagokiona, gaia dago hortik kanpo. Lan mundua arazo bat da, gaur egun lan munduan sartzen diren gazteek nola edo hala euskara ezagutzen dutela, salbuespen batzuk kenduta

beraien lan bizitzan erdara da nagusia. Administrazioan hori askosaz ere arautua dago, eta elebiduna gutxienez errespetatua dago. **Dugun arazoa da administrazioak oraindik bete behar dituen beste betebeharrak guztiak ez dituela betetzen.**

. [partaide batek botatzen duen galdera] Onargarria izango litzateke kirol talde bati dirulaguntza emateko orduan hizkuntza irizpidetzat hartzea?

. Nik jokalariei jarriko nieke

. Behintzat ahalmena ziurtatu.

. Diskurtso ekonomikoa alde batera eraman da (ez dakit zenbat diru gastatu da plan honetarako), administrazioak eta enpresek. Errespetatu eskubideak. Lehena da adostasun batera iritea. **Legea inportantea da, helburu bat izan behar du.** Zeren, gazteak ez badu jakiten, gero lana aurkitzeko orduan nola izango du diskurtso positibo bat?

. Orain arte asko leporatu zaigu zenbait izan da euskararen kostua, **inoiz ez dugu hitz egin izan euskara ez jakitearen kostuaz**, eta uste dut badala momentua zerbait egiteko. Euskara ikasi barik irteten den pertsona horri lanean erakutsi behar bazaio, ikaragarriko kostua da.

. Diskurtsoaren ikuspuntutik kostuaren gaia ez nuke aterako.

. Baina ateratzen denean, inoiz ez diogu buelta eman.

. Administrazioan sortu zen nagusiki alderdi batzuk ez zutelako onartzen lanpostu batzuetarako eskaera egitea, berdintasunaren izenean. Azken batean programa hori ez da euskararen mesedetan euskaldunok asmatu dugun programa bat, baizik eta aukeraren berdintasunaren izenean "elebakarren" mesedetan jarri zen programa bat. Eta horrek sekulako kostua izan du urteetan zehar.

. **Problema da euskara ez dela hitzegiten.**

. **Erabilerekin izan behar dugu ikuspegi positiboagoa:** euskaraz esaten dudana hitz edo esaldi bakoitza irabazia dut.

. Gure gazteek ikasiko dute edozein hizkuntzan baina ez badugu lortzen euskaraz nagusiki biziko den gazteria bat ez dugu etorkizunik.

. Gazte batzuk modernitasunaren izenean itzultzen dira euskarara bizitzaren momentu batean.

. Askoz malguagoak gara euskara ongi ez egitearen aurrean gaztelaniaz ongi ez egitearen aurrean. [Esaldi honi erantzuna: EZ] Gure exigentzia maila hizkuntza batekiko zein bestekiko desberdina da.

. Ni ez naiz diskurtsoak minimoetara heltzeko aldekoa. Minimoak ez du gizarteak jartzen, militanteak jartzen dugu.

. Ahularen diskurtsoa, gaur egun euskararen pertzeptzioa [??? ez dut ongi ulertu] ez da ahularen ikuspegia.

. Adierazten jarraitzen dugu gaixorik gaudela, maila batean gure ezintasunak hor daude. Beharrezkoa da pausu bat ematea, ez gara hain elbarriak.

. **Berdintasunaren diskurtsoa zuzendua dago jarrera ezkorra duten diskurtsoetara.**

. Erdaldunek ez dute hizkuntzaz aldatzeko askatasunik

▪ **EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU**

. **Euskara sinplifikatu behar da euskararen erabilpena bermatzeko.**

[AZALPENA] Euskararen sinplifikazio bat proposatzen dut: morfologia, sintaxia, aditzak... erraztu. Sintaxi logiko eta erraz bat bultzatu. Hau funtzeskoa da, urrutiegi joan garelako arauekin, garbitasunarekin, euskaltzaindiarekin, arauekin... Kate ikaragarri honek euskarari egin dion kaltea itzela izan da, beste edozer baino kalte gehiago. **Euskara sinplifikatzean dago gakoa.** Badaude formak eskema erreteko. Oso oker gaude eta norbaitek hartu behar du serio gai hori.

. Sinplifikatze horretan ados egon naiteke [herritarrei gainetik \[zama\] kendu behar zaiela](#), hitz egin nahi duten hizkuntza gaizki hitzegiteagatik inork ezin dio inolako erreprotxerik egin behar. [Ez duela gaizki bere burua sentitu behar hitzegiten duen moduan hitzegiteagatik](#). Bestetik, euskarak gutxieneko arauak izan behar ditu, zuk planteatzen duzun hori nondik norako hori, nola ikusten duzu? Hitzegiteko orduan beste modu batean egiten da, eta hori hizkuntza guztietan gertatzen da.

. Ni ez nago batere ados, sinplifikazio hori de fakto sortzen da. Gainera frogatuta dago hizkuntza guztiak konplexutasun bat dutela alde batean edo bestean. Eta bi, ematen du eskatzen ari zarela euskaltzaindiak euskara sinplifikatzea. Eta ez, [hizkuntza bizia da eta sinplifikatzen da](#). Neretzako ez da gai zentrala; gai zentrala izan daiteke hitzegitea idazten den bezala, eta bai agian urteetan egon da zurruntasun hori. Bada jokalaria bat, ondarrutarra, Iñigo Martinez, ziur horrek jakin badakiela euskara batua normala, baino ez du horrela hitzegiten, zergatik? Ba bere 'tribuari' zuzentzen zaiolako, taldean dagoelako...

. XX. mendean ekiladeko lurraldeetan proposatu zen hizkuntzak erreztu behar zirela bestela desagertu egin zirelako. Mugimendu, ideia hauek 2. GMarekin desagertu ziren. Baina gai hau kontutan hartzekoa da, ezin dugu alde batean utzi. Ni irakasle bezala ikusten dut gazteek ikasten dutela euskara, baino gero gaztelera jotzen dutela, eta ez bakarrik giro sasi-euskaldunetan.

. Neretzat gakoa ez da hori.

. Ez da zailtasunagatik.

. Tamalgarriena egoera hori kriminizatzea da [jarritako adibidearen harira: gurasoak euskaldunak eta euskaraz dakiten seme-alabek elkarrekin gaztelera hitzegiteko joera], hori ez da gaztelerekin gertatzen. [Etorkizunean gaztelaniaz egitea euskaldunon ezaugarri bat izango da, edo behintzat euskal diasistemaren hiztunenena](#). Nik sufritu dut tranpa hau. ... [Etorkizunean hizkuntzen erabilera gertuago egon behar du eta zuk erabaki zein hizkuntzan egin](#). Noiz erabakitzen duen hiztunak eta noiz datorren alde aurretik. [Aurrera bagira, euskararen etorkizuneko lana beste hiztuneei lekua egitea ere izango da](#); nik horri [hizkuntza eleaniztasunaren jasangarritasuna](#) deitzen diot. Ekosistema horretan hizkuntza bakoitzak du bere tokia, eta horretan gaztelaniak ez dio lekua egingo euskarari, irentsi egingo du.

. Hiztunak beti izango du joera errezen egiten zaion hizkuntza hori aukeratzeko.

. Aiton-amonentzat erreza da sentimenduaz euskaraz hitzegitea eta matematika eta gaztelera, eta orain hori aldatu egin da erabat. Funtza da nola ikasi, entzun... duzun.

. Erraz eta zaila hitzekin ez gara oso urrun helduko. [...] Erraz, zaila, arraroa, sinplea, hitzak... adjetibo kalifikatiboak dira eta horrek iritzi bat adierazten du, eta eztabaidarako zailak izaten dira subjektibo hitz horiek.

5. TALDEA

Moderatzailea: Belen URANGA

5. TALDEA

Hustuketa: Belen URANGA

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Lege babes handiagoa behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Diskurtso bat ez, diskurtso berriak (pluralean) behar dira. Baina biak behar dira, legeak eta diskurtsoak, biak.

Jarreretan eragiteko emozioa, bizipenak eta bisipozak transmititu behar dira, baina biata praktikotasuna, pragmatismoa. Euskara ezin da asoziatu hizkuntza berak baino atxikimendu gutxiago duten elementuekin.

Hizkuntza erabilgarria, multifuntzionala, espresiboa, gozagarria, zorrotza, biziagoa, erakargarria, komunikatiboa behar dugu. Eta ez du zertan beti zuzena izan behar.

Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa.

HUSTUKETA

5. Taldeko fitxetan idatzitako ideiak

- Diskurtso bat eraiki behar dugu elkarbizitzan oinarrituta, komunitate politiko bat osatu behar dugu (nazionala edo ez nazionala), bere araudiarekin, kulturarekin, eta hor euskarak leku bat izan behar du, leku integratzailea, denon artean eraikia.
- Diskurtso berri bat ez, diskurtso berri asko behar dira.
- Diskurtso berri bat eraikitzea beharrezkoa da. Horretarako erabilgarria izan daiteke euskara bezero hizkuntza modura hartzea. Enpresa eta merkatu munduan sarzeko ideia bat izan daiteke.
- Lege babes handiagoa bai behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Biak dira beharrezkoak. Bata bestea gabe ez da nahikoa.
- Lehendabizi “arrazoiak” bildu behar dira eta sailkatu. Gero, horietatik komunikazioa diseinatu. Ideia kaltegarriak zein diren ere identifikatu behar dira desaktibatzen saiatzeko.
- Euskara gizarte elementu integratzailea, bateratzailea eta legeak positiboki babestua.
- Bizikidetzaren ardatz, euskarak modernotasuna ematen duen zerbait da.
- Ideia edo irudi pisutsuegiak baztertu behar dira.
- Eleaniztasunaren diskurtso berriaren baitan euskarak jokatu beharreko zeregina diseinatu behar du (ofizialtasuna abiaburu jarrita), positibotasunetik hasita.
- Euskara beharrezko izatea, ez arauen aldetik bakarrik, bizitzeko baizik. Modernoa, erabilgarria. Euskara erabiltzeko beharra eta gogoia sentitu behar da.
- Errespetua vs. inposizioa: erabilerak irabazi behar du besteen errespetua. Hizkuntza askoren erabilerak merezi du errespetua.
- Gazteei buruz hitz egin aurretik eurei galdetu behar zaie. Eta eurei eman modernoa dena, erakargarria, euskaraz... eta ona bada “kontsumituko” dute. Gazteen ikuspegia behar dugu. Guk haien zat asmatzea alferrikakoa izan daiteke.
- Erabilera bultzatzeko gako/arazo nagusietako bat hizkuntza-mailan dago: gozagarritasuna eta gaitasuna landu behar da. Produktuan dago arazoa (euskaran) eta ez horrenbeste diskurtsoan.
- Modernoa eta multifuntzionala izan behar du euskarak. Modernoa, erraza, erabilgarria. Bezeroak asebeteko dituena, ausartagoa, emotiboa, sentimentala, bibentzuala
- Euskara erakargarria, ukigarria izan behar du. Baina perfilak kontuan izan behar ditugu.
- Gure gizartea gero eta eleanitzagoa da eta gaztelaniak “lingua franca” funtzioa betetzen du. Nola bilakatu erakargarri euskara egoera horretan?

Eztabaida-taldean (grabazioan) jasotako ideiak

1. DISKURTSOAREN INGURUAN:

1. **Diskurtso berri bat ez, diskurtso berri asko behar dira. “Bat” izate horrek ez du zentzurik. Euskararen munduak perfil asko ditu eta euskaldunen artean ere bai.** Horregatik, hizkuntza berri batez hitz egitea ez da komeni. Are gutxiago egoera soziolinguistiko desberdinetako hiztun desberdinetan pentsatzen badugu. Diskurtso berri bat kontzeptua ahaztu behar da. Diskurtso desberdin egokitu asko euskararen diskurtsoa osatzeko.
2. Diskurtsoaren hitz handiak baztertu behar dira eta bihotza ukitu. Ekologia, iraunkortasuna, eta horrelakoak handiegiak izan daitezke. Zerbait ukigarria zian behar du ez hain handi mailan.
3. Diskurtsoak balio behar du jarreretan eragiteko.

4. Edozein hizkuntzaren erabilerak merezi du errespetua. Errespetuan oinarritzeak ahalbidetzen du edozein erabilerak. Zein onurak dituen hizkuntza bitan hirutan edo gehiagotan aritzea azpimarratu behar da. Zenbat aberasten gaituen horrek. Edozein hizkuntzatan aritzeak batu egiten duelako. Hizkuntza askoren erabilera da zentroan jarri behar dena.
5. Diskurtso bat eraiki behar dugu elkarbizitzan oinarrituta, bizikidetzan, komunitate politiko bat osatu behar dugu (nazionala edo ez nazionala), bere araudiarekin, kulturarekin, eta hor euskarak leku bat izan behar du, leku integratzailea, denon artean eraikia.
6. Gizartea eleanitza da jada. Hizkuntza asko daude. Eta immigrazioko egoeretan gaztelania *lingua franca* da *de facto*. Hor euskara erakargarri bilakatzeko zer egin behar da? Posible da euskara batze-hizkuntza izatea gutxienez testuinguru batzuetan?
7. Emotiboa dena sartzen asmatu behar da. Ezin da dena ikuspegi arrazionaletik gidatu. Bizipenak eta bizipozak erakutsi behar dira. Baita diskurtsoaren formulazioetan ere. Arrazoiak ondo daude baina bibentziala dena, esperiantzala interesgarriagoa da. Araugintzatik lotuta baino gozagarritasunarekin, esperientziarekin emozioarekin egin behar da.
8. Gogoa sentitu behar da. Beharra ona da, baina gogoa hobea. Hizkuntza moderno horretan asebetetzea gakoa da, eta gogoa da areagotu behar dena. Aldi berean, legeak babestu behar du.
9. Zabaltzearen zentzua ere oso positiboa da: etor zaitez, babestua eta onartua izango baitzara..
10. Zinikoagoak ere izan behar gara. Komenigarriak ez diren diskurtsoak identifikatu eta baztertu behar dira, kontraproduzenteak ekidin. Lagunak ekartzen ez dituzten ideiak baztertu beharko lirateke. Diskurtso politikotik aldendu akaso. Gurea da, ondarea da, eskubidea dugu... ez dute erakargarritasun handiegirik testuinguru batzuetan. Karga handiko arrazoiak askotan uxatzaileak dira. Adibidez, nazional kontzeptua erabiltzen badugu hainbat lekutan uxagarria izan daiteke. Euskara ez da asoziatu behar euskarak berak baino atxikimendu txikiagoa duten elementuekin. Adibidez, Nafarroan ikurriñarekin... ba ez! Euskararen alde jende gehiago dagoelako ikurriñaren alde baino: Beraz, ez dezagun euskara ikurriñarekin lotu euskaratik uxatuko ditugulako... ikurriña, nazioa, eskubideak... balio dezakete testuinguru batzuetan baina beste batzuetan ez zaigu komeni erabiltzea. Euskararen aldeko motibazioak askotarikoak izan daitezke, baina klabea da ez lotzea euskara aukera politiko batekin, edo estatu komunitate politiko jakin batekin.

2. LEGEAREN INGURUKOAK

1. Lege babes handiagoa bai behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Biak dira beharrezkoak. Bata bestea gabe ez da nahikoa.

3. EUSKARAREN IRUDIA

1. Modernoa eta multifuntzionala izan behar du euskarak. Modernoa, erraza, erabilgarria. Bezeroak asebeteko dituen, ausartagoa, emotiboa, sentimentala, bibentziala, lotura afektiboa izatea.
2. Modernotasunarekin eta multifuntzionala izan nahi horretan arazoa daukagu hizkuntza berarekin, gaitasunean, alegia.
3. Euskara erakargarria, ukigarria izan behar du. Baina perfil desberdinak kontuan izan behar ditugu.
4. Euskara beharrezko izan behar du, ez arauen aldetik bakarrik, bizitzeko baizik. Modernoa, erabilgarria. Euskara erabiltzeko beharra eta gogoa sentitu behar da.
5. Euskara zabaldu behar da positibotik hasita. Beste mundu batera garamatzen ideia da.
6. Modernotasuna, egunean egotearekin, ez lehenarekin, etorkizunarekin, ez arrazionalitatearekin baizik eta bibentziaz biharkoarekin, bestela nekez.
7. euskarak modernotasuna ematen duen zerbait da (ez postmodernotasunaren zentzuarekin...) eta besteei zerbait aportatuko dien zerbait. Baserri kutsu negatibotik aldendu behar da, euskarak edozer gauzatarako balio dezakeelako. Hizkuntza modernoa

eta multifuntzionala izan behar du. Egoera desberdinetan egokitua, esparru formaletan baina batez ere ez-formaletarako balioko duena. Hor dugu erronka handienetakoa: esparru ez-formaletan hizkuntzak eskatzen zaiona ematea

8. Bezero hizkuntza bezala euskara. Euskaraz tratatzeko daukagun eskubidea bezero moduan eta baita euskarazko kontsumitzaileek ditugun aukeretan.

4. EUSKARA TRESNA BEZALA

1. Egoera askotan tresna egokia behar dute erabiltzeko. Tresna beraren inguruan arazo handia dugu. Asko aurreratu da baina esparru ez-formalean erabiltzeko arazo handia dugu. Zuzentasuna eta egokitasuna ez datoz beti bat eta zuzentasuna lehenetsi da orain arte, eta ez da kontuan hartu egokitasuna edo hiperzuzenketa izan daitekela. Hemen izugarritzko arazo handia dugu.
2. Badaukagu jende-multzo oso handia gaitasuna baduela euskaraz hitz egiteko baina ez duela erabiltzen aise erabiltzeko erraztasunik hurbileko egoeretan txisparik ateratzen... Ez gaitzezen lasai geratu: gazteek (oro har) eskolan ikasten dute, euskararen alde daude, baina batez ere sinbolikoki alde, ez pragmatikoki. Hor dago gakoetako bat.

5. GAZTEEN INGURUAN

1. Gazteei buruz hitz egin aurretik eurei galdetu behar zaie. Horrelako foroak ondo daude baina gazteei galdetu behar zaie. Eta eurei eman modernoa dena, erakargarria, euskaraz... eta ona bada "kontsumituko" dute. Gazteen ikuspegia behar dugu. Guk haientzat asmatzea alferrikakoa izan daiteke.
2. Esperantza guztiak ez ditugu gazteengan jarri behar, zaila delako asmatzen. Diskurtso egituratua akaso ez dute izango baina euren iritzia ezagutu behar da. Baina haiengan eragin nahi baldin bada haiekin hitz egin behar da. Akaso zer behar edo zer arazo ikusten duten.

6. TALDEA

Moderatzailea: Amaia ELIZAGARATE

6. TALDEA

Hustuketa: Amaia ELIZAGARATE

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Euskara zentruan duen eleaniztasun baten aldeko hautua era progresiboan.

Liderazgo motibatzaile/eraldatzaile baten garrantzia.

Euskararen komunitate aktiboan parte hartzeari prestigioa ematea edo erakargarri egitea lortu behar dugu.

Diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna garatzea.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Derrigortasunaren inguruko eztabaida egon da:

--> Ezagutu beharraren derrigortasuna.

--> Graduazioa

Adostasun handiagoa derrigortasuna balego, diskurtsoan modu inplizituan egon beharko lukeela.

HUSTUKETA

Taldearen ezaugarriak

7 pertsona egon ziren taldean. Bost emakume eta bi gizon. Emakumeetako batek taldea amaitu aurretik joan beharra izan zuen.

Gainerako 6ak iritsi ziren lau esaldi adostera, baina eztabaida handia egon zen puntuetako batetan (ez-adostasunen atalean bildu dudana).

Taldean hitz egindakoa

(Oharra: nahiko literal jarri dut eztabaida prozesua interesatzen zitzaizuela esan zenutelako)

Hasteko, txarteletan idatzitako bi ideiak irakurri zituzten. Txartelean daude, baina hemen errepikatzen ditut, emandako argudioekin batera.

- Ofizialtasuna beharrezkoa da, eskubidetik haratago joateko, euskara bizi mantentzeko eta erabiltzeko. Ez daukat zalantzarik. Orain gauden momentuan ez da erraza izango, baina aurrera begira helburua hori behar du izan. Bitartean gainontzeko guztia egin ahal daiteke, lege aldetik.
- Bitartean, euskararen erabilerari dagokionez, iristen garenerako, gazteekin lotuta, euskara modernitatearekin asoziatu behar da, eta euskarri teknologiko berriekin.
- Nik modernotasunak ez dakit zer esan gura duen kontestu honetan, eta uste dut euskarak jarraitu behar duela identitatea eta antzekoekin lotuta, baina lurralde eta eskualdeetako erritmo probableetara lotuta. Agian modernotasunarekin bai, baina aldi berean identitatea eta elementu horiek uste dut oso inportanteak direla, ze energia hori barik bestea zaila egiten zait.
- Hipotesi errealista batetan oinarrituta, ez dakit komunitate politiko bat inoiz osatuko dugun, baina hizkuntzak iraun dezaten, eta batez ere euskarak iraun dezan, errespetua eskatu behar da. Nik uste dut beste sektoreak, edo sektore erdaldunak egin behar duela momentu honetan ahalegin handiagoa. Eta Nafarroaren kasuan iruditzen zait hori dela inperatibo kategoriko bat, euskararekiko errespetua. Hizkuntzek jarraituko dute, horrek esan nahi du gaztelaniak jarraituko duela, baina beharrezkoa da euskararekiko errespetua, Nafarroan behintzat, zailagoa iruditzen zait Iparraldekoa irudikatzea.
- Giza komunitate bat zazpi lurraldeetan egiteko eginkizuna daukagu oraindik. Nire ustez klabeetako bat da hori da, hain zuzen, giza komunitate hori indartzea, ez dakit identitatearekin lotuta egon daitekeena edo ez.
- Giza komunitatea ez garen aldetik, euskara berez izan daiteke giza komunitate bat egiteko lokailua edo lotura, eta euskarak balio behar du hain zuzen ere giza komunitate horren komunikazio lotura hori egiteko. Beraz, diskurtso hori lotzen dut zentzu humanoenean, pertsonen arteko lotura horretan. Niretzat euskararen indar-guneetako bat da berak bere burua errebindikatzeko pertsona guzti horien, komunitate hori osatu nahi duten pertsonen, lokailu moduan, zentzu konstruktibo batetan.
- Niri harrigarria iruditu zait horrenbeste aipatu izana estatus juridikoarena. Iruditzen zait, askotan gure helburua dela estatus juridikoa aldatzea, lege berri bat etab., baina tranpa dela. Esan nahi dut, baita Nafarroan ere, daukagunarekin ere egin daitekeela lan dezente. Ez dut esan nahi honekin ez nagoela ados helburu horrekin, baina ez dadila hori traba izan, daukagunarekin lan egiteko.
- Elkarbizitza ere aipatu da dezente. Iruditzen zait tranpa bat dagoela ere elkarbizitzaren ideiarekin azpian, uler daitekeelako elkarbizitza dela hautu libre, baina oso egoera ezberdinean daude bi hizkuntzak eta orduan iruditzen zait elkarbizitza ez dela erabatekoa, hain egoera ezberdinetan dauden hizkuntzez ari baldin bagara. Desorekatua delako.
- Interesgarria da, badirudiela leku ezberdinetan gauza berdinez hitz egiten ari garela, eta badirudiela badela momentu hau eman nahi ditugun urrats horiek, normalizazio bidean eman nahi ditugun urrats horiek, eraginkortzeko. Eta ikusi dugula leku ezberdinetan, bai herri mugimenduetan eta baita herri administrazioan, momentu egokia dela. Hori interesgarria da normalean ez zelako gertatzen. Beraz, hau bada elementu bat abagune honetan lagungarria izango dena eta kontutan hartu beharko duguna.

- Iruditzen zait askotan egiten ditugula gauzak modu partzialean, hau da, uste dut diskurtso berria hitz egin behar dugula, baina diskurtso horrek kokatuta egon behar duela estrategia orokor batetan. Hitz egin beharko genukeela ditugun helburuei begira zein estrategia behar ditugun, eta horretarako definitu beharko ditugu gauza ezberdinak eta tartean diskurtsoak eta *framingak*. Susmoa daukat ari ote garen osotasun batean elementu bakar bat lantzen. Eta diskurtso horrek beste zerbaiti erantzun beharko liokeela, zerbait orokorrago bati.
- Nire ustez, gizarte ez-egituratua dauden pentsaerak ezagutu eta kontutan hartu behar ditugu. Gizarte ez-egituratua diodanean da ez politikoki, gizarte-mugimendu, ez elkarte, ez enpresa munduan, ez sindikatu, etab. Gure gizarteak erakutsi digulako urte guzti hauetan hizkuntza politika arloan eta euskararen arloan eta hautuak egiteko orduan, itzelezko heldutasuna erakutsi dutela, eta jokatu erakutsi digu zer uste duen. Adibidez, hezkuntzan urtez urte matrikula sasoiaren ereduak aukeratu behar izan direnean, eta hiru ereduko eskaintza eginda, urtean joan eta urteak etorri bere aukera egin dute eta egiten ari dira etengabe; eta horren moduan gauza askotan.
- Gizarte hori heldua delako, eta heldutasun hori erakutsi digulako, zor diogu egiten duguna egiten dugula datuetan oinarritutako eta taxuzko ikerketan oinarritutako diskurtsoak eraikitzea. Badakigulako diskurtsoak eraikitzeke orduan oso urrun joan gaitezkeela, agian urrunegi.
- Guk buruan daukagun eskema elebitasunarena da, bi hizkuntza dituen komunitate baten harremanez hitz egiten ari gara, eta gizarteak eleaniztasunerako saltoa eman du, gu konturatu ere egin gabe. Guk jarraitu egin dugu gaztelera eta euskararen artekoa eta gero beste elementu batzuk agertu dira. Nik uste dut horretan badaukagula zer ikasia. Hor badaude balore batzuk gizarteak jada hartu egin dituenak, eta nik uste dut euskararen diskurtsoak hortik baduela edatea. Jarrerak eta motibazioak aztertu eta ea parekotasunak aurkitzen ditugun. Modernitatea aipatzen denean, nik horrela ulertzen ditut gizarte modernoak. Aniztasunaren gizarteak dira, globalizazioa, etab. Balore batzuk jada ezarri direnak eta ez gaitezen gelditu gu gureari bakarrik begira.
- Erabilera helburua izanik, bereziki gazteei begira oso erraz jarri behar diegula, ez euskaraz egitea baizik eta euskara aukeratzea. Uste dut hor dagoela gakoetako bat. Euskara aukeratzea erraza izan behar dela beraientzat eta uste dut gaur egun ez dela. Eskaintzen duguna ez delako oso erakargarria, ... Askok aldatu direlako beraien kontsumo eta apetentzia markoak eta hor euskarak ez du parte hartu nire ustez. Modernoa eta erakargarria eskaini behar diegula. Eta nire ustez, azpimarratu behar da, kendu egin behar diegu etorkizuneko belaunaldiari arduraren zama. Hau da, "*euskaraz egiten ez baduzu herri hau pikutara doa*", nik uste dut zama hori oso pisutsua egiten zaiela gazteei eta ez dutela ulertzen. Beharbada guk ulertu dugu trantsizio hori bizi izan dugulako, baina uste dut belaunaldi berriak ez duela, ez debekua eta ezta ezintasuna sufritu eta orduan ez duela ulertzen nola bere mihi puntan dagoen herri baten etorkizuna. Eta iruditzen zait hori kaltegarria dela.

Eztabaida hasi da...

- Nik zamarena ulertzen dut, eta zamaren kontra nago. Nik atentzioa jartzen dut batez ere ikustean tokian toki badagoela erritmo bat. Eta erritmoa izaten da guk plano diskurtsibo-ideologikoan nahi duguna. Eta horrek ez dauka zerikusirik errealitatearekin eta ez datuekin. Eta ez hori bakarrik, gainera egin diren kristoren ahaleginak ez dira kontutan hartzen. Ze azken batean, ezker alde oso batean D ereduaren egotea umeen %95a, hori ez da baloratzen, ez direlako lortu helburuak ... Orduan zamarena ulertzen dut. Baina nik ez dakidan moduan zer gertatuko den maila politikoan, ez dakit inoiz sortuko den, lau herrialdeak elkartzea ere ez dakit sekula gertatuko den. Ba hor identitatearena beti pizgarria izaten da eta identitatearik gabe nik ez dakit zer esan daitekeen euskararen justifikaziorako, edo zein izan daitekeen. Nik badakit gizarte modernoak zer diren, baina ez dakidana da zer esan gura dugun euskara modernizatzearekin. Ze gazteek euskara egiten duteneko tokietan eurek sortzen dituzte euskaraz edukiak, eta eurek sortuko dituzte edukiak. Badakigu zeozker eman behar diegula erakargarria dena, ez dakidana nik hori zer den. Nik hanka bat identitatean eta halako kontuetan oraindik ipintzen dut, ze pizgarri hori barik nik ez dakit erakargarritasunak berak konponduko dituen kontuak. Zamarena zurekin guztiz ados nago. Eta gero helburuak jarri ere toki bakoitzak, edo ente lokal bakoitzak ematen duten posibilitate probableen arabera egingo da. Ez halabeharrez esan ba hemendik heldu behar da. Ez, helduko da heltzen den tokiraino.
- Nik hala ere ñabardura bat. Ni ados nago identitateetik abiatu behar garela, bestela diskurtsoa ez bada identitatearekin lotzen beste gauza batez hitz egiten ari gara, diskurtso erabat publizitario batez. Eta horrela kapaz izango ginatke oso diskurtso moderno eta txukun bat egiteko, baina ez badago konektatuta identitatearekin alfer-alferrik da. Behar bada hori da hainbat momentutan egin dena. Baina nik zamarena gehienbat, eta lotzen dut diskurtsoaren paradigmarekin ere, baina nire ustez historiaren

gehiegizko pisua jartzen diegu bizkar gainean eta azkenean ikusten gaituzte hizkuntzaren poliziak bezala. Eta badakit ez dela esan behar *aburrituta* nago, baina nire alabek esaten dute *aburrituta* nago, eta nik *aspertuta* esaten didan bakoitzean beste aldera begiratzen dute. Eta esango nuke nire generazioak, gutxienez, baduela gehi-ardura hori. Ez bakarrik euskaraz egin, baizik eta euskara perfektua egin, eta gainera horrekin herria osatzen ari gara. Eta beraiek beste klabe batzuetan mugitzen ari dira. Zentzu horretan esaten dut modernizatzea. Hau da, beraiek egiten duten kodea, ontzat eman eta errespetatu. Eta ez dut uste askotan egiten ari garenik. Denbora guztian espresio bidea herren dutela sentitzen baldin badute, azkenean ez dira espresatuko hizkuntza horretan.

- Nik agian beti klabe politiko batetan pentsatzen dudalako da, baina gaur Xabierrek aurkeztu dituen datuak alarma bat pizten dute, alegia euskararekiko dagoen kontrako edo pasoko jarrera, kopuruak lurralde batetik bestera diferentek izanik, kopuru oso altuak dira. Horrek adierazten du iragan bat, non eraiki eta konkistatu diren gizartean espazio batzuk baino beste batzuk edo galdu egin ditugu, edo oso zailak ditugu errekuperatzen. Beraz, euskal lurraldeetan bizi garenok, ez dugu euskararekiko jokaera berdina, eta ez daukagu jarrera berdina ere. Beraz pendiente daukagu lurralde horietan nahi badugu komunitate politiko bat egin, argi dago komunitate politiko horren aurretik komunitate humano bat egin behar dugula, gutxienez partekatuko duena baita ere basikoak diren elementuak, eta ez horrenbeste agian proiektu politiko bat. Basikoa den elementu horietako bat izan daiteke elkarrekiko identifikazio minimo bat izatea. Horri euskaldunok, geure artean, *komunitate linguistikoa* esaten diogu, baina ni hitz egiten ari naiz *komunitate soziolinguistikoa* batez. Hain zuzen ere ia, hiztun garenon aldetik eta hiztun aktiboak edo pasiboak direnen aldetik, elkarrekiko identifikazio minimo bat izatea. Eta horrek suposatzen du iraganean egin ditugun diskurtso batzuk mantendu behar badira ere irmotasun aldetik, beste batzuk askoz lasaiagoak egin behar direla. Eta hor klabe batzuk ditugu, hori modernitatera eramanda, eta klabe horietako bat da hain zuzen, bizi garela ez 1960-70-80ean baizik eta XXI. mendean, eta XXI. mendean bizi garen aldetik primatzen duen elementuetako bat da hizkuntza askotarikoak ditugula, gure lurraldean gainera hiru hizkuntza ofizial ditugula, eta aparte hizkuntza franko bat daukagu, ingelesa. Oso partekatua nitxoan artean. Eta horrek suposatzen du, dagoeneko helduak garenok eta atzetik datozen belaunaldi berriek partekatuko ditugula hizkuntza ezberdinak funtzio ezberdinetarako. Eta aldi berean ez daukagula zertan inposatu behar, ez bakarrik euskaraz soilik hitz egin behar dela, eta gainera euskaraz zuzen eta kultuz hitz egin beharra, baizik eta funtzio eta aldaera ezberdinen arabera eta tokian tokiko planteamenduen arabera egin beharko dela. Horrek azken batean daukana da ikuspegi estrategiko politiko batetik komunitate humano hori, komunitate sozial hori, nolabait ere gutxienez eraikitzea, jostea. Posible litzatekeen beste errekorrido bat egitea, horretan sartu gabe. Gutxienez, Xabier Letek esaten duen bezala, aberkide izatea ikuspegi soziolinguistikoa horretatik, eta beste ezertan sartu gabe. Hori nik uste dut dela ondorengo urte hauetarako diskurtso bat eraikitzeke garaian kontutan hartu behar dena. Eta poztekoa da agian hizkuntzari dagokionez koiuntura berri batetan gaudela, eszenario berri batetan egon gaitezkeela etab., ba orduan toki ezberdinetatik enfoke antzeko bat egitea, berdina ez bada ere. Orduan horrek ematen digu aukera bat diskurtso bat partekatzen hasteko, eta gutxieneko diskurtso bat egiten hasteko guztion aldetik. Eta horrek suposatzen du momentu batetan ia ados jartzen garen askotariko horren barruan euskaraz gutxienez identifikazio linguistikoa aktibo batetik pasatzea, aktibo hori izatetik baita ere pasibotasun horretan dauden askotariko pertsona, instituzio... nolabait esateko jarrera bat egitea. Hain zuzen ere gutxitu egin beharko genukeelako euskararen aurka edo *paso egiten* duten biztanleria. Ze gazteez hitz egiten dugu, baina zoritxarrez gure adin piramidean datozen urteetarako ematen dituen datuetan gauden helduen artean ere hori pendiente daukagu.
- Nik baditut lagunak irakasleak direnak eta gaztelaraz aritzen direnak, eta kezkatuta daude gaztelaraz haurrek duten maila Whatsapp bidez idazten dutenean. Baina nik esaten dudana da, nire gurasoek ez dute jakin izan nik idazten dudana maila, irakasleek bai diktadoak eta egiten, baina nik nire aita-amari inoiz ez diet idatzi 10 urte nituela, batek daki zelan idatziko ote nuen. Hori konpondu beharreko zerbait izango da, seguruena gaztelera edo euskaraz berdin, baina ez euskarri teknologiko horien kontra joanez. Baizik eta zein den errealitatea, eta irakaskuntza zelan egokitu behar dugun horretara.
- Ofizialtasuna inposaketarekin lotzen bada ni ere ez nagoela ados. Nik uste dut batez ere euskararen alde ez daudenean lotzen dutela ofizialtasuna inposaketarekin. Nik ez dudanez lotzen, nik modu naturalean ikusi nahiko nuke esatea, kasuan-kasu eta ahal den neurrian, eta denbora eta estrategiarekin, mesedea eskatzen ibili beharrean ez gaudela jada, edo ez genukeela egon behar hemendik aurrera, nolabait guregana ekartzeko euskararen alde eta kontra dudenak eta... Ez, ez. Orain D eredu hainbeste daude, ia gehienok dakigu, eta orduan jarrerarena ... Niri ez didate galdetzen gaztelararekiko ia zein jarrera dudana. Inork ez dit galdetzen. Inork ez dit esaten ia kontra nagoen edo ez nagoen. Ze alderdi politikok dauka hori bere programa politikoetan. Baina programan edukitzeak ez du esan nahi bihar edo etzi lortuko dela, badakigu zaila dela, badakigu zertaz ari garen, baina badira munduan hainbat kasu bi edo hiru hizkuntza ofizialak direnak. Orduan hor badaude portzentaje batzuk, eta

batzuk hitz egiten dute horrela edo bestela, identitate diferenteak daude, etab. Orduan ofizialtasunarena, agian ingenuidade osoarekin, ze nik badakit zein zaila den, ez dut inposaketarekin lotzen, baina iruditzen zait badela garaia hemendik aurrera esateko horra joan behar dugula. Bestela, mesedea eskatzen ibiliko gara denbora guztian. Mesedez, maitatu euskara, ... Eta euskara da gure hizkuntza eta orduan denok eskubidea eta beharra izan beharko dugu, erabiltzen eta jakiten.

- Ados nago diozunarekin. Baina dena den iruditzen zait hizkuntza bat ofiziala izateak ez dituela gauzak konpontzen. Lagungarria izan daiteke, baina Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian hori gertatzen da, bi hizkuntzak dira ofizialak baina ez daude egoera berdinean. Kontuan hartu behar da hizkuntza bakoitza zein posizioetan aurkitzen den momentu horretan.
- Ez, baina ni horretaz ari naiz, eh! Batean baduzu beharra ezagutzeko eta bestean eskubidea bakarrik. Baina ni ari naiz esaten, ofizialtasuna diodanean da biak parean hartzea, jakina. Orduan ofiziala baldin bada, planak egon beharko dira hemendik ez dakit zenbat urtetara ez dakienak ikasteko.
- Orduan ofizialtasunaz ari zarenean derrigortasunaz ari zara?
- Bai, bai, ofizialtasuna eta derrigortasuna.
- Hori ezberdina da.
- Bai, bai... orain ofiziala da, ni horretaz ez nago hitz egiten. Orain ofiziala da eskubide bezala. Eta nik esaten dudana da, gure kasuan gaztelaniarekin parekidetasuna ez bada lortzen, beti egongo garela erabiltzeko zailtasunekin. Erabilera hedatzeko zailtasunekin, nahiko genukeen bezala esan nahi dut. Horren bila goaz, ezta? Gero eta gehiago erabiltzera. Ze gazteek badakite baina gero ez dute erabiltzen haien artean, edo gutxitan.
- Ni ez nago ados horrekin. (atera behar izan du eta ez du argumentatu)
- Ofizialtasunaren diskurtsoa nik uste dut behin ere galdu behar ez den diskurtsoa dela. Hizkuntzak eduki behar duela estatus bat eta estatus horrek eman behar dizkiola berme guztiak bere garabiderako nik uste dut behin ere galdu behar ez den diskurtso bat dela. Ni gehiago planteatzen ari naiz momentu honetan Iparraldean, zein Nafarroan Iruñetik beherako lurraldean, ofizialtasuna izanda ere Euskal Autonomia Erkidegoan ditugun arazoak izango ditugula. Bestalde, ikastoletan egin dugun ibilbidean ofizialtasunak asko lagundu du. Eta misio historiko hori, alegia, herri honetan belaunaldi guztiak euskalduntzean lagundu du ikaragarri ofizialtasunak, baina lagundu du ikaragarri gobernuak berak nolabait ere politika aktibo batzuk irekitzeko ofizialtasun horren inguruan. Horiek noski beharrezkoak eta ezinbestekoak dira, diskurtso hori ezin da inondik ere rebajatu, baina gehiago planteatzen ari naiz beste klabe batetan, eta gehiago da hori izanda ere ez nintzateke izango koertzio edo derrigortasunaren planteamendu bat aurrera eramatearen aldeko. Hain zuzen ere pentsatzen dudalako komunitate linguistikoaren arteko arazoak berehala gertatzen direla, eta euskara hain hauskorra da besteekiko lehian demostratu behar duela, edo dugula, gutxi hitz egiten duten horiei edo gutxi dakiten horiei, abilago garela, alegia David bat garela Goliaten aurrean. Eta beraz erabili behar ditugula estrategia askoz inteligenteagoak kopuruz handitzeko hitzun kopurua, kopuruz handitzeko euskararekiko jarrera baikorra izango duten familiak bezala beste herrikideak, eta horrek garatu dugun korpusaren aldetik eta bestelako espazioen aldetik, emango digula aukera lehiazteko beste hizkuntzekin, beste hizkuntza komunitateekin. Izango garelako azkarrenak, jakingo ditugulako hiru-lau hizkuntza, eta horrek emango digulako aukera geurea den neurrian komunitate soziolinguistiko hori batzen duena euskara izatea, eta aldi berean ni erdaraz moldatzen naiz, frantsesez moldatzen naiz, ingelesez moldatzen naiz, eta, agian, bosgarren hizkuntza batetan moldatzen naiz. Eta horrek ematen dit abantaila konpetitiboa pertsona bezala, eta nire giza komunitate osoari ematen dio beste edozeinen aurrean egiteko aukera. Herri txikia gara, 3 milioi biztanle baino ez gara, eta horrek egiten diguna da gure konpetentzia komunikatiboa klabeetako bat izatea. Eta klabe hori da euskaldun izatea, baina aldi berean eleaniztun izatea. Beraz nire giza komunitatea nahi dut izatea ahalik eta eleaniztunena, baina euskalduna. Eta horrekin nire etorkizuna planteatzen ari naiz, egin dut planteamendu erresistente bat, XX. mendearen bigarren zatian, planteamendu erresistente horretatik klabe batzuk gorde behar ditut, ikasi dut: ofizialtasuna behar dut ezinbestez, behar dut nire korpusa, normalizatzeko nire hizkuntza behar dut korpus hori hedatzea bizitzako alor guztietara, behar dut irakaskuntza zein bestelako esparruetan elementu estrategikoak direnak mantendu, ... Baina ez daukat, eta azken 50 urtetan egin dugu aurrera pauso bat, oraindik estrategia perfilatu bat nolabait ere giza komunitate bat egiteko. Ez dugu eduki, baina eduki dugu borroka politiko fuerte bat, gure artean zatiketa ekarri duena, baita euskaldunon artean ere. Baina orduan orain daukat abagune bat, abagune historiko bat, eta politiko bat, berreraikitze eta josteko nire oihala soziala, pertsonen arteko oihala. Eta hori ezin da egin *tortilla, al monte, txistu y tamboril*, hori egin behar dut planteamendu moderno batekin, planteamendu abangoardista batekin eta egin behar dut konpetentzia komunikatiboa zabalduz, eta nire herrikideak eta hurrengo belaunaldiak izan dezatela

ez bat, bi hiru, ... elebakartasunaren planteamendua ez dut inondik ikusten, eta ez dut ikusten derrigortasuna. Planteatzen dut gehiago bestelako planteamendu sendoago bat, hizkuntza funtzioak aintzat hartuko dituen. Eta onartzen dut euskara hainbat aldiz ez dugula erabiliko, ingelesa erabiliko dugulako, edo frantsesa, edo... Baina euskarak izango du erabilera aktibo horretan oso leku inportantea, eta hori identitatearekin lotuta egongo da. Identifikatuko naizelako edozeinekin euskaldun moduan.

- Nik uste dut ados egongo ginatekeela denak eleaniztasunaren ideia horrekin. Baina horren baitan zein toki nahi dugu euskararendako. Identitatea da nire etxean nire senarrarekin nire etxeko hizkuntza izango da? Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta hobeki, garbi dago. Eta horietako bat izango da euskara, menperatuko duguna hobeki, okerrago, ... Baina zertarako nahi dugu euskara?
- Esan duzu horietako bat. Baina niretzako ez da horietako bat. Da zure oinarria eta gero egongo dira beste batzuk. Niri iruditzen zait herritar eleaniztunez osatutako Euskal Herri euskaldun bat, simple esanda. Herritarrak dira eleaniztunak direnak, eta ardatza euskara da. Gaur egun ikastoletan ikasten dutenak dira eleaniztunak direnak, ez A ereduan ikasten dutenak. Eta euskaratik abiatzen dira eta euskararen oinarrituta eleaniztunak dira. Beste hizkuntzek izango dute esparru batzuetan erabilera bat edo beste; ingelesak izango du bere espazioa, ditugun harreman batzuetan, euskarak edukiko ez duena, baina ardaztuko duena euskara izango da.
- Ez dakit hain garbi daukagun denok. Uste dut hemen gaudenok kezka berezia daukagula hezkuntzarekin eta guretzat oso garbi egon daitekeela hori, gure funtsetako bat dela hizkuntza, dela euskara etab. Baina ez dakit nik hain esportagarria den hori, hain hedatua dagoen edo hain asumitua.
- Ez dakit asumitua dagoen, baina niri iruditzen zait hori horrela izan dadin lan egin behar dugula.
- Eta horrekin lotuta, iruditzen zait oso arriskutsua berak esaten duena. Ados nago, zurekin derrigortasunarena oso arriskutsua da. Oso kopuru eta portzentaje handia delako euskararen kontra dagoena.
- Uste dut modu naturalean asumitu dugula laburtzea galdera horiek euskararen kontra daudenak bezala. Eta galdera egina dagoen bezala, euskararen kontra egotea baino euskara sustatzearen kontra dagoen jendea da, eta ñabardura horiek oso inportanteak dira. Gure maila diskurtsiboan dagoen gakoetako bat dela esango nuke.
- Eta horrek izutzen gaitu gainera.
- Izutzeko moduak dira datuak, eh!
- Ni derrigortasunaren kontra nago, baina ez horregatik, ez kontrako jarrerak egongo direlako. Uste dudalako baizik ez dela bidea derrigortasuna edozein hizkuntza berreskuratzeko. Ez dut gura ere nagusia den hizkuntza, gaztelania, derrigorrezkoa izatea eta bada, jakin behar da. Eta ez dut gura euskara berreskuratzerik gaztelaniarentzako dagoen babes neurri hori bera erabilita.
- Baina Alemana derrigorrezkoa da Alemanian bizi direnentzat? Eta hori txarra da? Zu toki batekoa zara eta toki horretako hizkuntza ofiziala hartzen duzu.
- Eta horrela segitzen badugu pasa ditzakegu 80 urte eta egongo gara orain gauden bezala. Eta hizkuntza bate normalizaziorako zenbat eta urte gehiago pasa egoera berdinean atzera egiten da.
- Baina Alemanian Alemana jakin badakite, eta Alemana normalizatu beharrik ez dago. Ezin ditugu konparatu errealitateak.
- Bai, baina orain arte egindakoa ontzat emanda, eta jakinda hainbat gauza daudela oraindik egiteko, nik esaten dudana da, hizkuntza dela, hizkuntza bat edo gehiago, toki bateko hizkuntza. Eta toki horretan bizi direnen eta joaten direnak bizitzera eta abar, hizkuntza hori edo horiek hitz egiten dute. Orduan hori horrela bada, Euskal Herrian izan beharko luke. Eta hori izateko zer motatako prozesua eraman behar dugun, hori da nik esaten dudana. Ez dut esaten bihartik aurrera ez dakitenek, eta gainera kontra dauden horiek guztiek, ez dute lanik izango eskatuko delako ez dakit zer... Hori prozesu bat da. Baina nik esan nahi dudana da, orain arteko prozesua, gauden tokira iristeko baliabide batzuk oso beharrezkoak izan dira eta euskararekiko leialtasun hori lortzeko, etab. etab. Eta hori desagertu barik, ona delakoan, eta agian oraindik behar delako segitu bide horrekin, baita ere ausartago edo izan beharko genuke nolabait esateko: "helduak gara, iritsi gara honaino eta orain nik nahiko nuke, etxebizitza eskubidea aldarrikatzen den bezala, gutxienez aldarrikatzea ozenki hori [derrigorrezkoa izatea]" eta ez du ikusten hori. Hori da nik prozesu honetan ikusten ez dudana. Eta agian gero egongo dira, alderdi politikoetan oinarritu, edo alderdi politikoaren atzetik komunitateak, batzuk egongo dira alde

eta beste batzuk egongo dira kontra. Baina behintzat aldarrikatzea eta saiatzen lortzea, prozesu zibilizatu baten bitartez, jakina.

- Niri iruditzen zait gauzak nahasten ari garela. Gauza bat dela, daukagun hizkuntza politika, egokia den edo beste bat behar dugun, ados egon gaitetzkeela edo ez. Eta beste gauza bat da, egin nahi dugun hori nola justifikatu, nola bideratu, edo diskurtsoa. Iruditzen zait praxia dela gauza bat, baina iruditzen zait ez dela gure eginkizuna hizkuntza politika baloratzea edo beste berri bat proposatzea. Baizik eta diskurtsoaz aritzea eskatzen digutela. Orduan derrigortasunaren beste muturrean oso maiz erabiltzen da eta hemen aipatu da, sedukzioarena. “*Seduzitu ditzagun alde ez daudenak, kontra daudenak*”... eta iruditzen zait presenteeegi ditugula epelak edo kontrakoak. Eta gure diskurtsoaren oinarrietako bat izan behar direla euskaldunak. Guneak direlako. Komunitatearen erdigunean daudelako. Ez dut esan nahi lan egin behar ez denik erakartzeko, seduzitzeko, limurtzeko, ... baina ahaztu egiten zaigu biziberritzearen klabeetako bat gudan dagoela.
- Niri agian datuak eskandaloso xamarrek iruditu zaizkit zenbaki aldetik, baina bueno tarteka ere errealitatean hanka jartzea ez dago gaizki. Bizi izan ditugun urtetan euskarekiko kontrako jarrera eta kontrako ikuspegia nik maiz ikusi dut. Eta nik hemen islatuta ikusten ditut hezur eta haragi pertsona batzuk.
- Gaur egungoak ere bai?
- Bai, baita ere. Egongo da jende bat oraindik diotena “*ez, ez, ni euskararen aurka ez nago*”, baina nik uste dut kontrako jarrera edo paso egiten dutenak oso handia dela gure inguruan. Ez dezagun ahaztu, bai Iparraldean eta bi hegoaldean, euskararekiko eta euskaldun hiztunekiko mendeetan zehar egin den lana, eta bereziki azkeneko 150 urte hauetan. Gaur egun bizi dugun egoera zenbakitan ez da kasualitate baten emaitza. Frantsesaren historia hartzea besterik ez dago, eta Iraultza Frantsesean zenbat hiztun zituen eta zenbat dituen gaur, eta euskal iparraldean zegoen euskararen presentzia eta gaur egun dagoena. Beraz kontziente izan gaitezen iritsi garela egoera batetara diren faktoreak direlako, eta horiek kontutan hartu behar ditugula. Baina gure obligazioa noski dela nukleo hori indartzea, ezinbestez. Hor dago euskararen jarraibiderako aukera bakarra. Eta horiexek **gara** erabaki behar dugunok erabiltzen dugun hizkuntza hori eta hizkuntza horren atzean dauzkagun balio, sentimendu, kultura, etab. trasladatu nahi ditugun hurrengo urtetara. Zer egiten dugu? Mantenduz nukleoa bere horretan eta modu naturalean erreproduzitzen, ala zabaltzen dugu hiztunen kopurua eta hiztun horiekin batera zabaltzen ditugu baita ere hizkuntza eta hizkuntza hori erabiltzen duten hiztun horiekiko jarrera positiboagoa. Ze haiek ez dute egingo! Norena da horren egitekoa? Hiztunena. Baina norena den hain zuzen ere proiektu batekin lotzen baldin badugu. Nahi dugu benetan hiztunen komunitate txiki hori zabaldu, bai ala ez? Eta beraz, komunitate handiago bat egin behar dugu. Eta bizi garenez ez erreserba batetan, baizik eta gizarte zabalago batetan, globalizazioa mugitzen den mundu batetan, lehiatu beharko dugunez beste hiztun batzuekin, gure hizkuntzak ere aurrera egin dezan, ba guk baliatu beharko ditugu estrategiak eta beraz diskurtsoa, niretzako derrigortasunetik pasatzen ez dena. Zergatik? Minoritarioa naizelako. Derrigortasuna zeintzuk erabili dute beti? Erabili dute beti momentu batetan edo lege-indarrez edo armaren indarrez edo bestela inposatu dezaketenenak. Tentazio handia izan daiteke, aukera hori izan ezkeror zer egingo ote genukeen. Baina ez dezagun espekulazio faltsurik egin. Gurea ez da, hain zuzen ere legearen indarra, armen indarra, demografia baten indarra.
- Horrekin ez duzu lotu behar dena den. Hori tranpa da.
- Ez baino bada ikuspegi politiko batetik erraz eror litekeen tranpa bat. Eta zailagoa da, konplexuagoa da, baina nik uste dut eraikitzaileagoa dela, komunitate txiki minorizatu horiek eraikitzea eta anpliatzea bere esparrua bai afekzioz eta bai aktibotasunez. Aktiboak egin behar ditugu euskaldun berri pila bat. Baina aktibo egiten ez direnekin, pasibo horiekin nik uste dut jarreraz nolabait aldatu egin behar ditugula. Eta hori oso epe luzeko lan bat da.
- Ni beti izan naiz oso tipo biguna gauza hauetan, nik ez dut sekula sustatuko errealitatearen kontra doan proiektu bat. Baina kontua da, esaten denean “*guk ontzat ematen dugu orain arte egin dena?*”, ba orain bai, duela hamar urte ez, ze hemen egon da kristoren borroka politikoa horren inguruan. Orain konturatzen gara zein zailtasun eta zer nolako mugak dituen euskarak. Eta mugak sozialak dira, mugak ez dira politikoak, ez dira legearenak. Zeren argi dago Erkidego honetako legeak noraino permititu izan duen joatea, Nafarroakoak noraino eta Iparraldean gertatzen denak noraino. Orain hasi gara kontsentsu bat edukitzen, esanez “*ez dago hain txarto egin dena*”. Beste kontu bat da zer nolako arazoak ditugun; jakiteak ez duela erabilera ekartzen. Eta orduan errelato berri bat behar dugu, eta diskurtso berri bat behar dugu. Baina nik diskurtso horretan BETI sartuko nuke derrigortasuna. Ez nuke agian planteatuko nabarmenki baina praktikatu bai, eta inplizituki hor egon dadila. Nik horregatik identitatearekin eta gauza hauekin lotzen dut. Zergatik? Bestela paso egiten dutenak asko direlako, eta aurka daudenak asko direlako. Lehenengo eta behin, gizarte honetan badago sektore bat euskara ezertarako behar ez

duena, eta ezertarako beharko ez duena, badituelako bestelako kapital ekonomiko batzuk, bestelako kapital kultural batzuk, etab. Eta horien ondorioz kaltetua agertzen dena da ezer ez daukana eta azken batean euskara saltoa egin behar duenak, eta saltoa egiten ez badu gehiago kaltetuko da. Eta orduan nik ikusten dudanean ezker alde osoa euskarara inkorporatzen dela, nik horri kristoren meritua ematen diot. Baina horiek azken finean zergatik pasa dira euskarara? Uste dutelako euskara derrigorrezkoa dela eta oso baliozkoa dela euren karrera pertsonalerako eta euren promozio pertsonalerako...

- Baina derrigorrezkoaren ondoan zer ezartzen duzu?
- Nik kohertzio sozialaz hitz egiten dut. Eta kohertzio soziala da esatea "*hemen hau da eredia*". Eta eredia guk inplizituki esan behar dugu, eredia euskaratik pasatzen dela. Beste gauza bat da gero eleaniztasunera helduko gara, beste erremediorik ez daukagulako. Agian ondo baloratzen dugulako, agian praktikatu ere ezin dugulako egin elebakartasuna. Ze nik ez daukat ezer eleaniztasunaren kontra, nik ez daukat ezer beste hizkuntza asko maneiatzeran kontra, sektore batek bost sei hizkuntza maneiatzen baditu askoz hobeto. Elite bat badaukagu euskalduna izateaz gain beste hizkuntza batzuk dituenak, ba oso ondo... Baina euskalduna izan dadila. Eleanitza, baina euskalduna izan dadila. Hori da sustatu behar dugun elite bat. Hori izan dadin eredia, eta jendeak hori jarraitu dezala. Nik horregatik esaten dut identitatearena eta errespetuarena. Hemen aurka daudenek eta paso egiten dutenek, hasi beharko dute euskara errespetatzen. Bi edo hiru gauza mantendu egin behar dira errelato bat egiterakoan, izan daiteke seduktorea, izan daiteke elite bat mantentzea, baina kohertzioaren eta derrigortasunaren ideia inplizituki egon behar da.
- Horretarako ez dugu urrutira joan behar. Datu bat bakarrik. A, B eta D ereduak hezkuntzan jarri dira, eta A ereduaren kontra egon gara azken urteetan, neur pertsonalki ere bai, baina errekonozitu beharra daukat estrategiak abantaila bat zeukala, gurasoek aukeratu dutela euren seme-alabentzako nahi zutena. Eta kosta ala kosta, 30 urte kostatu delako, gaur 40 urtetik beherako gurasoen gehiengo handi handi batek euskaraz ez jakin arren, eta euskararekiko ez dakit zein jarrera izan arren, B eta D ereduaren inguruko aukera egin du. Beraz, izan daiteke kohersio giro sozial bat egon delako, baina derrigortasunik ez. Eta horrek badu balio inportante bat, zeren Katalunian egongo dira beti borrokan behartu egin dituztelako umeak Katalanez ikastera. Eta hemen aldiz esan dezakegu gurasoek aukeratu dutela.
- Diskurtsoaz ari bagara, eta diskurtsoan lehen planoan baldin badago derrigorrezkotasuna, atzera botako ditugu epelak eta kontra daudenak. Horrela ulertzen nuen nik derrigortasuna zure ñabardura entzun arte. Beste kontu bat da, guraso horiek inplizituki sentitu dutela derrigor zela bere seme-alabak euskarazko ereduaren ikastea, ona zela. Baina diskurtsoaren ikuspegitik ez da ñabardura txikia nire ustez. Nik derrigorrezkotasuna entzuten dudanean, nire marko mentalak toki batetara eramaten nau. Nire inguruan gertatzen ari zait geroz eta gehiago, familia askok esaten dutela "*A, B, D ez, izatekotan eredu euskaldun bat aukeratuko nuke, baina hori hala eskola ingelesa ala alemana?*" Baina klabe berdina da funtzionatzen ari dena, hau da, "*ongi etorriko ote litzaidake*". Horregatik esaten dut klabe horiek zein diren zehazki eta motibazio horiek begiratzea interesatuko litzaigukeela.
- Baina hori %5aren arazoa da eta guk politika egin behar dugu %95arentzat. Hau da, eskola ingelesera edo alemanera edo euskarazko goi mailako eskola batetara, hori oso diskurtso mugatua da, oso jende mugatuarentzat.
- Keba! Nafarroan klabea da. Nafarroan euskararen kontrako diskurtsoaren klabeetako bat da. Ingelesa vs. Euskara.
- Baina ez kolegio ingelesetik pasatzen dena.

Lau ideiak zehaztearen prozesua

- Badira gauza batzuk beharrekoak izan behar direnak, baina komunikazio aldetik ideia marko hori elikatzea gure kontrakoa da. Tontoak izango ginatke hori elikatzen egongo bagina. Inposizioarekin lotzen den zerbait delako. Orduan horri aurre egiteko, guk bilatu behar ditugu beste ideia marko batzuk, elikatzen dutenak hori azkenean, derrigortasun hori. Azkenean da nola kontatzen duzun historia. Eta askotan ez dugu asmatu horretan. Askotan gure helburuen kontra ibiltzen gara ere.
- Derrigortasun inplizitu batekin ados egon gaitzke?
- Nik derrigortasuna deitzen diot, jendeari zuk eskaini diozun ereduaren aukera oso inportante bat, eta ona izan daitekeela goranzko mugikortasunean, zuk nolabait ipintzen ari zara hor amu bat, esanez aukeratzekotan modurik naturalenean nik euskaraz aukeratzen dut. Eta nik uste dut, gaur egun, behizat Erkidegoan, Nafarroan beste kontu bat da, euskara badagoela lotuta momentuz nolabaiteko goranzko mugikortasun batekin. Hori horrela izateko lanean jarraitu egin behar da. Kohertzio hori da,

zuk bi portaera dituzunean alternatiba modura zein hartzen duzun naturalen modura, eta hori euskara izateko zer egin behar den. Nik hori diskurtsotik sekula ez nuke kenduko. Gero beste gauza bat da politiketan zelan zehazten den, zer nolako bideak eta prozedurak jarri behar diren. Baina hori inplizituki egon dadila.

- Nik aitortzen dut derrigor hitza entzuten dudanean pizten zaidan alarma bat dela, ulertzen dudala ordea zer dagoen horren atzean. Ulertzen dut horrek marka mental horretan egon beharra duela. Gainera kontrakoa atzera pausu bat litzateke. Hori pixkanaka-pixkanaka joan da geratzen. Nire ustez hori ahuldu egin da eta ezer egiten ez bada gehiago ahulduko da. Derrigorrezkoa zelako euskara funtzionario izan nahi baduzu, eskatuko zizutelako, eta nola badakigun funtzionario gehiago ez dela produzituko herri honetan.
- Baina atzetik datozenak badakite euskara jakin beharra dutela.
- Begiratzen badugu gaur egungo gizartean zer nolako aurrerapausoak eman diren gure herrian hainbat taldeen eskubideak bermatzeko, eztabaidatsiak izan direnak dudarik gabe, eta eztabaidatsiak izaten jarraituko direnak, adibidez homosexualen kontua, etab. Joera izan da, eskubidea denean, ahal izan denean, hau da, boterean egon denak hori aurrera eramateko gaitasuna izan duenean, lege bihurtu du. Hor derrigorrez hainbat gauza bermatu behar izan dira. Nik esaten dudanean derrigorrezko egitea, ez dut esaten bere garaian euskaraz egiteagatik eskolatan egiten zutena egitea. Hari naizena esaten da, gaur egun eskubidea den neurrian, eta gizarte moderno zibilizatu-aurreratu batetan bizi garen neurrian, bide hori ere pixkanaka-pixkanaka zabaltzen joan beharko dugula. Eta orduan gauza batzuk edo derrigorrez egiten duzu edo ez da egiten. Adibidez, emakumeena administrazio kontseiluetan, legebiltzarrean, Derrigortasun horretaz ari naiz.
- Baina derrigorrezko eginda ere badakigu lege markoak gauza batzuk ahalbidetzen dituela, baina ez duela arazoa konpontzen.
- Dena den, diskurtsuoz ari gara, zer esan behar dugun!
- Nik badut esaldi bat: ***“euskara zentroan daukan eleaniztasunaren aldeko hautua egin era progresiboan”***.
- Ni erabat ados horrekin.
- Nik jarri dut hitzetan, baina destripatua egon daiteke, identitatea da osagai inportante bat, aniztasuna edo eleaniztasuna, lege babesa derrigortasunean eta sartu gabe, eta baliagarritasuna edo zentzu praktikoa hori, ez instrumentala, baizik eta ***“baliagarria zait nire bizitzan”*** zentzuan.
- Nik uste dut erabiltzaileak garen moduan, gure eguneroko bizitzan egon dadila. Gaur egun denok ditugu *smartphonak* eta internet etab. eta hor gazteek eta erabiliko dute ingelesa nahieran.
- Nik modernitatearena ez horrenbeste euskarriengatik, edo teknologienengatik, gehiago beste elementu horienengatik, baina eleaniztasuna inplizituki darama horrek. Marko bezala, oraindik jarraitzen dugu esanez euskara Europako hizkuntzarik zaharrena dela. Eta? Zer beste esan dezakegu balioan jartzeko? Historiari agian gehiegi begiratzen diogu.
- Lehiakorra izatea. Lehiatzeko aukerak balioa ikaragarria da. Irakaskuntzan egin den aldaketa egin den tokietan izan da administrazio publiko batek apustu batzuk egin dituelako, legeak behartuta edo ez behartuta edo dena delakoa. Baina lehia horretan sartu da hain zuzen ere 60. hamarkadatik hasita baten batzuek egin zutelako apustua euskararen inguruan, ez mistikoa, tartean egon zen zerbait; ez abertzalea, tartean egon zen zerbait; ez elebakartasunaren ikuspegitik, tartean egon zen zerbait; baizik egin zuten diskurtsua %95entzako izan zen elebiduna, lehiakortasuna seme-alabei emango ziena, etab. Eta horrek eman du hain zuzen zirkulua zabaltzera, zeren eskolak hori dauka, umea sartzen da baina harekin aita eta ama etortzen dira, aitona-amonak, izeba-osabak... sozializatzeko modu bat da. Ba zenbat eta gehiago egiten duzun diskurtsu bat euskaratik, ez endogamikoa baizik kanpora begira, elite bat sortzen duzu, eta elitearekin batera izugarritzko ereduak. Bertsolaritzan berdina gertatu zen. Bertsolaritza 80. urtean zegoen baserri giro batetan, eta aldaketa egiten ari zen orduantxe. Planteatu zen, bertsolari berriak behar ditugu, gazteak. Eta sortu zen ikastolen inguruan eta gero bertso eskolen inguruan mugimendu bat. Haien sortu zuten elite bat. Baina elitearen inguruan kristoren bertsozale pila egin zen, Anoeta betetzen zutenak hasieran eta orain BEC-a betetzen dutenak. Eta orain bertsolaritza da beste fenomeno bat, garai bateko Mattinek eta Lazkao Txikik pentsatu ere ezin zutena. Ba gaur berdin euskararekiko egin behar duguna da elementu nuklear horiek tinkotuta, baina elementu periferiko horiek bihurtu nuklearrak. Eta horrek suposatzen du zuk oso lehiakorra izan behar duzula, konpetitiboa izan behar duzu, oso konpetitiboa. Horrek emango dizu indarra, zergatik? Ba ni naizelako enpresari bat, Estaturik gabeko enpresari bat. Eta ezin dut besterik egin nik lehiatu egin behar dut. Eta lehiatzen dut eskola erlijiosoaren kontra, eta azkenean B eta D ereduak jarri behar ditu. Eta sortu zen

Ikasbi ikastola markatzeko, ez beste ezertarako. Lehiakorra naizen neurrian kohertzio hori egiten dut, derrigortasun gabe.

- Hori izan daiteke beste ideia bat: *“behartuta gagoz, hezkuntzan, esate baterako, ereduak guk markatzera, euskarak markatzera”*. Hori ikastolen kasuan egin dago. Ikastolak hasten dira ingelesa sartzen eta automatikoki besteei behartzen diete ingelesa sartzera. Hau da, agendak geuk inposatu behar ditugu. Horregatik niretzat inposizioa, koherzioa eta hori niretzat ez dira berba arraroak. Eta oso ondo esan duzue aipatu dituzuen emakumeen borroka eta hainbat kontu... Dugun arazoa da emakumearen aldeko hautua gizarte osoarena da, eta euskararen aldekoa gizartearen zati batekoa. Hori immigrazioaren kontuarekin oso argi ikusi dugu. Ezin duzula promozionatu berdin generoen borroka edo estereotipoen aurkakoa. Baina ni joango nintzateke ereduak markatzera.
- Problema hitzak dira, eta hitz batek kontesturik gabe sekulako pelikulak egiteko aukera ematen dizula. Kohertzioak, konpetitiboak izateak,...
- Zuk lehen esaten zenuen gazteei zama hori kendu egin behar zaiela, eta ildo horretatik ere nik uste dut gaur egun eta hemendik aurrera, saiatu beharko ginateke euskarari zama bat kentzen, eta da erabilgarritasunaren zama. Hau da *“¿para qué vale?”*. Balio du gure hizkuntza delako, eta gure artean komunikatzeko. Besterik gabe. Gero ziurrenek negozioak egiteko ba ingelesa edo frantsesa jakin beharko dugu. Baina euskara berez gure hizkuntza delako. Agian tontakeria handi bat ari naiz esaten. Baina Euskal Herrian denok euskara jakingo bagenu ere, gure artean komunikatzeko balioko luke, baina ez kanpora zoazenean. Beraz, listo! Guk hor egiten dugu, gure arteko hizkuntza da.
- Agian beste modu batetan esan behar da: *“Euskararen etorkizuna, gizarte eredu zabalduenekin lotu behar da”*. Gizarte ereduak inposatu. Baina ez dugu esan nahi inposatu, ez dugu esan nahi derrigortu,...
- Ez daude ados...
- Moda munduan badira pertsona batzuk tendentzia markatzen dutenak. Nola esan hori errazago? Liderren garrantzia?
- Hitz egiten ari gara liderazgoaz beraz, baina lidergo motibatzaile bati buruz. Ez lidergo inposatzaile bati buruz.
- Beraz *“lidergo motibatzaile/eraldatzaile baten garrantzia”*? bai ados.
- Eta oso inportantea da ere bai, nola lotu eleaniztasuna lurraldeka. Hor ere kontua hartzea, nola jokatu behar den. Edo zein garrantzia eman behar zaion tokian tokiko bilakaerari.
- Nik uste dut matrikulatzen diren umeak, ez dira izaten bakarrik hizkuntza batetan edo ez dakit zein ikasketa egin behar dituztelako, da ere familiak euren artean sozializatzeko edo harremanak izateko modu bat. Eta euskararekin lotuta eman duzun ideia horren inguruan, nik uste dut euskarak behar duen diskurtsoa dela momentu honetan, *euskararen komunitate aktibo horretara pertenezitzeko edo horretako kide izateko nolabaiteko inbidia edo prestigioa ematen duen zerbait bihurtu behar dela*. Nik zure taldeko kide izan nahi dut. Eta ez banaiz hiztun aktiboa ere zurekin nago, zergatik? Zuk adierazten duzun liderazgo horrekin identifikatzen naizelako. Eta nik posible ez badut ere, nire seme-alabak eramango ditut, baina ni zurekin nago. Euskara esaten dugunean beti despertsonalizatu egiten dugu eta hori tranpa da, euskara batzuek daukagu. Batzuk horiek nahi al dugu hizkuntzarekiko erreserbatu eta esan *“ni euskalduna naiz eta zu ez”*, ze hori egin izan dugu, ala nahi dut zenbat eta gehiago euskara mitifikatu egiten den neurrian nahi dut denekin partekatatu eta beraz nahi dut, Pilarrek orain euskaraz ez dakiena, sentitu dezala nirekin egotea inportantea dela.
- Ados esaldiarekin?
- Kendu inbidia. Euskara izan dadila erreferentea. Hori da erreferentziaren teoria famatua.
- Eta erantsi erakargarritasuna.
- Orduan, *euskararen komunitate aktibo horretara pertenezitzeko edo horretako kide izateak nolabaiteko prestigioa edo erakargarritasuna ematen duen zerbait bihurtu behar dela*.
- Influentzia zirkulu horiek berez badauzkanak euskarak, edo dauzkagunok euskal hiztunok, sortu ditugu influentzia zirkulu batzuk. Baina ez ditugu aprobetxatzen. Eta lotzen dut lehen aipatu duzun ideiarekin, euskaldunontzat ez dugu mezurik sortu.
- Harrotasuna izan behar dugu, lortu denaren gainean, ez garenaren gainean...
- Ez dugu harrotasun bat sortu. Beti ari gara esaten gutxiengo baten parte garela. Eta nik uste dut hori oso barneratua daukagula.

- Bai, baina Gipuzkoan nor agintzen du, euskal kulturari nor agintzen du,... Ez dut esan nahi Bilduk, esan nahi dut euskaldun mundu hori...
- Pertinentzia sentimendu bat da.
- Harrotasun edo ongizate sententzia bat izatea euskalduna zarelako.
- Oraingo euskaldunari nik uste dut ez zaiola aitortu egindakoa, denbora guztian daramaguna da, txiki, minorizatu, hizkuntza gutxitu, zaila da, ezertarako balio ez duena,... bada ondare kultural bat, baina izan zitekeen *kromlech* bat baina euskara tokatu zaigu. *Rolls-Royce* bat da baina orduan garajeon egon behar du bestela estropeatu egingo delako. Hori desaktibatu dugu, baina geratu zaigu zerbait, harrotasun baina oso urrutikoa.
- Lehenago argiago zeukaten zer nahi zuten, ikastolen mugimenduak, etab. oso helburu garbiak zeukaten, eta orain ez daukagu makroproiektu bat.
- Baina egokitu behar garelako astiro-astiro. Konturatzen ari garelako nolako aurrerakuntza egin dugun. Orain errekonozitzen ari gara.
- Adibidez atzo Jaurlaritzak aurkeztu zuena, Euskararen Agenda Estrategikoa, nik ideia horrekin lotzen dut. Hau da, entitatea ematea egiten ari garenari. Gauza txikiak ere inportanteak dira, baina...
- Badaukat esaldi bat: *"Diskurtsoan ezinbestekoa da euskararen munduan egin denaren edo lortu denaren inguruko harrotasuna garatzea"*, ez harrokeria.
- Nik garai hartan zegoen anbizio hori iruditzen zait galdu egin dela.
- Anbizioa zelako zerbait *"en contra"*. Hori urritasunaren paradigma da. Hauetako kendu egin behar diegu, bere garaian kendu egin zigutena.
- Baina nik uste dut ona dela anbiziotsua izatea. Umiltasuna ez dela beti ona.
- Orduan, esaldia da, diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko harrotasuna izatea edo garatzea.
- Kontzientzia ere bai.
- Bale, ***diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna izatea edo garatzea.***
- Bai ze oraindik badago debate bat egin daitekeenari buruz, egin zitekeenari buruz eta egin ez dena, egon diren muga politikoei buruz, baina era berean konturatzen ari gara ematen zuena baino zailagoa dela.
- Diskurtsoari dagokionez, badago alde bat txoriak eta ornitologoak, diskurtsoa egiten dugu ornitologoak, baina hitz egin txoriek hitz egiten dute. Eta guk esplikatzeko diegu nolakoak diren. Baina haiek *"utxidazu bakean"*. Diskurtso mailan oso konplexua izaten da beti. Beti hitz egiten diegu esperto moduan, eta gainera beraiei jartzen diegu, ez baduzu ulertzen, ez baduzu egiten huts egiten ari zara. Nik uste dut buelta eman behar diogula.
- Filosofiatik marketinera!
- Iritzia eman behar nuen beste batetan, galdetu nien seme-alabei zer esan behar ote nuen. 12 urte zituzten. Eta esan zidaten *"egin behar duzuen da gutxiago sufritu"*, euskararen egoeratik sufritu egiten duzue eta transmititzen diguzue sufrimendu hori.
- Hori da, balore positiboekin lotzea euskara.
- Azkeneko gauza bat, ezadostasunetan jarriko dut derrigortasun mailarena edo ez.
- Bai.
- Beraz, ***Derrigortasunaren inguruko eztabaida egon da:***
 - Ezagutu behar diren derrigortasuna.
 - Graduazioa

Adostasun handiagoa derrigortasuna balego, diskurtsoan modu inplizituan egon beharko lukeela.

Euskararen
Gaineko
Oinarrizko
Diskurtsoen
lanketa

Foroaren 2. Saioaren emaitzen bilketa antolatua

Xabier Erizeren bilketa,
moderatzailleek egindakoa
abiapuntu hartuta

2014.07.16

AURKIBIDEA

LABURPENA: ADOSTUTAKOAK ETA ADOSTU GABEAK.....	3
Adostutako ideiak.....	3
Adostu gabeak.....	4
Hitz-gako batzuen agerpena adostutako 19 ideietan eta adostu gabeko 6 ideietan:	4
EUSKALDUNEN ETA ERDALDUNEN ARTEKO ADOSTASUN TERMINORIK?: 1. TALDEAREN LABORATEGIA	6
Partehartzaileak: 1. TALDEA.....	6
Adostutako ideiak: 1. TALDEA	6
Hustuketa (1. taldea)	7
TALDEETAN AUKERATUTAKO IDEIAK (ADOSTUAK ETA ADOSTU GABEAK).....	199
1. TALDEA.....	199
2. TALDEA.....	199
3. TALDEA.....	200
4. TALDEA.....	200
5. TALDEA.....	200
6. TALDEA.....	201
TALDEETAKO FITXA TXIKIEN EDUKIAK	202

LABURPENA: ADOSTUTAKOAK ETA ADOSTU GABEAK

ADOSTUTAKO IDEIAK

1. BIZIKIDETZA: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatuz. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizaziotik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude.
 - a. Hau aurrera eramateko:
 - i. Diskurtso inplizituak hobetsi.
 - ii. Hizkuntza politika eraginkorrak
 - iii. Gizartean eta inguru politikoan eragin.
2. Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa.
3. Berdintasunaren aldeko diskurtsoa.
4. Euskara zentruan duen eleaniztasun baten aldeko hautua era progresiboan.
5. GAZTEAK eta EUSKARARI BALIO BERRIAK ATXIKI: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz:
 - a. Zoriontsuak izateko bidea.
 - b. Plazerra ematen duena.
 - c. Modernitate kontzeptuari lotuz.
 - d. Gizarte eredu progresista bati atxikiz.
 - e. Funtzionalitatearekin lotuz.
6. Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera edo lekuetan.
7. Hizkuntza politika konplexurik gabe.
8. Hizkuntza probetsiaren errespetua eta garapena elebidun hartzailleak sortzen diren neurrian.
9. Euskararen ezagutza orokortzen lagundu behar du diskurtsoak.
10. Ezagutzaren aldeko diskurtsoa.
11. Euskararen aldeko diskurtsoek, estrategiek eta neurriek uztartuta joan behar dute, ezagutza eta erabilera areagotzeko.
12. Euskararen baloreak eta euskal komunitatea balioan jarri behar dira, “zentralitatea” lortu, erdigunean jarri.
13. Euskal diasistemaren hiztunen oinarritzko diskurtsoen lanketa.
14. Lege babes handiagoa behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Diskurtso bat ez, diskurtso berriak (pluralean) behar dira. Baina biak behar dira, legeak eta diskurtsoak, biak.
15. Jarreretan eragiteko emozioa, bizipenak eta bizipozak transmititu behar dira, baina baita praktikotasuna, pragmatismoa. Euskara ezin da asoziatu hizkuntza berak baino atxikimendu gutxiago duten elementuekin.
16. Hizkuntza erabilgarria, multifuntzionala, espresiboa, gozagarria, zorrotza, biziagoa, erakargarria, komunikatiboa behar dugu. Eta ez du zertan beti zuzena izan behar.
17. Liderazgo motibatzaile/eraldatzailerik baten garrantzia.
18. Euskararen komunitate aktiboan parte hartzeari prestigioa ematea edo erakargarri egitea lortu behar dugu.
19. Diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna garatzea.

ADOSTU GABEAK

1. Derrigortasunaren inguruko eztabaida egon da:
 - a. Ezagutu beharraren derrigortasuna.
 - b. Graduazioa
2. Adostasun handiagoa derrigortasuna balego, diskurtsoan modu inplizituan egon beharko lukeela.
3. Berdintasunaren legeak arautzea.
4. Bizikidetzeta.
5. Errespetua...
6. Euskara sinplifikatu behar da euskararen erabilpena bermatzeko.

HITZ-GAKO BATZUEN AGERPENEN ADOSTUTAKO 19 IDEIETAN ETA ADOSTU GABEKO 6 IDEIETAN:

Hitza	Agerpenak adostutakoetan	Agerpenak adostu gabeetan
Balioa + balorea + jarrera	5 (3 balioa + 1 balorea + 1 jarrera)	0
Ezagutza	4	0
Bizikidetzeta + elkarbizitza + errespetua + berdintasuna + eleaniztasuna	6 (2 bizikidetzeta + 1 elkarbizitza + 1 errespetua + 1 berdintasuna + 1 eleaniztasuna) Guztira: 3 (6-3= 3)	-3 (-1 bizikidetzeta - 1 errespetua -1 berdintasuna)
Erakargarria + emozioa	3 (2 erakargarria + 1 emozioa)	0
Praktikotasuna	1	0
Gazteak	1	0
Modernitatea	1	0
Estrategiak (eta neurriak)	1	0
Liderazgo	1	0
Desideologizazioa	1	0
Derrigortasuna + arautzea + legea	1 (legea) Guztira: -3 (1-4= -3)	-4 (-1 legea -2 derrigortasuna -1 arautzea)

Iruzkinak:

- Agian, nabarmenena hitz-gakoen sakabanaketa da.
- Nagusitzen dena multzo hau da, adostasuna izan duten 5 ideietan (19tik, %26) agertzen baita: “Balioa, balorea, jarrera”.
- Bigarren hitz-gakoa “ezagutza” da, 4 ideietan (19tik, %21) agertzen dena. Baina bestelako konnotazio semantikoak ditu.
- Hirugarrena, “bizikidetzatza, elkarbizitza, errespetua, berdintasuna, eleaniztasuna” da, baina eztabaidatua ere suertatu da: 6 aldiz agertu da adostutako ideietan, baina beste 3 adostu gabeetan. Beraz, $6 - 3 = 3$ aldiz guztira (19tik, %16).
- Azkena, “derrigortasuna + arautzea + legea” multzoa da, adostutako ideietan 1 bakarrik agertu da, eta adostu gabeetan 4, beraz -3 aldiz guztira.

EUSKALDUNEN ETA ERDILDUNEN ARTEKO ADOSTASUN TERMINORIK?:

1. TALDEAREN LABORATEGIA

Partehartzaileak (1. taldea)

Moderatzailea: Beatriz AKIZU

Adostutako ideiak (1. taldea)

BIZIKIDETZA: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatuz. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizazioetik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude.

Hau aurrera eramateko:

- Diskurtso inplizituak hobetsi.
- Hizkuntza politika eraginkorrak
- Gizartean eta inguru politikoan eragin.

GAZTEAK eta EUSKARARI BALIO BERRIAK ATXIKI: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz:

- Zoriontsuak izateko bidea.
- Plazerra ematen duena.
- Modernitate kontzeptuari lotuz.
- Gizarte eredu progresista bati atxikiz.
- Funtzionalitatearekin lotuz.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Hustuketa (1. taldea)

(...) es difícil, yo lo entiendo, pero yo suelo decir que han pasado ya muchos años y que, evidentemente, alguien con inteligencia se plantea hacer nuevos discursos de consenso básico sobre el euskera, aunque a veces no parece que (...) hay tendencias e inercias que siguen arrastrando a la gente a posiciones muy defensivas y muy encasilladas, cuando la realidad ha cambiado radicalmente, a veces los discursos oficiales y las políticas prácticas no tienen que ver nada con la realidad y, claro, cuando chocan nos encontramos que no sabemos qué sucede.

Los que nuestra lengua materna es el castellano y que nunca hemos tenido ningún problema con el euskera, más bien todo lo contrario, siempre nos ha fascinado (...) hemos intentado aprenderla cuando te daban créditos y (...) mi primer "barnategi" lo hice de 30 días de vacaciones, 15 (...) en Lazkao (...) yo creo que mucha gente lo ha intentado, lo ha hecho, porque los argumentos de hace 40 años eran el aprecio, la diversidad, el intentar comunicarse con el que había tenido que renunciar, en los ámbitos públicos (...) públicos de administración, porque yo creo que (...) conozco muchos *euskaldunes* que en general no tenían tantas dificultades en el ámbito familiar, pero bueno que quiere que su lengua esté en todos los ámbitos y con la democracia esto se puso en marcha.

Pero ha pasado tiempo y ha servido para muchas cosas, mis hijos son hoy perfectamente bilingües, no, trilingües, han estado en la ikastola y han renunciado a hacer el ... este en castellano, yo creo que les ha enriquecido y era el esfuerzo que teníamos que hacer.

Pero ahora sucede que entre el conocimiento y el uso hay un abismo y a los *euskaltzales* les preocupa, pero a veces no, (...) creo que yo he puesto (idatzi duen txartelari erreferentzia) algo de paciencia (...) a veces, de verdad, no aciertan con el método, la tentación es tan grande de decir somos vascos, esta es nuestra lengua, pues a tomar por saco. Como si alguien fuese a Alemania y esto es

alemán, pues intégrate. Supongo que en esta mesa no habrá estas posiciones extremas, si no, pues lo discutimos.

Sobre esta situación en la que se ha avanzado más de lo que cualquiera pudiera soñar (...) mi primer texto en euskera era un cuadernillo de *fanta*, con un típico rollo de cura en un barrio obrero como es el mío, cada uno tenemos unas referencias, yo soy de Otxarkoaga, es un barrio obrero, en el que los chavales cantábamos *bat, bi eta hiru* y que no sabíamos que eso era euskera (...) **creéoslo, hay muchos mundos en Euskadi, el problema es que a veces sólo se gestionan desde unas ópticas.**

Ahora un montón de chavales jóvenes saben, mi hijo va a ir a la universidad y va a hacerlo en euskera sin ningún problema. **¿Cuáles tienen que ser los discursos cuando ya ha habido una regeneración social y demográfica? Yo quisiera saber, porque siendo vasco y, hoy por hoy viviendo aquí, quisiera saber cuál va a ser la manera de entendernos, supongo que ese es el reto.**

Discursos únicos casi nunca hay, hay variedad de discursos. Hay que tener en cuenta ciertas edades (...) se ven mucho los dramas de los *euskaltzales*, pero a veces yo creo que se desconocen los dramas en las administraciones de gente que se ha quedado arrinconada porque no han podido acceder [al euskera?] por muchas razones (...) edades, zonas geográficas, hay muchos factores, un discurso homogéneo va a ser imposible, aparte de las perspectivas ideológico políticas que tenemos cada uno.

Yo veo muy difícil ponernos de acuerdo. Para empezar, una de las primeras cuestiones que ponía sobre la mesa, el euskera y el castellano son lenguas propias (beste txartelari erreferentzia) una es mi lengua materna y la otra es aprendida. Y las dos son lenguas de los vascos yo sé que para mucha gente (...) me gustaría ponerme de acuerdo en esto si no (...) no podríamos llegar a muchos acuerdos, viviríamos cada uno en su mundo y submundos, pero (...) hay que empezar por alguna cosa que en su día se aceptó y ahora creo que (...) no pasaría nada y creo que las políticas serían las mismas.

Convivencia, reconocimiento de los esfuerzos de ambas partes, de las renuncias que han tenido que hacer todas las comunidades. Es muy importante eso. También algo de paciencia y a veces más inteligencia (...) hay que buscar las fórmulas para llegar al objetivo que es incrementar el uso.

Relación del euskera con el empleo. Muchas opciones de *euskaldunización* de muchas de las familias ha tenido que ver con las perspectivas de empleo, que no se nos olvide que en los últimos treinta años el mayor generador de empleo ha sido la empresa pública y eso facilitaba (...) una parte de los que hemos mandado a nuestros hijos a la ikastola tenía que ver con la posibilidad de acceso al mercado de trabajo. El mercado de trabajo está muy jodido, **la empresa pública ya no va a generar empleo, con lo cual, ese gran argumento que ha animado, ese, en estos momentos está perdiendo fuerza a marchas forzadas.** A mí me preocuparía mucho cómo trabajar ese campo de la *euskaldunización* en la administración, de los requisitos en el empleo, en la universidad (...) habría que repensar cómo lo hemos hecho, qué cosas se han hecho mal, qué cosas se han hecho bien, qué hay que hacer en el futuro cuando el empleo va a escasear (...) ha generado mucha controversia, y mucha frustración y mucho rechazo (...) la gente ha aprendido, todos hemos visto en la administración y en otros ámbitos, saco el perfil tres y ya está, me has pedido un perfil y yo tengo un perfil. **Un poco de flexibilidad en las políticas.**

Bizikidetza helburu izanik hizkuntzen arteko edo hizkuntza komunitateen arteko bizikidetza sustatu, indartu eta bermatu beharra dago.

Egiten dena elkarrekin egin beharra dago. Muturreko bi diskurtso egote hori, edo gaur egun hain muturrekoak ez diren diskurtsoak egon arren, ñaburdura askorekin dagozan diskurtsoak baditugu. (...) gizarte batu baten apustua egin beharra dago (...) Onartu beharko dugu batzuen eta besteen errealitatea, batzuek eta besteak bakoitzaren eskubideak aldarrikatzen dituenean negoziatu egin beharko dugu zein puntutaraino heldu beharra dagoen eta zein den gutxieneko bat guztiok errekonozituta sentitu gaitezen. Onartu beharko ditugu hizkuntza biak erabiliko ditugula gero eta gehiago guztiok, eta hautuak beti ez direla objektiboak izango (...) bizitzako esparru batzuk euskaraz, beste batzuk gazteleraz eta igual ohitu behar gara (...) gaitasuna izan bi hizkuntzak erabiltzeko, ba igual trebatuagoak gazteleraz gagozala, batean edo bestean, edo gogokoa dugula (...) hautua egiten dugula.

Aitortza zeri? Pausua eman dabenari, emoten ari direnei, euskarara hurbiltzeko eta gutxieneko maila bat lortuz ba aurrean dagoen euskara erabili nahi duenari oztoporik ez jartzeko hizkuntza erabilerakoan.

Pazientzia norekin? Ba ikasten ari danarekin, erabiltzeko pausua egiten ari danarekin, jarreretan aurrera pausua egin dabanarekin.

Inkomunikazioa egon da sarritan eta gaur egun ere badago. Guztiok sentitu izan dugula alboratua edo ez onartua edo dana dalakoa hori izatea, zentzu batean edo bestean, **eta hori apurtu beharra eta multzo bakarra eraiki beharra dagoela (...)** nola lortu uztardura horiek?

Gazteen artean dago elebidun gehien, beraiek dira etorkizuneko gizartea eraikitzen dabenak edo eraikiko dabenak eta beraiekin ezin bestean kontatu beharra daukagu.

Adinari dagokionez badago oso ikuspegi aldaketa (...) -hizkuntzen arteko hautua egiterakoan aipatuz- oso naturala egiten dabez, eta aldiz gu, larregi arrazionalizatzen ditugu, gure esperientziatik edo gure ikuspegitik, eurek ez dauke arazorik. (...) Nahi dugun gizartea edo nahi ditugun erabilerak eta posible diranak edo hurrengo gizarteak nahi dituenak ez dira berdinak.

Saiatu gara gutxieneko baten ideia bat guztioi orokortzen, eta gazteak ez dagoz klabe horretan, militantismo hori, guk garai batean eduki doguna, eurak ez dake.

Nolakoa da euskaldun tipoa gaur egun? gaztea, hiritarra eta hirueleduna gehienetan. Ados jarri behar badugu diskurtso batean, lehendabizi pentsatu behar dugu nori zuzentzen gatzazkion nagusiki. Nik hori aukeratuko nuke, gazte tipologia hori, urbanoa, hirueleduna, unibertsitatera joan dena.

Gazteek berez dakarte euskara prestigiatuta, beren hizkuntza akademikoa baita, ez da prestigioaren arazoa, gehiago da erabileraren hautua eta erabilera hautu horretan inportantea da beraiek ahalik eta karga historiko gutxien izatea, hautu desdramatizatuak izatea; adibidez, gazte batek jakitea elebitasuna dela munduko gizaki gehienen egoera naturala, gizaki gehienak elebidunak dira (..) argudio fisiologikoa erabiliaz (ikerketa bat ekartzen du gogora) hizkuntza bik erabiltzeak bizitza osoan zehar, plastizitatea ematen diola garunari eta alzheimerra atzeratzen dela. Karga historiko bat ez daukan hautua egitea, azken finean, hizkuntzaren hautua beti da identitarioa, eta beti daka karga politikoa, baina hizkuntzari mesede egin beharko badiogu hobea da eurek egin dezaten hautua naturalagoa bat. Zergatik euskaraz? erdaraz bezain ondo egiten dugulako, plazerra ematen digulako, komunitate batean atxikipen naturalago ematen digulako, baina ez lotu beharrezkotasunari, oso hautu politizatuari (...) hortik ahalik eta gehien urrundu beharko genuke eta modu naturalago batean, zientifikoago batean hurbildu beharko genuke diskurtso hori egitera.

Gaur egungo gazteek ez daramate guk daramagun motxila eta hori aprobe txatu beharko genuke.

Gazteen artean hautu naturala eragitea inportantea iruditzen zait, baina inportantea iruditzen zait ere erdaldunei ere nolabaiteko eredu bat ematea.

Oso funtsezkoa iruditzen zait hemen aipatu den zerbait, eta da euskara modernotasunarekin lotzea (...) mundua edo gu, edo gu munduan (Andu Lertxundiren hitzak aipatzen ditu). Eta euskararen inguruko diskurtsoan badagoela oraindik mundua edo gu, nolabait ere kanpoko gauza guztietatik urrundu edo nahi gintuzkeen korrante bat eta kanpo joera guztietatik eta aldameneko erdaldunarengandik ere urrunduko gaituen (...) eta hasteko ez da posible, eta horren kontra jartzea ez da bakarrik arriskutsua, baizik eta alferrikakoa dela. Orduan egiten den edozein diskurtsoa izan behar da euskara modernotasunarekin, geroarekin lotzen duena (...) iraganekin baino gehiago. Euskarak dakar berez diskurtso identitario bat (...) Euskera gure kaskarkeria da nahi baldin baduzu, euskara dago guk euskaldun izaten segitu nahi dugulako, hori neurri batean hala da, baina pixka bat gehiago beharko dute gure seme-alabek edo gure ondotik etorriko diren belaunaldiek, atxikimendu identitario hori ez da aski, segur aski beharko dute zorientsuago egiten dituen zerbait, eta munduan kokatuko dituen zerbait.

Maiz egiten da diskurtso esplizitu bat euskararen alde, hau da, egizue euskaraz, edo erdaldunei ari gatzazkiolarik *aprended euskera* edo halako zerbait, eta nik uste dut diskurtso esplizitu horiek (...) gehiago erabil beharko genituzke edo erabili beharko lirakeke diskurtso implizituak, isilpekoak, hau da, euskera ederra da ez dugu esan behar, euskera eder egin behar dugu, euskerak balio du ez dakit non sartzeko, ez dakit zer izateko, ez, ez, behar bada, horretan daudenak, politikariek eta ez bakarrik politikariek euskaraz egin behar dute; hori da benetan aldeko diskurtso bat. Hemen batzuk aipatu dute Katalunian eta Katalunian katalanaren aldeko diskurtso esplizitu bat dago, baina nik uste dut gizarte katalanean batez ere dagoena dela isilpeko diskurtso bat, eta isilpeko diskurtso bat demostratzen dena gauzak katalanez eginda. Gehiago joko nuke ildo horretatik.

Diskurtso inplizitua izan dadila euskara bera, izan dadila ahal izan ezkeroko diskurtsoa, euskararen erabilera praktikoa, erakargarria, bai jarrera eta erabilera sustatzeko. (jarreran eragin behar dela azpimarratzen du aurkeztu diren grafikoak aipatuz).

Euskara izatea diskurtsoan aberasten duen hizkuntza, lana ere ematen duena, hori ere inportantea da, ez bakarrik enpresa publikoan edo administrazioan, plazerra ematen duen hizkuntza, praktikoa hain zuen ere gazteak erakartzeko. Oso hitz politikak dira eta beharko lirateke jarri halako indikadoreak.

Hautua. Hautua ere batzuetan oso garesti ateratzen da, zergatik bi, hiru hizkuntzekin bizi azkenean batekin nahiko baduzu? Batzuetan ez dut ikusten lotura hori(...) asko estimatzen dena ekologia eta hizkuntzarena askotan ez dut ikusten hain estua. Praktikan diskurtso inplizituarena, esplizituarena, batez ere gazteekin, ez du funtzionatzen eta zerbait praktikoko egitearena.

Hizkuntzen bizikidetzak izan beharko litzateke abiapuntua. Gure gizarteak eleanitzak da, ez bakarrik euskara eta gaztelera edo euskara eta frantsesa. Euskaldun hiritarra baldin bada, ba (...) gure tamaina ertaineko, tamaina handiko edozein hiritan ziur hogeitik gorako hizkuntza bizi direla elkarrekin, orduan, errealitate horretatik hasita ba bizikidetzak, errespetua edo (...) izan beharko litzateke abiapuntua.

Eta modernotasunarena. Hau da, euskera komunikaziorako tresna modernoa izan behar da, funtzionala, erabiltzeko desioa sortzen duena eta uste dot hori izan behar dala bere balioa edo bere urrea edo bitxia, horrek erakarri behar gaitu erabiltzera.

Se me ha hecho difícilísimo porque aparte por mi edad, yo ya soy mayor, y en mis tiempos el euskera estaba prohibido, por tanto en el colegio **no hemos vivido ni hemos estudiado el euskera**, por mi formación de ingeniero y por mi trayectoria profesional que siempre ha estado en la industria **jamás he tenido ningún problema con el euskera. Nadie me ha pedido, ni ha surgido ningún elemento (...) por lo tanto reflexionar sobre esto y sobre discursos me ha resultado extraño.** Y bueno, la traducción no es lo mismo que pensar en el idioma, y aunque traduzcan muy bien no es lo mismo, pero prácticamente coincido con lo que habéis dicho. El euskera tiene que ser algo que nos ayude a integrarnos, a convivir (...) todo lo que habéis dicho de paciencia (...) absolutamente de acuerdo. Y la segunda, es que **mis hijos hablan euskera, castellano, inglés, francés, alemán, italiano... porque una ha vivido en EEUU, en Alemania, la otra está viviendo en Bruselas... no se cuestionan en qué idioma tienen que hablar, hablan en el que les toque el día y con quien esté. Para la juventud ese dilema no existe.**

Nunca he tenido la necesidad, se me hace duro, es un idioma complicado sobre todo a ciertas edades.

No sé si el discurso hay que segmentar, para quién es el discurso, para los que ya somos mayores, para los intermedios, para los jóvenes yo creo que no necesitan ninguno, pero bueno.

Tenemos que tender hacia una sociedad trilingüe y el euskera, y el castellano, debería ser un apoyo para esa sociedad trilingüe. Si queremos ser una sociedad competitiva en el mundo y ser alguien tenemos que hablar tres idiomas como poco. (...) Hay que internacionalizar la sociedad. Yo he escrito camino hacia el trilingüismo.

Hay jóvenes y jóvenes, jóvenes con carrera y con estudios universitarios y tal, y otros jóvenes que viven otros mundos o submundos. Pero no tengo claro para quién es el discurso.

Yo no soy tan optimista. Yo si tuviese que definir y diseñar políticas (...) tendría en cuenta que la sociedad es muy líquida, muchos efectos y muy fragmentada, y podríamos hacer ahora mismo como diez perfiles de jóvenes que hablan euskera que es su lengua materna, jóvenes que hablan euskera que la han aprendido y (...) podríamos hacer muchos perfiles con lo cual (...) aunque desde las políticas hay que simplificar, pero no simplificar tanto que pensemos que ahora mismo no va a haber problemas, porque sí lo hay, porque vivimos en un mundo que cambia tan aceleradamente que lo que vale hoy no vale mañana y eso también vale para el desarrollo del uso de la lengua. Porque **mi hijo lo puede haber aprendido con un esfuerzo para él, y con un esfuerzo para nosotros, pero igual mañana no tiene ningún interés en mantener esa riqueza lingüística, que yo creo que ha sido la motivación de sus padres y de muchos.**

Yo no soy nacionalista, hablemos claro, que ha sido una de las grandes motivaciones (...) ese perfil está más claro, si sólo hiciésemos políticas para ese perfil sería muy sencillo, ahora, también sería un caos y todos sabemos que eso es conflicto. Cuando hablo deo aparte Iparralde y Navarra, entiendo que es otra situación (...) se acentúan mucho más algunas cosas que en la CAV es diferente.

La distancia que hay entre el conocimiento y el uso, una de las preocupaciones desde lo social también, si lo hemos aprendido vamos a crear espacios para que sea natural. Pero eso hay que favorecerlo, no creo que vaya a surgir de forma natural.

La lengua puede ser un elemento de integración o de lo contrario. Hay que afinar mucho. Después del esfuerzo que hemos hecho todos, que a mí se me permita estar en una reunión que pueda entender (...) vamos a crear ese clima. No soy tan optimista, habría que buscar nuevas formulaciones en muchos ámbitos y con muchas variables.

Galdera bat nafarrei. Han obserbatu dudana da, ez da adskripzio abertzalea duenak ematen duela umea ikastolara, igual optimistaegia naiz, baina han, iruditzen zait, guraso gazte askok Iruñerrian bizi den batek, bidaltzen duela umea ikastolara prestigio kontu bat dela eta, eta gainera jende progresista dela. Soziologikoki eredu bat finkatzen ari zaretela iruditzen zait, beste modu batera esanda, Nafarroako bezalako gizarte itogarri edo itxi batean horrelako berri on bat ikastola (...) ez dakit, badago hor zerbait. Galdera da.

Hori garbi dago hala dela. Ezkerreko ez oso modu garbian ere ez (...) Iruñerriko ikastolen merezimendua ere bada. Kontu ideologikoak bazter batera uzten jakin dute. Eredu hori izan beharko litzatekeela esportagarria.

Batzuetan ikaragarri konplikatu izaten da, faktore ideologikoak ere hor daudelako, eta gurasoen espektatibak diferenteak izaten direlako, gizarte honetan bizi garenon espektatibak ere beti izaten dira diferenteak (...) bateratasun batera eramatea ez delako beti erreza izaten, batzuetan gatazkak sortzen dira, baina emaitza orokorrean nik uste dut positiboa dela, positiboa dela batez ere euskaltzaletasuna edo euskararen aldeko apustua eraman ahal izan dugulako “geto” ideologiko batetik kanpora.

Edozein hizkuntza ideologikoki ikurra eramaten duenean sekulako kalte egiten diogu hizkuntzari eta gizarteari. Ni abertzalea naiz eta euskararik gabe ez naiz ezer, baina gaztelarrik gabe ere ez, eta ez dut nahi nire burua aukeraketa horretan jarri nahi.

(...) *Lenguas propias*, nire interpretazioa izan da gurea dena eta beste batzuenaz ez dena, oso geografikoki lotua dagoen esparru bat, baina nire hizkuntza berezkoak, nire hizkuntza propioak euskara eta gaztelera dira, ni ingelesa eta italiara berezitu egiten ditut (...) Nik gaur egun ezin dut nire mundua gaztelarrik gabe eraiki, euskararik gabe ere ez, baina gaztelarrik gabe ere ez.

Hizkuntzekiko harremana ikaragarri pertsonala da. Euskera eta gaztelania eztabaidatzen hasi ezker bakoitzaren kasua, portzentajetan edo, sartu beharko genukeela. Zenbateraino den nirea den bat, zenbateraino den bestea, zer da nireago (...) ez nuke erabiliko gureago, baizik eta nireago, zenbateraino den nereago bat edo bestea. Elebidunok bakarrik botako genuke hori.

Jakina gaztelania ere gurea dela, amarekin gaztelaniaz bazik ez naiz mintzatzen, nola ez gaztelania ez da nirea, baina gero badira graduazioak edo bakoitzak sentitzeko moduak edo eguneroko esperientziak ematen duen zerbait. Dena dela, inportanteena litzatekeena (...) politika bat egotea edo gizarte bat egotea non bakoitzak erabiltzen ahal duen, nahi duen hizkuntza, aukera guzietan. Helmuga horixe izan beharko litzatekeela gizarte honetan batek nahi duen hizkuntza erabili ahal izatea egoera guztietan eta horretara jo beharko genukeela, eta horretara jo ahal izateko etorkizuneko edo noizbaiteko Euskal Herrian denok izan beharko genukeela gai gutxienez, gaztelaniaz eta euskeraz mintzatzeko, hori etorkizuneko Euskal Herrian, hain zuzen ere posible izateko denok nahi dugun guztietan bakoitzak gure hizkuntza erabili ahal izateko.

Horretara jotzeko aukerak sortu behar dira, aukera ez badago ez dago hizkuntza erabiltzerik eta nik ez daukat batere argi guztiok elebidun izan behar dugunik. Uste dut guztiok behar dugula maila bat, nik euskeraz hitz egiteko ez dut behar aurrekoak euskeraz hitz egitea, ulertzea behar dut, eta puntu horretaraino heltzea (...) kontuan hartu gizarte hau dela dena, eta daukala daukan jatorria. Eta ideia bi horrek nik uste dut gehien errepikatu direnak badirela zuk aipatu dituzuzen bi horiek bata bizikidetzarena edo, eta gero balioak gaztetasunari lotutakoak, orduan, bi horietara mugatuko nintzateke.

Y lo que no hemos tocado es el mundo de la empresa. En el mundo de la empresa no se habla en euskera.

Pues yo discrepo. Funtzionalitatea da klabea, orain arte gizartearen ezaugarriak (...) zuk segur aski lehen ezagutu dituzu enpresak (...) lanbide heziketa gazteleraz egiten zan, unibertsitate hezkuntza gazteleraz egiten zan (...) eta gero ohiturak (...) hizkuntzaren prestigioa, (...) zer egiten zuen lan munduan gazteleraz garatzeko egoera (...) ez zegoen besterik. Gaur egun zer gertatzen da, lan mundura murgiltzen direnek D eredutik datoz, bai eskolatik, bai lanbide heziketatik, bai unibertsitatetik eta gaitasuna badakete. Baita gertatzen da enpresak hainbat herritan kokatuta egon daitezke eta herri horiek nahiko euskaldunak izan daitezke, orduan, enpresak gaur egun ere gizartearen isla dira, bai gertatzen da enpresa barruan euskara gaitasunik ez dutenak baldin badaude ba horrek mugatzen du euskeraz egin ahal izatea, baina enpresa gizartearen isla da, orduan, gizartea euskalduntzen doan heinean enpresa ere euskalduntzen joango da. Bai da egia, nik ezagutzen dut enpresa bat industrialia, bezeroa ehuneko ehuna internazionala zela, orduan euskaraz lan egiteko aukera mugatua zen, bezeroarekin ezin duzu euskaraz egin baina gazteleraz ere ez, ingelesez, alemanez eta frantsesez egiten zen bezeroarekin, baina bazegoen aukera langileen artean euskeraz egiteko, ez zen ehuneko ehunaren gaitasuna baina bazegoen.

Idea honekin bat nator. **Funtzionalitatea, bizikidetzaz eta gazteena**, baina hori helburu bezala. Eta, igual Nafarroatik natorrelako, inguru politikoan eragin behar dela. **EAEen bizikidetzaz edo akordioa lortu zen gizarte elebidun baterantz joateko**, baina Nafarroan ez. Nafarroan ezin da euskaraz ikasi Mendialdean ez bazaude edo Iruñerrian ez bazaude, eta horrek sortzen du bizikidetzarako sekulako ezintasuna. (...) Beraz, funtzionalitatea, bizikidetzaz, gazteak eta gero ere eragin soziala, politikoa ere lortu egin behar dela gurean behintzat.

Ez direla bi komunitate kontrajarri, modu natural batean, normala dela hizkuntzen arteko bizikidetzaz adierazi behar zaiola gazteari. Hautua ez da txapela aldatzea, hori modu natural batean, gainera burmuinarentzako ona da. Orain kostua, munduko biztanle izan nahi baduzu, tokatuko zaizu derrigor bigarren hizkuntza bat hitz egitea ingelesa ez bazara. Ba euskera berdin, egoera normala dela jakin behar dugu guztiok. Horrek desideologiazio bidetik egiten duela, erraza dela esaten.

Que en cualquier lugar en cualquier momento puedas hablar en las dos lenguas, eso choca con la realidad.

Bueno, yo te estoy hablando del futuro, no te estoy hablando de ahora. Tú mismo has dicho paciencia, nosotros tenemos mucha paciencia.

Poniendo como ejemplo osakidetzaz, pienso que es impensable que ahora me atiendan en euskera. ¿En un futuro? Eso sería lo ideal y lo natural.

TALDEETAN AUKERATUTAKO IDEIAK (ADOSTUAK ETA ADOSTU GABEAK)

1. TALDEA

Moderatzailea: Beatriz AKIZU

ADOSTUTAKO 2 IDEIA

BIZIKIDETZA: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatuz. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizaziotik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude.

Hau aurrera eramateko:

- Diskurtso inplizituak hobetsi.
- Hizkuntza politika eraginkorrak
- Gizartean eta inguru politikoan eragin.

GAZTEAK eta EUSKARARI BALIO BERRIAK ATXIKI: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz:

- Zorionsuak izateko bidea.
- Plazerra ematen duena.
- Modernitate kontzeptuari lotuz.
- Gizarte eredu progresista bati atxikiz.
- Funtzionalitatearekin lotuz.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

2. TALDEA

Moderatzailea: Ane CRESPO

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera edo lekuetan.

Hizkuntza politika konplexurik gabe.

Hizkuntza probetsiaren errespetua eta garapena elebidun hartzaileak sortzen diren neurrian.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Berdintasunaren legeak arautzea.

Bizikidetza.

3. TALDEA

Moderatzailea: Jon AIZPURUA

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Euskararen ezagutza orokortzen lagundu behar du diskurtsoak.

Euskararen aldeko diskurtsoek, estrategiek eta neurriek uztartuta joan behar dute, ezagutza eta erabilera areagotzeko.

Euskararen baloreak eta euskal komunitatea balioan jarri behar dira, “zentralitatea” lortu, erdigunean jarri.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Errespetua...

4. TALDEA

Moderatzailea: Josune ETXANIZ

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Berdintasunaren aldeko diskurtsoa.

Euskal diasistemaren hiztunen oinarrizko diskurtsoen lanketa.

Ezagutzaren aldeko diskurtsoa.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Euskara sinplifikatu behar da euskararen erabilpena bermatzeko.

5. TALDEA

Moderatzailea: Belen URANGA

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

1. Lege babes handiagoa behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Diskurtso bat ez. diskurtso berriak (pluralean) behar dira. Baina biak behar dira, legeak eta diskurtsoak, biak.

2. Jarreretan eragiteko emozioa, bizipenak eta bisipozak transmititu behar dira, baina biata praktikotasuna, pragmatismoa. Euskara ezin da asoziatu hizkuntza berak baino atxikimendu gutxiago duten elementuekin.

3. Hizkuntza erabilgarria, multifuntzionala, espresiboa, gozagarria, zorrotza, biziagoa, erakargarria, komunikatiboa behar dugu. Eta ez du zertan beti zuzena izan behar.

4. Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa.

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

6. TALDEA

Moderatzailea: Amaia ELIZAGARATE

ADOSTUTAKO 4 IDEIA

Euskara zentruan duen eleanitzasun baten aldeko hautua era progresiboan

Liderazgo motibatzaile/eraldatzaile baten garrantzia

Euskararen komunitate aktiboan parte hartzeari prestigioa ematea edo erakargarri egitea lortu behar dugu

Diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna garatzea

EZIN ADOSTU / NABARMENTZEKOA / TALDEAK HORRELA JASOTZEA NAHIKO BALU

Derrigortasunaren inguruko eztabaida egon da:

--> Ezagutu beharraren derrigortasuna.

--> Graduazioa

Adostasun handiagoa derrigortasuna balego, diskurtsoan modu inplizituan egon beharko lukeela.

TALDEETAKO FITXA TXIKIEN EDUKIAK

- . Gazteen munduan oinarri berriak finkatu (adostu) behar ditugu: eskolarekin, eskolaz kanpoko munduarekin... lotuak.
- . Gazteak. Euskara erakargarri bihurtu behar dugu: ludikotasunarekin lotu, sorkuntzarekin, jolasarekin... Eskolaz **kanpoko** mundua. **GAITASUNA gutxienekoa**. **ESKOLA ez da** nahikoa
- . Nola lortu gutxieneko gizarte adostasuna bakoitzaren hautua errespetatuaz euskararen etorkizuna bermatzeko hizkuntzak politikak garatzeko: euskara lehenesteko, ahula indartzeko, arnaguneak bermatzeko...
- . Diskurtsoa ahal den erakargarriena izan behar du: Integratzailea. Irekia
- . Diskurtsoak baino gehiago erabilerak kezkatu behar gaitu.
- . Gakoa jarreran dago.
- . Euskal diasistemaren hiztunen oinarritzko diskurtsoen lanketa. Kaixo, wap@s, nahi, kedatu, dut / koiu, det, zitroin, harrapazank / hartu, gura, dot / viciatu, limoi, kolpe egin, "taketa lez"
- . Euskararen aurkako jarrerak desagerrarazteko neurriak hartu beha dira. Alde funtzionala desagerraraztea zaila izango abda ere, jarrera diskurtsiboak %0ko izan behar du.
- . Arazoa ez dago arlo legalean.
- . Euskal herritarren eskuetan dago batez ere normaltasunaren apustua gainditzea.
- . Gazteek erakusten digute zer nolako gizartea sortzen ari den. Hizkuntza-komunitatea (besteetan bezala) euskal komunitatea nolakoa izango den itxuratzen dute: beren kode eta balioekin; urritasuna eta modukotasuna beren era(ta)ra uztartuz; giro ele(bi)anitzea; bizi giroa; testuinguru ekonomiko jakinean (lanik eza, migrazioa...) (Hizkuntza-aldaketa belaunaldien aldaketa da) (Diskurtsoa garrantzitsua da).
- . Gure gizartean, nortasun nazional desberdinak desagertuko ez diren bezala, hizkuntza bietatik bat ere ez da desagertuko, historian aurreikus dezakegun tartean behintzat.
- Komunitate bat osatu behar dugu, ondorioz, ez nortasun bakanekoa ez hizkuntza bakanekoa.
- Komunitate hori (edo horiek), komunitate politiko gisa funtzionatu behar dute, bere(n) kultura eta arauekin.
- Euskarak lekua izan behar du komunitate horretan, gizarteak emango diona.
- . Euskararen sinplifikazio bat proposatzen dut: morfologia, aditzak erraztu. Sintaxi logiko eta erraz bat bultzatu. Hau funtzeskoa da.
- . Alde batera utzi euskararen zuzentasuna, aberastasuna, garbizaletasuna, e.a. Horren ordez euskara erraz eta funtzionala bultzatu. Mentalitate aldaketa.
- . Modernotasuna gaur egun globalizazioarekin eta internetekin dago lotuta. Zelaia zaila dudarik gabe, baina internet da jokuaren zelai funtzeskoa.
- . Gazteen artean diskurtso positiboa baino ezagutza ziurtatu behar da ezagutzen ez badute es dute positiboki baloratuko.
- . Berdintasun printzipioa (aukera). Derrigortasuna vrs. Sedukzioa dikotamia apurtu.
- . Balio erantsia: gertutasuna, konfiantza, berrikuntza, identitatea...
- . Helburua, lehentasuna, ezagutza orokortzea/unibersalizatzea/derrigortzea bada...
- Botere politiko nahikorik gabe eta estrategia komunik gabe...
- Diskurtso mailan ere motz-erdira ezagutza derrigortu ahal izateko bideak landu beharko genituzke.
- . Hiztunen arteko gatazkaren markoan ez ezik, eleaniztasunaren markoan euskarak diskurtso eta praktika propioak garatu behar ditu.
- . Diskurtsoaren bidez **jarreretan** eragin nahi dugu. 'Pedagogia'. Bestelako elementuak beharrezkoak dira: marko egokia; pertsonen borondatea, atxikimendua (adbz. Tabakoaren legea); lidergoa, prestigioa, ereduak...

- . Diskurtsoa estrategia baten funtsezko elementua da. Baina ez dago **estrategia/helburu** gutunik... eta beraz ez da diskurtso bakarra egongo.
- . Gure gizartean hurrengo ideia hau errotu beharko genuke: “Euskara ez da gure artean komunikatzeko – plan B-, hau bigarren aukera”. Horrenbestez, ekintzak euskararen prestigiora batetik eta agerpenera berera zuzenduak izan behar dira.
- . ‘Diskurtsoaren aldaketa’ erabilerarekin lotu(ago) badago ere, ez da larregi aldatuko EHko **biztanle orok** bermatua ez badu ezagutzarako eskubidea.
- . Erabilera ez oztopatzeko jarrerak eta mekanismoak (eta ezagutza minimoa) kontrako jarrerak ezabatzea. “Hizkuntza anistasunaren” pedagogia eta arduraz jokatzeko mezua. Bereziki, euskararekiko ardurak (ahulagoa delako). Eredu onak eta eraginkorrak (euskara erabiltzen dutenak) sustatu (arnasguneak) eta zabaldu.
- . Euskararen (eta hizkuntza baten) **baloreak finkatu eta adostu** (berritu dagoena). Parlamentutik abiatu (behar den dokumentuan jaso) eta horiek zabaldu. ‘Marka berritua’ **Helburu publikoa**
- . Lege babesa: euskarak derrigorrezko estatusa lortu behar du; berme horrek ahalbidetuko du hizkuntza politika eta estrategia efektiboak abian jartzea.
- . Euskaldunaganako errespetuz jokatzeko eskatu behar zaio erdaldunari. Euskaldunak duen euskaraz bizitzeko eskubidea urratzen da euskaraz egiteko espaziorik/aukerarik ematen ez zaiolako. Ezagutzan gora egin ezean, ez dago euskeraz bizitzeko/erabiltzeko aukerarik.
- . Euskararen etorkizuna epe ertain-luzera bereziki gazteen sektorean erabakiko da, gehienek egun badakite, edo jakingo dute 20 urteren buruan, erabileran datza erronka, gazte horiek eremu formaletik at euskararen erabilera areagotzea. Estrategiak eta ekintzak horretara bideratu behar ditugu.
- . Zer egin behar dugu euskara erakargarriagoa egiteko? Erakargarria da euskararen mundura hitzuna erakartzeko? Hobeto esanda gaztelera, ingelesa baino erakargarriagoa da euskara? Gure (nire) belaunaldiak euskara abertzaletasuna, askatasuna eta identitatearekin lotzen du. Errebeldia euskararekin lotzen zen, gaur egungo gazteek ez dute horrela ikusten.
- . Diskriminazio positiboa.
- . 3 hizkuntza 2 egorea desberdin
- . Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek, euskaraz egingo dute hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera/lekuetan. Kontua ez ba beraz “aldeko jarreretan” aurreratzea, halakoak sortzea baizik.
- . Hizkuntza hobetsiaren errespetua + garapena elebidun hartzaileak sortzen diren neurrian.
- . Lege berdintasuna hizkuntzarentzat (eskubideak&betebeharrak) hiztunentzat.
- . Ekologiaren analogia.
- . Diskurtso bat baino gehiago.
- . Lege bermea.
- . Gazteei eman modernoa dena, erakargarria, euskaraz, eta kontsumituko dute.
- . Bizikidetzak, berdintasun eta askatasun mailan, puntu komuna euskararen eta gaztelaniaren ezagutzan dago (gutxienez ulermenean). Gaztelaniaz elebakar izateko “askatasuna” aldarrikatzen duena ez da berdintasunean kokatzen.
- . Bizikidetzak ardatz eta helburu izan daiteke, jende eleanitzeko gizartean. Aukera egitea, bestea onartzea. Jendeak onartu behar du besteak beste hizkuntza bat nahiago izatea; edo hizkuntza bat edo bestea funtzio batzuetarako edo besteetarako erabiltzea.
- . Baldintza egokietan, hizkuntza aukeratzea hautu pertsonala da, apetentzien arabera. Euskararen erabilerarantz bultzatzea edo limurtzea landu beharko litzateke, inposatzea baztertuz.
- . Euskara zabaltzearen aldeko planteamenduak beldurra eragiten du erdaldun askorengan; tolerantzia aipatzen da, errespetua; baina orain arte eroso sentitu direnek diote hori batez ere. Jendeak onartu behar du biak ditugula hemen, ume, gazte, heldu eta zaharrek.
- . Euskararen presentzia gehitu egin behar da, erdaldunei nabararazteko zerbait galtzen ari direla. Euskara praktikoa, beharrezkoa eta aberatsa da.

- . Eleaniztasunaren diskurtso berriaren baitan euskarak jokatu beharreko zeregina diseinatu, ofizialkidetasuna abiaburu jarrita.
- . Esparru batzuk arautzea euskara erabiltzeko, ez orokorrean!
- . Diskurtso berria behar da, argudio berriarekin euskara erabiltzeko normaltasun guztiarekin. Eta diskurtso berri horren protagonistak euskarara azken urteetan hurbildu direnak izan behar dira. Ikuspegi desberdin batekin egíngo dute.
- . Euskara elementu integratzailea bilatzeko bideak jorratu orain arte banatzaile.
- . Beharrezkoa eta erakargarriaren artean osagarritasuna bilatu ez kontrajarri.
- . Euskara beize izan dadila diskurtsoa, euskararen erabilera praktikoa eta erakargarria, bai jarrera, bai erabilera sustatzeko eta handitzeko.
- . Euskara: aberasten duen hizkuntza, lana ematen duena, plazerra ematen duena, praktikoa egiten duena
- . Diskurtso zaharrei neurri batean eutsi, balio duen neurrian.

[Idatzi enpresaren izena]

Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa (EGOD)

Delphi 1. saioko edukien bilduma-txostena

[Iñaki Martínez de Luna]

2014/09/02

Edukiak

1. HASIERAKO PLANTEAMENDUA	208
1.1. Testu honen kokapena	208
1.2. Abiatzeko materiala	208
1.3. Diskurtso berri batekiko zalantzak	209
1.4. Diskurtso berri baten alde	210
1.4.1. Zenbait arrazoi.....	210
1.4.2. Dinamika abiatzeko baldintzak.....	210
2. EGOERAREN HAUTEMATE ETA BALORAZIOA.....	212
2.1. Indarguneak.....	212
2.1.1. Egoera orokorraz	212
2.1.2. Zenbait gizarte arlotan	213
2.1.3. Lekuan lekuko berezitasunak tarteko	214
2.2. Ahuleziak	214
2.2.1. Egoera orokorraz	214
2.2.2. Hautemate, iritzi eta jarrerez	216
2.2.3. Zenbait gizarte arlotan	219
2.2.4. Lekuan lekuko berezitasunak tarteko	220
2.3. Argi-ilunak	221
2.3.1. Egoera orokorraz	221
2.3.2. Hautemate, iritzi eta jarrerez	222
2.3.3. Zenbait gizarte arlotan	222
2.3.4. Lekuan lekuko berezitasunak tarteko	223
3. AURRERA BEGIRAKO IKUSPEGIA.....	225
3.1. Xede bikoitzeko asmoa.....	225
3.2. Xedearen osagaiak	226
3.2.1. Legedi eta araudia	226
3.2.2. Hizkuntza Politika	228
3.2.3. Komunitatea	230
3.2.4. Diskurtsoak.....	231

3.2.5. Motibazioak eta jarrerak	235
3.3. Estrategiak	237
3.3.1. Errealitatearen printzipioa	237
3.3.2. Eraginkortasuna xede	238
3.3.3. Garrantzi bereziko eremuak: hezkuntza eta kulturgintza	241
3.3.4. Komunikazioa	242
3.3.5. Irudia	243
3.3.6. Marketin ikuspegia	246
4. Estrategia partekatuak	248

1. HASIERAKO PLANTEAMENDUA

1.1. Testu honen kokapena

Txosten hau *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa* (EGOD) izeneko dinamikaren baitan ulertu behar da. Gogora dezagun EGODen lanketarako azken dokumentuak horrela azaltzen zuela eginkizunen nondik-norakoak:¹

Dugun erronka, hauxe da: aurreko ataletan landu diren hiru edukietatik abiatuz, aurrera nola egin aurkitzea. Gogora ditzagun hiru osagai horiek zein diren:

1. Egoera eta bilakaera soziolinguistikoen inguruko emaitzak.
2. Kotsentsu instituzionalaren enbor-katea.
3. Diskutso ezberdinak.

Hortaz, abiapuntuko hiru elementu horien irakurketak ahalbideratuko du talde eztabaida eta lanketaren garapena, hipotesi hau kontrastatzera iritsi arte:

Azken urteetan euskararen inguruan lortutako adostasuna (ESEP eta Euskara 21 besteak beste) kontuan hartuta diskurtso berri eta partekatu bat osatzeko aukera dago.

Hori horrela izanik, EGOD egitasmoari ezartzen diogun azken helburua hau da:

Maila diskurtsiboan lor daiteken adostasuna, maila aplikatibora ere eramateko oinarri komunak eskaintzea, azken jomuga hizkuntza horren normalkuntza izanik.

Lanketa horretan diseinatu diren informazio bilketarako hurbilpen metodologikoetako baten ekarpenari dagokio txosten hau. Alegia, ikuspegi kualitatibo batetik eta gizarte aniztasuna islatuz, sektore edo jakintza arlo eta sentsibilitate ezberdinetako 43 aditu edota profesional kualifikaturen iritzia jasotzea, betiere euskararen normalkuntzarako dinamika bateratu bat abian jartzea. Hemen bildu diren edukiak ez dira, ordea, gizartearen isla orekatua, ekarpen baliotsu horiek egin dituztenak soslai kualifikatukoak eta, kasu gehienetan, euskararekin nabarmen sentsibilizatuak direlako. Helburu bera jomuga, antzeko soslai duten beste 100 bat aditurekin ere, bi saioetan gauzatutako foro batean, honakoarekin guztiz osagarri den beste informazioa ere bilduz.²

1.2. Abiatzeko materiala

Gogoetaren abiatzeko eskaini zen materialak iritzi ezberdinak sortarazi ditu Delphi dinamikaren lehenengo txanda honetako parte-hartzaileen artean, iritzi horiek aldekoak, zalantzak eta kontrakoak izanik. Behin baino gehiagotan uste ezberdin horiek estuki lotuta agertzen zaizkigu, elkarrekin, aurkeztutakoaren balioa aitortu nahirik eta, aldi berean, dituen hutsuneak zein mugak adieraziz.

Aurrerago zehaztuko den bezala, oro har, EGOD egitasmoaren planteamenduari egoki irizten zaio, euskara elkarbizitzarako elementu gisara nola lan daitekeen jakiten lagun dezakeelako. Argi dago horretarako lehenik behar dela gizarteak euskararen gainean dituen diskurtsoak ongi aztertzea: *Abiapuntu gisa, gogoeta egokia eta beharrezkoa da.*

¹ Lan-dokumentua, honako hau da: *Lanketarako oinarriak eta azken produktuak. Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa -EGOD egitasmoa-*. (2014ko martxoaren 19koa).

² Delphi eta Foroko informazioa landu eta gero, aurreikusita dago herritarren ahotsa ere jasotzea hurbilpen metodologiko kualitatibo zein kuantitatiboaren bitartez.

Hala ere, parte-hartzaile batzuen ustez, abiatzeko materialean dauden gabeziak ere azpimarragarriak dira:³

- Ez da egokia hizkuntzen arteko gatazkaz hitz egitea, *hizkuntzen inguruko pentsamoldeen arteko gatazkez baizik. Iritzi ezberdinen arteko talka dago hizkuntza-gatazka deitu ohi dugunaren atzean, ez berez kodeen arteko arazoak.*
- Materialean kontrajartzen diren *framing* aldarrikatzaile eta *uzkurraren* artean azken urteotan nabarmentzen hasia den bestelako diskurtso bat ez aipatzea: *indiferentzia edo interesik ezarena*, hain zuzen.
- Diskurtsoetatik harago ere, egungo mundu globalizatuak hizkuntzan duen eraginari behar besteko arretarik ez eskaintzea, bi mailatan: a) Enpresa handien kasuan ingelesak euskarari lekua kentzen hasia dela eta joera hori beste gizarte eremutara ere azkar hedatu daitekeela. b) Mundu honetan Internet eta bestelako teknologia berriek duten eragina.

1.3. Diskurtso berri batekiko zalantzak

Badira, arrazoi ezberdinak tarteko, euskararen inguruan *framing* edo diskurtso berri baten premia zalantzan jartzen duten parte-hartzaileak.

Kasuren batetan, argudioa da *Euskararen Legean jasotzen denak eta jasotzeko erak gaur oraindik gehiengoa batzen gaituztela* eta, aldi berean, *bide horretan oraindik garatzeko dagoen guztia aurrera eramatearekin nahikoa dela*. Hortaz, oraingoz ez du zentzu handirik beste bide batzuk arakatzen hastea.

Era berean, nolabait *bidea eginez eginda* aldarrikatzen duena ere badago diskurtsoaren premia erabat ukatzeko: *Diskurtso berriren beharrik ez dago, asko landu dira eta mota desberdinetakoak. Ekintza zehatzak behar dira, egingarriak eta neurtu daitezkeenak. Framing desberdinen kontuak garrantzia du baina ausardia behar da, beldurrez nekez egin daiteke taxuzko edozer. Beste edozein arlotan ere badaude talkak eta diskurtso nagusi kontrajarriak, dela ingurugiroa, dela hezkuntza, dela genero indarkeriaren aurkako borroka... Pausuak eman behar dira, pentsatzea beharrezkoa da baina gehiegizko hausnartzean galdu gabe. Aldarriak baino, ekintza zehatzak behar dira, hori txukun eginez gero gerora etorriko da adostasuna. Prestigioa edukiak ematen du baina hori epe luzera izaten da.*

Beste kasutan aipatzen da, erronka ez dela horrenbeste diskurtsoak elkarrengana hurbiltzea: *Zergatik ahaleginu ikuspuntu ezberdinak bateratzen, horietako batzuk bateraezinak badira? Gainera, diskurtsoetan, pentsamenduaren eta ideologiaren gainerako esparruetan bezala, aniztasuna izatea ez da berez txarra. Areago, diskurtso bakarreranzko joera litzateke hain zuzen kezkatzeko modukoa.*

Halaz eta guztiz ere, hizkuntzaren gaineko ikuspegiaren aniztasun horren barnean partekatu daitezkeen gutxieneko bat bilatzea posible eta gainera desiragarria da. Hortaz, diskurtsoak edo ikuspuntu ezberdinak bateratzen saiatzea baino, egokiagoa litzateke agian hizkuntzaren alde dagoen gehiengoaren jarrerak, gaitasuna eta erabilera elkarrengana hurbiltzea.

³ Hemendik aurrera, hizki etzanetan agertuko diren testuak parte-hartzaileengandik hartuak dira, kasu batzuetan hitzez hitz eta beste batzuetan zertxobait moldatua, betiere ekarpenen mamia bere horretan gordez. Egile baten baino gehiagoren elkarren segidan eskaintzen denean, autore bakoitzarena barra (/) batekin bereizi da hurrengo egilearena denetik.

1.4. Diskurtso berri baten alde

1.4.1. Zenbait arrazoi

Esandako zalantzak agertu arren, parte-hartzaileen artean nabarmen nagusitzen da diskurtso berri bat garatzearen aldeko jarrera. Izan ere, badaude hainbat arrazoi ezberdin, diskurtso berri bat eraikitzeke premia ageri-agerian jartzen dutenak, hala nola: a) euskararen aldeko diskurtso zaharreko osagai asko kaltegarriak -kontraproduzenteak- dira; b) ikuspegi edota interes ezberdinekoen artean bide partekatu bat bilatu beharra; c) egungo egoera egokia da horri heltzeko eta aukera handiak daude diskurtsoa biziberritzeko eta bizikidetzako askatzaile bihurtzeko; d) gatazkaren arriskua erabat saihestezina izanik ere, oinarrizko diskurtso partekatu bat lortu behar da, mutur batetik eta bestetik hainbat kontutan amore emanez.

Orain arte nagusi (izan) den euskararen normalkuntzarako ikuspegiaren ajeak hiru puntuotan laburbildu dituzte parte-hartzaileek:

- Ez da egokia euskararen garapena gatazka gisa ulertzea eta nazionalismo ezberdinen arteko talka bezala planteatzea, eta une honetan diskurtso orekatu bat ez da oso ozena, ez da nagusia. *Gizatalde, erakunde, alderdi eta abarrek, alde batekoak eta bestekoak bere aldetik tira egiten badute ere, framing berri baten inguruan hausnarketan hastea abiapuntua izan daiteke.*
- Egoera soziolinguistiko mota guztiak berdin tratatzeak kontrako jarrera asko piztu ditu. *Ez da hainbeste ideien falta edo argumentazio eskasa edo desegokia, baizik eta zer gizaratearen zein ikuskera daukagun eta euskara hizkuntza nola kokatzen den dugun/ duten/ diguten/ diegun/... eguneroko bizitzan eta zertarako.*

Baina, oro har, egoki ez ezik bideragarri ere ikusten da bi framing nagusien arteko zubia eraikitzea. *Badago gizaratean sustraituriko diskurtso partekaturako aukerarik.* Badira dagoeneko gailentzen ari diren bi jarrera, lanketa horretan lagungarri izan daitezkeenak: *errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzearen aldekoa eta politika malgu eta progresiboaren aldekoa.*

1.4.2. Dinamika abiatzeko baldintzak

Planteamenduak berrikusteko eta berriak sortzeko premia dago, beraz, gehiengoarentzat. Diskurtso berri baten aldekotasunetik abiatuz, hala ere, hori gauzatzeko moduz hainbat galdera edota kezka agertzen da. Bai ideia hori aurrera eramatearen inguruko zailtasunez, baita ager litezkeen arriskuez ere.

Horregatik, diskurtso berri baten ideiarekin bat egin arren, ezinbesteko baldintzak ere jarri dituzte parte-hartzaileek. Nagusienak, honako hauek dira:

1. Diskurtsoa gidatuko duen iparra ongi finkatu behar da, aurretik: *...horren aurretik eta sakonean dagoena beste kontu bat da: nolako hiritarrak nahi ditugu? Nolako gizaratean bizi nahi dugu? Eta erantzun horren aurrean kokatzen garelarik euskarak bere tokia, estatusa eta dena delakoa izango du...*
2. Diskurtso berria egungo gizarate egoera, eremu eta gizatalde ezberdinetara egokitu behar da: *diskurtso mota ezberdinak sortu behar dira adina, lurralde, eremu eta lan-arloen arabera.* Hortaz, diskurtsoa segmentatu behar da xede-talde ezberdinen premietara egokitzeko.

3. Irekitasunez jokatzuz eta aniztasunaren balioetik abiatuz: *Ahalik eta jendarte zabalenak onartua eta barneratua.*
4. Euskara suspertzearekin batera, bizikidetzaz integratzailea zein harmoniatsua ere bilatuz: *Elkarbizitza baketsua bilatu behar da.*
5. Dinamika, prozedura orekatua eta arrazional batean oinarrituz: *Nazioarteko eta adituen ekarpenak aintzat hartuz diskurtso zientifiko eta "pasioetatik" at eraikitzeko.*
6. Diletantismo antzuan ez gelditzea, gogoeta maila aplikatibora ere eramatea: *Baina lelo hutsak direnak baztertu behar dira, horrek ez du ezertarako balio, edukiz bete behar dira lelo horiek. Diskurtso berriak praxi berri bat ekarri behar du berekin.*
7. Oinarritzko kontsentsu bila abiatzeak ez ditzala euskararen sustapenerako indarra kamustu (*Iritziak, denak baleko eta kontuan hartzekoak izanik ere, maila ezberdinekoak dira, bai garrantzian, bai gizartearen iritziaren ponderazioa egiteko orduan ere. Framing aldarrikatzaileak indar handiagoa du; horrek ez du esan nahi egokitze gutxiago duenik, baina bai neurriei begira kontuan hartzerakoan pisu handiagoa duela*) edota baldintzak moteldu.

2. EGOERAREN HAUTEMATE ETA BALORAZIOA

Euskararen azken hamarkadetako bilakaeraren eta egungo egoeraren gainean dauden hautemateak eta balorazioak, espero zitekeenez, anitzak eta oso ezberdinak dira; baikortasun itxaropentsutik, ezkortasun iluneraino. Muturreko irakurketa horien artean, ordea, badaude aldi berean argi-ilunak ikusten dituztenak; alegia, aurrerapausoak eman diren arren, bidean akatsak ere egin direla edo lorpenak mugatuak direla onartzen dutenak.

Horiek guztiak jaso nahirik, hiru atal nagusi osatu dira egoeraren hautemateaz eta balorazioaz: indarguneak, ahuleziak eta argi-ilunak izenekin bereizi ditugunak, hain zuzen. Atal horietako bakoitzaren edukiak azpi-atal batzuetan sailkatu dira, egoera orokorrari dagozkionetatik abiatuz eta gainontzeko ekarpenak eduki zehatzen arabera bildu eta aletuz.

2.1. Indarguneak

2.1.1. Egoera orokorraz

Iritzi-korronte batek uste du euskararen normalizaziorako bidean asko aurreratu dela azken urte hauetan: *Gizartearen “elebiduntze progresiboa” gertatu da. Egindako bidea ez da perfektua izan, baina aldi berean, lorpen eta oso ongi emandako urrats ugari ere baditu egindako bideak, (ia) ezinezko ziren gauzak errealitate bihurtzeraino / Nire ingurua, Euskal Herria bezalaxe, era nahasian, batzuek pozik eta indartsu, euskararen aldeko lanean, itxaropentsu, oso.* Ohartarazten da, aldi berean, hizkuntza baten berreskuratze prozesuak denbora eskatzen duela; ezinezkoa dela berehala edo denbora tarte txiki batean gertatzea: *Euskarak aurrerapauso handiak eman ditu eta denbora eman behar zaio berez sendotu dadin.*

Irakurketa baikorra egiteko aipatzen diren lorpenak ugariak dira eta zenbait gizarte sektore eta egoera ezberdinetan gertatu dira. Baina, bereziki aipatzen da gazteengan euskararen ezagutzak lortzen ari den hedapena: *Gazteak normaltasunaz ari dira euskalduntzen / Euskaldunak erabil dezake euskara solaskideak ere badakielako; gainditua da erabiltzeko ezintasuna eta zoru partekatuak agertzen ari dira: lan bilera elebidunak, lan-dokumentuak, aisialdiko harremanak... / Txikizkako merkataritza geroz eta euskaldunagoa da eta euskaraz bizi nahi duenak, poliki poliki euskara geroz eta txertatuagoa du gizartearen.*

Aurrerapauso horren tamaina eta garrantzia handiak azpimarratzen ditu bakan batzuek: *Euskararen pizkunde garai berri baten hasieran izan gaitezke, indar metaketa eginez: Eskoletan euskara batzordeak sortzen ari dira berriz ere, kezka ekintza bilakatuaz. Arnasgune funtzionalak bilatzen eta sortzen ditugu, gurasook eta lagunek.*

Horren itxaropentsuak izatera ez badira iristen ere, beste ekarpen batzuetan aipatzen dira euskarak egun dituen aukera berriak: *Gero eta zabalagoa da herritarren artean euskara erabiltzeko dagoen konbentzimendua / Euskara ondo kokatuta dago Internet eta teknologia berriak integratzeko.*

Aurrerapauso horiek ez omen dira etorri euskaltzale sutsuen eskutik eta hortik kanpo dauden bestelako zenbait gizarte sektorek ere bere alea -eta ez nolana hiko- jarri dutela aipatzen du bakan batek: *Proposamenean “diskurtso uzkurra” deitzen den horren barnetik, itxurak itxura, etorri dira euskararen sendotze eta euskalduntze prozesuari egin zaizkion ekarpenik handienak. Bestela,*

pentxaezina litzateke euskararen ezagutzan azken mende laurdenean egin den jauzia. Aipatu prozesuak norabide garbia zeraman, eta norabide horretara bildu dira, berriki izan bada ere, teoriarik diskurtso uzkuerraren esparru naturalean mugitzen ziren asko ere.

Sentsibilitate ezberdinen dinamika bateratu baterantz aipatu berri den joera ager zitekeen, seguru asko, parte-hartzaile batzuek aipatzen duten giro lasaiari eta baketsuari ezker: *Ez gaude hizkuntza arteko gatazka egoera batean / Herritarrak argiak dira eta hobesten duen hizkuntza erabiltzen du, betiere solaskidearekiko errespetua tarteko / Dagoeneko diskurtso integratzaile berria ari da hedatzen, eta atxikitako pisu ideologikoa arintzen ari zaio euskarari / Bi muturretako diskurtsoen artean badago gune isila, diskretua eta zabala: euskara sustatzearen ez alde eta ez kontra ageri direnak; euskararen ikuspegi politikorik edo alderdikoirik ez duten herritarrak.*

2.1.2. Zenbait gizarte arlotan

Gauza jakina da hizkuntza baten erabilera ez dela ezer abstraktua, erabilera egoera jakinetan gauzatzen da-eta. Bildutako iritzien arabera azken hamarkadetan euskarak izan duen aurrerakada gizarte egoeratan ikus daitekeela baieztatzen dute parte-hartzaile batzuek.

Unibertsitatean gertatu den aldaketa aipagai dute batzuk, euskararen hedapenean zein hartutako neurri zehatzetan: *...uste dut euskarak prestigioa duela unibertsitatean. Euskaraz eskeintzen den irakaskuntzak beste erderetakoak bezalako prestigioa du; irakaslego elebidunak goi mailako ikerketa egiteko inolako arazorik ez duela demostratu du... / Diskurtso mailan ezik, eguneroko aplikazioan ere euskarak adostasun maila handia lortu du unibertsitatean.*

Aldaketa horiek horrela ilustratzen ditu beste kolaboratzaile batek: *Unibertsitatean euskarak ibilbide ikusgarria egin du: 1976. urtean Medikuntza Fakultatean eta Zientzia Fakultatean euskaraz eskola bakan batzuk ematen hasi zirenetik hona gauzak asko aldatu dira. 1985. urteko lehen UPV/EHUko estatutuek araubidezko aitortza ematen zioten euskarari irakaskuntza eta ikerketa egiteko. Orduetik hona Euskararen Normalizaziorako 2 plangintza eta Eleaniztasun plana onartu dira. Gradu bakan batzuk kenduta, lehen zikloko Ikasketa guztiak egin daitezke euskaraz. MUn euskarazko eskaintza oso zabala da ere, graduoko Ikasketa ia guztiak euskaraz eskaintzen direlarik.*

Eta euskalduntze horretan atzerago dabilizan kasuetan ere, zenbait neurri hartzen hasi omen da: *Deustun berriz, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko programa kontratua bitarteko, hainbat gradu elebrietan eskaini ahal izan dira azken lau urtetatik hona.*

Unibertsitatea euskalduntzeko dinamika ez da irakaskuntzan agortzen eta, bere kasa zein beste erakunde batzuekin elkarlanean, jakintza arloko zenbait jardueretara ere hedatu da: *...euskararen corpus zientifikoa eraikitzen lagundu du unibertsitateak eskuliburu eta ikerketaren publikazioen bitartez. Dela bakarka, dela beste eragile batzuekin batera, urtetan hiztegiak eta corpusaren lanketa nabarmen aurreratu da.*

Areago, ekartzen da gogora unibertsitateetako euskarazko jardunak hizkuntza horren gizarte prestigioa handitzen lagun dezakeela: *Bestalde, unibertsitateak dibulgazio zientifikoan euskaraz egin duen lana oso ongi baloratzen du gizarteak, eta horrek ere euskarak duen prestigio akademiko goratzen laguntzen du.*

Unibertsitatean ez ezik, gizarteko beste zenbait arlotan igartzen da euskararen egoerak emandako aurrerapausoak, hala nola zenbait giro profesionaletan. Ekarpenetatik jaso dira aldaketa horren lekuko diren bi kasu eredugarri: *Lanean, gero eta nabarmenagoa da euskararen erabilera areagotzeko diskurtso naturala eta esfortzua. Aginte-organoak azken urteotan hartu dituen erabakiei esker, euskara gero eta integratuago dago eguneroko kudeaketan, eta barrura (langileak) zein kanpora (bezeroak) begira, elementu integratzaile gisa ulertzen da. Izan ere, euskararen erabilera bat dator kalitatezko zerbitzua ematearekin. Eguneroko jardunean oztopoak eta gorabeherak sortzen dira, baina irizpideak eta lerro estrategikoak adostuta eta enpresaren funtzionamenduan txertatuta daude / Euskaldunek hizkuntza bata edo bestea erabiltzen dute, berdin-berdin. Nagusitu den planteamendua hau da: “zuk egizu euskaraz eta nik ulertu ezean, galdetu egingo dizut”. Zoru partekatatu baten eredu.*

2.1.3. Lekuan lekuko berezitasunak tarteko

Euskararen lurralde guztiek egoera soziolinguistiko oso ezberdinak izanik, interesgarria suertatzen da ezagutzea -adibide bakan batzuk baino ez bada ere- eskualde edota leku jakin batzuetan nolakoak diren hizkuntza-egoera zein bilakaera.

Euskarak gainontzeko lurraldeetan baina askoz baldintza aldekoagoak dituenez, espero zitezkeen euskarak jasotzen duen gizarte onarpen zabala: *Gipuzkoan, orohar, euskarak lortu du erreferentzialtasun minimo bat eta erdaldunek antzeman dezakete zerbait galtzen ari direla euskara ez jakitearren. Euskaltzaletasuna nagusi izaki, euskarak estatus bat lortua du.*

Oso bestelakoa da euskararen estatusa eta bizi-baldintzak Iparraldeko lurretan, jakina denez. Dena den, gizartearen balorazioan hobekuntza baten zantzuak ikusten direla aitortzen dute bertako parte-hartzaileek: *Aitorpen ofizial oso apala, baina Euskararen aldeko diskurtsoa partekatua da / Orokorrean euskararen aldeko diskurtsoa nabarmenki baikortu da erakunde armatuak borroka erabat utziz geroztik.*

2.2. Ahuleziak

Euskara egoera gutxituan egonik, ulergarria da balorazio ezkorrak aurretik aurkeztu ditugun baikorrak baino ugariagoak izatea; alegia, gizartean *bigarren* hizkuntzatzat jo izatearen ondorioz, gehiago izango dira bere egoeraren gainean aurki daitezkeen ezaugarri murriztaile eta kezkarri oparoak eta itxaropentsuak baino: *Bigarren mailako gaitzat hartua izatea izan da, batez ere eragile soziopolitikoaren aldetik, arazo edo oztopo nagusietako bat euskarak aurrera egiteko.*

Hizkuntza horren gaineko kezkak ikuspegi orokorretik zein sektorialki nagusitzen dira, eta kasu batzuetan lurraldearen arabera zertzelada bereizgarriak atxikitzen zaizkio.

2.2.1. Egoera orokorraz

Euskararen egoeraren gaineko irakurketa ezkorra, batzuen esanetan, euskara ikastetik bertatik hasten da eta gatazkarako motiboa izatera irits liteke. Horretarako erabiltzen diren erreferentziak anitzak dira, besteak beste gizartean ager ohi diren gaztelaniarekiko jarrerekin alderaketa egitean: *Batzuen aldetik euskara ikasi beharra (euskararen ezagutza unibertsalizatzeaz edo hizkuntza irizpideak ezartzeaz) zalantzan jartzen bada ere, inork ez du gauza bera egiten gaztelaniarekin. Zoru partekatua egon badago, baina noraino heltzen da partekatzen duguna? Gurea hizkuntza gutxitua den neurrian, gatazkak sortzen dira zoru komun-teoriko horretatik ekintzetara pasatzean.*

Dena dela, kezka nagusietako bat euskararen erabilerarena da: *Askok ikasi dute euskara, baina erabili, ez da erabiltzen ikasitako neurri berean*. Erabileran lortutakoak ez du asebetetzen kontsultatu askoren aurreikuspena, batez ere horretara bideratu diren ahaleginak aintzat hartuz gero: *Ezagutzak asko egin du gora; aldiz, arazo nagusia euskararen erabilera urria da: solaskidea ezezaguna denean, erabili hizkuntza nagusia badaezpada; solaskidea elebiduna dela jakin arren erdaraz egiten du / Desoreka dago egindako ahaleginen eta erabilerako lorpenen artean / Euskararen erabilera aldarrikapen politiko gisa ulertzen da askotan*.

Gainera, erabilera omen da hiztunen arteko harremanetan deserosotasuna sentiarazi duena; baita solaskideen arteko talkaren arriskua piztu lezakeena ere, euskarazko gaitasuna eta hizkuntza horrekiko sentsibilitatea edozein izanda: *Gatazkarik ba al dago? Elebidunon artean uste zabala da gatazkarako arrazoi ugari daudela, etengabeko gatazkan egoteko, eta eskubideen diskurtsoari lotuko bagina, elebidunen eta elebakarren arteko gatazka areagotu egingo litzateke. Inor ez dago konforme, egindakoa oso gutxi edo gehiegi dela esaten dutelako. Halere ez da muturrera eramaten, bakean bizi ahal izateko*.

Euskararen erabilerarako dauden oztopoak barra-barra aipatzen dira eta, eremu pribatuko erabilerari dagokionez, honako hauek dira euskararen erabilera ezaguerak duen mailatik hain urruti gelditzeko: *Menderatzen ez dutenen erabiltzeko lotsagatik / Euskaldun batzuen aldetik izaera zentsuratzailleagatik / Euskara erruduntzea, ezker abertzalearekin atxikitzen zaion loturagatik / "Titulitis"-ak pisu gehiegi izan duelako / Teorian euskararen aldekoak izan arren, batzuek euskararekiko jarrera aktiborik erakusten ez dituztelako*.

Erabilerarako oztopoak ez dira euskararen estatus askasaren ondorioa, bere corpusaren garapen faltak eragina omen du-eta: *Euskararen alorrean dagoen armonizazio eta koordinazio sendo baten gabeziak ez dio laguntzen euskararen erabilerari. Honen adibide zuzena, terminologiarena da. Euskararen adituak ez garenontzat, terminologia bateratu bat ez izateak ziurtasun eza sortzen digu eta lana ere*.

Trantsizio politikoaren garaian eraikitako hizkuntza ofizialen inguruko lege eta araudiaren amarauna ez omen da nahikoa kontsentsu sendoa bideratzeko eta horren gainean ibilbide-orri garbia finkatu ahal izateko: *Legezko estatusaz, erabakiak eta ekintzak hartu behar direnean, lege eta araudiak ezarritakoa ezberdin irakurtzeko joera dago / 82ko euskararen legea onartu zeneko markoa, euskararen normalizazioarena alegia, oraindik ere definitu eta adostu gabe dago, eta zerbait definitzen edo zehazten hasten den unean, markoa desitxuratu egiten da eta zoru partekatua desagertu egiten da etengabe*.

Horrela, euskara erraz izaten da hizpide politika mailako hika-miketan, alderdikierietan alegia: *Nork politizatzen du, euskaraz egiteko eskubidea betetzea eskatzen duenak, ala eskubide horri uko egin ez ezik, hizkuntza bera ukatu egiten duenak?*

Ekarpen batzuen arabera, euskararen erabilera tratatzen duten arrazoi eta motiboen metaketak *disonantzia kognitiboa* eragin lezakete euskaldun euskaltzalearengan, beren burua kontraesanetan jartzean: *Diskurtsoa eta erabilera ez datozelako bat errealitatean*. Hortaz, kontsekuente izan nahi izanez gero, *stress linguistiko* terminoarekin ezagutzen den efektua ager liteke nahi-eta-ezin tentsioaren ondorioz; etenik gabeko tira-bira nekeza suertatzen da: *Aspalditik nabaria da halako neke bat hizkuntzen arteko orekaz hitz egiten denean*.

Aldi berean, kontsultatuak izan diren lagunetako batek dioenez, are esfortzu handiagoa eskatzen zaie elebidunei, betiere erdaldun elebarrak zenbait eremutan erdaraz moldatzeko dituzten baldintzekin alderatuta: *Elebidun batek elebarrak baino lan doblea egiten du egunean zehar euskaraz bakarrik hitz eginaz ere, hizkuntza biak ageri dituzten kaleetan ibiliaz. Euskararik gabeko hiritarrak baditugu, hots, buruan euskara inolaz ere erabiltzen ez dutenak, baina elebidun garen hiritarrok uste duguna baino askoz gaztelania gehiago darabilgu buruetan egun arrunt batean. Horrek neurodiglosia sakon bat sortzen du / Maila aplikatiboan zailtasunak daude, eta aro digitalean are gehiago. Informazio saldoa dugu eta gizarte eleanitz honetan euskaraz dagoena bilatu egin behar da, gainontzean euskaldun epelentzat ikusezinak dira sarri euskal mundu erreala, nahiz birtuala (zuzen.com, sustatu.com, argia.com, berria.info, hamaika.tv...).*

2.2.2. Hautemate, iritzi eta jarrerez

Gizartean nagusitzen diren euskararen inguruko muturreko diskurtsoek funtsa desegoki baten gainean eraikiak dira, parte-hartzaile baten ustetan: *elkarren kontrajarriak eta urritasunaren paradigmaren gainean eraikitakoak dira: aldarrikatzaileak gehiago eman nahi dio euskararen garapenari (hura gabe desagertuko delakoan, etab.) eta murriztaileak orain artekoa nahikoa (eta sobera) dela dio, ahalegin oro bere indar-posizioaren kaltetan joango dela uste izanda.*

Errealitatea interpretatzeko baliatzen den ikuspegia tarteko, pertzepzio ilunaren arrazoiak arras desberdinak dira batzuen eta besteen artean. *Batzuk nekatu samar, Euskal Herria ez delako euskaldun oraindik; eta beste hainbat kexati eta haserre puntu batekin, azkarregi ari garelako eta alferrrikako indarrak eta sosak xahutzen ari garelako.*

Euskararen aldeko joera aldarrikatzailea dutenen artean, errealitatearen interpretazio ezkorrak nagusitzen dira, eta egindako bidea laburregia dela da leloa: *Eskubide eta eskakizunak oraindik bete ez izanak etsipen sentazioa sortzen du / Euskaltzaletasun sutsuenean bi jarrera nagusi: borrokalari eta kementsu jarraitzen dutenak, batetik, geroz eta gutxiago. Eta etsipen puntu bat sumatzen dutenak, geroz eta nabarmenago, euskarak ez duelako eurek nahi bezala eta beste aurreratzen. Gainera, ikusten da egoera lasaiegi hartzen duten euskaltzaleak daudela: *Euskaltzale epelagoa lasai eta are epelago dago. Diskursoa euskararen aldekoa mantendu arren, ez da bereziki kezkatzen duen zerbait.**

Beste muturrean, euskararen kontrako diskurtsotzat har daitezkeenak aipatzen dira: *Euskarara diru gehiegi bideratzen dela uste dutenak. Orohar, euskara abertzaleen kapritxo edo bereizgarri gisa jotzen dute eta “de facto” “ezezagutzarako eskubidea” aldarrikatzen dute, askatasuna aitzaki. Euskararen aurrean jarrera defentsiboa eta uzkurra adierazten dituztenen arbuio edo gaitzespenak, hizkuntza-politikaren bidez ezarri diren zenbait neurrietan omen du abiapuntu: *EAEko lurralde guztiak parametro berdinetan tratatzea; euskara lanarekin nahastea, batez ere egungo egoera ekonomikoan; herri administrazioko hizkuntza-eskakizunak errealitateara ez egokitzea / Gatazka intrantsigenteen eskutik sortzen dira, euskaraz bakarrik funtzionatu nahi edo aldibereko itzulpena denerako eskatzen dutelako.**

Jarrera intransigentetzat jotzen den aldarri hori, oztopo bihurtzen da elkarbizitzarako, ekarpen batzuen arabera: *Bidegabeak eta onartezinak dira gaur egun ere noizbehinka egiten diren adierazpenak, EAEko biztanleen arteko elkarbizitzaren erantzukizuna erdaldun elebarrak egotziz (euskaraz ikasi eta hitz egiten duzue, edo bestela elkarbizitza kolokan jartzen ari zarete). Mota*

honetako jarrerak dira elkarbizitzari hain zuzen kalte gehien egiten dietenak, oinarri demokratikoen aurkakoak izateaz gain, jakina.

Horren guztiaren ondorioz, euskararen sustapenaren aurrean nolabaiteko erresistentzia antzematen omen da: *Euskararen kontrako diskurtsoa gizartean politikoki zuzena ez den arren, azken urteotan nabarmenagoa da kontrako egonezin bat zenbait harremanetan.*

Beste batzuen iritziz, aldiz, euskararen inguruan izandako bizipenak eta ondoren, horietan oinarrituta, eraiki diren alegiazko usteak dira hautemate ezkorren sorburu: *Norberaren eta familiako interesak, euskararen aurretik jartzea: seme-alabak, gertukoak... lanpostu bat lortzerik izan ez duenean euskaraz behar besteko mailarik ez duelako / Euskararen alde eta kontra egiteko abiapuntuak, arrazonamendu edo kontu diskurtsiboetan baino gehiago daude bizipenetan edo bibentzietan oinarrituta. Horri gero janzkera diskurtsiboa emateko ahalegina izaten da, eta nagusitzen direnak topiko hutsak dira: errepikatutako estereotipo eta prejuizioak.*

Gizartean oso unibertsalki barneratuta dago euskarak bigarren mailan jokatzeko duela hizkuntzen ligan; hizkuntza handietako komunitateek txikien gainean egiten duten diskurtsoa gure egin dugu; *bortizkeria sinbolikoa* nagusitu zaigu. Euskararen presentzia oso nabarmena den guneak salbu, barneratutako hizkuntza horren irudian pisu aipagarria hartzen du euskararen baliorik ezaren usteak: *Leku askotan zalantzan dago euskarak balio propiorik ote duen / Euskara zama edo galga gisa ikusten da gizarteko zenbait sektoretan, pasa beharreko tramite bat eta ibilbide edo zirkuitu laburretan baino balio ez duena.* Edo, euskarari balioaren bat aitortzen bazaio ere, ez da unibertsala izaten, eremu jakin batzuetara mugatua baizik: *Euskara administrazioko eta irakaskuntzako hizkuntza bihurtu da, eta hori euskararen erabilera natural batera jotzeko oztupoa izan daiteke.*

Hizkuntza egoeraren inguruko ezagutza zehatzik ezak bultzatuta, bizipen horien gainean erraz hedatzen dira gizartean dauden iritzi topikoak: *Indiferenteek euskararen gaia oso urrutitik bizi dute, argumentazio iraulgarria eta ez zuzena baliatuz: euskara zaila, inposatua eta politizatua, eta euskaldunek ez dute erabiltzen.* Jarrera indiferente hori da, parte-hartzaile batzuentzat, euskararen normalkuntzak egun duen etsairik handiena: *Ingurune profesional zein pribatuko jarrera problematikoena indiferentzia da. Jarrera aldarrikatzaile zein uzkurak aldakorrak dira definizioz, indiferentzia ordea egonkorragoa da, handituz doa, eta kontsentsu berri baterako eragozpen ezkutua izan daiteke.*

Lekutan egongo da euskara ospea eta irudi erakargarria zein atsegina izatetik: *Euskararen prestigio falta, euskaraz ikasteko motibo praktikorik eza eta, etxeko transmisiorik ezean, euskararekiko lotura afektiboa ere galduta / Euskaldun ez direnentzat nekez izango da erakargarria egunero bere geroa jokatzeko ari den hizkuntza bat, hiztunak baino gehiago heroiak eskatzen dituen.*

Erakargarritasun falta horrek garrantzi berezia har lezake gazteen kasuan, sentiberatasun afektibo negatiboa planteamendu arrazionaleri gailentzen bazaie: *Ingurune ez euskaldunetako gazteentzat euskara ez da 'cool' eta derrigorrezko ikasgai batekin baino ez dute lotzen, modernotasuna ingelesarekin lotzen da batez ere / Gazteen belaunaldiari ardura, erantzukizuna, hizkuntzaren biziraupenaren gako eman dizkiogu, eta maiz, horrekin, herri-nortasunaren iraupena bera. Ardura lar da hori. Gozagarri gutxi eskain diegu, alta, diskurtso agoniko bat baino ez.* Gazte askoren artean horrelakoa bada euskararen irudia, ez da harritzekoa izango gizarte giro erdaldunetako gazte euskaldunengan ez agertzea berezko joera bat hizkuntza horren erabilerarantz, era horretan aurreko

atalean (2.3.1) aipatzen genituen erabilera murrizaren zergatiak gehiago elikatuz: *Giro erdaldunetako gazte euskaldunek horren premia sentitzen dutenean baino ez dute euskara erabiltzen.*

Euskararen irudi ezkor horren hedapen arrakastatsua zenbait faktoretan oinarritzen dute parte-hartzaileek. Aipatuena, euskarari erantsi zaion kutsu politizatua da. Lelo hori behin eta berriz agertu delarik: *Euskararen patrimonializazioa, sigla politiko batzuen aldetik / Kutsu politizatua du, neurri batetan, euskarak eta azkeneko urteotan gatazka politikoaren erdian aurkitu da, batzuetan / Alderdikeriaren arabera interesek, askotan erabiltzaileengandik urruti, kutsatu dute euskara.* Hizkuntza baten normalkuntza gizarte sektore eta interesen arteko tira-birak eta egon ezinak sortzeko gai aproposa bada, gatazkaren arriskua areagotzen da auzian dauden hizkuntzetako bati irudi ideologizatu eta alderdikoa atxikitzen bazaio: *Diskurtsoak ikuspegi politikoetatik aldentzen ez diren bitartean eta, horren ondorioz, euskara politizatuta dagoen neurrian, hizkuntza gatazkaren arriskua handiagoa izango da / Gaztelaniadunek hautematen badugu azken helburua independentzia eta hizkuntza bakarreko Estatua direla, zerbitzatuta dago gatazka.*

Aurreko faktoretik gertu izanagatik, neurriren batetan ezberdindu daiteke bakan batek aipatu duen hurrengo puntu hau: *Euskara ia ez besterik erabiltzea, tankera jakineko gizarte aldarrikapenetan, eskaera horien jomuga euskara beren egin beharko luketen enpresak, erakundeak eta pertsonak izanik.* Argudio ezberdina dela diogu, politikaz gaindi eremu sozialean ere koka daitekeelako, batetik, eta bere indarra beste ideia honetan zentratzen delako, bestetik: euskara bere egin beharko luketen horiek, euskaraz erasotuak (sentitzen) direlako.

Hurrengo faktorea hizkuntza-politikari dagokio, bete-betean, politika horren neurri batzuek eragin baitute hein handian gizartean nagusiki zabaldu den hizkuntza-pertzepzio desegoki hau: *Indarrean dagoen euskararekiko gizarte konpromisoa ez da ailegatzten ingurune sozial, ekonomiko eta kulturaletan hizkuntza erabilera bultzatzera, baizik eta ikastera mugatzen omen da.*

Hori horrela, eskolako garaietatik aurrera, gazte euskaldun eta euskaltzaleengan gailentzen da hizkuntza horri atxikitzen zaion irudi/kutsu politiko jakin bat, euskararen izaera linguistikoaren gaineratik. Euskara, egunero hainbat egoeratan normaltasun osoz ez erabiltzea da horren lekuko, ekarpen batzuen ustez; adibidez: *euskalduna izatea ez da erraz adierazten giro jakin batzuetan, ezta erdalduna izatea abeste batzuetan ere. Musika talde batek ez du erraza beste edozien hizkuntzatan, euskara barne. Kirolari batek ez du edozein prentsaurreko euskaraz ematen, bere ohiko hizkuntza bada ere. Ez da inoiz ikusten enpresa multinazional bateko buruak bere hitzaldia euskaraz ematen, baina ingelesez, aldiz, bai.* Posible izango litzateke, seguru asko, kausa-eragin harreman horren norabidea iraultzea eta, horrela eginez, pentsatzea beste sektore eta eragile sozialean behar besteko erabilerarik eza tarteko, euskarak aurkitu dituen euskarri ia bakarrak marka politiko jakinei lotuak direla.

Faktore-segida honetan lekua egiten ari den azkenekoak, aurrekontu publikoak ditu jomuga; alegia, krisi une honetan nola erabiltzen diren: *Krisi ekonomikoaren ondorioz, eta bereziki hedabideek zabaldu dituzten diskurtsoak ikusita, gaur egun diskurtso ekonomiko kritikoagoa izan daiteke, hizkuntzen politiken aurka, garestiak direlakoan. Diskurtso horren arabera, ekonomiaren ikuspuntutik lehentasuna duten beste sektore batzuetan sartu beharko litzateke dirua.*

Euskararen egoerak dituen indarguneak aleatzean euskararen inguruko gizarte *giro lasaia eta baketsua* aipatzen bazen ere (2.1.1. atala), horrek ez ditu ezkutatu behar nagusia den onarpen pasiboa eta bere hauskortasuna: *Euskararen periferian, euskaltzale epelak eta kontrako jendea nagusi da. Euskaltzaleak taldekoak ghetto apetatsu gisa ikusten dira hein batean eta naturaltasun falta somatzen da euskararen inguruan. Euskaltzale multzoko etsiak epeltzerantz joateko arriskua dago, eta multzo epeleko jendea aurkakorantz joatekoa.*

2.2.3. Zenbait gizarte arlotan

Gorago esan dugun bezala, hizkuntzaren egunerokoa egoera jakinetan gauzatzen da. Hurrengo lerroetan egoera jakin batzuetako hizkuntza-argazkiak bildu dira, informatzaileek beraiek saldutako prezioan: *Administrazio Publikoan elebitasun formalak dago, oraindik ahozko komunikazio informalean erabat lortu ez dena / Enpresa-eremuan argi eta garbi nagusitzen da gaztelaniaren erabilera / Txikizkako merkataritza gizartearen isla da. Banaketa-enpresa handiek bere komunikazioan euskara beharra bezala gehitu dute, natural bezala baino gehiago / Publizitatean: sorkuntza gaztelaniaz egin eta gero euskarara itzuli / Ertzaintzarekiko harremanetan ere, oro har, ematen du euskara ez dela ongi etorria, nolabaiteko oldarkortasun edo kontrakotasun bat adierazten duela. Zer esanik ez gainontzeko indar polizialen kasuan.*

Arlokako deskribapen honetan leku berezia bereganatzen du hezkuntzak. Euskalduntze bidean garatuenetakoa den sektorea izan arren, ba omen dago zer hobetu franko: *Irakaskuntzan erdaldunak nahiko lasai daude, zoru partekatua ikusten da denon artean. Baina, praktikan, askotan erdarara jo behar izaten da komunikatzeko / Hezkuntza sisteman, "aukeratzeko eskubide" horren ondorioz, ghettoak egin ditugu eskoletan. Aukeratzeko eskubidea ezin da inoiz kokatu ikasleek euskara ezagutzeko duten eskubidearen gaineratik / Oraindik ere errekonozitu gabe dago eskola publikoak egin duen lana herri hau euskalduntzeko. Batzutan harriak botatzen dizkiogu geure buruari.*

Hezkuntza arloko argi-ilun orokorren baitan, badago aipamen berezia duen sektorea; unibertsitatearena, hain zuzen ere: *Unibertsitatean jarreretan ez dago arazorik, baina jarrerak eta praktikak ez datoz beti bat. Edo, ikasle batzuen gaitasuna ez da behar bezain sendoa eskolak euskaraz eman ahal izateko. Ikerkuntzan oso gutxi erabiltzen da euskara, gure arteko elkarriketetan eta publikatzeko orduan / UPV/EHUko masterrei dagokienez, eskaintza (aurreko mailatan baino) laburragoa da eta hirugarren hizkuntzaren eskaintzarekin euskara ere erabiltzea da erronka.*

Eragiteko tresna gisa, euskalgintza instituzionala zein herritarra sarri askotan agertzen dira loturik kulturgintzari. Izan ere, kulturgintzatik euskararen normalkuntzari egiten zaion ekarpena aitortua da bi alde horietatik. Hala ere, gizartea ez omen da oso eskeonekoa euskaraz egiten den ekoizpenarentzat, ez lortzen duen hedapenagatik, ezta garatutakoari atxikitzen zaion irudiagatik ere: *Gatazka baino, frustrazio puntu bat, agian. Kultur sorkuntzaren eta kontsumoaren arteko talka edo desoreka. Nolabaiteko mikro mundua sumatzen dut kulturgintzan, eta are gehiago literaturan. Kalitatezko sorkuntza dago, anitza, baina ez da ezagutzen. Kanpoko eraginak jasotzen dira eta horrek gure sorkuntza aberasten du, baina guk egindakoak eragiten al du kanpoan? Gainera, zenbait sektore elebakarretan oraindik euskaraz sortzen den kultura folkloarekin nahasten da, ondorioz, euskaraz sortzen den oro bigarren mailakoa da / Kultur programatzaileen artean nolabaiteko beldurra dago*

oraindik, euskarazko ekimenak eskainiz gero hartzailerik ez dela izango, gutxi joango direla... Aurreiritzi gehiegi eta ausardia gutxiegi.

Euskarazko literaturan aldaketak begi-bistakoak direla eta literatura loraldi ederrean dagoela esan daitekeen arren, badago arazo aipagarriak egileen zein edukien aldetik: *...oraindik gizonak nagusi badira ere, geroz eta emakume gehiago ageri da. Bestetik, literatura genero guztiak daude irakurgai euskaraz, ez agian kuantitatiboki (estilo bakoitzetik gutxi), baina bai kualitatiboki (badaude nobela sakonak, arinak, modako gaiekin, gazteentzako sortuak, poema errazak, existentzialak, ipuin laburrak, erreportajeak, saiakera arinak, mardulak...).* Egon badago, baina nork ezagutzen ditu?

Bada gainera, gurean, berriki agertu den mehatxu berri bat, bereziki oso gutxi euskaldunduta dagoen eremu ekonomiko eta enpresakoan: *Profesionalen eta enpresa giroetan euskara dagoeneko ez da bigarren hizkuntza, ingelesak gero eta leku gehiago kendu diolako.*

2.2.4. Lekuan lekuko berezitasunak tarteko

Aipatu diren egoerak eta baldintza orokorrek gauzatze mota anitzak dituzte lekuan lekuko ezaugarrien arabera; alegia, herri edo eskualde bakoitzean euskal hitzunen komunitateak dituen trinkotze eta garapen mailaren arabera. Jarraian aipatzen diren kasuak ezberdintasun hori islatzen dute, neurri handian.

Inon euskararen paradisuak badago, hori *arnasgune* izenpean bataiatu ohi diren lekuak dira, baina halakoak urriak baino urriagoak dira euskararen panoraman: *Euskararen arnasgune diren geografia horiek salbuespena dira euskaraz bizi nahi dugun herritar gehienontzat.* Ingune hauetan kezkarako motiborik handiena da euskara suspertzeko asmoak topatzen dituen zailtasunak: *Testuinguru euskaldunean euskararen normalizazioan oztupo diren neurri edota gertakarien aurrean ezinegona eta haserrea erraz pizten da.*

Euskaldunek pisu demografiko handia duten Gipuzkoako udalerrri bateko egunerokoa, hurrengo lerroetan deskribatzen da bertako bizilagun batek: *Normaltasunez bizi da euskaraz baina aldeko jarrera pro-aktibo gutxi ikusten da. Alegia erdaldun bat badago normaltasunez erdarara jotzen da. Euskaldun batzuk ohitura badute erdaraz egiteko haien artean. Erdaldunen partetik ez da ikusten ezer berezirik, hori bai euskara haien testuinguruan egon badagoela konturatzen dira; egunerokotasunean euskarak bizitza normala duela ikusten dute. Gatazkarik ez da atzematen euskaldunek barneratzen dutelako gatazka osoa, normaltasunez erdarara pasatzean erdaldun bat presente dagoenean. Erdaldunari euskararenganako pausu bat egiteko eskatuko baliokete agian nabarriagoa eta agerrikoa litzateke gatazka. Jarreraren aldetik oraindik oso zabaldua dirudi euskaldunen artean “euskara gaizki egiten dut” bezalakoak, alegia gaizki hitz egiteko sentsazioa eta eredu ona ez dela haiena pentsatzeko joera.* Deskribapen horietako batzuk egoera orokorrean (2.3.1 atalean) agertu dira dagoeneko eta, beste herri edo eskualdeetara mekanikoki orokortzerik ez dagoen arren, oso antzeko argazkia –edo argazki bera- erraz aurki liteke beste hainbat herri euskaldunetan, seguru asko.

Eskualde erdaldunetan *hesi* demo-linguistiko eta soziologikoak daude euskararako; aintzat hartzekoak, hain zuzen. Azken buruan, mota horretako ingurune soziolinguistikoak dira euskararen lurraldeetan ugariak edo hedatuak. Horietako batzuk lehen ere aipatuak izanagatik (2.3.1 atalean), honetara berriz ekartzeak badu zentzua, zehaztasun eta sakontasun handiz azalduak

direlako. Horrela, EAEko beste eskualdeekin hizkuntza-politika bera partekatzen dituzten Araba eta Bilboko metropolia dira hizpide ondoren.

Arabatik, euskara berreskuratzearen onarpen prekarioa eta aurrera egiteko balizko zailtasunak aipatzen dira: *Araban zoru partekatua eskasa da, eta ez nago seguru partekatua den: legedia kontuan hartzen dutena, bai, baina haratago joan nahian legedia ere zalantzan jartzen has litezke hainbat eta hainbat. Ez nuke esango gure hurbileko gizartean partekatua dagoenik ezer asko, ezta euskararen koofizialtasuna ere. Ez behintzat gizarte osoaren aldetik.*

Bilbo metropolitarrako lekuko batek azaltzen ditu bertan euskarak errefus edo aurkakotasun edo gaitzespen handiagoa agertzearen arrazoiak. Hala nola, akademikoak: *derrigorrez ikasteko beharra*; politikoak: *euskara euskal nazionalismoarekin lotzea*; pragmatikoak: *herri-administrazioko zenbaitetara aurkezteko jakin beharra edo puntuaketan abantaila handia izatea.*

Nafarroan, bestalde, hizkuntza-politikaren gauzatzea jartzen du auzian errealitatea gertutik ezagutzen duen parte-hartzaileak: *Nafarroan, hizkuntza politikaren inguruko printzipio teorikoak urrun daude errealitate praktikoan agertzen diren ikuspuntu eta jarreretatik. Azken hauetan, bestelako sentimendu, interes eta subjektibitateen sintomak ageri dira.*

Iparraldeko gainontzeko egoerak kezkarriak aipatuak ez direnez, hurrengo testigantzek gizartearen hautemate ezkorrean jartzen dute ikuspegia: *Euskara hizkuntzaren inguruko diskurtsoak negarroiak dira: beti galtzen, sekula ez egokitzen, hizkuntzen gatazkan ahulena, etab. / Euskarak badu hegoaldeko altxorra baizik ez den itxura askoren buruetan: Espainiarren arazoa edo aberastasuna da.*

2.3. Argi-ilunak

Ez indargune hutsik, ezta ahuleziak soilik, aldi berean bietatik ikusten dituzten parte-hartzaileak ugariak dira. Alegia, arestian esaten genuen bezala, asko dira aurrerapausoak eman direla uste dutenak, aldi berean hainbat gabezia zein hutsune daudela aitortuz.

2.3.1. Egoera orokorraz

Elebakar edo elebiduna izan, euskararen aldeko prozesuan presarik ez, baizik eta denbora tarte nahikoa behar dela ulertzen dute batzuek: *Denbora eman behar zaio, beste edozein normalkuntza motari bezala.*

Bestalde, gurera ere iritsia da, jakina, European ezaguna zen hizkuntzen aniztasuna, eta horrek ohikoa izan den euskara/erdara binomioa irekiarazi du. Eszenatoki berri horetan, ingelesa agertzen da behin eta berriz: *Gizartean "Euskara beharrezkoa da" pentsaeratik "Hizkuntzak beharrezkoak dira" pentsamoldera aldaketa gertatu da edo gertatzen ari da. Garrantzia ematen zaio euskaraz irakasteari, eta gero eta handiagoa ingelesez irakasteari ere bai.* Hortaz, hizkuntza-aniztasunaren onarpenak lekua egin lezaioke euskarari, baina aldi berean horri eskain litzaiokeen eremua beste hizkuntzetarako sarrera ere bada; ingelesarentzat, kasu batzuetan, eta besteetan, gaztelaniaren funtzio garrantzitsua berresteko: *Gure gizartea gero eta multikulturalagoa den honetan gaztelera garrantzi berezia du komunikaziorako "lingua franca" gisa etorkinen artean.*

Baina, European teorikoki defendatzen den hizkuntza-aniztasunaren aldeko apustuaren zintzotasuna zalantzan jartzen du baten batek: *European hizkuntzen pluralitatea aberastasunarekin identifikatzea bada zerbait, baina joko politikoak halakoetan esandakoa murrizten du ondoren.*

Egoeran eta bilakaeran onetik zein txarretik dagoen ustearen muinean erabilera agertzen zaigu berriz ere: *Azken urteotan euskararen erabilerak ez du gora egin nahi bestean eta gizartea egiten ari den esfortzuaren maila bertsuan. Hala ere, areagotu egin da erabilera, eremu formaletan eta ez-formaletan / Erabilerari dagokionez, batzuk militanteagoak gazteen artean; beste batzuk errazago jo dezakete gaztelaniara.*

2.3.2. Hautemate, iritzi eta jarrerez

Lehenago esan dugu errealtatea irakurtzeko baliatzen den ikuspegiaren arabera, pertzepzioen arrazoiak arras desberdinak direla batzuen eta besteen artean. Horiek ez ezik, pertzepzioak ere aldatzen omen dira behatzaileek duten euskararen ezagutzaren arabera, bildutako ekarpen batek dioskun bezala: *Orokorrean erdaldunak pozik daude eta euskaldunak kezkatuta.*

Idea berean sakontzen dute hurrengo paragrafoek ere: *Euskararen normalkuntzan lan izugarria egin da azken 40 urteetan: Ikastolak, helduen euskalduntze eta alfabetizazioa, kultur ekoizpena, udal eta enpresetako euskara planak, sentsibilizazio kanpainak eta abar luze bat. Horiek guztiek badute, hein handi batean, errekonozimendua eta ezagutza euskaldunen artean. Baina euskal unibertsotik kanpo daudenek ez dituzte horrenbeste ezagutzen, eta ezagutzen ez duenak ez dio aitortzen ez errekonozimendurik ez eta atxikimendurik ere.*

Batetik, hiztun euskaldunen eta erdaldunen artean eta, bestetik, jarrera aldarrikatzaile eta uzkurren artean hautemate, iritzi eta jarrera ezberdinak egon ohi direnez, tira-bira ere agertzen dira. Egoera gatazkatsutat jotzen dute batzuek eta, tira-birak tira-bira, gatazka piztera ez dela iritsi uste dute besteek. Dena den, duten garrantzi eta larritasun txikiarekin egungo istiluek ez gaituztela gehiegi kezkatu behar ohartarazten dute zenbait parte-hartzailek: *Jendea euskal hiztuna ez denean ere euskararen normalizazio eta erabilerarekiko tolerantzia ez ezik ulerkorra ere bada. Beti dago jarrera erradikalagoak erakusten dituenik, sarritan egoera pertsonal edo politiko muturrekoren batek eraginda. Hizkuntza eskakizunen kontua da jendea asko asaldatzen duen gaietako bat. Baina ez nuke esango gatazka dagoenik, eta ez dadila egon, hori litzatekeelako denok galbidean jartzeko arrazoia / Esku sartze publikoa beharrezkoa denean joera kontraesankorrak agertzen dira arlo guztietan (migrazioa, genero berdintasuna...), beraz, hizkuntza gatazka ere badagoela ez da ezkutatu behar, baina dramatizazioa kenduz, ez da arazo bakarra eta beste kontuetan izaten den arduraren eta kemena erakutsi behar dute agintariek gai honetan ere / Politika inguruneak sortarazten duen giro gatazkatsua, ez dago kalean (are gutxiago beste kezka larriagoak daudenean).*

Badaude, bestalde, gatazkaren arriskua zein berau kudeatzeak duen zailtasuna aitortzen dituen, aldi berean horiek saihestezinezkoak eta aurre egin beharrekoak direla argi utziz: *Hizkuntza gutxitu bat ofizialtzat hartzeak hiztunentzako dakartzan eskubideek hizkuntza-komunitateen arteko gatazka sor dezakete, zeinak ez dira bideratzeko errazak izaten. Ia-ia ezinbestekoa da hizkuntza-eskubideetan oinarritutako legeria izanik, Framing Aldarrikatzailea eta Framing Uzkurra izatea gurean eta ur horietan igeri eginez aurrera jarraitu behar da.*

2.3.3. Zenbait gizarte arlotan

Arlokako deskribapen honetan, hezkuntza sistema agertzen zaigu indartsu, beste behin: *Lehentasunezko alorretatik (hezkuntza, komunikabideak eta administrazioa), lehenengoak eman ditu fruituak, besteek apenas. Baina hain zuzen hezkuntzak euskalduntzen dizkigunez, ikasgaiei ematen zaien trataeran geratzen da neurri batean euskararen ezagutza ere. Alegia, ikasi bai eta erabili behar*

denean, bestela ez. Ez da, beraz, aurrerapauso sendo-sendoa./ Hezkuntza sisteman (bereziki unibertsitatean) elebitasun ofiziala guztiz barneratua dago. Erresistentziak badira oraindik ere, baina iraganekoak baino motelagoak.

Onarpen mailan unibertsitatean eman den aurrerapausoen aitortza egin eta gero, hizpide dira gabeziak eta hobetzeko puntuak ere: *Euskararen erabilera ezberdina da, tokiaren, fakultatearen eta sailaren (eta unearen) arabera. Eta "ezberdina" hitza kalitateari ere badagokio, neurri jakin batean / Irakasle "euskaldun" asko oso euskaldunak ez izatea da arazo nagusietako bat. Dozentziaren kalitatearen aurka doa hori euskaraz ikasten dutenentzat.*

Dena den, ikasketetako euskal eta erdal adarren inguruan bi hiztun komunitate ezberdin eta erabat banatuen errealitatea kezagarria da baten batentzat, erdal mundu horretan kokatzen direnak euskaratik guztiz at gelditzen direlako, batere inplikaziorik gabe hizkuntza horrek dakarren gora-beheren aurrean: *Euskararen erabilera naturaltasunez gauzatzen da, gatazkarik ez dago eta. Jarrerak ordea gatazka ezak lanbrotzen ditu. Oro har, hizkuntza bietako postuak sortu izanak zera ekarri du, ikasleen beharrianak atenditzen dira, eta erdara hutsean diharduten irakasleengan ez dago inongo eraginik. Bi esparru daude, bi ibilbide paralelo: euskararen inguruko problematika euskal irakasleena, euskara-dekanotzera, euskara errektoreordetzarena da, ez komunitate osoarenak. Disoziazio bat dago, eta diskurtso ofiziala gora behera, zatitze bat gertatu da. Azken buruan, unibertsitatean dagoen sistemak berak sortarazten edo indartzen du arestian (2.2.2. atalean) aipatu dugun indiferentziaren arriskua.*

Herri-administrazioan ere argi-ilunak ikusten dira, horien lekuko da Eusko Jaurlaritzari buruzko deskribapen hau: *Euskara erabiltzen den heinean inguruan ere bere eragina du eta ingurukoek ere euskara erabiltzen dute, batez ere ahozko komunikazioetan. Idatzizko sormena, oraindik ere, gaztelaniazkoa da. Emailetan, aldiz, gero eta gehiago erabiltzen da euskara. Bilera haundietan gaztelania da nagusi, txikietan berriz euskara gero eta gehiago erabiltzen da. Diskurtsoaren aldetik, diskurtso positibo batek euskararen aldeko jarrera aktiboak berez sortu ditu.*

Eremu pribatuko jardun batzuen egoera ere aipatuak dira, hala nola lan-girokoa edo lagun artekoa. Bertan, agerian jartzen dira aurrerapausoak, eta egoeraren arabera hizkuntza-egokitzea: *Nire ingurune profesionalean ez dut hizkuntza-gatazkarik bizi izan, ezta arazorik edo zailtasunik ere. Gero eta gehiago dira euskaraz hasten bilerak eta, baten betek ulertu ezean, erdarara aldatzen da normaltasun osoz. Beste horrenbeste gertatzen da nire harreman pertsonaletan, non kolore politiko guztietako adiskideak ditudan eta inoiz ez da gai horrengatik arazorik gertatu. Gatazka kutsurik ez dago, beraz, erdaldunekin konbergentzia bilatuz elebidunek erdararen alde egiten dutelako.*

2.3.4. Lekuan lekuko berezitasunak tarteko

EAEEn, euskara eta gaztelaniaren artean lege estatusaren ikuspegitik dagoen ustezko oreka salatzen du ekarpenetako batek: *EAEko eredu legal ideal batean, legediak dioen "...guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea" testua ez da guztiz egia. Gaztelania ezagutzea eskubidea baino gehiago bete beharra da. Euskara ezagutzea, ordea, kasurik onenean eta hiritar askorentzat nekez berma daitekeen eskubidea baino ez. Era berean, zalantzan jartzen da legedian egiten den diskriminazioa saihesteko aldarria: Hizkuntza dela medio inor diskrimina ezin daitekeela esatea guztiz baieztapen hutsala da: gizarte guztietan diskriminatzen da hizkuntzaren arabera.*

Begirada Araban jarriz, bertako egoera zehatz bat azaltzen digu ondoko testigantzak, zeinak framingaren bi ertzetan mugitzea halaberrez ere suerta daitekeela adierazten digun: *Erakunde barruan denetik dago: laguntzeko prest daudenak eta bakean uzteko sentiarazten dutenak. Araba euskalduna aldarrikatzen dutenak eta "Háblame en cristiano" diotenak. Batzuek, azkarregi goazela eta, beste batzuek, oso poliki goazela adierazten dute. Hizkuntza Politika egitea egokia dela baina batez ere eta ia soilik Hezkuntzan, horrekin euskara biziko da eta. Baina, badira ere orain arte egindakoari so eginez, argi eta garbi azpimarratzen dutenak eskolan ikasi dutenarekin bakarrik ez dela lortzen ezer, itxura bakarrik. Euskara gipuzkoarren eta bizkaitarren kontua dela esaten dute hainbat arabarrek, beraien etxetan euskara ez dela INOIZ hitz egin eta Araban bestelako estatusa izan beharko lukeela. Garai zail hauetan, dirua euskararen kontuetan xahutzea pena handia dela, eta ea merezi duen. Administrazioan hainbat langile sartu direla euskarari esker, eta ez jakiteagatik diskriminatuta geratu dira besteak. Euskara koofiziala dela ezin uka, baina harremanetan komunikaziorako tresna bakarra, egokiena, gaztelania da elebakarrarentzat.*

3. AURRERA BEGIRAKO IKUSPEGIA

Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa (EGOD) izeneko dinamikaren xedea horrela zehazten da

Hizkuntza normalkuntza bai, baina ez edozein baldintzetan. Normalkuntza hori ulertu nahi da sentsibilitate ezberdinak dituzten herritarren arteko elkarbizitzan.

3.1. Xede bikoitzeko asmoa

“Hizkuntza normalkuntza” kontzeptuaren funtsezko definizioa zein osagarriak zehazteko ahaleginak egin dituzte parte-hartzaileek. Horien artean badaude oinarri filosofikoa dutenak eta ikuspegi pragmatiko jorratzen dutenak. Beste ekarpen batzuetan, mota bi horietako ikuspegiak elkarrekin edo nahasian agertzen dira.

Hizkuntza normalkuntza horretan ez da euskara soilik aintzat hartu behar, erdararekin uztartuta baizik: *Euskarak, berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa izan behar du, baina horrek ez du esan nahi gaztelania ez denik berezkoa (asko eta askorentzat hala dela argi dago). Ideia horren aurrean adostasun handia lor daiteke, elkarbizitzarako bidea da.*

Ikuspegi horretatik, normaltasunaren jomuga *elebitasunean dagoen desoreka sozialki aldatzea* litzateke, baina euskarazko elebakartasunaren amets zoroan erori gabe: *Gizarte osoa euskalduntzea esaten denean zer ulertu behar da, denek euskaraz baino ez dutela jakingo? Hori horrela irakurtzea edo aldarrikatzea tranpa zein ilusio inozoak dira hurrenez hurren. Euskarak Gaztelaniak duen estatus bera izatearekin konformatuko ginatete gehienok. Ezin dugu euskara edo gaztelania aukeran jarri; biak badira bertakoak eta ofizialak, biak ikasi beharko dira eta biak erabiltzeko aukera erreala izan. “Libertad de lengua” da biak ikasteko bidea izatea, biak ezagutzea, eta denok nahi duguna erabiltzeko aukera izatea, besteei oztoporik jarri gabe. Hor dago gakoa, euskararen normalizaziorako bidea landu behar dela dagoen sistema asimetrikoak guztiz egiten duelako Gaztelaniaren alde, oraindik. Ezinbesteko baldintza dugu euskal herritar guztiok eskubideak izateko modua bermatzea.*

Euskararen erabilera jartzen da askotan normalkuntzaren ipar, maila orokorrean edota egoera jakinetan: *Gakoa da gizarteak eguneroko jardueretan euskara erabil dezala lortzea / Ikerkuntzan, ezagutzatik erabilera pasatzea izango litzateke gure erronka handiena (bai hitz egiterakoan, bai argitaratzerakoan). Dena den, euskal hiztunek dituzten premiak ere aintzat hartzen dira, beste betzuetan: Euskaldunon beharrak ere ase ditzakegu (kultur mailan, antzerkia euskaraz bultzatuz, pelikulak euskaraz jarriz ...).*

Asmo horiek, elkarbizitzaren printzipioarekin osatzen dira zenbait kasutan: *Une honetan ezagutzatik erabilera pasatzea izango litzateke erronka handiena, inoren eskubideak urratu gabe eta sentsibilitate desberdinen artean adostasunak bilatuz / Helburua da euskararen bidez (hizkuntzen bidez), sentsibilitate ezberdinen artean bideak eraikitzea eta lotzea.*

Elkarbizitzarako gutxieneko adostasun-puntuak beharko lirateke, honako hauek hain zuzen, ekarpen batek dioskunez: *Identitate eta kultura partekaturako maitasuna. Hizkuntza, erlaziorako eta bizikidetasunerako erreminta bezala ulertzea. Ingurune sozial eta ideologiko jakinetik euskara askatzea.*

Hala ere, beste batzuen aburuz onartezina litzateke adostasunaren izenean prozesua oztopatzen edo trabatzen uztea: *Maila aplikatiboan lehentasuna ezin da izan adostasuna lortzea. Erabakiak eta neurriak hartu behar dira, aplikatu eta gizarteari ahalik eta egokien, argien, sendoen komunikatu. Ikuspegi honetan, kontsentsuren bat bilatzea ongi ikusia den arren, hizkuntza normalkuntzaren muina euskara suspertzean datza eta horretara iristeko eraginkortasuna eskatzen du: *Diskurtso mailan ahalik eta adostasun maila handiena lortzen saiatzea ondo dago, baina eraginkorrak izateko zoru partekatuaen ideia horretan. Ezin gara indarrak alferrik xahutzeko dinamikan murgildu, euskararen kontrako jarrera argiki adierazten duten horiek konbentzitzeko saiakeran. Jarrera aktiboko euskaldunak, euskaraz bizitzeko egiten duen ahalegina azpimarratu eta txalotuko duen diskurtsoa behar du jaso. Euskaltzale konbentzituak euskararen alde neurriak hartzen ari direla ikusi behar du.**

Beste ekarpen batzuek, sen demokratikoa oinarri hartuta, askatasunean oinarritutako bizikidetzeta eta euskararen normalkuntza kontrajartzeko joera gainditzea eskatzen du: *Aldi berean, norbanakoaren askatasunaren eta euskararen onuraren arteko gatazkaren ideia desaktibatu beharko litzateke, gutxienez bi arrazoirengatik: a) Gizarte demokratiko batean ezin dira kontrajarri hizkuntzaren aukera eta askatasuna. Askatasuna, modu adostu eta ordenatu batean mugatu daiteke-eta; b) Demokraziaren muinean gizakiak daude, nor bere nahi, iritzi eta beharrekin, ez horrenbeste ente kolektiboak edo abstraktoak.*

3.2. Xedearen osagaiak

EGOD dinamikaren xedea behin zehaztuta eta, 2. atal osoaren zehar, euskara normaltzeko prozesuak orain arte ekarri dizkigun aurrerapenez eta oraindik asebetetzeke dituen hutsune edo gabeziez jabetuta, une egokia zaigu proposamen berri baten nondik norakoak zirriborratzen hasteko. Ahalegin horretan osagai nagusiak zein izan daitezkeen eskainiko ditugu jarraian, betiere lagun parte-hartzaileek egindako ekarpenak oinarri hartuta.

3.2.1. Legedi eta araudia

Euskararen lurralde batzuetan, duela hogeita bost bat urte ehundu zen hizkuntza horren normalkuntzarako lege eta araudien marko bat, baina ez lurralde guztietan. Dagoen horietan, gainera, aukera ezberdinak garatu ziren, gehiengo politiko zein ezaugarri soziolinguistikoaren arabera.

Urteak joan urteak etorri, eta euskararen normalkuntzarako dagoen oinarritzko lege-erreferenteeak bere horretan diraute, gehienbat. Gizarteak, oro har, izan dituen aldaketei eta bilakaerari erreparatuz gero, lege-funtsa horren *aggiornamentoa* eta egokitzea beharrezkotzat jotzen dira: *Gizarteak nabarmen aldatu du azken 40 urteotan eta erreralitate berriak izan behar du kontsentsurako abiapuntua. EAEko Autonomia Estatutua eta 10/182 Normalkuntzarako Legea oso baliotsuak izan ziren une hartan, baina gaur egun zaharkituta daude eta bestelako osagai berriekin baliatu beharko dira diskurtso berria osatzerakoan. Beste horrenbeste gertatzen zaio 1992. urtean Europako Kontseiluak osatu zuen Erregio edo Gutxiengoaren Europako Hizkuntzen Ituna izeneko dokumentuari.*

Ordenamendu juridikoa aldatzen hasi aurretik, ordea, jakin behar da zein den helburua. Alegia, argitu behar da zein den euskararen normalkuntzaren xedea eta, ingurune elebidun edo anizdun gaudenez, hizkuntza bakoitzari zein leku egin nahi diogun: *Lege-betebeharretatik harago, etorkizunari begira aztertu beharko dugun auzia zera da: zer paper jokatu du euskarak Euskadiko gizarte hizkuntza-aniztasunean?*

Definizio horretarako, argi eta garbi dagoen, teorian bederen, oinarrizko printzipio bat: *Ezinbesteko baldintza dugu euskal herritar guztiok eskubideak izateko modua bermatzea.*

Hori bideragarri egiteko lehenbiziko eta ezinbesteko baldintza litzateke koofizialtasun osoarena. Horren ondorioz letozkeen neurriak ere berdinak lirateke ofizialtzat hartu diren hizkuntzentzat: *Bi hizkuntza ofizialak maila berean egon behar dute. Eta horrek, zera esan nahi du: Gaztelaniak legez eta moldez duen maila bera izan behar du arlo guztietan Euskarak, orduan izango dira bi hizkuntzak ofizialak eta ez da egongo inor diskriminatuta.*

Lege mailako berdintasuna nola interpretatu da gakoetako bat eta lege-marko berri bat egiteko ez litzateke egokia izango hizkuntzen arteko lehiaren planteamendu batetik abiatu; paradigma bera errepikatuz gero, gatazkarako joera ere berriz agertuko da: *Tentsioak berme legalen inguruan sortutako korapiloak dira. Maila horretan oso nabaria da bi framing-en arteko talka, funtsean legeak urritasunaren paradigmari erantzuten diolako: ofizialkide izateko bi hizkuntzek oreka sendo bat behar dute, eta egoera horretatik oso urruti gaudenez gero, galtzeko duenak atzera egiten du, eta irabazteko duenak, berriz, gehiago nahi du, eta bizkorrago, gainera. Beraz, tentsioak ebitaezinak dira. Baina, tentsioak guztiz saihesterik ez badago ere, lege-abiapuntu egoki batek gatazkarako grina arinduko luke zerbait.*

Berdintasuna interpretatzeko egon daitekeen gorabeherak ongi islatuak gelditzen dira hurrengo kasuan, non EAEko egungo Autonomia Estatutuaren hizkuntza-oreka, gaztelaniaren aitortzari dagokionez, zalantzan jartzen den: *Testu estatutarioaren erredakzio irekiago eta errealitatearen araberakoagoak gauzak erraztuko lituzke: “Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza” dela esaten da, Gaztelania kanpokoa; Gaztelania ere berezkozat joko beharko luke. Gaineratu liteke, bai, “Euskarari, endemikoa eta egoera gutxituan egonik babes berezia emango zaiola”, baina gaztelaniaren bertakotasuna ukatu gabe. Euskara eta gaztelania euskaldunen berezko hizkuntzak dira eta pauso egokia litzateke gaztelania hizkuntza kanpotar bezala eta gaztelaniadunak arazo bezala hartzeari uztea.*

Bestalde, Europako hizkeran euskararentzat ohikoa den erregio hizkuntza izendatzea edota hizkuntza gutxituaren tratamendua, bi-biak, onartezinak dira baten batentzat eta hizkuntza handiei eskaintzen zaion onarpen maila bera eskatzen da: *Hizkuntza nazionalekin lerrokatzea, Europako nazioen hizkuntza ofizialaren estatusa edukitzea buruan eta ez “babestu beharreko hizkuntza”.*

Beraz, legearen eta araudiaren berritzea ez litzateke xamurra izango, ikuspegi, interes eta interpretazioan araberako tira-birak nahi baino gehiago liratekeelako, dudarik gabe. Ekarpenez batzuek horretaz ohartarazten digute, aldi berean aurrera egiteko behar besteko ausardia gomendatuz edota eskatuz: *Zailtasun eta oztoporik handienak lege-bermearen esparrutik etorriko dira eta, horretan, irmotasuna adierazi behar dute erakunde publikoek / Lege-bermea ezinbestekoa da oinarrizko ofizialtasuna erdiesteko, eta horretan hizkuntza-politika malguak baina era berean irmoak behar dira oraindik. Ez genioke horri beldurrik izan behar eta gutxieneko zoruaren oinarri-oinarria derrigorrezkoa da, beraz / Adostasuna eta ausardia behar dira.*

Garai bateko legedia gaurkotu eta egokitzea ez ezik, zeruertz berriak markatzea eskatzen zaio planteamendu berri bati: *Zerbitzu-hizkuntza izango bada, lege-bermeak oraindik bete ez dituen esparruetarako ekintza-lerro argiak ezarri, epe, baliabide eta helburu jakinekoak.*

3.2.2. Hizkuntza Politika

Legedia eta Hizkuntza Politika eskutik joan ohi dira. Batzuetan, legeak erakutsi eta ezarriko dio egin beharreko bidea hizkuntza politikari eta, bestetan, azken honek finkatuko ditu lege berriak garatzearen premiak zein diren. Aurreko atalean esan dugunez, euskararen normalkuntzaren parametroak egungo gizarte ezaugarri eta premietara egokitzeko lege eta araudiaren markoa ere berri beharra dago. Hortaz, euskararen hizkuntza politikak *aldaketaren kudeaketa* izango du bere eginkizunen artean: *Bestetik, hizkuntza politika berria diseinatu eta abiatu behar da.*

Euskararen gaineko lege eta araudien markoa, lurraldearen arabera ezberdina izanik, atxikitako hizkuntza politikak ere ez dira leku guztietan berdinak. Ulergarria da, hortaz, parte-hartu duten lagun batzuek, lurralde guztientzat ez, baizik eta lurralde jakin batzuen inguruko gogoetak egin izana.

Batzuen usteetan, egindakoaren bidetik jarraituz, orain arte lortu dena ongi kudeatzean datza hurrengo pausoetarako gakoa, horretarako ardura publikoak dituztenek ahalik eta informaziorik egokiena baliatuz: *Hizkuntza politikaren arrakasta ondo kudeatuko duen politika bat behar da orain. Horretarako garrantzikoa da politikagileek informaziorik onena izatea hizkuntza eta elebitasuna jorratzen duten alor guztiekin, ikerketaren alorra barne. Europak bultzatu nahi duen egiazko ebidentzian oinarritzen den hizkuntza politika (evidence based policy).*

Errealitateari estuki lotutako politika horrek, euskal gizartearen aniztasunari erreparatu beharko lioke eta, hortaz, badu erantzun beharreko premia larri bat: *Euskadin euskara eta gaztelania ofizialkideak direnez gero, bi hizkuntza-komunitateen harremana antolatzea dagokie erakunde publikoei, hots, komunitate horien eskubide eta betebeharrak, itxaropenak eta beldurrak aintzat hartuz, politika egitea.*

Aniztasunaren balioa aintzat hartuta eta egiazko ebidentzietan oinarritzen den hizkuntza politika diseinatu eta garatzeko, ezagutza soziolinguistikoa sakondu beharko luketen azterketa zientifikoak egitea aholkatzen da: *Hausnarketarako, gaur egun euskal gizartean hizkuntzen aniztasunaren inguruan dagoen pertzepzioa ikertu behar da. Elebakartasunaren borroka erabat gaindituta dago, eta ez da euskara eta gaztelaniaren arteko liskarren ondorioz gertatu, mundu-ikuskeraz askoz zabalago bat gaineratu egin zaigulako baizik. Nagusitasunaz baino, indarren posizio orekatuaz eztabaidatu egin behar dugu. Adostasunak bilatzeko orduan, gizarte-pertzepzioen azterketa sakonagoaren emaitzak hartu: gaur egungo euskal jendeak bere eguneroko bizitzan hizkuntza-aniztasunarekin dituen harremana zertan den xehe-xehe aztertu eta horren ikasgaiak aplikatzen saiatu.*

Baina, hizkuntza politika egoki bat diseinatu ahal izateko pertzeptzioak ez ezik, beste hainbat elementu ere izango dira azterketa sendoen jomuga, neurriak aplikatzeko dauden aukerak eta baldintzak ere barne: *Azter dezagun nolako harremana izango duen euskarak berekin batera garatzen ari diren gainerako hizkuntza-komunitateekin. Zein da aurreikusten dugun euskal hiztunaren hizkuntza-esperientzia? Nolako funtzio-oreka izango du menderatuko dituen hizkuntzen artean? Zer behar dugu funtzio-oreka hori garatu ahal izango duela bermatzeko? Ezagutza? Erabilera-esparru eta bitartekoak? Masa kritikoa?*

Hizkuntza politika bati, politika egiteko mota guztiei bezala, eraginkortasuna eskatzen zaio; emaitzak ekartzea, alegia. Baina neurriak hartzeak arriskua ere hartzea da, ekarpen batzuek ohartarazten diguten bezala. Zehatzago, euskarari mesfidantzarekin begiratzen diotenen aldetik, arriskuak honakoak izan daitezkeela esaten digute: *Euskararen aurkako taldekoekin gerta litezke gatazkak Administrazio publikoko lanpostu eta eskakizunekin bereziki, baina baita hezkuntza arloan ere / Prozesua presioaren bitartez bizkortzen saiatzea sortzen du arbuizatzea*. Kasu horretan politikak beste estrategia har dezala proposatzen da: *Euskarak lilura, limurtzea, eta ez inposatzea behar ditu*.

Hortaz, euskara normaltzeko eraginkortasuna eta,aldi berean, bi hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetzua adiskidetsua ahalbidetuko lukeen hizkuntza politika diseinatzea da gakoa. Horretarako baliotsuak izan litezkeen zenbait ideia jaso da, adibidez, "elebiduntze progresiboa"rena: *EAEn ofizialak diren bi hizkuntzen arteko desoreka nabarmena orekatzen jarraitu nahi bada (alegia, berdintasuna, erabilera sozialerako eskubideei dagokionez), "elebiduntze progresibo"aren norabidea berretsi behar da etorkizunera begira. Elebiduntze progresiboaren ildoak bi oinarri hauek lituzke, nolabait: a) Etorkizun batean biztanle guztiek izango dute gutxienezko gaitasuna bi hizkuntzetan: hitz egiteko gai izango dira, edo gutxienez, bi hizkuntzak ulertzeko; b) Banakoek, taldeek, erakundeek..., bi hizkuntzak jakinik, askatasuna izango dute zein hizkuntza erabili erabakitzeke edo hautatzeko*.

Bada, egindako bidearen berri eta egungo egoeratik aurrera, unean uneko lehentasunezkoa edukien arabera mailakatze bat osatzen duena: *XX. mendean zehar euskararen gaineko diskurtsoari kutsu politikoa ezarri zion bete betean erregimenak, aldiz, 60.eko hamarkadan, erregimen politikoa aldatu eta orduetik euskararen framing-a adostasun zabalen gainean eraiki nahi izan da (Inaki Martinez de Luna). Egungo erronka diskurtsotik erabilerara, euskararen beharrianetara hurbiltzea litzateke*.

Hizkuntza politikak, interbentzio mota guztiek bezala, badu beste osagai garrantzitsu bat: neurriak aplikatzeko abiadura, hain zuzen. Askotan, gainera, abiadura eraginkortasunarekin nahasten da, lorpen mamitsuak eta neurriak azkar ezartzea gauza bera balitz bezala ulertuz. Horregatik, abiadura egokiaz eztabaida izatea ohikoa izaten da: *Hor kokatzen da gero gizarte mailako eztabaida, elebiduntze hori egiteko modua zein den, zer den "azkar" joatea, zer "mantso", zer den lorgarria, noizko izan litekeen, eta abar*.

Hizkuntza politika baten beste arrisku bat izan liteke –izaten da- hartutako neurriek ekartzea aurreikusi ez diren albo-kalteak. Hurrengo adibidea euskarazko kulturgintzari lotutakoa da, eta azaltzen du euskarazko ekoizpenaren babeserako sortua den baldintza bat, bilatutako emaitzik lortu ez, baizik eta ondorio kaltegarriak ekar litezkeela: *Kulturan, euskararen erabilerak gehikuntza graduala eta garapen jasangarria izan ditzan dagoen mehatxuetako bat da nahitaezko kuoten exijentzia (programazio kulturean, liburutegietako fondoetan), eta ez lukete bermatuko euskaldunek horiek baliatzea*.

Atal hau bukatzeko, hizkuntza politikak epe ertaineko ikuspegi globalarekin jokatu behar dela gogorazten duen iritzia dakarkigu, bai neurriak zehaztean bai estrategiak diseinatzerakoan (strategiak aurrerago jorratuko dira sakonago): *2030/2040 urteetan biztanleria aktibo ia osoa izango da euskara irakasgai gisa edo euskaraz ikasi izana eta, hortaz, nahikotasun maila izango du. Hizkuntzaren ezagutza orokortu hori eremu guztietan erabilera bihurtzeko politika zein estrategia egokiak garatzen hasi beharko litzateke / Hain zaila al litzateke galdetzea gizarteari nolako gizartea nahiko lukeen 40 urte barru? Edo 20 urte barru? Eta argazkia atera eta gero, zaila al litzateke hizkuntza politika egokiak eta adostuak egitea, ez bakarrik euskararena, beste hizkuntzena ere bai?*

3.2.3. Komunitatea

Hizkuntza politikak, lehendabizi, hizkuntza ofizialetako hiztunen arteko bizikidetza adiskidetsua bilatu beharko luke eta, ondoren, batzuek eta besteak aniztasunean oinarritutako komunitate bakar batera biltzea.

Bizikidetza adiskidetsuaz gozatuko duen hiztun komunitate anitzaren helburua erdiesteko, garrantzitsua izango da herritarrak zein gizartea nahikoa garatuak eta helduak izatea. Baldintza hori, batzuen ustez, ongi betetzen da gurean: *Euskal gizarteak eta euskal herritarrek, sektore desberdinetan kokaturik, heldutasuna eta konpromisoa erakutsi dizkigute azken hiru hamarkadetan. Gizarte helduek merezi duten errespetua merezi du euskal gizarteak ere.*

Mota horretako komunitatea bultzatzeko eta ahalegin hori arrakastatsu gertatzeko, egoki izan daiteke komunitatearekin berarekin abiatzea: *Gizartearen nahiari eta ahalmenari erreparatzen dakien diskurtso taxutzea komeni da, gizartea eta herritarrak "nahi eta ezin" baten murgildu gura ez baldin baditugu, behintzat.*

Zentzu horretan, komunitate horren nahiari lehentasuna hasieratik ematea eskatzen du ekarpen batek baino gehiagok, ohiko erakunde eta erabakiguneen sarea une hortaz bigarren planoan utziz: *Inspirazio-iturria bilatzeko, lehen fase baten gutxienez, interesgarria litzateke: a) Gizarte egituratutik (erakundeak, politikagintza, enpresari-elkarteak, sindikalgintza, euskalgintza eta abarretik) alde egitea; b) Herritar arrunt anitzengana jotzea (merkatari, taxi-gidari, kirolari, enpresari, guraso, aitiba- amona, arrantzale, karrera amaitu berri ...) / Gakoa: herritarren eskubideetan oinarritutako diskurtsoa eraikitzea eta euskara, behin-betiko, euskal gizarte osoaren altxorra den heinean, politikagintzan alderdi guztiek bere egitea. Herritarrekiko gardentasunean eta irekitzean oinarritzen diren gobernantza-molde berriek lagun dezakete eginkizun horretan (gobernu irekiek, legebiltzar irekiek ...).*

Izan erakunde eta botere guneekin batera ala horiek gabe, izan ohiko funtzionamendu politikoaren eskutik edo gobernantza-molde berrien bidetik, lagungarria litzateke atzekoz aurrera abiatzea herritarren nahiak jaso eta proposamen adostu batean gauzatzeko: *Kontsentsu baten abiapuntua hizkuntzarentzat dugun azken helburuan edo jomugan bilatu behar da: zer da euskara gure kulturen, nolako balioak ditu, bere izaerari lotua doan hizkuntza galtzeak zer esanahi du herri batentzat, eta abar.*

Abiatu beharreko bidai horretan, balio nagusietako bat izango da ezberdinen artean elkar errespetatu eta norberaren maila berean besteak ere onartzea. Horrela eginda, gogorarazten digute batzuek, jarrera tolerantean asko irabaziko dugula: *Hizkuntza kontuetan ezin gara inor besteen gaintik sentitu, ez euskal hiztunak erdal hiztunen gaintik, ez alderantziz, baina ezta euskal hiztun abertzaleak ez abertzaleen gaintik, eta abar. Tolerantzia ariketa bikainak egiteko aukera paregabeak ematen dizkigu hizkuntzen zelaiak.*

Ezberdinak direnen arteko elkargune orekatua aurkitzea da erronka, eta ez txikia, norberaren abiapuntuak erabat baldintzatzen duelako orekaren puntua. Proposamen batek, adibidez, horrela ikusten du elkargunerako aukera egokia: *Euskalduntze prozesua denon lana da, euskaraz dakitenena eta ez dakitenena ere bai. Dakigunok ez dakitenei gure aldera ekartzen ikasi beharra daukagu, atakatuta sentitu ez daitezen eta hizkuntza guk bezala maitatzen ikasteko eta, poliki poliki, euskara*

gure hizkuntza nagusi bezala txertatu ahal izateko. Euskarari duen garrantzia eman behar diogu baina lehen erdararekin egin zutena egin gabe, inposatu gabe alegia.

Ezberdinen arteko errespetua eta elkarren onarpena, euskarak behar duen bizikidetza adeitsuan ariko komunitateak “berdintsuen” artekoa ere behar du izan: *Euskara alorlean eta, bereziki, kulturean eta hezkuntzan, euskaldunen arteko bidezaliari aurre egin behar zaio, hori apurto! “Ofiziala”, Jaurlaritzakoa, eta “herrikoia” kontrajarriak direlakoan jokatzeko da maiz, eta osagarriak behar dute. Biak dira beharrezkoak baina ez dago zertan lana bikoiztu eta intrusismoa sortu. Erakunde publikoek ez dute populismora jo behar eta herri mugimenduek ez lukete funtzio publiko paralelorik bete behar. Plano desberdinak definitu eta adostu behar dira, ardura banaketa eginez, zintzo jokatzeko eta aurrera pausuak eskainiz.*

3.2.4. Diskurtsoak

Ezberdinak diren arteko elkarbizitza adiskidetsura iritsi ahal izateko, bi ikuspegi edo pentsamolde ustez kontrajarriak zilegitzat eman beharko dira. Batetik, gizartearen sentzibilitate multzoari dagozkion diskurtso ezberdinak. Bestetik, ezberdintasun horiek guztien gainetik euskararentzat topagunea edo zoru partekatua izango den oinarriko diskurtso bat: *Ekimen berriak bideratzeko, diskurtso berria sortu behar da, zeinaren arabera bertan bizi garen denontzat balio duen hizkuntzak, eta denok erabiltzen dugun pertenezko sentimenduen eta ideologiaren gainetik.*

Gizarte giro batzuen artean ba omen daude partekatzen diren gutxieneko baldintza batzuk, horien gainean hizkuntza politika egonkor bat eraiki ahal izateko: *Euskaltzale eta epelen artean bada zoru partekatu moduko bat. Euskal herriko hizkuntza euskara dela eta artez edo molde zaindu beharreko zerbait.*

Ekarpen gehien aurreikuspenak, ordea, urrutirago doaz, euskaltzale eta epelak soilik ez, baizik eta ikuspuntu ezberdin guztiek bat egingo duten diskurtsoa bilatzeko asmoz: *Diskurtso berria eraiki behar da, euskara gizarte elementu integratzaile bihurtuz / Adostasun puntuak badaude. Kasu batzuetan apur bat aurrerago joan daiteke, baina alde aurretik adostasun ahalik eta zabalena bilatuta izan behar du / Gure euskarak kontsentsuz abal baten premia du, oraingoa baino zabalagoa, erabatekoa izatera iritsiko dena, non sentzibilitate guzti-guztiak eroso sentituko diren.*

Integraztearen funtzioa ez ezik, bestelako funtzio batzuk ere betetzea eskatzen zaizkio eraiki beharreko diskurtso berri horri: *Diskurtso berritua behar da euskararen inguruko prestigioa eta lotura afektiboa sustatzeko eta euskararen aldeko arrazoi praktikoak emateko.*

Prozesu hori aurrera eramateko beharrezkoak diren osagaiak ere aletu dira ekarpenetan: a) *Hitz egitea denok elkar ulertzeko, sentzibilitate desberdinen artean adostasunak bilatuz, konnotazio politikoak eta gatazka politikoak alde batera utzita; b) Hausnarketa soziolinguistikoa eginez, estrategiak bir-pentsatu adostasun puntuak lortzeko; c) Gogoeta gizartera zabalduz, lan pedagogikoa egitea. Pertsonak dinamika horretan konprometitu ezean, hartutako neurriak arrotz eta beraien gogoz kontratatzat jo ditzakete; d) Etorkizuneko bizikidetza berdintasun eta askatasun oinarri batzuen gainean eraikitzea. Inoren eskubideak urratu gabe, hizkuntzaren aitzakia erabiliz; e) Hizkuntzek komunikaziorako tresnak izan behar dutela aldarrikatuz.*

Esandako baldintzak beteko dituen diskurtso batera ideiak eman dituzte zenbat parte-hartzailek. Horiek ehuntzeko, euskararen normalkuntzarako ideiak ez ezik, beste hari mutur ezberdinak ere

baliatzen sarri, hala nola hizkuntza eskubideak, berdintasuna, norbanakoaren askatasuna eta abar. Horietako batzuk txertatuta daude deskribapen honen zehar. Baina zaila gertatzen da beste ekarpen batzuk labur eman eta, aldi berean, mamirik ez galtzea. Horregatik, ia bere horretan jasotzen dira, bana-bana, jarraian:

- *Egokitzapen edo sintesi eraikitzaile baten bila abiatu behar badugu (framing berri baten bila), lehendabiziko eginbeharren artean kokatuko nuke jarrera eta diskurtso-mota agresiboak alboratzea, besteenganako agertzen duten errespetu-falta eta berezko duten defizit demokratikoagatik, batez ere.*
- *Euskararen inguruko diskurtsoetan muturretatik ihes egin beharra dago eta erdigunera etorrira saiatu beharko genuke itxaropena zapuztu gabe, hortik ere asko behar dugulako, hizkuntza politikak bereziki euskal hiztunak ez direnen (jakinda edo jakin gabe) kezka eta nahiak kontuan hartzen, diseinatzen ditugun politiken zama askotan beraien bizkar geratzen delako. Eta hemen hizkuntza eskubideen kontua dago. Euskal hiztunok euskara nonahi erabili dezagun besteek ezagutu eta erabili egin behar dute, eta horretarako ez dakitenek ikasi egin behar dute.*
- *Euskararen lurraldetzat jotzen ditugunak ez dira berdinak ikuspegi soziolinguistikotik. Zenbaitetan, euskararen presentzia eta erabilera areagotzeak esfortzu handiak eskatu ditu, maila kolektiboan eta baita pertsonalean ere. Hori aitortzea, eta bidean gerta zitezkeen (eta gertatu diren) gehiegikeriez jabetzea eta horiek hausnarketan integratzea (aurrerantzean ekiditeko), ezinbestekoa da euskararen inguruko diskurtso osasuntsu bat eraikitzeko etorkizunera begira.*
- *Inposizio eta diskriminazioaren diskurtsoari, errespetuaren diskurtsoan sakonduz erantzun behar genioke. Eskubideak aldarrikatu eta eskatu izan ditugu maiz, baina maila pertsonalago batera iristen den argumentu bat badago, elkarbizitzarekin estuki lotzen dena: errespetua eta erantzukizunez jokatzeko. Euskaldun eleanizdunok, hizkuntza bat baino gehiago jakinda hizkuntza batean zein bestean hitz egitea ahalbidetzen dugun bitartean, euskara ez dakienak, ez dio euskaldunari eta euskaraz bizi nahi duenari aukera bera ahalbidetzen.*
- *Hizkuntzen gaineko diskurtsoetan garrantzitsua da bereiztea "elebiduntze progresiboa" eta "betirako elebakartasuna". Norbanakoen eskubidea oinarri hartuz, "askatasuna" euskara ikasteko edo ez ikasteko eskubidean kokatzen da, (betiko) elebakar jarraitzearen aukera zilegi moduan defendatzen da, eta horrek alde baten askatasuna itxi egiten du, eta elkarrizketarako hizkuntza baliagarri gisa aukera bakarra uzten du. Nolabait zehaztearren, gauza bat da esatea "nik (edo nire erakundeak, edo guk...) ez dakit euskara, baina ulertzen dut nik ez jakiteak euskaraz egin nahi duenaren askatasuna mugatzen duela", eta bestea da esatea "nik ez dakit euskara, eta ez daukat asmorik inoiz ikasteko". Lehen jarrera berdintasunaren eta askatasunaren aldetik onargarria da, eta elebiduntze progresiborako ezinbesteko baldintza da. Bigarren jarrera aldiz, kontzienteki edo ez, da nolabait defendatzea oraingo egoera desorekatua betikotu nahi dugula, edo ez dugula gai horretan berdintasunik nahi (ez orain eta ez gero).*
- *Urritasunaren paradigmatik Baturaren paradigmara mugitu behar da diskurtso berriaren argi-izpiak bilatzeko. Hizkuntzak (hizkuntza-komunitateak) elkarrekin bizi izan dira, eta biziko*

dira. Elkar osatu eta aberastu egin dezakete, eta, horrela, denak irabazle irteten dira. Naif samarra irudi lezake planteamenduak, "onkeria" kutsukoa, baina diskurtsoa gaurko ikuspegitik eraberritzeko ahaleginek orain arteko borroka-lerro gatazkatsuetatik aldentzea ezinbestekoa dute. Eleaniztasunaren diskurtso berriaren baitan euskarak jokatu beharreko zeregina "diseinatzen", ofizialkidetasuna abiaburu jarrita.

- *Edozein diskurtso eraikiko badugu, ezinbestekoa da honako elementuak presente izatea: hizkuntza-eskubidea, komunitatea, taldea... Elementu horiek diskurtso berri horretatik alboratzeak eragina izango du diskurtsoan bertan, eta horrek ez digu lagunduko framing orekatu baten eraikuntzan:*
 - *UNESCOren irizpideak eta Erregio edo Gutxiengoen Europako Hizkuntzen Itunak berariazko terminologia erabiltzen dute, eta horrek berak ere eragina du aurrera begirako planteamenduetan: Komunitateak edo herritarrak ez dituzte hizpide, hizkuntzak baizik: "regionales, minoritarias...". Arriskutsua da diskurtsoa eraikitzeo orduan: zein izango da diskurtso horretan gakoa hizkuntza ala hiztuna?*
 - *Bi dokumentu horiek ez dute jasotzen oinarrizko kontzeptu bat ESKUBIDEA. Eta gaur egun ESKUBIDEEN kontzeptuak esparru berri asko irabazi ditu, are gehiago, azken hamarkadako diskurtsoaz hitz egiterik ez dago ESKUBIDE kontzeptua ere barneratzen ez bada.*
 - *Bada adostasun ikaragarria bildu zuen beste dokumentu bat, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, hain zuzen ere. Gobernu Kanpoko 66 erakunde ospetsuk, 41 PEN taldek eta mundu mailako 41 adituk adostutakoa. Bi urteko prozesu interesgarri baten ostean Bartzelonan onartutako dokumentu orekatua.*
- *Oro har, diskurtso berri baten zutabe gisa iraunkortasunaren eta aniztasunaren motiboak egokiak dira (neurri batean behintzat funtzio-banaketaren -eta ez bikoizketaren- ideiarekin ere lot daitezke akaso).*
- *Badago aukera nazio bat garela defendatu arren, eleaniztasunaren aldeko diskurtsoa defendatzeko: "elebitasun orekatua eta nazioarteko hizkuntza nagusia" formula.*
- *Diskurtso bateratzaile horrek ezaugarri batzuk izan beharko ditu:*
 - *Zentzu komunean oinarritua behar du, boluntarismotik eta metafora nahasgarrietatik urrun.*
 - *Errealitate printzipioa errespetatu behar du: lehenik eta behin, egungo egoera soziolinguistikoaren ezaugarriak ulertzea, ez edonola iraultzen saiatzea, gizartean dauden taldeen nahi eta behar ezberdinak aintzat hartzea, ez madarikazio bat bailiran gainditzen saiatzea.*
 - *Ozen aldarrikatuz: a) Oso urrun gaudela gizarte osoa elebidun izango den egunetik (ezin diogu helburu horri uko egin, baina onartu behar dugu agian ez dela inoiz gertatuko); b) Asimetrikotasuna onartuz: ez dute elebidun guztiek gaitasun-maila bera (lurraldeek ere ez) eta bakoitzak dakienaren arabera erabiltzea da erronka.*
- *Kontsentsuan indarra jartzea, baina politika makalak, erdibidekoak bultzatzeko arriskuan erori gabe; oinarrizko adostasunaren izenean ezin du edozein ekimen ontzat eman (batez ere*

gai zehatzei buruz herritarrei propio galdetzen ez zaien heinean). Horregatik, a) Kontsentsua maila gorenean, abiapuntuko diskurtsoan bilatu behar da, giza eskubideen aterkipean, garapen eredu jasangarriaren baitan. Oso zaila da abiapuntu honi aurka egitea; b) Euskararen sustapena bi zutabetan zentratuta: euskararen ezagutza unibertsala izan behar da, eta erabiltzeko hizkuntza da, c) Elkarbizitzarako zutabea baldin bada, euskal herritar askok, atxikimendurik harago, beste pausu bat eman beharko du: euskara ikastea, hori gabe ezinezkoa baita euskaraz elkarbizitzea.

- *Diskurtso ekonomizistari (“maila ekonomikoa duten ekintzek lehentasuna eduki beharko lukete diru publikoa gastatzeko garaian eta ez euskara bizi-irauteko xahutu” dionari) aurre egiteko neurriak gogorarazi ez ezik (zenbat gastatzen da batean eta zenbat bestean), kultura eta hizkuntza ekonomiaren parte direla eta aberastasuna eta dirua sortzen dutela ere azpimarratzea.*
- *Nazioarte mailako ikuspegia funtsezko osagarria da diskurtso berri baterako. a) Ez legediaren ikuspuntutik bakarrik, kanpoko errealitatearen behatu eta ikastetik ere bai: Zer dela-eta, Europako iparraldeko lurraldeetan duten berezko hizkuntza babesteko neurriak hartzen dituzten, eta hori ez izatea arrazoi hain ongi menperatzen duten ingelesarekin talka egiteko? b) Nolako neurriak ari dira hartzen gurea bezalako hizkuntza-egoeretan dauden beste hizkuntza-komunitatetan? c) Zer-nolako aukera daude antzeko egoeratan dauden hizkuntza-komunitateen nazioarteko sare bat osatu eta nazioarte mailan lobby gisa jarduteko?*

Zenbait ekarpenetan, zoru partekatu horretarako funtsa filosofiko edo diskurtsibo mota jakin bat ere proposatzen da, horrekin adostasuna hedatzeko eta indar berriak euskarara biltzeko aukerak areagotzen direlakoan: *Framing berriaren erdigunean hizkuntza-ekologia jartzea, batetik, bizitza ulertzeko moduagatik eta bestetik, eraginkortasunagatik.*

Planteamendu horren onurak eta oinarri filosofikoak zerrendatzen dituen ekarpena ere jaso da: *Ekologia eta ingurumen zuzenbidetik, analogiaz irizpide interesgarriak jaso ditzakegu hizkuntzen kudeaketarako, eta indarguneetako bat, inguruneak sortu eta kudeatzean indarra jartzea da. Hortaz, diskurtso berrirako gakoak hauek lirateke:*

1. *Adostasun puntuak, kultura aniztasunaren eta eleaniztasunaren aberastasuna eta balorea izanik.*
2. *Hizkuntza guztien babesak, izaera ez homogeneousak bultzatzen ditu, beraz egiteko modu ezberdinak sustatzen ditu gizartea mugiaraziz.*
3. *Pertsona bakoitzak hautatzen duen tokian tokiko hizkuntzan bizi izateko eskubidea du eta erabilerarako aukera bermatu behar zaio.*
4. *Hizkuntza guztiak funtzio bera dute, berdinak dira, erabilerak ezberdintzen ditu.*
5. *Hizkuntzen sustapena erabilera neurrietan oinarrituko da.*
6. *Hizkuntza bat galtzen denean, gizakiak berea duen ondarea galtzen du.*

Era berean, badago ere hizkuntzen ekologiaren proposamenari aldi berean onurak eta mugak aurkitzen dizkionak ere: *Ekologiarena metafora indartsuagoa da, baina aldi berean lausoagoa ere bai. Agian nahiko ondo ulertzen den horietakoa da, azaletik baino ez bada ere, baina haren*

egokitasunaz zalantzak egon daitezke. Biologiaren eremuan, ekologia modu gehienbat autorregulatu eta ia automatiko batean antolatzen da, giza-harremanak -eta hizkuntzarena beste giza-harreman bat da- negoziazioaren eta bestelako elkarreragin moten ondorio diren bitartean. Egun dauden diskurtsoen beraien arteko ezberdintasunak horren adibide dira.

Beste batzuk, filosofia hori onargarritzat jo eta gero, eskatzen dute hori baliatzea ez dadin izan normalkuntzan eraginkortasuna galtzeko aitzakia bihurtu: *Hizkuntzen ekologiatik eta aniztasuna onartzetik lor liteke hainbat adostasun, beti ere argi izanda, norabide onean pauso handiagoak, eraginkorragoak eta argiagoak hartu behar direla.*

3.2.5. Motibazioak eta jarrerak

Euskararako diskurtso, marko edo framing berri bat lantzean oso presente izan behar dira herritarren motibazioak eta jarrerak: *Berebiziko garrantzia du hiztunek aldeko jarrerak izateak, hori ezinbestekoa baita hizkuntza hori biziberritu nahi bada; bestela, ez dago ezer egiterik.*

Garrantzia ez da mugatzen euskal hiztunenera, noski; horietan eragitea ez ezik, erdal hiztunen euskararekiko motibazioak eta jarrerak ere ongi eta berezko diseinuarekin zaindu behar dira: *Diferentzia radikala euskararen barnean ala euskaratik kanpo egotea eta aritzea da, eta egoteko modu horien artean adostasunik ez da.*

Jakina da motibazio eta jarreraren sorburua mota ezberdinetakoa izan daitekeela: pragmatikoak (integratzaileak barne uler daitezke) *versus* sinbolikoak; arrazionalak *versus* emoziozkoak... Motibazio mota horien sailkapen zorrotza egitea zaila gertatzen da eta kontzeptuak ez daude erabat finkatuta eta onartuta: *Gaur egun zenbait ikertzailek egiten duten bereizketa: ideologia / jarrerak. Ideologia kolektiboa da, komunitatearena (edo bere zati batena), baina beti talde batek partekatzen duena. Jarrerak, ordea, norbanakoarenak dira; eta, baliteke horiek izatea egiaz hizkuntza-politikaren etorkizuna erabaki dezaketenak.*

Euskararen aldeko portaera bultzatu nahi izaten da motibazio / jarreretan eraginez. Alegia, motibazio gutxiko indiferenteak eta jarrera geldokoak euskararen mesedetan mugiaraziz. Baina hori ez da erraz gertatzen: *Jarrerak aldatzeko zailtasun handiena eraginkortasuna da: zaila da jarrera aktiboak lortzea. Alegia errealitatean ondorioak izango dituen jarrerak lortzea.*

Ezaguna da, gainera, Festinger-ek teorizatutako disonantzia kognitiboa izeneko efektua, zeinak dioenez pentsamolde eta praxiaren arteko kontraesanetan bigarrena nagusitzen ohi zaiola lehenbizikoari; alegia, pentsatu bezala jardun ezean, pentsamoldea aldatzen da jardunera egokitzeko: *Normalean hizkuntzaren kasuan diskurtsoaren edo jarreraren eta ekintzaren artean dagoen kohesio falta (disonantzia kognitiboa) euskararen kaltetan konpontzen da eta hori da aldatu behar dena, disonantzia euskararen mesederako konponduz.*

Ekarpenetan bada aldeko motibazioak eta jarrerak maila arrazionaletik ez, baizik eta erdaldunen kasuan, adibidez, praktikaren bidez bultzatzea hobeste duena: *Agian ez da arrazoinalitatean oinarritutako diskurtsoa behar duguna. Diskurtsoetan ez, praktikan dago indarra: Euskaraz ari garenok praktikaren bidez irabazi beharra dugu besteen errespetua. Diseinu bat egin behar da arlo guztietan, euskararen presentzia gehitzeko, erdaldunei nabararazteko zerbait galtzen ari direla, ebidentzian jarri zerbaiten eskas dutela euskarari bizkar emanaz bizi direnek. Ikusi behar dute euskara zerbait praktiko, beharrezko eta aberatsa dela, besteekin beste era batera komunikatzeko baliagarria*

dena. Errespetua irabazi lehendabizi, agian noizbait etorriko da emulazioa. / Beti egongo da kontrako jendea, beti, eta gogor jo dezakete, baina horren aurrean lan zintzoa eta txukuna egitea besterik ez zaigu gelditzen.

Motibazioek zein jarrerak, batzuek zein besteek, hiru balio (edo norabide) mota har ditzakete: positiboak (alde), neutroak (ez alde, ez kontra) eta negatiboak (aurka).

Motibazioek ez badute mekanikoki jarreretan eragiten, bien arteko harremana egon badagoela onartu ohi da; lehenengoek bigarrenetan eragiten dutela, neurri batetan. Aldeko motibazioak eta jarrerak ezinbestekoak dira zerbaiten alde egiteko. Halakorik ezean, eta are gutxiago oraindik baloreak negatiboak badira, jendeak ez du zenbaiten alde ezertxo ere egingo, edo egitekotan, horren alde ez, baizik eta kontra izango da.

Konplexutasun horretan, egokia litzateke motibazio / jarreraren lanketarako ezagutza sendotik abiatzea, gazteentzako egindako proposamen honek dioen bezala. Horrek erakutsiko du, neurri handian, nolako lanketa motari ekitea komeni zaigun: *Funtsezkoa da motibazioa lantzea gazteen artean eta kontuan hartzea ze faktorek eragiten duten motibazioan: identitatea, ezerosotasuna (zuzen hitz egiten ez duteneko konbentzimendua), edo konpromiso emozionalik eza. Azken faktore honek zuzenean garamatza honetara: euskara erraz eta gustagarri egin behar zaie haur eta nerabeei.*

Aurka motibatuta dauden gizataldeentzat proposamen bat ere luzatzen da. Horretan, beraien motibazio/jarrerak aldatzea ez da xedea; proposamen batzuen helburua halakoak gehiago ez elikatzea da; aurkako diskurtsoak zabaltzen lagunduko lukeen bazka gehiagorik ez ematea. Aurkako motibazio/jarrerak puzten ez badira, denborarekin agian aldekoago bihur litezke euskararentzat: *Akaso planteatu behar dena, beste ezer baino lehenago, ustez euskararen aldeko diren diskurtso kaltegarriak ixilerazi eta prejuizio zentzugabekoetatik abiatutako aurkako klitxeak neutralizatu beharra / Euskararekiko aldekotasuna lortzeko, kontuz ibili behar gara, kontrako jarrerak ez sortzeko. "Estatu bat, Nazio bat, Hizkuntza bat" eta halakoek min egin diezaiekete aldeko jarrera izan lezaketen pertsona batzuei. Beharrezkoa da malgutasuna, minik egin gabe gurera erakartzeko euskaldun ez direnak.*

Kasu honetan arrazionaltasunaren aldarria egiten bada, ez da motibazioa pizteko edo areagotzeko; zentzudun jokatzeko baizik, baina ez motibazio / jarrera arrazionalik zabaltzeko: *Arreta gehiago jarri behar lioke euskal jendeak komeni denari. Beste alor askotan bezala konbentzimenduak eta konbenientziak bereizten ikasi behar luke euskaltzale askok. Barne sentimenduen adieraz-zale handi den jende askotxo somatzen da inguruan, egiten duen horrek nori eta zeri mesede edo kalte egiten dion kontutan izan gabe. Honetan izan behar luke euskaltzaleak arrazionalago.*

Motibazio / jarrera gaia aski ezaguna eta ongi baliatua da marketin komertzialean. Iritzi batek gogora ekarri digu esparru ekonomikoko zenbait jardunetan ere euskararen inguruko sentsibilizazioa erabilgarria izan daitekeela salerosketak eta negozioa handitzeko. Hori, berez ez litzateke euskararen inguruko motibazioetan / jarreretan eragitea, aurretik horietan euskararekiko dagoen aldekotasuna interes ekonomikoetarako baliatzea baizik. Dena den, horrek badu segida, izan ere, euskara negozioetarako probetxugarria dela ikusten bada, euskararen aldeko motibazio eta jarrerak ere sendotu eta hedatuko dira: *Enpresaren eta merkataritzaren eremuak oso heterogeneoak dira, lurraldearen arabera. Erabilera bultzatzeko, aginte eta kudeaketa mailako arduradunen sentsibilitatea erabakigarria izan daiteke. Sentsibilitate hori, lege-ezarpenetik ez, baizik eta*

pertsuasiotik jorra liteke: a) Enpresa mailan, euskara erabiltzeak dakartzan abantailez sentsibilizazioa eta jarrerak areagotzea; b) Kontsumitzailearentzat agerikoak izan daitezen euskararen erabilera bultzatzeko hartzen diren neurriak; c) Itzal handiko pertsonen lekukotasuna baliatzea.

3.3. Estrategiak

Markatutako iparrerantz arrakasta bila abiatzeko, planteamendu estrategikoak landu behar dira. Alegia, nola jardun finkatu behar da helburuetara hurbiltzen lagunduko gaituzten ibilbiderik egokien hautua eginez.

Hizkuntza egoera aldatu nahi bada, hainbat dimentsio landu beharko da, eragin beharreko aldaketak gizarte osoan eragingo duelako neurriren batetan. Hortaz, diseinatu beharreko estrategia-multzoa poliedrikoa, aurpegi askokoa izango da, hurbilpen holistikoa erabiliz: legedia, hizkuntza politika, komunitatea, diskurtsoa, komunikazioa eta abar. Neurriak diseinatzea eta aplikatzea ez da nahikoa izango, komunitatearen babesik eta aupadarik gabe ez baitu etorkizunik hizkuntza batek: *...beharrezkoa da helburuez hitz egitea, aldaketa sozialaz hitz egitea eta, horren ondoren, errealitatearen interpretazio-eskemei edota framingari buruz. Horrekin batera posizionamenduz ere hitz egin beharko dugu, xede-taldeen, kanalez, etab. Estrategia osoa eraiki behar da, horretarako, osotasunean landu behar da gaia. Horrela egin ezean, eta estrategia berria osatzeko behar diren atal guztietatik bakarria modu isolatuan landuz gero, akatserako arriskua legoke. Ezinezkoa izango da, euskararen normalizazioak suposatzen duen aldaketa sozial garrantzitsua ondoko hiru elementuak aintzat hartzen ez badira: a) Normalizazio-prozesuaren dimentsio politikoan, hizkuntza-politika dugu elementurik azpimarragarriena, baina hizkuntza-politikarekin soilik ezinezkoa da hizkuntza bat normalizatzea; b) Hizkuntza-politika eragingarri hori eskatu eta babestuko duen herri ekimen edo dinamika sozial zabala; c) Aurreko biei zentzua emango dien komunikazio-estrategia sendo eta iraunkorra.*

Aurrekoei gehitu behar litzaioke arestian (3.2.2 azpi-atalean) aipatu izan den epe ertainari begirako plangintza ere; alegia 2030/2040 urteetan biztanleriak izango duen: *Hizkuntzaren ezagutza orokortu hori eremu guztietan erabilera bihurtzeko politika zein estrategia egokiak garatzen hasi beharko litzateke.*

Ondoren azaltzen diren azpi-ataletan hizkuntza politikan jorratu beharko diren eduki ezberdinak agertzen dira, horietako asko elkarri lotuta. Horregatik, batzuk dauden atalean baino egokiago izan liteke besteren batetan kokatzea, edo bakar batean baino gehiagotan aldi berean.

3.3.1. Errealitatearen printzipioa

Errealitatea eraldatu ahal izateko lehenik ongi ezagutu behar da egoera zer-nolakoa den. Horregatik, aurreko atal batean (3.2.2. atala) dagoeneko, hizkuntza politika diseinatzeko ezagutza sendo bat ezinbesteko abiapuntua dela esaten ziguten zenbait lagunek.

Ezagutza zehatz eta zorrotz batek emandako informazioaren gaineko irakurketa zuzena eta neurrikoa egin behar da, interbentzio-motak zein izango diren hausnartzean. Ahaleginean, arrisku mota bi gerta litezke. Planteamenduetan motz gelditzea da lehenengoa, baina beste bat izaten da ohikoena: helburuetara lehenbailehen hurbiltzeko gogoak bultzatuta, neurriz kanpoko xedeak, jomuga

handinahiak ezartzea. Aurreikusitako hori betetzea ezinezko zaigunean, frustraziorako motiboa izaten da, sarri.

Horregatik, ametsak amets, errealtatearen alde gordin eta, batzutan, mingarriei (ahalmen eta baliabideen mugatuei, zain dauden edo ager litezkeen oztopoei, gure ezintasunari...) ere zintzotasunez erreparatu beharko zaie; alegia, gure burua engainatu gabe: *Euskararen inguruan ageri diren arazoan identifikaziotik abiatu beharko litzateke eta haiei aurre egiteko neurri edo bitartekoetan lortu kontsentsua: a) Nola planteatu aurreikusten den/diren arazo nagusiei aurre egiteko neurri berri adostuak; b) Neurri (politiko) zehatzagoak diseinatu ahal izateko.*

Euskararen inguruko diskurtsoak, ideologia edo pentsamolde baten araberrako zuzentasunari lotuago daude askotan, errealtatearen benetako ezaugarriei baino. Adibidez, planteamendu topikoetan gelditzen dira, gaia ezeroso izan daitekeen muturreraino –era kontzientean izan ala ez- eraman gabe. Jokabide mota horiez jabetuta, diskurtso zintzoa, onestua eskatzen da. Horrela eginda baino ez da posible izango egoerari benetan egoki erantzuten dizkieten neurriak hartzea: *Maila diskurtsibotik maila aplikatibora pasatzeko zer egin behar den? Lehenik garbi hitz egin, esaten denari zentzu bat eta bakarria emanaz, guztiok jakin dezagun zertaz ari garen. Ez du balio esateak ez dela derrigortzen, baina gero bai halako araudi, dekretu eta abar ateratzeak ikusteko jendeak nola arnasten duen, eta arazoak edo kexak planteatzen badira diskurtsoa modulatzeko hasteak, nahiz eta gauzek eduki ditzaketen interpretazio desberdinak. Hori gertatzen denean, esanahia adierazi behar da / Onartu egin behar da framing uzkarrean kokatzen direnen diskurtsoa eta hori hor dagoela jakinik jokatu (hau da, soka ez gehiegi tenkatu); horregatik, diskurtso maximalista doitu beharra dago.*

Gauzak diren bezala azaltzeko eskaera, aplikagarria da orokorrean zein sektorialki; adibidez, hezkuntza munduan: *Argi azaldu zertan oinarritu den hiztun elebidunen hazkundea, eskolan, eta nolako mugak dituen eskolaren eraginak.*

Beste kasu batzuetan, errealtatearen interpretazio alboratua, arrazoi metodologiaren erruz gertatzen da, eta halakoetan ere ateratzen diren ondorioak desegokiak izango dira, nahitaez: *Ondo ezberdindu behar dira jarrera aitortuak eta ekintzei lotutako jarrerak. Aztertzeke garaian eta eragiteke garaian. Orokorrean bidali duzuen dokumentuan aitortutako jarrerak baino ez dira agertzen. Modu horretan kontsentsua dirudiena batzuetan bakarrik oso azaleko kontsentsua izan liteke. Alegia, gaurko gizartean euskararen kontrako jarrera aitortuak kopuru altuan jasotzea zaila dirudi. Hori bai, jarrera aitortuak mailakatzen badira inkestatuarentzat lehentasunezkoa zer den jakin dezakegu eta modu horretan konturatu ea hizkuntzaren aldeko jarrera azalekoa den edo ez.*

3.3.2. Eraginkortasuna xede

Jaso diren ekarpenetako askok hizkuntza politika baten eraginkortasunari ematen diote lehentasuna, beste asmoen edo kezken aurretik.

Eskaera egiten da kasuren batetan, orain arteko hizkuntza politika mugatua eta ez bezain osatua delakoan: *Ezagutza bultzatzeko ahalegin eraginkorragoa eta ausartagoa egin beharra dago (gaur egun hizkuntza-politika herren dago).*

Beste kasutan bada nolabaiteko beldurra, pentsatzen baitute diskurtso berri baterako mahai-gainean jartzen ari diren baldintza eta ideia batzuek asko estutu lezaketela haienentzat nagusia den euskara normaltzearen asmoa: *Hizkuntza batek bizirauteko eta normalizatzeko dituen beharretatik hasi behar*

dugu. Hartu beharreko neurriak, hizkuntzaren onetan izan behar dute. Ez gaitezten batzuen eta besteen eskubideetan nahastu (euskaraz aritzeko eskubideak eta euskaraz ez aritzeko eskubideak beti eginen baitute topo). Hizkuntza guziak berdina dira eta maila eta toki bera zor zaie arlo guzietan.

Eraginkortasunaren izenean, kontsentsua bera jartzen da zalantzan edo, arbuiatzen da, hizkuntza politika aurrera eramateko herri-administrazioak bere egin dezala orain arte euskalgintzaren sektore batzuetan baino partekatu ez den ikuspegia: *Instituzioek diskurtso aldarrikatzailea bereganatu egin behar dute; hori egin ezean, ahuldade handia erakusten da, eta euskararen alde ez dagoena ahuldade horren zain dago, bere kontrako diskurtsoan sakontzeko / Hizkuntza bakarrarekin bizi direnen erabateko adostasunaren zain bagaude jai daukagu. Euskaldunon arteko adostasun sendoa bilatuz gero errazagoa izango da sabai partekatua definitzea. Hortik aurrera, plan bat definitu eta aplikazio erritmoan adostasun minimoak bilatu behar dira, baina beti aurrerapausoak eskainiz, txikiak badira ere.*

Badago ere, aurreko logika irauliz, euskararen kontrako diskurtsoen aurrean zuhurtziaz jokatzeko eskatzen duena, eraginkortasunaren mesedetan betiere: *Euskara zabaltzearen aldeko planteamenduek beldurra eragiten dute erdara hutsez ari diren askorengan. Eta beldur hori errazki - eta efikaziaz- baliatzen dakiten batzuk jende sektore handixko bat aurkako predisposizioan jartzeko. Euskara gauzaki bat, oso eta erabateko, zatika-ezina eta absolutoa balitz bezala hartzen denean gertatzen da hori. Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen denean esate baterako, mamu beldurgarria ikusten dute askok horretan. Behartuak, bortxatuak izan daitezkeelakoan. Inposizioaren mamua zaila da neutralizatzen.*

Eraginkortasuna, kasu horrekin jarraituz, ez datza euskararen aldeko exigentzia maila igotzean edo eremu guztietara hedatzean; aitzitik neurrian erabiltzean omen dago gakoak, lekuan lekuko baldintzen arabera: *Horretarako antidotoa pentsatu eta aplikatu behar da, adibidez, funtzioen eta erabilera moldeen desagregazioa, desglosea. Alde batera utzita planteamendu absolutista beldur-emaileak. Disoziazioa kontzeptu kablea izan beharko litzateke. Dena ala ezer ez planteatu beharrean, jakin tarteko posibilitateak, konkrezio batzuk,... Ustez euskararen mesedetan egiten diren planteamendu askotxo kaltegarriak gertatzen dira praktikan, batipat oreka soziolinguistikoa euskara egoera ahulean dagoen tokietan. Askoz ere egokiago -mesedegarriago- litzateke izaki bat oso eta zati-ezintzat hartu beharrean, hizkuntzaren erabilera komunikatiboak desglosatzea, bereiztea, egiazki balia daitezkeen funtzioak definitzea eta lehenestea, graduatzea eta horiek bakarrik proposatzea eta inplantatzen saiatzea.*

Euskararen kontrako diskurtsoen aurrean proposatzen den azken pausoa ez da erantzun oso bat eskaintzea. Horren ordez, eraginkorra litzateke diskurtso horretan kokatzen direnak galdera egoki batzuei erantzuna beraiek bilatzea: *Hortik aurrera, nolako mezuak zabaldu beharko ote genituen, uste dut diskurtso borobildurik ez, ez erantzun itxi eta elaboratuak; baizik galderak airean botatzea ikusten dut erarik iradokigarriena: zenbat balio ote du euskarak? Ez al da gauza ederra?... jarrera itxietan gogoeten edo zalantzen zirrikitia irekitzera bideratuak. Erantzuna bila ezazu zure baitan. Galderen erreperitorioa astiro pentsatu eta landu behar genuke.*

Ahaleginak orokortzea da beste ekarpen batzuen asmoa, euskararentzat ohikoak diren interbentzio eremuetatik gizarte osora zabaltzea: *Diskurtso berria PRAKTIKArena da. Euskararen erabilera euskararen alor espezifikotik atera behar da lanean eta beste alor guztietara zabaldu, lan hizkuntza*

normal bat bezala. Behin terminologia euskaraz ikasita, lan-hitz horiek barneratzen ditugu eta normaltzat hartu, eguneroko lanean.

Orokortzeko ahalegin horretan malgutasuna eta errespetua dira hitz giltzarriak, ekarpen horren arabera: *Bestalde, MALGUTASUNaren jarrera ere garrantzitsua da. Adibidez bileretan, agerraldietan eta aurkezpenetan euskara eta erdara, biak erabili normaltsaun osoz, baina saihestu elebkarreko bilerak, aurkezpenak eta agerraldiak. Modu honetan hizkuntzen erabilera orekatu normal batera helduko gara eta euskarak ere behar duen ERRESPETUA jasoko du hizlari eta entzuleen aldetik. Erabilera ezin da hitz jakin batzuetara soilik mugatu: “egun on denori” eta “eskerrik asko”, eta euskaraz esandakoa gaztelanieran errepikatzearena (“como decía en euskera”).*

Idea bera ez bada ere, illdo beretik doa behintzat beste lagun baten planteamendua: *Bikoiztearen (biz biderkatzearen, esan nahi dut) kulturarekin amaitu beharko genuke edo, amaitzea posiblea ez bada, erlatibizatu beharko genuke. Hau da, hasi beharko ginbateke bikoiztu gabe bizitzen; liburuak, dokumentuak, webguneak, hitzaldiak eta abarrez ari naiz. Ez da batere funtzioanala eta ez du merezi. Areago, euskaldunen aurka egiten du horrek.*

Baina, euskara normaltzearen aldeko politikarako baliabideak beharizanak baino mugatuagoak direla ohartuta, lehenasunezko aktuzioak definitu aurretik, aukerak ongi aztertu eta baloratzea eskatzen da: *Euskararen erabilera “normala” dugu, eguneroko egoera arruntetan, baina erabilera-esparru guztietara eramatea ona eta posiblea ote da? Aztertu beharko lirateke zein diren esparru gakoak euskararen trasmisiorako eta bizitasunerako, eta ahaleginak hor egin.*⁴

Beste ekarpen batzuek, aldiz, lehenasunezko esparru edo hiztunak erakusten dituzte, horietan eragiteko onurak euskararen egoera osora errazago zabal daitekeelakoan: *Elebitasun pasiboaren egoerak sendotuz eta solaskide batzuen gaitasun mugatuak sor litzakeen tirabirak arinduz, euskararen erabilera aran-arian zabalduko litzateke / Garrantzia gehien duena da euskararen (aldeko) opzioa egin dutenek baliagarri -produktu eta zerbitzu- ugari eta funtzionalak erabilgarri izan ditzaten / Helduen euskalduntzerako estrategiak birpentsatu, euskararen erabilera eta atxikimendua areagotzeko.*

Eraginkortasun bila, euskal hiztunei jarri zaie begira ekarpen batzuk, normaltzearen bulkada haien eskuetan jarriz, nonbait: *Euskaldunek ahal den koherentzia handienaz jardutea, hizkuntzaren gaitasun komunikatiboa toperaino baliatuz / Diskurtsoak erabileran oinarritu behar dira eta ez ezagutzan: a) Denok ez dugu hizkuntz maila bera behar, garrantzitsuena da dugun ezagutza maila erabilerari lotzea; b) Hiztun komunitate batek laguntzen du ez dakienaren edo ikasten ari denaren erabilera areagotzera. Modu honetan komunitate kide direnen ezagutza aregotuz.*

Eta ez dira ahantzirik gelditzen euskarari leialtasunik gordetzen ez dioten euskal hiztunak, horien portaera aldatzeko ezagutza zehatzagoa eta neurriak hartzea proposatuz: *Solaskidea elebiduna dela jakin arren erdarara jotzeko ohiturak saihesteko, joeraren arrazoi ezberdinak arakatu beharko lirateke / Ezezagunaren aurrean hizkuntza nagusirako joera nagusi horri aurre egiteko zenbait proposamen: a) Anonimotasuna desagertzeko (alegia hiztunak/solaskideak B hizkuntza (gutxitua) ere badakiela adierazteko) adostutako neurriak hartu/proposatu beharko lirateke; b) Gatatzatsua izan*

⁴ Ekarpen hau eta hemen aurkeztu diren beste batzuk erabilgarriak izan litezke, berdin-berdin, marketinera eskaini diogun azpi-atalean (3.3.6) ere. Era berean, hantxe jasotako baten batek hemen izan lezake leku egokia.

daitekeen egoera horietarako, alegia, B hizkuntza erabiltzea erabakitzen duenarentzat, kortesiazko baliabideak, esapideak, diskurtsoak, seinaleak, garatu beharko liriateke solaskide elebakarra mindua edo gutxietsia sentitu ez dadin.

Euskal hiztunekin gertatu den bezala, lagun askok herri-administrazioa izan dute hizpide eraginkortasuna areagotzeari begira. Euskara gizarte osoaren ardura bada ere, hizkuntza politika arduradun publikoen gidaritzapean diseinatu eta burutzen da. Hona hemen jasotako aipamen horietako bat, administrazioaren ardura batzuk zehazten duena: *a) Eremu publikoan (hezkuntza, osasuna, justizia, legedia...) jokatu behar du batez ere; b) Maila teknikoan politika ausartak behar ditugu, eremu desberdinetan; hezkuntzan eta abarretan; c) Administrazioak eredu izan behar du. Lanpostu publiko guztiak elebidunak izatea; d) Eremu pribatuetan, eragileak bultzatu eta hauei zentralitatea ematea, behetik gorako parte hartzea zabalagoan. Adibidez, Topagunea eta euskalgintzako elkarteak, Kontseilua, komunikabideak, euskalgintzatik kanpoko beste gizarte eragileak euskarara erakartzea...*

Mahai-gainera dezagun orain, diskurtsoen inguruko ahaleginak baztertuz, euskal hiztunen jardunean eragitea lehenesten duen planteamendua; alegia, erabilera areagotzeko ikerketak eta baliabidea egokiak eskatzen duena: *Euskarak aurrera egiteari dagokionez, joko-zelaia ez dago diskurtsoetan praktikan baizik. Hiztun-komunitate bateko hizkuntza politika hiztun horien praktikan behatu behar da, eta ez horrenbeste plangintzan, kudeaketan; hau da, plangintzak baino garrantzi handiagoa du erabilerak. Euskarak baliabide aproposak eta ikerketa zehatzak behar ditu helburuak lortzeko.*

3.3.3. Garrantzi bereziko eremuak: hezkuntza eta kulturgintza

Hizkuntza politika eraginkor bat bultzatzeko bi gizarte alorrek merezi izan dute aipamen propioa: hezkuntza eta kulturgintza. Jakina denez, bi-biak ari dira izaten leku aipagarria euskararen normalkuntzan.

Hezkuntzatik hasita, esan dezagun fruituetan emankorra izateren aitortza egiten zaiola, baina aurrera egiteko oraindik aukera berriak badaudela aipatzen dela, egun, euskaldun gehienek hizkuntza transmisio iturria eskola delako: Hala ere, galderak eta lantzeko proposamen berririk ez dira falta; ezta aukera berrien aipamenik ere: *a) Zer dago, zer behar da berria eskolari dagokion euskararen diskurtsoetan?; b) D ereduko ikasleen komunikazio-gaitasunei garrantzia ematea (lehenetsuna ere bai, eskolako lehen urteetan); c) B eta A ereduak nola hobetu ere aztertu beharko da, jakina; d) Eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko aukerak handitu behar dira, eskola-familia-auzoa-komunitatea oinarri hartuta / Litekeena da D ereduaren aldeko hautuak goia jo izana ia-ia, batez ere Eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzan. Hortik aurrera badu oraindik gora egiten jarraitzeko tartea, bereziki Lanbide Heziketan.*

Aurreko paragrafoan hizkuntza ereduaren sistemaren errebisioa eskatzen bazen ere, badago aldaketa sakonak eskatzen dituna ere, indarrean dagoen A ereduak ikasleak ez dituelako euskalduntzen. Beste aldaketa batzuk, aldiz, euskara ikastetik erabiltzera egin beharreko jauzia dute hizpide: *Eskolan, A ereduak ez du euskara ezagutza bermatzen beraz, ez du balio. Ereduak gainditu behar dira eta murgiltze-sistema bat ezartzea / Euskaraz ikasi, baina hizkuntza hori erabiltzen ez duten ume eta gazteekin lan handia dago egiteko.*

Hurrengo atalean euskararen gaineko komunikazioa eta irudia sakonago jorratuko diren arren, bi puntu horien aipamenak egin dira hezkuntza mundua hizpide izanik: *Gazte erdaltzaleei erakutsi*

behar zaie eskolan ikasi dutena ez dela irakasgai hutsa eta hemen euskarak baduela balio bat / Ikasteko derrigortasunari, interesa eta kutsu atsegina ere gehitzea. / Unibertsitateak gure gazteen erdia igarotzen da eta beraientzat erreferentziazkoak dira erregistro jasoa erabiltzen duten irakasleak. Gazteagoentzat zientzia dibulgazioan lanean ari diren agenteek prestigio handia dutela esango nuke. Azkenik, euskararen munduan unibertsitatean nor den pertsona publiko asko dago euskararen erabilera prestigiatzen lagun dezaketenak, hedabideetan, nagusiki.

Azken urteotan indar nabarmenaz agertu den auzia ere aipatua izan da; ingelesarena, hain zuzen ere, gai horren inguruko hainbat eragile noraezean dabilzalako: *“Hizkuntzak –euskara, ingelesa- beharrezkoak dira” pentsamoldearen inguruan badaude ikuspuntu ezberdinak eta, Hezkuntzari dagokionez, diskurtsoa sendotu beharra dago, ikerketa-lanen eta hausnarketaren laguntzarekin.*

Bestalde, kulturgintzari buruzko beste bi aipamen oso zehatzak dira, giro horretan murgilduta daudenengandik sortuak. Aldaketa estrategikoa eskatzen da egun indarrean dagoen neurri administratibo jakin batean zein euskarazko kulturak duen gizartearen aurreko presentzian: *Euskarazko ekoizpen kulturalaren bizitasuna forjatzen da gure baliabide guztiak buru argiz erabiliz globalizatutako ingurunean, kuota babesgarririk gabe / Kultura arloan ari garen honetan behar beharrezkoa da balioa ematea hizkuntza berari, alegia, aberatsagoa da bi hizkuntza izatea bakarra baino, mezu positiboa helarazi behar da. Euskaldun izateak aberatsagoa egingo zaitu. Beldurrak uxatzeko beharra dago, euskalduntzea ez da ghetto baten parte izatea. Oztopoak baino gehiago, ikusgarritasun falta da kulturgintzan dagoen arazo nagusia.*

3.3.4. Komunikazioa

Jakina da hizkuntza baten etorkizuna bere komunitatearen eskuetan dagoela, neurri handi-handian. Euskararen komunitatea bi modutan uler daiteke: bere hiztunengan soilik edo, hizkuntza jakin gabe ere, herritar guztien ondare gisa. Azken hamarkada hauetan, adibidez, asko izan dira euskara suspertzearen alde lan egin duten herritar erdaldunak, batez ere euskararen presentzia urria den eskualdeetan. Euskarak aurrera egingo badu –eta, gainera, elementu integratzaile bihurtuta-, asko dira herritar guztiekin kontatu beharko dela pentsatzen dutenak, aurreko ataletan azaldu bezala. Horretarako, ezinbestekoa da herritar guztiengan iritsiko den komunikazio eraginkorra baliatzea: *Errealitatea aldatu eta gizarte aldaketa sakona eragin nahi dugun heinean, argi izan behar dugu (onerako eta txarrerako) jendearen pertzepzioa dela “benetako” errealitatea, beren jarduna baldintzatzen duen errealitatea eta, ondorioz, pertzepzio hori, errealitate hori aldatuz lortuko dugula aldaketa.*

Komunikazio eraginkorra izan dadin, haintzat hartu eta ongi landu behar dira zenbait osagai, nagusiak honakoak izanik: mezua eta hori igortzeko formatu edo aldaerak posibleak, euskarria edo mezua helarazteko baliabideak eta igortzaile zein hartzailearen ezaugarriak. Izan ere, komunikazio oso batean sartzan diren elementuak: *Komunikazio-kanpainak beharrezkoak dira, baina euskarak jendearen pentsamenduan duen toki edo posizionamenduan eragiteko kultura oso bat eraiki behar da, non euskarak nagusitasun osoa izango duen ikuspegi funtzional, sinboliko zein esperientzian eta hori lortzeko aipatutako hiru bideak dira ezinbesteko: hizkuntza-politika, komunikazioa eta dinamika soziala.* Ondoko lerroetan hiru bide horietatik bigarrena izango dugu hizpide gehienbat eta, hasteko, parte-hartzaileek iradoki dituzten euskararen komunikazio egokirako ideia ugarien berri emango dugu.

Euskarak gure egunerokoan leku egokia lor dezan, komunikazioaren premia eta erantzukizun kolektiboa agerian jartzen dituzten ekarpen batzuekin; alegia, aurreko aipuan agertu diren hiru elementuetatik azken biek: *Euskararen gaia plaza publikora eraman behar da, herritarren, politikaren eta eragile sozialen agendetan sartuz. Agendetan kokatzeak, maila diskurtsibotik haratagoko urratsak ematea ahalbidetu behar du, azken batean maila aplikatiboa urratsak ematea ere / Guztion artean eman beharko genioke balio erantsia euskarari eta erabilera prestijiatu, politika aktiboagoak bultzatuz. Horretan, Administrazioak eta alderdi politiko guztiek zeregin handia dute. Lan-mundua ere garrantzitsua da kate horretan / Funtsezkoa litzateke euskara modan jartzea. Hori da aldi berean zailena eta erronkarik handiena.*

Jakina denez, komunikazioa publizitate kanpainak baino askoz gehiago da, hala nola ezertxo ere esan gabe hizkuntzari hainbat modutan atxikitzen zaizkion balioak, itxura eta abar; adibidez, hizkuntza erabiltzen duenaren izaera edo erabilia den lekuaren marka. Horregatik, ekarpen batzuekin gomendio-zerrenda osatu dugu, euskararen komunikazio-jardun egoki baterako kontuan hartu beharreko planteamenduz: *Diskurtsoa berritu behar da eta komunikazioa-praxi berri bat ere ekarri behar du berekin:*

- *Euskararen gainerako planak baino, euskaratik eta euskaraz jardun beharko gara orohar: agerraldi publiko, harreman pribatu, komunikabide, politika eta abarren mailan. Euskarak bere unibertso autonomia sendotu eta osatu behar du; hortan komunikabideak (ez soilik EITB) eta internet funtsezkoak dira.*
- *Hizkuntza erabiltzen ez bada ez dago hizkuntzarik. Erabilera da hizkuntzaren ardatza eta erabilerak sendotzen du hizkuntza bera. Euskara agertu behar da (ETB2n, ekitaldi publikoetan...), euskaraz ere egin behar da (itzulpenik gabe), erdaldunak ez uxatzeko moduan eta bai interesa eta duten gabezia senti dezaten.*
- *Euskararen balioa lanpostu publikoetan beti aitortzea ere funtsezkoa da, epe luzeko pizgarriak emate aldera. Zorakeriarik gabe, baina jendaurreko arreta eta harremana euskaraz izan dadin posible eginez, eta naturaltasuna zainduz.*
- *Orohar, lurraldetasuna lantzeko eta giza harremanetarako euskarak duen balioa haizatu behar da. Abertzaletasunaz haragoko eremu eta jendea ikusgarri egitea ere ona da, euskara komunikazio tresna gisa eskaintzeko eta ez helburu gisa. Adibidez, eremu politiko, sindikal edo instituzionaletakoak ez diren ospe handiko pertsonak euskaraz naturaltasunez baliatzea.*
- *Etorkinak euskarara ekartzeko politika berezitu bat ere beharko genuke, euskara integratiorako tresna aparta delako eta abantaila hori zukutu behar dugu etorkinekin elkarlanean.*

3.3.5. Irudia

Diskurtso berrian euskarari irudi berria eman behar zaio. Hau da, pentsatu eta erabaki behar da nola nahi dugun euskara agertzea. Ahalegin horretan hautu egokia egitearen garrantzia ongi baino hobeto azaltzen du hurrengo ekarpenak: *Adibide interesgarri bat: gaelikoa versus galesa. Lehenak prestigio sinboliko handia du baina heriotzarako bidean dago erabileraren borroka galdu duelako, eta bigarrena ordea gora egiten erabileraren aldetik, balio sinbolikoa baino haratago komunikatiorako lanabes delarik. Gure erronka galeserantz lerratzea eta gaelikotik urruntzea da.*

Euskarari orain arte erantsi zaizkion “apaingarri kaltegarri” batzuen (ikus 2.2.2. azpi-atala) zama arindu beharko zaio eta, aldiz, lagungarri gerta dakiokkeen beste berri batzuekin koloreztatu. Baliteke ere irudi eraldaketa horretan egungo osagai batzuek balekoak izaten jarraitzea.

Ezabatu behar diren kutsuen artean politizazioarena da nabarmenena, kontsultatutako lagunek behin eta berriz gogorarazi diguten bezala: *Ideologiatik eta politizaziotik aldentzea / Ika-mika politikatik bereiztea, eta horretarako inork ez du era eksklusiboan erabili behar, ezta euskara gaizkile bezala aurkeztu behar ere / Abandonatu (Iparraldean) borroka nazionalistarekiko lotura astun hori gure diskurtsoetan. Bi gauza ezberdin dira. Arras bereziak.*

Despolitizazioaren hurrengo pausoa izan liteke hizkuntza politikari kutsu politikoaren orde, esanahi tekniko, ustez “aseptiko”, ematea, normaldu nahi den beste edozein hizkuntzarekin ere egingo litzatekeena: *Hizkuntza gutxiagotuekiko babes neurri orekatzaileak eta politikak zehaztea, gai tekniko bat bezala planteatuko nituzke: a) Euskararen ezagutza, erabilera, eragin faktoreak neurtu eta interpretatzeko eta euskararen lurraldeko administrazioentzat aholkularitza rola izateko; b) Hizkuntza Politika, gainerako politikekin (ingurumen, hirigintza, genero...) zeharka eta loturan landuko nuke eta, bide horretan, diziplinarteko batzorde edo aditu taldea izendatzea egoki litzateke paradigma berrian maila konkretura jaisteko / Euskarak nekez egin dezake aurrera beste hizkuntzen kudeaketa eta izatea definitu gabe. Hori lortzeko garapena utzi teknikari profesionalen eskutan, ez agintarien eskutan, ez dadila izan hizkuntzen kudeaketa botere txanpona, hizkuntzen kudeaketa lotua egon dadila eta legegintzaldi bakoitzean ez dadila egon aldatzeko aukerarik, doitzeko eta ebaluatzeko ez bada.*

Ba omen du euskararen irudiak irauli beharreko beste aje batzuk gehiago ere: *Gaur egun euskararen normalizazioari sekulako kaltea egiten dioten hiru marko oso indartsu daude, eta, zoritxarrez, euskaltzaleok ere askotan errepikatu eta indartzen ditugu: inposizioaren markoa, euskara zaila da markoa eta euskara ez da erabiltzen markoa. Euskalgintzak hiru marko horiengandik izurritik bezala alde egin beharko luke, ez elikatu, ez aipatu eta bestelako markoak elikatu eta erabili / Euskararen erabilerarantz bultzatzea edo limurtzea landu behar izango litzateke, eta erabilerarako inposatzearen hautematea baztertzea / Euskara ez da hizkuntzarik zailena. Egiten ez den heinean da zaila ikastea.*

Euskara suspertzeko ahaleginetan euskalgintzan erabili ohi diren elementuak, ustez egokiak izanik ere, ez omen dira ekidin beharreko beste horiek (inposizioa, euskara zaila eta euskara ez da erabiltzen) bezain indartsu eta eraginkorrak: *Orain arte elkarbizitza, justizia/eskubideak edota nortasuna bezalako kontzeptuetan oinarritu ditugu gure markoak, funtsean balio kolektibo eta emozionaletan. Aldiz, gure aurka erabiltzen dituzten hiru horiek ez dira hain abstraktuak, pertsonalagoak dira eta arrazionalagoak edo pragmatikoagoak.*

Horregatik, aldeko mezuak indartze aldera, lelo berriak asmatu eta erabiltzea proposatzen da, egun indarrean dagoen kasu jakin baten nondik-norakoak adibide gisa aipatuz: *Lehenengoak (elkarbizitza, justizia/eskubideak eta nortasuna) baztertu gabe, bestelako markoak ere baliatu behar ditugu, esaterako, “euskaraz bizi nahi dut” ideia indartu dezaketen aldaera ezberdinak baliatuz. Euskaldunak bere hizkuntza-eskubideak aldarrikatzen dituenean, euskaraz bizi nahi duela aldarrikatzen duenean, egoera gutxiagotuan, zapalduan dagoela kontuan izan behar dugu, beraz, ezin da pentsatu euskararen aurka dagoen horren beste muturrean dagoenik.*

Euskarari erantsi behar zaion beste ezaugarri bat, kontsultatuek sarri aipatu dutena, ikuspegi positiboarena da. Azken hamarkada hauetako hizkuntza politikak zapore gazi-goza utzi duelakoan (ikus 2.2.2 azpi-atala), hemendik aurrera hizkuntza normalkuntzaren alde erakargarriak areagotzea ezinbestekotzat jotzen da: *Euskararen aldeko argumentuei forma berria ematean dago gakoa, ikuspegi positiboa eta eraikitzailea. Errespetu eta ardura kontzeptuen inguruan adostasuna bilatzeko / Euskararen ezagutza zein erabilera esker onekoa izatea, eta ez zerbait inposatua / Euskara herritarren arteko harreman-hizkuntza izango bada, erabiltzeko baldintzak zaindu (edo sortu) behar dira, bereziki gazteen artean, eta horretan familia transmisioari baino gehiago, familia-erakarmenari arreta jarri. Erakargarria da gaur egun gure seme-alabekin darabilgun diskurtso agonikoa?*

Horrela, euskara normaltzearen onura hauek zabaldu beharko lirateke behar diren diskurtsoak zabaldu eta nagusituko badira, parte-hartzaileen arabera:

- *Hizkuntza bat ikasteak (gurean euskara), erabat elementu motibatzailea da. Euskaldunok gara elebidun edota eleanitzak. Horrek onurak baino ez dizkigu ekartzen, zergatik ukatu hori inori? / Zer irabazten du inork euskara ez jakitearekin? Erdara bakarrik jakitea galera pertsonala dela argi azaldu.*
- *Elebitasuna elkarrekin aberasteko eta mestizaje kulturala balio bezala ulertzeak euskara desiragarriago egiten hizkuntza hori ez dakitenen begietara.*
- *Euskara erraza, erabilgarria bultzatzea eta goraiapatzea. Euskararen zuzentasun/erraztasun joerak, ez dira elkarren kontrakoak eta ezin bateratuak; biak dira arruntak edozein hizkuntzetako hiztunengan.*
- *Euskara ez da hain hizkuntza txikia, eta uste baino jende gehiagok daki / (Iparraldean) Kultura handiko -apezkoia den arren XX. mende erdiraino- hizkuntza bat dela erran denetan (ikus Euskara Jendea dokumentala.).*
- *Tokian tokiko hizkuntzan lana egin ahal izatea, hizkuntza ezagutzeaz gain lekukoen arteko integrazioa lortzen du, proiektu kolektiboaren parte sentitzeak inplikazioa areagotuz.*
- *Hizkuntzaren inguruko bizipenak elkar partekatuz elkarbizikidetzatza areagotzen du. / Euskara jakiteak, guztientzako irekia den mundu berezi baterako sarrera dela sentitu behar dugu egunero, gozatzen dugula eta ez dakitenak erakarri / (Iparraldean) Euskarari buruz ari garenean, ez biktima antzera aurkeztea gure buruak. Suerte handia dugulako bi ala hiru, ala gehiago, hizkuntza arrunki ezagutzeaz. Zoriontsu agertu euskaraz aritzeagatik*
- *Euskara egunerokoan erabiltzeko beharra gizartera (inposatu gabe) eramatea, ondare kulturala bezala, ondasun pertsonala bezala, gu beste pertsona batzuekin erlazionatzearen posibilitatea bezala, zerbait arrunt bezala, etab.*
- *Proiektuarekiko inplikazioak berak errentagarritasun materiala eta soziala dakartza.*
- *Euskarari pluraltasunaren, modernitatearen eta ezagutza zabalagoaren balioak atxikitzea.*
- *Horren erabiliak diren hizkuntza indartsuak, ez dituzte asetzen hizkuntza komunitate guztien premiak.*

- *Hizkuntza ez indartsu batek beste hizkuntzak ikasteko gogoia eta abilezia areagotzen ditu.*
- *Euskarako hiztun berrien aitortza soziala esplizitu egiten duten diskurtso bizkorgarriak, positiboak / Egun, ilusioa sortzen duten proiektuek egiten dute aurrera, "guztiok irabazi behar dugu zerbait" diotenek.*
- *Erabilera prestigioatzea izan daiteke une honetan estrategiarik egokiena euskararen beharrezanean erantzuteko, eta horretarako preskriptoreen lanak lagun dezake. Horien artean ez ditugu ahaztu behar kulturari eta jakintzari lotutako pertsonak.*
- *Euskalkiek hizkuntzaren bizitasuna erakusten dute, eta gazteen arteko mintzaera ez formala hobeto bideratzen dute, nahiz eta etxetik erdaldunak diren euskaldun gehiengoarentzat erabilerarako oztopo ere gerta daitezkeen.*

Erakargarritasunaren aldarria badu oinarri sendoa, planteamendu ideologiko edo identitarioen aurretik hizkuntza hautua (euskara ala erdara hautatzea) oso erabaki pertsonala da, azken buruan, eta, askotan, ez-kontzientea: *Gutxieneko baldintzak emanda, hizkuntza bat edo bestea aukeratzea hautu pertsonala da, nork bere apetentzien arabera egiten duena. Eta horretan datza, nire ustez, euskararen inguruko diskurtso berria lantzeko oinarria: gustagarri, aberasgarri, osagarri eta plazer-iturri bihurtzean, horrela eginda beste hizkuntzen aurretik aukeratua izan dadin.*

Euskararen erakargarritasuna hiztun mota guztientzako mota bateko balioa ere baduela defendatzen da; alegia, ez duela bakarrik aldekoekin edota indiferenteekin emaitza onak emango, baizik eta jarrera defentsiboa dutenekin ere bai: *"Norberaren askatasuna" aldarrikatzen duten horiek erakarri behar ditugu gurera, eta horretarako diskurtso atseginak behar ditugu, baztertu gabe / Erdaldunak gerturatzeko moduan egin behar dugu. Euskara ez dakiena ezin da lasai bizi, uxatu barik zerbait falta zaiola sentitu beharko luke.*

Hala ere, gogora dezagun aurreko ataletan eraginkortasuna aldarrikatzen zela eta, hortaz, erakargarritasuna ezin da horren truke edo ordean ulertu: *Diskurtsoak baikorrak izan behar dira, baina, aldi berean, esan beharrekoa tinko adierazita: euskara da gure herriko hizkuntza, nahiz eta inguruan beste hizkuntza batzuekin biziko den; euskara ardatz duen gizarte eleanitza nahi dugu.*

3.3.6. Marketin ikuspegia

Diskurtso berri baten premia aipatzen ari garenean, euskararen lurraldeetako gizarte ezberdinak ditugu buruan; baita horietan guztietan dauden hizkuntza-ikuspegi eta interes batzuetan kontrajarriak ere. Aniztasun horretan, ulergarria da diskurtsoak eta mezuak hartzailearen arabera doitzeko dagoen beharra.

Alegia, ardatz komun baten inguruan eraikitako diskurtso berriko osagaiak, beti modu berean ez, baizik eta hartzaileen premia edota ezaugarrien arabera egokituta eta helarazi beharko da: *Ez dago mezu unibertsalik, eta pertsona bakoitzari (edo pertsona talde bakoitzari) hitz egiterako orduan, beregan eragina izango duen mezua eta hizkuntza erabili behar dugu. Beharrezkoa da norbanako hori edota talde hori ongi ezagutzea. Argi dugu zabaltzera jo behar dugula, baina urte asko daramagu euskaratik urrun dauden horiek seduzitu nahian eta beste estrategia bat behar dugu gure helburua erdietsi ahal izateko.*

Hemen bildutako ekarpenek ez digute marketin ikuspegi oso bat eskaintzen euskararen diskurtsoa abian jartzeko, balizko aukera guztietan. Hala ere, ideia baliotsu batzuk ematen dituzte egoera edo xede-talde batzuen inguruan. Kasu horiek, gainera, adibide bezala har daitezke ikusteko, euskararentzat irabazi nahi den “merkatu” zabal eta anitza, nola segmentatu behar den.

Lehenengo adibidea, merkataritzako adibidea jartzen digu aurrean, euskararen “salmentan” eraginkorrak izan gaitzen: *Hizkuntzarenganako maitasuna eta errespetua dira giltza. Horrela da salmentak hobeto funtzionatzen duen era: saldu nahi duenaren gain pasioa duenak eta pasio hori beste bati transmititzen dakienak, ia salmenta segurua dauka, kontagiatu egiten delako. Ba horrelako zerbaitetan egiten saiatu beharko ginateke.*

Beste adibide batzuk merkatu horretako segmenturen bat hautatzen dute, horretako baliatzen duen irizpidea interbentzioaren lehentasuna izanik: *Framing Uzkurra baino, Framing aldarrikatzailea ez den “gehiengo epela” da giltzarria eta mobilizatu/erakarri beharrekoa. Framing aldarrikatzailea baliatu behar da euskaltzale epelagoak euskarara ekartzeko, euskararen herria herriago egiteko / Euskaraz hezitako eta aurreiritzietako librea den belaunaldi berria euskarara biltzea.*

Hurrengo bi adibideak eremu geografiko jakinetara mugatzen dira. Horietatik, lehenengoa Araba du hizpide, eta lurralde horretan diskurtso partekatatu baten barruan euskararen eremua zabaltzeko eta sakontzeko dagoen aukera garbia aipatzen du; baita mezua mugatzeko edo doitzeko premia ere: *Arabaren zoru partekatua eskasa da, eta, horregatik, partekatua izan daitekeena hau da: egin lana umeekin, aisian ere baina ez gehiegi eta kontuz administrazioan eskubideak eta abarrekin, kontuz, ze ni langile naizen aldetik nire eskubideak daude eta argi ibili.*

Azken ekarpenak Bilbo Metropolitanoa (Bilbo Handia) du jomuga, bertan bereizi beharreko bost gizarte talde zehaztuz: *Hiru talde nagusi daude: 1) 30 urtetik beherako pertsonak, euskara hezkuntzan ikasitakoak, baina egunerokoan gutxi erabiltzen dutenak; 2) 30etik 70ra urtekoak, euskara oso gutxi, edo ezer ez, dakitenak eta hizkuntza horrekiko interesa ere ezagutzaren parekoa izanik; 3) 70 urtetik gorakoak, etxeko euskara –bizkaiera- jakin arren oso gutxi baliatzedn dutela belaunaldi berrien batuarekin gaizki moldatzen direlako. Hiru talde hauei, elkarren muturrekoak diren beste bi erants dakie: 4) egunerokoan euskara erabiltzen dutenen multzo minoritarioa; 5) euskara jakin ez eta, hizkuntza horrekiko jarrera uzkurra izanik, arbuiatzen dutenen multzoa (aurrekoa baino handixeagoa izan daitekeena). Halako sailkatze edo segmentazioa zuzena balitz, multzo horietako bakoitzera hurbiltzeko estrategia bana eta talde bakoitzera erabat egokitua beharko litzateke.*

4. Estrategia partekatuak

Arestian aipatu den bezala, zailtasunak zailtasun, hizkuntza politikan errazagoa izan daiteke azken helburuak adostea, horietara iristeko behar diren neurrietan bat egitea baino. Euskararen diskurtso berri baterako egindako ekarpenetan badaude (ia) aho batez onar litezkeen zenbait puntu. Horiek parte-hartzaile ezberdinek eginak izanik, moldatuak izan dira eta jarraian zerrendatuko ditugu oinarritzko proposamen bezala:

1. *Egindakoari errekonozimendua aitortu; baita gaizki egindakoak onartu eta lortu ez diren helburuak azaldu ere.*
2. *Aniztasunaren balioa. Euskararen alde, indiferente edo kontra egonda ere, gure elebitasuna gizartearen ondasun kulturala da, denok zaindu beharrekoa, eta aukera librerako erabiltzaileen eskubidea bezala babestu behar da, eskaintza hori zenbat eta handiagoa eskubidea ere handiagoa.*
3. *Euskara abantaila da. Izan ere, komunitate batek erabiltzen dituen hizkuntzak ezagutzeak eta erabiltzeak, gizarte horretako ikuspegi osoa edukitzen laguntzen dute eta hainbat ate zabaltzen ditu.*
4. *Euskara, alderdien arteko erabilera politikotik urrunduz eta norberaren jarrera-adierazle gisa soilik ez hartuz, eguneroko bizitzaren arlo guztietan erabilia izateko komunikazioko osagai normal gisa aurkeztea.*
5. *Iraunbizitzari dagokionez, hizkuntza ofizial biak ez daude baldintza beretan. Gutxiengoan aldeko politikak ez dira gehiengoarekiko diskriminazio bezala ulertu behar, bi multzo ezberdinen arteko berdintasun egoera orekatura eramateko ezinbesteko baldintza baizik.*
6. *Sentsibilitate ezberdinen arteko konfrontazioa saihestea eta elkarrekiko errespetua bultzatzea, bai euskaltzaleen artean, baita euskararekin indiferente edo urruti daudenekin ere.*
7. *Hizkuntza eskubideak errespetatzea eta hiztun guztiek aukera berdina izan ditzaten bilatzea, hori posible egiteko bi hizkuntza ofizialak denek ulertzea bilatuz.*
8. *Gizarte dinamika orokor baten bitartez, euskararen ezagutza eta erabilera –nork bere neurrian eta errespetutik abiatuz- bultzatzen jarraitzea.*
9. *Erabileraren garrantzia azpimarratzea, ez badugu erabiltzen, baztertu egiten dugulako. Adostasuna eta elkarrekiko errespetua normalkuntzarako traba bihur ez daitezen zainduz, euskararen zabaltzeari, erabiltzeari eta eguneroko bizitzako sustapenaren aldeko motibazioari laguntzen dieten eremuak sortzea.*
10. *Hausnarketa gizartera zabaltzea. Egoera aldatzea guztion esku dago, bakoitza bere arloan, baina sinergiak probestu behar dira.*
11. *Mundu globalizatuan kokatuta, errealitate horren dinamikak eta baldintzak aintzat hartuz, hala nola ingelesak gizartean duen presentzia, enpresetako eleaniztasun premia, internet, hizkuntza-komunitate gutxituen arteko elkarlana eta sarea.*
12. *Hizkuntza politikaren urrats guztiak errespetutik emanaz, kontsentsua bilatuz eta pertsuasioren bidetik joz.*

13. *Emozioak eta baikortasuna euskararekin lotzea. Euskara erakargarri izan dadin bilatuz*



EGOD: EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOA

Ikerketa_kualitatiboa

2014ko abenduaren 5a

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA ETA AURREKARIAK	3. or.
2.	FITXA TEKNIKOA ETA METODOLOGIA	6. or.
3.	EUSKARAREN INGURUAN DAGOEN DISKURTSO SOZIALA	9. or.
	3.1. PARTAIDEAK: EUSKARAREKIN DUTEN HARREMANA	11. or.
	3.2. EUSKARAREN ESANAHIA: ZER DA ZUENTZAT EUSKARA?	16. or.
	3.3. EUSKARARI ERANTSITAKO ESANAHIAK	28. or.
	3.4. GAUR EGUNGO EGOERA	33. or.
4.	HERRITARREN JARRERA EUSKARAREN INGURUKO PROPOSAMENEN AURREAN	41. or.
	4.1. GOGOETA SOZIALA PROPOSAMENEN AURREAN	44. or.
	4.2. ANALISITIK SORTUTAKO KONTSENTSUZKO ERRONKAK (TALDE MISTOA)	76. or.
	4.3. KONTSENTSUZKO ETORKIZUNEKO AGERTOKIAK EUSKARAREN INGURUAN	81. or.

1. AURKEZPENA ETA AURREKARIAK

1. AURKEZPENA ETA AURREKARIAK

Bidea ezin da burutu pausuz-pausu egiten ez bada. Eta nahiz eta jakin amaierarik gabeko bide infinituan gaudela, gaurko pausuak dira etorkizunean emango ditugun pausuen baldintzatzaileak. Beraz, bidea zelakoa izan den jakinda eta oker egindako urratsak buruan izanda, bultzadatxo bat behar da gu, euskararen xendra marrazten jarrai dezagun.

Eta aurreko paragrafo honek ez luke zentzurik izango euskara errelebo-karreran murgilduta egongo ez balitz. Gure aurkariak? Gu. Horregatik, hain zuzen ere, proiektu honen existentzia. Orain dela hogeita hamar urte baino gehiago martxan jarritako politika linguistikoak berraztertze bat behar du. 1982ko Euskararen Legea euskara bultzatzen zuen lehenengo legea izateaz gain, urte hartatik hona zenbait plan eta egitasmoren marko erabilgarria ere izan da. Eta garai hartan bezala, gaur egun ere gizarteari zerbitzu eman behar dion plana behar da. Testigua pasatu behar zaion plana behar da.

Gogoeta honen ondorioz, EGOD egitasmoa hasi zen martxan. Hurrengo orrialdeetan ikus daitezkeen ideiak proiektu guztiaren atal bat baino ez dira. Baina beste atalen moduan, garrantzitsua. Beraz, logikoa da, EGODen lehenengo urratsak azaltzen hastea: gaur egun martxan dagoen politika linguistikoan gogoeta sakonak egin ondoren, zenbait urritasun ikusi dira. Baina urritasun hauek berriak ez ezik, aspaldi ezagunak ziren: laburbilduz, euskara jakin badakigu baina ez dugu erabiltzen. Honen ondorioz, gizarteko zenbait pertsona esanguratsu (euskaldunak zein erdaldunak) batu ziren bi Gizarte Foroetan, euskararen azterketa bat egiteko.

Eta honen ostean dator hemen hasten den testua. Gizarte Foro hauetan batutako informazioa ustiatu, miatu eta ikertu ostean, herritarren artean kezka diren hainbat gai esanguratsu ikusi dira. Gai edo ildo hauek jarraituta, [kide eta herritar anonimo](#) diren pertsonen artean ikuspuntuak partekatu ditugu. Ikuspuntuak eztabaida taldeen teknikaren bitartez bideratu dira.

Testuaren antolaketari dagokionez, aurkezpenaren ondoren, FITXA TEKNIKOA eta METODOLOGIA azaltzen da, non lanaren oinarria azaltzen da. Honen ondoren, eztabaida taldeetan parte hartutako pertsonen berezko eran (espontaneoan) jasotako iritzi zein ikuspuntuen kapitulua dago, EUSKARAREN INGURUAN DAGOEN DISKURTSO SOZIALA izenekoa. Kapitulu honetan, euskara gai nagusi bezala zuten galdera batzuen inguruan euren ikuspuntua eskatu zitzaientzen : euskararekin duten erlazioa, euskara eurentzako zer da, euskararekin lotzen diren kontzeptuak eta euskararen gaur egungo egoeraren inguruan jardutea eskatu zitzaientzen. Esan den bezala, kapitulu honetan ez zen ezer iradoki, galdera generikoak planteatu bakarrik.

Hirugarren kapituluan ez bezala, laugarren kapituluan, HERRITARREN JARRERA EUSKARAREN INGURUKO PROPOSAMENEN AURREAN, Gizarte Foroetatik batutako informazioa ustiatu ondoren sortutako lau ideei esanguratsu eskaini zitzaientzen eztabaidaren gidari izateko. Ondorioz, bertan zeuden kontzeptuen inguruan aritu ziren. Beraz, dinamiken bigarren zatian gai zehatz batzuen inguruan eztabaidatzera bideratuta izan ziren parte-hartzaileak.

Talde-dinamiken ondorioz jaso den informazioa irakurri, aztertu, egituratu, antolatu eta era koherente batean jarri da. Lan honen emaitza, ondorengo txostena da.

Hasierako metafora berriro ekarriz, ea hemendik atera daitezkeen argazkietatik, etorkizunerako bidea marrazteko baliagarriak diren.

2. FITXA TEKNIKOA ETA METODOLOGIA

2. FITXA TEKNIKOA ETA METODOLOGIA

Ikuspuntu metodologikoari dagokionez, eztabaida taldeak edo focusgroup teknika erabili da.

Teknika horrek gai ezberdinei buruz **herritarrek duten arrazoibidearen funtsezko osagaiak jasotzea ahalbidetzen du, arrazoieta eta horien aurrean zehazten diren argudioetan sakonduz**. Eztabaida taldea, pertsona batzuen bilera baten bitartez, errealitate lagin bat egiteko tresna bezala erabili da. Horretarako, toki jakin batean moderatzaileak proposaturiko gai ezberdinetan sakontzeko profil ezberdinetako zortzi pertsona izan dira, ohikoa izaten den moduan.

Ikerketa honen helburua goi-mailako izaera kualitatiboa izanik, alegia, eztabaida taldea, egokiena den ikerketa teknikoan eratu da. Hau horrela **pertsonek edozein materiari edo egoerari buruzko eguneroko iritziak edo izandako “gaurkotasun-bizipenak” modu zehatzenean berresaten saiatu da**. Balioetan sakontzeko eta joerak eta etorkizuneko eskaerak aztertzeko gehien erabiltzen den metodologia da. Focusgroup horiek, **herritarren iritzi, eta beraien motibatze eta arrazoieta sakontzeko aukera ematen duten ideien hartu-emanak garatzeko gunerik egokienak izan dira**.

Zehazki, **7 eztabaida taldetan gauzatu** da, eta, adostu bezala, bere konfiguraziorako segmentaziozko hurrengo aldagai hauek izan dira kontutan:

Aldagai nagusia **euskararen ohiko erabilera** izan da. Hauek dira hiru profilak:

- **Euskaldun “aktiboak”, Euskaldun “pasiboak”, Erdaldunak.** (geroago azaldu da ze pertsona mota sailkatu den talde bakoitzean. Ikusi 3.1., 3.2. eta 3.3. puntuak)
- **Adina:** Adinaren bi segmentu desberdinak erabili dira gazteen diskurtsoa nagusien diskurtsotik bereizteko.
- **Lurralde historikoa:** Eremita-lana hiru lurralde historikoetan garatu da, horien artean osagai bereizgarriak jasotzeko asmoarekin.

2. FITXA TEKNIKOA ETA METODOLOGIA

Zehatz-mehatz, eztabaida taldeen eraketa hurrengoa izan da:

Adina	Euskaldun aktiboak	Euskaldun pasiboak	Erdaldunak
18-35 urte	ET1(Bilbo)	ET1 (Gasteiz)	ET1 (Bilbo)
36-65 urte	ET1(Donostia)	ET1(Bilbo)	ET1 (Donostia)
Kontsentsuzko ET 1 (Bilbo)			

Eztabaida taldeak, sexuaren aldagaia kontuan izanik, mistoak izan dira (%50 gizon - %50 emakume).

Azkenengo taldeari, *talde mistoa* izendatutakoa, kontsentsuzko taldea ere deitu zaio. Talde horretan parte hartu duten lagunak, aurreko taldeetatik egokien iruditu zitzaizkigun jendearen artean aukeratu dira. Kasu honetan hauek izan dira aukeratzeko irizpideak:

- Talde bakoitzeko hiru pertsona aukeratu dira; adin (gazteak eta helduak) eta sexuaren aldagaia kontutan hartuta.
- Aurreko eztabaidan aktiboa eta ideia edo ikuspuntu aberasgarriak proposatu edo azaleratu izana.
- Muturreko jarrera edo ikuspunturik ez izatea, elkarrizketa/eztabaida eta kontsentsua bultzatzeko.
- Taldeko beste bi pertsonetikiko eta beste taldeetako pertsonetikiko profil diferentea izatea (talde heterogeneoa sortzeko).

Eztabaida taldeetatik irteten diren emaitzak hurrengo orrialdeetan idatzita daude. Ikerketa kualitatibodun emaitzek, **ikerketa kuantitatiboa den geroko garapenerako items-ak definitzea eta mugatzea** lagunduko digute, aztertutako gai desberdinei buruzko jarrera sozialak neurtzeko balioko digutenak, alegia.

Amaitu aurretik, gogorarazi beharra dago, *verbatim*-en aipuetan agertzen diren letren esanahia hurrengoa dela: EA = Euskaldun Aktiboak; EP = Euskaldun Pasiboak; eta ER = Erdaldunak. Gero adin-tartea (18-35 edo 36-65) eta eztabaida taldearen jatorriaren hiria (Bilbo, Donostia edo Gasteiz) agertzen dira.

3. EUSKARAREN INGURUAN DAGOEN DISKURTSO SOZIALA

Kapitulu honetan eztabaida taldeetan landu ziren galderen ondoren sortutako ikuspuntu, iritzi eta ideiak batu dira.

Atal honetan berezko erantzunak jaso dira. Talde bakoitzean galdera aurkeztean taldeetako partaideak aktibatu eta beraien partaidetza sustatzeko balio izan du. Prozesuan parte hartu dutenen artean harremana lortzeaz gain, proiekturako inportantea den informazioa lortu da, herritarren termometro bezala erabili daitekeelako: ze ikuspuntutik ikusten duten jakiteko, zer nabaritzen duten, zer uste duten, zer iritzi duten, zer nolako egoeran gauden jakiteko. Gainera egitura trinkoetatik at egotearen abantailetakoa bat azaleratu zen: naturaltasunez hitz egin zen gizarteari inporta zaion gai baten inguruan.

Beraz, berezko kapitulu honetan, lau dira ukitu ziren gaiak:

1. Norberak **euskararekin duen erlazioaren** inguruan galdetu zitzaien.
2. **Euskara eurentzako zer den esatea** proposatu zitzaien.
3. **Euskara hitza entzuten dutenean**, gizarteko parte diren heinean, **burura etortzen zaizkien kontzeptuak** esateko eskatu zitzaien.
4. **Euskararen gaur egungo egoerari** buruz ikuspuntua ematea eskatu zitzaien.

Hurrengo orrialdeetan lau galdera horien inguruan jaso den informazioa batu da, eta era ordenatuan eskaintzen da.

3.1. PARTAIDEAK: EUSKARAREKIN DUTEN HARREMANA

Hurrengo lerroetan, dinamika taldeetan parte hartu duten herritaren profila osatzea daukagu helburu. Horretarako dinamika taldeetan jorratu den gaia hartuko dugu ardatz, euskara, eta pertsonen hizkuntzarekin duten harremanaren arabera sailkatuko dira. Sailkatzerako orduan, batez ere, bi faktore izan dira kontutan: batetik, **ezagutza** (jatorria, maila...); eta bestetik, **erabilera** (egunerokoan, lanean, familian, herrian...).

Talde profiletan parte hartutako pertsonak aipatzen hasi baino lehen, aspektu batzuk komentatzea komeni da:

- Batetik, taldeetan (euskaldun aktiboen, euskaldun pasiboen eta erdaldunen taldeetan) ikusi diren profil mota desberdinak azpimarratu behar dira. Hau da, talde oso heterogeneoak izan ditugu, gizartearen lagin esanguratsuak izanik. Gainera, talde-dinamika denak konparatzean ez ezik, talde-dinamika bakoitzaren baitan ikusi da ezaugarri hori. Beraz, aniztasuna, taldeen artean eta taldeetan bertan ikusi da.
- Bestetik, pertsona eta talde diferenteen artean desberdintasunak egon diren arren (adina, erabilera, maila...), zeharkakoak diren ezaugarri batzuk ere ikusi dira, edo behintzat, talde zehatz batera mugatu ezin daitezkeenak. Hauek testu guztian aipatuko dira.

Hona hemen hiru taldeetan ikus izan diren profil esanguratsuak:

3.1.1. EUSKALDUN AKTIBOAK

Euskaldun aktiboak **egunerokotasunean euskara erabiltzen duten pertsonak** kontsideratu dira, hau da, erabileraren arabera egin da sailkapena eta ez jatorriaren arabera. Kasu honetan, euskaldun aktiboek erdara erabiltzen duten arren, egunerokoan **euskara da gehien erabiltzen dutena** (familia, lagun, kale, ikasketetan...).

Euskaldun aktiboen bi talde egin dira. Bata Bilbon eta bestea Donostian. Bilboko taldean parte hartutako pertsonen adina 18-35 urte bitartekoa izan zen eta Donostiako taldean parte hartutako pertsonena 36-65 urte bitartekoa. Talde-dinamika biak euskaraz egin ziren.

Parte-hartzaileen artean bereizte diren profilak:

- Txikitatik euskaraz hezi eta bizitzan zehar komunikazio hizkuntza (*lengua vehicular*) moduan izan duten pertsonak (giro euskaldunean hazi eta hezitakoak).
- Familia edo inguru euskaldunean jaio ez direnen arren, hezkuntza-prozesuari esker (D ereduari esker, batik bat), gaur egun euskara euren eguneroko hizkuntza duten pertsonak.
- Familia edo inguru ez euskaldunean jaio ez direnen arren, norbanako inizatibari esker euskara ikasi eta gaur egun euskaraz bizi diren pertsonak. Hauek errebindikazio edo sentimendu kutsu handiagoa azaldu dute.

3.1.2. EUSKALDUN PASIBOAK

Talde-dinamikak egiteko orduan, euskaldun pasiboak horrela sailkatu dira: euskara **ama hizkuntza bezala ez dutenek** eta/edo **euskara egunerokotasunean erabiltzen ez dutenek**. Beraz, nahiz eta txikitatik euskarari hezi, gaur egun **euskaraz egiten ez duenari** euskaldun pasiboa kontsideratu zaio. Talde honen barruan beraz profil asko sartzen dira, euskara erabiltzen dutenaren arabera.

Euskaldun pasiboen bi talde-dinamika egin dira. Bata Gasteizen, eta bestea Bilbon. Gasteizeko taldean parte hartu duten lagunen adina 18-35 urte bitartekoa zen, eta talde-dinamika gazteleraz egitea erabaki zuten (eskaini zitzaien euskaraz ere egitea). Bilboko taldean parte hartu duen pertsonen adina 36-65 bitartekoa zen eta hauek euskaraz egitea erabaki zuten (pertsonek batek erdaraz azaldu nahi izan zuen bere ikuspuntua).

Orokorrean, hauek dira euskaldun pasiboen artean ikusi ahal izan ziren profilak:

- Euskara ondo ezagutzen eta ondo berba egiten duen pertsonak. Bere herrian edo inguruan euskara erabiltzen dutenak, baina beste nonbait bizi direnez ez dute euren egunerokoan euskara erabiltzen, nahiz eta ondo jakin.
- Lana dela eta, atzerrira joan behar izan dutenak, eta ondorioz, euskara galdu dutenak.
- Jakin bai baina erabilera lan-mundura mugatzen duten pertsonak.
- Euskara jakin bai baina lan-munduan erabiltzen ez dutenak.
- Erronka pertsonal modura ikasi duten pertsonak. Ez dira gai ikusten euskaraz berba ondo egiteko edo ez dituzte espazioak aurkitzen euskara erabiltzeko.

3.1.3. ERDALDUNAK

Erdaldunak **euskara oso gutxitan erabiltzen duten pertsonak zein euskaraz ez dakitenak** kontsideratu dira. **Gaztelaniaz bizi dira normalean**, eta euretako batzuek **noiz behinka euskara erabiltzen dute**, baina gutxi. Normalean ere, euren euskara maila nahiko baxua dela esaten dute, eta giro erdaldunetan mugitzen dira.

Erdaldunen bi talde ere egin ziren. Bata Bilbon, 18-35 urte bitarteko parte-hartzaileekin; eta bestea Donostian, 36-65 urte bitartekoekin. Talde-dinamika hauek erdaraz ospatu ziren.

Bereizi daitezkeen profilak hauek dira:

- Euskararekin sekula harremanik izan ez duten pertsonak (Euskal Herrian edo Euskal Herritik kanpo jaioak, eta ez direnak inoiz hizkuntzara hurbildu).
- Euskara irakasgai huts bezala izan dutenak. Ikasketak amaitu ondoren ez dute euskara berrirerabili.
- Euskara irakasgai izan eta gero, euskaltegi edo euskara ikasteko beste zentroetan egon direnak. Ez dira gai ikusten euskaraz berba egiteko (norberaren exigentzia).
- Euskaraz jakin bai, baina ez direnak gai ikusten euskaraz komunikatzeko. Gaztelaniara jotzen dute beti.

3.1.4 LABURBILDUZ...

Eztabaida taldeak egiterako orduan, adin diferente eta inguru geografiko diferenteetako jendea etortzeaz gain, euskararen erlazio diferentea duten jendea hurbildu da. Beraz, gizartearen laginak ziren eztabaida taldeak lortu zirela esan daiteke, profil asko biltzea lortu da eta.

Horretaz gainera, gizarteak duen beste ezaugarri bat ikusten da hemen: gizartea, euskararekin ere, aberatsa da. Euskaldun aktibo, euskaldun pasibo eta erdaldunak sailkatzeko metodo bat izan arren, euskararekin lotuta beste asko daudela ikusi da.

Laburbilduz,

EUSKALDUN AKTIBOAK:

euskaraz hazi eta hezi diren euskaldunak, **hezkuntzari esker** euskaldundu direnak eta euskara **heldutasunean ikasi** dutenak.

EUSKALDUN PASIBOAK:

talde hau aberatsagoa izan da, profil diferente gehiago ikusi direlako. Orokorrean, euskara erabiltzeko **aukera ez dutenak** eta euskara **maila nahikoa** ez dutela pentsatzen dutenak bildu dira.

ERDALDUNAK:

Erdaldunak, erdarara beti jotzen dutenak, eta euskara gutxi dakitenak.

3.2. EUSKARAREN ESANAHIA: ZER DA ZUENTZAT EUSKARA?

Eztabaida taldeetan proposatu zen lehenengo galdera hau izan zen: **“Zer da zuentzat euskara?”** edo, “Niretzat euskara zera da: ...”. Galdera honen bitartez herritarren kanpo iritzietatik at dauden kontzeptuetara hurbiltzea lortu da, sentimendu edota barneko iritzietara lotutako berezko erantzunak jasotzea zelako helburua. Aurreko joerari eutsiz, eztabaida aberatsa izan zen: askotan errepikatu diren kontzeptuak kultura, historia, lurra, gurea, Euskal Herria... izan diren arren, ñabardura asko ikusi dira.

Herritarren ideiak, sentimenduak, iritzia, elementuak... batu ondoren, euskara zer den edukiz beteriko lau kontzeptutan antolatu daiteke:

1. Hizkuntza komunikazioa
2. Nortasuna
3. Lan-merkatu sartzeko tresna
4. Bizimodua

Hona hemen kontzeptu bakoitzaren atzetik, gizarteak erantsi dion edukia.

3.2.1. HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA

Euskara komunikazio-tresna gisa ikusten da. Hala ere, beste hizkuntzekin konparatu denean, ingelesa eta frantsesarekin batik bat, eskala desberdin batean kokatu da (atzerriko hizkuntzak bidaiatzeko, etorkizunera, hotzagoak ... dira orokorrean; eskala desberdin batean daude, ez altuago ezta baxuago). Euskara gurea den hizkuntza ikusten da eta horrek sentimenduzko kutsua gehitzen dio. Hizkuntza den bezala, zailtasun, erabilera eta berezitasunen inguruan iritzi eta ikuspuntu asko eskaini dituzte:

- **Hizkuntza** bada ere, kutsu poetiko edo sentimentalak gehitzen zaio euskarari.

“Para mí el euskera es una lengua, la lengua de los vascos o del País Vasco” (ER, 18-35, Bilbo)

“Zaindu behar dala nahi eta nahi ez gure hizkuntza dalako” (EA, 36-65, Donostia)

“A mí es algo que me gusta que esté.” (ER, 36-65, Donostia)

“Se creó aquí, en el País Vasco, y se habla desde hace muchísimo tiempo” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Es al final una necesidad laboral, familiar...” (ER, 36-65, Donostia)

“Txikitatik euskaraz zein erdaraz berba egin dut. Bi hizkuntzatan egin dut beti berba eta ez dut arazorik eduki bata edo bestea hitz egiteko orduan. Ez dekot beraz sentimendu berezirik euskararekiko, hau da, ez naiz nire hizkuntzarekin identifikatzen. Euskalduna naiz, baina ez da garrantzi handia duen zerbait niretzako” (EP, 36-65, Bilbo)

- Berezia da **jatorri**atik eta baita gaur egun bizirik mantentzen delako:

“Es un sumar, y si nos ponemos a chulear, es una de las lenguas más antiguas junto con el hebreo” (ER, 36-65, Donostia)

“Hain globalizatua dagoen mundu honetan hizkuntza hauek mantentzea balio handia dauka, nire ustez guretzako izan behar den behar bat mantentzea edo behintzat ikastea edo bultzatzea” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ez da beste hizkuntza batzuk bezala, leku txiki batean hitz egiten den hizkuntza eta hizkuntza bezala hizkuntza berezia, hitz egiten ditugun artean zaharrenetarikoa da orduan ikuspuntu linguistikotik interesa daukan zerbait da euskara.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Es que no se sabe de dónde viene, no procede del latín. Según algunos es el idioma más viejo de Europa.” (EP, 18-35, Gasteiz)

[Eranskinak 267. or.]

▪ **Aberatsa:** hizkuntza aberatsa izateaz gain, gizartea aberasten duen ezaugarria da. Hizkuntzaren aberastasuna euskalkietan zein leku batetik bestera gauza berdina modu ezberdinetan esatean islatzen da. Gainera, gizartea ere aberastu egiten dela diote askok, pertsonalki onurak ekartzen dituelako (bizipenak, esperientziak...) eta beste hizkuntzak ikasteko erraztasuna ematen duelako (gizarte eleanitza sortuz).

“A mí me parece una riqueza, como tener montes. Es un lujo” (ER, 36-65, Donostia)

“Para el desarrollo personal”
(EP, 18-35, Gasteiz)

“Orain euskalduna dana pribilegiatua da ze ez deko esfortzurik bi hizkuntzak hitz egiteko.”
(EA, Donostia, 36-65)

“Batuera ikasi ondoren, Bizkaiera ikasten hasi nintzen gustatzen zitzaidalako euren hitz egiteko modua” (EP, 36-65, Bilbo)

“Es un valor añadido”
(ER, 36-65, Donostia)

“Cuando te vas a pueblos de interior es otro idioma”,
“Hablan a otro nivel” (ER, Bilbo, 18-35)

“Harrituta geratu nintzen, nire aitarekin hizketan, bere garaian euskalkiengatik jatorria bereizten zutela esan zidanean”(EP,36-65, Bilbo)

“Oso pozik nago euskaraz hitz egite arren, erreztasuna ematen du beste hizkuntza bat ikasterako orduan”
(EP, Bilbo, 36-65)

Elementu positiboetaz gain, **elementu negatibo** batzuk ere agertu dira.

▪ Txikitatik euskara jakin edo ikasi ez dutenek, eta oraindik ere ikasten dutenek, **hizkuntzaren zailtasuna azpimarratu** dute. Eta hori, zenbait kasutan, euskara ikasteko galga moduan ikusten da:

“Es un idioma difícil, se tarda mucho en aprender”
(ER, Bilbo, 18-35)

“Euskararen arazoa oso zaila dela da”
(EP, 36-65, Bilbo)

“Los que no han hablado de txikis y están aprendiendo te dicen que es un idioma difícil”
(EP, 18-35, Gasteiz)

“Zailatsunean dago ere euskararen edertasuna” (EP, 36-65, Bilbo)

“Yo cuando decidí venir aquí sabía lo que había pero sí que es verdad que cuesta” (ER, Bilbo, 18-35)

“Tardas menos en sacarte una carrera que en aprender euskera” (ER, Bilbo, 18-35)

- Aurrekoarekin lotuz, **ikasketa prozesua zaila** dela uste delako, zenbait kasutan, **galga moduan** ikusten da ikasten hasteko:

“Es que, si fuera más fácil” (ER, 36-65, Donostia)

“A mí me da pereza” (ER, 18-35, Bilbo)

“Esfortzu bat egiten ari naiz” (EP, 36-65, Bilbo)

- Inguru erdaldunetako jendeak, **euskara asko ez dela erabiltzen diote** :

“Tampoco veo que lo necesite mucho” (ER, 18-35, Bilbo)

“No se usa en la calle en el día a día” (ER, Bilbo, 18-35)

“En los pueblos se quedan cuatro aitites y ya” (ER, Bilbo, 18-35)

“Idioma que se está perdiendo, pero no porque no se enseñe, sino porque los que sabemos no lo hablamos” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Perdida” (ER, 18-35, Bilbo)

“En desuso”, (ER, 18-35, Bilbo)

3.2.2. NORTASUNA

Nortasunarekin lotuta dauden kontzeptuak askotan agertu dira. Orokorrean, talde denetan agertu da elementu hau, nahiz eta batzuetan indar edo sentimendu gehiagorekin nabarmendu. Hala ere, batzuk euskal nortasunarekin lotu dute euskara: euskaldunaren elementu idiosinkratikoa, euskal gizartearen oinarrizko osagaia; beste batzuk, aurrekoaz gain, historia, tradizio edota kulturarekin. Momentu batzuetan euskara ez jakitearen pena agertu da, baita jakin eta hitz egiteagatik harrotasuna ere.

“Gure hizkuntza” (Denak)

- Gizarte moduan **bakarrak** egiten gaitu eta besteetatik **bereiztu**:

“Para mí es también un orgullo” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Pixka bat gure identitatea, bereizten gaituena beste kultura edo herri edo besteengandik bereizten gaituena.” (EA, Bilbo, 18.-35)

“También es una diferencia, es algo que nos diferencia del resto de pueblos” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Ez da inorena, gurea baizik” (EA, 18-35, Bilbo)

- **Historia eta kulturarekin** lotu da euskara, baita lurra edo sustraiekin.

“Niretzako da nire hizkuntza eta balio kultural handi bat”
(EA, Donostia, 36-65)

“En el franquismo fue muy apaleado por ese motivo, por ser de aquí.”
(EP, Gasteiz, 18-35)

“Cuando sales fuera lo ves como un elemento tuyo, un elemento cultural, pero luego cuando vuelves parece que eso ya no te afecta” (ER, Bilbo, 18-35)

“Niretzako ere da gure hizkuntza eta nolakoak garen. Euskalduna esaten duzunean ia badakite gutxi gora behera” (EA, 36-65, Donostia)

“Niretzat batez ere identitatea da, ez bakarrik nirea, familiarena ere, sentimentuzko zozer da” (EP, 36-65, Bilbo)

“El euskera es un sello de identidad, no es un idioma del País Vasco solo” (ER, Bilbo, 18-35)

“Bizi garen kulturaren parte da euskara” (EP, 36-65, Bilbo)

“Esaten da beti dala sukaldeko hizkera, euskara erabiltzen zan sukaldean debekatuta zegoelako eta orduan zan etxeko hizkuntza ze hortik kanpo ezin zan erabili.” (EA, Donostia, 36-65)

“Nuestra cultura” (EP, Gasteiz, 18-35)

Nortasunarekin zerikusia duten kontzeptuak batzerakoan, target edo taldeen arabera, **berezitasun batzuk ikusi dira**.

▪ Euskaldun aktibo eta euskaldun pasiboen diskurtsoan, atal horrek erdaldunen diskurtsoan baino indar handiagoa du. Hala ere, honek ez du esan nahi erdaldunek ez dutela sentimendu hau partekatzen, baina igartzen da zelan erdaldunek ez dutela gertutasun hori sentitzen, ez da euren mundu sinbolikoan horren barneratuta duten osagaia. Euskaldunek bestalde, sentiberatasun handiagoa dute euskara euren bizitzarekin lotzen dutelako edo/eta euskal identitatearekin.

▪ Lehen aipatu diren penazko sentimenduak ere egon dira talde-dinamiketan presente. Askotan euskara familia hizkuntza zen eta beraz, euren artean komunikatzeko bidea; beste batzuetan euskara ez izanagatik edo horren ondo ez menperatzearen galtzen dutenaz jabetzean, sentimendu hori etortzen zaie burura. Egoera hauek euskara gutxi dakitenen artean ikusi dira eta helduegan gazteengan baino gehiago.

“Yo en el entorno que tengo con la ikastola me da una pena enorme... entiendo todo pero a la hora de hablar...”
(ER, 36-65, Donostia)

“Yo quiero que mis hijos tengan la oportunidad que yo no he tenido.” (ER, 36-65, Donostia)

“A mí me da mucha pena no poder hablarlo tampoco porque mi amona era euskalduna y se expresaba mejor en euskera que en Castellano y yo siempre he tenido la pena de no poder hablar con ella en euskera para que pudiera expresarse bien.” (ER, 36-65, Donostia)

“Lógicamente a mí sí me gustaría saberlo.” (ER, 36-65, Donostia)

▪ Ildo berean ere, euskaldun nagusiek errebindikazio kutsua galdu dela diote, euren garaian zegoen eta gaur ez dagoen euskarari “maitasuna”. Euskara, kasu askotan, barne eta kanpo borroka izan da eurentzako, eta horregatik, gaur egun ikusten duten egoerarekin haserretu edo tristatu egiten dira. Ez dute indar zein gogorik ikusten gaztedian euskara bultzatzeko, edo ez beste garai batzuetan izan zen bezala.

“Nire garaian oso borrokalaria nintzen eta buruan sartuta neukan kalera irtengo naiz eta leku denetan egingo dut euskaraz”” (EP, 36-65, Bilbo)

3.2.3. LAN-MERKATURA SARTZEKO TRESNA

Askotan esan da euskara lan-merkatura sartzeko ezinbesteko baldintza dela. Euskarari leporatzen zaion esanahi honek askotan parte-hartzaileen haserrea azaleratu du, baina ez bakarrik euskara ikasi behar izan dutenen haserrea, baita euskaldunena ere, hizkuntza-eskakizunak direla eta.

Honekin batera, **kasu askotan derrigortu edo inposatzen dela esan da**; batez ere administrazio publikoan lan egiteko. Honekin lotuta, euskara azterketak gainditzeko ikasten dela esan da. Ez da ukatzen postu batzuetarako euskara behar izatea, baina askotan exijitzen den euskara maila gehiegizkoa dela uste da, edota euskara erabiliko ez den postu edo inguru baterako eskatzen dela. Horregatik euskara lan-merkatura sartzeko tresna bezala ikusten da.

“Lana lortzeko erabilgarria izan zen” (EP, 36-65, Bilbo)

“Nire garaian, euskara beharrezkoa ez zelako, nahi nuelako hasi nintzen euskara ikasten, baina magisteritza amaitu ondoren lan egiteko behar nuen” (EP, 36-65, Bilbo)

“Lan-mundurako bai edo bai behar da” (EP, 36-65, Bilbo)

*“Asignatura pendiente, reto y necesidad para el tema laboral”
(ER, 36-65, Donostia)*

“Beharra da, ez da nahia” (EP, 36-65, Bilbo)

“Ni oraintxe bertan jarriko banintz euskaltegi baten ba EGA ateratzeko, ikasiko nuke por la inserción laboral eta horrelako gauzengatik” (EA, Donostia, 36-65)

“Si sabes euskera te abre muchas puertas, sé que vas a tener muchas más puertas abiertas” (EP, 18-35, Gasteiz)

“En el euskera está la criba” (ER, 36-65, Donostia)

“A la hora de elegir entre una persona que sabe y otra que no sabe, van a escoger a la que sabe euskera” (ER, 36-65, Donostia)

“Beharrezkoa den hizkuntzan bilakatu da” (EP, 36-65, Bilbo)

“Etxean ikusten dut: gure artean euskaraz egiten dugu, eta hori gauza bat da, baina gero ikastolan titulua lortzeko euskara egiten dute” (EP, 36-65, Bilbo)

Diskurtso hau erdaldunen eta euskaldun pasiboen artean eman da gehien bat, baina honek ez du esan nahi euskaldun aktiboek errealtate hori ezagutzen ez dutenik. Euskaldun aktiboek esperientzia hori bere baitan bizi izan ez dutenen arren, gertuko kasuak azaltzeko gai dira. Hala ere, perspektiba hori ulertzearekin batera, euskarak exigentzia eta zuzentasun maila dezentea izan behar duela defendatzen dute: batetik euskarak, hizkuntza gisa, kalitatea galdu dezakeelako, eta bestetik, euskaldun ororen eskubidea delako erakunde publikoetara jotzen duenean euskaraz zuzentzea.

- **Kalitateari** dagokionez, hizkuntza bezala ez luke kalitaterik galdu behar jende gehiago hurbiltzeko asmoa badu ere. Hau da, zorrotza izaten jarraitu behar da zuzentasunean: *“nahiz eta gutxi jakin, baina ondo jakitea”* (EA, 36-65, Donostia)

“Duzun euskara mailaren arabera, hobeto edo okerrago egin dezakezu, baina ez badozu maila altuenean berba egiten, galdu egiten da hizkuntza” (EP, 36-65, Bilbo)

“Nahiago dut berba gutxi entzun baina ondo, erdarakadaz beteriko elkarrizketa bat baino” (EA, 36-65, Donostia)

“Gaizki dagoena da lo que debe transcender la perfección, hori jarraitu behar du.” (EA, 36-65, Donostia)

- **Administrazio publikoan** euskaldunen eskubidea bermatu behar dela, orokorrean, profil denek onartu dute. Aspaldi zegoen egoerarekin konparatuz hobetu dela esan da, nahiz eta sektore batzuetan euskararen maila oraindik ere hobetu daitekeen. Hala ere, beste batzuk partzialki ados daude, euskara erabiltzen ez den tokietan euskara maila altua exijitzen dela ikusten delako. Puntu hau erdaldunek asko kritikatu dute.

“Publikoaren arlo horietan bai, adibidez, orain dela 20 urte ni pediatria joaten nintzan umearekin eta zaila zen pediatria bat euskalduna aurkitzea, danak erdaraz eta umeak erdaraz ez zekien... eta orain ikusi dut gero eta jende gehiago osasun arloan euskaraz dakiena” (EA, Donostia, 36-65)

“Le habló a un policía en euskera y le dijo que hasta que no le hablara en castellano, no le iba a contestar.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Es una exigencia porque para ciertos puestos se necesitan perfiles”
(EP, 18-35, Gasteiz)

“La administración lo exige” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Osakidetzan euskaraz berba egiten baduzu, bronka bila zoazela ematen du; eta ez da hori” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ikaslea gidoitik irteten bada, moztu egiten zaio testuan ez dagoelako, irakaslearen maila puntu batera arte heltzen delako.” (EP, 36-65, Bilbo)

3.2.4. BIZIMODUA

Euskararekin lotu den laugarren kontzeptua, BIZIMODUA izan da. Euskara bizipenekin lotzen da, hau da, euskara bizimodua da. Euskaldunek (aktibo zein pasiboek) duten sentimendua da eta beraien bizitza baldintzatu duen elementutzat deskribatzen dute: euskara barik bere bizitza ez zen berdina izango. Beraz, nortasunetik haratago doan osagaia da.

- **Euskaraz hazi eta hezi direnentzat** euskara euren parte den elementu bezala ikusten dute, idiosinkratikoa:

“Nik euskara beti ikusi dot nortasuna bezala, eta niri hezi didate etxean euskara ikusi dutelako berez egiten gaituen hizkuntza delako eta niretzako ere hori izango leike motibazioa etorkizunean semeak izango banitu euskaraz hezteko” (EA, 18-35, Bilbo)

“Euskaldun izatearen zati bat, euskalduna izateko ba zati importante bat euskara da, hizkuntza.” (EP, Bilbo, 18-35)

“Euskaraz ez da apendizaiarako tresna, bizipen bat da” (EA, Donostia, 36-65)

“Niretzako da nire bizitza eta bizimodua” (EA, Donostia, 36-65)

“Niri euskalduna izatea markatu nau nire bizitzan era batekoa izatea” (EA, Donostia, 36-65)

- **Euskara ikasten eta ikasi dutenen** artean, batez ere helduen artean, euskara bizitzeko modua bihurtu da. Euskal munduan hasi eta hezi direnen sentimendu antzerakoak bereganatu edo garatu dituzte.

“Orain dela 28 urte hasi nintzen euskara ikasten, garai hartan giroa euskalduna zen eta ni nintzen euskaldun ez zen bakarra eta galduta sentitzen nintzen. Horregatik ikastea erabaki nuen eta ordutik hona nire bizimodua da” (EP, Bilbo, 36-65)

“Niretzat nire buruarekin dudan borroka bat da, baita ingurukoekin ere. Ez da borroka sentsu negatiboan, baizik eta erronka, erronka polit bat” (EP, 36-65, Bilbo)

“Hasieran nahi nuelako hasi nintzen, gero behar batean bihurtu zen eta orain, sentimendu bat da” (EP, 36-65, Bilbo)

Aurreko orrialdean marraztutako irudi positibo honen aurrean, esaldi kritikoak ere agertu dira. Askotan euskarari erantsita beste kontzeptu negatiboak lotu dira, zenbait kasutan euskara pertsonen bizitza baldintzatu duen hizkuntza edo inposaketa izan delako.

- Euskara inposaketa bezala ikusten da, eta beraz, **esfortzua egin behar** dela esan da euskara jakiteko. Ikuspuntu hau erdaldun zein euskaldun pasiboen taldeetan entzun zen.

*“Bizitza osoa daramat euskararen borrokarekin”
(EP, 36-65, Bilbo)*

*“Vamos que hay que aprenderlo porque te lo exigen”
(ER, 36-65, Donostia)*

*“El euskera, ahora mismo, en muchos
ámbitos es una obligación” (ER, 36-65, Donostia)*

- **Praktikatzeko** esfortzua. Pertsona askorentzako euskaraz berba egitea benetako esfortzua da, lotsa sentitzen dutela. Batzuk ere *beldurra* hitza erabili dute. Orokorrean ez dute uste euren euskara maila nahikoa denik euskal hizkuntzan jarduteko. Hau euskara maila baxua duten euskaldun pasiboen artean ikusi da gehien bat:

*“Vergüenza que te vayan a decir algo como que qué disparates estoy
diciendo, y como puedes estar hablando
en castellano pues tampoco lo usas.” (ER, 18-35, Bilbo)*

*“No lo usamos por lo que has comentado de que te
da vergüenza.” (ER, 18-35, Bilbo)*

▪ **Hurrengo belaunaldiek euskaraz** egin dezaten esfortzua. Guraso eta irakasle askok egin dute honen inguruan berba. Azken finean, umeak eskolatik irteten direnean gaztelania da euren hizkuntza, nahiz eta saiatu tendentzia hori saihesten. Horregatik ere, eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izaten ahalegintzen dira (musika, kirola, etabar):

“Mi hijo está apuntado en judo en euskera, para que por lo menos se le pegue algo allí” (ER, 36-65, Donostia)

“Nire semeak Legazpiarrak dira 12 urtekoak, egon dira beti euskaraz eskolan, eskola publikoan baita, eta 6 urtetik 12 urtera edo beti euskaraz, lagunekin euskaraz egiten zuten. Orain dituzte 12 eta dena gazteleraz baina impresionante. Eta esaten diot euskaraz zergatik ez duzu egiten behintzat nirekin, eta pasatzen da euskerara baina gero berriro erdarara.” (EA, 36-65, Donostia)

“Y sus hijos y ellos también tienen que ponerle mucha energía encima del euskera” (EP, 36-65, Bilbo)

“Eta ikusten det gurasoen partetik, ze nik ditut orain nire ikasleak 12 urtekoak eta gurasoek egiten dute kriston esfortzua bere seme-alabek ikasteko euskaraz.” (EA, 36-65, Donostia)

“Nire senar ohia erdalduna zan, kriston esfortzua egin zuen eta nirekin euskaraz egiten zuen eta umeak jaio zirenean erabaki zuen euskara hutsean hitz egingo zuela.” (EA, 36-65, Donostia)

3.2.5. LABURDILDUZ...

Euskara lau kontzeptutan laburbildu daiteke, edukiz beterik dauden lau kontzeptutan. Azpimarratu behar da, kontzeptu hauek talde profil denek adostu dituztela, talde denek elementu berdinen inguruan aritu direlako. Diferentzia, kasu honetan, ikuspuntuan onarritzen da. Hona hemen kontzeptuak:

Euskara = Hizkuntza komunikatiboa. Sentimendu kutsua ematen zaiolako, jatorri ezezaguna duelako, aberatsa delako eta gizarte bezala aberasten gaituelako euskara berezia da. Bestalde zaila delako eta gutxi erabiltzen den hizkuntza delako ere, berezia da. Hala ere denek datoz bat euskara komunikatzeko hizkuntza dela adieraztean.

Euskara = Nortasuna. Gradu diferentean baina euskara propio den hizkuntza sentitzen dute: gurea. Bakarra eta euskaldunena bakarrik delako harrotasuna sortzen duen hizkuntza da. Gainera, kultura aberatsarekin eta historia latzarekin lotzen delako ere, balio gehiago ematen zaio. Euskaldunek atal honetan diskurtso sentiberagoa dute erdaldunek baino.

Euskara = Lan munduan sartzeko tresna. Lan mundura sartzeko baldintza da euskara. Publikoetan lan egiteko beharrezkoa izateaz gain, sektore pribatuan ere askotan eskatzen da. Eskatzeak ez du esan nahi gero erabiliko denik, eta horrek hizkuntza eskakizuna nahi dutenen kritikak sortzen ditu. Bestalde, euskaldunek ondo ikusten dute euskara lan mundura sartzea, euren eskubidea delako euskaraz tratatua izateko.

Euskara = Bizimodua. Euskara bizimodua da jendearen parte delako eta beraz, euretako askok ez dute euren bizitza euskara barik ulertzen. Bestalde, euskarak bizitza era negatiboan baldintzatu dituen ere badaude, euskara borroka bat delako: hizkuntza eskakizunak direla eta, lotsa sentitzen delako euskaraz berba egitera edo umeak euskaraz hezteko esfortzua egin behar delako.

Hala ere, euskara, maila eta sentimendu diferenterekin baina denek hizkuntza da.

3.3. EUSKARARI ERANTSITAKO ESANAHIAK

Dinamikaren lehenengo zatian era espontaneo batean bakoitzak euskararekiko zuen sentimendua eskatzen bazitzaion, bigarren galderan euskarari erantsi zaizkion esanahiei buruz galdetu zitzaien. Hau da, eurek ados egon edo ez egon arren, euskarari buruz berba egiten denean, euskal hizkuntzarekin lotzen zaizkien kontzeptu, ideia, esanahiei ... buruz galdetu zitzaien. Eztabaidaren zati hau, beharbada, arinagoa izan zen, *brainstorming* antzeko bat sortuz. Gero ideiak azaltzea ere eskatu zitzaien.

Batu diren esaldi laburrak zein ideiak, hurrengo orrialdean ikus daitekeen mapa batean antolatu dira. Beraz, “euskara” mahai gainean jarri denean, horrelako ezaugarriak agertu dira:

3.3. 1. MAPA



3.3.2. MAPAREN AZTERKETA

Aurreko orrialdean ikusi daitekeen kontzeptu-mapan agertzen diren hitzek beheko tauletan dute jatorria. Ikusi daitekeen bezala, multzo denetan hitz positibo zein negatiboak daude, itxaropentsuak zein ezkorrak, iraganarena zein etorkizunera begiratzen dutenak... eta hitz denek lotura berdina dute: “Ze kontzeptu lotzen dira euskararekin?” galderaren erantzunak izan dira.

Edukiari dagokionez, orokorrean **ezin da konklusio handirik atera** koadro hauetatik, azken finean, taula denetan errepikatzen edo **antzekotasun handia duten hitzak**. Beraz, gizarteari euskararen inguruan galdetzen zaionean iritzi nahiko homogenea du, beti ere, ñabardurekin.

EUSKALDUN AKTIBOAK

Euskal Herrikoa	Baserritarrei eta
Lan egiteko	analfabetoei lotuta
Mugatua	Berezia
Abertzalea	Bereizten gaitu
Infantilizatua	Estereotipo
Casero e incultos	Ekonomia
Altxorra	Nazioa batekoa
Lotsa	Atzeratuta gaude
Euskalduna	Gastua edo inbertsioa?
Oztopoa	Harrotasuna
Kluxeak	Separatismoa

EUSKALDUN PASIBOAK

Lana	Facilidad otros
Educación	idiomas
Baserría	Historia
Herrikoa	Oztopoa
Idioma oficial	Familia
Forma de	Política
comunicación	Komunikazioa
Polita da, poetikoa	No lo he mamado
ere	Tituloa lortzeko
	Aberatsa
	Cultural y rico.

ERDALDUNAK

Idioma	Dificultad
Dinero	Historia
Vergüenza	Esfuerzo
Puedes vivir sin usarlo	Título
Cultura	Futuro,
Identidad	Conversación
Cercanía	En desuso
Ganas por aprender	Idioma para
Euskera se asocia con	comunicarnos
solo una ideología	Aprendizaje
política y, no, son más	Nos representa a los
cosas	vascos
Trabajo	Taberna

3.3.2. MAPAREN AZTERKETA

Letra txikira bagoaz, hurrengo ideiak atera daitezke era espontaneoan egindako atal honetan:

- Koadro denetan **errepikatzen den hitza *lana da***. Beraz, aurretik ikusi ahal izan den modura, euskara eta lana oso gertu bizi direla esan daiteke.
- Gainera, **euskaldunen aktiboen taldean elementu kritiko ugari agertu dira baita ere**. Beraz, aurreiritziak apurtzeko erabilgarriak diren koadroak dira hauek.
- Hiru taldeetan **nortasunarekin zerikusia daukaten kontzeptu asko eta anitzak** ikus daitezke: abertzalea, herrikoa, kultura, historia, nazioa, harrotasuna... Beharbada nortasunarekin zerikusia duen elementu gehien ikus daitekeen taldea euskaldun aktiboa da ere.
- Erdaldunen artean, **egunerokotasunera lotuta dauden kontzeptu gehiago** esan dituztela esan daiteke.
- Azkenik, euskaldun pasiboek, hitzak multzoka antolatuz gero, **diskurtso nahiko homogeneoa** dutela esan daiteke (ez dira esparru bereko hitz asko aurkitzen)

3.3.2. LABURBILDUZ...

Herritarrek euskarari eransten zaizkion esanahien inguruan gogoeta egiten dutenean, iritzi anitzekin egin dugu topo. Iritzi horiek norberak euskararekin izan dituen bizipenetatik zein inguruan duen influentziagatik jaiok dira eta, horregatik, elementu batzuk beste batzuen aurrean gailentzen dira. Beraz, diferenteetatik abiatuta, pertzepzio antzekoetara heldu da gizartea. Ñabarduraz beteriko bidea da, gizartea aberatsa delako, baina euskal gizartearen ezinbesteko ardatza den euskara bultzatu behar dela inork ez du ukatu.

Hala eta guztiz ere, jaso diren erantzunak kontutan izanik, **adostasun handia nabarmentzen da euskarari ematen zaion balioari buruz galdetzen denean**: alde batetik, lana da gehien errepikatu den kontzeptua. Bestetik, nortasunarekin lotzen diren ideia asko ere esan dira (izaerarekin datorren zatia da, gure parte da, nazioa ...); eta azkenik, kontzeptu negatiboak baino, kritikoak izan dira gehien, lan-mundua (lana, oztopo, hizkuntza eskakizuna) eta erabiltzeko zailtasunarekin lotzen direnak.

3.4. GAUR EGUNGO EGOERA

Lehenengo atalaren azkenengo galdera irekia izan zen, eta hizkuntzaren gaur egungo egoerari buruz galdetu zitzaien. Orokorrean, egoerak, urte batzuetatik hona alderatuta, hobera egin duela ikusten dute. Hala ere, ezin da esan baieztapen hori indar berdinarekin esan denik, maila diferenteak antzeman dira eta. Gaian sakontzen joan ahala, euskarak duen arazoa errez identifikatu dute: **arazoa ez da ezagutza, erabilera baizik**. Orokorrean, hau izan da kontsentsu gutxien eta ikuspuntuetan alde handien ikusi den atala:

- **Egoera:** orokorrean, beste garai batzuetan bizi izan zen egoerarekin alderatuz, oraingo egoera hobea da. Hala ere, iritzi negatiboak ere jaso dira.

“Ahora hay multilingüismo” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Atzera begira, egoera asko aldatu da. Euskara gehiago entzuten da hirietan eta hobera egin du” (EP, 36-65, Bilbo)

“En Álava estábamos más atrasados pero poco a poco hemos adelantado” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Yo diría que está en auge” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Nahiko negatiboa naiz ni” (EA, 18-35, Bilbo)

“Yo creo que es mejor que hace unos años. En este momento conviven muy bien los dos idiomas a la vez” (ER, 36-65, Donostia)

- **Ezagutza vs. Erabilera:** euskararen ezagutza maila igotzen joan den heinean, ez du islarik eduki euskararen erabileran. Hau ere gizarteak igarri du. Gainera, batutako lagunen artean euskara aurrera eramateko ekimena norberarena izan behar dela esan dute askok.

“Es un idioma que se está perdiendo, pero no porque no se enseñe, sino porque los que lo sabemos, no lo hablamos” (EP, 18-35, Gasteiz).

“En el cole están todo el día con el euskera y luego salen de clase y pasan al castellano” (ER, 36-65, Donostia)

“Belaunaldi berrien arazoa hori da: jakin bai, baina ez dute erabiltzen” (EP, 36-65, Bilbo)

“Es una realidad virtual, algo que luego no es palpable en la calle” (EP, 36-65, Bilbo)

“Ez da kalean erabiltzen, egunerokoan” (EA, 18-35, Bilbo)

Galdera honen ondorioz beste hainbat azpi-gai azaleratu dira: **eremu geografikoaren** arabera dauden egoerak ukitu dira (herrietako eta hirietako euskara), adin diferenteetako jendeak etorkizuneko belaunaldiekiko duten iritzia entzun da, euskarak duen erakargarritasun urria ere komentatu da...

“Ez da berdina, depende ze tokitara zoazen, ez da berdina bizkaiko herri txiki bat eta Bilbo, ez da berdina Gipuzkoa eta Bizkaia, ez da berdina Araba, ordun nik uste dut leku batzuetan askoz atzerago daudela eta beste batzuetan askoz aurrerago daude eta hor badagoela oreka falta bat.” (EA; 18-35, Bilbo)

“Se utiliza más en los pueblos que en Donosti” (ER, 18-35, Bilbo)

“Egia da herri txikietan askoz gehiago bultzatzen dala euskara, hirian baino; euskaraz egiten da bizitza dana” (EA, 18-35, Bilbo)

Herritarrek, kasu gehienetan, irizpide geografikoak jarraitu dute euskararen egoera zein den azaltzeko. Orokorrean, hauek dira azpimarratu beharreko puntuak:

- Gehiengoak **Gipuzkoan eta herri txikietan egoera ona** dela esan du. Bestalde, Gipuzkoa edo herri txikietatik etorritakoak ez dira bat etorri besteekin, euskararen egoera txarrerantz doala esan dute eta.
- Orokorrean Gipuzkoatik kanpo dagoen mitoa Donostian euskara asko egiten dela da. Donostiarrek ezeztatu dute, egoera txarrera egin duela defendatuz.
- Hala ere, positibo ikusten da orain dela urte batzuk euskaraz entzuten ez zen herri eta hirietan euskara entzun izana (Bilbon edo Gasteizen, besteak beste).

Adinaren arabera ere, euskararen egoera diferente ikusten da:

- **Umeak dauden tokietan euskara entzuten da**, baina **nerabezaroan dauden gazteek ez dute euskara erabiltzen**, ikasketetarako ez bada. Horretaz gain, belaunaldi bat galdu da (trantsizio garaikoak eta aurrekoak) eta zail ikusten da hauek euskalduntzea.

“Bilbon auzo batean bizi naiz eta orain dela 15 urte edo ez zen entzuten euskara eta gaur egun ume pilo bat daude gurasoak erdaldunak direnak eta umeak doaz ikastolara eta hor parkean ikusten da ume guztiak euskaraz egiten dutela.” (EA, 36-65, Donostia)

“Las aitas que tienen niños ahora hablan mogollón euskera. Antes era más difícil.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Yo ya me considero una generación perdida” (EP, 18-35, Bilbo)

- Guraso, irakasle eta gizarteak orokorrean, **nerabeek**, nahiz eta jakin eta bizitzan euskaraz hezi izan diren, **geroz eta gutxiago erabiltzen dutela** igertzen dute.

“En el rango de edad que estoy con los amigos, casi nadie habla” (ER, 18-35, Bilbo)

“Los chavales entre ellos, si están jugando a fútbol, hablan en castellano, pero para dirigirse al profesor, saben que lo tienen que hacer en euskera” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Luego llegan a casa y si no se habla en euskera, se queda en un idioma del colegio” (ER, 18-35, Bilbo)

“La gran mayoría, al dejar el colegio, lo pierde” (ER, 18-35, Bilbo)

- **Umeek zein gazteek zailtasunak dituzte euskara hizkuntza akademiko bat baino gehiago dela ikusteko:** aisialdirako eskaintza urria, ekintza erakargarri gehienak erdaraz dira, ez daude euskal ikonorik...

“Nik uste dut hiru fase daudela: umeak, denek hitz egiten dute euskaraz, baina gero badago adin bat, 14tik 18-20ra erdaraz hitz egiten dutela eta gero bai berriro euskaraz egiten dute. Baina nerabezeroan, ez dakit zergatik baina garai horretan erdaraz egiten da” (EA; 36-65, Donostia)

[Eranskinak 286. or.]

- **Aisialdia:** euskaraz ez dago aisialdirako eskaintza nahikorik. Askotan umeentzako bai aisialdi zein kulturarekin lotuta dauden ekintza asko daude. Gainera, liburuak, filmak, komikiak... dituzte. Gazteen artean bestalde, ez da horrenbeste eskaintza nabarmentzen. Hau gutxi bada, gazteek egin nahi dituzten ekintzak soilik gazteleraz daude. Honek instituzioetatik bultzatzen ez dituzten ekintzarik euskaraz ez dagoela erakusten du.

“Zinemara ezin zara joan euskaraz ikustera” (EP, 18-35, Bilbo)

“Euskara askotan ikusten da bertan dagoen negozio bat bezala, umeentzat zuzendutako literatura, filmak, marrazki bizidunak... eta garrantzitsua da baina gazteak ahaztu egiten dituzte” (EP, 18-35, Bilbo)

- **Herritako jendea hirira etortzen denean erdaraz egiten du** hitz, ez dute euren hizkuntza erabiltzen.

“Nire ama gaur egun ateratzen denean edo Donostiara etortzen denean noizbait tokatzen baldin bazaio erderaz hitz egin beharra oso situazio... ez dakit berezia... ez dut uste zenbait tokitan ez dut uste ongia duenik” (EA, 36-65, Donostia)

- **Euskara lana bilatzeko tresna bezala ikasten dutenek ez diote bihotzezko kutsurik eransten ikasketa prozesu zein hizkuntzari.** Beraz, erronka diferente da, batzuentzat ingelesa edo frantsesa izatea bezalakoa da: lana aurkitzeko tresna.

“Antes se estudiaba euskera por estudiar, sin titulaciones, por disfrutar y llegas al segundo año, al quinto...” (EP, 36-65, Bilbo)

“Creo que la mayoría de la gente que lo está estudiando lo hace por currículum. Por el título.” (ER, 18-35, Bilbo)

- Helduak diren euskaldunen artean (aktibo zein pasiboen artean), penarekin ikusten da gaur egun **ikasketa prozesuan ikusten den ilusio falta**. Gaur egun titulua lortzera bideratuta dago jendea, aldarrikapena, sentimenduak eta bestelakoak alde batera utziz.

“Yo como lo veo es que de pequeño me parecía una obligación hablar euskera por los estudios y le cogí asco.” (EP, 18-35, Gasteiz)

- Euskara denbora dezente ikasten daramatenen artean, **neke edo/eta haserre sentimendua** azaleratu da zenbait kasutan.

“He decidido retomarlo y cuesta.” (EP, 36-65, Bilbo)

3.4.1. IKASTEKO ETA BERBA EGITEKO GALGAK

Beraz, batu ahal izan den diskurtoetatik, euskara ikasteko eta berba egiteko sustagarri eta galga diren elementuak antzematen dira. Hau da, euskara ikasi eta berba egiten bultzatzen gaituzten elementuak, alde batetik; eta euskara ikasi eta hitz egiteko mugatzen gaituzten elementuak, bestetik. Ikuspuntu hau euskaldun pasiboek eta erdaldunek erakutsi dute, euskaldun aktiboak ez baitute sustagarri behar eurek era naturalean erabiltzen duten hizkuntzan bizitzeko.

GALGAK:

Ikasketa prozesua ez da bizipenekin lotzen:

“Euskara ez da teknika baten bidez erakutsi behar, bizipena da” (EA, 36-65, Donostia).

Erraztasun gutxi ematen dira euskara ikasteko:

“No te dan facilidades para aprenderlo” (ER, 18-35, Bilbo)

“En este momento no hay muchos incentivos. Hombre el que tenga poder adquisitivo y pueda gastarse ese dinero en aprender euskera...” (ER, 36-65, Donostia)

“El euskera es dinero.” (ER, 36-65, Donostia)

Bakoitzak bere buruari jartzen dizkio mugak:

“Por falta de confianza. He intentado otra vez recuperar el euskera pero he visto que no estoy igual de ágil que antes y me freno” (ER, 18-35, Bilbo).

“No lo usamos por lo que has comentado, que nos da vergüenza. No tienes confianza porque no controlas el idioma y tienes miedo a meter la pata.” (ER; 18-35, Bilbo)

Aisialdiko ekintza gutxi daude euskaraz:

“A partir de cierta edad, ya no hay ocio para los jóvenes” (ER, 18-35, Bilbo)

Erabiltzeko aukera falta:

“Haces un esfuerzo increíble para hablar euskera por un título o porque te gusta, pero parece que luego no existe la oportunidad de poder utilizarlo” (ER, 18-35, Bilbo)

Inposatzen den hizkuntza da:

“Creo que por el bien del euskera es malo imponerlo porque la gente hace lo contrario” (ER, 36-65, Donostia)

“A mí lo único que me fastidia es me obliguen” (ER, 36-65, Donostia)

Ikastea oso zaila da

“El ponerse aprender es un tarea difícil.” (ER, 36-65, Donostia)

“Un idioma muy difícil que se tarda muchos años en aprender bien” (ER, 18-35, Bilbo)

SUSTAGARRIAK:

Lanarekin lotzen direnak:

“Para el desarrollo profesional” (EP, 18-35, Gasteiz)

Euskara ez da norberangatik ikasten, hurrengo belaunaldietako eredia izateko baizik:

“Si me apunto al euskaltegi no será para sacarme el título sino para hablarlo con mi hija” (ER, 36-65, Donostia)

“Para poder ayudar con los deberes” (ER, 36-65, Donostia)

Aurreko bi koadro hauetatik, ondorio argi bat atera daiteke: **herritarrak, euskara ikasteko zein euskaraz berba egiteko, sustagarriak baino, galga gehiago ikusten ditu.** Gainera, galga gehienak, kanpotik datozenak dira, eta horren ondorioz, ez dira bakoitzak jartzen dituen mugak. Kanpotik datozen galga gehienak ikasketa prozesuarekin eta erabilerarekin dute erlazioa. Lehenengoan, euskara bizipenekin ez dela lotzen eta euskara ikastea garestia dela errepikatu da. Bigarrenean, erabiltzeko espazio gutxi izatea leporatu zaio.

3.4.2. LABURBILDUZ...

Gizarteak euskararen ezagutza areagotu dela igartzen badu ere, ez du erabileran ezagutza maila islatuta ikusten, hau da, **jakin bai baina erabiltzen ez den hizkuntza bezala deskribatzen da**. Urteekin ezagutza maila handitu den heinean, ez da aurrerapauso hori erabileran ezagutzan bezain beste nabaritu. Euskara kalean ez dagoela ikusten du gizarteak eta ahalegin handiagoak egin beharko dela ere onartzen da, “sukaldekoa” zen hizkuntza, denona eta kalekoa izateko. Litekeena da sustagarri gutxi eta galga puntu askoren efektua izatea.

Hala ere, **egoera ez da berdina zonalde guztien ezta adin-tarte desberdinen artean**. Gipuzkoako egoera beste bi lurraldeetan baino hobeto ikusten da. Araba, bestalde, hobetu den arren, euskara gutxi entzuten da oraindik. Herri txikietan herri handiagoetan baino gehiago entzuten dela ere esan da, nahiz eta hauen egoera geroz eta txarragoa izan. Herrikoek hirietara joaten direnean erdaraz egiten dutela ere leporatu zaie. Adinari dagokionez, ume eta gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dute. Bakarrik behartuta dauden tokietan erabiltzen dute. Gazteen artean, adin batetik gora berriro euskara erabiltzearen tendentzia antzeman dela esan dute partaideek.

4. HERRITARREN JARRERA EUSKARAREN INGURUKO PROPOSAMEN AURREAN

Txosten honen bigarren kapitulu honetan, berezko erantzunak alde batera uzten dira, parte-hartzaileek proposatutako esaldi batzuen inguruan, eztabaida izan dezaten. Proposatutako esaldiak (hurrengo orrialdean ikusgai), aurretik egindako foro bitan batutako informazioari esker idatzi ziren. Esaldi horiek idazteko, prozesu honi jarraitu ziztaion:

**FOROTIK JASOTAKO INFORMAZIOAREN
USTIAKETA PROZESUA**

	KOPURUA
BATUTAKO ESALDIK VERBATIN	143
FAKTOREAK ESALDIEN ANTOLAKETA GAIEN ARABERA	13
IDEIA ESANGURATSUAK EZTABAIDARA BEGIRA FAKTOREEN ANTOLAKETA	4

1. Gizarte Foro haietan berba eta eztabaidatutako gaien transkribapenak eskuetan izan ondoren, informazioaren ustiaketa eta sailkapena egin zen. Ustiaketaren ondorioz, 143 esaldi esanguratsu lortu ziren.
2. Esaldiak 13 faktoreetan antolatu ziren, eta faktore bakoitzari gai bat erantsi zitzaion. Adibidez: politika, ekonomia, legedia, bizikidetzeta, gazteak...
3. Talde-dinamika bat aurrera eramateko zailtasunak izan genitzakeelakoan, 13 faktoreak lau ideia esanguratsutan bilakatu genituen. Beraz, esaldi bakoitzarekin, zerikusia zuten hainbat gai jorrazteko baliatu zen.

Honekin, Gizarte Foroetan jasotako informazioa era laburbildu eta errazago batean jendearekin partekatzea lortu da, informazioa era antolatu eta koherente batean ematea lortuz.

Azpinarratu beharra dago esaldi horiek sortzearen proposamena ez zela izan Gizarte Foroan esandakoaren inguruan gogoeta egitea edota esaldiekin adostasuna edo desadostasuna erakustea. Esaldi horiekin, euskararen inguruan jendeak duen diskurtso antolatu bat lortzea izan dugu xede, erraztasun eta koherentzia handiagoarekin hitz egiteko enplegatuta dira. Beste hitz batzuk erabiliz, baliabide metodologiko bezala erabili dira.

Behean ikusi daitezkeen esaldiak izan ziren parte-hartzaileei aurkeztutakoak. Esaldiak euskaraz zein gazteleraz aurkeztu ziren, banan-banan, hurrengo esaldia zein zen jakin ez zezaten eta gaien errepikapena edo eztabaidan saltoak ekiditeko.

1. EUSKARA E IDEOLOGIA

Es necesario superar los debates ideológico-políticos en torno al euskara, para favorecer su consolidación en una sociedad plurilingüe y abierta.

1. EUSKARA ETA IDEOLOGIA

Euskararen inguruan dauden eztabaida ideologiko-politikoak gainditzea beharrezkoa da, gizarte elebidun eta ireki bat bultzatzeko.

2. EUSKARAREKIKO JARRERA

Euskararen inguruan, erdaldun eta euskaldunen arteko adostasunean oinarritutako espazioak bilatzen jarraitzea beharrezkoa da, batetik erdaldunen hurbiltze interesa sustatzeko eta, bestetik, euskaldunak publiko berrien hurbiltzea laguntzeko.

2. ACTITUD ANTE EL EUSKARA

Es necesario seguir buscando espacios de encuentro en relación al euskara, entre castellanoparlantes y vascoparlantes, que fomenten el interés de unos por acercarse al euskara y de los otros por favorecer el acercamiento de nuevos públicos.

4. FUTURO DEL EUSKARA

Es necesario impulsar el futuro del euskara, asociándolo a nuevos valores significativos en la sociedad actual incentivando, sobre todo, su uso por parte de las personas jóvenes y flexibilizando los niveles de exigencia en cuanto a la corrección de su uso.

4. EUSKARAREN ETORKIZUNA

Euskararen etorkizuna bultzatzea beharrezkoa da, egungo gizartearen balio esanguratsuenekin lotuz, gazteen artean erabilera sustatzen eta hizkuntzaren zuzentasunaren exigentzia maila malgutzen

3. RAZONES PARA HABLAR Y APRENDER EUSKERA

Es necesario crear nuevos incentivos para el aprendizaje y/o uso del euskara, que, por una parte deben trascender la percepción del euskara como un derecho de los vascoparlantes y como trámite para la inserción laboral y, por otra parte, deben apelar a su valor como elemento de integración social, cultural, de ocio, relacional...

3. EUSKARAZ BERBA EGITEKO ETA IKASTEKO ARRAZOIAK

Euskararen erabilera edota ikasketa-prozesua bultzatzeko sustagarri berriak sortzea beharrezkoa da, non, batetik, euskaldunen eskubidea edo lan-merkatuan murgiltzeko beharrezko hizkuntza dela gainditzan den eta, bestetik, gizarte, lan, aisialdi, kultura... balioetara apelatzen den.

4.1. GOGOETA SOZIALA PROPOSAMENEN AURREAN

Laugarren kapituluko lehenengo atal honetan, aurreneko sei eztabaida taldetako bigarren partean jasotako informazioa era antolatu eta egituratuan agertzen da. Zati hau eztabaida taldeetan egin zen bigarrena da, berezko galderen ondoren. Honetan aurreko orrialdean agertzen diren ideia esanguratsuak eskaini zitzairen parte-hartzaileei euren inguruan berba egiteko. Ideiak bertan idatzita zeudelako, eztabaida bideratzea lortu zen, nahi zen gaien inguruan berba egiteko.

Orokorrean oso eztabaida aberatsa eman zen talde-dinamika denetan eta horri esker, 4.1. kapitulua informazio asko du. Ideia orokorra azaltzen bada ere, xehetasuna aipuetan mantentzea hoberena dela pentsatu da oraingoan ere; benetan iritzi heterogeneoak daudelako.

Ondoren hasten den atal honek bost kapitulu ditu: bat esaldi bakoitzeko eta laburpen modura egin den bostgarrena.

4.1.1. EUSKARA ETA IDEOLOGIA

Eztabaida taldeetan mahai gainean jarri ziren esaldiek eztabaida aberatsa sortarazi zuten. Eman zen ideia eta iritzi jarioak hainbat ildo jarraitu zituzten. Horregatik, informazio hori bideratzeko, irten ziren esaldi zein ideiak esaldi handi batzuetan metatzea pentsatu da, edukiz beteriko esaldietan.

Hartara, talde-dinamiketan aurkeztutako esaldia eta gogoetaren ostean jaiotako esaldiak hauek dira:

1. EUSKARA ETA IDEOLOGIA

Euskararen inguruan dauden eztabaida ideologiko-politikoak gainditzea beharrezkoa da, gizarte elebidun eta ireki bat bultzatzeko.

1. Orain arte egon den eztabaida ideologiko-politikoa norgehiagokan oinarritu da.
2. Euskaren inguruan jorratu beharreko eztabaida eraikitzailea izan behar dela uste da.

1. Orain arte egon den eztabaida ideologiko-politikoa norgehiagokan oinarritu da.

- Lehen ikusi ahal izan den bezala, euskara **politikarekin lotu** izan da. Jaso izan diren iritzietatik atera daitekeen informazioa euskara **eztabaidaren erdian** egon dela da, hau da, euskara ez da aitzakia izan, baizik eta eztabaidaren muina. Gatazkaren zentroan egotearen beste arazoetako bat **alde batekoen edo batzuen hizkuntza izatea leporatu** zaiola da. Orokorrean, beraz, eztabaida suntsitzailea edo ezkorra izan da hizkuntzarentzat.

“Sí que es cierto que se vincula con la política.
Pero es un tema tabú” (EP, 18-35, Gasteiz)

Es un tira y “afloja.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Se suele vincular el euskera a la independencia
y al movimiento abertzale.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Gauza batzuk bai superatu behar direla, gauza batzuk bai aldatu
behar direla, tirabirak” (EA, 18-35, Bilbo)

“Kasu honetan euskara eta politika oso oso lotuta
daude” (EA, 36-65, Donostia)

“Yo creo que todavía hay en el tema ideológico y político, todavía
hay con la que sí se vincula.” (ER, 36-65, Donostia)

“Abertzaleak eta ez abertzaleak, eta hor egon da guda bat eta
kaltetua izan da euskara, noski.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Bai baina hori bukatu egin behar da, egia da oraindik euskaraz
hitz egiten badezu independentista zarela argi eta
garbi”(EA,36-65,Donostia)

“Todavía hay algunos debates ideológicos que no están cerrados, y
siempre ha sido una lucha y el euskera siempre ha sido un arma
arrojadiza” (EP, 36-65, Bilbo)

- Hala ere, **euskara inorena ez dela gogoratu da** hainbat aldiz. Euskara euskaldun ororen ondasun immateriala da, eta batzuek eurentzat hartzegatik kontrako jarrerak erakutsi dira:

“Nik inoiz ez dudana onartuko da naizelako hemengo abertzaleena nere altxorra da
eta zu ez zara hain euskalduna ni bezala” (EA, 36-65, Donostia)

“Nik ez dut onartzen abertzalea zarelako
euskara Zure altxor bakarra dala.
Euskara da euskara Hitz egiten duen
guztien.” (EA, 36-65, Donostia)

“Que se dejen del euskera político y que lo hagan como algo cultural, que es
nuestra, de la tierra.” (ER, 36-65, Donostia)

- **Euskara estereotipo eta aurreiritzi askorekin lotu izan da:** ideologiarekin, janzteko erarekin, pentsamenduekin...

“Aceptación como uso comunicativo no como uso político.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Al final los prejuicios o estereotipos que nos formamos nosotros nos los formamos sin que nos los impongan.” (ER, 18-35, Bilbo)

▪EUSKARA PENTSAMENDU POLITIKOekin LOTZEN DA:

“Baina orokorrean uste det jendea hartzen baldin baduzu ez dakit ezker abertzaleko inguruko jende gehiagok euskaraz dakien edo euskaraz hitz egiten duena normaltasunez, egunerokotasunean, PPko jendearen artean baino.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Eta esan dodan bezala politikazioaz edo independentziaz, azken finean jende asko abertzalea, independentzia, eta orduan jendeak pentsatzen du hori, euskaldun petoak direnak denok nahi dutela independentzia, euskal presoena... azkenean Euskal Herrian bizi ditugun arazo guztien aldeetara” (EA, 18-35, Bilbo)

▪EUSKARARI PERTSONAREN ITXURA ERANTSI ZAIO:

“El estereotipo del euskera es el borroka.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Este que lleva pendientes y cresta, pensaba, este sí que sabe hablar euskera. Y con los años te empiezas a relacionar con la gente y piensas; pues este también sabe, y no te lo habías imaginado.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“- Podríamos asociarlo también a una ideología política. Y a un aspecto físico también. Una manera de vestir. Si ves a una persona con una manera de vestir puedes asociar que sabe euskera. O con el corte de pelo, etc.” (ER, 18-35, Bilbo)

“No sé si eso pasará en algún otro lado. Un sitio donde puedas asociar un aspecto físico con el idioma que hablará.” (ER, 18-35, Bilbo)

[Eranskinak 297. or.]

- Parte-hartzaileek, hala ere, azken urteen **egoera aldatzen joan dela** esan dute. Batzuk, aspaldi eztabaida baztertu eta gainditu dutela esan dute ere. Lehen bizi zen egoera, era batean, erlaxatu dela ikusten da. Honetaz gain, eztabaida politikoa dela esan da askotan, hau da, herritarren artean eztabaida hori ez dela horrenbeste nabaritzen aitortu dute batzuek.

“Si pero yo creo que ya está superado” (ER 36-65, Donostia)

“Hori ia bukatu da edo bukatu zan edo lo que sea, eta ez da hainbeste lotu behar politikarekin.” (EA, 36-65, Donostia)

“Los dirigentes del PP de este país hablan en euskera. Para mí solo lograr eso ya es un logro. Y que además lo utilizan. Hace unos años eso era súper opuesto. Independientemente de tu ideología política hablas o no hablas euskera. También conocemos a gente macro abertzale que la puede cagar con el euskera porque no lo sabe bien del todo. Yo creo que ha habido un avance extraordinario en la lengua como para tener esos dos ejemplos.” (ER 36-65, Donostia)

“Yo es que cada vez veo menos diferencias, es decir, que se va normalizando todo... en ciertos entornos sí que habrá diferencias pero cada vez menos.” (ER 36-65, Donostia)

“Yo creo que la sociedad somos bastante más normales que los políticos.” (ER 36-65, Donostia)

“Yo veo menos porque hoy en día, no sé, porque por ejemplo refiriéndome a la tele ya hay programas de humor entorno a la ideología política y no pasa nada. Antes era impensable.” (ER 36-65, Donostia)

“Yo creo que está cambiando.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Nik hori gaintuta daukat aspalditik, orain dela 25 urte...” (EA, 36-65, Donostia)

[Eranskinak 298. or.]

Askotan **prentsa eta alderdi politikoak ikusi dira irudi honen sustatzaile bezala**, bai gure mugetatik barne zein kanpo. Beraz, kanpotik estereotipoz josiriko gizartea ez dela errealitatean horrenbeste oinarritzen esan daiteke. Erabilera hau hauteskundeetan botoak jasotzeko estrategiarekin lotu da normalean.

“Bai baina batzuk ez dute nahi gainditu... interesatzen zaio eztabaida hori mantentzea eta gatazka hori mantentzea.” (EA, 36-65, Donostia)

“Bai, eta nik eta danak, baita zuk ere, baina Espainiako prentsak ez” (EA, 36-65, Donostia)

“Azkenean euskara gorrotatzearena eta horrelako gauzak, holako egoerengatik sortzen dira. Nire ustez, bi eremu borrokatzen ari dira. [...]Azkenean batzuk aukeratzen dute gure ideia hartzea, baina beste askok influentzia pila bat hartzen dituzte, eta influentzia horiek beren ideologia moldatzeko esaten dizkiote. Eta nire ustez hori da agian gorroto hori sustatzen duen azpiko zerbait; hori izango litzateke arrazoi bat, komunikabideak azken finean.” (EA,18-35, Bilbo)

“El euskera visto desde fuera, de Madrid hacía abajo... mi marido por llevar en el DNI que es de Bilbao se lo han llevado detenido. Lo han cacheado entero. Entonces pienso que muchas veces se asocia esa imagen que se tiene del que habla euskera con todo el País Vasco.” (ER, 18-35, Bilbo)

“La mala publicidad que tiene el País Vasco se extrapola a todo. Entonces el euskera se asocia con solo una ideología política y no, son más cosas. Lo que pasa es que tienes que estar aquí, llevar tiempo viviendo aquí.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Igual PPkoek edo partidu espainolistek bai saltzen dute abertzaletasun estereotipo hori eta gorroto hori euskararekiko.” (EA, 18-15 Bilbo)

“Es lo que se da a ver. Por televisión o donde sea.” (ER, 18-35, Bilbo)

2. Euskaren inguruan jorratu beharreko eztabaida eraikitzailea izan behar dela uste da.

Euskara akordio handi baten erdigunea izatea nahi da, non alderdi politikoek benetako konpromisoa hartzen duten. Euskara tirabiren zentroa izan da eta jakinda zeintzuk izan diren ondorioak, **eztabaida eraikitzaileen** gaia izatera pasatu behar da. Horretarako, denen laguntza behar da, baita herritarrena ere.

“Eztabaida konstruktiboa bai, harriak alde batetik bestera botatzea ez” (EA, 18-35, Bilbo)

“Una vez que estos debates... se normalice más de lo que ya está.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Oso abertzaleak eta ez abertzaleen artean egin behar da akordio bat eta esan...” (EA, 18-35, Bilbo)

“Beraien errentagarritasuna alde begiratzen egiten duten eztabaida bat izan beharrean, izan behar dela benetan euskararen inguruan euskararekiko ekarpenak egiteko edo benetan... ez bilakatu politika merkea egiteko instrumentu baten, eta horren inguruan lan egingo badezu eta hori jorratuko badezu izan dadila benetan hori jorratuko duzulako.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ideología ,política... mientras no rompamos eso y no lo mezclamos para hacerlo algo natural, no conseguiremos que el euskera sea lo que tiene que ser, algo rico, algo cultural y rico.” (EP, 36-65, Bilbo)

“Incluso las corrientes sociales de todos nosotros ayuda mucho más al euskera que las instituciones o que los políticos.” (ER, 36-65, Donostia)

“Esan dugun bezala euskarak ez du inolako egoera estupendorik eta hori aldatu ahal izateko, egon behar da eztabaida ideologikoa eta politikoa.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Con un pacto de estado entre los partidos políticos.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Ni uste dut eztabaida ideologiko politiko horiek egon behar direla. Euskara hizkuntza bezala gizartearen parte da eta gizarteak politika erabiltzen du beraien gauzetaz hitz egiteko eta hizkuntza ere horren barruan sartzen da. Eta gaur egun inoiz baino gehiago.”
(EA, 18-35, Bilbo)

“Hau ia ezaguna dalako eta badakigu ez zaigula ondo joan, 30 urtetako edo 40 urteko esperientzia daukagu. Nahasten dugunean euskara ideologiaren eta politikarekin... ez dugu hanka sartu nahi hemendik aurrera.” (EA, 36-65, Donostia)

4.1.2. EUSKARAREKIKO JARRERA

Aurreko puntuan bezala, bigarren ideia esanguratsuak bi puntu sortarazi ditu. Beraz, eztabaida taldeetan berba egindako eta hemen batutako informazioa bi esaldi hauetan laburbildu daitezke:

2. EUSKARAREKIKO JARRERA

Euskararen inguruan, erdaldun eta euskaldunen arteko adostasunean oinarritutako espazioak bilatzen jarraitzea beharrezkoa da, batetik erdaldunen hurbiltze interesa sustatzeko eta, bestetik, euskaldunak publiko berrien hurbiltzea laguntzeko.

1. Euskara zabaldu beharra dago, publiko berrietara hurbilduz.
2. Euskaraz hitz egiteko beharra sortzea.

1. Euskara zabaldu beharra dago, publiko berrietara hurbilduz.

Taldeetan askotan agertu den esaldiak, “denon lana izan behar da”, orain zentzu gehiago hartzen du. Euskara zabaltzea gizarte guztiaren lana da: euskaldunak ikasten ari direnei laguntza eskainiz, hurbiltasuna, akatsak errespetatuz eta bizikidetzak bultzatuz euskararen inguruan.

Kontzeptu bakar batek dena laburbildu dezake:

“Zubiak eraiki behar dira” (EA, 36-65, Donostia)

▪ Honen inguruan, euskaldunak egindako gogoeta:

“Euskaldun zaharrek eta euskaldun berrien artean dagoen barrera. Batzuetan euskaldun zaharrak ez doguz euskaldun barriak ondo hartzen ez doguz admitiduten eta igual hortik hasi apurtuten eta danak gara euskaldunek eta euskalki desberdina izan arren euskaraz egin dezakegu berba eta hortik hasi.” (EA, 18-35, Bilbo)

“He pensado en centros cívicos o así como punto de encuentro para gente que no sabe o quiere aprenderlo y que vayan voluntarios para hablar. Porque al final una lengua como mejor aprendes es hablando” (EP, 18-35, Gasteiz)

▪ Erdaldunek euskaldunengandik espero dutena:

“Tener paciencia” (ER, 18-35, Bilbo)

“Si tuviera la percepción de que alguien no me va a juzgar por hablar en euskera, tiraría para adelante” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que te intenten ayudar, que si no sabes alguna palabra te intenten ayudar” (ER, 18-35, Bilbo)

“Ampliarlo a más gente para que todo el mundo lo hable y estés más integrado” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Instituzioek gauza bat egiten badute, pertsona horiek beste gauza bat, beste horiek beste gauza bat, hau da, gu lagunduko diegu hori multiplikatzen, azkenean dena da multiplikazio bat.”
(EA, 18-35, Bilbo)

“Gu gure izaera malgutzen badugu euskaldun berri bat entzuteko eta onartzeko bera nola hitz egiten duen, gero eta jende gehiago hasiko da euskaraz hitz egiten nahiz eta gaizki hitz egin.” (EA, 36-65, Donostia)

“Tienen que aceptarnos” (ER, 18-35, Bilbo)

“Aunque le digan que le van a poner con gente que no le va a juzgar por lo mal que hable euskera, yo no creo que esa persona vaya muy contenta” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que tengan ganas porque el resto también sepamos. Que estén animados” (ER, 18-35, Bilbo)

- Erdaldun zein euskaldun berriek ikasi eta berba egiteko borondatea erakutsi behar dute, lotsa kendu, espazioak ireki eta euskaraz hitz egiteko aukerak biderkatu. Batzuk berba egiteko eta praktikan jartzeko esfortzua egin behar dute, besteek berriz euskara maila eta exigentzia moldatu, euskaraz berba egiteko giro erakargarriagoak sortuz, “zubiak sortuz”.

“Ahora canto en un coro y me hablan todo en euskera; bueno pues lo he aceptado y se me ha hecho la oreja” (EA, 36-65, Donostia)

“Askotan ez dakitenean ondo euskaraz hitz egiten, beldur da hitz egitera, baina kristona” (EA, 18-35, Bilbo)

“Favorecer el acceso a los que no sabemos, pues engancharnos”
(ER, 36-65, Donostia)

“Yo lo que quiero es que me enseñen cómo tengo que hacer para ir a una tienda y pedir algo” (ER, 18-35, Bilbo)

“Hace falta actitud, si vamos a un sitio porque queremos nosotros puede funcionar.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Lo más importante es quitar el miedo y hacer hincapié en la cultura” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Hay que perder el miedo a pesar de los errores” (EP, 18-35, Gasteiz)

2. Euskaraz hitz egiteko beharra sortzea:

Euskara orain arte ez da eremu guztietara heldu, edo behintzat, eremu batzuekin bakarrik lotu da (hezkuntza, administrazioa, umeak...) Hau ukatzeaz ez ezik, euskara gaur egungo hizkuntza bihurtu behar dela esan da eztabaida taldeetan, gaur egun egiten eta erabiltzen diren gauzen eta ekintzekin paralelo. Hizkuntza dinamikaren erregaia izan behar da, ez gailua. Horregatik euskarari egunerokotasunaren balioak eransteaz gain, euskaraz berba ez egitearren zer edo zer galtzen dela erakutsi behar dela proposatu da.

- Euskara **bizipenekin lotu** behar da, akademikotik, lanetik, legeetatik haratago dagoen hizkuntza da eta:

“Niretzat euskara bizipenekin joan behar da lotuta. Zer dira bizipenak? Ba estropadak dira bizipenak, kuriozitatea sartzen zaizu eta hau eta kultura eta nola esaten dan... eta arrauna eta ez dakit zer... bizipenekin hizkuntza bat, kultura bat adierazten duzunean orduan jendea erakarri egiten dezu.” (EA, 36-65, Donostia)

“Ez bere nahia delako eta hori nire ustez aldatu beharko litzateke eta beharra izan beharrean ba motibatzea nahia izatea.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Sabido que es una necesidad para trabajar, quizás lo que haya que hacer sea valorarlo como algo que enriquece” (ER, 36-65, Donostia)

“El interés puede provocar acercamiento” (ER, 18-35, Bilbo)

“Lagundu, babestu, eskubidea eman jendeari hasteko ezagutzeko” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ez da bakarrik euskara ikasteko izan behar, horrelako gauzak egiteko izan behar da euskara eta berarekin datorkion beste gauza batzuk, kultura, historia... eta bizi behar da.” (EA, 36-65, Donostia)

“Arreta edo interesa gehitzea era batean edo bestean” (EA, 18-35, Bilbo)

Euskara ez da artifiziala, **naturala eta dibertigarria** da, kalekoa, eta euskara horrela erakusten duten ekintzak sustatu behar dira:

“Naturaltasuna behar da” (EP, 36-65, Bilbo)

“Conseguir que sea divertido”
(ER, 18-35, Bilbo)

“Ondarrun dagoen ambiente bera, denok euskalduntzearen beharra herriaren parte izateko, hirira ekarri beharko genuke” (EP, 36-65, Bilbo)

“Que se pueda hacer una mezcla entre enseñar y divertir” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que no sea forzado, que sea algo natural” (ER, 18-35, Bilbo)

[Eranskinak 304. or.]

- Askotan ez da dibertigarriak diren ekintzekin lotzen, horregatik, ekintzak erakargarriak izateaz gain, euskara akademiatik ihes egin behar du. **Erabilera sustatzeko modan dauden ekintzetara hurbildu behar da.** Euskara bertan egon behar da, egunerokotasunean.

“12 urtetik zora ez daukate edukirik euskaraz, eta daukaten bakarra da euskarakoa obligatzen diolako irakurtzeara liburu bat ,eta da euskal kulturaz ez dakite zer... eta hori ez da beraientzat atraktiboa naiz eta oso aberatsa izan.” (EA, 36-65, Donostia)

“Conseguir que sea divertido” (ER, 18-35, Bilbo)

“Yo creo que dependería de la actividad, porque si no me identifico con la actividad no voy a ir con ganas” (ER, 18-35, Bilbo)

“Igual incentivando más fiestas tradicionales porque al final es donde más oyes hablar euskera... o incluso yo que sé cultura.” (ER, 36-65, Donostia)

- Hala ere, **hainbat oztopo ikusten dira hau aurrera eramateko:**

“Beste ikuspegi batzuetatik planteatzen dutenak ere badaude, eta euskarari moda edo marketing hori ematen diote, benetan dibertigarria izateko edo benetan kristona sentitzeko euskaraz zaudenean.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Zenbat espazio ditu euskarak modan dagoen hizkuntza baten bihurtzeko? Oso gutxi.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ahora hacer deporte está de moda. Es una buena forma de fomentarlo” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Hay que hacer que el euskera se use en otro tipo de actividad: deporte, yoga... Lo que atrae es la actividad y encima tienes el punto extra de que hablas en euskera” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que se pueda hacer una mezcla entre enseñar y divertir” (ER, 18-35, Bilbo)

“Si estás a gusto y aprendes a hacer ganchillo y aprendes euskera, no me importaría” (ER, 18-35, Bilbo)

“Si solo hacen partícipes a los “txikis” al final solo aprenden ellos; y los padres también tienen que aprender” (EP, 18-35, Gasteiz)

“El no vernos en la obligación de estudiar euskera únicamente para tener un título. No por un papel que nos diga que sabemos euskera sino que porque nosotros luego lo veamos como una forma de expresarnos por ahí. Como algo más cultural y no tan académico.” (ER, 18-35, Bilbo)

[Eranskinak 305. or.]

- Normala den bezala, euskara askotan erabiltzen ez dutenen diskurtsoa da aurreko orrialdeko ideiekin bat datozenak. Hala ere, euskaldunen artean, nahiz eta perspektiba diferente batetik ikusi (euren bizitza euskaraz egiten dutelako, euskaraz bizi direlako, bizipen denak (barre, dibertitu, negar, sentitu) euskaraz direlako...) besteen ikuspuntua ulertzeko gai dira, eta, batzuetan, elkarbanatu ere.
- Orain arte, parte-hartzaileetako askok esan dutenen moduan, **euskara inposatutako hizkuntza** bezala ikusi da. Horrekin batera, **elementu ezkorrak erantzi zaizkio** euskarari, eta horrek, askotan, fama txarra ekarri diotela diote.
- Euskara gutxi edo ezer dakitenen artean jaso dira gai honen inguruan esandako iritziz gehienak. Hala ere, euskaldun askok esan dute, **inposaketa ez dela** bidea.

“Euskera es mucho imposición.” (ER, 36-65, Donostia)

“Etorri baino arinago lagun batzuekin egon naiz eta esan diet hona nentorrela, eta esan didate “esan denok pentsatzen duguna...” beno, denek ez, baina askok inposaketa bezala ikusten dute euskara” (EP, 36-65, Bilbo)

“Y no como está pasando ahora que si hablas Castellano te ponen un punto rojo y castigado...” (EA, 36-65, Donostia)

“Primero te lo tienen que poner como obligación pero es que tampoco lo queremos como obligación.” (ER, 18-35, Bilbo)

“No tienes que imponer un idioma.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Y ahora asocias el PNV o BILDU con el Euskera porque te lo intentan imponer para trabajar.” (ER, 36-65, Donostia)

“Cuando es imposición no es bueno.” (ER, 36-65, Donostia)

- Euretako askok **euskarari eragindako efektu ezkorrak** gogoratu dituzte: hizkuntza gorrotatu, alderdi politikoekin lotu... orrialde batzuk arinago kritikatu dena.

“Yo creo que por el bien del euskera es malo imponerlo porque la gente hace lo contrario.” (ER, 36-65, Donostia)

“Al final el euskera se está poniendo como algo obligatorio y lo que genera es rechazo” (ER, 18-35, Bilbo)

“Nire emazteak Bellas Artes eginda dauka eta baita ere klaseak emateko kurtsoa eta arazoak eduki ditu euskararekin, urte bate, beste bat, beste bat... eta azkenean gorrota ez dio hartu ze hitz egiten du.” (EA, 36-65, Donostia)

[Eranskinak 306. or.]

Inposaketaren gairen inguruan, euskaldunek ere beste aldea ikusten diote. Batetik, gaur egun “gozatzen” dugun egoera aurretik egin den inposaketari esker lortu dela diote. Beraz, inposaketaren efektu batzuk positibo ikusten dituzte, ez horrenbeste egikera.

Euskaldun batzuk ere, inposaketa erdaldunek egiten dutena dela esan dute, gaztelania bakarrik erabiltzearen eta euskararen espazioak murrizten dituztelako. Urteak hemen egon ondoren eta euskaraz berba ez egiteak, askotan, haserrea eragin du:

“Hezkuntzan hasteko euskara inposatua izan behar da.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Baina gaztelariarekin ez daukat ezebez baina gaztelaniaz soilik hitz egiten dutenak eta euskara hor inposaketa moduan ikusten dutenak ba egia da ba askotan deseroso sentitzen direla euskaraz entzuten dutenean eta nik hori ez dut ulertzen.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Baina ezin duzu inposatu” (EA, 36-65, Donostia)

“Badirudi euskara inposatzen dela eta ez dakit zer, eske bueno ez dakit baina ni joaten naiz nire auzotik eta ezinezkoa da euskaraz egitea” (EA, 18-35, Bilbo)

“Oso erreza da guretzat erderaz hitz egitea, a ez dakizu, lasai, bagaude beste egunean tipa batekin esan zuen “es de mala educación hablar en euskera” eta esan nien “lo que es de mala educación es estar 20 años aquí y no aprender euskera” eske hori egin behar degu bestela beti izango da.” (EA, 36-65, Donostia)

[Eranskinak 307. or.]

Horregatik, **nahi edo beharrekin lotu dute askotan euskara eta bere ikasketa prozesua**. Orokorrean **gauza positiboekin** lotzea nahi da, inposaketatik urrun. Hala ere, onartzen da barneko eta norbanako hausnarketa dela hau, eta beraz, euskara norberaren gogoan eta pazientzia egon behar dira.

“Yo creo que desde el momento que se cambie la percepción del euskera como una imposición por la idea de que es un idioma para comunicar es cuando se podrá facilitar la entrada del euskera a la vida normal”. (ER, 18-35, Bilbo)

“Un uso más allá del que puede ser esa imposición. Un uso porque quieres.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Necesidad versus imposición, porque es tan estrecho. Me obligas a estudiar esto para conseguir un trabajo y por otro lado, lo que quieres, y yo a mí cabeza le pido o sea crear esa necesidad dentro de mí.” (EP, 36-65, Bilbo)

“Beharra sortu behar da, ez inposaketa... hau da, hiria herrietan egiten den bezala egiteko belaunaldi asko beharko dira...” (EP, 36-65, Bilbo)

“Es que no puede haber una imposición.” (ER, 36-65, Donostia)

“Pentsatzen dut orain euskara dela jendeak pentsatzen du euskara inposatzen hari dela, orduan nire ustez, ezberdindu behar da inposatzea eta nahia. Orduan ni pentsatzen dut gurasoak inposatu beharrean edo instituzioak inposatu beharrean, gurasoen nahia izan behar dala, bere umeak, bere alabak, bere... bestela pentsatzen dut inposatzen hari direla eta horregatik ba hori efektu negatiboa bezala dala” (EA, 18-35, Bilbo)

“Horregatik esaten dut norbaitek ez badauka interesik, ezin duzu behartu” (EA, 36-65, Donostia)

“Yo creo que hay que superar todo eso para tirar para delante. Todo más normal, ni todo para nosotros ni todo para ellos.” (ER, 36-65, Donostia)

“Lo tienen que imponer un poco.” (ER, 18-35, Bilbo)

4.1.3. EUSKARAZ BERBA EGITEKO ETA IKASTEKO ARRAZOIAK

Euskaraz berba egiteko eta ikasteko arrazoiak tituluaren atzetik, eduki handiko ideia eta kontzeptuen inguruan jardun dira parte-hartzaileak. Jasotako informazioa ondorengo bi ideia nagusietan antolatu da:

3. EUSKARAZ BERBA EGITEKO ETA IKASTEKO ARRAZOIAK

Euskararen erabilera edota ikasketa-prozesua bultzatzeko sustagarri berriak sortzea beharrezkoa da, non, batetik, euskaldunen eskubidea edo lan-merkatuan murgiltzeko beharrezko hizkuntza dela gainditzen den eta, bestetik, gizarte, lan, aisi, kultura... balioetara apelatzen den.

1. Lan, eskubide edo hizkuntz eskakizunekin duen lotura gainditu eta gizarte eta egunerokotasunarekin uztartu.
2. Egundo esparruak euskaraz bete.

1. Lan, eskubide edo hizkuntz eskakizunekin duen lotura gainditu eta gizarte eta egunerokotasunarekin uztartu.

Aurreko ildoak jarraituz, euskara ez da hizkuntza gisa soilik ikusi behar. Inguruan eta bere parte diren elementuak ere goraiatu behar dira. Esaldi hauek lehengoa osotzeaz gain, aurrera begiratzen dute:

*“Pedagogia gizarteari azaltzeko euskara gure altxor bat dela,
azken finean da gurea... gainera ez dela bakarrik
euskara ze nire ustez da izaera bat, kultura bat”* (EA, 18-35, Bilbo)

*“Es que yo creo que cuanto más lo utilizas, más
bonito es”* (EP, 36-65, Bilbo)

“Euskal gizartean integratzeko tresna izan daiteke” (EA, 18-35, Bilbo)

*“Sabido que es una necesidad para trabajar, quizás lo
que haya que hacer sea valorarlo como algo que
enriquece”* (ER, 36-65, Donostia)

Eta, azken finean euskara askotan traba moduan ikusi da gizartean. Baina horrela ikusteak urritu egiten du, hau da, txostenaren hasieratik gogoratu diren kontzeptuekin lotzen den arren, gero, praktikan, euskal hizkuntzak jende askok adosten ez duena erakustarazten du. Eztabaida gehien jaso dituzten esparruek hiru izan dira: lan-mundua eta euskararen erlijentzia, euskaldunen eskubidea bermatu beharra; eta hizkuntza eskakizunen erronka.

- **Euskara eta lan mundua:** euskara lan mundura sartzeko traba gisa ikusteaz gain, euskara ikasteko aitzakia ere bada, baina ez gero erabiltzeko. Gainera, lan esparruan erabiltzen ez dela kritikatu da, batez ere administrazio publikoan.

“Aunque a mí me parece bien que lo pidan porque todas las personas tienen derecho a ser atendidas en el idioma que quieran pero verlo como inserción laboral me parece que puede generar rechazo.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Askotan zentzu negatibo batean ikusten da, izan ere askoren muga da euskara behar da lan egiteko, askotan euskara ikusten da betebeharrak bezala” (EA, 18-35, Bilbo)

“Gero ikasten du, gairatzen du azterketa eta ya está.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Euskera de las oposiciones baina horrekin ez dugu ezer lortuko.” (EA, 36-65, Donostia)

“Sí, por sacar plazas. Y luego esa gente no hablará euskera.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Oraindik lanpostu ona daukan jendeak ez du euskaraz hitz egiten”
(EA, 18-35, Bilbo)

“Badago jende asko euskara ikasten duela lanpostu bat lortzeko eta ez nahi duelako.” (EA, 18-35, Bilbo)

- **Hezkuntza:** euskara hezkuntzarekin lotzen den hizkuntza da. Batzuk txikitatik euskaldundu direlako, beste batzuk euren umeak hezkuntzaren bitartez euskalduntzen dituztelako. Arazoa zera da: euskara eremu horretan bakarrik agertzen da. Umeek badakite zein eremutan euskaraz egin behar duten; beraz, ez da natural irteten zaien hizkuntza. Gainera, eskola inguruan edo mundu akademikoan erabiltzen den hizkuntzarekin erlazionatzen da.

“Ikastolatik ateratzen bazara eta beste eremu batera joaten baldin bazara arraroa egiten dela” (EA, 18-35, Bilbo)

“Infantilizazioa zeren igual txikitan erakusten euskaraz eremu guztietan eta gero nerabea zarenan aspektu desberdinetan eman heldu itxura eta nik uste dut hizkuntza gako bat dela” (EA, 18-35, Bilbo)

“Con el uso cotidiano, no el académico y laboral que parece que solo lo tenemos que hablar en la ikastola y tenerlo para el trabajo pero no hablarlo.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Mi hijo de 17 años, está en bachiller y tenía que hacer un trabajo de historia. Y estaba haciendo el trabajo en euskera y hablando en castellano.” (EP, 36-65, Bilbo)

“Cuando se tienen que dirigir a un profesor o así, sí que lo hacen pero porque saben que es obligatorio. si tienen que elegir entre ellos, se comunican la mayoría de ellos en castellano.” (EP, 18-35, Gasteiz)

- Euskara **euskaldunen eskubidea** izateaz gain, erdaldunek ere horrela ikusten dute. Hala ere, euskara ez da soilik “besteen” edo “gure” eskubide moduan ikusi behar:

“Beharrezkoa eskubidea argi eta beharrezkoa baita, bestela... eskubidearekin bakarrik ez dogu ezer lortuko.” (EA, 36-65, Donostia)

“Pero como derecho que es debería de haber alguna persona que me pueda atender en euskera.” (ER, 36-64, Donostia)

“Eskubidea da eta ez betebeharra, hori da burutik kendu behar duguna, hezkuntza-eskubidea den moduko eskubidea da.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Eta gainera bizi garela leku batean non bi hizkuntza ofizial dauden eta bi hizkuntza ofizialak badira ikasteko eskubidea dekogu.” (EA, 18-35, Bilbo)

“El euskera es un derecho de los vascoparlantes primero porque sí tú vas al ambulatorio y te vas a expresar mejor en euskera pues tienen todo el derecho del mundo a poder expresarse y que le entiendan.” (ER, 36-64, Donostia)

“Tienen su derecho, eso es porque al final hay personas que se expresan mejor en euskera que en castellano “(ER, 36-65, Donostia)

- **Hizkuntza eskakizuna** lortzea erronka da askorentzako, eta erronka frustrantea beste askorentzako. Bestalde, behin titulua lortuta, euskara bigarren plano batera pasatzen da:

“La gente que estudió conmigo para sacar el EGA, que lo hacíamos con mucho cariño y muchas ganas, estaban renegando, diciendo barbaridades de lo que era el euskera y tal... yo veía a la gente que estaba muy preparada en ese camino por la necesidad de ese título, pues tenían unos mosqueos con la sociedad y con el euskera...” (EP, 36-65, Bilbo)

“Yo sé de una chica que empezó a estudiar euskera por gusto y como era enfermera la obligaron a sacarse el perfil 2 y acabo siendo para ella el euskera una tortura.” (ER, 36-65, Donostia)

“Creo que la mayoría de la gente que lo está estudiando lo hace por currículum. Por el título.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Yo lo que veo es que si tu única o principal motivación es obtener un título, al final una vez obtienes el título te vas a olvidar y no vas a hacer ningún esfuerzo por seguir con ello. Vas a conseguir el objetivo, que era título, y ya está.” (ER, 18-35, Bilbo)

Zer behar da, beraz, aurrerapausua emateko?

2. Egungo esparruak euskaraz bete

Ildo honetan gauza asko esan diren arren, jendeak ez du kritikatzeko, ezta ukatzeko ere, orain arte egin diren politikak eta ekintzak ondo egon direnik. Hau da, orain arte egindako bidea egokitzat hartzen da, historian zehar euskarak sufritu duen egoera ikusita. Beraz, orain arteko bidea jarraitzeaz gain, gauza berriak ere sustatu behar dira, batez ere, egoera aldatu delako, baita beharrak ere.

“Baina galduta egon den hizkuntza da, garai batetik hona normalkuntza prozesu batean sartu dena eta normaltasun prozesua ez da bukatu. Askok dago egiteke, eta gauza zaila da; iritsiko garen bez, ez dakit...” (EA, 36-65, Donostia)

Parte-hartzaileak hurrengo proposamenak egin dituzte:

▪ **TEKNOLOGI BERRIAK** baliagarriak izan daitezkeela uste da. Gainera, gutxika gauzak egin diren arren, bultzada bat behar dela ikusten da.

*“Euskarak izan dituen baliabideen barruan, eta arlo desberdinetan eta esparru desberdinetan kriston lana egin duen jendea dagoela jakinda (arlotan guztietan: idatzizkoan, teknologia berrietan), baliabide hauek ez dute izan beharreko lekua eduki.”
(EA, 18-35, Bilbo)*

“Gaur egun gainera teknologia berriei dena dekozu eskura.” (EA, 36-65, Donostia)

“Nire ustez euskara aurrera doa, izan ere hainbat teknologia aipatu dituzu: google-en badaukazu euskarazko aukera, mugikorretan bebai, wikipedian... hainbat gauzetan.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Aldaketa teknologiko guztiekin, tendentzi berri guztiekin, ba ez dakit Ingalaterran modan jartzen bada ez dakit zer, ba euskararen ere presentzia hori egon beharko litzateke. Hizkuntza izan behar duela gaur egunerako garaikide hizkuntza, ez antropologiarako.” (EA, 36-65, Donostia)

[Eranskinak 313. or.]

▪ **LIBURUAK:** gaztelerako liburuekin konparatuta, euskarazkoak gutxi direla esan dute partaideetako batzuk. Gehien errepikatu den proposamena itzultzea izan da, “modan” dauden liburuak ere euskaraz irakurtzeko egoteko. Honekin lotuta, formatu digitalaren euskarazko liburuen sustapena ere eskatzen da.

“Eta liburuetan adibidez egin beharreko zerbait da ze bestela egongo gera horrela eta hemendik 10 urtera egongo gara hemen eta esango dugu, orain dela 10 urte argitaratu ziren 100 liburu itzulita eta aurten beste 100 ba ezin liteke... liburuak eta dokumentuak eta gauzak euskaratu behar dira” (EA, 36-65, Donostia)

“Liburuek euskaraz dauz txarto itzulita, niri liburu batzuk kostatzen zait pila bat irakurtzea ze hizkuntza denez hain arraroa... ematen du ez dela euskaraz...” (EA, 18-35, Bilbo)

“Teniendo en las bibliotecas más libros y más novelas en euskera. Los mismos en euskera que en Castellano.” (ER, 36-65, Donostia)

“Eta liburuei buruz esan duzuna, poesia irakurtzea gustatzen zaizula, eta nahiz eta pirata izan esango dudana, baina, non topatu ditzazkezu euskarazko liburua? Ez daude. Ingeleseztan eta erdaraz bai, baina euskaraz...” (EP, 36-65, Bilbo)

“Askoz be liburu itzuli beharko lituzke” (EA, 36-65, Donostia)

“Cuenta cuentos fáciles.” (ER, 36-65, Donostia)

▪ **ANTZERKIAK:** batez ere euskara ikasten ari direnentzat, antzerkiak egokiak direla esan dute. Hau sustatzearekin batera, maila diferenteetako antzerkiak ere eskatzen dira, hau da, dena umeentzako edo euskara ondo menperatzen dutenentzat izan beharrean, tartekoentzako ere, hurbiltzen joateko.

“En el teatro, conciertos, versos, cuentacuentos...” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Para poder ver una obra de teatro en euskera...” (ER, 36-65, Donostia)

“Pero teatro sencillo.” (ER, 36-65, Donostia)

“Pues igual si es un teatro para “txikis” que se les haga participes.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Pero el hecho de ir mezclando cosas motiva para aprender. Algún teatro” (ER, 36-65, Donostia)

▪ **Ikus-entzunezko eta informazioaren industrian** euskararen presentzia urria dela uste da: telebistan, aldizkari eta egunkarietan... Hau lan ildo bat izan daitekeela uste, da, nahiz eta, aurretik jakin sektore pribatuak duen indarra. Zinemari dagokionez, azpitoluak asko lagundu dezaketela uste da.

*“Edo euskaraz dauden pelikulak bakarrik dira umeentzako,
olentzero...” (EA, 18-35, Bilbo)*

*“La última película que han hecho en euskera ha sido con
subtítulos en Castellano y está muy bien porque tú escuchas
euskera y te lo traducen...” (ER, 36-65, Donostia)*

*“Euskara askotan ikusten da bertan dagoen negozio bat bezala,
gazteentzat zuzendutako literatura, filmak, marrazki bizidunak... eta
garrantzitsua da baina ahaztuta usten dute” (EA, 18-35, Bilbo)*

*“Los subtítulos en euskera, tener la posibilidad de poder ponerlo en
cualquier canal.” (EP, 36-65, Bilbo)*

*“Ez dut ulertzen zergatik ez dauden aldizkariak euskaraz, egunkariak
euskaraz, ez daukat zinemara joateko aukera euskaraz ikusteko, ez dut
ulertzen zergatik aisialdia euskara dago oso instituzionalizatua, bakarrik
dago gauza publikoetan eta aisialdia dago bakarrik eremu pribatuetan.”
(EA, 18-35, Bilbo)*

*“Nos centramos solo en televisión. También está la radio.”
(EP, 18-35, Gasteiz)*

*“Que subtitulen para que tu vayas cogiendo el tranquillo”
(ER, 18-35, Bilbo)*

“Que doblen películas en euskera.” (ER, 18-35, Bilbo)

“La oferta televisiva es muy corta.” (ER, 18-35, Bilbo)

▪ **IKASKETAK:** gazteek, batez ere, duten eskakizuna da hau, haiek uste dutelako goi mailako ikaslibururuetan, artikuluetan, prestakuntzan... urritasun handia dagoela

*“Unibertsitatean euskaraz ikastea ezinezkoa da askotan, ez dinot
gradu batera begira baina bai master bat begira zoazenean ez dago
posibilidade hori, ez da libururik existitzen” (EA, 18-35, Bilbo)*

*“Marketing-eko gradua egiteko ez daude libururik, ematen
dizute apunteak erdaraz, igual ematen dizuna ba irakaslea
euskalduna da baina klaro zuk ikasten duzu erdaldun dauden
apunteengatik orduan zure euskara gradua ez da hain euskara
gradua, da erdi eta erdi.” (EA, 18-35, Bilbo)*

4.1.4. EUSKARAREN ETORKIZUNA

Talde-dinamikei aurkeztu zitzaizen txartelak “Euskararen Etorkizuna” zuen gai nagusi. Atal honetan euskarak etorkizunerako behar dituen bultzaden inguruan eztabaidatu zen. Ideia esanguratsutik abiatuta, informazioa ikus daitezkeen hiru esaldietan antolatu da:

4. EUSKARAREN ETORKIZUNA

Euskararen etorkizuna bultzatzea beharrezkoa da, egungo gizartearen balio esanguratsuenekin lotuz, gazteen artean erabilera sustatzen eta hizkuntzaren zuzentasunaren exijentzia maila malgutuz

1. Euskarak duen irudia aldatu.
2. Gazteen artean euskara sustatu
3. Exijentzia orekatu

1. Euskarak duen irudia aldatu.

Euskararen irudia aldatzea premiazkoa da. Aurreko puntuetan irakurri ahal izan den moduan, askotan zaharkitua ematen du, baserri edo herriarekin lotuta, antzinakoa ia-ia. Horiei aurretik eztabaidatutako eta txostenean jarritako estereotipo, aurreiritzi, ideia politiko edo ideologikoak... gehitu behar zaizkie (4.1.1. Euskara eta Ideologia). Horregatik, euskara bultzatzeko irudi hori apurtu behar da. Euskaldunen portzentaje handiena hiritarra da, eta, beraz, hiritarren hizkuntza ere izan behar du, hiritarren bizitzan dagoen hizkuntza. Horretarako **klixreak apurtzeaz gain, irudia ere aldatu** behar du.

“Yo creo que es porque tenemos miedo a perder la cultura, o que tenemos miedo a impulsarlo” (EP, 36-65, Bilbo)

“Literaturan eman dute ba zenbait zita textual ba primitivo, salvaje, comen con las manos... eta horrelakoak ba zabaldua daudela ez dakit zenbar lekuetatik” (EA, 18-35, Bilbo)

“Teknologia egunero aldatzen doa, gizartea bebai, komunikabide guztiak bebai... baina euskara ez. Orduan klaro, gelditzen da hor antzinako gauza bat bezala” (EA, 18-35, Bilbo)

“Niretzako ere euskararen kontra egon den arlo bat izan da prestigioa, egon da baserriarrei lotuta, analfabetoei lotura” (EA, 18-35, Bilbo)

Horretaz gain, badaude lehenago euskal gizartearen eztabaida egon behar dela uste dutenek, gero **instituzioetatik ere prozesua bultzatzeko:**

“Eztabaida egon behar da baina nik uste dut garrantzitsuagoa dala hitz egitea eta gu euskaraz hitz egiten hasten garen heinean gero eta gehiago eta azkenean lortuko dugu leku gehiagotan euskara erabiltzea.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Bai behar dela bultza instituzioetatik bai behar direla euskara positiboko politikak baina funtsezkoa uste dut jarrera dela.” (EA, 18-35, Bilbo)

[Eranskinak 317. or.]

Irudia aldatzeak gauza asko dakartza: batetik, eta lehen esan den bezala, euskara hezkuntza, hizkuntza eskakizun, lan-mundura sartzeko hizkuntzarekin apurtu behar da. Bestetik, dinamikoa, gaurkoa, erabilgarria, teknologikoa, aisialdikoa... izan behar du. Euskara kontzeptu hauekin ere lotu behar da:

▪ **Egunerokoa, freskoa, modernoa, aisialdikoa.** Euskararekin lotzen diren kontzeptuak berri behar dira. Horretarako gizarteak erabiltzen dituen tresna edo gailu eta modan dauden ekintzekin lotu behar da.

“Gauzak aldatu behar dira... eztaikit, freskotasuna” (EA, 36-65, Donostia)

“Al cambio de percepción.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Egunerokotasunean datorren gauza berri guztiekin” (EA, 36-65, Donostia)

“Con el uso cotidiano, no el académico y laboral que parece que solo lo tenemos que hablar en la ikastola y tenerlo para el trabajo pero no hablarlo.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Pista handi bat eman digute teknologi berriekin eta etorkizunarekin, azken finean euskara modernizatzea da” (EP, 36-65, Bilbo)

▪ **Kultura, erakargarriak diren ekintza, antzinako ahaztu barik baina hori bakarra ez izatea:** euskara hizkuntza zaharkitua dela ematen du batzuetan, eta horrek erakargarritasuna galtzeak suposatzen du. Estrategia berriak, antzinako ahaztu barik, sustagarri berriak sortzean datza, kontzeptu edo ideia ideologikoetatik urrun.

“Ba gaur egungo gauzekin edo ez dakit ze... garai batekoa moztu baina ez moztu ahaztuta baizik eta hizkuntza dala gauza bat eta kultura eta guzti hori beste bat.” (EA, 36-65, Donostia)

“Hace falta marketing desde arriba... que se dejen del euskera político y que lo hagan como algo cultural, que es nuestra, de la tierra.” (ER, 36-65, Donostia)

“Hacer mucha publicidad en euskera, poner muchos carteles. Que vayas por muchas partes y lo necesites para la vida cotidiana.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Y de cómo recibirlo. Que tenga valores más apetecibles.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que debe ser como elemento de ocio y cultural. [...] que está interesado en el valor social que puede tener” (EA, 18-35, Bilbo)

“La emoción de la cultura ligada al euskera.” (ER, 18-35, Bilbo)

▪ **Erreferenteak behar** direla askotan esan da ere. Ikonoak gaur egungoak izan behar direla gogorazi dute, dagoeneko ez dute balio antzina egon zirenak, Goenkaleak ezta ere. Erreferenteak edukitzean, erakargarritasuna, freskotasuna, naturaltasuna sustatzen da. Adin diferenteetako jendea ados egon da honekin. Horregatik euskaldun erreferenteak behar dira euskara bultzatzeko, eremu guztietara zabaltzeko.

“actores, cantantes...” (ER, 18-35, Bilbo)

“Pirritx eta Porrotx-etaz aparte” (EP, 36-65, Bilbo)

“Abraham Mateo bat baina euskaraz
abesten” (EP, 36-65, Bilbo)

“La de “Poziktibity”. Que salen dos
presentadoras de televisión.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Erreferente potenteak jarri behar dira: musikan, teknologian, gauza
deigarrietan... baina ume zein helduentzat” (EP, 36-65, Bilbo)

“Quien está por encima nuestro, que dé de también esa imagen de uso de
euskera. Los alcaldes de los ayuntamientos, etc. Que sepan ellos también
euskera. Si los que nos gobiernan no tienen ni idea de euskera, pues vaya.”
(ER, 18-35, Bilbo)

“Aduriz o Ane Igartiburu no les he oído hablar
euskera hasta ese anuncio. Hasta ese anuncio no
sabía que lo sabían.” (ER, 18-35, Bilbo)

2. Gazteen artean euskara sustatu

▪ **Gazteak euskararen etorkizuna dira**, eta partaideek ere horrela definitu dituzte. Gaur egungo belaunaldiek euskaraz hazi eta hezteko aukera izan dute eta beraz, euskararen egoera hobetzea euren esku dagoela ikusten da. Hala ere, gazte-sektorearen artean oso argi ikusten da euskararen jakintza eta erabileraren artean dagoen diferentzia; ez baitute euskara egunerokotasunean erabiltzen eta. Gazteen artean umeetan ematen den joera bat ematen da ere: segun eta ze pertsonarekin ari diren hizketan, hizkuntza bat edo bestea erabiltzen dute (gazte euskaldun aktiboaren artean bereizketa askotan agertu da). **Euskararen etorkizuna hurrengo belaunaldien esku dago:**

“Gure belaunaldikoek esfortzua egin dugu, orain hurrengoan ardura da.” (EP, 36-65, Bilbo)

“Nire ustez, gure semeek geroz eta hobeto egingo dute euskaraz, ez dago dena galduta” (EP, 36-65, Bilbo)

“Gazteok izango gara hurrengo belaunaldiak, beraz gure aukera da gure seme-alabak euskaraz heztea edo ez, [...]gu gara pixka bat trantsizio hori bideratzen dugunok.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Gaur egun ingeleran jartzen da indarra, ez euskarari, eta gazteek ez dute euskara ondo ikasten” (EA, 36-65, Donostia)

“No solo entenderlo si no también utilizarlo, porque es una pena que se pueda perder el euskera.” (ER, 36-65, Donostia)

“Euskararen bidea gurea garaikoa baino hobeagoa da, gure seme-alaben egoerarekin konparatuz” (EP, 36-65, Bilbo)

▪ Erdaldunen artean, **euskararen etorkizuna ziurtagarria** dagoela diote gazte eta umei esker. Zentzu honetan, ez dira euskaldunak (orokorrean) bezain kritikoak. Gainera, erdaldunen artean, nahiz eta gazteak izan, hurrengo belaunaldien eskuetan jartzen dute euskararekin jarraitzearen ardura:

“El futuro de los niños está resuelto” (ER, 36-65, Donostia)

“Pero es que de los jóvenes ya está asegurado el futuro... el problema somos nosotros” (ER, 36-65, Donostia)

“Entonces yo creo que no está todo perdido, la siguiente generación, nuestros hijos hablarán mucho mejor euskera” (ER, 18-35, Bilbo)

“Pero tener una nueva generación que puede, sabe y quiere hablar y vivir en euskera es un buen impulso” (ER, 18-35, Bilbo)

▪ **Gazteen artean euskara ez da asko erabiltzen, nahiz eta jakin bai:**

“Eskolan D ereduan ikasitakoa naiz, baina eskolako lagunekaz ez dot euskaraz berba egiten eta erdaraz egiten dogu berba.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Koadrilan ba unibertsitatekoekin euskaraz hitz egiten dugu, azkenean ba gehienak herrietakoak direlako eta gehien bat ba euskara behintzat hitz egiteko nonbait, eta gero kaleko lagunekin gazteleraz egiten dut.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Si no lo hablas en casa y con tus amigos tampoco ves que vas cogiendo una edad y no lo usas.” (ER, 18-35, Bilbo)

- Euskara gazteen artean sustatzeko, **ekintzak sortu eta bultzatzeaz gain, hauek erakargarriak izan behar dira**. Gaztediak ez ditu erakundeak dioten ekintzak egiten, gustuko dituzten gauzak baizik. Horregatik, euskara sustatzeko gazteria dagoen lekura hurbildu behar da euskara, ez kontrako jarrera. Beraz, modernoak, gaur egungoak, dinamikoak... izan behar dira euskararekin lotzen diren ekintzak. Gainera, hezkuntza mundutik irten behar da euskara, kalea zapaldu behar du eta,

“Ez dakit zein izan daitekeen bidea, baina gazteak erakarri behar dira” (EP, 36-65, Bilbo)

“La clave es hablarlo en casa para que tus hijos lo escuchen y así poco a poco dejen de asociar el euskera con el colegio y se animen con algún amigo.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Aisialdiarekin lotzen dut baina gazteek erabili ahal dute euskara hezkuntzan, unibertsitatean eta eskolan, baina gero hortik kanpo ez daukate euskara erabiltzeko aukerarik ez bada beraien lagun artean.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Que todas las actividades extraescolares sean en euskera para que los jóvenes vayan por donde vayan vean el euskera” (ER, 36-65, Donostia)

“Tiene que ir un poco en eso, conseguir que sea divertido” (ER, 18-35, Bilbo)

- Gainera, **gaur egun dauden tresnak** erabili beharko lirateke gazteek euskara erabil eta entzun dezaten. Orokorrean, aisialdi dena gazteleraz dago, behintzat erakargarria dena. Ondorioz, euskara gaur egungo hizkuntza gisa ez ikusteaz gain, ez dira euskara erabiltzeko sustagarririk ematen. Beraz, euskara, lehen aipatu bezala, **gaztedia dagoen leku guztietara hurbildu** behar da: ikasketak, aisialdia, kultura... Aisialdiarekin lotuta dauden ekintzez gain, euskaraz ikasten dutenek testu liburu gutxi eta informazio gehiena erdaraz ematen dela esan da. Ondorioz, ikasketak ezin dira euskaraz soilik burutu.

“Ez dut ulertzen zergatik ez dauden aldizkariak euskaraz, egunkariak euskaraz; ez daukat euskaraz filmerik ikusteko aukerarik; ez dut ulertzen zergatik euskaraz aurkitu dezakegun aisialdia oso instituzionalizatua dagoen: euskara gauza publikoetan bakarrik dago eta aisialdia bakarrik eremu pribatuetan.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Por nuevos incentivos puede entender nuevas formas de uso, nuevas actividades de fomento.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Ez gaude ohituta telebistan gauzak euskaraz ikustera, orduan gure aldetik be egon behar dira gogoak eta eskatu behar doguz, batez ere, aisialdirako edozer euskaraz.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Orain gazteentzako programa berriak egiten ari dira, jende berriarentzat” (EP, 36-65, Bilbo)

“Con el uso cotidiano, no el académico y laboral que parece que solo lo tenemos que hablar en la ikastola y tenerlo para el trabajo pero no hablarlo.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que haya actividades de moda, como, ahora que está de moda ir a correr...” (EA, 18-35, Bilbo)

“Egon behar dira baliabide materialak, egon behar dira espazioak, egon behar dira materiala unibertsitatean euskaraz ikasteko... baina gero bebai tratamendua garrantzitsua da, ze tratamendu ematen zaion euskara ikasteko modu horri.”(EA, 18-35, Bilbo)

3. Euskararen exigentziak orekatu.

Euskaldun berri eta euskara gutxi dakiten erdaldunen artean asko errepikatu den ideia da. Askotan **zailtasuna ez da euskara jakitea, erabiltzea baizik**. Erabiltzerako orduan “beldur” edo “lotsa” sentimenduak agertzen dira. Hau, norbanako oztopoa izateaz gain, kanpotik ere antzematen da, hau da, euskaldunek ez dute jarrera inklusiborik erakusten euskaldun berrien aurrean (edo euskaldun berriek ez dute hori antzematen behintzat).

▪ **Euskaldun berriek lotsa sentimendua** askotan azaleratu dute. Hau da ikusten duten oztoporik handiena euskaraz berba egiten ez hasteko. Gainera, euskaldun berriek esateaz gain, euskaldunek orokorrean ezagutzen duten egoera da, eta euskararen osasunerako egoera hau ez da egokia ikusten:

“Beldurra dago bebai txarto hitz egitera eta hori frenatzen du pilo bat gauzak.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Azkenean gaztelera lehen hizkuntza izanda euskara ikasi dugunok, beldurra izaten eta beldurra kentzen ikasi dugu” (EA, 18-35, Bilbo)

“Bai exigentzia bai, igual askotan euskaldun berriekin beti zaude zuzentzen” (EA, 18-35, Bilbo)

“Que no te miren raro.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Yo creo que lo más importante es quitar el miedo” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Que si te equivocas o lo que sea no pase nada.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Esa competitividad, porque igual el que está a tu lado habla mejor que tú euskera y entonces tú te cortas.” (ER, 36-65, Donostia)

“Yo creo que se permite hacerlo mal lo único que está en nuestra cabeza la vergüenza. Hay que quitarse esa sensación de vergüenza. Si lo haces mal seguramente no es el otro el que te diga “lo estás haciendo fatal”, posiblemente seas tú el que se está martirizando a si mismo.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Estaban hablando entre ellos en euskera y no entendía nada. Al final te da tanta vergüenza intentar hablar que pasas de hacerlo.” (ER, 18-35, Bilbo)

▪ Euskararen **exijentzia maila malguagoa** izan behar dela uste da euskaldun berriekin behintzat. Horrela, zuzentasunaren bila joan aurretik, erabilera sustatzeko.

“Nahastu beharko zen. Teleberria erdaraz, hurrengoa euskaraz, pelikula bat euskaraz” (EA, 36-65, Donostia)

“Euskaraz zaudenean euskaraz egin behar da eta erdaraz zaudenean ba erdaraz, baina bueno nahasketa normala da” (EA, 36-65, Donostia)

“Azkenean erosotuta sentitu behar dute” (EA, 18-35, Bilbo)

“Si no somos tan exigentes a la hora de corregir igual se pasa el miedo a equivocarte. Igual sería el futuro para el euskera.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Izakera malguagoa badugu euskaldun berri bat entzuteko eta onartzeko bera nola hitz egiten duen, ba gero eta jende gehiago hasiko da euskaraz hitz egiten nahiz eta gaizki hitz egin.” (EA, 36-65, Donostia)

“Zehaztasunera iristeko lehenengo komunikatibo izan behar dezu, hitz jario hori ez badaukazu inoiz ez dezu hobetzen eta horretarako bota egin behar zara, pistinara bota behar zara” (EA, 36-65, Donostia)

“Euskaldunak onartuko bagenu euskaldun berri batek hitz egiten duenean onartuko bagenio jendea beldur gutxiagorekin hitz egingo zuen.” (EA, 36-65, Donostia)

“Al final si estas en un entorno en el que tampoco saben, tú te sueltas más. No tienes el miedo a cometer el fallo. Porque todos estáis igual.” (EP, 18-35, Gasteiz)

▪ Euskaldun batzuk **euskarak kalitatea galduko** ote duen beldur dira. Horregatik ez datoz bat exigentzia malgutzearekin. Beraz, hizkuntzaren kalitateari arretaz begiratu behar zaiola uste dute batzuk.

“Gero eta malguagoa izan exigentzia, geroz eta gehiago joko dute erdarara.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Kaletik eta ikusten dituzu dauden kartelak nola dauden itzulita eta hori da lotsagarria... orduan hor bai egon behar dela exigentzia bat” (EA, 18-35, Bilbo)

“Bere erabilera ez bada ona ze punturarte esango duzu “bale nahiko izango da”” (EA, 36-65, Donostia)

“Exigentzia maila malgutzea horrelako gauzetan gero eta gutxiago exigitzen badezu hizkuntza geldituko da azkenean... “ni nago etxea” ezin liteke... gauza batzuk mantendu behar dira.” (EA, 36-65, Donostia)

4.1.5. LABURBILDUZ...

1. *Euskararen inguruan dagoen diskurtso sozialaren kapituluan (3. kapitulua) agertu diren elementu denak edo ia denak Herritarren jarrera euskararen inguruko proposamenen aurrean (4. Kapitulua) aztertu dira. Honek erakusten du zelan **Gizarte Foroan ukitutako gaiak benetan gizartearen kezka direla**, edo behintzat **gizartearen diskurtsoan daudela**. Gainera, bigarren atal honekin, lehenengo atala sakontzea ahalbidetu da. Era ordenatu batean pentsatu, hausnartu eta eztabaidatzeaz gain, ñabardurak zein xehetasunak ikustea posible izan da.*
2. Orokorrean esaldi guztiek jaso dute adostasun gradu altua; hau da: batzuetan, esaldi batzuen zati batzuekin, edo hitz batzuen konnotazioa dela eta desadostasunak egon diren arren, balantze positiboa egiten da.

4.2. ANALISITIK SORTUTAKO KONTSENTSUZKO ERRONKAK (TALDE MISTOA)

Herritarren jarrera euskararen inguruko proposamen aurrean talde mistoarekin egin zen talde-dinamikaren analisiaren ondorioz sortu diren erronkak eta ekimenak azaltzen dira. Talde mistoa edo kontsentsuzko taldea aurreko sei talde-dinamiketan erabili ziren ideia esanguratsuak gizartearen lagin batean aurkeztu dira. Kasu honetan, taldea ez da euskararen erabilera mailagatik antolatu, baizik eta nahastu egin dira. Honekin, aurrekoetan ez bezala, helburua izan da gizarteak dituen ideietatik baino haratago joatea. Aurretik egindako dinamikei esker posiblea izan zen ikustea esaldietan zeuden ideiak dagoeneko gizartean ere bazeudela. Horregatik, oraingoan, erronken bila joan gara.

Taldea mistoa izateak gauza onuragarriak ekarri ditu proiektura. Batetik proiektua osotzeko, borobiltzeko, gizartea den bezalako taldea behar zen, nahasia. Horrela, batzuen eta besteen erreakzioak, iritziak, gogoetak... eta horien erantzunak eta eztabaidak entzutea posible izan da. Azpimarratu behar da gainera, ez dela ideia handi berririk atera; ez zen hori helburua. Baina lehendik genituen ideiak pixka bat aldatu, ukitu bat eman, hobeto, aberastu, sinplifikatu... borobildu eta gizartearen isla bihurtu dira.

Metodologia aldetik, hurrengo lerroetan azaltzen da talde-dinamika hauetan jarraitutako prozesua:

- Bederatziek ideia esanguratsuak ezagutzen zituztelako, aurretiko talde-dinamiketan agertu ziren kontzeptu batzuk gehitu genizkien. Horregatik, esaldiaz gain, txarteltxoan haiek esandako kontzeptuak ere bazeuden, laguntza moduan erabiltzeko (aurrekoan ez bezala, oraingoan ez zen beroketarik eta sarrerarik egon eta).
- Honen ostean, bakarkako lana egin zen (esaldi bakoitzak dakarren erronketan pentsatzea eskatu zitzaient). Ondoren, eztabaida hasi zen.
- Prozesu hau txartel bakoitzarekin egin zen.

Konsentsuzko taldetik atera diren erronkak eta ekimenak, hurrengo orrialdean daude ikusgai:

4.2.1. ERRONKAK eta EKIMENAK

Hurrengo taulan, esaldi bakoitzeko adostu ziren erronkak daude. Hauek euren artean moldatutako esaldiak dira.

Azken finean, ez da hainbeste adostasunetan sakontzea bilatu, hauek aurretik adieraziak izan direlako, era honetan adostasun hauek erronka gisa eraginkorrak izatea lortu izan da.

ESALDIA	ERRONKAK
<p>1. EUSKARA ETA IDEOLOGIA Euskararen inguruan dauden eztabaida ideologiko-politikoak gainditzea beharrezkoa da, gizarte elebidun eta ireki bat bultzatzeko.</p>	<p>1. ADOSTASUNA: Eztabaida politikoan euskara arma gisa erabilia izan ez dadin alderdi politikoaren artean adostasun bat lortu. <i>“Un gran acuerdo entre los partidos políticos, un gran pacto”</i></p> <p>2. EZTABAIDA ERAIKITZAILEA: Euskararen inguruko eztabaida politikoak modu eraikitzaile bat izan dezan lagundu, bere ezagutza eta erabilerarekin konpromiso bat egon dadin. <i>“Unir fuerzas para impulsar el euskera como algo nuestro y rico”</i></p> <p>3. ESTEREOTIPOEKIN HAUSTURA: Estereotipo ideologiko eta politikoetatik urrun dagoen euskararen ikuspegi bat sustatu <i>“Desvincular una ideología determinada con el euskera”</i></p> <p>4. ONGIZATEA: Euskara, herritar guztien gizartearen balore gisa indartu. <i>“El euskera debe ser el tesoro de todos y todas”</i></p>

4.2.1. ERRONKAK eta EKIMENAK

ESALDIA	ERRONKAK
<p>2. EUSKARAREKIKO JARRERA</p> <p>Euskararen inguruan, erdaldun eta euskaldunen arteko adostasunean oinarritutako espazioak bilatzen jarraitzea beharrezkoa da, batetik erdaldunen hurbiltze interesa sustatzeko eta, bestetik, euskaldunak publiko berrien hurbiltzea laguntzeko.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li data-bbox="969 418 1922 629">1. PROAKTIBITATEA: Euskaldunek euskara gehiago erabiltzea lortu eta euskaldun berriak euskara gehiago erabiltzera anima daitezen laguntzea; pazientzia, tolerantzia, enpatia... bezalako jarrerak sustatuz <i>“Hay que romper las barreras con los euskaldun berris, todos somos euskaldunes”</i><li data-bbox="969 743 1922 886">2. EKIMENAK: Beraien lotsa, beldur eta segurtasunik eza gainditzeko lagungarriak diren giroetan, euskaldun berriak euskaraz hitz egitera bultzatu. <i>“Perder el miedo y que no me sienta juzgado por hablar mal euskera”</i>

ESALDIA	ERRONKAK
<p>3. EUSKARAZ BERBA EGITEKO ETA IKASTEKO ARRAZOIAK</p> <p>Euskararen erabilera edota ikasketa-prozesua bultzatzeko sustagarri berriak sortzea beharrezkoa da, non, batetik, euskaldunen eskubidea edo lan-merkatuan murgiltzeko beharrezko hizkuntza dela gainditzen den eta, bestetik, gizarte, lan, aisialdi, kultura... balioetara apelatzen den.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. EGUNEROKOTASUNA: Erakargarriak diren eguneroko ekimenekin euskara lotu, orain arte hain agerian egon ez diren inguruetan bere erabilera indartzeko: kontsumoa, teknologia berriak, ikus-entzunezko sektorea, aisialdia... <i>“Actividades diversas para hacer en euskera y disfrutar”</i>2. BALORE SOZIALA: Euskararen ikasketa eta erabilera errazten dituzten elementu eragingarri berriak erabili, lan aukerez gain. <i>“Se necesitan nuevos motivos por los que es importante hablar en euskera”</i>

ESALDIA	ERRONKAK
<p>4. EUSKARAREN ETORKIZUNA</p> <p>Euskararen etorkizuna bultzatzea beharrezkoa da, egungo gizartearen balio esanguratsuenekin lotuz, gazteen artean erabilera sustatzen eta hizkuntzaren zuzentasunaren exigentzia maila malgutuz.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. ERABERRITZEA: Euskara, orokorrean herritarrentzat eta gazteentzat zehazki gaur eguneko eta adierazgarriak diren kontzeptu eta erreferenteekin lotu. <i>“Que se vea el euskera como algo moderno, algo atractivo”</i>2. GAZTEEN MODA: Gazteen artean euskara modazko hizkuntza batean bihurtu, harremanak dituzten inguru guztietan izan dadin; ikasketak, aisialdia, lana, etxean, ... <i>“El euskera en la vida diaria de la juventud como algo apetecible”</i>3. KALITATEA VERSUS ERABILERA: Ingurugiro informaletan euskara hitz egiteko exigentzia maila murriztearen formulak bilatu, baina beharrezkoa den kalitatea mantendu, euskararen pobretzea saihestuz. <i>“Lo importante es que todos nos sintamos cómodos hablando euskera”</i>

Herritartasunak euskararekin loturik doazen erronka batzuk definitzeko gaitasuna izan du, aipatutako erronka hauei erantzuna ematen dieten proposamenak zehazteko, adituen hausnarketa berri bat beharrezkotzat joko da.

4.3. KONTSENTSUZKO ETORKIZUNEN AGERTOKIAK EUSKARAREN INGURUAN

Etorkizuneko agertokiei buruz talde mistoan egindako galdera-sorta izan zen. Hiru galdera ziren, hirurak hipotetikoak diren erantzunak jasotzeko. Honekin, gizarteak duen gogoia edo borondatea neurtu daiteke. Nahiz eta lagin txiki bateri galdetu izan eta erantzunak ezin euskal gizarte guztira luzatu, interesgarriak dira eskaintzen diren ikuspuntuak.

Oraingo honetan, analisirik ezta azalpenik ez da emango, bakoitzak ondorioak atera ditzan.

Hona hemen egindako hiru galdera eta hauen erantzunak:

1. 2035AN, ZE EGOERA IZAN LUKE EUSKARAK, PROPOSATUTAKO ERRONKA DENAK BIDERATUKO
ETA EKIMENAK MARTXAN JARRI BALIRA?

JAUZI KUALITATIBOA EMANGO LITZATEKE

“Salir de casa y oír euskera.”

“Igualdad total.”

“Bilingüismo”

*“Poder desempeñar toda la vida en euskera sin problema
al igual que en castellano.”*

*“Lo que ganamos es que alguien me
escuche a mí, yo a él.”*

*“Ver una ciudadanía colaborativa, concienciada y
evolucionada .Otro Bilbao.”*

2. 2035AN, ZE EGOERA IZAN LUKE EUSKARAK, PROPOSATUTAKO ERRONKAK ETA EKIMENAK MARTXAN JARRIKO **EZ** BALIRA?

EUSKARAREN JAKINTZA ETA ERABILERAREN ARTEAN DAGOEN DIFERENTZIA JARRAITUKO LUKE

*“El uso seguiría siendo no equiparable
al conocimiento”*

*“Creo que mejoraría un poco respecto a la
situación actual”*

*“Estaríamos dentro de 20 años reunidos en la
misma mesa”*

“Aumentará el conocimiento; el uso es otra cosa”

“Se mantendrá en los mismos ámbitos”

3. 2035ERA BEGIRA, ZEIN GUSTATUKO LITZAIZUEKE EUSKARAREN EGOERA IZATEA?

GIZARTE GUZTIA GAINEZKATZEN DUEN HIZKUNTZA IZATEA

“Todos los inmigrantes hablando en euskera, como en Ondarroa”

“Conocimiento por igual”

“Que los/as jóvenes que vivan en el extranjero enseñen a sus hijos/as en euskera”

“Mi sueño sería el bilingüismo”

“Verlo más en casa, comunicarme en euskera en casa”

“Que crezcas sabiendo euskera de forma natural”

“Estar en Bilbo y no saber si estoy en Bilbo o en Lekeitio”

4.3.1 LABURBILDUZ...

EGOERA	ERANTZUNA	Esaldiak
2035AN, ZE EGOERA IZAN LUKE EUSKARAK, PROPOSATUTAKO ERRONKA DENAK BIDERATUKO ETA EKIMENAK MARTXAN JARRI BALIRA?	JAUZI KUALITATIBOA EMANGO LITZATEKE	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>“Poder desempeñar toda la vida en euskera sin problema al igual que en castellano.”</i> ▪ <i>“Bilingüismo”</i> ▪ <i>“Igualdad total.”</i>
2035AN, ZE EGOERA IZAN LUKE EUSKARAK, PROPOSATUTAKO ERRONKAK ETA EKIMENAK MARTXAN JARRIKO EZ BALIRA?	EUSKARAREN JAKINTZA ETA ERABILERAREN ARTEAN DAGOEN DIFERENTZIA JARRAITUKO LUKE	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>“Creo que mejoraría un poco respecto a la situación actual”</i> ▪ <i>“El uso no seguiría siendo no equiparable al conocimiento”</i> ▪ <i>“Estaríamos dentro de 20 años reunidos en la misma mesa”</i>
2035ERA BEGIRA, ZEIN GUSTATUKO LITZAIZUEKE EUSKARAREN EGOERA IZATEA?	GIZARTE GUZTIA GAINEZKATZEN DUEN HIZKUNTZA IZATEA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>“Estar en Bilbo y no saber si estoy en Bilbo o en Lekeitio”</i> ▪ <i>“Verlo más en casa, comunicarme en euskera en casa”</i> ▪ <i>“Todos los inmigrantes hablando en euskera, como en Ondarroa”</i>

Euskararen
Gaineko
Oinarrizko
Diskurtsoen
lanketa

Emaitzen bilduma bateratua
Gizarte Foroan, Delphi teknikan eta
Eztabaida Taldeetan jasotako
emaitzak
2015.02.26

EGOD

Emaitzak kokatzen-irakurtzen

(2015.02.26)

XEDEA eta HELBURUAK

Helburua EGOD egitasmoari ezartzen diogun azken helburua hau da: Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertzea eta kontrastatzea; eta, horrekin batera, proposamenak egitea, euskararen gaineko ikuskera gizarte baldintza berrietara egokitzeko eta euskararekiko atxikimendua euskal gizatalde gehienetara hedatzeko asmoz. Produktu finala 1. Maila diskurtsiboan dagoen adostasuna maila aplikatiboan lortzeko oinarriak eskaintzea, ahalegin horretan adostasun puntuak, zailtasunak, hausnarketak eta balorazioak identifikatuz. 2. Identifikatutako puntu horien arabera, aplikaziorako gomendioak ere eskaintzea.

2. EGOERAREN DIAGNOSIA (AMIA)

2.1.INDARGUNEAK

- 2.1.1. LEGE ETA ARAUDI MARKOA
- 2.1.2. EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO EGINDAKO BIDEA eta HIZKUNTZA POLITIKAK
- 2.1.3. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK-IRUDIA
- 2.1.4. ARLOKAKO DESKRIBAPENAK
- 2.1.5. MOTIBAZIO ETA JARRERAK
- 2.1.6. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAK-EZAGUTZA
- 2.1.7. DISKURTSOAK

2.2. AHULEZIAK

- 2.2.1. EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO EGINDAKO BIDEA eta HIZKUNTZA POLITIKAK
- 2.2.2. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK-IRUDIA
- 2.2.3. LEGE ETA ARAUDI MARKOA
- 2.2.4. ARLOKAKO DESKRIBAPENAK
- 2.2.5. MOTIBAZIO ETA JARRERAK
- 2.2.6. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAK-EZAGUTZA
- 2.2.7. DISKURTSOAK

2.3. ARGHILUNAK

- 2.3.1. EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO EGINDAKO BIDEA eta HIZKUNTZA POLITIKAK
- 2.3.2. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK-IRUDIA
- 2.3.3. LEGE ETA ARAUDI MARKOA
- 2.3.4. ARLOKAKO DESKRIBAPENAK
- 2.3.5. MOTIBAZIO ETA JARRERAK
- 2.3.6. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAK-EZAGUTZA

3. AURRERA BEGIRAKO IKUSPEGIAK

3.1. LEGEDI ETA ARAUDIA

3.2. HIZKUNTZA POLITIKA

3.3. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK

3.4. DISKURTSOAK

3.5. MOTIBAZIOAK ETA JARRERAK

3.6. ESTRATEGIAK

- HURBILPEN HOLISTIKOA
- ERREALITATEAREN PRINTZIPIOA
- ERAGINKORTASUNA XEDE
- GARRANTZI BEREZIKO EREMUAK
- KOMUNIKAZIOA
- IRUDIA
- MARKETIN IKUSPEGIA

3.7. ESTRATEGIA PARTEKATUAK

3.8. HERRITARREK ADOSTUTAKO ERRONKAK ETA EKIMENAK

EUSKARA ETA IDEOLOGIA Euskararen inguruan dauden eztabaida ideologiko-politikoak gaitztea beharrezkoa da, gizarte elebidun eta ireki bat bultzatzeko.

EUSKARAREKIKO JARRERA Euskararen inguruan, erdaldun eta euskaldunen arteko adostasunean oinarritutako espazioak bilatzen jarraitzea beharrezkoa da, batetik erdaldunen hurbiltze interesa sustatzeko eta, bestetik, euskaldunak publiko berrien hurbiltzea laguntzeko.

EUSKARAZ BERBA EGITEKO ETA IKASTEKO ARRAZOIAK Euskararen erabilera edota ikasketa-prozesua bultzatzeko sustagarri berriak sortzea beharrezkoa da, non, batetik, euskaldunen eskubidea edo lan-merkatuan murgiltzeko beharrezko hizkuntza dela gaitztea den eta, bestetik, gizarte, lan, aisialdi, kultura... balioetara apelatzen den.

EUSKARAREN ETORKIZUNA Euskararen etorkizuna bultzatzea beharrezkoa da, egungo gizartearen balio esanguratsuenekin lotuz, gazteen artean erabilera sustatzen eta hizkuntzaren zuzentasunaren exijentzia maila malgutuz.

3.9. HERRITARREK IRUDIKATZEN DITUZTEN ETORKIZUNEN ESZENARIOAK

Koloreen azalpena

- . Iturria: **Gizarte Foroa**
- . Iturria: **Delphia**
- . Iturria: **Gizartearen iritzia**

2. EGOERAREN DIAGNOSIA (AMIA)

2.1. INDARGUNEAK

2.1.1. LEGE ETA ARAUDI MARKOA

Hizkuntza-aniztasuna balio bezala: “Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna” (UNESCOk berdintu dio):

- Nabarmenak: teknika juridiko-administratibo zorrotza eta hizkeraren doinua. - Espainiak berretsia du (BOE, 222, 2001eko irailaren 15ekoa). - EAEko araudi linguistikoaren inspirazio iturri nagusietako bat da

“La protección y el fomento de las lenguas regionales o minoritarias ... representa una contribución importante a la construcción de una Europa basada en los principios de la democracia y de la diversidad cultural”.

“Por la expresión «lenguas regionales o minoritarias», se entenderán las lenguas: i) habladas tradicionalmente en un territorio de un Estado por nacionales de ese Estado que constituyen un grupo numéricamente inferior al resto de la población del Estado, y ii) diferentes de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado; no incluye los dialectos de la(s) lengua(s) oficial(es) del Estado ni las lenguas de los inmigrantes”.

“Medidas para el fomento del empleo de las lenguas regionales o minoritarias en la vida pública, de aplicación en diversos ámbitos: Enseñanza; Justicia; Autoridades administrativas y servicios públicos; Medios de comunicación; Actividades y servicios culturales; Vida económica y social; Intercambios transfronterizos”.

“La adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias ... no se considerará un acto de discriminación con los hablantes de las lenguas más extendidas”.

“Nada en la presente Carta podrá ser interpretado en el sentido de que lleve consigo el derecho de emprender cualquier actividad o de realizar cualquier acción que contradigan los fines de la Carta de las Naciones Unidas u otras obligaciones del Derecho internacional, incluido el principio de soberanía y de integridad territorial de los Estados”.

Legezko estatusaz

Legeak: “Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”.

“Las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco son el euskera y el castellano”.

“Que nadie sea discriminado por razón de lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco”.

Autore batek: “La ley ha seguido alimentando durante estos treinta años el acuerdo básico que subyace a las reflexiones sobre el euskera, y esa es una de las virtudes innegables de aquel texto breve pero profundo”.

Beste batek: “[Euskara] berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa”.

2.1.2. EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO EGINDAKO BIDEA eta HIZKUNTZA POLITIKAK

1) Diskurtso egituratuak

Beste batzuek: “Los esfuerzos sociales que ha generado la política lingüística de recuperación del euskera pueden entenderse, si este entendimiento se efectúa desde la libertad personal, como algo positivo y apreciable. La libertad personal no rechaza una tarea común de recuperación lingüística. El plantearla desde la libertad es la única posibilidad de que sea fructífera a largo plazo”.

“El principio de libertad de opción lingüística debe mantenerse como la base de todo el sistema. Sobre ello fue posible el consenso de 1982 y sin ello no es posible consenso alguno. Libertad de lengua, básicamente, también en la escuela”.

2) Euskararen normalizaziorako bidean asko aurreratu da

Gizartearen "elebiduntze progresiboa" gertatu da

Gizartearen “elebiduntze progresiboa” gertatu da. Egindako bidea ez da perfektua izan, baina aldi berean, lorpen eta oso ongi emandako urrats ugari ere baditu egindako bideak, (ia) ezinezko ziren gauzak errealitate bihurtzeraino/ Nire ingurua, Euskal Herria bezalaxe, era nahasian, batzuek pozik eta indartsu, euskararen aldeko lanean, itxaropentsu, oso.

Ohartarazten da, aldi berean, hizkuntza baten berreskuratze prozesuak denbora eskatzen duela; ezinezkoa dela berehala edo denbora tarte txiki batean gertatzea: Euskarak aurrerapauso handiak eman ditu eta denbora eman behar zaio berez sendotu dadin. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (7.orr.)**

3) Gazteengan euskararen ezagutzaren hedapena

Gazteak normaltasunaz ari dira euskalduntzen / Euskaldunak erabil dezake euskara solaskideak ere badakielako; gainditua da erabiltzeko ezintasuna eta zoru partekatuak agertzen ari dira: lan bilera elebidunak, lantokumentuak, aisialdiko harremanak... / Txikizkako merkataritza geroz eta euskaldunagoa da eta euskaraz bizi nahi duenak, poliki poliki euskara geroz eta txertatuagoa du gizartearen. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (7.orr.)

4) "Sektoreka" (sektorekako hurbilketaren balioa) egindako aurrerapasuak (Arnasgune funtzionalak)

Euskararen pizkunde garai berri baten hasieran izan gaitzke, indar metaketa eginez: Eskoletan euskara batzordeak sortzen ari dira berriz ere, kezka ekintza bilakatuaz. Arnasgune funtzionalak bilatzen eta sortzen ditugu, gurasook eta lagunek. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (7.orr.)

5) Aurrerapasuak gizarte sektore desberdinei ezker

Diskurtso uzkurra deitzen den horretatik ere euskalduntze prozesuari ekarpenak

Proposamenen "diskurtso uzkurra" deitzen den horren barnetik, itxurak itxura, etorri dira euskararen sendotze eta euskalduntze prozesuari egin zaizkion ekarpenik handienak. Bestela, pentsaezina litzateke euskararen ezagutzan azken mende laurdenean egin den jauzia. Aipatu prozesuak norabide garbia zeraman, eta norabide horretara bildu dira, berriki izan bada ere, teoriarik diskurtso uzkuraren esparru naturalean mugitzen ziren asko ere. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (7. eta 8. orr)

6) GIZARTEAREN IRITZIA_EZTABAIDA TALDEAK: ZER EGIN ETORKIZUNEAN? PROPOSAMENAK

Ildo honetan gauza asko esan direnen arren, jendeak ez du kritikatzeko, ezta ukatzeko ere, orain arte egin diren politikak eta ekintzak ondo egon direnik. Hau da, orain arte egindako bidea egokitzat hartzen da, historian zehar euskarak sufritu duen egoera ikusita. Beraz, orain arteko bidea jarraitzeaz gain, gauza berriak ere sustatu behar dira, batez ere, egoera aldatu delako, baita beharrak ere.

"Baina galduta egon den hizkuntza da, garai batetik hona normalakuntza prozesu batean sartu dena eta normaltasun prozesua ez da bukatu. Askok dago egiteke, eta gauza zaila da; iritsiko garen bez, ez dakit..." (EA, 36-65, Donostia)

2.1.3. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK-IRUDIA

Sentsibilitate ezberdinak eta giroa

Ez gaude hizkuntza arteko gatazka egoera batean / Herritarrak argiak dira eta hobesten duen hizkuntza erabiltzen du, betiere solaskidearekiko errespetua tarteko / Dagoeneko diskurtso integratzaile berria ari da hedatzen, eta atxikitako pisu ideologikoa arintzen ari zaio euskarari / Bi muturretako diskurtsoen artean badago gune isila, diskretua eta zabala: euskara sustatzearen ez alde eta ez kontra ageri direnak; euskararen ikuspegi politikorik edo alderdikoirik ez duten herritarrak. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (8.orr.)

Ez gaude hizkuntza arteko gatazka egoera batean

Herritarrak hobesten duen hizkuntza erabiltzen du

Solaskidearekiko errespetua

Diskurtso integratzailea

atxikitako pisu ideologikoa arintzen ari zaio euskarari

Euskara sustatzearen ez alde ez kontrakoak

Euskararen ikuspegi politikorik edo alderdikoirik ez duten herritarrak

"Para mí el euskera es una lengua, la lengua de los vascos o del País Vasco" (ER, 18-35, Bilbo)

2.1.4. ARLOKAKO DESKRIBAPENAK

1) UNIBERTSITATEA

Unibertsitatean kokatzeak (Unibertsitatea eta gizartearen)

Unibertsitatean gertatu den aldaketa aipagai dute batzuk, euskararen hedapenean zein hartutako neurri zehatzetan: ...uste dut euskarak prestigioa duela unibertsitatean. Euskaraz eskeintzen den irakaskuntza beste erderetakoak bezalako prestigioa du; irakaslego elebidunak goi mailako ikerketa egiteko inolako arazorik ez duela demostratu du... / Diskurtso mailan ezik, eguneroko aplikazioan ere euskarak adostasun maila handia lortu du unibertsitatean.

Aldaketa horiek horrela ilustratzen ditu beste kolaboratzaile batek: Unibertsitatean euskarak ibilbide ikusgarria egin du: 1976. urtean Medikuntza Fakultatean eta Zientzia Fakultatean euskaraz eskola bakan batzuk ematen hasi zirenetik hona gauzak asko aldatu dira. 1985. urteko lehen UPV/EHUko estatutuek araubidezko aitortza ematen zioten euskarari irakaskuntza eta ikerketa egiteko. Ordutik hona Euskararen Normalizaziorako 2 plangintza eta Eleaniztasun plana onartu dira. Gradu bakan batzuk kenduta, lehen zikloko Ikasketa guztiak egin daitezke euskaraz. MUn euskarazko eskaintza oso zabala da ere, graduoko Ikasketa ia guztiak euskaraz eskaintzen direlarik.

Eta euskalduntze horretan atzerago dabilzan kasuetan ere, zenbait neurri hartzen hasi omen da: Deustun berriz, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko programa kontratua bitarteko, hainbat gradu elebrietan eskaini ahal izan dira azken lau urtetatik hona.

Unibertsitatea euskalduntzeko dinamika ez da irakaskuntzan agortzen eta, bere kasa zein beste erakunde batzuekin elkarlanean, jakintza arloko zenbait jardueretara ere hedatu da: ...euskararen corpus zientifikoa eraikitzen lagundu du unibertsitateak eskuliburu eta ikerketaren publikazioen bitartez. Dela bakarka, dela beste eragile batzuekin batera, urtetan hiztegitintza eta corpusaren lanketa nabarmen aurreratu da.

Areago, ekartzen da gogora unibertsitateetako euskarazko jardunak hizkuntza horren gizarte prestigioa handitzen lagun dezakeela: Bestalde, unibertsitateak dibulgazio zientifikoa euskaraz egin duen lana oso ongi baloratzen du gizarteak, eta horrek ere euskarak duen prestigio akademikoa goratzen laguntzen du.

Unibertsitatean gertatu den aldaketa aipagai dute batzuk, euskararen hedapenean zein hartutako neurri zehatzetan: ...uste dut euskarak prestigioa duela unibertsitatean. Euskaraz eskeintzen den irakaskuntzak beste erderetakoak bezalako prestigioa du; irakaslego elebidunak goi mailako ikerketa egiteko inolako arazorik ez duela demostratu du... / Diskurtso mailan ezik, eguneroko aplikazioan ere euskarak adostasun maila handia lortu du unibertsitatean.

Aldaketa horiek horrela ilustratzen ditu beste kolaboratzaile batek: Unibertsitatean euskarak ibilbide ikusgarria egin du: 1976. urtean Medikuntza Fakultatean eta Zientzia Fakultatean euskaraz eskola bakan batzuk ematen hasi zirenetik hona gauzak asko aldatu dira. 1985. urteko lehen UPV/EHUko estatutuek araubidezko aitortza ematen zioten euskarari irakaskuntza eta ikerketa egiteko. Ordutik hona Euskararen Normalizaziorako 2 plangintza eta Eleaniztasun plana onartu dira. Gradu bakan batzuk kenduta, lehen zikloko Ikasketa guztiak egin daitezke euskaraz. MUn euskarazko eskaintza oso zabala da ere, graduoko Ikasketa ia guztiak euskaraz eskaintzen direlarik.

Eta euskalduntze horretan atzerago dabilzan kasuetan ere, zenbait neurri hartzen hasi omen da: Deustun berriz, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko programa kontratua bitarteko, hainbat gradu elebrietan eskaini ahal izan dira azken lau urtetatik hona.

Unibertsitatea euskalduntzeko dinamika ez da irakaskuntzan agortzen eta, bere kasa zein beste erakunde batzuekin elkarlanean, jakintza arloko zenbait jardueretara ere hedatu da: ...euskararen corpus zientifikoa eraikitzen lagundu du unibertsitateak eskuliburu eta ikerketaren publikazioen bitartez. Dela bakarka, dela beste eragile batzuekin batera, urtetan hiztegitintza eta corpusaren lanketa nabarmen aurreratu da.

Areago, ekartzen da gogora unibertsitateetako euskarazko jardunak hizkuntza horren gizarte prestigioa handitzen lagun dezakeela: Bestalde, unibertsitateak dibulgazio zientifikoa euskaraz egin duen lana oso ongi baloratzen du gizarteak, eta horrek ere euskarak duen prestigio akademikoa goratzen laguntzen du.

Unibertsitatean gertatu den aldaketa aipagai dute batzuk, euskararen hedapenean zein hartutako neurri zehatzetan: ...uste dut euskarak prestigioa duela unibertsitatean. Euskaraz eskeintzen den irakaskuntzak beste erderetakoak bezalako prestigioa du; irakaslego elebidunak goi mailako ikerketa egiteko inolako arazorik ez duela demostratu du... / Diskurtso mailan ezik, eguneroko aplikazioan ere euskarak adostasun maila handia lortu du unibertsitatean.

Aldaketa horiek horrela ilustratzen ditu beste kolaboratzaile batek: Unibertsitatean euskarak ibilbide ikusgarria egin du: 1976. urtean Medikuntza Fakultatean eta Zientzia Fakultatean euskaraz eskola bakan batzuk ematen hasi zirenetik hona gauzak asko aldatu dira. 1985. urteko lehen UPV/EHUko estatutuek araubidezko aitortza ematen zioten euskarari irakaskuntza eta ikerketa egiteko. Ordutik hona Euskararen Normalizaziorako 2 plangintza eta Eleaniztasun plana onartu dira. Gradu bakan batzuk kenduta, lehen zikloko Ikasketa guztiak egin daitezke euskaraz. MUn euskarazko eskaintza oso zabala da ere, graduoko Ikasketa ia guztiak euskaraz eskaintzen direlarik.

Eta euskalduntze horretan atzerago dabilzan kasuetan ere, zenbait neurri hartzen hasi omen da: Deustun berriz, Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko programa kontratua bitarteko, hainbat gradu elebrietan eskaini ahal izan dira azken lau urtetatik hona.

Unibertsitatea euskalduntzeko dinamika ez da irakaskuntzan agortzen eta, bere kasa zein beste erakunde batzuekin elkarlanean, jakintza arloko zenbait jardueretara ere hedatu da: ...euskararen corpus zientifikoa eraikitzen lagundu du unibertsitateak eskuliburu eta ikerketaren publikazioen bitartez. Dela bakarka, dela beste eragile batzuekin batera, urtetan hiztegitintza eta corpusaren lanketa nabarmen aurreratu da.

Areago, ekartzen da gogora unibertsitateetako euskarazko jardunak hizkuntza horren gizarte prestigioa handitzen lagun dezakeela: Bestalde, unibertsitateak dibulgazio zientifikoa euskaraz egin duen lana oso ongi baloratzen

du gizarteak, eta horrek ere euskarak duen prestigio akademikoa goratzen lagutzen du. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (8.orr.)

Prestigioa

Akademikoa

Gizarte prestigioa

Goi mailako ikerketa

Aplikazioan adostasuna

Eleaniztasun planak sakontzen

Euskalduntze prozesuan atzerago daudenak ere neurriak hartzen (Deustuko Unibertsitatea adibide)

Gune aplikatiboen euskarri

Euskararen corpus zientifikoa

Eskuliburuak

Ikerketen argitalpenak

2) ENPRESA-GIRO PROFESIONALAK

Gune profesionalak (kanpora begira dagoen sektorea izanik)

Unibertsitatean ez ezik, gizarteko beste zenbait arlotan igartzen da euskararen egoerak emandako aurrerapausoak, hala nola zenbait giro profesionalean. Ekarpentatik jaso dira aldaketa horren lekuko diren bi kasu eredugarri: Lanean, gero eta nabarmenagoa da euskararen erabilera areagotzeko diskurtso naturala eta esfortzua. Aginte-organok azken urteotan hartu dituen erabakiei esker, euskara gero eta integratuago dago eguneroko kudeaketan, eta barrura (langileak) zein kanpora (bezeroak) begira, elementu integratzaile gisa ulertzen da. Izan ere, euskararen erabilera bat dator kalitatezko zerbitzua ematearekin. Eguneroko jardunean oztopoak eta gorabeherak sortzen dira, baina irizpideak eta lerro estrategikoak adostuta eta enpresaren funtzionamenduan txertatuta daude / Euskaldunek hizkuntza bata edo bestea erabiltzen dute, berdin-berdin. Nagusitu den planteamendua hau da: "zuk egizu euskaraz eta nik ulertu ezean, galdetu egingo dizut". Zoru partekatu bate eredu. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (9.orr.)

Enpresetan emandako aurrerapausuak

Aginte-organok hartutako erabakiak

Lerro estrategiko adostuak

Euskara elementu integratzaile gisa

Zoru partekatu baten eredu

"Enpresen arloan beste diskurtso bat nagusitzen ari da: bezeroen hizkuntzan egitea, zerbitzuari begira, enpresa hobetzeari begira, ez uzkurra ez aldarrikatzailea. Gehiena funtzionala. Hor guretzat badago argumentu sorta potente bat. Eta hori gizarteari trasladatu behar zaio". **Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)**

2.1.5. MOTIBAZIO ETA JARRERAK

2.1.6. ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOAK-EZAGUTZA

Egoera soziolinguistiko ezberdinekiko egoeraren interpretazioa (espezifitatearen irakurketaren balioa)

. Baldintza eta estatusa aldekoak

Euskarak gainontzeko lurraldeetan baina askoz baldintza aldekoagoak dituen, espero zitezkeen euskarak jasotzen duen gizarte onarpen zabala: Gipuzkoan, orohar, euskarak lortu du erreferentzialtasun minimo bat eta erdaldunek antzeman dezakete zerbait galtzen ari direla euskara ez jakitearren. Euskaltzaletasuna nagusi izaki, euskarak estatus bat lortua du. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (9.orr.)

Gizarte onarpen zabala

. Baldintza eta estatusa ahulak

Oso bestelakoa da euskararen estatusa eta bizi-baldintzak Iparraldeko lurretan, jakina denez. Dena den, gizartearen balorazioan hobekuntza baten zantzuak ikusten direla aitortzen dute bertako parte-hartzaileek: Aitorpen ofizial oso apala, baina Euskararen aldeko diskurtsoa partekatua da / Orokorrean euskararen aldeko diskurtsoa nabarmenki baikortu da erakunde armatuak borroka erabat utziz geroztik. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (9.orr)

Gizartearen balorazioan hobekuntzak

2.1.7. DISKURTSOAK

Diskurtso egituratuak

“La lengua propia del Pais Vasco es el euskera”.

“Diskurtso berri bat eraiki dezakegu bizikidetzan oinarritua, integratzailea, bai pertsonen artean eta baita hizkuntzen artean ere. Komunitate politiko bat osatzen ari gara eta hor euskarak toki egokia eduki behar du”. **Gizarte Foroa (saio osotik mezua)**

“Kaleko jendea ez dago hain polarizatua mutur linguistikoaren artean”. **Gizarte Foroa (saio osotik mezua-ñabardura)**

“Mutur bakoitzeko iritziak jarri dira nabarmen... Kalean entzuten duzun gehiena ez da alde batean edo bestean jartzen... Jende gehiena alde dago egiten denarekin...”. **Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)**

“Iraganean diskurtso ezberdinak egon dira, elkarrekin inkomunikatuak eta elkarren berri galdetu ere egin gabe bizi izan direnak. Eta horiei buruz galdezka hastea positiboa iruditzen zait”. **Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)**

2.2. AHULEZIAK

2.2.1 EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO EGINDAKO BIDEA eta HIZKUNTZA POLITIKAK

Diskurtso egituratuak

Beste batek: “Nora goaz? Desioetatik erantzutea edo susmoetatik erantzutea, alde handiko ariketak dira. Norabide lausoak marraztera gonbidatzen du mendeak. Eta norabide lauso horietan amets zatiak doitzera, estrategia-kateak jostera”..

Ezagutza ez da erabileran islatzen

Askok ikasi dute euskara, baina erabili, ez da erabiltzen ikasitako neurri berean. Erabileran lortutakoak ez du asebetetzen kontsultatu askoren aurreikuspena, batez ere horretara bideratu diren ahaleginak aintzat hartuz gero: Ezagutzak asko egin du gora; aldiz, arazo nagusia euskararen erabilera urria da: solaskidea ezezaguna denean, erabili hizkuntza nagusia badaezpada; solaskidea elebiduna dela jakin arren erdaraz egiten du /Desoreka dago egindako ahaleginen eta erabilerako lorpenen artean / Euskararen erabilera aldarrikapen politiko gisa ulertzen da askotan. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (10.orr)

Ez da erabiltzen ikasitako neurri berean

Desoreka egindako ahaleginen eta erabilerako lorpenen artean

Erabilera aldarrikapen politiko gisa ulertzen da askotan

Erabilera eta hiztunen arteko harremanetan deserosotasuna / talkak

Gatazkarik ba al dago? Elebidunon artean uste zabala da gatazkarako arrazoi ugari daudela, etengabeko gatazkan egoteko, eta eskubideen diskurtsoari lotuko bagina, elebidunen eta elebakarren arteko gatazka areagotu egingo litzateke. Inor ez dago konforme, egindakoa oso gutxi edo gehiegi dela esaten dutelako. Halere ez da muturrera eramaten, bakean bizi ahal izateko. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (10.orr)

Euskarazko gaitasuna eta hizkuntza horrekiko sentsibiliatea edozein izanda

Eskubideen diskurtsoa

Elebidunen eta elebakarren arteko gatazka

Egindakoa gutxi vs egindako gehiegi

Gizartearen esfortzu mailak eta erabilera mailak ez dute bat egiten

Azken urteotan euskararen erabilera ez du gora egin nahi bestean eta gizartea egiten ari den esfortzuaren maila bertsuan. Hala ere, areagotu egin da erabilera, eremu formaletan eta ez-formaletan / Erabilerari dagokionez, batzuk militanteagoak gazteen artean; beste batzuk errazago jo dezakete gaztelaniara. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (16.orr)**

Erabilerarako dauden oztopoak

Ez bakarrik estatus eskasaren ondorioa

Euskararen alorrean dagoen armonizazio eta koordinazio sendo baten gabeziak ez dio laguntzen euskararen erabilerari. Honen adibide zuzena, terminologiarena da. Euskararen adituak ez garenontzat, terminologia bateratu bat ez izateak ziurtasun eza sortzen digu eta lana ere. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (10.orr)**

Corpusaren garapen falta

Armonizazio eta koordinazio gabezia

Terminologia bateratu bat ez izateak ziurtasun eza sortzen du

Elebidunei esfortzu handiagoa eskatzen zaie

Euskararik gabeko hiritarrak baditugu, hots, buruan euskara inolaz ere erabiltzen ez dutenak, baina elebidun garen hiritarrok uste duguna baino askoz gaztelania gehiago darabilgu buruetan egun arrunt batean. Horrek neurodiglosia sakon bat sortzen du / Maila aplikatiboan zailtasunak daude, eta aro digitalean are gehiago. Informazio saldoa dugu eta gizarte eleanitz honetan euskaraz dagoena bilatu egin behar da, gainontzean euskaldun epelentzat ikusezinak dira sarri euskal mundu erreala, nahiz birtuala (zuzeu.com, sustatu.com, argia.com, berria.info, hamaika.tv...). **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (11.orr)**

Disonantzia kognitiboak / euskaltzalearengan kontraesanetan jartzen

Diskurtsoa eta erabilera ez datoz bat errealitatean

stress linguistikoa

Euskararik gabeko hiritarrak baditugu, hots, buruan euskara inolaz ere erabiltzen ez dutenak, baina elebidun garen hiritarrok uste duguna baino askoz gaztelania gehiago darabilgu buruetan egun arrunt batean.

neurodiglosia

Maila aplikatiboan zailtasunak, aro digitalean areago

Maila aplikatiboan zailtasunak daude, eta aro digitalean are gehiago. Informazio saldoa dugu eta gizarte eleanitz honetan euskaraz dagoena bilatu egin behar da, gainontzean euskaldun epelentzat ikusezinak dira sarri euskal mundu erreala, nahiz birtuala (zuzeu.com, sustatu.com, argia.com, berria.info, hamaika.tv...). **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (11.orr)**

Gizarte eleanitza

Euskara bilatu behar da

Euskarak egun dituen aukera berriak

Gero eta zabalagoa da herritarren artean euskara erabiltzeko dagoen konbentzimendua / Euskara ondo kokatuta dago Internet eta teknologia berriak integratzeko. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (7.orr)**

Euskara erabiltzeko dagoen konbentzimendua

Euskara ondo kokatuta dago internet eta teknologia berriak integratzeko

2.2.2. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK-IRUDIA

1) Zoru partekatua? gatazka zoru komun-teorikotik ekintzetara pasatzean

Batzuen aldetik euskara ikasi beharra (euskararen ezagutza unibertsalizatzeaz edo hizkuntza irizpideak ezartzeaz) zalantzan jartzen bada ere, inork ez du gauza bera egiten gaztelaniarekin. Zoru partekatua egon badago, baina noraino heltzen da partekatzen duguna? Gurea hizkuntza gutxitua den neurrian, gatazkak sortzen dira zoru

komun-teoriko horretatik ekintzetara pasatzean. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (9.orr)

Euskara ikasi beharra zalantzan jarri / gaztelera ez da zalantzan jartzen

Unibertsalitateaz edo hizkuntza irizpideak ezartzerakoan

2) Politika (alderdikeriak) mailako hika-miketan

Nork politizatzen du, euskaraz egiteko eskubidea betetzea eskatzen duenak, ala eskubide horri uko egin ez ezik, hizkuntza bera ukatu egiten duenak? Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (10.orr)

Eztabaida nork politizatzen duen gainean

HERRITARREN IRITZIA: EZTABAIDA TALDEAK

euskara eztabaidaren erdian kokatu da

Es un tira y “afloja.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Se suele vincular el euskera a la independencia y al movimiento abertzale.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Gauza batzuk bai superatu behar direla, gauza batzuk bai aldatu behar direla, tirabirak” (EA, 18-35, Bilbo)

“Abertzaleak eta ez abertzaleak, eta hor egon da guda bat eta kaltetua izan da euskara, noski.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Todavía hay algunos debates ideológicos que no están cerrados, y siempre ha sido una lucha y el euskera siempre ha sido un arma arrojada” (EP, 36-65, Bilbo)

“Bai baina hori bukatu egin behar da, egia da oraindik euskaraz hitz egiten badezu independentista zarela argi eta garbi”(EA,36-65,Donostia)

“Yo creo que todavía hay en el tema ideológico y político, todavía hay con la que sí se vincula.” (ER, 36-65, Donostia)

“Gauza batzuk bai superatu behar direla, gauza batzuk bai aldatu behar direla, tirabirak” (EA, 18-35, Bilbo)

euskara inorena ez dela gogoratu da

“Nik inoiz ez dudana onartuko da naizelako hemengo abertzaleena nere altxorra da eta zu ez zara hain euskalduna ni bezala” (EA, 36-65, Donostia)

“Nik ez dut onartzen abertzalea zarelako euskara Zure altxor bakarra dala. Euskara da euskara Hitz egiten duen guztiena.” (EA, 36-65, Donostia)

“Que se dejen del euskera político y que lo hagan como algo cultural, que es nuestra, de la tierra.” (ER, 36-65, Donostia)

euskara estereotipo eta aurreiritzi askorekin lotu da

“Aceptación como uso comunicativo no como uso político.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Al final los prejuicios o estereotipos que nos formamos nosotros nos los formamos sin que nos los impongan.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Baina orokorrean uste det jendea hartzen baldin baduzu ez dakit ezker abertzaleko inguruko jende gehiagok euskaraz dakien edo euskaraz hitz egiten duena normaltasunez, egunerokotasunean, PPko jendearen artean baino.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Eta esan dodan bezala politikazioaz edo independentzia, azken finean jende asko abertzalea, independentzia, eta orduan jendeak pentsatzen du hori, euskaldun petoak direnak denok nahi dutela independentzia, euskal presoena... azkenean Euskal Herrian bizi ditugun arazo guztien aldeetara” (EA, 18-35, Bilbo)

“El estereotipo del euskera es el borroka.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Este que lleva pendientes y cresta, pensaba, este sí que sabe hablar euskera. Y con los años te empiezas a relacionar con la gente y piensas; pues este también sabe, y no te lo habías imaginado.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“- Podríamos asociarlo también a una ideología política. Y a un aspecto físico también. Una manera de vestir. Si ves a una persona con una manera de vestir puedes asociar que sabe euskera. O con el corte de pelo, etc.” (ER, 18-35, Bilbo)

“No sé si eso pasará en algún otro lado. Un sitio donde puedas asociar un aspecto físico con el idioma que hablará.” (ER, 18-35, Bilbo)

egoera aldatzen doa

“Yo creo que la sociedad somos bastante más normales que los políticos.” (ER 36-65, Donostia)

“Hori ia bukatu da edo bukatu zan edo lo que sea, eta ez da hainbeste lotu behar politikarekin.” (EA, 36-65, Donostia)

“Si pero yo creo que ya está superado” (ER 36-65, Donostia)

“Yo es que cada vez veo menos diferencias, es decir, que se va normalizando todo... en ciertos entornos sí que habrá diferencias pero cada vez menos.” (ER 36-65, Donostia)

“Los dirigentes del PP de este país hablan en euskera. Para mí solo lograr eso ya es un logro. Y que además lo utilizan. Hace unos años eso era súper opuesto. Independientemente de tu ideología política hablas o no hablas euskera. También conocemos a gente macro abertzale que la puede cagar con el euskera porque no lo sabe bien del todo. Yo creo que ha habido un avance extraordinario en la lengua como para tener esos dos ejemplos.” (ER 36-65, Donostia)

“Yo veo menos porque hoy en día, no sé, porque por ejemplo refiriéndome a la tele ya hay programas de humor entorno a la ideología política y no pasa nada. Antes era impensable.” (ER 36-65, Donostia)

“Nik hori gaintuta daukat aspalditik, orain dela 25 urte...” (EA, 36-65, Donostia)

prentsa eta alderdi politikoak ikusi dira irudi honen sustatzaileak

“Bai baina batzuk ez dute nahi gaintitu... interesatzen zaio eztabaida hori mantentzea eta gatazka hori mantentzea.” (EA, 36-65, Donostia)

“Bai, eta nik eta danak, baita zuk ere, baina Espainiako prentsak ez” (EA, 36-65, Donostia)

“Azkenean euskara gorrotatzearena eta horrelako gauzak, holako egoerengatik sortzen dira. Nire ustez, bi eremu borrokatzen ari dira. [...]Azkenean batzuk aukeratzen dute gure ideia hartzea, baina beste askok influentzia pila bat hartzen dituzte, eta influentzia horiek beren ideologia moldatzeko esaten dizkiote. Eta nire ustez hori da agian gorroto hori sustatzen duen azpiko zerbait; hori izango litzateke arrazoi bat, komunikabideak azken finean.” (EA,18-35, Bilbo)

“El euskera visto desde fuera, de Madrid hacía abajo... mi marido por llevar en el DNI que es de Bilbao se lo han llevado detenido. Lo han cacheado entero. Entonces pienso que muchas veces se asocia esa imagen que se tiene del que habla euskera con todo el País Vasco.” (ER, 18-35, Bilbo)

“La mala publicidad que tiene el País Vasco se extrapola a todo. Entonces el euskera se asocia con solo una ideología política y no, son más cosas. Lo que pasa es que tienes que estar aquí, llevar tiempo viviendo aquí.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Igual PPkoek edo partidu espainolistek bai saltzen dute abertzaletasun estereotipo hori eta gorroto hori euskararekiko.” (EA, 18-15 Bilbo)

“Es lo que se da a ver. Por televisión o donde sea.” (ER, 18-35, Bilbo)

3) Euskararen inguruan izandako bizipenak hautemate ezkorren sorburu

Norberaren eta familiako interesak, euskararen aurretik jartzea: seme-alabak, gertukoak... lanpostu bat lortzerik izan ez duenean euskaraz behar besteko mailarik ez duelako / Euskararen alde eta kontra egiteko abiapuntuak, arrazonamendu edo kontu diskurtsiboetan baino gehiago daude bizipenetan edo bibentzietan oinarrituta. Horri gero janzkera diskurtsiboa emateko ahalegina izaten da, eta nagusitzen direnak topiko hutsak dira: errepikatutako estereotipo eta prejuizioak. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (12.orr)

Bizipenetan bizi izandakoa maila diskurtsibora ematerakoan topiko bihurtzen dira

4) Euskara eta balioak

Leku askotan zalantzan dago euskarak balio propiorik ote duen / Euskara zama edo galga gisa ikusten da gizarteko zenbait sektoretan, pasa beharreko tramite bat eta ibilbide edo zirkuitu laburretan baino balio ez duena. Edo, euskarari balioaren bat aitortzen bazaio ere, ez da unibertsala izaten, eremu jakin batzuetara mugatua baizik: Euskara administrazioko eta irakaskuntzako hizkuntza bihurtu da, eta hori euskararen erabilera natural batera jotzeko oztipoa izan daiteke. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (12.orr)

Zalantzan balio propiorik ote duen

Bortizkeria politikoa

Zama edo galga gisa

Ez zaio unibertsaltasunaren balio atxikitzen

administrazioko eta irakaskuntzako hizkuntza

5) Euskara eta erakargarritasuna / irudia (GAZTEAK)

. Prestigio falta

Euskararen prestigio falta, euskaraz ikasteko motibo praktikorik eza eta, etxeko transmisiorik ezean, euskararekiko lotura afektiboa ere galduta / Euskaldun ez direnentzat nekez izango da erakargarria egunero bere geroa jokatzeko ari den hizkuntza bat, hiztunak baino gehiago heroiak eskatzen dituen. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (12.orr)

Lotura afektiboa galduta + ikasteko motibo praktiko eza

Euskara ez da cool

Ardura larregi eman diegu gazteei eta gozagarri gutxi

Ingurune ez euskaldunetako gazteentzat euskara ez da 'cool' eta derrigorrezko ikasgai batekin baino ez dute lotzen, modernotasuna ingelesarekin lotzen da batez ere / Gazteen belaunaldiari ardura, erantzukizuna, hizkuntzaren biziraupenaren gakoa eman dizkiogu, eta maiz, horrekin, herri-nortasunaren iraupena bera. Ardura lar da hori. Gozagarri gutxi eskain diegu, alta, diskurtso agoniko bat baino ez. Gazte askoren artean horrelakoa bada euskararen irudia, ez da harrizkoa izango gizarte giro erdaldunetako gazte euskaldunengan ez agertzea berezko joera bat hizkuntza horren erabilerarantz, era horretan aurreko atalean (2.3.1) aipatzen genituen erabilera murriztaren zergatiak gehiago elikatuz: Giro erdaldunetako gazte euskaldunek horren premia sentitzen dutenean baino ez dute euskara erabiltzen. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (12.orr)

6) IRUDI EZKORRA: ERAGIN DUTEN FAKTOREAK/ KATE DISKURTSIBOA

Euskararen irudi ezkor horren hedapen arrakastatsua zenbait faktoretan oinarritzen dute parte-hartzaileek. Aipatuena, euskarari erantsi zaion kutsu politizatua da. Lelo hori behin eta berriz agertu delarik: Euskararen patrimonializazioa, sigla politiko batzuen aldetik / Kutsu politizatua du, neurri batetan, euskarak eta azkeneko urteotan gatazka politikoaren erdian aurkitu da, batzuetan / Alderdikeriaren arabera interesek, askotan erabiltzaileengandik urruti, kutsatu dute euskara. Hizkuntza baten normalkuntza gizarte sektore eta interesen arteko tira-birak eta egon ezinak sortzeko gai aproposa bada, gatazkaren arriskua areagotzen da auzian dauden hizkuntzetako bati irudi ideologizatu eta alderdikoia atxikitzen bazaio: Diskurtsoak ikuspegi politikoetatik aldentzen ez diren bitartean eta, horren ondorioz, euskara politizatuta dagoen neurrian, hizkuntza gatazkaren arriskua handiagoa izango da / Gaztelaniadunek hautematen badugu azken helburua independentzia eta hizkuntza bakarreko Estatuak direla, zerbitzatuta dago gatazka.

Aurreko faktoretik gertu izanagatik, neurriren batetan ezberdindu daiteke bakan batek aipatu duen hurrengo puntu hau: Euskara ia ez besterik erabiltzea, tankera jakineko gizarte aldarrikapenetan, eskaera horien jomuga euskara beren egin beharko luketen enpresak, erakundeak eta pertsonak izanik. Argudio ezberdina dela diogu, politikaz gainera eremu sozialean ere koka daitekeelako, batetik, eta bere indarra beste ideia honetan zentratzen delako, bestetik: euskara bere egin beharko luketen horiek, euskaraz erasotuak (sentitzen) direlako.

Hurrengo faktorea hizkuntza-politikari dagokio, bete-betean, politika horren neurri batzuek eragin baitute hein handian gizarte nagusiki zabaldu den hizkuntza-pertzepzio desegoki hau: Indarrean dagoen euskararekiko gizarte konpromisoa ez da ailegatzen ingurune sozial, ekonomiko eta kulturaletan hizkuntza erabilera bultzatzaera, baizik eta ikastera mugatzen omen da.

Hori horrela, eskolako garaietatik aurrera, gazte euskaldun eta euskaltzaleengan gailentzen da hizkuntza horri atxikitzen zaion irudi/kutsu politiko jakin bat, euskararen izaera linguistikoaren gaineratik. Euskara, egunero hainbat egoeratan normaltasun osoz ez erabiltzea da horren lekuko, ekarpen batzuen ustez; adibidez: euskalduna izatea ez da erraz adierazten giro jakin batzuetan, ezta erdalduna izatea abeste batzuetan ere. Musik atalde bate kez du erraza beste edozien hizkuntzatan, euskara barne. Kirolari bate kez du edozein prentsaurreko euskaraz ematen, bere ohiko hizkuntza bada ere. Ez da inoiz ikusten enpresa multinazional bateko buruak bere hitzaldia euskaraz ematen, baina ingelesez, aldiz, bai. Posible izango litzateke, seguru asko, kausa-eragin harreman horren norabidea iraultzea eta, horrela eginez, pentsatzea beste sektore eta eragile sozialean behar besteko erabilerarik eza tarteko, euskarak aurkitu dituen euskarri ia bakarrak marka politiko jakinei lotuak direla.

Faktore-segida honetan lekua egiten ari den azkenekoak, aurrekontu publikoak ditu jomuga; alegia, krisi une honetan nola erabiltzen diren: Krisi ekonomikoaren ondorioz, eta bereziki hedabideek zabaldu dituzten diskurtsoak ikusita, gaur egun diskurtso ekonomiko kritikoa izan daiteke, hizkuntzen politiken aurka, garestiak direlakoan. Diskurtso horren arabera, ekonomiaren ikuspuntutik lehentasuna duten beste sektore batzuetan sartu beharko litzateke dirua. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (13.orr)

Politizatua

- a) euskararen patrimonializazioa
- b) sigla politiko batzuen aldetik
- c) gatazka politikoaren erdian

Gizarte sektore eta interesen tira-birak

- a) gatazkaren arriskua areagotzen da
- b) euskara=independentzia=elebkarreko estatua

Hizkuntza-politika

- a) neurriek eragin dute gizartean zabaldu den hizkuntza-pertzepzio desegokia
- b) euskararekiko gizarte konpromisoa ez da ailegatzen ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalean hizkuntza erabilera buktatzera
- c) baizik eta ikastera mugatu

Erabilera eta irudi/kutsu politiko batekin lotura

- a) Aurrekontu publikoak
- b) Krisi ekonomikoa
- c) Hizkuntza politikak gareziak
- d) Lehentasunetan inbertitu

7) “Gaur egungo gazteek badakite euskaraz, baina ‘ez ezazu lata eman!’ esaten dizute. Aukera dute, eta batzuetan euskaraz, beste batzuetan erdaraz, beste batzuetan ingelesez... Intziditzea, ez da mesedegarria”. **Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)**

8) Euskararen irudia zerekin lotu? Modernotasunarekin? Identitatearekin?... Gizarte Foroan eztabaidatutakoa

“Euskara, gaur egun honako hitzekin lotzen da: identitatea, kultura, hezkuntza, abertzaletasuna...Eta horrela, zaila. Nahiago nuke industriarekin, lan munduarekin edo osasun sailarekin lotuta balego”.

“Markaren irudia eta produktua koherenteak izan behar dira. Ados gaude ez garelara izan behar hain lotuak identitateari, abertzaletasunari edo kulturari, baina euskara oraindik gutxitua behintzat badago. Eta errealitate horri ere ezin zaio muzin egin”.

2.2.3. LEGE ETA ARAUDI MARKOA

Lege eta araudiaren amarauna ez da nahikoa kontsentsu sendoa bideratzeko

Legezko estatusaz, erabakiak eta ekintzak hartu behar direnean, lege eta araudiak ezarritakoa ezberdin irakurtzeko joera dago / 82ko euskararen legea onartu zeneko markoa, euskararen normalizazioarena alegia, oraindik ere definitu eta adostu gabe dago, eta zerbait definitzen edo zehazten hasten den unean, markoa desitxuratu egiten da eta zoru partekatua desagertu egiten da etengabe. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (10.orr)

Interpretazioa / irakurketa anitzak egin daitezke

Hizkuntza-aniztasuna Europan (teorikoki defendatzen dena praktikan ez da islatzen)

Teorikoki defendatzen dena praktikan ez da islatzen

Gizartean "Euskara beharrezkoa da" pentsaeratik "Hizkuntzak beharrezkoak dira" pentsamoldera aldaketa gertatu da edo gertatzen ari da. Garrantzia ematen zaio euskaraz irakasteari, eta gero eta handiagoa ingelesez irakasteari ere bai.

Gure gizartea gero eta multikulturalagoa den honetan gaztelerak garrantzi berezia du komunikaziorako “lingua franca” gisa etorkinen artean.

Europan hizkuntzen pluralitatea aberastasunarekin identifikatzea bada zerbait, baina joko politikoak halakoetan esandakoa murrizten du ondoren. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (16.orr)

“Espainiar Konstituziotik, gaztelerari gordetzen zaio legearen pribilegioa. Frankismotik erregimen berrira euskararentzat aldaketa gutxi. Komunitate batek pribilegioak atxikitzen ditu beretzat, indarrez, eta besteei ukatuz”. **Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)**

Konstituzioa, legea, babes juridikoa... Gizarte Foroan eztabaidatutakoa

“Komunitate batek pribilegioak atxikitzen ditu beretzat, indarrez, eta besteei ukatuz”.

“Hemen babes juridikorik falta zaigu? Nik ez nuke esango «edo Konstituzioa aldatzen da edo hilko gara»”.

2.2.4. ARLOKAKO DESKRIBAPENAK

1) UNIBERTSITATEA

jarrerak eta praktikak ez datoz bat

Unibertsitatean jarreretan ez dago arazorik, baina jarrerak eta praktikak ez datoz beti bat. Edo, ikasle batzuen gaitasuna ez da behar bezain sendoa eskolak euskaraz eman ahal izateko. Ikerkuntzan oso gutxi erabiltzen da euskara, gure arteko elkarrizketetan eta publikatzeko orduan / UPV/EHUko masterrei dagokienez, eskaintza (aurreko mailatan baino) laburragoa da eta hirugarren hizkuntzaren eskaintzarekin euskara ere erabiltzea da erronka. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

2) ENPRESA-GIRO PROFESIONALAK

Gune profesionalak (kanpora begira dagoen sektorea)

Unibertsitatean ez ezik, gizarteko beste zenbait arlotan igartzen da euskararen egoerak emandako aurrerapausoak, hala nola zenbait giro profesionaletan. Ekarpenetatik jaso dira aldaketa horren lekuko diren bi kasu eredugarri: Lanean, gero eta nabarmenagoa da euskararen erabilera areagotzeko diskurtso naturala eta esfortzua. Aginte-organoak azken urteotan hartu dituen erabakiei esker, euskara gero eta integratuago dago eguneroko kudeaketan, eta barrura (langileak) zein kanpora (bezeroak) begira, elementu integratzaile gisa ulertzen da. Izan ere, euskararen erabilera bat dator kalitatezko zerbitzua ematearekin. Eguneroko jardunean oztupoak eta gorabeherak sortzen dira, baina irizpideak eta lerro estrategikoak adostuta eta enpresaren funtzionamenduan txertatuta daude / Euskaldunek hizkuntza bata edo bestea erabiltzen dute, berdin-berdin. Nagusitu den planteamendua hau da: "zuk egizu euskaraz eta nik ulertu ezean, galdetu egingo dizut". Zoru partekatu bate eredu. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (9.orr.)

Egunerokoan oztupoak surtzen dira

gaztelaniaren erabilera nagusitzen da

Enpresa-eremuan argi eta garbi nagusitzen da gaztelaniaren erabilera / Txikizkako merkataritza gizartearen isla da. Banaketa-enpresa handiek bere komunikazioan euskara beharra bezala gehitu dute, natural bezala baino gehiago. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

mehatsu berri bat ere: ingelesa

Profesionalen eta enpresa giroetan euskara dagoeneko ez da bigarren hizkuntza, ingelesak gero eta leku gehiago kendu diolako. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (15.orr.)

3) HEZKUNTZA

euskalduntze bidean garatuenetakoa den sektorea izan arren, askotan erdarara jo behar da komunikatzeko

Irakaskuntzan erdaldunak nahiko lasai daude, zoru partekatua ikusten da denon artean. Baina, praktikan, askotan erdarara jo behar izaten da komunikatzeko / Hezkuntza sisteman, "aukeratzeko eskubide" horren ondorioz, ghettoak egin ditugu eskoletan. Aukeratzeko eskubidea ezin da inoiz kokatu ikasleek euskara ezagutzeko duten eskubidearen gainetik / Oraindik ere errekonozitu gabe dago eskola publikoak egin duen lana herri hau euskalduntzeko. Batzutan harriak botatzen dizkiogu geure buruari. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

4) KULTURGINTZA

kultur sorkuntzaren eta kontsumoaren arteko talka edo desoreka

Gatazka baino, frustrazio puntu bat, agian. Kultur sorkuntzaren eta kontsumoaren arteko talka edo desoreka. Nolabaiteko mikro mundua sumatzen dut kulturgintzan, eta are gehiago literaturan. Kalitatezko sorkuntza dago, anitza, baina ez da ezagutzen. Kanpoko eraginak jasotzen dira eta horrek gure sorkuntza aberasten du, baina guk egindakoak eragiten al du kanpoan? Gainera, zenbait sektore elebazarretan oraindik euskaraz sortzen den kultura folkloreakin nahasten da, ondorioz, euskaraz sortzen den oro bigarren mailakoa da / Kultur programatzaileen artean nolabaiteko beldurra dago oraindik, euskarazko ekimenak eskainiz gero hartzailek ez dela izango, gutxi joango direla... Aurreiritzi gehiegi eta ausardia gutxiegi. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

5) EUSKARAZKO LITERATURA

Egon badago, baina nork ezagutzen du

Bestetik, literatura genero guztiak daude irakurgai euskaraz, ez agian kuantitatiboki (estilo bakoitzetik gutxi), baina bai kualitatiboki (badaude nobela sakonak, arinak, modako gaiekin, gazteentzako sortuak, poema errazak, existentzialak, ipuin laburrak, erreportajeak, saiakera arinak, mardulak...). Egon badago, baina nork ezagutzen ditu? Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (15.orr.)

6) ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

elebitasun formala dago, ahozko komunikazio informalean ahulezia

Administrazio Publikoan elebitasun formala dago, oraindik ahozko komunikazio informalean erabat lortu ez dena .
Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

7) ERTZANTZA

Euskara ez dela ongi etorria ematen du

Ertzaintzarekiko harremanetan ere, oro har, ematen du euskara ez dela ongi etorria, nolabaiteko oldarkortasun edo kontraktotasun bat adierazten duela. Zer esanik ez gainontzeko indar polizialen kasuan. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

8) PUBLIZITATEA

Sorkuntza gaztelaniaz egiten da eta gero itzuli

Publizitatean: sorkuntza gaztelaniaz egin eta gero euskarara itzuli Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (14.orr.)

2.2.5 MOTIBAZIO ETA JARRERAK

Erabilerarako dauden oztopoak

Eremu pribatuan

Menderatzen ez dutenen erabiltzeko lotsagatik / Euskaldun batzuen aldetik izaera zentsuratzaileagatik / Euskara erruduntzea, ezker abertzalearekin atxikitzen zaion loturagatik / "Titulitis"-ak pisu gehiegi izan duelako / Teorian euskararen aldekoak izan arren, batzuek euskararekiko jarrera aktiborik erakusten ez dituztelako. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (10.orr)

Lotsa

Euskaldun batzuen aldetik izaera zentsuratzailea

Euskara erruduntzea

Ezker abertzalearekin atxikitzeagatik

Titulitis-ak pisu larregi

Teorian aldekoak, baina jarrera aktiborik ez

GIZARTEAREN IRITZIA_EZTABAIDA TALDEAK (euskaldun pasiboak eta erdaldunak)

GALGAK

Ikasketa prozesua ez da bizipenekin lotzen: "Euskara ez da teknika baten bidez erakutsi behar, bizipena da" (EA, 36-65, Donostia).

Aisialdiko ekintza gutxi daude euskaraz: "A partir de cierta edad, ya no hay ocio para los jóvenes" (ER, 18-35, Bilbo)

Erratzasun gutxi ematen dira euskara ikasteko: "No te dan facilidades para aprenderlo" (ER, 18-35, Bilbo) "En este momento no hay muchos incentivos. Hombre el que tenga poder adquisitivo y pueda gastarse ese dinero en aprender euskera..." (ER, 36-65, Donostia) "El euskera es dinero." (ER, 36-65, Donostia)

Erabiltzeko aukera falta: "Haces un esfuerzo increíble para hablar euskera por un título o porque te gusta, pero parece que luego no existe la oportunidad de poder utilizarlo" (ER, 18-35, Bilbo)

Inposatzen den hizkuntza da: "Creo que por el bien del euskera es malo imponerlo porque la gente hace lo contrario" (ER, 36-65, Donostia) "A mí lo único que me fastidia es me obliguen" (ER, 36-65, Donostia)

Bakoitzak bere buruari jartzen dizkio mugak: "Por falta de confianza. He intentado otra vez recuperar el euskera pero he visto que no estoy igual de ágil que antes y me freno" (ER, 18-35, Bilbo). "No lo usamos por lo que has comentado, que nos da vergüenza. No tienes confianza porque no controlas el idioma y tienes miedo a meter la pata." (ER; 18-35, Bilbo)

Ikastea oso zaila da "El ponerse aprender es un tarea difícil." (ER, 36-65, Donostia) "Un idioma muy difícil que se tarda muchos años en aprender bien" (ER, 18-35, Bilbo)

SUSTAGARRIAK

Lanarekin lotzen direnak: "Para el desarrollo profesional" (EP, 18-35, Gasteiz)

Euskara ez da norberangatik ikasten, hurrengo belaunaldietako eredu izateko baizik: "Si me apunto al euskaltegi no será para sacarme el título sino para hablarlo con mi hija" (ER, 36-65, Donostia) "Para poder ayudar con los deberes" (ER, 36-65, Donostia)

2.2.6. ERREALITATE SOZIOINGUISTIKOAK-EZAGUTZA

Arnasguneak urriak dira eta euskara suspertzeko topatzen dituzten zailtasunak

Euskararen arnasgune diren geografia horiek salbuespena dira euskaraz bizi nahi dugun herritar gehienontzat. Ingune hauetan kezkarako motiborik handiena da euskara suspertzeko asmoak topatzen dituen zailtasunak: Testuinguru euskaldunean euskararen normalizazioan oztopo diren neurri edota gertakarien aurrean ezinegona eta haserrea erraz pizten da. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (15.orr.)

Euskaldunek pisu demografikoa handia duten guneetan ere erdarara jotzeko joerak eta euskaraz gaizki egiten denaren beldurra

Normaltasunez bizi da euskaraz baina aldeko jarrera pro-aktibo gutxi ikusten da. Alegia erdaldun bat badago normaltasunez erdarara jotzen da. Euskaldun batzuk ohitura badute erdaraz egiteko haien artean. Erdaldunen partetik ez da ikusten ezer berezirik, hori bai euskara haien testuinguruan egon badagoela konturatzen dira; egunerokotasunean euskarak bizitza normala duela ikusten dute. Gatazkarik ez da atzematen euskaldunek barneratzen dutelako gatazka osoa, normaltasunez erdarara pasatzean erdaldun bat presente dagoenean. Erdaldunari euskararenganako pausu bat egiteko eskatuko baliokete agian nabarriagoa eta agerrikoa litzateke gatazka. Jarreraren aldetik oraindik oso zabaldua dirudi euskaldunen artean “euskara gaizki egiten dut” bezalakoak, alegia gaizki hitz egiteko sentsazioa eta eredu ona ez dela haiena pentsatzeko joera. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (15.orr.)

Eskualde erdaldunetan hesi demo-linguistikoak kontuan hartu behar dira

Araba

euskara bereskuratzearen onarpen prekariora eta aurrera egiteko balizko zailtasunak aipatzen dira

Arabaren zoru partekatua eskasa da, eta ez nago seguru partekatua den: legedia kontuan hartzen dutena, bai, baina haratago joan nahian legedia ere zalantzan jartzen has litezke hainbat eta hainbat. Ez nuke esango gure hurbileko gizartean partekatua dagoenik ezer asko, ezta euskararen koofizialtasuna ere. Ez behintzat gizarte osoaren aldetik. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (16.orr.)

Bilbo metropolia

bertain euskarak aurkakotasun edo gaitzespen handiagoa agertzeko arrazoiak daude: akademikoak eta politikoak

akademikoak: derrigorrez ikasteko beharra; politikoak: euskara euskal nazionalismoarekin lotzea; pragmatikoak: herri-administrazioko zenbaitetara aurkezteko jakin beharra edo puntuaketan abantaila handia izatea. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (16.orr.)

Nafarroa

Hizkuntza politikaren printzipio teorikoak eta errealitate praktikoak ez dute bat egiten

Nafarroan, hizkuntza politikaren inguruko printzipio teorikoak urrun daude errealitate praktikoan agertzen diren ikuspuntu eta jarreretatik. Azken hauetan, bestelako sentimendu, interes eta subjektibitateen sintomak ageri dira. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (16.orr.)

Iparralde

Gizartearen hautemate ezkorrean jartzen da begirada

Euskara hizkuntzaren inguruko diskurtsoak negarroiak dira: beti galtzen, sekula ez egokitzen, hizkuntzen gatazkan ahulena, etab. / Euskarak badu hegoaldeko altxorra baizik ez den itxura askoren buruetan: Espainiarren arazoa edo aberastasuna da. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (16.orr.)

2.2.7. DISKURTSOAK

1) Diskurtso egituratuak

“Algunas de las disposiciones incorporadas, de forma muy relevante en el Estatuto de Cataluña, ponen de manifiesto una tendencia creciente a la imposición de la lengua propia como lengua preferente, tratando de establecer un sistema asimétrico de lenguas oficiales”.

“Akabo elebakartasuna, eta akabo elebakartasunerako tentazioa, bai hizkuntza hegemonikoaren aldetik, baita indarberritu nahi den hizkuntza gutxiagotuaren partetik ere”.

“Elebakartasunaren txiparen adierazle ohikoenetakoa da esaldi hau: «Gurea, euskara da», horrekin esan nahi denean «gurea, euskara baizik ez da», «besteak ez da gurea». ... gaztelaniarekiko oposizioan eta gaztelaniari kontrajarrita «gurea, euskara da» oraindik ere diskurtso politikoan sarri askotan entzuten den klixer moduko esaldia da”.

“Beharrezkoa aintzat hartuta, urria da hizkuntza politiketarako dirua”.

“Eskandaluzkoa iruditzen zait euskararen alde horrenbeste diru bideratzea”.

“Que ningún ingenuo se engañe. Hablemos con claridad. El problema sobre todo es político. La cuestión del vascoence en Navarra está íntimamente ligada al conflicto Navarra-Euzkadi”.

“El futuro del euskera me es muy indiferente”.

2) Muturreko diskurtsoek funtsa desegoki baten gainean eraiki dira

elkarren kontrajarriak eta urritasunaren paradigmen gainean eraikitakoak dira: aldarrikatzaileak gehiago eman nahi dio euskararen garapeneri (hura gabe desagertuko delakoan, etab.) eta murriztaileak orain artekoa nahikoa (eta sobera) dela dio, ahalegin oro bere indar-posizioaren kaltetan joango dela uste izanda. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (11.orr)

elkarren kontrajarrian eta urritasunaren paradigmen gainean

batzuk gehiago eman

beste batzuk nahiko edo gehigi

3) Aldarrikatzaileak: interpretazio ezkorak nagusitzen dira

Eskubide eta eskakizunak oraindik bete ez izanak etsipen sententzia sortzen du / Euskaltzaleen sutsuenean bi jarrera nagusi: borrokalari eta kementsu jarraitzen dutenak, batetik, geroz eta gutxiago. Eta etsipen puntu bat sumatzen dutenak, geroz eta nabarmenago, euskarak ez duelako euren nahi bezala eta beste aurreratzen. Gainera, ikusten da egoera lasaiegi hartzen duten euskaltzaleak daudela: Euskaltzale epelagoa lasai eta are epelago dago. Diskursoa euskararen aldekoa mantendu arren, ez da bereziki kezkatzen duen zerbaite. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (11.orr)

eskubideak eta eskakizunak oraindik bete ez

Etsipena nabarmentzen

euskaltzale epelak

Aldeko baina kezkarik ez

4) Indiferenteak etsairik handienak

Indiferenteek euskararen gaia oso urrutitik bizi dute, argumentazio iraulgarria eta ez zuzena baliatuz: euskara zaila, inposatua eta politizatua, eta euskaldunek ez dute erabiltzen. Jarrera indiferente hori da, parte-hartzaile batzuentzat, euskararen normalkuntzak egun duen etsairik handiena: Ingurune profesional zein pribatuko jarrera problematikoa indiferentzia da. Jarrera aldarrikatzaile zein uzkurak aldakorak dira definizioz, indiferentzia ordea egonkorragoa da, handituz doa, eta kontsentsu berri baterako eragozpen ezkutua izan daiteke. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (12.orr)

Hizkuntza egoeraren inguruko ezagutza zehatzik ezak bultzatuta

5) Euskararen kontrako diskurtsoak

Euskarara diru gehiegi bideratzen dela uste dutenak. Orohar, euskara abertzaleen kapritxo edo bereizgarri gisa jotzen dute eta “de facto” “ezezagutzarako eskubidea” aldarrikatzen dute, askatasuna aitzaki. Euskararen aurrean jarrera defentsiboa eta uzkurra adierazten dituztenen arbuio edo gaitzespenak, hizkuntza-politikaren bidez ezarri diren zenbait neurrietan omen du abiapuntu: EAEko lurralde guztiak parametro berdinetan tratatzea; euskara lanarekin nahastea, batez ere egungo egoera ekonomikoan; herri administrazioetako hizkuntza-eskakizunak errealitateara ez egokitzea / Gatazka intrantsigenteen eskutik sortzen dira, euskaraz bakarrik funtzionatu nahi edo aldebereko itzulpena denerako eskatzen dutelako. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02a (11.orr)

Euskarara diru gehiegi

Abertzaleen kapritxo bat

Ezezagutzaren eskubidea aldarrikatzen da ondorioz

Jarrera defentsiboak/ hizkuntza politikak sortua-abiapuntu

Lurralde guztiak parametro berdinetan tratatzea

Euskara lanarekin nahastea

EGUNGO EGOERA EKONOMIKOA

Hizkuntza eskakizunak errealitatera ez egokitzea

Intransigentzia

. gatazka

. itzulpena denerako eskatzen dutenak

. ELKARKIDETZARAKO OZTOPO

Bidegabeak eta onartezinak dira gaur egun ere noizbehinka egiten diren adierazpenak, EAeko biztanleen arteko elkarbizitzaren erantzukizuna erdaldun elebakarrei egotziz (euskaraz ikasi eta hitz egiten duzue, edo bestela elkarbizitza kolokan jartzen ari zarete). Mota honetako jarrerak dira elkarbizitzari hain zuzen kalte gehien egiten dietenak, oinarri demokratikoen aurkakoak izateaz gain, jakina. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena (11.orr)

Elkarkidetzarako erantzukizuna erdaldun elebakarrei egotziz

ONDORIOZ

Euskararen sustapenaren aurrean erresistentzia

Euskararen kontrako diskurtsoa gizartean politikoki zuzena ez den arren, azken urteotan nabarmenagoa da kontrako egonezin bat zenbait harremanetan. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena (12.orr)

6) Onarpen pasiboa eta bere hauskortasuna

Euskararen egoerak dituen indarguneak aleatzean euskararen inguruko gizarte giro lasaia eta baketsuaaipatzen bazen ere (2.1.1. atala), horrek ez ditu ezkutatu behar nagusia den onarpen pasiboa eta bere hauskortasuna: Euskararen periferian, euskaltzale epelak eta kontrako jendea nagusi da. Euskaltzaleak taldekoak ghetto apetatsu gisa ikusten dira hein batean eta naturaltasun falta somatzen da euskararen inguruan. Euskaltzale multzoko etsiak epeltzerantz joateko arriskua dago, eta multzo epeleko jendea aurkakorantz joatekoa. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02(14.orr)

7) Errealitatea interpretatzeko pertzepzio ilun desberdinak

Batzuk nekatu samar, Euskal Herria ez delako euskaldun oraindik; eta beste hainbat kexati eta haserre puntu batekin, azkarregi ari garelako eta alferrikako indarrak eta sosal xahutzen ari garelako. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (11.orr)

Euskal Herria ez da euskaldun oraindik

nekatuak

Azkarregi ari gara

alferrikako sosal

8) “Jendea politikoki zuzena agertzen da euskara sustatzearen alde dagoela esaten duenean, baina funtsean ez du hainbeste sinesten horretan”. Gizarte Foroa (saio osoko mezua_ñabardura)

9) “Espainiako Konstituzioak gaztelania derrigortzen du, eta horren aurrean ahula litzateke diskurtsoen alorrean aritzea”. Gizarte Foroa (saio osoko mezua_ñabardura)

10) “Euskara sustatzeko adostasunean paralelismoa egin daiteke emakumeen eskubideekin: berez bai, gauza politikoki zuzenak esaten ditugu, baina gero bazoaz begiratzera, gazteen artean, erabilera... eta errealitatean ezintasunak askoz ere handiagoak dira. Aldekotasuna bai, baina nahiko azalean geratzen da”. Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)

2.3. ARGHILUNAK

2.3.1. EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO EGINDAKO BIDEA eta HIZKUNTZA POLITIKAK

Hizkuntza baten berreskuratze prozesuak denbora eskatzen du

Gizartearen “elebiduntze progresiboa” gertatu da. Egindako bidea ez da perfektua izan, baina aldi berean, lorpen eta oso ongi emandako urrats ugari ere baditu egindako bideak, (ia) ezinezko ziren gauzak errealitate

bihurtzeraino/ Nire ingurua, Euskal Herria bezalaxe, era nahasian, batzuek pozik eta indartsu, euskararen aldeko lanean, itxaropentsu, oso.

Ohartarazten da, aldi berean, hizkuntza baten berreskuratze prozesuak denbora eskatzen duela; ezinezkoa dela berehala edo denbora tarte txiki batean gertatzea: Euskarak aurrerapauso handiak eman ditu eta denbora eman behar zaio berez sendotu dadin. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (7.orr)**

2.3.2. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK-IRUDIA

2.3.3. LEGE ETA ARAUDI MARKOA

Lege estatusaren ikuspegitik dagoen ustezko oreka salatzen da

EAEko eredu legal ideal batean, legediak dioen "...guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea" testua ez da guztiz egia. Gaztelania ezagutzea eskubidea baino gehiago bete beharra da. Euskara ezagutzea, ordea, kasurik onenean eta hiritar askorentzat nekez berma daitekeen eskubidea baino ez. Era berean, zalantzan jartzen da legedian egiten den diskriminazioa saihesteko aldarria: Hizkuntza dela medio inor diskrimina ezin daitekeela esatea guztiz baieztapen hutsala da: gizarte guztietan diskriminatzen da hizkuntzaren arabera. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (18.orr.)**

2.3.4. ARLOKAKO DESKRIBAPENAK

1) UNIBERTSITATEA

Aurrerapausuen aitortza, baina gabeziak eta hobetzeko puntuak

Erabilera gune ezberdinak (kantitatez eta kalitatez)

Euskararen erabilera ezberdina da, tokiaren, fakultatearen eta sailaren (eta unearen) arabera. Eta "ezberdina" hitza kalitateari ere badagokio, neurri jakin batean / Irakasle "euskaldun" asko oso euskaldunak ez izatea da arazo nagusietako bat. Dozentziaren kalitatearen aurka doa hori euskaraz ikasten dutenentzat. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (18.orr.)**

Bi hiztun komunitate ezberdin eta banatuak

Euskararen erabilera naturaltasunez gauzatzen da, gatazkarik ez dago eta. Jarrerak ordea gatazka ezak lanbrotzen ditu. Oro har, hizkuntza bietako postuak sortu izanak zera ekarri du, ikasleen beharrianak atzitzen dira, eta erdara hutsean diharduten irakasleengan ez dago inongo eraginik. Bi esparru daude, bi ibilbide paralelo: euskararen inguruko problematika euskal irakasleena, euskara-dekanotzera, euskara errektoreordetzarena da, ez komunitate osoarenak. Disoziazio bat dago, eta diskurtso ofiziala gora behera, zatitze bat gertatu da. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (18.orr.)**

2) ENPRESA-GIRO PROFESIONALAK

3) HEZKUNTZA

Euskararen ezagutza ikasgaiei ematen zaien trataeran geratzen da

Lehentasunezko alorretatik (hezkuntza, komunikabideak eta administrazioa), lehenengoak eman ditu fruituak, besteek apenas. Baina hain zuzen hezkuntzak euskalduntzen dizkigunez, ikasgaiei ematen zaien trataeran geratzen da neurri batean euskararen ezagutza ere. Alegia, ikasi bai eta erabili behar denean, bestela ez. Ez da, beraz, aurrerapauso sendo-sendoa./ Hezkuntza sisteman (bereziki unibertsitatean) elebitasun ofiziala guztiz barneratua dago. Erresistentziak badira oraindik ere, baina iraganekoak baino motelagoak. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02(17.orr)**

4) ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

Herri-administrazioan

Euskara erabiltzen den heinean inguruan ere bere eragina du eta ingurukoek ere euskara erabiltzen dute, batez ere ahozko komunikazioetan. Idatzizko sormena, oraindik ere, gaztelaniazkoa da. Emailetan, aldiz, gero eta gehiago erabiltzen da euskara. Bilera haundietan gaztelania da nagusi, txikietan berriz euskara gero eta gehiago erabiltzen da. Diskurtsoaren aldetik, diskurtso positibo batek euskararen aldeko jarrera aktiboak berez sortu ditu. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (18.orr.)**

Idatzizko sormena gaztelaniaz

Bilera nagusietan gaztelera nagusi

Erabiltzen den heinean inguruan eragiten da

2.3.5. MOTIBAZIO ETA JARRERAK

Pertzepzioak euskararen ezagutzaren arabera eta diskurtso motaren arabera jasotzen dira

Orokorrean erdaldunak pozik daude eta euskaldunak kezkatuta.

Euskararen normalkuntzan lan izugarria egin da azken 40 urteetan: Ikastolak, helduen euskalduntze eta alfabetizazioa, kultur ekoizpena, udal eta enpresetako euskara planak, sentsibilizazio kanpainak eta abar luze bat. Horiek guztiek badute, hein handi batean, errekonozimendua eta ezagutza euskaldunen artean. Baina euskal unibertsoetik kanpo daudenek ez dituzte horrenbeste ezagutzen, eta ezagutzen ez duenak ez dio aitortzen ez errekonozimendurik ez eta atxikimendurik ere.

Jendea euskal hiztuna ez denean ere euskararen normalizazio eta erabilerarekiko tolerantzia ez ezik ulerkorra ere bada. Beti dago jarrera erradikalagoak erakusten dituenik, sarritan egoera pertsonal edo politiko muturrekoren batek eraginda. Hizkuntza eskakizunen kontua da jendea asko asaldatzen duen gaietako bat. Baina ez nuke esango gatazka dagoenik, eta ez dadila egon, hori litzatekeelako denok galbidean jartzeko arrazoiak / Esku sartzeko publikoak beharrezkoak denean joera kontraesankorrak agertzen dira arlo guztietan (migrazioa, genero berdintasuna...), beraz, hizkuntza gatazka ere bada goela ez da ezkutatu behar, baina dramatizazioa kenduz, ez da arazo bakarria eta beste kontuetan izaten den ardura eta kemena erakutsi behar dute agintariek gai honetan ere / Politika inguruneak sortarazten duen giro gatazkatua, ez dago kalean (are gutxiago beste kezka larriagoak daudenean). **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02(17.orr)**

Pozik edo kezkatuta

Asko edo gutxi eginda

Gatazka sortzeko arriskua eta hau ekiditeko zailtasunak beraz batzuentzat

Hizkuntza gutxitu bat ofizialtzat hartzeak hiztunentzako dakartzan eskubideek hizkuntza-komunitateen arteko gatazka sor dezakete, zeinak ez dira bideratzeko errazak izaten. Ia-ia ezinbestekoa da hizkuntza-eskubideetan oinarritutako legeria izanik, Framing Aldarrikatzailea eta Framing Uzkurra izatea gurean eta ur horietan igeri eginez aurrera jarraitu behar da. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02(17.orr)**

2.3.6. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAK-EZAGUTZA

Gune soziolinguiistikoaren arabera posible da framingaren bi ertzetan mugitzea halabeharrez

Erakunde barruan denetik dago: laguntzeko prest daudenak eta bakean uzteko sentiarazten dutenak. Araba euskalduna aldarrikatzen dutenak eta "Háblame en cristiano" diotenak. Batzuek, azkarregi goazela eta, beste batzuek, oso poliki goazela adierazten dute. Hizkuntza Politika egitea egokia dela baina batez ere eta ia soilik Hezkuntzan, horrekin euskara biziko da eta. Baina, badira ere orain arte egindakoari so eginez, argi eta garbi azpimarratzen dutenak eskolan ikasi dutenarekin bakarrik ez dela lortzen ezer, itxura bakarrik. Euskara gipuzkoarren eta bizkaitarren kontua dela esaten dute hainbat arabarrek, beraien etxetan euskara ez dela INOIZ hitz egin eta Araban bestelako estatusa izan beharko lukeela. Garai zail hauetan, dirua euskararen kontuetan xahutzea pena handia dela, eta ea merezi duen. Administrazioan hainbat langile sartu direla euskarari esker, eta ez jakiteagatik diskriminatuta geratu dira besteak. Euskara koofiziala dela ezin uka, baina harremanetan komunikaziorako tresna bakarria, egokiena, gaztelania da elebakarrentzat. **Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (19.orr)**

3. AURRERA BEGIRAKO IKUSPEGIAK

3.1. LEGEDI ETA ARAUDIA

Oinarrizko lege-erreferenteak egungo gizarte aldaketei egokitzea beharrezkoa jotzen da

Gizarteak nabarmen aldatu du azken 40 urteotan eta erreralitate berriak izan behar du kontsentsurako abiapuntua. EAEko Autonomia Estatutua eta 10/182 Normalkuntzarako Legea oso baliotsuak izan ziren une hartan, baina gaur egun zaharkituta daude eta bestelako osagai berriekin baliatu beharko dira diskurtso berria osatzerakoan. Beste horrenbeste gertatzen zaio 1992. urtean Europako Kontseiluak osatu zuen Erregio edo Gutxiengoan Europako Hizkuntzen Ituna izeneko dokumentuari. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (21.orr.)

Ordenamendu juridikoa aldatzen hasi aurretik helburua zein den jakin behar da

euskararen normalkuntzaren xedea, alegia

Lege-betebeharretatik harago, etorkizunari begira aztertu beharko dugun auzia zera da: zer paper jokatu du euskarak Euskadiko gizarte hizkuntza-aniztasunean? Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (21.orr.)

definizio horretarako oinarrizko printzipio bat: eskubidea

Ezinbesteko baldintza dugu euskal herritar guztiok eskubideak izateko modua bermatzea. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

eta ezinbesteko baldintza: koofizialtasun osoarena

Bi hizkuntza ofizialak maila berean egon behar dute. Eta horrek, zera esan nahi du: Gaztelaniak legez eta moldez duen maila bera izan behar du arlo guztietan Euskarak, orduan izango dira bi hizkuntzak ofizialak eta ez da egongo inor diskriminatuta. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

horretaz gain, ekintza-lerro argiak ezarri

Zerbitzu-hizkuntza izango bada, lege-bermeak oraindik bete ez dituen esparruetarako ekintza-lerro argiak ezarri, epe, baliabide eta helburu jakinekoak. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

Lege marko berri bat egiteko hizkuntzen arteko lehiaren paradigmatik aldendu

Tentsioak berme legalen inguruan sortutako korapiloak dira. Maila horretan oso nabaria da bi framing-en arteko talka, funtsean legeak urritasunaren paradigmatari erantzuten diolako: ofizialkide izateko bi hizkuntzek oreka sendo bat behar dute, eta egoera horretatik oso urruti gaudenez gero, galtzeko duenak atzera egiten du, eta irabazteko duenak, berriz, gehiago nahi du, eta bizkorrago, gainera. Beraz, tentsioak ebitaezinak dira. Baina, tentsioak guztiz saihesterik ez badago ere, lege-abiapuntu egoki batek gatazkarako grina arinduko luke zerbait. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

Berdintasunaren interpretazio anitzak ekiditeko erredakzio irekiagoa eta errealtatearen araberakoak egitea

Testu estatutarioaren erredakzio irekiago eta errealtatearen araberakoagoak gauzak erraztuko lituzke: "Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza" dela esaten da, Gaztelania kanpokoa; Gaztelania ere berezkotzat joko beharko luke. Gaineratu liteke, bai, "Euskarari, endemikoa eta egoera gutxituan egonik babes berezia emango zaiola", baina gaztelaniaren bertakotasuna ukatu gabe. Euskara eta gaztelania euskaldunen berezko hizkuntzak dira eta pauso egokia litzateke gaztelania hizkuntza kanpotar bezala eta gaztelaniadunak arazo bezala hartzeari uztea. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

Europako hizkeran euskararentzat ohikoa den erregio hizkuntza izendatzea, hizkuntza gutxituaren tratamendua

Hizkuntza nazionalekin lerrotatzea, Europako nazioen hizkuntza ofizialaren estatusa edukitzea buruan eta ez "babestu beharreko hizkuntza". Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

Legearen eta araudien interpretazioak dakarren arriskutzat ohartarazten da

Zailtasun eta oztoporik handienak lege-bermearen esparrutik etorriko dira eta, horretan, irmotasuna adierazi behar dute erakunde publikoek / Lege-bermea ezinbestekoa da oinarrizko ofizialtasuna erdiesteko, eta horretan hizkuntza-politika malguak baina era berean irmoak behar dira oraindik. Ez genioke horri beldurrik izan behar eta gutxieneko zoruaren oinarri-oinarria derrigorrezkoa da, beraz / Adostasuna eta ausardia behar dira. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (22.orr.)

Arautzea, euskara beharrezkoa egitea... Gizarte Foroan eztabaidatutakoa

“Askotan egoerak esango digu euskara erabili, edo ez erabili, edo dena delakoa. Beste hainbat egoeratan gutariko bakoitzak erabakitzen du nola komunikatu. Eta hori arautzea, gaitza izateaz aparte, ez dut uste egokia denik”.

“Arautzea, beharrezkoa egitea... Hortik jo behar da. Botere harremanez ari gara. Erakargarritasuna, desideologizazioa, boluntarismoa, horiek ez dute funtzionatzen. Katalunia. Arautzeak funtzionatuko luke”.

“Baina, egia esanda, legea Parlamentuak egiten du, eta Parlamentuan gizartearen isla dago... Nola aldatu gizartea? Jarrerekin, orduan aldatuko da Parlamentua”.

Lege babes handiagoa behar da, eta diskurtso berriak ere bai. Diskurtso bat ez, diskurtso berriak (pluralean) behar dira. Baina biak behar dira, legeak eta diskurtsoak, biak. Gizarte Foroan adostutako ideia

Berdintasunaren legeak arautzea. Gizarte Foroan adostu ez den ideia

3.2. HIZKUNTZA POLITIKA

Diskurtso egituratuak

Batzuek: “Adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarritutako hizkuntza politikaren premia”.

“Kontsentsua lortze aldera, bi ezinbesteko baldintza: Malgutasuna; eta Euskararekiko aldekotasuna”.

Beste batzuek: “Hizkuntza politika erro-errotik berritu beharra dago”.

“Administrazioa euskaldundu. Alor sozioekonomikoa euskaldundu. Helduak euskaldundu. Hedabideetan euskarakuotak ezarri”.

“Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar ditu. Aukeratzeko askatasunaren izenean, euskararen normalizazioaren kontrako indarrak ezkutatu dira euskara ez ikasteko. Normalizazio-prozesua erabat baldintzatzen dute, erdal elebkarren eraginaren bidez”.

Hizkuntza politika berria diseinatu eta abiatu behar da

Aldaketaren kudeaketa izango du bere eginkizunen artean

Egiatzko ebidentzian oinarrituta / errealitateari lotuta

hizkuntza eta elebitasuna jorratzen duten alor guztiekin

Hizkuntza politikaren arrakasta ondo kudeatuko duen politika bat behar da orain. Horretarako garrantzizkoa da politikagileek informaziorik onena izatea hizkuntza eta elebitasuna jorratzen duten alor guztiekin, ikerketaren alorra barne. Europak bultzatu nahi duen egiatzko ebidentzian oinarritzen den hizkuntza politika (evidence based policy). Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (23.orr.)

ikerketa alorra barne

euskal gizartearen aniztasunari erreparatzen diona

Euskadin euskara eta gaztelania ofizialkideak direnez gero, bi hizkuntza-komunitateen harremana antolatzea dagokie erakunde publikoei, hots, komunitate horien eskubide eta betebeharrak, itxaropenak eta beldurrak aintzat hartuz, politika egitea. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (23.orr.)

ezagutza soziolinguistikokoan sakonduz

Hausnarketarako, gaur egun euskal gizartean hizkuntzen aniztasunaren inguruan dagoen pertzepzioa ikertu behar da. Elebakartasunaren borroka erabat gaindituta dago, eta ez da euskara eta gaztelaniaren arteko liskarren ondorioz gertatu, mundu-ikuskera askoz zabalago bat gaineratu egin zaigulako baizik. Nagusitasunaz baino, indarren posizio orekatuaz eztabaidatu egin behar dugu. Adostasunak bilatzeko orduan, gizarte-pertzepzioen azterketa sakonagoaren emaitzak hartu: gaur egungo euskal jendeak bere eguneroko bizitzan hizkuntza-aniztasunarekin dituen harremana zertan den xehe-xehe aztertu eta horren ikasgaiak aplikatzen saiatu. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (23.orr.)

gizarte pertzepzioen azterketa sakona

hizkuntzen aniztasunean dagoen pertzepzioa ikertuz

Neurriak aplikatzeko dauden aukerak eta baldintzak-arriskuak aztertuz

Azter dezagun nolako harremana izango duen euskarak berekin batera garatzen ari diren gainerako hizkuntza-komunitateekin. Zein da aurreikusten dugun euskal hiztunaren hizkuntza-esperientzia? Nolako

funtzio-oreka izango du menderatuko dituen hizkuntzen artean? Zer behar dugu funtzio-oreka hori garatu ahal izango duela bermatzeko? Ezagutza? Erabilera-esparru eta bitartekoak? Masa kritikoa? Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (23.orr.)

Euskararen aurkako taldekoekin gerta litezke gatazkak Administrazio publikoko lanpostu eta eskakizunekin bereziki, baina baita hezkuntza arloan ere / Prozesua presioaren bitartez bizkortzen saiatzea sortzen du arbuizatzea. Kasu horretan politikak beste estrategia har dezala proposatzen da: Euskarak lilura, limurtzea, eta ez inposatzea behar ditu. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (24.orr.)

Hor kokatzen da gero gizarte mailako eztabaida, elebiduntze hori egiteko modua zein den, zer den "azkar" joatea, zer "mantso", zer den lorgarria, noizko izan litekeen, eta abar. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (24.orr.)

Kulturaren, euskararen erabilerak gehikuntza graduala eta garapen jasangarria izan ditzan dagoen mehatxuetako bat da nahitaezko kuoten exigentzia (programazio kulturallean, liburutegietako fondoetan), eta ez lukete bermatuko euskaldunek horiek baliatzea. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (24.orr.)

Eraginkorra izan behar da arriskuak hartuz

Bizikidetzat ahal bidetuko lukeena

Horretarako: elebiduntze progresiboa

"elebiduntze progresiboa" rena: EAEn ofizialak diren bi hizkuntzen arteko desoreka nabarmena orekatzen jarraitu nahi bada (alegia, berdintasuna, erabilera sozialerako eskubideei dagokionez), "elebiduntze progresibo"aren norabidea berretsi behar da etorkizunera begira. Elebiduntze progresiboaren ildoak bi oinarri hauek lituzke, nolabait: a) Etorkizun batean biztanle guztiek izango dute gutxienezko gaitasuna bi hizkuntzetan: hitz egiteko gai izango dira, edo gutxienez, bi hizkuntzak ulertzeko; b) Banakoek, taldeek, erakundeek..., bi hizkuntzak jakinik, askatasuna izango dute zein hizkuntza erabili erabakitzeke edo hautatzeko. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (24.orr.)

Ikuspegi globalarekin jokatu behar da

Gizarteari galdetuz eta etorkizuna irudikatzen jarri

2030/2040 urteetan biztanleria aktibo ia osoa izango da euskara irakasgai gisa edo euskaraz ikasi izana eta, hortaz, nahikotasun maila izango du. Hizkuntzaren ezagutza orokortu hori eremu guztietan erabilera bihurtzeko politika zein estrategia egokiak garatzen hasi beharko litzateke / Hain zaila al litzateke galdetzea gizarteari nolako gizartea nahiko lukeen 40 urte barru? Edo 20 urte barru? Eta argazkia atera eta gero, zaila al litzateke hizkuntza politika egokiak eta adostuak egitea, ez bakarrik euskararena, beste hizkuntzen ere bai? Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (24.orr.)

epe luzeko begirada aplikatuz

Hizkuntza politika konplexurik gabe. Gizarte Foroan adostutako ideia

Hizkuntza probetsiaren errespetua eta garapena elebidun hartzaileak sortzen diren neurrian. Gizarte Foroan adostutako ideia

Derrigortasunaren inguruko eztabaida egon da: a. Ezagutu beharraren derrigortasuna. b. Graduazioa Gizarte Foroan **adostu ez den ideia**

GIZARTEAREN IRITZIA_EZTABAIDA TALDEAK: ZER EGIN ETORKIZUNEAN? PROPOSAMENAK

TEKNOLOGI BERRIAK **baliagarriak izan daitezkeela uste da.** Gainera, gutxika gauzak egin direnen arren, bultzada bat behar dela ikusten da

"Euskarak izan dituen baliabideen barruan, eta arlo desberdinetan eta esparru desberdinetan kriston lana egin duen jendea dagoela jakinda (arlu guztietan: idatzizkoan, teknologia berrietan), baliabide hauek ez dute izan beharreko lekua eduki." (EA, 18-35, Bilbo)

"Nire ustez euskara aurrera doa, izan ere hainbat teknologia aipatu dituzu: google-en badaukazu euskarazko aukera, mugikorretan bebai, wikipedian... hainbat gauzetan." (EA, 18-35, Bilbo)

"Gaur egun gainera teknologi berriekin dena dekozu eskura." (EA, 36-65, Donostia)

"Aldaketa teknologiko guztiekin, tendentzi berri guztiekin, ba ez dakit Ingalaterran modan jartzen bada ez dakit zer, ba euskararen ere presentzia hori egon beharko litzateke. Hizkuntza izan behar duela gaur egunerako garaikide hizkuntza, ez antropologiarako." (EA, 36-65, Donostia)

LIBURUAK: gaztelarako liburuekin konparatuta, euskarazkoak gutxi direla esan dute partaideetako batzuk. Gehien errepikatu den proposamena itzultzea izan da, “modan” dauden liburuak ere euskaraz irakurtzeko egoteko. Honekin lotuta, formatu digitalaren euskarazko liburuen sustapena ere eskatzen da

“Eta liburuetan adibidez egin beharreko zerbait da ze bestela egongo gera horrela eta hemendik 10 urtera egongo gara hemen eta esango dugu, orain dela 10 urte argitaratu ziren 100 liburu itzulita eta aurten beste 100 ba ezin liteke... liburuak eta dokumentuak eta gauzak euskaratu behar dira” (EA, 36-65, Donostia)

“Teniendo en las bibliotecas más libros y más novelas en euskera. Los mismos en euskera que en Castellano.” (ER, 36-65, Donostia)

“Eta liburuei buruz esan duzuna, poesia irakurtzea gustatzen zaizula, eta nahiz eta pirata izan esango dudana, baina, non topatu ditzazkezu euskarazko liburua? Ez daude. Ingeleseztan eta erdaraz bai, baina euskaraz...” (EP, 36-65, Bilbo)

“Liburuek euskaraz dauz txarto itzulita, niri liburu batzuk kostatzen zait pila bat irakurtzea ze hizkuntza denez hain arraroa... ematen du ez dela euskaraz...” (EA, 18-35, Bilbo)

“Askoz be liburu itzuli beharko lituzke” (EA, 36-65, Donostia)

“Cuenta cuentos fáciles.” (ER, 36-65, Donostia)

ANTZERKIAK: batez ere euskara ikasten ari direnentzat, antzerkiak egokiak direla esan dute. Hau sustatzearekin batera, maila diferenteetako antzerkiak ere eskatzen dira, hau da, dena umeentzako edo euskara ondo menperatzen dutenentzat izan beharrean, tartekoentzako ere, hurbiltzen joateko

“En el teatro, conciertos, versos, cuentacuentos...” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Pues igual si es un teatro para “txikis” que se les haga participes.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Para poder ver una obra de teatro en euskera...” (ER, 36-65, Donostia)

“Pero el hecho de ir mezclando cosas motiva para aprender. Algún teatro” (ER, 36-65, Donostia)

“Pero teatro sencillo.” (ER, 36-65, Donostia)

Ikus-entzunezko eta informazioaren industrian euskararen presentzia urria dela uste da: telebistan, aldizkari eta egunkarietan... Hau lan ildo bat izan daitekeela uste, da, nahiz eta, aurretik jakin sektore pribatuak duen indarra. Zinemari dagokionez, azpitoluak asko lagundu dezaketela uste da

“Edo euskaraz dauden pelikulak bakarrik dira umeentzako, olentzero...” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ez dut ulertzen zergatik ez dauden aldizkariak euskaraz, egunkariak euskaraz, ez daukat zinemara joateko aukera euskaraz ikusteko, ez dut ulertzen zergatik aisialdia euskara dago oso instituzionalizatua, bakarrik dago gauza publikoetan eta aisialdia dago bakarrik eremu pribatuetan.” (EA, 18-35, Bilbo)

“La última película que han hecho en euskera ha sido con subtítulos en Castellano y está muy bien porque tú escuchas euskera y te lo traducen...” (ER, 36-65, Donostia)

“Euskara askotan ikusten da bertan dagoen negozio bat bezala, gazteentzat zuzendutako literatura, filmak, marrazki bizidunak... eta garrantzitsua da baina ahaztuta usten dute” (EA, 18-35, Bilbo)

“Los subtítulos en euskera, tener la posibilidad de poder ponerlo en cualquier canal. ” (EP, 36-65, Bilbo)

“Nos centramos solo en televisión. También está la radio.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Que subtitulen para que tu vayas cogiendo el tranquilo” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que doblen películas en euskera.” (ER, 18-35, Bilbo)

“La oferta televisiva es muy corta.” (ER, 18-35, Bilbo)

IKASKETAK: gazteek, batez ere, duten eskakizuna da hau, haiek uste dutelako goi mailako ikasliburuetan, artikuluetan, prestakuntzan... urritasun handia dagoela

“Unibertsitatean euskaraz ikastea ezinezkoa da askotan, ez dinot gradu batera begira baina bai master bat begira zozazenean ez dago posibilitate hori, ez da libururik existitzen” (EA, 18-35, Bilbo)

“Marketing-eko gradua egiteko ez daude libururik, ematen dizute apunteak erdaraz, igual ematen dizuna ba irakaslea euskalduna da baina klaro zuk ikasten duzu erdaldun dauden apunteengatik orduan zure euskara gradua ez da hain euskara gradua, da erdi eta erdi.” (EA, 18-35, Bilbo)

3.3. KOMUNITATEA, EUSKARA ETA BALIOAK

Bizikidetzaren eta aniztasunean oinarrituta / ezberdin artean elkar errespetatuz

Hizkuntza kontuetan ezin gara inor besteen gainera sentitu, ez euskal hiztunak erdal hiztunen gainera, ez alderantziz, baina ezta euskal hiztun abertzaleak ez abertzaleen gainera, eta abar. Tolerantzia ariketa bikainak egiteko aukera paregabeak ematen dizkigu hizkuntzen zelaia. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (25.orr.)

Ezberdinak direnen arteko elkargune orekatua aurkitzea da erronak

Euskalduntze prozesua denon lana da, euskaraz dakitenena eta ez dakitenena ere bai. Dakigunok ez dakitenei gure aldera ekartzen ikasi beharra daukagu, atakatuta sentitu ez daitezen eta hizkuntza guk bezala maitatzen ikasteko eta, poliki poliki, euskara gure hizkuntza nagusi bezala txertatu ahal izateko. Euskarari duen garrantzia eman behar diogu baina lehen erdararekin egin zutena egin gabe, inposatu gabe alegia. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (25.orr.)

Komunitatearekin batera abiatu

Euskal gizarteak eta euskal herritarrek, sektore desberdinetan kokaturik, heldutasuna eta konpromisoa erakutsi dizkigute azken hiru hamarkadetan. Gizarte helduek merezi duten errespetua merezi du euskal gizarteak ere.

Gizartearen nahiari eta ahalmenari erreparatzen dakien diskurtso taxutzea komeni da, gizartea eta herritarrek "nahi eta ezin" baten murgildu gura ez baldin baditugu, behintzat. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (25.orr.)

komunitatearen nahiak entzun eta erantzun

Horretrako: ohiko erakunde eta erabakiguneen sarea bigarren planoan utzi

Inspirazio-iturria bilatzeko, lehen fase baten gutxienez, interesgarria litzateke: a) Gizarte egituratutik (erakundeak, politikagintza, enpresari-elkarteak, sindikalgintza, euskalgintza eta abarretik) alde egitea; b) Herritar arrunt anitzengana jotzea (merkatari, taxi-gidari, kirolari, enpresari, guraso, aitita-amona, arrantzale, karrera amaitu berri ...) / Gakoa: herritarren eskubideetan oinarritutako diskurtsoa eraikitzea eta euskara, behin-betiko, euskal gizarte osoaren altorra den heinean, politikagintzan alderdi guztiek bere egitea. Herritarrekiko gardentasunean eta irekitzean oinarritzen diren gobernantza-molde berriek lagun dezakete eginkizun horretan (gobernu irekiek, legebiltzar irekiek ...). Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (25.orr.)

Gobernantza molde berrien bideti (botere guneekin batera ala horiek gabe) herritarren nahia jaso eta proposamen adostu batean gauzatu

Kontsentsu baten abiapuntua hizkuntzarentzat dugun azken helburuan edo jomugan bilatu behar da: zer da euskara gure kulturaren, nolako balioak ditu, bere izaerari lotua doan hizkuntza galtzeak zer esanahi du herri batentzat, eta abar. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (25.orr.)

“Gazteei galdetu behar zaie, horrelako taldeak egin gazteekin”. Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)

“Gazteei eman modernoa dena, erakargarria, euskaraz, eta kontsumituko dute”. Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)

Euskararen irudia zerekin lotu? Modernotasunarekin? Identitatearekin?.. Gizarte Foroan eztabaidatutakoa

“Euskara modernotasunarekin lotu, modernoa, erraza, erabilgarria”.

BIZIKIDETZA: Elkar ezagutzeko eta ulertzeko uztardurak bilatuz. Hautua ez da izan edo ez izan. Desideologizaziotik bizi behar da, egungo gizartean egoera naturala izango baita hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, gizarte konplexu baten aurrean gaude. a. Hau aurrera eramateko: i. Diskurtso inplizituak hobetsi. ii. Hizkuntza politika eraginkorrak iii. Gizartean eta inguru politikoan eragin. Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskara zentruan duen eleaniztasun baten aldeko hautua era progresiboan. Gizarte Foroan adostutako ideia

GAZTEAK eta EUSKARARI BALIO BERRIAK ATXIKI: Gazteek gizartea interpretatzeko eredu, ikuskera desberdina dute. Testuinguru berri bat eraiki behar da euskarari balio berriak atxikiz: a. Zoriontsuak izateko bidea. b. Plazerra ematen duena. c. Modernitate kontzeptuari lotuz. d. Gizarte eredu progresista bati atxikiz. e. Funtzionalitatearekin lotuz. Gizarte Foroa adostutako ideia

Ezagutza zabalagoa duten belaunaldi berriek euskaraz egingo dute, hala egiteak balio bat eta zentzu bat duela sumatzen duten egoera edo leketan. Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskararen baloreak eta euskal komunitatea balioan jarri behar dira, “zentralitatea” lortu, erdigunean jarri. Gizarte Foroan adostutako ideia

Hizkuntza erabilgarria, multifuntzionala, espresiboa, gozagarria, zorrotza, biziagoa, erakargarria, komunikatiboa behar dugu. Eta ez du zertan beti zuzena izan behar. Gizarte Foroan adostutako ideia

Liderazgo motibatzaile/eraldatzaile baten garrantzia. Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskararen komunitate aktiboan parte hartzeari prestigioa ematea edo erakargarri egitea lortu behar dugu. Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskara sinplifikatu behar da euskararen erabilpena bermatzeko Gizarte Foroan adostu ez den ideia

3.4. DISKURTSOAK

Zoru partekatua izango duen oinarrizko diskurtsoa eraikitzea

Ekimen berriak bideratzeko, diskurtso berria sortu behar da, zeinaren arabera bertan bizi garen denontzat balio duen hizkuntzak, eta denok erabiltzen dugun pertenezia sentimenduen eta ideologiengainetik. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (26.orr.)

Partekatzen diren gutxiengoak

Euskaltzale eta epelen artean: euskara Euskal Herriko hizkuntza da

Euskaltzale eta epelen artean bada zoru partekatu moduko bat. Euskal herriko hizkuntza euskara dela eta artez edo moldez zaindu beharreko zerbait. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (26.orr.)

Euskara gizarte elementu integratzaile bihurtuz

Diskurtso berria eraiki behar da, euskara gizarte elementu integratzaile bihurtuz / Adostasun puntuak badaude. Kasu batzuetan apur bat aurrerago joan daiteke, baina alde aurretik adostasun ahalik eta zabalena bilatuta izan behar du / Gure euskarak kontsentsuz abal baten premia du, oraingoa baino zabalagoa, erabatekoa izatera iritsiko dena, non sentsibilitate guzti-guztiak eroso sentituko diren. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (26.orr.)

Prestigioa aeta lotura afektiboak sustatuz

Diskurtso berritua behar da euskararen inguruko prestigioa eta lotura afektiboa sustatzeko eta euskararen aldeko arrazoi praktikoa emateko.

Beste osagai batzuk

Hitz egitea denok elkar ulertzeko, sentsibilitate desberdinen artean adostasunak bilatuz, konnotazio politikoak eta gatazka politikoak alde batera utzita; b) Hausnarketa soziolinguistikoa eginez, estrategiak bir-pentsatu adostasun puntuak lortzeko; c) Gogoeta gizartera zabalduz, lan pedagogikoa egitea. Pertsonak dinamika horretan konprometitu ezean, hartutako neurriak arrotz eta beraien gogoz kontraktat jo ditzakete; d) Etorkizuneko bizikidetzaren berdintasun eta askatasun oinarri batzuen gainean eraikitzea. Inoren eskubideak urratu gabe, hizkuntzaren aitzakia erabiliz; e) Hizkuntzek komunikaziorako tresnak izan behar dutela aldarrikatuz. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (26.orr.)

- a) Sentsibilitate desberdinen artean adostasuna bilatuz
- b) Konnotazio politikoak alde batera utziz
- c) hausnarketa soziolinguistikoa eginez

Normakuntzarako ideiak

- d) hizkuntza eskubideak
- e) berdintasuna
- f) norbanakoaren askatasuna
- g) muturretatik erdigunera
- h) errespetuaren diskurtsoa sustatu
- i) elebiduntze progresiboa eta betirako elebakartasuna bereiztu
- j) hizkuntza eskubideak, komunitatea, taldea...
- k) hizkuntza al hiltuna?
- l) eleaniztasunaren aldeko diskurtsoa
- m) kontsentsuan oinarritu
- n) Diskurtso ekonomizistari ere heldu

- o) kultura eta hizkuntza ekonomiaren parte dira eta aberastasuna eta dirua sortzen dute ere
- p) Nazioarte mailako ikuspegia izan
- q) kanpoko errealitateak eta esperientziak ezagutu
- r) Hizkuntza ekologia zoru partekaturako funtsa filosofiko gisa

Bizikidetzaren ardatz eta helburu izan daitezke, jende eleanitzeko gizaratean. Aukera egitea, bestea onartzea. Jendeak onartu behar du besteak beste hizkuntza bat nahiago izatea; edo hizkuntza bat edo bestea funtzio batzuetarako edo besteetarako erabiltzea". Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)

"Diskurtso bat eraiki behar dugu elkarbizitzan oinarritua. Komunitate politiko bat osatu behar dugu (nazionala edo ez nazionala), bere araudiarekin, kulturarekin, eta hor euskarak leku bat izan behar du. Leku hori integratzailea izan behar da, denon artean eraikitzen duguna". Gizarte Foroa (talde bateko adostasuna)

DISKURTSO BERRI BAT BEHAR DA? Gizarte Foroan eztabaidatutakoa

"Orain da momentua diskurtso berri bat eraikitzeko, euskara pizten duena edo pizturik mantenduko duena".

"Zalantza bat: diskurtso berri batekin konponduko ditugu euskararen arazo guztiak? Pentsatzea jarrera hobetzetik etorriko dela eraginkortasuna..., nik uste dut oker gabiltzala, ez badira benetako estrategia eraginkorrak planteatzen".

"Niri bai, iruditzen zait jarrera aldaketa inportantea dela, jarrera eta pentsamendu aldaketak behar ditugula".

Hizkuntzen elkarbizitzarako (bizikidetzarako) diskurtsoa eraiki behar da errealitate eleanitzari erantzuteko. Gizarte eleanitza eta immigrazioarekin are eta hizkuntza anitzagoa. Gizarte Foroan adostutako ideia.

Berdintasunaren aldeko diskurtsoa Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskararen ezagutza orokortzen lagundu behar du diskurtsoak. Gizarte Foroan adostutako ideia

Ezagutzaren aldeko diskurtsoa. Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskararen aldeko diskurtsoek, estrategiek eta neurriek uztartuta joan behar dute, ezagutza eta erabilera areagotzeko. Gizarte Foroan adostutako ideia

Euskal diasistemaren hiztunen oinarrizko diskurtsoen lanketa. Gizarte Foroan adostutako ideia

Diskurtsoan ezinbestekoa da lortu denaren inguruko kontzientzia eta harrotasuna garatzea. Gizarte Foroan adostutako ideia

Adostasun handiagoa derrigortasuna balego, diskurtsoan modu inplizituan egon beharko lukeela. Gizarte Foroan **adostu ez den ideia**

GIZARTEAREN IRITZIA_EZTBANDA TALDEAK:

Euskara akordio handi baten erdigunean izatea nahi da, non alderdi politikoek benetako konpromisoa hartzen duten. Euskara tirabiren zentroa izan da eta jakinda zeintzuk izan diren onorioak, eztabaida eraikitzaileen gaia izatera pasatu behar da. Horretarako, denon laguntza behar da, baita gizaratearena ere

"Eztabaida konstruktiboa bai, harriak alde batetik bestera botatzea ez" (EA, 18-35, Bilbo)

"Incluso las corrientes sociales de todos nosotros ayuda mucho más al euskera que las instituciones o que los políticos." (ER, 36-65, Donostia)

"Una vez que estos debates... se normalice más de lo que ya está." (EP, 18-35, Gasteiz)

"Esan dugun bezala euskarak ez du inolako egoera estupendorik eta hori aldatu ahal izateko, egon behar da eztabaida ideologikoa eta politikoa." (EA, 18-35, Bilbo)

"Oso abertzaleak eta ez abertzaleen artean egin behar da akordio bat eta esan..." (EA, 18-35, Bilbo)

"Con un pacto de estado entre los partidos políticos." (ER, 18-35, Bilbo)

"Beraien errentagarritasuna alde begiratzen egiten duten eztabaida bat izan beharrean, izan behar dela benetan euskararen inguruan euskararekiko ekarpenak egiteko edo benetan... ez bilakatu politika merkea egiteko

instrumentu baten, eta horren inguruan lan egingo badezu eta hori jorratuko badezu izan dadila benetan hori jorratuko duzulako.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ni uste dut eztabaida ideologiko politiko horiek egon behar direla. Euskara hizkuntza bezala gizartearen parte da eta gizarteak politika erabiltzen du beraien gauzetaz hitz egiteko eta hizkuntza ere horren barruan sartzen da. Eta gaur egun inoiz baino gehiago.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ideología ,política... mientras no rompamos eso y no lo mezclamos para hacerlo algo natural, no conseguiremos que el euskera sea lo que tiene que ser, algo rico, algo cultural y rico.” (EP, 36-65, Bilbo)

“Hau ia ezaguna dalako eta badakigu ez zaigula ondo joan, 30 urtetako edo 40 urteko esperientzia daukagu. Nahasten dugunean euskara ideologiaren eta politikarekin... ez dugu hanka sartu nahi hemendik aurrera.” (EA, 36-65, Donostia)

3.5. MOTIBAZIOAK ETA JARRERAK

Kontuan izan eta aztertu sorburu mota ezberdinak

Gaur egun zenbait ikertzailek egiten duten bereizketa: ideologia / jarrerak. Ideologia kolektiboa da, komunitatearena (edo bere zati batena), baina beti talde batek partekatzen duena. Jarrerak, ordea, norbanakoarenak dira; eta, baliteke horiek izatea egiaz hizkuntza-politikaren etorkizuna erabaki dezaketenak. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (30.orr.)

- a) Pragmatikoak
- b) Sinbolikoak
- c) Arrazionalak
- d) emoziozkoak

Erdaldunen kasuan praktikaren bidez bultzatzea hobesten da

Agian ez da arrazionalitatean oinarritutako diskurtsoa behar duguna. Diskurtsoetan ez, praktikan dago indarra: Euskaraz ari garenok praktikaren bidez irabazi beharra dugu besteen errespetua. Diseinu bat egin behar da arlo guztietan, euskararen presentzia gehitzeko, erdaldunei nabararazteko zerbait galtzen ari direla, ebidentzian jarri zerbaiten eskas dutela euskarari bizkar emanez bizi direnek. Ikusi behar dute euskara zerbait praktiko, beharrezko eta aberatsa dela, besteekin beste era batera komunikatzeko baliagarria dena. Errespetua irabazi lehendabizi, agian noizbait etorriko da emulazioa. / Beti egongo da kontrako jendea, beti, eta gogor jo dezakete, baina horren aurrean lan zintzoa eta txukuna egitea besterik ez zaigu gelditzen. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (30.orr.)

Konplexutasuna kontuan izanik motibazio-jarreraren lanketarako ezagutza sendotik abiatzea (GAZTEAK)

Funtsezkoa da motibazioa lantzea gazteen artean eta kontuan hartzea ze faktorek eragiten duten motibazioan: identitatea, ezerosotasuna (zuzen hitz egiten ez duteneko konbentzimendua), edo konpromiso emozionalik eza. Azken faktore honek zuzenean garamatza honetara: euskara erraz eta gustagarri egin behar zaie haur eta nerabeei. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (31.orr.)

Aurka dauden gizataldeak motibatzen proposamena

Akaso planteatu behar dena, beste ezer baino lehenago, ustez euskararen aldeko diren diskurtso kaltegarriak ixilerazi eta prejuizio zentzugabekoetatik abiaturiko aurkako klitxeak neutralizatu beharra / Euskararekiko aldeotasuna lortzeko, kontuz ibili behar gara, kontrako jarrerak ez sortzeko. "Estatu bat, Nazio bat, Hizkuntza bat" eta halakoek min egin diezaiekete aldeko jarrera izan lezaketen pertsona batzuei. Beharrezkoa da malgutasuna, minik egin gabe gurera erakartzeko euskaldun ez direnak. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (31.orr.)

ustez euskararen aldeko diren diskurtso kaltegarriak eta aurkako klitxeak neutralizatu

Konbentzimenduak eta konbenientziak bereizten ikasi

Arreta gehiago jarri behar lioke euskal jendeak komeni denari. Beste alor askotan bezala konbentzimenduak eta konbenientziak bereizten ikasi behar luke euskaltzale askok. Barne sentimenduen adieraz-zale handi den jende askotxo somatzen da inguruan, egiten duen horrek nori eta zeri mesede edo kalte egiten dion kontutan izan gabe. Honetan izan behar luke euskaltzaleak arrazionalago. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (31.orr.)

Marketin komertzialaren ikuspegia aplikatzea baliagarria izan daiteke euskararen inguruko sentsibilizazio pizteko

Enpresaren eta merkataritzaren eremuak oso heterogeneoak dira, lurraldearen arabera. Erabilera bultzatzeko, aginte eta kudeaketa mailako arduradunen sentsibilitatea erabakigarria izan daiteke. Sentsibilitate hori, lege-

ezarpenetik ez, baizik eta pertsuasiotik jorra liteke: a) Enpresa mailan, euskara erabiltzeak dakartzan abantailez sentsibilizazioa eta jarrerak areagotzea; b) Kontsumitzailearentzat agerikoak izan daitezen euskararen erabilera bultzatzeko hartzen diren neurriak; c) Itzal handiko pertsonen lekukotasuna baliatzea. Iturria: Delphi 1. saiorako edukien bilduma-txostena_2014.09.02 (31.orr.)

Jarreretan eragiteko emozioa, bizipenak eta bizipozak transmititu behar dira, baina baita praktikotasuna, pragmatismoa. Euskara ezin da asoziatu hizkuntza berak baino atxikimendu gutxiago duten elementuekin. Gizarte Foroan adostutako ideiak

GIZARTEAREN IRITZIA_EZTABAIDA TALDEAK

euskara zabaldu beharra dago, publiko berrietara hurbilduz: “Zubiak eraiki behar dira” (EA, 36-65, Donostia)

euskaldunek egindako gogoeta

“Euskaldun zaharrek eta euskaldun berrien artean dagoen barrera. Batzuetan euskaldun zaharrak ez doguz euskaldun barriak ondo hartzen ez doguz admitiduten eta igual hortik hasi apurtuten eta danak gara euskaldunek eta euskalki desberdina izan arren euskaraz egin dezakegu berba eta hortik hasi.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Ampliarlo a más gente para que todo el mundo lo hable y estés más integrado” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Instituzioek gauza bat egiten badute, pertsona horiek beste gauza bat, beste horiek beste gauza bat, hau da, gu lagunduko diegu hori multiplikatzen, azkenean dena da multiplikazio bat.” (EA, 18-35, Bilbo)

“He pensado en centros cívicos o así como punto de encuentro para gente que no sabe o quiere aprenderlo y que vayan voluntarios para hablar. Porque al final una lengua como mejor aprendes es hablando” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Gu gure izaera malgutzen badugu euskaldun berri bat entzuteko eta onartzeko bera nola hitz egiten duen, gero eta jende gehiago hasiko da euskaraz hitz egiten nahiz eta gaizki hitz egin.” (EA, 36-65, Donostia)

erdaldunek euskaldunengandik espero dutena

“Tener paciencia” (ER, 18-35, Bilbo)

“Tienen que aceptarnos” (ER, 18-35, Bilbo)

“Si tuviera la percepción de que alguien no me va a juzgar por hablar en euskera, tiraría para adelante” (ER, 18-35, Bilbo)

“Aunque le digan que le van a poner con gente que no le va a juzgar por lo mal que hable euskera, yo no creo que esa persona vaya muy contenta” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que te intenten ayudar, que si no sabes alguna palabra te intentes ayudar” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que tengan ganas porque el resto también sepamos. Que estén animados” (ER, 18-35, Bilbo)

Erdaldun zein euskaldun berriek ikasi eta berba egiteko borondatea erakutsi behar dute, lotsa kendu, espazioak ireki eta euskaraz hitz egiteko aukerak biderkatu. Batzuk berba egiteko eta praktikan jartzeko esfortzua egin behar dute, besteek berriz euskara maila eta exigentzia moldatu, euskaraz berba egiteko giro erakargarriagoak sortuz, “zubiak sortuz”.

“Ahora canto en un coro y me hablan todo en euskera; bueno pues lo he aceptado y se me ha hecho la oreja” (EA, 36-65, Donostia)

“Askotan ez dakitenean ondo euskaraz hitz egiten, beldur da hitz egitera, baina kristona” (EA, 18-35, Bilbo)

“Favorecer el acceso a los que no sabemos, pues engancharnos” (ER, 36-65, Donostia)

“Yo lo que quiero es que me enseñen cómo tengo que hacer para ir a una tienda y pedir algo” (ER, 18-35, Bilbo)

“Hace falta actitud, si vamos a un sitio porque queremos nosotros puede funcionar.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Lo más importante es quitar el miedo y hacer hincapié en la cultura” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Hay que perder el miedo a pesar de los errores” (EP, 18-35, Gasteiz)

Euskaraz hitz egiteko beharra sortzea

Bizipenekin lotu behar da, akademikotik, lanetik, legeetatik haratago dagoen hizkuntza da eta

“Niretzat euskara bizipenekin joan behar da lotuta. Zer dira bizipenak? Ba estropadak dira bizipenak, kuriozitatea sartzen zaizu eta hau eta kultura eta nola esaten dan... eta arrauna eta ez dakit zer... bizipenekin hizkuntza bat, kultura bat adierazten duzunean orduan jendea erakarri egiten dezu.” (EA, 36-65, Donostia)

“Ez bere nahia delako eta hori nire ustez aldatu beharko litzateke eta beharra izan beharrean ba motibatzea nahia izatea.” (EA, 18-35, Bilbo)

“El interés puede provocar acercamiento” (ER, 18-35, Bilbo)

“Sabendo que es una necesidad para trabajar, quizás lo que haya que hacer sea valorarlo como algo que enriquece” (ER, 36-65, Donostia)

“Ez da bakarrik euskara ikasteko izan behar, horrelako gauzak egiteko izan behar da euskara eta berarekin datorkion beste gauza batzuk, kultura, historia... eta bizi behar da.” (EA, 36-65, Donostia)

“Lagundu, babestu, eskubidea eman jendeari hasteko ezagutzeko” (EA, 18-35, Bilbo)

“Arreta edo interesa gehitzea era batean edo bestean” (EA, 18-35, Bilbo)

Euskara ez da artifiziala, naturala eta dibertigarria da, kalekoa, eta horrela erakusten duten ekintzak sustatu behar dira

“Naturaltasuna behar da” (EP, 36-65, Bilbo)

“Conseguir que sea divertido” (ER, 18-35, Bilbo)

“Ondarrun dagoen ambiente bera, denok euskalduntzearen beharra herriaren parte izateko, hirira ekarri beharko genuke” (EP, 36-65, Bilbo)

“Que se pueda hacer una mezcla entre enseñar y divertir” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que no sea forzado, que sea algo natural” (ER, 18-35, Bilbo)

Askotan ez da dibertigarriak diren ekintzekin lotzen, horregatik, ekintzak erakargarriak izateaz gain, euskara akademiatik ihes egin behar du. Erabilera sustatzeko modan dauden ekintzetara hurbildu behar da. Euskara bertan egon behar da, egunerokotasunean.

“12 urtetik 20ra ez daukate edukirik euskaraz, eta daukaten bakarra da euskarakoa obligatzen diolako irakurtzeara liburu bat, eta da euskal kulturaz ez dakite zer... eta hori ez da beraietzat atraktiboa naiz eta oso aberatsa izan.” (EA, 36-65, Donostia)

“Ahora hacer deporte está de moda. Es una buena forma de fomentarlo” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Conseguir que sea divertido” (ER, 18-35, Bilbo)

“Hay que hacer que el euskera se use en otro tipo de actividad: deporte, yoga... Lo que atrae es la actividad y encima tienes el punto extra de que hablas en euskera” (ER, 18-35, Bilbo)

“Yo creo que dependería de la actividad, porque si no me identifico con la actividad no voy a ir con ganas” (ER, 18-35, Bilbo)

“Que se pueda hacer una mezcla entre enseñar y divertir” (ER, 18-35, Bilbo)

“Igual incentivando más fiestas tradicionales porque al final es donde más oyes hablar euskera... o incluso yo que sé cultura.” (ER, 36-65, Donostia)

“Si estás a gusto y aprendes a hacer ganchillo y aprendes euskera, no me importaría” (ER, 18-35, Bilbo)

Hala ere, hainbat oztopo ikusten dira hau aurrera eramateko

“Beste ikuspegi batzuetatik planteatzen dutenak ere badaude, eta euskarari moda edo marketing hori ematen diote, benetan dibertigarria izateko edo benetan kristona sentitzeko euskaraz zaudenean.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Si solo hacen partícipes a los “txikis” al final solo aprenden ellos; y los padres también tienen que aprender” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Zenbat espazio ditu euskarak modan dagoen hizkuntza baten bihurtzeko? Oso gutxi.” (EA, 18-35, Bilbo)

“El no vernos en la obligación de estudiar euskera únicamente para tener un título. No por un papel que nos diga que sabemos euskera sino que porque nosotros luego lo veamos como una forma de expresarnos por ahí. Como algo más cultural y no tan académico.” (ER, 18-35, Bilbo)

parte-hartzaileetako askok esan dutenen moduan, euskara inposatutako hizkuntza bezala ikusi da. Horrekin batera, elementu ezkorrak erantzi zaizkio euskarari, eta horrek, askotan, fama txarra ekarri diotela diote. Euskara gutxi edo ezer dakitenen artean jaso dira gai honen inguruan esandako iritzi gehienak. Hala ere, euskaldun askok esan dute, inposaketa ez dela bidea

“Euskera es mucho imposición.” (ER, 36-65, Donostia)

“Primero te lo tienen que poner como obligación pero es que tampoco lo queremos como obligación.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Etorri baino arinago lagun batzuekin egon naiz eta esan diet hona nentorrela, eta esan didate “esan denok pentsatzen duguna...” beno, denek ez, baina askok inposaketa bezala ikusten dute euskara” (EP, 36-65, Bilbo)

“No tienes que imponer un idioma.” (EP, 18-35, Gasteiz)

“Y no como está pasando ahora que si hablas Castellano te ponen un punto rojo y castigado...” (EA, 36-65, Donostia)

“Y ahora asocias el PNV o BILDU con el Euskera porque te lo intentan imponer para trabajar.” (ER, 36-65, Donostia)

“Cuando es imposición no es bueno.” (ER, 36-65, Donostia)

Euretako askok euskarari eragindako efektu ezkorrak gogoratu dituzte: hizkuntza gorrotatu, alderdi politikoeekin lotu... orrialde batzuk arinago kritikatu dena

“Yo creo que por el bien del euskera es malo imponerlo porque la gente hace lo contrario.” (ER, 36-65, Donostia)

“Nire emazteak Bellas Artes eginda dauka eta baita ere klaseak emateko kurtsoa eta arazoak eduki ditu euskararekin, urte bate, beste bat, beste bat... eta azkenean gorrota ez dio hartu ze hitz egiten du.” (EA, 36-65, Donostia)

“Al final el euskera se está poniendo como algo obligatorio y lo que genera es rechazo” (ER, 18-35, Bilbo)

Inposaketaren gairen inguruan, euskaldunek ere beste alde ikusten diote. Batetik, gaur egun “gozatzen” dugun egoera aurretik egin den inposaketari esker lortu dela diote. Beraz, inposaketaren efektu batzuk positibo ikusten dituzte, ez horrenbeste egikera. Euskaldun batzuk ere, inposaketa erdaldunek egiten dutena dela esan dute, gaztelania bakarrik erabiltzearen eta euskararen espazioak murrizten dituztelako. Urteak hemen egon ondoren eta euskaraz berba ez egiteak, askotan, haserrea eragin du

“Hezkuntzan hasteko euskara inposatua izan behar da.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Badirudi euskara inposatzen dela eta ez dakit zer, eske bueno ez dakit baina ni joaten naiz nire auzotik eta ezinezkoa da euskaraz egitea” (EA, 18-35, Bilbo)

“Baina gaztelariarekin ez daukat ezebeze baina gaztelaniaz soilik hitz egiten dutenak eta euskara hor inposaketa moduan ikusten dutenak ba egia da ba askotan deseroso sentitzen direla euskaraz entzuten dutenean eta nik hori ez dut ulertzen.” (EA, 18-35, Bilbo)

“Oso erreza da guretzat erderaz hitz egitea, a ez dakizu, lasai, bagaude beste egunean tipa batekin esan zuen “es de mala educación hablar en euskera” eta esan nien “lo que es de mala educación es estar 20 años aquí y no aprender euskera” eske hori egin behar degu bestela beti izango da.” (EA, 36-65, Donostia)

“Baina ezin duzu inposatu” (EA, 36-65, Donostia)

Horregatik, nahi edo beharrarekin lotu dute askotan euskara eta bere ikasketa prozesua. Orokorrean gauza positiboekin lotzea nahi da, inposaketatik urrun. Hala ere, onartzen da barneko eta norbanako hausnarketa dela hau, eta beraz, euskara norberaren gogoan eta pazientzia egon behar dira

“Yo creo que desde el momento que se cambie la percepción del euskera como una imposición por la idea de que es un idioma para comunicar es cuando se podrá facilitar la entrada del euskera a la vida normal”. (ER, 18-35, Bilbo)

“Pentsatzen dut orain euskara dela jendeak pentsatzen du euskara inposatzen hari dela, orduan nire ustez, ezberdindu behar da inposatzea eta nahia. Orduan ni pentsatzen dut gurasoak inposatu beharrean edo instituzioak inposatu beharrean, gurasoen nahia izan behar dala, bere umeak, bere alabak, bere... bestela pentsatzen dut inposatzen hari direla eta horregatik ba hori efektu negatiboa bezala dala” (EA, 18-35, Bilbo)

“Un uso más allá del que puede ser esa imposición. Un uso porque quieres.” (ER, 18-35, Bilbo)

“Necesidad versus imposición, porque es tan estrecho. Me obligas a estudiar esto para conseguir un trabajo y por otro lado, lo que quieres, y yo a mí cabeza le pido o sea crear esa necesidad dentro de mí.” (EP, 36-65, Bilbo)

“Horregatik esaten dut norbaitek ez badauka interesik, ezin duzu behartu” (EA, 36-65, Donostia)

“Beharra sortu behar da, ez inposaketa... hau da, hiria herrietan egiten den bezala egiteko belaunaldi asko beharko dira...” (EP, 36-65, Bilbo)

“Yo creo que hay que superar todo eso para tirar para delante. Todo más normal, ni todo para nosotros ni todo para ellos.” (ER, 36-65, Donostia)

“Es que no puede haber una imposición.” (ER, 36-65, Donostia)

“Lo tienen que imponer un poco.” (ER, 18-35, Bilbo)

Euskaraz hitz egiteko eta ikasteko arrazoiak

Lan, eskubide edo hizkuntz eskakizunekin duen lotura gairitu eta gizarte eta egunerokotasunarekin uztartu

Aurreko ildo jarraituz, euskara ez da hizkuntza gisa soilik ikusi behar. Inguruan eta bere parte diren elementuak ere goraipatu behar dira

“Pedagogía gizaritari azaltzeko euskara gure altxor bat dela, azken finean da gure... gainera ez dela bakarrik euskara ze nire ustez da izaera bat, kultura bat,” (EA, 18-35, Bilbo)

“Es que yo creo que cuanto más lo utilizas, más bonito es” (EP, 36-65, Bilbo)

“Euskal gizaritean integratzeko tresna izan daiteke” (EA, 18-35, Bilbo)

“Sabido que es una necesidad para trabajar, quizás lo que haya que hacer sea valorarlo como algo que enriquece” (ER, 36-65, Donostia)

Euskara eta lan mundua: euskara lan mundura sartzeko traba gisa ikusteaz gain, euskara ikasteko aitzakia ere bada, baina ez gero erabiltzeko. Gainera, lan esparruan erabiltzen ez dela kritikatu da, batez ere administrazio publikoan

